Euskal Autonomia Erkidegoa

MEMORIA

Sozioekonomikoa 2015

CES EGAB

Consejo Económico y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

HAZKUNDE EKONOMIKOKO URTEA, NAZIOARTEKO ZALANTZA GIROAN

Esku artean duzun dokumentua, irakurle hori, lan handi baten emaitza da. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko pertsona batzuek egin dute, urtero argitaratzen dugun Memoria Sozioekonomikoa egiteko ardura duen batzordeko kideek, hain zuzen. Lan luze baten emaitza da. Hasteko, erreferentziako azterlan eta txostenetan dauden datu sozioekonomiko guzti-guztien bilketa egiten da; datuen iturriak askotarikoak dira, baina denek daukate egiaztatuta euren zehaztasuna. Hornidura horren ostean analisi arretatsua dator, Batzordeko kideek egingo duten eztabaida sakonaren atarian. Eztabaidan parte hartzen duten pertsona horietariko bakoitzak bere iritzi arrazoitua dauka. Hain zuzen ere banakako ikuspegi horri ñabardurak eransten zaizkio, eta aberastu egiten da, taldeko hausnarketan aurrera egin ahala, harik eta, azkenean, adostasunezko dokumentu oparo bat lortu arte, esku artean edo begien aurrean daukazun hau, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkurak hura balidatu eta onartu ondoren.

Memoria Sozioekonomikoa egin duen Batzorde horretako kideen jarrera positibo eta proaktiboak, beste ezer baino lehen, nire esker ona merezi du, EGABeko lehendakaria naizen aldetik. Mila esker, beraz, Batzordeko lehendakari Inmaculada Gallasteguiri eta gainerako batzordekideei. Alfabetoaren araberako hurrenkeran aipatuko ditut, eta ez ordezkatzen duten kolektiboaren arabera, denek ere ekarpen baliotsua egin dute-eta: Raúl Arza, Maribel Ballesteros, Jon Barrutia, Lore Bilbao, Jaime Fernández, Ana García, Pablo Martín, Pedro Martínez de Alegría, Juan Luis Martínez Ordorika, Virginia Múgica, Javier Muñecas, Mikel Ruiz, Antxon Tomasena, Pedro Luis Ustarroz eta Mari Cruz Vicente. Halaber eskerrak eman nahi dizkiet Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Azterlan eta Proiektuen saileko arduradunei, Leire Ozerin eta Arantza Unzurrunzagari. Euren jakintzari, koordinazio lanari eta txostengintzako esperientziari esker argitaratu ahal izan da Memoria Sozioekonomiko hau.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak urtero-urtero argitaratzen duen Memoria Sozioekonomikoa, denbora joan ahala, kontsultarako eta lanerako tresna baliagarri eta malgu gisa sendotu da; izan ere, eskaintzen dituen adierazle eta datu ekonomiko eta sozialen zorroztasunari gehitzen zaizkio Memoria egiteko

prozesuan zehar Batzordeak adostutako gomendioak eta gogoetak. Gogoeta horiek zehatz-mehatz jaso dira Memoria Sozioekonomikoaren ataletariko bakoitzean, kapituluaren edukiaren laburpen doi baten ondoren. Uste dut hausnarketa horiek behar adinako orientabideak ematen dituztela gure erkidegoko arduradun politikoei modu positiboan laguntzeko etorkizuneko aurrerapeneranzko bide zuzena aukeratzen; horregatik, EGABen Memoria Sozioekonomikoaren aurkezpena eta banaketa, lehenengo eta behin, lehendakariak ordezkatzen duen Eusko Jaurlaritzari eta Eusko Legebiltzarrari zuzenduta daude. Erakunde horien zerbitzuan dihardugu, aholku organo gisa. Gogoeta luzeak dira, xehetasunez beteak, ikuspegi praktiko eta errealistatik eginak. Nire ustez, interesekoak dira baita Euskal Autonomia Erkidegoko eragile ekonomiko eta sozialentzat eta, oro har, eraikitzen ari garen gizarte ereduari buruzko kezka eta interesa duten herritar guztientzat ere.

Memoria honetan laburbildu dira 2015eko gertaerak eta urtean zeharko eboluzioa, hiruhilekoz hiruhileko, eta arreta berezia jarri zaie, unean uneko egoeratik harantzago, etorkizuneko joera agerian jar dezaketen aldagaiei, ondorioak ateratzeko eta behar bezala jokatzeko moduan egon gaitezen.

Nazioarteko ziurgabetasuna

Nazioarteko abagune ekonomikoari erreparatuz, ziurgabetasuna handia da eta orain “Brexitarekin” areagotu da. Horrez gain, nazioarteko merkataritza moteldu da, garapen bidean dauden merkatuak gutxiago hazi baitira. 2015. urtean eurogunean egiturazko doikuntzek eta berrikuntzek inbertsioa geldiarazi zuten, nahiz eta Espainiako ekonomiak bere hedapena luzatu. Izan ere, kontsumo pribatuak eta produkzio-inbertsioak dinamismo handiagoa izan zuten. Urte horretan munduko BPGa % 3,1 hazi zen, hain zuzen ere, 2014. urtean baino hiru hamarren gutxiago. NDFk 2016. urterako iragarritakoaren arabera, % 3,2 haziko da eta Eusko Jaurlaritzaren ustez EAEn hazkuntza urtean % 2,5ekoa izango da.

Euskadin susperraldia mantentzea

Nazioarteko abagune ekonomikoak ziurtasunik eza izan arren, proiekzioen arabera, jarduerari eta enpleguari dagokionez, Euskadin 2016. urtean susperraldia mantenduko da, “baina ez da bizituko”.

Aurrekoaren harira, joan den urtean Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera ekonomikoa eurogunearen gainetik hazi zen (% 2,8, % 1,6aren aldean), baina Espainiako batez bestekoaren (% 3,2) azpitik. 2016. urteko lehenengo hiruhilekoan hazkuntzak eurogunekoak baino handiagoa izaten jarraitzen du eta Espainiako batez bestekoarekin bat egiteko joera dago. Hala, hamarren bat azpitik kokatu da.

Joan den urtean barneko eskea % 2,6 hazi zen eta 2,7 puntuko ekarpena egin zion BPGaren hazkuntzari. BPGaren % 2,8ko hazkuntzarekin batzen badugu, 2015. urtean kanpoko saldoaren ekarpena urria suertatu da (0,1 puntu). Industria-sektorearen eboluzio ona eta ekipo-ondasunetan inbertsioaren hobekuntza sendoa, kontsumo pribatua mantentzearekin batera, izan ziren ekitaldiaren bereizgarriak eta joera horrek gaur egun dirau.

Berrikuntza eta nazioarteko bihurtzea

EAE “Estatuko batez bestekoarekin alderatuz, errenta, lan-kostu eta produktibitate altuagoak dituen lurraldea da. Dena den, lehiakortasuna berrikuntzaren eta nazioarteko bihurtzearen inguruan ardaztu behar du”. EGABren arabera, euskal enpresak txikiak dira eta helburu horiek lortzeko eragozpena izan daiteke. Nolanahi ere, “alderdi horri buruz hausnarketa egitea eta jardutea komenigarritzat jo da, berrikuntza eta nazioarteko bihurtzea arriskuan jar baititzake”. Halaber, ezinbestekoak dira enpresa-kooperazioaren eta lankidetza publiko-pribatuaren estrategiak euskal industriari teknologia-eduki gehiago eskaintzeko. Izan ere, “hobetzeko ahalmen handia du, 2020rako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planarekin sinergia egokiak zehazten badira eta automatizazioa nahiz digitalizazioa sartzen badira”. Gaur egun, enplegu eta salmentarik gehienak maila teknologiko ertain-txikiko sektoreetan kontzentratzen dira.

I+G+b-a hobe daiteke

Ahaleginaren adierazlea hobe daiteke. 2014. urtean (% 1,93) europar helburutik (% 3) eta Espainiarako zehaztutakotik (% 2) urrundu zen. “Jarraituz gero, gure enpresa-sarearen lehiakortasuna arriskuan egon daiteke”.

I+Garen emaitzen adierazleak (patenteak, merkataritza-markak…) ere hobe daitezke.

Egoera horren aurrean, Batzordeak “esku hartzen duten ekonomia- eta gizarte-eragile guztien hausnarketa bateratua egitea” eskatzen du. Nahiz eta inbertsio-ahalegin handiagoa egin (Estatuan baino handiagoa, baina erreferentziazko herrialdeetatik urrundua), zergatik ez dira emaitzak hobeak? Berriz ere Batzordeak arestian aipatu den enpresa-dimentsioa ez izatea adierazi du eta, ildo horri eutsiz, honakoa proposatzen du: “eskaintza zientifiko-teknologikoaren politikak eta eskea sustatzeko politikak orekatzea, hala, merkatuan balioa duen ezagutza transferitzeak lehentasuna izan behar du Berrikuntza Sistema eta dinamizatzen duen teknologia zentroen sarea egituratzean”.

IKTei dagokienez, EGABren iritziz, softwarean gehiago inbertitu behar da, sare sozio-produktiboak "industria 4.0" izeneko ereduetarantz eboluzionatzeko. Eremu honetatik irten gabe, Batzordeak gogorarazitakoarekin bat, euskal enpresek merkataritza elektronikoa gutxiago aprobetxatzen badute, aukerak galtzen ari dira, bere pareko europarren aldean.

Argi-ilunak lan-merkatuan

2015. urtean zehar adierazleek okupazio-tasetan datu positiboak finkatu zituzten, jada aurreko urtean hasi ostean, nahiz eta hazkuntza-ratioak neurrizkoak izan. Ikuspegia positiboa suertatu arren, EGABk "argi-ilunak ikusten dizkio lan-merkatuaren portaerari", enplegua sortzean "ez baitator bat halabeharrezko kalitatearekin". Aldi baterako kontratuen batez besteko iraupena beherantz doa. Horrez gain, luzaroan langabezian dirautenen proportzioa handiagoa da eta, ondorioz, taldearen zati garrantzitsua etorkizunean lan-merkatutik baztertua gera daiteke.

Halaber, Txosten Sozioekonomikoa kontuan hartuta, 2015. urtean Euskadin negoziazio kolektiboa eten egin da. Ildo horri jarraiki, indarreko hitzarmenen % 12 besterik ez da sinatu, nahiz eta ekitaldiari hitzarmen luzatuen % 57arekin eta indargabetuen % 20arekin ekin. Egoera horrengatik, orain arte ondorio ezezagunak sortzen ari dira, besteak beste, ordainsariak edo lan-kostuak Estatutako batez bestekoaren azpitik haztea.

Ikasleko gastu handiagoa

Hezkuntzaren arloan, adierazleek Euskadi Espainiako erkidegoen buruan kokatzen dute eta gehienak europar batasunaren gainean daude. EAEk egiten du ikasleko gasturik handiena, autonomia erkidego desberdinak erkatuz gero.

Dena den, kokapen ona hobe daiteke, EGABren arabera. Aurrekoari eutsiz, orientabidea hobetzea gomendatzen du, adar teknikoetan emakumeen egungo partaidetza txikia zuzentzeko. Lan-merkatuarekin konexioa oraindik egiteke dago eta "azterketa tertziarioen eta lan-merkatuko beharren eskaintza nahiz eskearen artean harreman sistematikoagoa" zehaztu behar da.

Populazioa zahartzea

Europar eskualdeak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoak jaiotza-tasarik txikienetarikoa du (EAEko biztanleria 2015. urtean 272 pertsonatan hazi zen, bi urtez jaitsi ondoren). Migrazio-fluxua ere urria da eta biztanleak zahartuak daude, beraz, geroz eta pertsona adindu gehiagori zaindu behar zaio. Zeregin hori, nagusiki, emakumeen esku dago eta beren bizi-kalitatean, baita lanerako aukeretan eta proiekzio profesionalean ere eragiten du.

Testuinguru honetan, EGABk azpimarratutakoaren arabera, 55 urtetik gorako pertsonak (nagusiki, zaindariak eta mendekoak ez direnak) hurrengo urteetan asko haziko dira eta ongizatea ziurtatzeko erronka garrantzitsuak planteatzen dira. Batera hartuta, demografia-erronkak "erantzun orokorrak, koordinatuak eta zeharkakoak eskatzen ditu eta, ildo horretatik, politika publikoak bideratuko dituen eredu orokorra diseinatu behar da EAErako".

Pobreziaren arriskua jaitsi da eta desberdintasuna areagotu ere bai

Pobrezia-arriskuaren eta gizarte-baztertzearen adierazlea azkeneko urtean puntu eta erdi jaitsi zen eta % 15,3an kokatu zen. Ehuneko hori Suedia, Herbehereak edo Finlandiakoarekin aldera daiteke eta Espainiako batez bestekoa (% 29,2) nahiz Europar Batasunekoa (% 24,4) baino txikiagoa da.

Krisiak, ordea, desberdintasunak areagotu ditu. "Fenomeno orokorra da eta gizarte-kohesioa kontuan hartuta oso ondorio negatiboak izan ditzake". Hala, erantzun integrala behar da eta Europar Batzordearen arabera, ondorengoan zehaztuko da: "pertsonengan eta beren hezkuntzan inbertsioa egitean, kalitatezko enpleguak sortzean, berdintasunez merkatuan emakumeak parte har dezan sustatzean eta gizarte-babesean".

Gizarte-babesa

2015. urtean milioi erdi pertsona baino gehiago (541.191, lehenengo hurbilketari jarraiki) Euskadin Gizarte Segurtasunari buruzko Sistemaren onuradun izan zen, hain zuzen ere, aurreko urtearekin alderatuz, % 1,2ko hazkuntza. Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen laurdena (% 24,9) Gizarte Segurantzako prestazio ekonomikoen bitartez estalia dago. EAEn pentsioetan joan den urtean guztira % 3,2 gehiago gastatu zen eta gastuaren nahiz diru-bilketaren arteko saldoa negatiboa mantendu zen.

Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari dagokionez, joan den urtean % 1,5 jaitsi zen Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) hartzaile-kopurua, 15 urtez etengabe hazi ostean. DSBEren onuradunen profila ondorengoa da: emakumea, 40 urtetik gorakoa eta oinarrizko ikasketekin. Atzerrikoak DSBEren onuradun guztien % 36,1 dira (% 27,2 2014. urtean).

2015. urtean Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemarekin (diru-sarrerak bermatzeko errenta, etxebizitzarako prestazio osagarria eta gizarte-larrialdiko laguntzak) gutxi gorabehera 525,2 milioi euro gastatu ziren, hau da, aurreko

urtean baino % 5,5 gehiago. DSBEren oinarrizko zenbatekoa hilean 665,90 eurokoa da, Estatuko batez bestekoa baino % 58,3 handiagoa, alegia, eta autonomia erkidego guztietatik altuena.

EGABren iritziz, gizarte-babeserako euskal sistemak krisiaren ondoriozko beharrak behar bezala estali ditu; “hala eta guztiz ere, sistemak enplegurako bidean ahalegina biziagotu beharko luke eta hobe integratu beharko litzateke enplegua lortzeko zailtasun handiagoak dituzten pertsonentzako politika aktiboekin”.

Francisco José Huidobro Burgos
Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Presidentea

CES EGAB
Consejo Económico y Social Vasco
Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

I KAPITULUA

EKONOMIA EAEN

1. KANPOKO EKONOMI INGURUA 2

1.1. FAKTORE EKONOMIKO NAGUSIAK
1.2. EUROPAR BATASUNA. EUROGUNEA
1.3. ESPAINIAKO EKONOMIA ETA AUTONOMIA ERKIDEGOAK

1.3.1. Espainiako ekonomia
1.3.2. Autonomia erkidegoak

2. EAE-KO ABAGUNE EKONOMIKOA 15

2.1. BILAKAERA OROKORRA
2.2. BARNE-ESKARIAREN AGREGATUAK
2.3. KANPO-ESKARIA
2.4. ATZERRIKO INBERTSIOA

2.4.1. Atzerriko inbertsioa EAEn
2.4.2. Euskal inbertsioa atzerrian

3. SEKTORE PRODUKTIBOAK 30

3.1. ENPRESEN EGITURA ETA DEMOGRAFIA

3.1.1. Enpresen egitura
3.1.2. Enpresa-txandakatzea

3.2. LEHEN SEKTOREA

3.2.1. Nekazaritza, abeltzaintza eta baso ustiapena
3.2.2. Arrantza

3.3. INDUSTRIA
3.4 ERAIKUNTZA
3.5 ZERBITZUAK

3.5.1. Merkataritza
3.5.2. Ostalaritza
3.5.3. Finantza Sektorea

4. PREZIOAK, KOSTUAK ETA ERRENTAK 57

4.1. KONTSUMOKO ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN PREZIOAK
4.2. KOSTUAK
4.3. ERRENTAK

5. SEKTORE PUBLIKOA 64

5.1. DIRU SARRERAK
5.2. GASTUAK
5.3. AURREKONTUKO SALDOA
5.4. SEKTORE PUBLIKOAREN SORPETZEA
5.5. ERKUNDEETAKO TRANSFERENTZIAK

6.	**AZPIEGITURA PRODUKTIBOAK**	**75**
6.1	GARRAKOIA	
6.1.1.	I+G+B-ko Euskal Sistemaren adierazle nagusiak	
6.1.2.	Trenbideko garraioa	
6.1.3.	Airetiko garraioa	
6.1.4.	Itsasoko garraioa	
6.2	ENERGIA: EKOIZPENA ETA KONTSUMOA	
7.	**ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA**	**85**
7.1	I+G+B JARDUERAK	85
7.1.1	I+G+B-ko Euskal Sistemaren adierazle nagusiak	
7.1.2	I+G jarduerak	
7.1.3	Berrikuntza jarduerak	
7.1.4	Europako berrikuntza adierazleen panela, IUS 2014	
7.1.5	KITPren balantzea	
7.2	INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK	100
7.2.1	IKT ekipamenduak eta erabilerak familietan eta biztanlerian	
7.2.2	EAEko enpresen ekipamenduak	
7.2.3	Interneten erabilerak EAEko herritarren eta enpresen artean	
7.2.4	Merkataritza elektronikoa EAEn	
7.2.5	Administrazio elektronikoa	
8.	**EAE-KO EGOERA EKONOMIKOA: LABURPENA ETA GOGOETAK**	**110**

II KAPITULUA

EAE-KO LAN MERKATUA 128

AURRETIAZKO OHARRA 128

1. JARDUERAREN, OKUPAZIOAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA[1]. 130

1.1. JARDUERA
1.2. OKUPAZKOA
1.3. LANGABEZIA

2. KONTRATAZIOEN BILAKAERA, ALDI BATERAKO KONTRATUEN AMAIERA ETA IRAIZPENAK 144

2.1. KONTRATAZIOAREN EGOERA
2.2. IRAIZPEN KOLEKTIBOEN BILAKAERA

3. LAN-HARREMANAK 151

3.1. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA: SOLDATEN IGOERA ETA LANALDIA
3.2. LAN GATAZKA

4. SOLDATAK EAE-N 153

4.1. 2013KO SOLDATA-EGITURARI BURUZKO INKESTAREN EMAITZAK
4.2. 2014KO LAN-KOSTUEN INKESTAREN EMAITZAK

5. EMPLEGU POLITIKAK 155

5.1. ENPLEGU POLITIKA AKTIBOAK
5.2. ENPLEGU POLITIKA PASIBOAK

6. LANEKO OSASUNA 167

7. EAE-KO LAN MERKATUA: LABURPENA ETA GOGOETAK

1 Epigrafe honetan, funtsean, BJAren eta LANBIDEren datuak erabiltzen dira, eta ez Hiruhilekoen Kontu Ekonomikoetatik datozenak (HKE), azterketarako ematen dituzten posibilitateak direla eta. Gogoratu behar dugu iturri desberdinek, batzuetan, emaitza desberdinak eta kontrako bilakaerak ematen dituztela. HKEek enpleguari buruz ematen duten informazioa kontsultatzeko, jo beza irakurleak Memoria honetako I. kapitulura (EAEko ekonomia).

CES EGAB
Consejo Económico y Social Vasco
Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

III. KAPITULUA

BIZI-KALITATEA EAE-N 177

1. DEMOGRAFIA 178

1.1. OINARRIZKO ADIERAZLE DEMOGRAFIKOEN BILAKAERA

1.1.1. Populazioaren berezko mugimendua
1.1.2. Migrazio-mugimenduak
1.1.3. Ezkontzak

1.2. IMMGRAZIOA EAE-N

1.2.1. Testuingurua: Immigrazioa Europar Batasunean
1.2.2. Bilakaera demografikoa
1.2.3. Elkarbizitza eta ongizatea
1.2.4. Immigrazioaren inpaktu ekonomikoa

1.3. FAMILIAK ETA LANEKO BIZITZA, BIZITZA PERTSONALA ETA FAMILIA UZTARTZEA

1.3.1. Uztartzeko betebeharrak
1.3.2. Familiei laguntzeko politika publikoak

2. HEZKUNTZA ETA KULTURA 199

2.1. HEZKUNTZA

2.1.1. Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzak
2.1.2. Unibertsitateko irakaskuntzak
2.1.3. Hezkuntza-adierazleak

2.2. KULTURA

2.2.1. Finantzaketa eta gastua kulturan
2.2.2. Familien gastua kulturaren kontsumoan

3. EAE-KO NATUR INGURUNEAREN EGOERA 221

3.1. AIREAREN KALITATEA

3.2. UR GEZAREN BILKETA ETA KONTSUMOA

3.3. HONDAKINEN SORRERA ETA KUDEAKETA

3.3.1. Hiri hondakinak
3.3.2. Hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak

3.4. INGURUMENAREN BABESA ETA MANUFAKTURA-INDUSTRIA

4. EAE-KO BIZI-BALDINTZAK 229

4.1. BIZI-BALDINTZEI BURUZKO 2014KO INKESTAREN EMAITZAK

4.2. PGDI 2014: DESBERDINTASUN ADIERAZLEAK

4.3. BIZITEGI-BAZTERKETA LARRIA ETXERIK GABEKO PERTSONAK

5. INTERESEKO TALDEAK: 55 URTETIK GORAKOAK 241

5.1. EZAUGARRI DEMOGRAFIKOAK

5.1.1. Datu demografikoak
5.1.2. Bizikidetza-ereduak

5.2. ERLAZIO JARDUERAREKIN

5.3. GIZARTE-BIZITZA ETA EGUNEROKO BIZITZA

5.3.1. Gertutasuna eta gizarte harremanak
5.3.2. Laguntza trukatzea
5.3.3. Eguneroko bizitza

5.4. BIZI-BALDINTZAK

5.4.1. Diru-sarrerak
5.4.2. Osasuna, mendetasuna eta gizarte baliabideak
5.4.3. Pobrezia eta gizarte bazterketa
5.4.4. Ongizatea
5.4.5. Etxebizitza eta irisgarritasuna

5.5. ZAHARTZE AKTIBOA

5.5.1. Zahartze Aktibokko indizea
5.5.2. Zahartze Aktiborako 2015-2020 Euskal Estrategia

6. OSASUNA ETA OSASUN SISTEMA 259

6.1. OSASUN EGOERA

6.1.1. Heriotza tasa
6.1.2. Bizi-Itxaropena

6.2. OSAKIDETZAREN LAGUNTZAKO JARDUERA

6.3. GASTUA OSASUNEAN

7. ETXEBIZITZA 269

7.1. ETXEBIZITZAREN ESKAINTZA

7.1.1. Salgai dauden etxebizitzen eskaintza eta prezioak
7.1.2. Alokairu araubidea
7.1.3. Etxebizitzaren prezioen erkaketa, autonomia erkidegoen arabera
7.1.4. Eraikuntza jarduera eta etxebizitza

7.2. ETXEBIZITZAREN ESKARIA

7.2.1. Etxebizitzaren beharrak eta eskaria
7.2.2. Familien finantza-ahalegina
7.2.3. ETXEBIDEn erregistraturiko etxebizitza babestuaren eskaria: bajei buruzko azterketa

7.3. EHIGIEZINEN ARLOKO JARDUERA: ETXEBIZITZA SALEROSKETA

7.4. ETXEBIZITZA POLITIKA

7.4.1. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Politika
7.4.2. Foru Aldundien etxebizitza politika

8. BIZI KALITATEA EAE-N: LABURPENA ETA GOGOETAK 288

IV KAPITULUA

GIZARTE BABESA EAEN 310

1. GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK 311

1.1. GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK TRANSFERITU GABEKO KUDEAKETAREKIN

1.2. TRANSFERITUTAKO KUDEAKETA DUTEN GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK: KOTIZAZIORIK GABEKO PRESTAZIOAK

1.2.1. Gizarte Segurantzaren Kotizaziorik gabeko pentsioak
1.2.2. Gizarte Ongizateko Funtsaren laguntzako pentsioak
1.2.3. MGL Prestazioak

2. POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKERIAREN AURKAKO NEURRIAK EAE-N 318

2.1. DIRU SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA

2.1.1. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta
2.1.2. Etxebizitza gastuetarako Prestazio Osagarria
2.1.3. Gizarte Larrialdiko laguntzak

2.2. GIZARTERATZEA LAGUNTZEKO PROGRAMAK

2.2.1. Gizarte esku-hartzearen esparruan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak.
2.2.2. Laneratze enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzak

3. MENDETASUNERAKO ARRETA 325

4. GIZARTE AURREIKUSPENEKO SISTEMA OSAGARRIAK EAEN 327

4.1. ZENBAKI HANDIENAK

4.2. ZERGA ARAUBIDEA

5. GIZARTE BABESA EAE-N: LABURPENA ETA GOGOETAK 330

V KAPITULUA
ARAUGINTZA EAEN 335

GLOSATEGIA 340

I. KAPITULUA

Ekonomia EAEn

1. KANPOKO EKONOMI INGURUA

Kapitulua hiru epigrafetan dago bananduta. Lehenik eta behin, munduko abagune ekonomikoa azaltzeko faktore ekonomiko nagusiak aztertuko dira, arlo ekonomiko nagusien arteko desberdintasunak aintzat hartuta. Bigarrenik, eurogunearen egoera zehatza aztertzen da, baita 28KO EBrena eta estatu kide bakoitzarena ere (Per capita BPGd-a, BPGd-aren egiazko hazkundea, langabezia-tasak, produktibitateak, inflazioa eta finantza publikoak). Azkenik, hirugarren epigrafeak, alde batetik, Estatuko egoera ekonomikoa aztertzen du (egoera makroekonomikoa, ordainketa-balantza, agente publikoen gastua, zerga-bilketa eta Estatuak aintzatetsitako betebeharrak), eta bestetik, autonomia erkidegoetan BPGd-aren eta langabezia-tasen aldetik gertaturikoari buruzko ikuspegi laburra emango da.

1.1. FAKTORE EKONOMIKO NAGUSIAK[1]

Munduko ekonomiak pixkanaka suspertzeko bidetik jarraitu zuen 2015ean, baina hazkunde ekonomiko globala pixka bat moteldu egin zen aurreko urtearekin alderatuta. NMFren arabera, aurrera jarraitu zuen munduko ekonomiak, baina erritmo motel eta hauskorrean.

Herrialde aurreratuetako jarduera ekonomikoak pixka bat hoberantz egin zuen. Ekonomia hasiberrietan, berriz, motelaldia gertatu zen; izan ere, heterogeneotasun nabarmena dago herrialdeen eta eskualdeen artean.

Ekonomia hasiberrietako hazkunde ekonomikoaren erritmoa moteldu egin zen, honako hauek direla medio: ziurgabetasun handiagoa, egitura arloko eragozpenak (azpiegituretako botila-lepoekin loturikoak, enpresen ingurune ez oso egokia eta lan-merkatuetako lehiarik eta produkturik eza) eta kanpoko finantzaketa eskuratzeko baldintzak gogortu izana.

Bereziki, lehengaien prezioen jaitsierak motelaldi handia ekarri zuen lehengaiok esportatzen dituzten ekonomietan. Lehengaien herrialde inportatzaileetan, aldiz, erresistentziarako ahalmen handia erakutsi zuen hazkundeak. Alabaina, prezio horiek jaisteak ondorio positiboa ekarri zuen, oro har, munduko eskarian,

I.1.1. KOADROA. ALDAGAI EKONOMIKO NAGUSIEN LABURPENA

	2014	2015
BPG (urteko ehuneko aldaketa)		
Mundukoa	3,4	3,1
Ekonomia aurreratuak (1)	1,8	1,9
AEB	2,4	2,4
Japonia	0,0	0,5
Eurogunea	0,9	1,6
Beste ekonomia aurreratu batzuk (G7 eta eurogunea kanpo, baina Letonia barne)	2,8	1,9
Garatzen ari diren ekonomiak eta garatu berriak	4,6	4,0
Latinoamerika eta Karibe	1,3	-0,1
Brasil	0,1	-3,8
Mexiko	2,3	2,5
Estatu Independenteen Erkidegoa	1,0	-2,8
Errusia	0,7	-3,7
Errusia kanpo	1,9	-0,6
Asian garatzen ari diren ekonomiak eta garatu berriak	6,8	6,6
Txina	7,3	6,9
India	7,2	7,3
ASEAN (Filipinak, Indonesia, Malasia, Tailandia eta Vietnam)	4,6	4,7
Europan garatzen ari diren ekonomiak eta garatu berriak	2,8	3,5
Ekialde Ertaina, Afrikaren Iparraldea, Afganistan eta Pakistan	1,3	-0,1
Saudi Arabia	3,6	3,4
Afrika subsahararra	5,1	3,4
Ondasun eta zerbitzuen munduko merkataritza *(batez bestekoa aldaketa O eta Zen munduko esportazio eta inportazioen urteko %)*	3,5	2,8
Kontsumitzailearentzako prezioak		
Ekonomia aurreratuak	1,4	0,3
Ekonomia hasiberriak eta garatzen ari diren ekonomiak	4,7	4,7
Lehengaien prezioak *($) ald. (abendua-abendua)*		
Elikagaiak	-4,2	-15,2
Industria-produktuak (ez metalezkoak)	-20,8	-11,8
Industria-produktuak (metalezkoak)	-2,7	-27,6
North Sea Brent petrolioaren prezioa ($/upela, abend-abendua ald.)	-44,0	-39,1

(1) Ekonomia aurreratuak: AEB, Kanada, Japonia, Euroaren Eremua, Erresuma Batua, Danimarka, Suedia, Norvegia, Zipre, orain dela gutxi industrializatu diren Asiako ekonomiak, Israel, Islandia, Australia eta Zeelanda Berria. Orain dela gutxi industrializatu diren Asiako ekonomiak: Hego Korea, Taiwan, Hong-Kong, Singapur.
(2) Bermerik gabeko maileguen egun baterako interes-tasa.
***Iturria: NMF "Munduko ekonomiaren aukerak" (2016ko apirila) eta Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioa "Adierazle ekonomikoen laburpena*. Taulak eta grafikoak. 2016ko otsaila"**

1 Hainbat iturritatik jaso da epigrafe honetan emandako informazioa: Nazioarteko Moneta Funtsa, Europako Banku Zentrala eta Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioa.

zeren eta petrolioaren herrialde inportatzaileek gasturako joera handiagoa erakutsi baitzuten herrialde esportatzaileek baino. Hala ere, zenbait kasutan, kontsumorako eragin ona espero zena baino txikiagoa izan zen.

Hala, urte guztia hartuta, 2014. urtearekiko, munduko BPGd-ak, erosteko ahalmenaren parekotasunaren arabera haztatuak, %3,1 gorantz egin zuen, NMFren estimazioei jarraiki, 2014rako zenbatetsitako ratioaren azpitik (%3,4). Bestela esanda, munduko BPGd-aren hazkundeak txikia izaten jarraitu zuen.

Ekonomia aurreratuetan %1,9ko hazkundea izan zen (2014an baino %0,1 gehiago), non %2,4 hazi baitzen AEBko BPGd-a (2014ko ratio bera), eta eurogunekoa, berriz, %1,6. (%0,9 2014an), eta Japoniakoa %0,5 hazi zen (%0 2014an).

Bestalde, ekonomia hasiberriak eta garapen-bidekoak gutxi gorabehera %4ko tasan hazi ziren, aurreko urteko %4,6ko hazkuntzaren aldean. Ildo horri eutsiz, Europako ekonomia hasiberriek %3,5 (%2,8 2014. urtean) eta Asiakoek %6,6 (%6,8 2014. urtean) egin zuten gorantz. Latinoamerika eta Karibe %0,1 igo ziren, 2014ko %1,3ren aldean.

Txina ekoizpen-ereduaren aldaketa estrukturalerako prozesuan dago murgilduta, inbertsiotik kontsumora eta industriatik zerbitzuetara hain zuzen, eta %6,9ko hazkunde-tasa izan zuen (ratiorik txikiena 1990etik). Brasilek %3,8ko jaitsiera izan zuen, aurreko epealdiko %0,1eko igoeraren aldean. Errusiak, berriz, %3,7ko beherakada izan zuen, 2014. urtean %0,7 hazi ondoren, hain zuzen ere emaitzarik txarrena sei urtean. Herrialde handien arteko salbuespena India izan zen; izan ere, aurrekoa baino hamar batekin hobetu zuen emaitza (%7,3, 2014ko %7,2ren aldean).

Munduko merkataritza hazi egin zen, baina hazkunde ahula izan zen. Haren hazkunde-tasa %2,8koa izan zen, BPGd-aren hazkundearen azpitik, eta erlazioa dago haren bilakaeraren eta inbertsioaren hazkunde txikiagoaren artean merkatu hasiberrien ekonomietan.

Prezioen bilakaerari dagokionez, lehengaien prezioen beherakada handiak (bereziki energiaren prezioetan) eragin nabarmena izan zuen munduko inflazioaren murriztapenean 2015ean.

Ekonomia aurreratuetako inflazioaren maila orokorra, %0,3 batez beste, txikiena izan zen munduko finantzen krisia hasi zenetik, gehienbat lehengaien prezioen jaitsiera handiaren ondorioz. Urtearen amaierarako, berriz, goranzko bidea hartu zuen. Goranzko merkatu askotan, inflazioa murrizteko lagungarria izan zen petrolioaren prezioaren eta beste lehengai batzuen jaitsiera (elikagaiak barne, pisu handiagoa baitute goranzko merkatuetako eta garapen bidean diren merkatuetako ekonomien kontsumitzailearentzako prezioen indizeetan), baina zenbait herrialdetan, Brasilen, Kolonbian eta Errusian esaterako, monetaren balio-galera handiek indargabetu egin zuten neurri handi batean lehengaien prezioen murriztapena. Hala, gora egin zuen inflazioak.

Petrolioaren prezioek txikiak izaten jarraitu bazuten ere, hegazkortasun handia erakutsi zuten 2015. urtean. 2014ko ekainean etengabe 112 $/upelako preziotik 2015eko erdialdeko 48 dolarretara, baina aldi batez berreskuratu egin ziren 2015eko maiatzera arte. Urteko bigarren seihilekoan, aldiz, berriro egin zuten behera. Hala, 2014 eta 2015 artean, %39,1 jaitsi zen Brent upelaren batez besteko prezioa (abendutik abendurako aldakuntza-tasa).

Energiakoak ez diren lehengaien prezioek beherantz jarraitu zuten, eskaintzagatik nahiz eskariagatik. Munduko eskaria gutxitu izanak (bereziki Txinan, metalezko zenbait lehengairen munduko eskatzailerik handiena baita) handitu egin zituen beheranzko presioak energiakoak ez diren lehengaien prezioen gainean. Elikagaien prezioen jaitsierak, funtsean, eskaintzaren hazkundea islatu zuen.

Finantzen eta monetaren arloko baldintzei dagokienez, nahiko maila txikiei eutsi zieten finantza-merkatuen hegazkortasunak eta arriskua erabat baztertzeko joerak urterik zatirik handienean. Alabaina, hirugarren hiruhilekoan, hegazkortasuna nabarmen handitu zen Txinako burtsetako merkatuen kotizazioen zuzenketa handiaren eraginez.

Testuinguru horretan, Europako Banku Zentralak %0,05ean egonkor eutsi zion Euroguneko egun baterako esku-hartzearen tasari (ehuneko horretan kokatu zuen 2014an).

Euroguneko diru-merkatuko interes-tasei dagokienez, urteko batez besteko balioa kontuan hartuta, epe guztietan murriztu ziren. Horrela, hilabete bateko Euribor indizea % 0 izan zen urteko lehenengo hiruhilekoan, eta % -0,16 laugarren hiruhilekoaren amaieran. Hiru hilabeteko Euribor indizea % -0,05etik % -0,09ra igaro zen lehen eta laugarren hiruhilekoen artean; sei hilabeteko Euribor indizea % 0,13tik % -0,01era igaro zen; eta urtebeteko Euribor indizea % 0,26 izan zen urtearen hasieran eta % 0,09 urtearen amaieran.

I.1.2. KOADROA. FINANTZEN ETA MONETEN ARLOKO BALDINTZAK

	2014	2015
Esku-hartzearen interes tasa *(epealdiaren amaieran)*		
EBB	0,05	0,05
AEB – funts federalen xedeko tasa	0,25	0,5
Japonia – Call Money (2)	0,10	1,1
Euroaren aldaketa-tasa *(EUROAREN balio-irabaztearen (+) edo balio-galtzearen %, abendua-abendua)*		
Euroko dolarra	-10,0	-11,8
Euroko libra esterlina	-5,7	-7,9
Euroko yen japoniarra	3,8	-10,0
Burtsa: kotizazio indizea *(ehunekoen ald. abendua-abendua)*		
Dow Jones (New York)	7,5	-2,2
Nikkei	7,1	9,1
Euro Stoxx zabala	1,7	8,0
Ibex 35	3,7	-7,2

***Iturria: NMF "Munduko ekonomiaren aukerak" (2016ko apirila) eta Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioa "Adierazle ekonomikoen laburpena.* Taulak eta grafikoak. 2016ko otsaila"**

AEBko Erreserba Federalak eta Japoniako Bankuak, berriz, handitu egin zituzten beren esku-hartzearen tasak. Hala, AEBko tasak %0,5ean bukatu zuen 2015ean (2014ko %0,25aren aldean); eta Japoniako Bankuak, berriz, %1,1ean (aurreko urteetako %0,1en aldean).

Dibisen merkatuari dagokionez, AEBko dolarraren egiazko aldaketa-tasak 1,09 $/€-an bukatu zuen urtea, 2014ko 1,23$/€-ren aldean. Hots, %11,8ko balio-galera izan zuen euroak. Euroak balio-galera izan zuen yenarekiko eta libra esterlinarekiko ere.

Munduko burtsako merkatuetan, IBEX 35ek urte arteko %7,2ko jaitsiera izan zuen (2015eko abenduan, 2014ko abenduaren aldean), 2014ko %3,7koa hazkundearen aldean; Nikkei %9,1 hazi zen, 2014. urteko %7,1en aldean; Dow Jones %2,2 jaitsi zen (2014. urteko %7,5en aldean) eta azkenik Euro Stoxx zabalak %8 egin zuen gora (%1,7 aurreko urtean).

1.2. EUROPAR BATASUNA. EUROGUNEA

Euroguneko ekonomiak bereziki jasan zituen nazioarteko inguruneko funtsezkoak diren hiru alderdi 2015. urtean: jarduera ekonomikoaren aldetik gero eta desberdintasun handiagoa izatea herrialde aurreratuetan eta goranzko ekonomietan; munduko merkataritzaren ahulezia eta eskala globaleko presio inflazionista murritzak, hain zuzen energiaren prezioen jaitsiera berrien eta oraindik handia den ahalmen produktiboaren eraginez.

Alabaina, kanpoko ingurunea ahuldu bada ere, sendoa izateari eutsi zion euroguneko jarduera ekonomikoak barne-eskariaren hobekuntzaren ondorioz. Funtsezkoa izan zen eurogunerako konfiantza indartzea: kontsumitzaileena, gastua bultzatzeko, eta enpresena, motelaldia eta inbertsioa suspertzeko, baita bankuek kreditua gehitzeko izan duten konfiantza ere.

Hala, 2013ko bigarren hiruhilekoan eurogunean hasitako pixkanakako susperraldiak jarraitu egin zuen 2015 urte osoan. Jarduera ekonomikoaren urte arteko hazkunde-tasa, batez beste, %1,5ean kokatu zen 2015ean, mailarik altuenean 2011. urtetik hon.

Europako Banku Zentralaren arabera, hobetu egin zen barne-eskaria 2015ean, eta batez beste, 2007tik izandako gorakadarik handiena izan zen. Kontsumo pribatua indartu izana dugu susperraldi ekonomikoaren faktore nagusia; izan ere, nahikoa orokorra izan zen indartzeko joera hori euroguneko herrialdeetan. Zehatzago, urte arteko %1,6ko hazkundea izan zuen kontsumo pribatuak. Bestalde, inbertsioak ere aldakuntza-tasa positiboa izan bazuen ere, motelaldian murgildu zen, zenbait herrialdetako erreforma estrukturalen arloko nahikoa aurrerapen motelengatik eta hainbat sektoretako balantzeen beharrezko egokitzapenengatik. Gainera, %0,1eko ekarpen negatiboa izan zuen kanpoko eskariak BPGd-an, 2014ko erdialdetik euroaren balio-galera nahikoa handiaren ondoren esportazio-kuotek gora egin bazuten ere.

Ildo horretan, kontuan hartu behar da ezen, goranzko ekonomien motelaldia euroguneko esportazioen hazkunderako oztopa izan bazen ere, 2014. urteko erdialdetik euroaren aldaketa-tasak izan zuen balio-galera nabarmena lagungarria izan zela esportazioen jarduerarako eta, horren ondorioz, gora egin zuten euroguneko esportazio-kuotek. Esportazioen jokabidearen oinarria eraketa geografikoan izandako aldaketa izan zen, hots, ekonomia aurreratuek, AEBek adibidez, esportazio gehiago jaso zituzten eurogunetik. Horrez gain, euroguneko herrialdeen arteko merkataritzak goranzko bidean jarraitu zuen 2015ean, euroguneko barne-eskariaren bilakaera onaren ondorioz.

Hala, 2015ean, aurreko hiru urtean izandakoak baino handiagoak izan ziren inportazioen eta esportazioen hazkunde-tasak.

Eskaintzaren aldetik, nahikoa orokorra izan zen ikusitako susperraldia. Zerbitzuen eta industriaren BEGa (eraikuntza kanpo utzita) antzeko abiaduran hazi zen (kasu bietan %1,5), eta eraikuntzakoa, berriz, neurri txikiagoan (%0,1). Hala, Europako Banku Zentralaren arabera, zerbitzuen BEGak goranzko bideari eutsi zion, eta krisiaren aurreko gehieneko mailatik gora kokatu zen. Industriako BEGa (eraikuntza kanpo utzita) krisiaren aurreko mailatik behera izan zen, baina pixkanaka gorantz etorri zen. Eraikuntzako balio erantsiak, aldiz, 2008an (krisia baino lehen) lortutako gehieneko mailetatik nahikoa maila txikiagoetan jarraitu zuen.

Lan-merkatuek suspertzeko bidean jarraitu zuten 2015ean. Goraka jarraitu zuen landunen kopuruak 2015ean. Sektoreka, enplegua gehienbat zerbitzuetan hazi zen. Industriako landunen kopuruaren hazkundea (eraikuntza kanpo utzita) txikia izan zen, eta eraikuntzan, berriz, behera egin zuen. Landuneko produktibitatearen urte arteko hazkundeak zero azpikoa izaten jarraitu zuen.

Langabezia-tasak beherantz jarraitu zuen 2015ean, eta %10,9an kokatu zen 2015eko laugarren hiruhilekoan, 2012ko hasietatik izandako txikiena. Alabaina, "*Europako Banku Zentralaren urteko txostena, 2015*" delakoaren arabera, 2013ko erdialdetik hona euroguneko langabezia-tasa murriztu bada ere, maila handietan jarraitu zuten lan-merkatuaren malgutasun-mailako adierazlerik zabalenek (kontuan hartzen dituzte lanaldi partzialean lan egitera behartuta dauden langileak eta lan-merkatutik irten direnak).

I.1.3. KOADROA. EURO GUNEKO ADIERAZLE EKONOMIKO NAGUSIAK (urteko aldakuntza-tasak)							
	2013	2014	2015	2015			
				I	II	III	IV
BPGd-a merkatuko prezioetan	**-0,2**	**0,9**	**1,5**	**1,3**	**1,6**	**1,6**	**1,6**
BARNEKO ESKARIA							
Gastua azken kontsumo pribatuan	-0,6	0,8	1,6	1,6	1,7	1,8	1,5
Gastua azken kontsumo publikoan	0,2	0,8	1,3	1,1	1,2	1,2	1,6
IOF finkoa	-2,5	1,3	2,6	2,0	2,6	2,4	3,3
KANPOKO ESKARIA							
BPGaren aldaketa-tasari ekarpena	0,4	0,0	-0,1	0,0	0,4	-0,2	-0,5
Esportazioak	2,1	4,1	4,9	5,4	6,1	4,6	3,6
Inportazioak	1,3	4,5	5,6	6,0	5,8	5,5	5,3
Egiazko BEG-a							
Nekazaritza	3,3	3,1	0,9	0,6	0,6	0,2	1,6
Industria	-0,5	0,6	1,5	1,2	1,8	1,9	1,1
Eraikuntza	-3,3	-0,8	0,1	-1,0	0,1	0,2	0,9
Merkatuko zerbitzuak	0,1	1,1	1,5	1,3	1,6	1,5	1,6
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA							
Enplegua, guzt. (urte arteko aldakuntza-tasa)	-0,7	0,5	1,0	0,8	0,9	1,0	1,2
Lang.-tasa (Biztanleria aktiboaren gaineko %)	12,0	11,6	10,9	11,2	11,0	10,7	10,5

Iturria: Espainiako Bankua (Estatistikak, Adierazleen laburpena. Eurogunea. Adierazle ekonomiko orokorrak). 2016ko maiatzak 20

Estatu kideetara mugatuz, EUROSTATen arabera, egoera honakoa da:

Per capita BPGd-a, PPSen neurtua[2]. Analisia mailaren baldintzetan eta ez eboluzio-baldintzetan egiten da, EB28ren batez bestekoa kontuan hartuta; EB28=100.

2014. urtean eurogunearen batez bestekoaren balio bera edo gainetik aurkeztu duten herrialdeak (107) hurrengoak dira:[3] Luxenburgo (266), Irlanda (134), Holanda (131), Austria (130), Danimarka (125), Alemania (124), Suedia (123), Belgika (119), Finlandia (110), Erresuma Batua (109) eta Frantzia (107).

Euroguneko batez bestekoaren azpitik baina %70en gainetik hauek daude: Italia (96), España (91), Txekiar Errepublika (85), Malta (84), Eslovenia (83), Zipre (82), Portugal (78), Eslovakia (77), Estonia (77), Lituania (75) eta Grezia(73).

Azkeneko tokietan Hungaria, Polonia, Letonia, Kroazia, Errumania eta Bulgaria kokatzen dira.

BPGaren aldaketa-tasa egiazko baldintzetan. 28ko EBn %1,9 izan zen 2015ean, 2014ko %0,9aren aldean (%1,4 aurreko urtean. Eurogunean, bestalde, %1,6 izan zen 2014ko %0,9aren aldean.

Hazkunde tasarik handienak Irlandan (%7,8), Maltan (%6,3), Luxenburgon (%4,8), Txekiar Errepublikan (%4,2) eta Suedian (%4,1) izan ziren. Ondokoek tasa handiak izan zituzten, baina ez aurrekoak bezain nabarmenak: Errumania (%3,8), Polonia (%3,6), Espainia (%3,2), Bulgaria (%3), Hungaria eta Eslovenia (biak %2,9arekin), Letonia (%2,7), Erresuma Batua (%2,3) eta Holanda (%2). Ondoko hauek hazkunde-tasa txikiagoak izan zituzten: Alemania (%1,7), Kroazia, Zipre eta Lituania (hirurak %1,6), Portugal (%1,5), Belgika (%1,4), Danimarka eta Frantzia (biak %1,2arekin), Estonia (%1,1), Austria (%0,4), Italia (%0,8) eta Finlandia (%0,5)

Grezia izan zen tasa negatiboa izan zuen Europako estatu bakarra (-%0,2).

Langabezia-tasa. Langabezia-tasak bi digitu izaten jarraitu zuen zenbait estatutan. Zehatzago esanda, ondoko herrialdeek % 10 eta % 12 arteko tasa izan zuten: Frantzia, Eslovakia eta Italia. % 12 eta % 15 artekoa: Portugal eta Zipre. Eta honako hauek % 16tik gorakoa, hau da, EB28ko langabezia-tasa handienak: Kroazia (%16,3) Espainia (%22,1) eta Grezia (%24,9).

2 *PPS: erosahalmenaren parekotasuna*

319ko Eurogunea: Alemania, Austria, Belgika, Zipre, Eslovakia, Eslovenia, Espainia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Irlanda, Italia, Lituania, Letonia, Luxenburgo, Malta, Holanda eta Portugal,

Honako herrialde hauek % 6,5 eta % 10 arteko tasa izan zuten: Errumania, Hungaria, Holanda, Suedia, Polonia, Belgika, Eslovenia, Lituania, Bulgaria, Finlandia, Irlanda eta Letonia.

Tasarik txikienak, berriz, hauek izan zituzten: Alemania (%4,6), Txekiar Errepublika (%5,1), Erresuma Batua (%5,3), Malta (%5,4), Austria (%5,7), Estonia eta Danimarka (bietan %6,2) eta Luxenburgo (%6,4).

Lan-produktibitatea (BPGaren (EAPan) eta enpleguaren arteko erlazio bezala kalkulatuta). Produktibitatea produkzioaren eta hura lortzeko erabilitako baliabideen arteko harremanean datzan kontzeptua da, eta garrantzitsua da ekonomia baten lehiakortasuna neurtzeko. Kalkulua erraza da, baina bere interpretazioa zaila, zeren eta askotariko faktore determinanteak baitaude (landunen gaitasuna, kapitaleko ondasunen zuzkidura, baliabideen erabilera eraginkorra eta beste faktore batzuekin uztartuta erabiltzea hala nola erakundeen ingurukoak, legearen ingurukoak, etab.).

Analisia mailaren baldintzetan eta ez eboluzio-baldintzetan egiten da, EB28ren batez bestekoa kontuan hartuta; EB28=100.

2014an, eskuragarri ditugun azken datuen arabera, 19ko euroguneko batez bestekoa 107,7 izan zen. Hona hemen produktibitaterik handienak izan zituzten estatuak: Luxenburgo (167,2, 100eko oinarriaren gainean), Irlanda (143,9), Belgika (129,4), Frantzia eta Austria (biak 115,3arekin), Danimarka (113,4), Herbehereak (112,5) eta Suedia (112).

Euroguneko batez bestekoaren azpitik (107,7) baina 28ko EBko batez bestekoaren gainetik (100) hauexek ditugu: Finlandia (107,5) Italia (106,8), Alemania (106,3), Espainia (105,1) eta Erresuma Batua (102,2).

28ko EBko batez bestekoaren azpitik (100) baina 70etik gora ditugu Grezia, Malta, Zipre, Eslovakia, Eslovenia, Portugal, Txekiar Errepublika, Lituania, Estonia, Polonia, Hungaria eta Kroazia.

Produktibitaterik txikienak, berriz, Letoniak, Errumaniak eta Bulgariak dituzte.

KPIH[4]. Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuaren (KPIH) aldaketa eurogunean -%0,2an kokatu zen 2015eko abenduan, 2014ko abenduko datuekin alderatuz gero. Espainiar estatuak -%0,1 du. Analisi zabalagoa egiteko, prezioen, kostuen eta errenten kapitulura jo beza irakurleak.

[4]*Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuak (KPIH) Europar Batasuneko inflazioaren batez besteko komuna ematen du. Alderaketa homogeneo hauek lortzeko, KPIan biltzen diren eta haren %5 inguru hartzen duten kontsumoko partida jakin batzuk kanpoan utzi behar izan dira (horrela, adibidez, KPIHtik kanpo geratzen dira Osasun zerbitzuak, Irakaskuntza arautua, Sendagaiak eta diruz lagundutako farmaziako produktuak, eta abar).*

I.1.4. KOADROA. EUROPAR BATASUNAREN EBOLUZIO EKONOMIKOA

	Per capita BPGd-a (1)		Egiazko BPGd-aren hazkundea		Langabezia-tasa		Enplegua				Inflazioa (KPIH) (ald.: abendua-abendua)	Produktibitatea/ enplegatuko (2)	
							Enplegu-tasa		Enpleguaren urteko hazk.				
	2013	2014	2014	2015	2014	2015	2015	Xedea	2014	2015	2015	2013	2014
28KO EB	100	100	1,4	1,9	10,2	9,4	70,1	75	-0,3	1	0,2	100	100
Eurogunea (19)	107	107	0,9	1,6	11,6	10,9	69	-	-0,7	0,6	0,2	107,4	107,4
Belgika	120	119	1,3	1,4	8,5	8,5	67,2	73,2	-0,4	0,3	1,5	129,8	129,4
Bulgaria	46	47	1,5	3	11,4	9,2	67,1	76	-0,4	0,4	-0,9	43	43,7
Txekiar Er.	83	85	2	4,2	6,1	5,1	74,8	75	0,3	0,6	-0,1	76	77,6
Danimarka	127	125	1,3	1,2	6,6	6,2	76,5	80	0,1	0,8	0,3	114,3	113,4
Alemania	122	124	1,6	1,7	5	4,6	78	77	0,6	0,9	0,2	104,8	106,3
Estonia	75	76	2,9	1,1	7,4	6,2	76,5	76	1,2	0,8	-0,2	72,8	73,8
Irlanda	132	134	5,2	7,8	11,3	9,4	68,8	69	2,4	1,7	0,2	142,2	143,9
Grezia	74	73	0,7	-0,2	26,5	24,9	54,9	70	-3,6	0,1	0,4	90,6	89
Espainia	91	91	1,4	3,2	24,5	22,1	62	74	-2,9	0,9	-0,1	105,1	105,1
Frantzia	109	107	0,2	1,2	10,3	10,4	69,5	75	0	0,4	0,3	116,2	115,3
Kroazia	59	59	-0,4	1,6	17,3	16,3	60,5	62,9	-2,6	2,7	-0,3	72,6	70,3
Italia	98	96	-0,3	0,8	12,7	11,9	60,5	67	-1,8	0,1	0,1	108,1	106,8
Zipre	84	82	-2,5	1,6	16,1	15,1	68	75	-6	-1,1	-0,6	87,5	86,4
Letonia	62	64	2,4	2,7	10,8	9,9	72,5	73	2,3	-1,3	0,4	62,4	64,7
Lituania	73	75	3	1,6	10,7	9,1	73,4	72,8	1,3	2	-0,2	74,2	74,4
Luxenburgo	265	266	4,1	4,8	6	6,4	70,9	73	1,8	2,5	0,9	165,1	167,2
Hungaria	67	68	3,7	2,9	7,7	6,8	68,9	75	0,9	4,8	1	71,8	70,4
Malta	85	84	3,7	6,3	5,8	5,4	67,8	70	3,7	5	1,3	89,8	86,8
Holanda	133	131	1	2	7,4	6,9	76,4	80	-0,9	-0,2	0,5	112,5	112,5
Austria	131	130	0,4	0,9	5,6	5,7	74,3	77	0,5	0,9	1,1	116,2	115,3
Polonia	67	68	3,3	3,6	9	7,5	67,8	71	-0,1	1,7	-0,4	73,6	73,7
Portugal	77	78	0,9	1,5	14,1	12,6	69,1	75	-2,9	1,4	0,3	80,2	80,1
Errumania	54	55	3	3,8	6,8	6,8	66	70	-0,9	0,8	-0,7	55,8	56,7
Eslovenia	81	83	3	2,9	9,7	9	69,1	75	-1,4	0,6	-0,6	79,3	81,5
Eslovakia	76	77	2,5	3,6	13,2	11,5	67,7	72	-0,8	1,4	-0,5	82,7	83,4
Finlandia	113	110	-0,7	0,5	8,7	9,4	72,9	78	-0,7	-0,8	-0,2	108	107,5
Suedia	125	123	2,3	4,1	7,9	7,4	80,5	80	0,9	1,4	0,7	113,2	112
Erresuma B.	108	109	2,9	2,3	6,1	5,3	76,9	:	1,2	2,3	0,2	102	102,2

(1) PPS-etan. 28KO EB=100 (2) PPS-etan. 28ko EB=100
Iturria: EUROSTAT

Finantza publikoak: Egonkortasun eta Hazkuntza Itunaren xedapenekin bat, Estatu kideek bi balioen azpitik mantentzeko konpromisoa hartzen dute: %3ko defizit/BPG ratioa eta %60ko zor/BPG ratioa.

Itun horretan, zuzenketa egiteko asmoak eraentzen du gehiegizko defizitaren protokoloa, hain zuzen ere defizit publiko handiegiak edo zor publiko handiegia berehala zuzentzeko xedez.

Euroguneko Herri Administrazioen zorra ia estatu guztietan murriztu zen 2015. urtean, Frantzian, Kroazian, Italian eta Zipren izan ezik (horietan guztietan mantendu egin zen gutxi gorabehera). Lituanian, Austrian, Polonian, Finlandian eta Erresuma Batuan, berriz, gora egin zuen.

EUROSTATen datuen arabera, 2015. urtean eurogunea19n BPGaren gainean herri-zorra %90,7koa izan zen, 2014. urteko %92aren aldean.

Ehuneko 60ko atalasea ondoko herrialdeetan gainditu zuten: Finlandia (%63,1), Malta (%63,9), Herbehereak (%65,1), Alemania (%71,2), Hungaria (%75,3), Eslovenia (%83,2), Austria (%86,2), Kroazia (%86,7), Erresuma Batua (%89,2), Irlanda (%93,8), Frantzia (%95,8), Espainia (%99,2), Belgika (%106), Zipre (%108,9), Portugal (%129), Italia (%132,7) eta Grezia (%176,9).

Defizitari dagokionez, eurogunea19n herri-defizita BPGaren %2,1eko maila baliokidean kokatu zen. 2014. urtean, berriz, %2,6koa izan zen.

Hurrengo estatuek gainditu zuten BPGaren %3ko muga: Grezia (-%7,2), Espainia (-%5,1), Portugal eta Erresuma Batua (biak -%4,4arekin), Frantzia (-%3,5) eta Kroazia (-%3,2).

Ondoko herrialdeek -% 1,5 eta -% 3ko indizea izan zuten: Eslovakia, Eslovenia, Finlandia, Begika, Italia, Polonia, Irlanda, Bulgaria, Danimarka, Hungaria, Herbehereak eta Malta. %0 eta -%1,5eko indizea zutenak, berriz: Letonia, Austria, Zipre, Errumania, Txekiar Errepublika, Lituania eta Suedia. Azkenik, Estoniak, Alemaniak eta Luxenburgok superabita izan zuten.

I.1.5. TAULA. EB-KO FINANTZA PUBLIKOAK

	Gobernuaren zor publikoaren % BPGd-aren gainean		Defizit/superabit publikoaren % BGPd-aren gainean (moneta nazionaletan)	
	2014	2015	2014	2015
28KO EB	86,8	85,2	-3,0	-2,4
Eurogunea (19)	92,0	90,7	-2,6	-2,1
Belgika	106,5	106,0	-3,1	-2,6
Bulgaria	27,6	26,7	-5,4	-2,1
Txekiar Errepublika	42,7	41,1	-1,9	-0,4
Danimarka	44,8	40,2	1,5	-2,1
Alemania	74,7	71,2	0,3	0,7
Estonia	10,4	9,7	0,8	0,4
Irlanda	107,5	93,8	-3,8	-2,3
Grezia	180,1	176,9	-3,6	-7,2
Espainia	99,3	99,2	-5,9	-5,1
Frantzia	95,4	95,8	-4,0	-3,5
Kroazia	86,5	86,7	-5,5	-3,2
Italia	132,5	132,7	-3,0	-2,6
Zipre	108,2	108,9	-8,9	-1,0
Letonia	40,8	36,4	-1,6	-1,3
Lituania	40,7	42,7	-0,7	-0,2
Luxenburgo	22,9	21,4	1,7	1,2
Hungaria	76,9	75,3	-2,3	-2,0
Malta	67,1	63,9	-2,0	-1,5
Holanda	68,2	65,1	-2,4	-1,8
Austria	84,3	86,2	-2,7	-1,2
Polonia	50,5	51,3	-3,3	-2,6
Portugal	130,2	129,0	-7,2	-4,4
Errumania	39,8	38,4	-0,9	-0,7
Eslovenia	81,0	83,2	-5,0	-2,9
Eslovakia	53,9	52,9	-2,7	-3,0
Finlandia	59,3	63,1	-3,2	-2,7
Suedia	44,8	43,4	-1,6	0,0
Erresuma Bat.	88,2	89,2	-5,6	-4,4

Iturria: EUROSTAT

1.3. ESPAINIAKO EKONOMIA ETA AUTONOMIA ERKIDEGOAK

1.3.1. Espainiako ekonomia

EINek argitaraturiko Hiruhilekoen Kontabilitate Nazionalaren datuek berretsi egiten dute Espainiako ekonomiaren susperraldia; izan ere, enplegua sortu zuen aurreko ekitaldian. Hala, urteko %3,2ko batez besteko tasarekin bukatu zuen BPGd-ak, 2014ko %1,8koa baino handiagoa eta 2007az geroztik izandako handiena (%3,8). 2015eko laugarren hiruhilekoan, urte arteko %0,8ko hazkundea izan zen, hirugarren hiruhilekoaren berdina eta euroguneko herrialdeetako handiena.

Eskari nazionala hazkundearen eragile nagusia dela finkatu da, BPGd-aren aurrerapenean %3,7ko ekarpena eginda, 2014an baino 2,1 puntu gehiago, kontsumo pribatuaren eta inbertsio produktiboaren dinamismoak bultzatuta. Kanpoko eskari garbia, berriz, hazkunderako puntu erdi gutxiago izan zuen (-0,2 puntu aurreko urtean), inportazioak esportazioak baino gehiago hazi baitziren.

Honako hauek bultzatu zuten kontsumo pribatuaren aldeko joera: enpleguaren sorkuntzak, zergen jaitsierak eta inflazioaren presiorik ezak, baita interes-tasa murriztuek eta finantzaketa eskuratzeko baldintzen hobekuntzak ere. Zehatzago, urte arteko %3,1eko hazkundearekin amaitu zuen etxebizitzetako azken kontsumoaren gastuak 2015. urtean.

Bestalde, Herri Administrazioen azken kontsumoaren gastua %2,7 hazi zen bolumenean eta urte arteko kopuruetan, 2014an egonkortu ondoren.

Kontsumoko ondasun fabrikatuei dagokienez, %6,4 hazi zen urte arteko batez bestekoetan, 2014ko %3,5aren aldean, ekipamendu-ondasunen aurrerapen handiaren eraginez (%10,2), baita eraikuntzako inbertsioaren gorakadak bultzatuta ere (%5,3) zazpi urtez jarraian jaitsierak izan ondoren. Bestelako faktoreek ere eragin dute igoera hori: beste eraikuntza batzuetako inbertsioaren susperraldiak eta etxebizitzako inbertsioa berriz ere eremu positibora ekartzeak zazpi urtez jarraian atzera egin ondoren (%2,4).

Kanpoko eskariari dagokionez, %5,4 egin zuten gora urteko batez bestekoan ondasunen eta zerbitzuen esportazioek, 2014an baino hiru hamarren gehiago. Bestalde, ondasunen eta zerbitzuen inportazioek %7,5 egin zuten gora urteko batez bestekoan, 2014n baino %1,1 gehiago.

Eskaintza denaz bezainbatean, urte arteko kopuruan eta bolumenean, jarduera sektore guztietan suspertu zen: nekazaritzaren BEGa %1,9 hazi zen (-%3,7 2014an); industriakoa %3,4 (%1,2 2014an); eraikuntzakoa %5,2 (kopuru positiboetan sei urtez jarraian jaitsierak izan ondoren) eta zerbitzuetako %3,1 (%1,9 2014an).

BPGd-aren bilakaeraren ildo beretik, %3koa izan zen LOPLko biztanleriaren batez besteko hazkundea 2015. urtean, Kontabilitate Nazionalaren arabera, 2014. urteko ratioa baino %1,9 gehiago. Soldatapekoen aurrerapena %3,4koa izan zen. Horrela, langile bakoitzeko itxurazko ekoizkortasunari dagokionez, esan behar da motela egin zela urtean zehar, lehen hiruhilekoko -% 0,2tik laugarren hiruhilekoko +% 0,5era.

Bestalde, Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI) agerian utzi duenez, langabezia-tasak (16 urtetik gorakoak) beheranzko joera izan zuen, hain zuzen ere lehen hiruhilekoaren %27,8tik %20,9ra, eta azken 12 hilean %2,81 egin zuen behera. Gauzak horrela, landunen kopurua 18.094.200 izan zen. Langabetuen guztizko kopurua, berriz, 4.779.500 izan zen.

I.1.6. KOADROA. ESTATUKO EGOERA MAKROEKONOMIKOA.
Urte arteko aldakuntza-tasak. Kateatutako bolumena. Urtaroko eta egutegiko ondorioen datu zuzenduak.

	2014	2015	2014				2015			
			T I	T II	T III	T IV	T I	T II	T III	T IV
Gastua azken kontsumoan	**0,9**	**3,0**	**0,2**	**0,9**	**1,1**	**1,2**	**2,3**	**2,8**	**3,4**	**3,5**
- Etxebizitzetako azken kontsumoaren gastua	1,2	3,1	0,3	1,1	1,5	1,8	2,6	2,9	3,6	3,5
- HHAAetako azken kontsumoaren gastua	0,0	2,7	0,0	0,2	0,2	-0,5	1,5	2,5	3,0	3,7
Kapital finkoaren eraketa gordina	**3,5**	**6,4**	**1,4**	**4,3**	**3,4**	**4,9**	**6,1**	**6,3**	**6,7**	**6,4**
- Aktibo finko materialak	3,7	7,2	1,0	4,7	3,6	5,6	7,0	7,1	7,6	7,1
• Eraikuntza	-0,2	5,3	-6,5	0,8	1,3	4,1	6,2	5,2	5,2	4,6
• Ekipamendu-ondasunak eta aktibo landuak	10,5	10,2	15,5	11,6	7,4	8,1	8,3	10,1	11,2	10,9
- Jabetza intelektualak sortutakoak	2,1	1,8	3,9	1,8	2,2	0,7	1,0	1,9	1,7	2,8
ESKARI NAZIONALA (*)	1,6	3,7	0,7	1,8	1,8	2,0	3,1	3,4	4,1	4,1
Kanpoko eskaria										
Ondasun eta zerbitzuen esportazioak	5,1	5,4	4,6	2,8	6,4	6,5	5,8	6,0	4,5	5,3
Ondasun eta zerbitzuen inportazioak	6,4	7,5	6,2	5,2	7,3	6,8	7,6	7,4	7,2	7,7
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatuko prezioetan	**1,4**	**3,2**	**0,4**	**1,2**	**1,7**	**2,1**	**2,7**	**3,2**	**3,4**	**3,5**
Nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza eta arrantza	-3,7	1,9	3,2	-6,0	-2,9	-8,7	-4,0	2,0	3,7	6,2
Industria	1,2	3,4	-0,8	1,5	1,5	2,5	3,0	3,6	3,8	3,4
- Manufaktura-industria	2,2	3,7	1,6	2,4	2,2	2,6	2,8	3,8	4,3	4,1
Eraikuntza	-2,1	5,2	-7,3	-3,9	0,2	3,1	5,9	5,8	5,1	4,0
Zerbitzuak	1,9	3,1	1,3	1,8	2,1	2,5	2,7	3,0	3,3	3,4
- Merkataritza, garraioa eta ostalaritza	3,2	4,8	2,5	3,1	3,3	4,0	4,1	4,6	5,1	5,3
- Informazioa eta komunikazioak	4,7	4,7	4,4	4,3	5,0	5,0	4,4	5,0	5,0	4,6
- Finantza- eta aseguru-jarduerak	-1,0	-0,9	-1,8	-1,2	-0,6	-0,2	-2,3	-0,4	-1,1	0,2
- Higiezinen arloko jarduerak	1,2	0,8	1,1	1,2	1,3	1,1	1,0	0,9	0,7	0,8
- Jarduera profesionalak	3,4	5,8	1,1	3,1	4,1	5,3	6,2	6,5	5,7	4,9
- Herri-administrazioa, osasuna eta hezkuntza	-0,4	1,7	-0,5	-0,5	-0,5	-0,2	0,9	1,1	2,2	2,4
- Jarduera artistikoak, olgetakoak eta bestelako zerbitzuak	4,4	4,2	3,4	4,4	4,9	5,0	4,5	3,9	4,0	4,5
Produktuen gaineko zerga garbiak	0,8	2,8	-0,4	0,8	1,3	1,7	2,3	2,6	2,7	3,6
Lan-merkatua										
Lanpostuak (LOPL)										
Landunak	1,1	3,0	-0,7	1,0	1,7	2,4	2,9	2,9	3,1	3,0
Soldatapekoak	1,4	3,4	-0,6	1,4	2,0	2,8	3,2	3,2	3,7	3,3
16 urtekoen eta zaharragoen langabezia-tasa (BAI)	24,44	22,06	25,93	24,47	23,67	23,70	23,78	22,37	21,18	20,90
Langileen araberako produkt. (Espainiako Bankua)	0,3	0,2	-	-	-	-	-0,2	0,3	0,3	0,5

(*) Merkatuko prezioetako BPGd-ari egindako ekarpena.
Iturria: EIN (Hiruhilekoko Kontabilitatea eta BAI) eta Espainiako Bankua. Adierazle ekonomiko orokorrak

Ordainketaren balantzari dagokionez, 2015. urtean ekonomiak berriz ere finantzazio-gaitasuna[5]. Ekonomiaren finantzaziorako ahalmena (superabita) 23.053 milioi eurokoa izan zen, hots, BPGd-aren %2,1.

Espainiako Administrazio Publikoek 54.965 milioi euroko defizitarekin (behin-behineko datuak) amaitu zuten 2015. urtea, Kontabilitate Nazionalaren arabera neurtuta. Horrek esan nahi du 2013 eta 2014 artean BPG % 5,9tik % 5,1era igaro zela.

Bananduta, Administrazio Zentralak, Autonomia Erkidegoek eta Gizarte Segurantzak, hurrenez hurren, %2,6, %1,7 eta %1,3ko defizitarekin itxi zituzten euren kontuak. Tokiko Korporazioek (TTKK), aldiz, %0,4ko superabita izan zuten berriz ere.

I.1.7. KOADROA. ESPAINIAKO EKONOMIAREN ORDAINKETEN BALANTZA *(milioi euro)*

	2013 b	2014 b	2015 b
BPGd bb	1.031.272	1.041.160	1.081.190
Finantzaketa ahalmena/beharra	22.933	16.386	23.053
BPGd-aren gainean (%)	2,2	1,6	2,1
Kontu korrontearen eta kapitalaren saldoa	22.349	14.686	21.117
Kontu korrontea	15.565	10.238	15.147
Ondasunak eta zerbitzuak	33.456	25.955	25.693
Errentak	-17.891	-15.717	-10.545
Kapital kontua	6.784	4.448	5.970
Finantza-saldoa	35.138	21.106	33.421
Guztira, Espainiako Bankua izan ezik	-81.939	-5.557	73.580
Zeharkako inbertsioa	-14.401	9.356	22.851
Zorro-inbertsioa	-34.529	-6.101	7.772
Beste inbertsio batzuk	-34.047	-9.921	44.365
Finantza-deribatu garbiak	1.039	1.109	-1.408
Espainiako Bankua	117.076	26.662	-40.159
Erreserbak	535	3.890	5.068
BEk eurosistemarekiko duen posizio garbia	136.688	46.973	-50.929
Bestelakoak BE	-20.147	-24.200	5.702

b: behin-behinekoa
Iturria: Espainiako Bankua. "Adierazle ekonomikoak"

Diru-sarrerak direla eta zerga nagusietako zerga-bilketak, autonomia erkidegoen eta tokiko korporazioen partaidetza aintzat hartuta, hazkundea izan zuen (% 3,9). Hazkuntza azaltzeko, honakoei erreparatu behar zaie: batetik, zuzeneko zergen diru-bilketa %2,3 igotzeari (PFEZarena %10,5 eta "bestelakoak" partida %13,6 hazi ziren; bien bitartean, sozietateena %6,4 jaitsi zen) eta, bestetik, zeharkakoak %5,8 hazteari (BEZa %7,4, bereziak %0,2 eta "bestelakoak" partida %10,8 hazi ziren).

Bestalde, Estatuak onartutako obligazioek %1,4 egin uzten beherantz, arrunten transferentzien (-%4,3) eta langileen (-%0,2) kapituluak jaistearen ondorioz.

I.1.8. KOADROA. SALDO PUBLIKOA AGENTEEN ARABERA* *(milioi euro)*

	Milioi €				BPGd-aren %			
	2012	2013 b	2014 b	2015 a	2012	2013 b	2014 b	2015 a
Herri administrazioen gait. (+) /Beharrak. (-) Finantzazio EKNren arabera	**-108.903**	**-71.241**	**-61.319**	**-54.965**	**-10,4**	**-6,9**	**-5,9**	**-5,1**
Administrazio zentralak								
Administ. zentrala (Estatua eta erakunde autonomoak)	-82.592	-49.207	-38.209	-28.176	-7,9	-4,8	-3,7	-2,6
Gizarte Segurantza	-10.171	-11.541	-10.866	-13.592	-1,0	-1,1	-1,0	-1,3
Lurralde erakundeak								
AA.EE.	-19.447	-16.182	-18.182	-17.962	-1,9	-1,6	-1,7	-1,7
Tokiko korporazioak (TT.KK.)	3.307	5.689	5.938	4.765	0,3	0,6	0,6	0,4

b: behin-behinekoa
Iturria: Espainiako Bankua. "Estatistika Buletina"

5 Ekonomiaren sektoreek sortutako aurrezkia eginiko inbertsioari aurre egiteko nahikoa denean agertzen da, eta hura kalkulatzeko, Kontu Korronteko Balantzako eta Kapitaleko saldoak eta kanpoko egoiliarrek eginiko inbertsioak batu behar dira.

I.1.9. KOADROA. ESTATUAREN ZERGA BILKETA
(Autonomia Erkidegoek eta Tokiko Korporazioek PFEZ, BEZ eta zerga bereziei egindako ekarpena barne) (milioi euro)

	Zuzeneko zergak				Zeharkako zergak				Guztira		
	Guztira	PFEZa	Sozietateak	Beste b.	Guztira	BEZa	Bereziak	Beste b	Estatua	AA.EE. TT.KK.	Guztira
2010	86.913	66.977	16.198	3.738	71.886	49.079	19.806	3.001	111.087	47.712	158.799
2011	89.641	69.803	16.611	3.227	71.241	49.302	18.974	2.965	88.026	72.855	160.881
2012	96.152	70.631	21.435	4.086	71.594	50.464	18.209	2.921	75.643	92.102	167.746
2013	94.040	69.946	19.964	4.130	73.733	51.939	19.073	2.722	97.796	69.977	167.773
2014	95.571	72.655	18.694	4.221	78.225	56.166	19.104	2.956	101.933	71863	173.796
2015	97.789	72.346	20.649	4.795	82.726	60.305	19.147	3.275	107.354	73.161	180.516
2013-14 ald.	1,6	3,9	-6,4	2,2	6,1	8,1	0,2	8,6	4,2	2,7	3,6
2014-15 ald.	2,3	-0,4	10,5	13,6	5,8	7,4	0,2	10,8	5,3	1,8	3,9

Iturria: Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioa. Adierazle Ekonomikoen Laburpena. Taulak eta Grafikoak, 6.4. Betebeharrak. 2016ko otsaila

I.1.10. KOADROA. AURREKONTUAREN EGIKARITZEA: ESTATUAK ONARTUTAKO OBLIGAZIOAK *(milioi euro)*

	Langileak*	Ondasun eta zerbitzuen erosk.	Interesak	Transferentzia arruntak*	Kapital transferentziak	Inbertsioak	Guztira
2010	16.937	4.452	19.641	112.751	13.663	8.070	175.514
2011	16.623	4.041	22.195	97.494	7.878	6.163	154.394
2012	15.449	3.529	26.059	96.700	4.658	7.195	153.689
2013	15.708	3.190	28.410	101.314	7.163	5.457	161.242
2014	15.640	3.307	31.818	95.367	8.630	5.161	159.922
2015	16.088	3.511	31.745	91.291	9.730	5.281	157.645
2013-14 aldak.	-0,4	3,7	12,0	-5,9	20,5	-5,4	-0,8
2014-15 aldak.	2,9	6,2	-0,2	-4,3	12,8	2,3	-1,4

(*) 2014. urtean izandako aldaketarekiko datu homogeneizatuak. Estatuak ordaindutako pentsioak tratatu dira.
Iturria: Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioa. Adierazle Ekonomikoen Laburpena. Taulak eta Grafikoak, 6.4. Betebeharrak. 2016ko otsaila

1.3.2. Autonomia erkidegoak

EINren Eskualde Kontabilitatearen datu ofizialen arabera, biztanleko BPG nominalari jarraiki, betiere Madrilek izan zuen baliorik handiena, 31.812 euro biztanleko. Ondoren EAE (30.459 euro) eta Nafarroa (28.682 euro). Beste muturrean, Extremadura (16.166 euro biztanleko), Melilla hiri autonomoa (17.173 euro) eta Andaluzia (17.263 euro) kokatu ziren. Estatuko batez bestekoa 23.290 euro zen.

2015. urtean bolumenean BPGaren hazkuntzarik handiena izan zuen eskualdea Valentziako Erkidegoa (%3,6) izan zen eta Madrilek (%3,6) eta Kataluniak (%3,3) jarraitu zioten. Beste lau erkidegotan Estatuko batez bestekoaren parteko hazkunde erreala izan zen BPGan (%3,2 ingurukoa). Hauexek: Andaluzia, U. Balearrak, Gaztela-Mantxa eta Galizia.

I.1.11. KOADROA. AA.EE.ETAKO BPGd-aren HAZKUNDEA, ENPLEGUA ETA LANGABEZIA-TASAK

	Langab.-tasa (16-64 urte)		BPG bolumen aldak.		Per capita BPG-da		
					2014 a	2015 e	
	2014	2015	2014 a	2015 e	Estatua = 100	Estatua = 100	€ per capita
Guztira	**24,4**	**22,0**	**1,4**	**3,2**	**100**	**100**	**23.290**
Andaluzia	34,8	31,5	1,0	3,2	74,0	74,1	17.263
Aragoi	20,2	16,3	1,4	2,7	110,3	109,7	25.552
Asturias	21,1	19,1	0,5	3,1	88,0	88,8	20.675
U. Balearrak	20,0	17,3	1,2	3,2	104,8	104,7	24.394
U. Kanariarrak	32,4	29,1	1,7	2,8	85,8	85,4	19.900
Kantabria	19,4	17,7	1,0	2,6	90,3	89,5	20.847
Gaztela eta Leon	20,8	18,3	1,0	2,9	94,0	94,1	21.922
Gaztela-Mantxa	29,0	26,4	0,3	3,2	78,7	78,8	18.354
Katalunia	20,3	18,6	1,6	3,3	118,8	118,8	27.663
Valentziako E.	25,8	22,8	1,9	3,6	87,9	88,4	20.586
Extremadura	29,8	29,1	1,3	3,0	69,0	69,4	16.166
Galizia	21,7	19,3	0,4	3,2	87,7	87,7	20.431
Madril	18,7	17,1	1,6	3,4	137,2	136,6	31.812
Murtzia	26,6	24,6	1,8	3,1	81,8	81,3	18.929
Nafarroa	15,7	13,8	1,6	2,9	123,6	123,2	28.682
EAE	**16,3**	**14,8**	**1,3**	**3,1**	**130,6**	**130,8**	**30.459**
Errioxa	18,2	15,4	2,0	2,8	109,8	109,5	25.507
Ceuta	31,9	27,6	0,7	3,0	83,3	83,3	19.399
Melilla	28,4	34,0	0,5	2,7	74,6	73,7	17.173

a: aurrerapena. e: estimazioa.
Iturria: EIN. Eskualde Kontabilitatea eta BAI

Batez bestekoaren azpitik daude gainerakoak: Asturias, Murtzia eta EAE (hiruretan %3,1eko hazkundea), Extremadura eta Ceuta (biak %3arekin), Gaztela-Leon eta Nafarroa (%2,9arekin bakoitza), U. Kanariarrak eta Errioxa (bakoitzak %2,8 izan zuen), Aragoi eta Melilla (bietan %2,7), eta Kantabria (%2,6).

Estatu osoko langabezia-tasa %22 izan zen 2015ean (%24,4 2014an). 2014 eta 2015 bitartean, berriz ere egin zuen behera langabezia-tasak autonomia erkidego guztietan. Honako hauek izan zituzten tasarik txikienak: Nafarroan % 13,8, EAEn %14,8, Errioxan %15,4, Aragoin % 16,3, Madrilen % 17,1, U. Balearretan % 17,3 eta U. Kanariarretan %17,7. Estatuko batez bestekoaren gainetik, ondoko erkidegoek izan zituzten tasarik handienak: Melilla (%34), Andaluzia (% 31,5), Extremadura eta Kanariak (bietan %29,1), Ceuta (% 27,6), Gaztela-Mantxa (% 26,4), Murtzia (% 24,6) eta Valentziako Erkidegoa (% 22,8).

2. EAE-KO ABAGUNE EKONOMIKOA

Kapitulu honetan, lehenik eta behin, EAEko abagune ekonomikoaren bilakaera orokorra aztertuko da. Bigarren epigrafean, zehatzago aztertuko da barne-eskariaren agregatuen bilakaera, eta hirugarrenean, berriz, kanpo-eskaria. Azkenik, laugarren atala atzerriko inbertsioei buruzkoa da, atzerritarrek gure Erkidegoan eginiko inbertsioaren nahiz EAEk atzerrian eginiko inbertsioaren gainekoa.

2.1. BILAKAERA OROKORRA

EUSTATen "*Kontu ekonomikoak*" deritzenen arabera 2015ean eutsi egin zitzaion 2014an hasitako joerari. Izan ere, lehen hiruhilekoa urtetik urterako %2,2ko aldakuntza-tasarekin hasi zen, eta laugarrena bukatzean, %3,1ekoa izan zen. Hala, %2,8ko igoera izan zuen EAEk 2015. urtean, kopuru errealetan, EUSTATen arabera (2014aren bikoitza, eta handiena 207. urtetik); eta BPG 68.723,5 milioi eurokoa da kopuru arruntetan. Euskal ekonomiak jardueraren hazkunde-tasa aurreko urteetakoa baino nabarmen txikiagoa zuela itxi zuen 2008. urtea.

I.2.1. TAULA. EAE-KO BPG-AREN URTE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASA. 2012-2015

	2011	2012	2013	2014 (b)	2015 (b)
Urteko tasa	**0,2**	**-2,0**	**-1,8**	**1,4**	**2,8**
1. hiruhil.	0,6	-1,1	-2,7	0,6	2,2
2. hiruhil.	0,5	-1,9	-2,2	1,1	2,7
3. hiruhil.	0,3	-2,4	-1,6	1,7	3,0
4. hiruhil.	-0,4	-2,5	-0,6	2,0	3,1

(b) behin-behinekoa
Iturria: EUSTAT.Hiruhilekoen Kontu Ekonomikoak (2016ko otsaila)

2009an, areagotu egin ziren jaitsierak, eta PBGaren aldakuntza-tasa erreal negatiboa erregistratu zen (-%4). 2010ean, nolabaiteko susperraldia izan zen, baina 2011n, hazkundea moteldu egin zen hiruhilekoen aldakuntza-tasetan (urtetik urterako kopuru errealetan neurtuak), eta negatiboak izan ziren 2012an eta 2013an. Alabaina, 2013an jaitsiera pixka bat moteldu zen, eta hala jarraitu zuen 2014an, berriz ere hiruhilekoen aldakuntza-tasa positiboak eta goranzkorrak gertatu ziren urtean hain zuzen.

Lurralde historikoen arabera, BPGaren eboluzioa 2015. urtean, EUSTATen datuekin bat, positiboa izan da ere bai. Araban eta Bizkaian %2,8ko hazkundeak izan ziren bakoitzean, eta Gipuzkoan, berriz, %2,7koa.

Ekoizpenaren hazkundea handiagoa zen EAEn eurogunean baino (%2,8koa, %1,6aren aldean), baina Estatukoa baino txikiagoa (%3,2). EINen Eskualde Kontabilitateak ere aldakuntza errealeko tasa izan zuen 2015ean (urtetik urterakoa) euskal ekonomiarako, %3,1ekoa hain zuzen ere.

Eskariaren aldetik, barne-eskariaren jokabidearen eraginez izan zen, funtsean, gure Erkidegoko jardueraren hazkundea; izan ere, %2,6 hazi eta 2,7 puntu dakarzkio BPGari, eta BPGaren %2,8ko hazkundearekin batera, kanpoko saldoak oso ekarpen urria izan zuen 2015ean (0,1 puntu), honekin batera doan grafikoan agerian gelditzen den bezala.

I.2.1. GRAFIKOA. BARNE- ETA KANPO-ESKARIAK BPG-AREN HAZKUNDEARI EGINIKO EKARPENA



Iturria: Eustat. HKE (a: aurrerapena)

Urtetik urterako terminoetan, barne-eskariaren bilakaera positiboa finkatu izana dugu gertaerarik nabarmenena, baina urtetik urterako hiruhilekoetako tasen azterketak nolabaiteko motelaldia erakutsi zuen urteko azken hiruhilekoan (%3,1etik %2,8ra hirugarren eta

laugarren hiruhilekoen artean). Bere bi osagaiek (gastua azken kontsumoan eta kapitalaren eraketa osoa) urteko zati horretan izandako bilakaera desberdinagatik gertatu zen motelaldia.

Gauzak horrela, azken kontsumoak bilakaera positiboa izan zuen 2014 eta 2015 urte artean, %1,5etik %2,8rako aldaketa positiboa izan baitzuen, baina nolabaiteko motelaldia gertatu zen hazkundean hirugarren eta laugarren hiruhilekoen artean (%3,3tik %2,8ra).

Azken kontsumoari dagokion gastuaren bilakaera hori, gehienbat, familien azken kontsumoaren gastuan izandako hazkunderako bidearen eraginez gertatu da. Bide hori lehen hiruhilekoan hasi zen %2,9ko gehikuntzarekin, bigarrenean eta hirugarrenean %3,3 izan zen eta laugarrenaren bukaeran %3,1 (hots, hazkundearen jaitsiera txikia). Hala, %3,1ean kokatu zen urte arteko batez besteko aldakuntza-tasa. Bestalde, herri administrazioen azken kontsumoari dagokion gastuak %0,2ko hazkundea izan zuen lehen hiruhilekoan, hirugarrenean %3,2 eta %1,4 egin zuen behera. Laugarren hiruhilekoan, %1,8arekin bukatu zuen.

Kapitalaren eraketa osoak goranzko jokabidea izan zuen urte osoan. Lehen hiruhilekoan, %1,3ko hazkunde-tasa izan zuen, eta laugarrena %2,6ko tasarekin bukatu zuen. Hala, urtearteko batez besteko tasa +%2koa izan zen, lehen ratio positiboa 2007. urteaz gero. Bereziki nabarmentzekoa da ondasun-ekipamenduen kapitalaren eraketa osoa, lehen hiruhilekoa %3,8ko hazkunde-tasarekin hasi eta laugarrenean %8,8koarekin bukatu baitzuen.

Kanpoko sektorearen bilakaeran, esportazioetan nahiz inportazioetan, urtetik urterako batez besteko aldakuntza negatiboa izan zen (-%0,2), noiz-eta aurreko urtean lehenbizikoek %3,6ko hazkundea izan zutenean eta bigarrenek %3koa. Alabaina, urteko profilaren azterketak bien aldakuntza positiboa erakusten du urteko azken hiruhilekoan; esportazioek %2,1 egin zuten gora eta inportazioek %1,6 2014ko hiruhileko beraren aldean.

Eskaintzaren aldetik, hazkundeak ageri dira jarduera-sektore guztietan, eraikuntzaren sektorean izan ezik (%0,0). Lehen sektoreak %7,4ko aldakuntza positiboa izan zuen, eta bigarren tokian zerbitzuen sektorea kokatu zen %3,0ko hazkundearekin. Ondoren, industriaren sektorea zegoen, %2,7ko bilakaera positiboa izan baitzuen (hain zuzen ere %2,8 manufaktura-industrian). Azterturiko jarduera-sektore guztiek izan zituzten aurreko urtean lorturikoak baino hazkunde-tasa handiagoak.

Zerbitzuen sektorearen bilakaera positiboan, hiru azpisektorek hartu dute parte. Sektorerik dinamikoena gainerako zerbitzuen adarra izan zen, %3,2ko hazkundea lortuta. Ondoren, Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa, %3,1 hazita. Herri Administrazioa, Hezkuntza, Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak deritzon adarrean, berriz, hazkundea ez zen hain handia izan, %2,3 hazi baitzen. Hala ere, zerbitzuen sektoreak, osotasunean, hazkunde txikiagoa erakutsi zuen laugarren hiruhilekoan hirugarren hiruhilekoaren aldean (%2,8koa, %3,2koaren aldean).

Espainiako eta Europako susperraldiak, kostuen murrizketak, euroaren balio-galerak eta finantzabideak eskuragarriago egoteak mesedea ekarriko zioten industriari. Bilakaera positiboa erakusten du hiruhilekoaren profilaren azterketak: urtea %0,3ko hazkundearekin hasi zen, eta laugarren hiruhilekoan urtetik urterako %4,3ko hazkunde-tasa izan zuen, hots, %1,2 handiago hirugarren hiruhilekoaren aldean.

Interesgarria da ikustea, erdiko hiruhilekoetan ez bezala (industria eta zerbitzuak antzeko abiaduran hazi ziren), laugarren hiruhilekoan industriaren balio erantsiaren hazkundea aurrekoak baino handiagoa izan zela. Zerbitzuetan, aldiz, igoera txikiagoa gertatu zen.

Eraikuntzaren sektoreak, bestalde, berriz ere beheranzko joera erakutsi zuen urte arteko kopuruetan. Izan ere, beheranzkoa da hiruhilekoen profila urte osoan (urtea %0,6ko hazkundearekin hasi eta %0,6ko jaitsierarekin bukatu zuen, aurreko hiruhilekoaren tasa baino lau hamarren gutxiago).

Sektoreko agregatuen jokabidea dela-eta, bilakaera positiboa izan da Balio Erantsian 2015 urte osoan, %2,8koa hain zuzen ere, eta produktuen gaineko zerga garbien efektua ere positiboa izan da, %3ko aurrerapena zenbatetsi baita.

Bestalde, lanaldi osoan neurturiko lanpostu baliokidetan neurtzen den enpleguaren bilakaera, EUSTATen HKEren arabera, positiboa izan zen, %1,7ko hazkundearekin, 2015. urteko batez besteko gisa. Enpleguaren jokabiderik hoberena zerbitzuen sektorera bideratu zen, %2,5 hazita 2014ko batez bestekoaren aldean, eta lehen sektorean ere pixka bat gora egin zuen enpleguak (%1,1). Alderantziz, industriak (-%0,4) eraikuntzak (-%0,3) lanpostuak desegiten jarraitu izan dute.

Kontrako bi aldeak erakutsi zituen industriak. Alde batetik, urteko batez bestekoan lanpostu gutxiago izan ziren berriz ere eta, hala, zortzi urte metatu ditu plantillak murrizten. Alabaina, laugarren hiruhilekoan %0,6ko urtetik urterako aldakuntza-tasa erregistratu zuen, lehen igoera 2007ko amaieratik.

Zerbitzuen sektoreak bi urte jarraian daramatza hazten, eta laugarren hiruhilekoan urtetik urterako %2,7ko aurrerapena izan zuen, hots, zortzi urte metatuta lanpostuak sortzen.

I.2.2. TAULA. EAE-KO TESTUINGURU MAKROEKONOMIKOAREN BILAKAERA. 2010eko oinarria. SEC 2010.
Urtetik urterako aldakuntza-tasak. Urtaroko eta egutegiko ondorioen datu zuzenduak

	2011	2012	2013 (a)	2014 (a)	2015 (a)	I	II	III	IV
BPG erreala merkatuko prezioetan	**0,2**	**-2,0**	**-1,8**	**1,4**	**2,8**	**2,2**	**2,7**	**3,0**	**3,1**
Araba	0,8	-2,4	-1,7	1,6	2,8	1,7	2,8	3,4	3,3
Bizkaia	0,1	-2,2	-1,6	1,1	2,8	2,2	2,7	3,0	3,3
Gipuzkoa	0,1	-1,4	-2,0	1,7	2,7	2,5	2,8	2,9	2,7
Eskaria									
Barne eskaria (hazkundea)	-1,0	-2,8	-2,1	1,1	2,6	2,1	2,7	3,1	2,8
Barne eskariaren ekarpena (1)	-1,1	-2,9	-2,2	1,1	2,7	-	-	-	-
Gastua azken kontsumoan	-0,9	-1,4	-1,2	1,5	2,8	2,3	2,9	3,3	2,8
Kontsumo pribatua	-1,3	-1,6	-1,1	1,6	3,1	2,9	3,3	3,3	3,1
Kontsumo publikoa	0,7	-0,9	-1,8	1,1	1,6	0,2	1,1	3,2	1,8
Kapitalaren Eraketa Osoa (KEO)	-1,3	-7,0	-4,9	-0,6	2,0	1,3	1,8	2,2	2,6
Kapital finkoaren eraketa osoa ondasun-ekipamenduan	3,7	-4,9	-3,4	3,0	6,5	3,8	5,9	7,4	8,8
Kanpo saldoaren ekarpena (1)	1,3	0,9	0,4	0,3	0,1				
Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa	1,4	-4,7	0,9	3,6	-0,2	-0,2	0,7	-3,2	2,1
Estatuko gainerako tokiak	-5,8	-7,2	1,8	0,5					
Atzerria	9,3	-2,4	0,2	6,4					
Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa	-0,6	-5,7	0,3	3,0	-0,2	-0,3	0,7	-2,8	1,6
Estatuko gainerako tokiak	0,4	-2,5	-1,5	2,0					
Atzerria	-2,2	-10,5	3,3	4,6					
Eskaintza									
Lehen sektorea	7,6	10,9	-3,5	-10,0	7,4	5,5	-3,0	7,3	22,3
Industria eta energia	1,3	-5,2	-2,7	1,5	2,7	0,3	3,1	3,1	4,3
Manufaktura-industria	-	-	-	2,3	2,8	0,4	3,2	3,3	4,5
Eraikuntza	-7,6	-7,6	-4,6	-3,2	0,0	0,6	0,2	-0,2	-0,6
Zerbitzuak	0,8	-0,4	-1,1	1,5	3,0	3,0	2,9	3,2	2,8
Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa	-0,8	-2,5	-1,4	2,0	3,1	3,1	2,9	3,3	3,0
Administrazio Publikoa, Hezkuntza, Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak	3,4	0,4	0,6	2,1	2,3	2,6	2,3	2,2	2,1
...Gainerako zerbitzuak	0,6	0,5	-1,9	0,9	3,2	3,0	3,2	3,7	3,1
Oinarrizko prezioei erantsitako balio os.	0,3	-2,1	-1,8	1,1	2,8	2,2	2,7	3,0	3,1
Zerga garbiak produktuen gainean	-0,1	-1,1	-1,6	3,8	3,0	2,7	2,9	3,3	3,1
BPG nominala merkatuko prezioetan	**0,7**	**-1,9**	**-1,3**	**1,6**	**2,8**	**2,2**	**2,7**	**3,0**	**3,1**
Lanpostu baliokideak. GUZTIRA									
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	-4,9	0,8	-5,4	-2,2	1,1	1,3	0,8	3,4	-1,3
Industria eta Energia	-1,3	-5,4	-4,3	-2,2	-0,4	-1,5	-0,3	-0,2	0,6
Eraikuntza	-9,9	-12,9	-11,9	-3	-0,3	-0,1	-0,2	-0,5	-0,4
Zerbitzuak	0,5	-1,6	-1,6	1,3	2,5	2,4	2,5	2,5	2,7
Guztira	-0,9	-3,3	-3	0,2	1,7	1,4	1,7	1,8	2,0

(a) Aurrerapena
(1) BPGaren hazkundeari egindako ekarpenaren portzentajezko puntuak.
Iturria: EUSTAT. Kontu Ekonomikoak eta Hiruhilekoen Kontu Ekonomikoak (2015eko otsaila)

2.2. BARNE-ESKARIAREN AGREGATUAK

Bost urtez barne-eskariaren aldakuntza negatiboak izan ondoren, 2014an %1,1ko aldakuntza positiboa izan zuen bolumenean. Izan ere, ratio horrek goranzko joerari eutsi zion 2015ean. Hala, urtetik urterako %2,6ko hazkundea lortu zen.



Berez, arestian aipatu dugunez, barne-eskariaren bilakaera positiboa izan zen gure Erkidegoan gertaerarik nabarmenena, halako moldez non hauxe baita, funtsean, 2015eko jardueraren hazkundearen zioa: barne-eskariaren jokabidea, BPGren hazkundeari ia 2,7 puntu ekarri baitzizkion.

Alabaina, arestian aipatu dugunez, urtetik urterako hiruhilekoen tasak aztertuta, urteko azken hiruhilekoan motelaldia gertatu zen (%3,1etik %2,8ra igarota hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan).

Halaxe gertatu zen barne-eskariaren bi osagaiek (azken kontsumoari dagokion gastua eta kapitalaren eraketa osoa) kontrako joerak izan baitzituzten.

Hala, azken kontsumoari dagokionez, familien azken kontsumoaren gastuak %2,9ko hazkundearekin hasi zuen lehen hiruhilekoa, eta %3,3ko gehikuntza izan zuen hurrengo bi hiruhilekoetan; azken hiruhilekoa, berriz, %3,1eko aldakuntza-tasarekin bukatu zuen. Bestalde, herri administrazioen gastuan, %1,1eko aldakuntza-tasarekin hasi zen urteko lehen hiruhilekoan, hirugarrenean %3,2raino iritsi zen, eta laugarrena, berriz, %1,8ko hazkunde-ratioarekin bukatu zuen (gastu publikoaren bilakaera bat dator defizita kontrolatzeko helburuarekin).



Inbertsioak, arestian esana dugunez, kontrako joera erakusten du. Eta hain zuzen ere nabarmentzekoa da ekipamendu-ondasunen inbertsioak izandako bilakaera; izan ere, lehen hiruhilekoaren hasieran %3,8ko hazkundea izan zuen, eta laugarrena bukatzerako, berriz, %8,8ko aldakuntza-ratioa zuen.



Hiruhilekoen arteko aldakuntza-tasa errealen bilakaera aztertuta agerian gelditzen denez, aipaturiko motelaldia izan zen 2015eko hirugarren eta laugarren hiruhilekoen artean, eta ekipamendu-ondasunen inbertsioa ere hartzen du horrek.

I.2.3. TAULA. BARNE ESKARIAREN ZENBAIT ADIERAZLE REN BILAKAERA
(Urtetik urterako aldakuntza-tasa)

	2013	2014	2015
Kontsumo publikoaren adierazleak			
Adm. publ. kontsumo-gastua (HKEren arabera)	-1,8	1,1	1,6
Kontsumo pribatuaren adierazleak			
Gastua kontsumo pribatuak (HKEren arabera)	-1,1	1,6	3,1
IPI kontsumoko ondasunak	-5,0	-1,5	4,9
Txikizkako Merkataritzaren Indizea (%)	-3,8	0,0	1,7
Salmentak saltoki handietan (%)	-0,9	-1,4	0,2
Beste batzuk			
Hoteletan igarotako gauak (EAEko berezkoak kenduta)	-2,2	4,0	8,6
Hoteletan igarotako gauak (EAEko bidaiarienak)	-	4,3	5,7
Inbertsioaren adierazleak			
IPI ekipamenduko ondasunak	-3,3	2,2	7,3

Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Hirugarren eta laugarren hiruhilekoaren hazkundeen arteko konparazioa ikusita, esan liteke euskal ekonomia egungo zikloaren gorengo fasean dagoela eta etorkizuneko hazkundeen erritmoa antzekoak edo pixka bat maila txikiagokoak izango dira.

EUSTATek emandako informazioaren arabera, kontsumo eta inbertsioko abaguneko adierazleekin berretsita gelditzen da azaldutako egoera.

Hala, kontsumo pribatuaren adierazleei dagokienez, horien tasak 2014koan izandakoak baino pixka bat hobeak dira. Horrela, kontsumoko ondasunen IPI %4,9 hazi da, baina 2014an %1,5 egin zuen behera; prezio iraunkorretako txikizkako merkataritzaren indizea %1,7 hazi da, aurreko urteko aldakuntza nuluaren aldean; azkenik, saltoki handietako salmentek ere %0,2 egin dute gora, noiz-eta 2014an %1,4ko jaitsiera izan zenean.

Bestalde, hoteletako gau-emateen kopurua (EAEko berezko bidaiariak alde batera utzita) %8,5 hazi da, 2014ko %4koa baino gehiago, eta EAEko berezko bidaiarien hoteletako gau-emateen kopuruak %5,7 egin du gora; aldakuntza hori 2014an izandako %4,3koa baino handiagoa da.

Inbertsio-adierazleei dagokienez, ekipamendu-ondasunen Industria-ekoizpenaren indizeak %7,3 egin du gora, hots, eta 2014an %2,2 hazi zen.

2.3. KANPO-ESKARIA

Aduanen Erregistroetan oinarritutako Kanpoko Merkataritzaren Estatistikak atzerriarekin (ez dira sartzen Estatuko gainerako tokiak) ondasunen kanpoko merkataritzari buruzko behin-behineko datuak eskaintzen ditu eta horiek kontuan hartuta, 2015. urtean esportazioen balio arrunta %1,3 hazi da; ez-energetikoetan (guztiaren %88,89 dira) hazkuntza %0,9koa eta energetikoetan %15,9ko jaitsiera izan da. Bestalde, %3 egin dute behera guztizko inportazioek, non energi inportazioen balioa (guztiaren %28,6) %29,7ko eta energiakoak ez direnean %14,4ko igoerak gertatu diren.

EAEko esportazio ez-energetikoen muga-zergaren multzoaren araberako azterketak ondutakoari erreparatuta, esan dezagun, lehenik eta behin, ekipo-ondasunak berriz ere nabarmendu zirela, guztira esportatutakoaren % 44,4 izan zirela (makina eta tresnetan, 4.624,6 milioi euro, eta garraio-materialetan, 5.134 milioi euro. Esportazioak %3,6 egin du gora, makinen eta aparatuen esportazioaren gehikuntzagatik (%4,2), baita garraio materialen igoeragatik ere (%3,1). Bigarrenik, metal komunen eta haien manufakturen esportazioa da nabarmena, kopuru osoaren % 23,5rekin. Hala ere, esportazioak %2,7 egin du behera. Hirugarrenik, plastikoen eta kautxuaren esportazioa nabarmentzen da, guztizkoaren %7,1; aldakuntza tasa positiboa du (%0,6).

Energiakoak ez diren inportazioen aldetik, azpimarratzekoak dira metalak eta haien manufakturak. Horiek inportazio guztien % 23,7 hartzen dute, eta % 33 hazi dira, garraio materialean (% 50,3) nahiz makina eta gailuetan (% 27,7) izandako inportazioaren hazkundea dela eta; bigarrenik, metalak eta horien manufakturak inportazio guztien %21,3 dira, eta %1,5 hazi dira.

Kanpoko saldoa 5.133,6 milioi eurokoa da, BPGaren % 7,5. Ondasun eta produktu energetikoen eta ez-energetikoen artean bereizita, esan daiteke saldo energetikoa defizitarioa (-2.360,2 milioi euro) izan zela. Aldiz, energetikoak ez diren produktuenak superabita erregistratu zuen, 7.493,8 milioi euro, BPGaren % 10,9, hau da, 2014. urteko ratioa (% 13,2) baino gutxiago.

Lurralde historikoei dagokienez, EUSTATen arabera, bilakaera desberdina izan zen 2015ean. Horrela, Araban eta Gipuzkoan gora egin zuten esportazioek nahiz inportazioek, baina Bizkaian behera egin zuten. Hala, %1,7 hazi ziren esportazioak Gipuzkoan eta %0,2 Araban. Bizkaian, berriz, %4,5 egin zuten behera. Inportazioei dagokienez, %31,4 egin zuten gora Araban eta %11,1 Gipuzkoan. Bizkaian, ostera, %14,5 jaitsi ziren.

I.2.4. TAULA. EAE-K ATZERRIAREKIN DUEN ONDASUN ETA ZERBITZUEN KANPO MERKATARITZA
(milioi eurotan) (muga-zergako taldeen araberako sailkapena)

MUGA-ZERGAKO TALDEAK	ESPORTAZIOAK				INPORTAZIOAK				SALDOA	
	2014 p	2015 b		Aldak.	2014 p	2015 b		Aldakuntza	2014 p	2015 b
	milioiak	milioiak	% bertikala		milioiak	milioiak	% bertikala		milioiak	milioiak
Guztira	**22.243,9**	**21.955,3**	**100,0**	**-1,3**	**17.348,2**	**16.821,8**	**100,0**	**-3,0**	**4.895,6**	**5.133,6**
Energetikoak (Produktu eta mineral energetikoak*)	2.919,5	2.454,1	11,2	-15,9	6848,8	4.814,3	28,6	-29,7	-3.929,3	-2.360,2
Ez energetikoak	**19.324,4**	**19.501,2**	**88,8**	**0,9**	**10499,4**	**12.007,4**	**71,4**	**14,4**	**8.825,0**	**7.493,8**
Nekazaritzako produkt.	524,5	929,8	4,2	77,3	932,5	1.005,2	6,0	7,8	-408,0	-75,4
Produktu kimikoak	1.010,5	533,1	2,4	-47,2	1.010,5	1.200,8	7,1	18,8	0,0	-667,8
Plastikoak eta kautxua	1.548,1	1.557,9	7,1	0,6	785,4	824,2	4,9	4,9	762,7	733,7
Papera	540,1	560,0	2,6	3,7	310,3	357,1	2,1	15,1	229,8	202,9
Metal komunak eta beren manufakturak.	5.306,6	5.164,5	23,5	-2,7	3.531,8	3.585,0	21,3	1,5	1.774,8	1.579,5
Ondasun-ekipoak	9.417,9	9.758,6	44,4	3,6	3.000,1	3.988,7	23,7	33,0	6.417,8	5.769,9
Makinak eta aparat.	4.437,2	4.624,6	21,1	4,2	2.306,5	2.946,1	17,5	27,7	2.130,7	1.678,5
Garraio materiala	4.980,6	5.134,0	23,4	3,1	693,6	1.042,6	6,2	50,3	4.287,0	4.091,4
Beste manufaktura batzuk	893,3	910,0	4,1	1,9	922,2	1.036,0	6,2	12,3	-29,0	-126,0
Ez sailkatuak	80,2	87,3	0,4	8,9	6,6	10,4	0,1	58,2	73,6	76,9

b: behin-behineko datuak
**** Muga-zergako atalen arabera, 5. atala Produktu eta mineral energetikoak dira eta bolumena ez dator bat 27. kapitulukoarekin***
Iturria: EUSTAT. Kanpoko Merkataritzaren Estatistika.

Area geografikoei jarraiki, ELGAri salmentak (guztiaren %79,4) %1,6 hazi ziren 2015. urtean. ELGAren barruan euroguneko herrialdeetan egindakoak azpimarra daitezke, atzerrian izandako salmenta guztien %50,9 izan baitziren.ELGAren barruan, euro guneko herrialdeetara eginikoak nabarmentzen dira: atzerrirako salmenta guztien %50,9 metatu zuten, eta %0,4 egin zuten gora. Bereziki nabarmentzekoak dira Frantziarako (guztien %16,6) eta Alemaniarako (%14,7) esportazioak; %5,6ko eta %2,4ko igoerak izan ziren, hurrenez hurren. Italiarako salmentek ere bilakaera ona izan zuten, baita Erresuma Baturakoek ere. Bestalde, AEBrako esportazioek %0,7 egin zuten gora.

Inportazioei dagokienez, atzerrira erosketak, modu berean, ELGAren herrialdeetan kontzentratzen dira (%70,3) eta guztiaren %45,4 euroguneko herrialdeetan. Ildo horri jarraiki, 2015. urtean %2,8 hazi dira. Bereziki azpimarragarria da Erresuma Batutik datozen inportazioen hazkuntza (guztizkoaren %67,7 petrolioaren inportazioari dagokio). Bestalde, jatorria Alemanian dutenek %20,7 egin zuten gora, eta Frantziakoek, berriz, %11,7.

I.2.5. TAULA. EAE-KO ESPORTAZIOEN JOMUGA ETA INPORTAZIOEN JATORRIA. MERKATARITZA-BAZKIDE NAGUSIAK
(MILA euro)

	ESPORTAZIOAK					INPORTAZIOAK				
	2014	2015	Pisua 2014	Pisua 2015	Ald.: 2014-15	2014	2015 b	Pisua 2014	Pisua 2015	Ald. 2014-15
GUZTIRA	**22.243.869**	**21.955.332**	**100**	**100**	**-1,3**	**17.348.233**	**16.821.753**	**100**	**100**	**-3,0**
ELGA	17.160.115	17.429.358	77,1	79,4	1,6	11.510.211	11.823.859	66,3	70,3	2,7
Euro gunea	**11.133.092**	**11.182.096**	**50,1**	**50,9**	**0,4**	**7.430.583**	**7.639.492**	**42,8**	**45,4**	**2,8**
Alemania	3.142.191	3.218.114	14,1	14,7	2,4	1.973.652	2.379.814	11,4	14,1	20,6
Frantzia	3.444.624	3.636.076	15,5	16,6	5,6	1.589.063	1.775.578	9,2	10,6	11,7
Erresuma Batua	1.339.361	1.431.022	6,0	6,5	6,8	522.794	1.463.595	3,0	8,7	180,0
Italia	1.012.639	1.184.099	4,6	5,4	16,9	805.787	834.334	4,6	5,0	3,5
AEB	**1.705.707**	**1.717.564**	**7,7**	**7,8**	**0,7**	**378.649**	**389.477**	**2,2**	**2,3**	**2,9**

b: behin-behineko datuak: EUSTAT. Kanpoko Merkataritzaren Estatistika

2.4. ATZERRIKO INBERTSIOA

Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioko Kanpoko Inbertsioen Erregistroaren datuen arabera, 793,7 milioi eurokoa izan zen EAEn atzerriko inbertsioa 2015. urtean, gure Erkidegoak atzerrian inbertitu zituen 416 milioien aldean.[1]

I.2.6. TAULA. ERKAKETA: ATZERRIKO INBERTSIOA EAE-N ETA EAE-K ATZERRIAN EGINIKO INBERTSIOA (mila euro)
(atzerriko balioak edukitzeko enpresak deskontatuta)

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015 b
Atzerriko inbertsioa EAEn	90.973,26	155.062,23	528.404,86	430.489,36	1.072.219,54	1.408.748,99	793.683,40
EAEk atzerrian eginiko inbertsioa	1.493.926,97	2.018.474,70	5.348.475,98	431.341,76	1.207.167,69	650.603,29	416.219,56

**** ABDE deskontatuta. Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa eta geuk eginikoa***

1 Estatistika honetan, atzerriko inbertsiotzat jotzen da Estatuaren inbertsioa eta, beraz, EBren eta Legaren zifren barruan.

2.4.1 Atzerriko inbertsioa EAEn

Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren Kanpoko Inbertsioen Erregistroaren datuen arabera, atzerriko inbertsioa EAEn jaitsi egin zen 2014 eta 2015 artean, hain zuzen ere % 43,7 atzerriko balioak edukitzeko enpresak deskontatuz gero (ABDE[2]). Guztira, 793,7 milioi euro jaso zituen EAEk. Estatuko datuaren gainean EAEk duen proportzioa jaitsi egin da: 2014ko %7,2tik 2015eko %3,7ra. Madrilgo Erkidegoak jasotzen duen inbertsioa deskontaturik, %6,8rainokoa da, 2014ko %15aren aldean.

I.2.5. GRAFIKOA. ATZERRIKO INBERTSIO GORDINA EAE-N



ADBEak kanpo utzita.
Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa.

Hala ere, 2015. urtean, EAEk hirugarren lekua hartu zuen berriro ere inbertsio-bolumenean, Madrilen atzetik (10.092,7 milioi euro jaso zituen, ABDEak kenduta) eta Kataluniaren atzetik (4.783,2 milioi euro jaso zituen), eta Kataluniak 4.783,2 milioi jaso zituen.

Sektoreen ikuspegitik, bereziki nabarmenak dira guztizkoan duen pisuagatik honako hauetan eginikoak:

- Higiezinen arloko jarduerak: Higiezinen jarduerak EAEn eginiko inbertsioaren %70,4 dira eta sektore horretan Estatuan eginikoaren %18,7.
- Handizkako merkataritza, txikizkakoa, ibilgailu motordunen eta motorren konponketa: EAEn eginiko inbertsioaren %7,1 dira eta sektore horretan Estatuan eginikoaren %2,4.
- Elikagaiak, edariak eta tabakoa: EAErako inbertsioen %5,5 dira eta sektore horrek Estatuan eginikoaren %2,7.
- Finantza jarduerak: EAErako inbertsioaren %4,3 eta sektore horrek Estatuaren eginikoaren %1,5.
- Informazioa eta Komunikazioak: EAErako inbertsioaren %4 eta sektore horrek Estatuaren eginikoaren %6,6.
- Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak, EAEn eginiko inbertsioaren %2,5 eta sektore horrek Estatuan eginikoaren %11,8.

Lurralde ikuspegitik begiratuz gero, inbertsioaren azken titularra bizi den herrialdea ELGAko herrialde batean kokatzen da kasuen % 67,4an, eta % 28,9an 15-EBean (guztira 229,3 milioi euro), eta %25,4 AEBetan. Inbertsioen beste zati handi bat paradisu fiskaletatik dator (%29,5).

Bereziki nabarmentzekoa da Txikina, Mexiko eta Afrikatik datozen inbertsioen hazkundea.

2 ABDE: bere sozietate-helburuaren barruan, Espainiako lurraldeko egoiliarrak ez diren erakundeen funts propioen balio nagusiak kudeatzeko eta administratzeko jarduera sartzen da, bitarteko materialak eta giza baliabideak antolatuta betiere. ABDEren zerga-araubidea dela-eta, zergak ordaintzetik salbuetsita daude Euskadin partaideturiko sozietate ez egoiliarren dibidenduak eta sozietate horien partaidetza-salmentaren ondoriozko errentak

I.2.7. TAULA. ATZERRIKO INBERTSIO OSOA AAEE GORABEHERA* (mila euro)							
	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015 b
Guztira	**12.422.699,91**	**12.407.327,68**	**28.940.229,99**	**14.799.283,21**	**16.847.205,88**	**19.579.709,07**	**21.724.338,41**
Andaluzia	325.219,70	1.234.595,53	636.734,06	612.904,90	345.476,12	283.518,25	565.221,96
Aragoi	134.084,32	47.493,87	38.342,35	151.232,16	168.692,06	111.774,36	59.725,36
Kantabria	12.104,43	3.766,98	16.790,50	22.032,61	14.320,34	8.782,87	8.946,62
Gaztela eta Leon	67.796,38	56.976,35	190.328,69	17.406,98	173.585,90	161.038,39	41.693,14
Gaztela-Mantxa	178.345,72	56.065,55	462.593,97	51.657,18	24.542,94	88.704,17	53.251,25
Katalunia	1.575.745,17	4.944.894,60	3.014.456,25	2.676.922,32	3.500.791,23	3.031.638,74	4.783.152,78
Ceuta eta Melilla	727,05	2,65	35,66	1.399,76	368,26	3.660,14	16.288,55
Madril	8.050.364,94	4.442.674,60	17.361.957,71	9.471.922,94	8.629.964,35	10.214.589,33	10.092.711,36
Valentzia	443.687,21	132.955,12	390.283,50	101.836,95	167.960,18	823.422,15	254.374,68
Extremadura	28.635,00	30.404,96	36.260,31	31.554,16	15.951,33	250.148,30	44.135,41
Galizia	182.465,30	50.483,48	524.654,30	185.815,00	227.319,86	53.123,20	85.113,52
U. Balearrak	420.348,36	169.860,56	424.682,38	288.348,13	793.007,23	269.244,31	263.001,79
U. Kanariarrak	80.193,21	168.908,93	131.018,36	70.431,59	45.389,07	131.998,49	80.785,85
Errioxa	3.595,54	36.414,21	2.549,56	10.267,53	62.219,26	3.358,30	30.751,17
Nafarroa	31.121,43	111.510,30	49.302,33	161.338,73	11.104,84	28.603,12	12.423,27
EAE	**90.973,26**	**155.062,23**	**528.404,86**	**430.489,36**	**1.072.219,54**	**1.408.748,99**	**793.683,40**
Asturias	11.304,10	29.323,33	505.266,78	62.737,35	872.497,60	487.173,44	10.222,79
Murtzia	11.680,67	28.594,97	72.065,13	24.572,42	52.619,13	43.853,55	517.605,28
EZARRI BARIK	774.308,12	707.339,46	4.554.503,29	426.413,14	669.176,64	2.176.328,97	4.011.250,23

(*)Inbertsio osoa ABDEak kanpo utzita. b: behin-behineko datuak
Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa

I.2.8. TAULA. EAE-KO INBERTSIO OSOA* ETA ESTATUAN EGINIKOAREN GAINEKO PARTAIDETZA, SEKTOREKA (mila €)								
	EAE			Estatua 2015	EAEko banaketa	% estatua ren g.	ALDAKUNTZA EAE	
	2013	2014	2015b				%13-14	%14-15
A. Nekaz, abeltz, basog eta arr.	0,0	728,8	0,0	107.350,7	0,0	0,0		-100,0
B. Erauzketa-industriak	8.678,0	4.600,0	0,0	22.223,3	0,0	0,0	-47,0	-100,0
C. Elikagaiak, edariak eta tabak.	758,9	175.000,0	43.840,0	1.628.144,2	5,5	2,7	22.958,5	-74,9
C. Ehungintza eta jantzigintza	3,0	0,0	0,0	18.505,6	0,0	0,0	-100,0	
C. Larrugintza eta oinetakoak	0,0	0,0	0,0	7.720,9	0,0	0,0		
C. Egurraren eta artelazkiaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza salbu	0,0	0,0	5,5	160.394,2	0,0	0,0		
C. Papergintza eta arte grafikoen industria	0,0	0,0	3.505,4	141.126,9	0,4	2,5		
C. Kokegintza eta petrolio-finketa	0,0	0,0	0,0	2,7	0,0	0,0		
C. Ind. Kimikoak eta kautxu eta plastiko Transf.	0,0	0,0	16.924,5	657.446,6	2,1	2,6		
C. Prod. Farmaze. Fabrik.	0,0	0,0	0,0	132.738,4	0,0	0,0		
C. Metalurgia eta produktu metalikoen fabrik.	15.354,0	913,9	11.634,6	73.598,7	1,5	15,8	-94,0	1.173,1
C. Prod. informat., elektronik. eta optikoen fabrik.	0,0	3.609,6	3,0	262,8	0,0	1,1		-99,9
C. Material eta ekipamendu elektrikoaren fabrik.	7.842,3	6.000,0	466,7	19.548,0	0,1	2,4	-23,5	-92,2
C. BESG makineriaren eta ekipamenduaren fabrik.	2.077,1	15.358,2	3.463,4	34.574,3	0,4	10,0	639,4	-77,4
C. Ibilgailu motord. eta beste garraio-mat. batzuen fabrik	97.551,9	22.658,4	0,2	349.117,4	0,0	0,0	-76,8	-100,0
C. Altzarien fabrik.	254,1	0,0	0,0	2.004,8	0,0	0,0	-100,0	
C. Beste manufak. batzuk	3,0	0,0	3,8	128.638,1	0,0	0,0	-100,0	
C. Makin. Instalazioen konp.	723,6	0,2	2,4	29.884,7	0,0	0,0	-100,0	1.163,2
D. Energia elektriko, gas, lurrun eta aire girotuaren hornidura	149.336,3	138.667,1	0,0	2.194.961,2	0,0	0,0	-7,1	-100,0
E. Ur hornidura, saneam. jarduera, hondakinen kudeaketa eta deskutsatzea	624.700,0	0,0	8.235,0	12.638,7	1,0	65,2	-100,0	

I.2.8. TAULA. EAE-KO INBERTSIO OSOA* ETA ESTATUAN EGINIKOAREN GAINEKO PARTAIDETZA, SEKTOREKA (mila €)

	EAE			Estatua 2015	EAEko banaketa	% estatua ren g.	ALDAKUNTZA EAE	
	2013	2014	2015b				%13-14	%14-15
F. Eraikuntza	10.429,0	63.625,3	51,6	4.705.547,0	0,0	0,0	510,1	-99,9
G. Handizkako eta txikizkako merk. motord. Ibilgailuen eta motoz. konp.	4.783,9	317.589,6	56.403,2	2.386.453,0	7,1	2,4	6.538,7	-82,2
H. Garraioa eta biltegiratzea	17.451,4	513.760,1	666,0	867.028,8	0,1	0,1	2.844,0	-99,9
I. Ostalaritza	754,5	6.510,5	965,6	522.793,1	0,1	0,2	762,9	-85,2
J. Informazioa eta komunikazioak	740,7	10,0	31.531,1	477.630,2	4,0	6,6	-98,6	315.211,4
K. Finantza eta aseguru jarduerak	27.474,0	51.488,5	34.483,4	2.326.345,3	4,3	1,5	87,4	-33,0
L. Higiezinen arloko jard.	75.350,3	75.021,1	558.731,7	2.992.449,6	70,4	18,7	-0,4	644,8
M. M. Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak	27.924,9	629,8	1.464,0	709.372,3	0,2	0,2	-97,7	132,5
N. Jarduera administratiboak eta zerbitzu osagarriak	1,2	11.915,3	20.023,0	168.986,4	2,5	11,8	992.844,2	68,0
O. Administrazio publikoa eta defentsa	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
P. Hezkuntza	3,0	0,0	649,7	405.391,5	0,1	0,2	-100,0	
Q. Jarduera sanitarioak eta gizarte zerbitzuetakoak	16,5	0,1	403,0	147.697,9	0,1	0,3	-99,3	335.733,3
R. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	8,0	662,5	226,0	258.097,1	0,0	0,1	8.181,1	-65,9
S. Beste zerbitzu batzuk	0,0	0,0	0,6	35.662,2	0,0	0,0		
T. Etxeko jarduerak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
U. Lurraldetik kanpoko erakundeen eta organismoen jarduerak	0,0	0,0	0,0	2,1	0,0	0,0		
Inbertsioa guztira	**1.072.219,5**	**1.408.749,0**	**793.683,4**	**21.724.338,4**	**100,0**	**3,7**	**31,4**	**-43,7**

(*)Inbertsio osoa ABDEak kanpo utzita. b: behin-behineko datuak
Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa

I.2.9. TAULA. EAE-N EGINIKO INBERTSIO OSOA*, ESTATUAN EGINIKOAREN GAINEKO PARTAIDETZA, HERRIALDEKA (mila €)

		EAE			Estatua 2015b	EAE banaketa	% estatua-ren g.	ALDAK. EAE	
		2013	2014	2015				%13-14	%14-15
Inbertsioa, guztia		**1.072.219,5**	**1.408.749,0**	**793.683,4**	**21.724.338,4**		**3,7**	**31,4**	**-43,7**
Inbertsioaren azken titularraren bizitokia dagoen herrialdea	ELGA	908.489,9	1.242.867,3	535.229,9	18.412.576,9	67,4	2,9	36,8	-56,9
	15EKO EB	890.328,0	845.918,4	229.324,1	14.830.924,4	28,9	1,5	-5,0	-72,9
	28KO EB	890.410,0	846.223,6	246.649,0	14.947.265,7	31,1	1,7	-5,0	-70,9
	Ipar Amerika	496,3	395.902,4	201.697,0	1.647.451,4	25,4	12,2	79.666,0	-49,1
	Kanada	1,0	44.811,7	15,1	66.461,0	0,0	0,0	4.481.072,0	-100,0
	AEB	495,3	351.090,7	201.681,9	1.580.990,5	25,4	12,8	70.780,2	-42,6
	Latinoamerika	56.173,2	160.323,2	101.150,5	1.673.246,7	12,7	6,0	185,4	-36,9
	Argentina	0,0	0,0	3,0	38.266,2	0,0	0,0		
	Brasil	3.644,5	154.782,9	0,0	66.251,8	0,0	0,0	4.147,1	-100,0
	Txile	246,7	5,8	10,0	8.099,0	0,0	0,1	-97,7	74,1
	Mexiko	6.431,2	262,9	100.704,4	977.396,8	12,7	10,3	-95,9	38.200,9
	Asia eta Ozeania	8.331,0	4.901,5	3.006,7	2.130.786,0	0,4	0,1	-41,2	-38,7
	Txina	38,7	7,9	2.247,4	585.630,3	0,3	0,4	-79,7	28.529,3
	Arabiar Emirerriak	3,0	98,2	0,0	172.562,7	0,0	0,0	3.174,0	-100,0
	India	0,0	0,0	0,0	14.005,1	0,0	0,0		
	Japonia	0,0	291,5	0,0	404.257,4	0,0	0,0		-100,0
	Zeelanda Berria	0,0	0,0	0,0	486,2	0,0	0,0		
	Afrika	113.254,2	1,5	3.302,4	34.395,7	0,4	9,6	-100,0	220.060,0
	Paradisu fiskalak	96.416,2	5.151,6	234.376,6	633.083,1	29,5	37,0	-94,7	4.449,6
	Errusia	4,0	0,3	0,0	49.687,0	0,0	0,0	-92,5	-100,0

(*)Inbertsio osoa ABDEak kanpo utzita. b: behin-behineko datuak
Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa

2.4.2 Euskal inbertsioa atzerrian

Euskal inbertsioa atzerrian, ABDEak kanpo utzita, %36 hazi egin da 2014. urtetik 2015. urtera bitartean, 650,6 milioi eurotik 416,2 milioi eurora. Estatukoa, bestalde, %7,7 jaitsi da, hots, 26.603,8 milioi eurotik 24.545,1 milioi eurora.

Hala, Estatuko datuaren gainean EAEk atzerrian eginiko inbertsioaren proportzioa hazi egin da: 2014ko %2,4tik 2015eko %1,7ra. Madrilgo Erkidegoak jasotzen duen inbertsioa deskontaturik, %5,8rainokoa da, eta hazi egin da 2014 eta 2015 bitartean: %4,6tik %5,8ra.

I.2.6. GRAFIKOA. EAE-K ATZERRIAN EGINIKO INBERTSIO GORDINA



ADBEak kanpo utzita.
Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa

EAEk seigarren tokia du EAEko rankingean atzerrian eginiko inbertsioen aldetik, hauexen azpitik: Madril (17.331,9 milioi euro),Katalunia (3.879,4 milioi), Galizia (1.100 milioi), Andaluzia (536 milioi) eta Kantabria (535 milioi).

Sektoreen arabera, hauexek nabarmentzen dira:

- Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa: EAEn kanpoko inbertsioaren %39,4 da eta Estatuak atzerrian sektore horretan eginikoaren %95,9.
- Finantza- eta aseguru-jarduerak: EAEko kanpoko inbertsioaren %17,8 eta Estatuak atzerrian sektore horretan eginikoaren %4,6.
- Ibilgailu motordunen eta bestelako garraio materialen fabrikazioa EAEren inbertsioaren % 10,5 da eta Estatuak kanpoaldean eta sektore honetan egindakoaren % 10,4. Nabarmen hazi da aipaturiko epealdian.
- Motordun ibilgailuen eta beste garraio-material batzuen fabrikazioa: EAEko kanpoko inbertsioaren %6,2 da, eta Estatuak atzerrian sektore horretan eginikoaren %7,7.
- Argindarraren hornidura, gasa, lurruna eta aire egokitua EAEren kanpoko inbertsioaren %5,3 eta Estatuak atzerrian eta sektore horren eginikoaren %1,7 dira.
- Eraikuntza EAEren inbertsioaren %4,5 eta Estatuak atzerrian sektore horretan eginikoaren %0,5 da.

Herrialdeen arabera, EB15en barruan, EAEko inbertsioen norako nagusiak ondokoak izan ziren 2015. urtean: Alemania (164,1 milioi euro), Portugal (717 milioi euro) eta Frantzia (37,6 milioi). Eta EBtik kanpora: Mexiko (68 milioi) eta Brasil (23,6 milioi euro).

I.2.10. TAULA. ATZERRIKO INBERTSIO OSOA AAEE GORABEHERA* (mila euro)							
	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015 b
Guztira	**20.097.729,30**	**30.910.722,70**	**30.726.401,98**	**16.150.324,12**	**19.010.669,89**	**26.603.764,44**	**24.545.111,46**
Andaluzia	385.167,54	709.058,86	877.202,17	143.479,86	362.314,05	2.088.785,60	535.973,74
Aragoi	48.592,20	154.084,89	205.474,98	232.344,38	41.277,72	36.181,33	14.437,47
Kantabria	4.572.958,35	1.486.571,17	4.980.455,37	1.605.289,07	449.253,20	6.069.952,49	534.995,66
Gaztela eta Leon	205.404,61	87.940,69	30.030,86	175.717,39	23.494,62	54.686,57	185.118,24
Gaztela-Mantxa	22.344,01	1.463,35	91.720,48	35.893,45	16.325,09	212,97	5,70
Katalunia	2.320.164,00	2.103.540,67	2.919.272,71	2.345.269,55	2.528.286,19	3.984.741,56	3.879.446,80
Ceuta eta Melilla				0,11			
Madril	8.071.462,56	21.074.461,74	14.754.530,61	9.927.815,13	12.073.742,35	12.483.270,26	17.331.882,38
Valentzia	1.625.406,95	1.802.158,74	431.520,78	266.199,89	222.780,60	343.042,42	62.336,41
Extremadura	870,95	2.202,43	1.213,33	2.258,03	1.230,01	24,38	
Galizia	668.538,35	786.735,06	723.499,70	434.713,36	715.376,33	448.540,96	1.099.948,72
U. Balearrak	47.053,16	446.470,59	57.137,28	347.267,63	1.229.109,54	267.745,79	48.412,84
U. Kanariarrak	31.835,86	3.867,96	1.702,62	15.540,68	2.560,11	5.374,16	0,00
Errioxa	154,75	4,81	2.135,30	1.773,00	658,55	0,00	910,00
Nafarroa	34.244,56	5.855,48	27.221,44	26.630,87	47.743,46	33.473,86	19.179,94
EAE	1.493.926,97	2.018.474,70	5.348.475,98	431.341,76	1.207.167,69	650.603,29	416.219,56
Asturias	550.390,83	224.944,69	216.033,57	147.221,85	88.223,25	126.859,31	416.000,29
Murtzia	19.213,65	2.886,87	58.774,80	11.568,11	1.127,13	10.269,49	243,71

(*)Inbertsio osoa ABDEak kano utzita. b behin-behineko datuak
Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa

I.2.11. TAULA. EAE-KO INBERTSIO OSOA* ETA ESTATUAN EGINIKOAREN GAINEKO PARTAIDETZA, SEKTOREKA (mila €)								
	EAE			Estatua 2015 b	EAE banaketa	% estat. gain.	ALDAK. EAE	
	2013	2014	2015				%13-14	%14-15
A. Nekaz, abelz, basog. eta arr.	6.578,2	0,0	109,4	251.164,9	0,0	0,0	-100,0	
B. Erauzketa-industriak	0,0	0,0	0,0	9.558.827,5	0,0	0,0		
C. Elikagaiak, edariak eta tabakoa	0,0	90,0	0,0	240.463,1	0,0	0,0		-100,0
C. Ehungintza eta jantzigintza	0,0	0,0	0,0	1.121,1	0,0	0,0		
C. Larrugintza eta oinetakoak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
C. Egurraren eta artelazkiaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza salbu	0,0	0,0	0,0	227.796,3	0,0	0,0		
C. Papergintza eta arte grafikoen industria	0,0	0,0	0,0	71.707,5	0,0	0,0		
C. Kokegintza eta petrolio-finketa	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
C. Ind. Kimikoak eta kautxu eta plastiko Transf.	6.464,5	5.111,5	6.161,8	65.504,5	1,5	9,4	-20,9	20,5
C. Prod. Farmaze. Fabrik.	0,0	0,0	0,0	42.598,9	0,0	0,0		
C. Metalurgia eta produktu metalikoen fabrik.	27.728,0	40.496,4	0,0	334.818,3	0,0	0,0	46,0	-100,0
C. Prod. Informat., elektronik. eta optikoen fabrik.	8.438,8	0,0	164.015,8	170.999,0	39,4	95,9	-100,0	
C. Material eta ekipamendu elektrikoaren fabrik.	8.029,7	11.999,6	17.484,8	83.711,0	4,2	20,9	49,4	45,7
C. BESG makineriaren eta ekipamenduaren fabrik.	4.325,5	1.096,7	20.308,8	24.871,2	4,9	81,7	-74,6	1.751,8
C. Ibilgailu motord. eta beste garraio-mat. batzuen fabrik	14.659,6	40.121,8	25.733,4	334.948,4	6,2	7,7	173,7	-35,9
C. Altzarien fabrik.	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
C.Beste manufak. batzuk	23.275,1	39,9	0,0	104.334,2	0,0	0,0	-99,8	-100,0
C. Makin. Instalazioen konp.	0,0	0,0	0,0	0,4	0,0	0,0		
D. Energia elektriko, gas, lurrun eta aire girotuaren hornidura	655.904,7	335.897,4	22.043,6	1.335.487,9	5,3	1,7	-48,8	-93,4
E. Ur hornidura, saneam. jarduera, hondakinen kudeaketa eta deskutsatzea	2.166,6	0,0	0,0	5.880,8	0,0	0,0	-100,0	

I.2.11. TAULA. EAE-KO INBERTSIO OSOA* ETA ESTATUAN EGINIKOAREN GAINEKO PARTAIDETZA, SEKTOREKA (mila €)

	EAE			Estatua 2015 b	EAE banaketa	% estat. gain.	ALDAK. EAE	
	2013	2014	2015				%13-14	%14-15
F. Eraikuntza	44.527,5	15.449,9	18.752,3	3.674.153,7	4,5	0,5	-65,3	21,4
G. Handizkako eta txikizkako merk. motord. Ibilgailuen eta motoz. konp.	19.112,9	24.719,3	12.411,7	275.488,2	3,0	4,5	29,3	-49,8
H. Garraioa eta biltegiratzea	0,0	0,0	0,0	169.656,4	0,0	0,0		
I. Ostalaritza	0,0	1.484,4	687,3	87.854,5	0,2	0,8		-53,7
J. Informazioa eta komunikazioak	75.028,8	54.752,5	43.532,2	941.441,4	10,5	4,6	-27,0	-20,5
K. Finantza eta aseguru jarduerak	279.384,2	97.686,3	74.091,9	5.302.021,9	17,8	1,4	-65,0	-24,2
L. Higiezinen arloko jard.	102,5	0,0	0,0	1.072.164,9	0,0	0,0	-100,0	
M. M. Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak	29.972,8	21.295,8	2.219,7	43.884,1	0,5	5,1	-28,9	-89,6
N. Jarduera administratiboak eta zerbitzu osagarriak	1.468,4	361,8	8.666,9	38.146,5	2,1	22,7	-75,4	2.295,6
O. Administrazio publikoa eta defentsa	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
P. Hezkuntza	0,0	0,0	0,0	80,6	0,0	0,0		
Q. Jarduera sanitarioak eta gizarte zerbitzuetakoak	0,0	0,0	0,0	5.446,3	0,0	0,0		
R. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	0,0	0,0	0,0	80.538,1	0,0	0,0		
S. Beste zerbitzu batzuk	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
T. Etxeko jarduerak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
U. Lurraldetik kanpoko erakundeen eta organismoen jarduerak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
Inbertsioa guztira	**1.207.167,7**	**650.603,3**	**416.219,6**	**24.545.111,5**	**100,0**	**1,7**	**-46,1**	**-36,0**

(*) Inbertsio osoa ABDEak kanpo utzita.b behin-behineko datuak
Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa

I.2.12. TAULA. EAE-N EGINIKO INBERTSIO OSOA*, ESTATUAN EGINIKOAREN GAINEKO PARTAIDETZA, HERRIALDEkA (mila €)

		2013	2014	2015 b	Estatua 2015	EAE banaketa (%)	% estat. gain.	%13-14	%14-15
Inbertsioa guztira		**1.207.167,7**	**650.603,3**	**416.219,6**	**24.545.111,5**	**285,6**	**1,7**	**-46,1**	**-36,0**
Inbertsioaren berehalako herrialdea	ELGA.	1.108.526,9	576.703,9	374.956,1	21.379.696,0	90,1	1,8	-48,0	-35,0
	EB-15	754.870,8	386.175,8	296.713,7	10.450.465,3	71,3	2,8	-48,8	-23,2
	EB-28	784.246,1	406.469,1	300.431,5	10.563.151,5	72,2	2,8	-48,2	-26,1
	Ipar Amerika	98.796,0	87.818,3	873,4	10.020.613,3	0,2	0,0	-11,1	-99,0
	Kanada	0,0	0,0	0,0	9.103.739,1	0,0	0,0		
	AEB	98.796,0	87.818,3	873,4	916.874,3	0,2	0,1	-11,1	-99,0
	Latinoamerika	270.690,7	133.710,2	91.756,0	3.038.816,5	22,0	3,0	-50,6	-31,4
	Argentina	0,0	13.481,7	109,4	64.156,6	0,0	0,2		-99,2
	Brasil	41.129,1	16.970,5	23.643,7	609.701,6	5,7	3,9	-58,7	39,3
	Txile	291,5	964,1	0,0	715.549,3	0,0	0,0	230,7	-100,0
	Mexiko	195.825,6	74.327,2	67.963,9	578.254,0	16,3	11,8	-62,0	-8,6
	Asia eta Ozeania	27.196,0	13.119,5	15.055,4	271.985,9	3,6	5,5	-51,8	14,8
	Txina	255,7	1.603,0	11.890,1	199.664,8	2,9	6,0	526,9	641,7
	Hego Korea	3.036,8	0,0	0,0	9.652,4	0,0	0,0	-100,0	
	Arabiar Emirerriak	0,0	0,0	0,0	111,8	0,0	0,0		
	India	8.550,7	4.966,7	2.733,3	13.760,3	0,7	19,9	-41,9	-45,0
	Japonia	2.999,6	6.094,0	0,0	22,0	0,0	0,0	103,2	-100,0
	Taiwan	0,0	0,0	0,0	376,5	0,0	0,0		
	Afrika	0,0	0,9	306,0	116.270,4	0,1	0,3		33520,9
	Paradisu fiskalak	2.544,0	1.526,7	1.330,6	43.005,7	0,3	3,1	-40,0	-12,8

(*) Inbertsio osoa ABDEak kanpo utzita. b: behin-behineko datuak
Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa

3. SEKTORE PRODUKTIBOAK

Kapitulua bost epigrafe handitan banatzen da. Lehenik eta behin, enpresen Egitura eta Demografia aztertuko da, eta horri esker, informazioa lortu ahal izango da enpresetatik, jarduera ekonomikoak egiten dituzten unitateak diren aldetik. Bigarren epigrafeak lehen sektoreko magnitude nagusiak biltzen ditu (Nekazaritza, Abeltzaintza eta Basoko Ustiapena batetik, eta Arrantza bestetik). Hirugarren atalean, sakon aztertuko da industriaren sektorea, eta horretarako, Kontu Ekonomikoez gain, koiunturako beste adierazle batzuk erabiliko dira hala nola Industri Produkzioaren Indizea (IPI), Industri Prezioen Indizea IPRI) eta EUSTATen Industria Estatistikako hainbat magnitude. Laugarren puntuaren ardatza eraikuntzaren sektorearen azterketa da, honako hauen bidez: Kontu Ekonomikoak, Eraikuntzaren Koiuntura Indizea (EKI), Eraikuntzako Kostuen Indizea (EKOI) eta EUSTATen Eraikuntzaren Estatistika. Eta azkenik, bosgarren atalak zerbitzuen sektorearen analisia biltzen du, merkataritza eta ostalaritza azpisektoreei eta finantza-sektoreari buruzko azterlan zehatzekin.

Merkataritzaren azpisektorearen kasu zehatzean, Txikizkako Merkataritzaren Indizearen (IMI) eta Saltoki Handietako Merkataritza Indizearen bilakaera aztertzen da; ostalaritzari dagokionez, EUSTATen turismo establezimendu hartzaileen Inkestako zenbait adierazle aztertzen dira; eta finantzen azpisektorea aztertzeko, askotariko adierazle multzoa erabili da hala nola banku zentralen esku-hartze motak, interes-tasak, hipoteka-krediduak, gordailuak eta burtsaren merkatuaren ikuspegia.

3.1. ENPRESEN EGITURA ETA DEMOGRAFIA

3.1.1. Enpresen egitura

EUSTATen *Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (JEGID)*" eragiketari esker, enpresei buruzko informazioa lor daiteke EAEn jarduera ekonomikoak egiten dituzten unitateak diren aldetik, eta horretarako, jarduera ekonomikoaren sektoreen gaineko oinarrizko informazio estrukturala ematen da eta, gainera, enpresa horietako enplegatuari buruzko informazioa ematea ahalbidetzen da. Gaur egun, ez ditu biltzen etxeko langileei lana ematen dieten familien jarduerak, ezta lurraldez kanpoko erakundeak ere.

JEGIDen 2015eko azken datuen arabera, EAEn 158.810 enpresa[1] zeuden martxan, guztira 843.816 langile, halako moldez non batez besteko tamainak 5,3 enplegukoa izaten jarraitzen baitu enpresako. Egoitza soziala oraindik EAEn duten enpresa horien portzentajea % 97,7 da. 2014 eta 2015 bitartean, %0,1 egin zuen behera enpresen kopuruak eta %0,6 enpleguak, baina beherakadaren ratioak txikiagoak ziren aurreko urteetakoak baino.

I.3.1. KOADROA. EAEko ENPRESAK, SOZIETATE EGOITZAREN ARABERA*

	2012	2013	2014	2015	12-13 (%)	13-14 (%9	14-15 (%)
Guztira, enpresak (EAE eta ESTATUA)	**165.517**	**161.067**	**159.001**	**158.810**	**-2,7**	**-1,3**	**-0,1**
EAE	161.626	157.405	155.306	155.121	-2,6	-1,3	-0,1
--Araba	21.851	21.663	21.321	21.303	-0,9	-1,6	-0,1
--Gipuzkoa	56.491	55.249	53.940	53.497	-2,2	-2,4	-0,8
--Bizkaia	83.284	80.493	80.045	80.321	-3,4	-0,6	0,3
ESTATUKO gainerakoak	3.891	3.662	3.695	3.689	-5,9	0,9	-0,2
EAE (%)	97,6	97,7	97,7	97,7			
ESTATUKO gainer. (%)	2,4	2,3	2,3	2,3			
Enplegura, guztira	**873.121**	**855.093**	**849.335**	**843.816**	**-2,1**	**-0,7**	**-0,6**
B.b. tamaina	**5,3**	**5,3**	**5,3**	**5,3**			

** Salbuetsita daude etxeetako jarduerak etxeko langileen enplegatzaileak eta norberaren erabilerarako ondasunen eta zerbitzuen ekoizleak diren aldetik eta lurraldez kanpoko erakundeen jarduerak*
Iturria. EUSTAT. JEGID
Iturria: EUSTAT. JEGID

1Enpresa: establezimenduen jarduerari legezko euskarria ematen dien unitate juridikoa, hau da, beregaineko lege-nortasuna duen edozein elkarte, erakunde, organismo, pertsona fisiko edo edozein erakunde publiko edo pribatu, zeinaren ardurapean eta zuzendaritzapean jarduerak egiten baitira. 2012tik hona, EUSTATek lehen sektoreko enpresak sartzen ditu.

Sozietate goitza EAEn duten enpresetatik (155.121), %51 Bizkaian zeuden (2014 eta 2015 bitartean %0,3 egin zuen gora enpresen kopuruak, %34,5 Gipuzkoan eta %13,7 Araban.

Hemeretzi jarduera ekonomikoetatik seik 10.000 enpresa baino gehiago ditu bakoitzak, hots, enpresa guztien %71 eta, aldi berean, enpleguaren %58. Enpresa kopuruari dagokionez, nabarmentzekoa da batez ere handizkako merkataritzaren eta txikizkako merkataritzaren pisua, motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa (%22,6). Bigarren tokian, lanbide-jarduera zientifikoak eta teknikoak (%13,4) eta eraikuntza (%12,9) ageri dira.

25.000tik gorako lanpostu bolumena duten 10 jarduerek enpleguaren %88 metatzen dute. Nabarmenenak hauexek dira: lehenik eta behin, Manufaktura industria (%19,4) eta bigarrenik Handizkako eta txikizkako merkataritza, Motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa (%15,1). Ondoren, antzeko pisua izanik, Herri administrazioa, Defentsa eta GZ (%8,7) eta Osasun jarduerak eta Gizarte zerbitzuak (%8,9) daude. Bi horiek batuta, Manufaktura industriaren ia baliokidea den enplegu proportzioa metatzen dute, Merkataritzakoa gaindituta.

Enpresaren batez besteko tamaina, lehen ere aipatu dugun moduan, 5,3 enplegukoa da. Administrazio publikoa eta defentsa eta gizarte segurantza alde batera utzita (168,1), enpresako batez besteko tamaina handiena ageri duten sektoreak hauek dira: Ur hornidura; saneamenduko, hondakin kudeaketako eta kutsadura kentzeko jarduerak (19,5), energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura (18,4), manufaktura industria (14,8) eta administrazio jarduerak eta zerbitzu osgarriak (10,8) eta osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak (9,5).

2014 eta 2015 bitartean, hona hemen enpresen kopuruetan izandako jaitsierarik handienak, beste sektore batzuen artean: Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza (-%7,6), Manufaktura industria (-%2,7), Higiezinen arloko jarduerak (-%2,2), Ur hornidura; saneamendu jarduerak; hondakinen kudeaketa eta kutsadura kentzeko jarduerak eta eraikuntza (bietan -%2,1); Garraioa eta Biltegiratzea (-%2) eta Administrazio jarduerak eta zerbitzu osagarriak (enpresen %1,7 galduta). Hazkunderik handienak, berriz hauexetan izan dira: Hezkuntza (%6), Arte, jolas eta aisialdi jarduerak (%5,1), Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (%4,7) eta Informazioa eta Komunikazioak (%4).

Bestalde, lanpostu gehien galdu dituzten sektoreak honako hauek dira: Ur hornidura; saneamendu jarduera, hondakinen kudeaketa eta kutsadura kentzea (-%22,3); Finantza- eta aseguru-jarduerak (-%3,3), Manufaktura industria (-3,1) eta Energia elektrikoaren hornidura, gasa, lurruna eta aire egokitua (-%2,9).

Bestetik, enpresen kopurua igo egin da zenbait sektoretan, baina guztizko enplegua behera egin du, edo alderantziz. Enpresa kopuruak gora baina enpleguak behera egin dueneko sektoreen artean, hauexek daude: Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza (-%7,6 eta %+2,6 hurrenez hurren) eta Administrazio jarduerak eta Gizarte zerbitzuak (bietan %1,7 jaitsi da, baina %2,7 egin du enpleguak).

Enpresa kopurua igo arren guztizko enpleguan beherakada izan dutenen artean, berriz, hauek: Informazioa eta komunikazioak (+%4 eta -%1,3), Finantza eta aseguru jarduerak (+%1 eta -%3,3); Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (+%2,1 eta -%0,6) eta Osasun jarduerak eta Gizarte zerbitzuetakoak (%4,7 eta -%0,5).

Nortasun juridikoa aintzat hartuta eta tamaina txikieneko enpresak kanpoan utzita[2], hain zuzen ere titulartzat pertsona fisiko bat dutenak (enpresa bakoitzeko 1,4 pertsonako batez bestekoarekin), batez besteko tamaina 11 pertsonako kopuruan kokatzen da (egonkor eutsi dio azken urteetan). Bertan, Sozietate Anonimoetako batez besteko lan-taldea 33,9 langilekoa da (33,4 2014an) eta Kooperatibena, aldiz, 30,69 pertsonakoa (32,4 aurreko ekitaldian).

2Titularraren edo enpresaren izaera juridikoa (IFK, IFZ, NAN), kategoria hauen arabera: pertsona fisikoak, sozietate anonimoak, erantzukizun mugatuko sozietateak, beste sozietate eta elkarte batzuk (ohiko elkarte kolektiboak, elkarte komanditarioak, elkarteak, gizarte zibila eta zehaztu gabeko beste sozietate mota batzuk), ondasun-erkidegoak, sozietate kooperatiboak eta beste forma juridiko batzuk (tokiko korporazioak, erakunde autonomoak edo antzekoa, erlijio-kongregazio edo -erakundeak eta estatuko eta autonomia-erkidegoetako organoak). Eustat (Metodologia, Definizioak)

EAEko enpresa jardueraren erdia baino gehiago (% 59,3) "pertsona fisiko" motako estaldura juridikopean egiten da, baina formula horrek enpleguaren % 15,9 baino ez du biltzen. Horrenbestez, pertsona juridikoen estaldura juridikopean egiten den enpresa jarduera % 40,7koa da, eta enpresa horiek enpleguaren % 84,1 biltzen dute.

Pertsona fisikoak kontuan hartu gabe, enpresa jardueren %9,5 sozietate anonimoen forma juridikoarekin egiten da, enpresa jardueren bi herenak ia (% 66,1) erantzukizun mugatuko sozietate moduan egiten dira; enpleguaren bi heren baino zertxobait gehiago (% 65) Sozietate Anonimoen eta Erantzukizun Mugatuko Sozietateen artean banatzen da; Sozietate Kooperatiboak enpresen % 2,5 dira eta enpleguaren % 6,9 biltzen dute.

I.3.2. KOADROA. EAE-KO ENPRESA ETA LANPOSTU KOPURUAREN BILAKAERA, JARDUERA ADARRAREN (CNAE 09) ETA NORTASUN JURIDIKOAREN ARABERA

	ENPRESAS				LANPOSTUAK				B.B. LANPOSTUAK	
	2014	2015	Pisua	14-15 (%)	2014	2015	Pisua	14-15 (%)	2014	2015
GUZTIRA	**159.001**	**158.810**		**-0,1**	**849.335**	**843.816**		**-0,6**	**5,3**	**5,3**
Zehaztugabea										
A. Nekazaritza, abeltz., basozaintza eta arrant.	6.402	5.914	3,7	-7,6	12.968	13.299	1,6	2,6	2,0	2,2
B. Erauzketa industriak	40	41	0,0	2,5	398	401	0,0	0,8	10,0	9,8
C. Manufaktura industria	11.421	11.115	7,0	-2,7	169.203	164.038	19,4	-3,1	14,8	14,8
D. Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura	118	118	0,1	0,0	2.230	2.166	0,3	-2,9	18,9	18,4
E. Ur hornidura, saneam. Jard., Hondakinen Kudeaketa eta kutsadura garbitzea	234	229	0,1	-2,1	5.746	4.466	0,5	-22,3	24,6	19,5
F. Eraikuntza	20.890	20.459	12,9	-2,1	53.842	52.841	6,3	-1,9	2,6	2,6
G. Handizkako merkataritza, txikizkakoa, ibilgailu motordunen eta motorren konponketa	35.996	35.921	22,6	-0,2	128.912	127.826	15,1	-0,8	3,6	3,6
H. Garraioa eta biltegiratzea	10.833	10.621	6,7	-2,0	40.397	40.063	4,7	-0,8	3,7	3,8
I. Ostalaritza	13.230	13.137	8,3	-0,7	52.107	51.278	6,1	-1,6	3,9	3,9
J. Informazioa eta komunikazioak	2.948	3.065	1,9	4,0	20.909	20.644	2,4	-1,3	7,1	6,7
K. Finantza- eta aseguru-jarduerak	2.982	3.013	1,9	1,0	20.648	19.969	2,4	-3,3	6,9	6,6
L. Higiezinen arloko jarduerak	2.850	2.788	1,8	-2,2	4.560	4.532	0,5	-0,6	1,6	1,6
M. Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak	20.914	21.354	13,4	2,1	56.839	56.507	6,7	-0,6	2,7	2,6
N. Jarduera administratiboak eta zerbitzu osag.	5.652	5.554	3,5	-1,7	58.534	60.095	7,1	2,7	10,4	10,8
O. Administrazio publikoa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurantza	431	436	0,3	1,2	73.309	73.291	8,7	0,0	170,1	168,1
P. Hezkuntza	4.177	4.429	2,8	6,0	39.065	42.115	5,0	7,8	9,4	9,5
Q. Jarduera sanitarioak eta gizarte zerbitzuetakoak	8.383	8.775	5,5	4,7	75.712	75.308	8,9	-0,5	9,0	8,6
R. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	2.988	3.140	2,0	5,1	11.931	12.185	1,4	2,1	4,0	3,9
S. Beste zerbitzu batzuk	8.512	8.701	5,5	2,2	22.025	22.792	2,7	3,5	2,6	2,6
Pertsona fisikoa	94.671	94.221	59,3	-0,5	134.261	133.753	15,9	-0,4	1,4	1,4
Sozietate anonimoa	6.453	6.143	3,9	-4,8	215.541	208.135	24,7	-3,4	33,4	33,9
Erantzukizun mugatuko sozietatea	42.246	42.662	26,9	1,0	252.845	253.658	30,1	0,3	6,0	5,9
Beste sozietate eta elkarte batzuk	14.641	14.799	9,3	1,1	116.787	117.392	13,9	0,5	8,0	7,9
Beste sozietate bat*	6.651	6.799	4,3	2,2	48.148	49.865	5,9	3,6	7,2	7,3
Ondasun-erkidegoa	6.456	6.409	4,0	-0,7	18.952	18.813	2,2	-0,7	2,9	2,9
Sozietate kooperatibak	1.534	1.591	1,0	3,7	49.687	48.714	5,8	-2,0	32,4	30,6
Beste forma juridiko batzuk	990	985	0,6	-0,5	129.901	130.878	15,5	0,8	131,2	132,9
Tokiko korporazioa	381	378	0,2	-0,8	26.279	26.233	3,1	-0,2	69,0	69,4
Erakunde autonomoa edo haren parekoa. Erlijio erakundea	562	560	0,4	-0,4	26.649	28.526	3,4	7,0	47,4	50,9
Estatuko eta AAEEetako administrazioen organoak.	47	47	0,0	0,0	76.973	76.119	9,0	-1,1	1637,7	1619,6

** (Erregular kolektiboa, komandita, elkartea, sozietate zibila eta definitu gabeko beste mota batzuk)*
Iturria: EUSTAT, JEGID

Merkatuko edo enpresako ekonomia sozialaren egituraren (batez ere Sozietate Kooperatiboak eta Lan Sozietateak) analisiak erakusten du Sozietate Kooperatiboko izaera juridikoa daukaten enpresen kopurua 1.591 dela 2015ean, EUSTATen arabera. Gainera, 48.714 langile dauzkate. Beraz, batez besteko plantilla 30,6 langilekoa da, lehenago ere esan dugunez.

2015eko abenduaren 31n EAEn altan dauden 1.555 kooperatiba enpresa (aurreko urtean baino 23 gehiago) erregistratu ditu Gizarte Segurantzak, guztira; horiek 55.343 langile zituzten. Horrek 35,6 langileko batezbestekoa dakar kooperatibako (EUSTATeko ratioa baino handiagoa), eta Estatuko batezbesteko handiena da, haren batezbestekoa (14,8).

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte-ekonomiaren Zuzendaritzaren Kooperatiben Erregistroak 1.096[3] kooperatiba zenbatu zituen 2015ean, eta horietatik erdia (1.107) lan elkartuko kooperatibak ziren.

Gainera, beste 844 erakunde kooperatiba txikiak ziren (beren araubidea eta araudia dituztela, ekainaren 25eko 6/2008 Legea dela bide), halako moldez non EAEn, 2015. urtea amaitzean, 2.75 kooperatiba bildu baitziren guztira.

I.3.3. KOADROA. KOOPERATIBEN KOPURUAREN BILAKAERA, MOTEN ARABERA SAILKATUAK (XII-31N)

	2013	2014	2015		2014/15 ALD.	2007/15 ALD.
			ABS.	%		
GUZTIRA	**1.843**	**1.875**	**1.906**	**100,0**	**31**	**265**
NEKAZARITZAKOAK	111	113	114	6,0	1	15
KONTSUMOKOAK	35	36	36	1,9	0	4
ZERBITZUAK ETA BESTE	96	84	85	4,5	1	9
ELKARLANA	1.090	1.107	1.107	58,1	0	50
IRAKASKUNTZA	94	95	96	5,0	1	4
ETXEBIZITZA	322	350	376	19,7	26	152
KREDITUA	1	1	1	0,1	0	0
MISTOAK	45	43	44	2,3	1	27
2. GRAD. EDO HANDIAG.	49	46	47	2,5	1	4

Iturria: Kooperatiben Erregistroa. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EUSKO JAURLARITZA.

Hazkunderik handiena, aurreko ekitaldian bezala, etxebizitza kooperatiban ageri da (+26); izan ere, kategoria horretan 152 kooperatiba gehiago bildu dira azken zortzi urtean.

Lan Sozietateei dagokienez, [4], Gizarte Segurantzaren arabera, kotizatutako kopuru osoa 644 da, hau da, 2014an baino 15 gutxiago (abenduaren 31ko datuak). 6.752 langile dauzkate (2014an baino % 1,6 gehiago). Batez besteko tamaina 10,5 langilekoa da sozietate bakoitzeko, estatuko batezbestekoa (6,3 langile) baino askozaz ere handiagoa.

ESTABLEZIMENDUEN EGITURA ENPLEGUAREN ARABERA

	2014				2015			
	Enpresak		Enplegua		Enpresak		Enplegua	
	n	%	n	%	n	%	n	%
Guztira	**159.001**	**100**	**849.335**	**100**	**158.810**	**100**	**843.816**	**100**
=<2	121.779	76,6	150.780	17,8	121.792	76,7	150.069	17,8
3-5	20.008	12,6	73.187	8,6	20.003	12,6	73.097	8,7
6-9	6.972	4,4	50.174	5,9	6.985	4,4	50.145	5,9
10-14	3.432	2,2	40.124	4,7	3.312	2,1	38.808	4,6
15-19	1.821	1,1	30.451	3,6	1.764	1,1	29.526	3,5
20-49	3.195	2,0	96.177	11,3	3.149	2,0	94.675	11,2
50-99	991	0,6	68.569	8,1	994	0,6	68.579	8,1
100-249	541	0,3	83.382	9,8	550	0,3	84.545	10,0
250-499	141	0,1	46.786	5,5	146	0,1	49.484	5,9
>= 500	121	0,1	209.705	24,7	115	0,1	204.888	24,3

Iturria: EUSTAT, JEGID

Enpresa guztien multzora itzulita ikusten denez, berdin eusten dio enpresen egiturak enpleguaren tamainaren arabera. Bakarrik 1.805 enpresak dituzte, enpresa guztien %1,1ek (2014an erregistraturiko ratio bera), 50 lanpostu edo gehiago, guztira 407.496, lanpostu guztien %48,3 (%48,1 2014an).

3 Ikusi Gizarte Segurantzaren eta EUSTATen datuekiko aldea.

4 Haietan, sozietatearen kapitalaren gehiena langile bazkideena da. Bazkide bakoitzak gehienez eduki dezakeen kapital soziala ezin daiteke izan guztiaren herena baino handiagoa (partaidetza publikoarekin salbuespen batzuk gertatu ohi dira). Horregatik, gutxieneko bazkide kopurua 3 da. Kapital soziala akzio izendunetan banatzen denean, lan sozietate anonimoa da (SAL). Partaidetza sozialetan banatzen denean, izaera juridikoa lan-erantzukizun mugatuko sozietateena da. Nolanahi ere, bai akzioak bai partaidetzak bi taldetan banatzen dira: bazkide langileenak eta beste pertsona batzuenak.

Aldiz, 121.792 establezimendu, kopuru osoaren % 76,7, ez da iristen 3 lanpostura eta enplegu osoaren % 17,8 hartzen dute bakarrik.

3.1.2. Enpresa-txandakatzea

Enpresa-txandakatzeari buruzko azterlana (altak, bajak eta saldoa) funtsezkoa da enpresen dinamismoari buruzko ezaugarriak ondorioztatzeko, hots, enpresa berriak sortzeko ahalmenari buruzkoak[5].

EUSTATen "*Enpresen sorrerari eta galerari buruzko estaitistika*"ri esker, sortzen eta denborarekin desegiten diren enpresen kopurua zenbatetsi daiteke. Informazio demografiko hori zuzenean lortzen da JEGIDetik, eta gainera, iraupenari eta galerari buruzko tasak ere lor daitezke.

2015eko urtarrilaren 1ean, Establezimenduen kopurua murriztu egin da 17.690 establezimendu berrik jarduera hasi dutelako baina 17.881 establezimenduk utzi dutelako euren jarduera. Hala, saldo negatiboa -191 da. Beste alde batetik, enpresak sortzeko tasa gordina, dena delako urteko enpresa sortu berrien kopurua zati aurreko urtean zegoen enpresa-kopurua, % 10,9koa da; itxitako enpresa-tasa, aldiz, % 11,1ekoa[6].

ENPRESEN ALTAK, BAJAK ETA SALDO GARBIAK

	2013/1/1	2014/1/1	2015/1/1
Egungo enpresak (aurreko urtea bukatzean zenbatuak)	165.517	161.067	159.001
Altak	14.977	16.144	17.690
Bajak	19.427	18.210	17.881
Saldo garbia	-4.450	-2.066	-191
Enpresen sorrera-tasa gordina (%)	9,0	10,0	10,9
Enpresen galera-tasa gordina (%)	11,7	11,3	11,1

Iturria: EUSTAT. Enpresen sorrerari eta galerari buruzko estatistika

Beheko koadroan 2010. urtearen hasieran alta eginda zeuden eta hurrengo bost urteetan jardunean aritu diren enpresen bilakaera dago jasoa. Izan ere, 2010ean sortutako enpresen %45 (14.944 guztira) martxan zegoen bost urteren buruan eta %55, aldiz, desagertu ziren. Lurralde historikoen arabera, martxan jarraitzen du %45ek, Bizkaian %44,6k eta Gipuzkoak %45,3.

Egoera horrek enpleguan du eragina. Hala, sortutako enpresa berriek 31.491 lanpostu sortu zituzten, eta guztira 38.397 enpresa desegin ziren, hots, 6.906 lanpostuko saldo negatiboa.

ENPRESA ETA ENPLEGUA , ALTAK 2010/1/1EAN, LANEAN HURRENGO BOST URTEAN

	Altak (2010 01/01)	Lanean				
		2011	2012	2013	2014	2015
Guztira, EAE	**14.944**	**13.057**	**10.861**	**9.237**	**7.785**	**6.728**
Iraupen-tasa	**100**	**87,4**	**72,7**	**61,8**	**52,1**	**45,0**
Araba	1.736	1.498	1.240	1.050	907	782
Bizkaia	7.872	6.876	5.663	4.861	4.077	3.514
Gipuzkoa	4.913	4.292	3.624	3.048	2.562	2.224

Iturria: EUSTAT. Enpresen sorrerari eta galerari buruzko estatistika

Azterketaren ardatz orain establezimendua hartuta (banakapen maila handiagoa ematen du nortasun juridikoaren arabera), honako hau esan dezakegu: 2015eko urtarrilaren 1ean, establezimenduen kopuru txikiagoa izan da 16.040 jarduera hasi izanaren eta 16.535 jarduera utzi izanaren ondorioz. Hala, saldo garbia -495 da.

Aurreko urtetan bezala, txandakatzerik handiena adar hauetan gertatu zen: eraikuntzan, handizkako eta txikizkako merkataritzan, motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketan; ostalaritzan eta jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan.

5Kontuan izan behar da alta eta baja jardueren zati bat erregistroen eta izenen aldaketengatik, bat-egiteengatik eta erosketengatik, etab. izan daitekeela… Ez da jasota utzi altaren edo bajaren zioa

6. Galera-tasari dagokionez, zatidura bajen arabera kalkulatzen da.

Txandaketarik handieneko estratuak, beste urtebetez, enpresa txikienei dagozkie, hain zuzen ere 2 lanpostu edo gutxiagokoei.

Nortasun juridikoa kontuan hartuz gero, EUSTATen arabera, txandakatze handiagoa egon da Pertsona fisikoaren formula juridikopean sortutako establezimenduetan: alten % 66,7 (10.687) eta bajen % 67,5 (11.165). Bigarren posizioan sozietate mugatuak egon dira.

I.3.7. KOADROA. ENPRESA-TXANDAKATZEA JARDUERA SEKTOREAREN, ENPLEGU-ESTRATUAREN ETA NORTASUN JURIDIKOAREN ARABERA, 2015/01/01. (establezimenduak)

	Altak	Bajak	Irauten duten establezimenduen saldoa	Saldo globala (altak-bajak+irauten dutenen saldoa)
	16.040	**16.535**	**0**	**-495**
01. Nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza eta arrantza	590	1.076	-4	-490
02. Erauzketa industriak, manufaktura industria, energia elektrikoaren, uraren, lurrunaren, gasaren eta aire egokituaren hornidura; ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta kutsadura kentzea	729	983	-37	-291
03. Eraikuntza	2.729	3.204	14	-461
04. Handizkako eta txikizkako merkataritza, motordunen eta motozikleten konponketa, garraioa eta biltegiratzea, ostalaritza	4.980	5.551	14	-557
05. Informazioa eta komunikazioak	513	377	-19	117
06. Finantza- eta aseguru-jarduerak	416	501	9	-76
07. Higiezinen arloko jarduerak	262	300	-27	-65
08. Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak; Jarduera administratiboak eta zerbitzu osagarriak	3.023	2.673	-31	319
09. Administrazio publikoa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurantza; Jarduera sanitarioak eta gizarte zerbitzuetakoak	1.639	1.029	45	655
10. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	1.159	841	36	354
Enplegu-estratua				
=<2	14.679	14.984	-41	-346
3-5	925	978	-29	-82
6-9	241	254	92	79
10-14	71	132	-38	-99
15-19	39	58	-30	-49
20-49	64	101	36	-1
50-99	10	17	-3	-10
100-249	10	9	10	11
250-499	1	-	-3	-2
>= 500	-	2	6	4
Nortasun juridikoa				
Pertsona fisikoa	10.687	11.165	-28	-506
Sozietate anonimoa	311	728	-63	-480
Sozietate mugatua	3.613	3.445	169	337
Beste sozietate bat	727	555	-12	160
Ondasun-erkidegoa	494	499	-60	-65
Sozietate kooperatiba	163	105	-2	56
Udal korporazioa	2	4	-3	-5
Erakunde autonomoa edo haren partekoa. Erlijio erakundea	40	32	-1	7
Estatuko eta AA.EE.etako administrazio organoa	3	2	0	1

Iturria: EUSTAT. Enpresen sorrerari eta galerari buruzko estatistika

3.2. LEHEN SEKTOREA

Kontu Ekonomikoen eta HKEen datuen arabera (datuak 2016ko otsailean argitaratu dira), eraikuntza sektorea prezio arruntetan 2008an BPGd-aren % 0,7 izatetik % 0,7 (499,8 mila euro) izatera igaro da 2015ean; lanaldi osoaren pareko lanpostuak (LOPL) 12.670 izanda, LOPLn enplegu osoaren % 1,4 da, 2008koa baino hamarren bat gutxiago.

Kontu horien arabera, 2014 eta 2015 bitartean, %6,7 egin zuen gora lehen sektorearen BEGd-ak EAEn kopuru errealetan. Lanaldi osoaren parteko lanpostuek, bestalde, %1,1 egin zuten gora

3.2.1. Nekazaritza, abeltzaintza eta baso ustiapena

Ekonomi Garapena eta Lehiakortasuna Sustatzeko Saileko Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako sailburuordetzaren estatistika organoak[7] eginiko "*Nekazaritza Sektorearen Kontu Ekonomikoak*" estatistika eragiketari dagokion nekazaritza makromagnitudeen lehen aurrerapenaren arabera, hona hemen nekazaritza sektorearen bilakaera xehatua:

Nekazaritzako azken produkzioa (nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta beste produkzio batzuk). Nekazaritzako azken produkzioaren balioa, ohiko prezioetan, 2014an baino %6,4 handiagoa izan zen.

Nekazaritzako azken produkzioa. Nekazaritzako azken produkzioaren balioa, ohiko prezioetan, 2014an lorturikoa baino %15 handiagoa da, produkzioak gora egin duelako (%14 ingurua) eta prezioek pixka bat behera egin dutelako (%1 inguru).

Garrantziaren arabera nabarmentzen da Errioxa ardo berrian ekoitzitako kantitatearen gorakada, 2014ko mahats-bilketakoa (2015eko mahats-bilketa ere ugaria izan da), baita txakolin berriaren, fruten, ortuarien eta patataren ekoizpen handiagoagatik ere.

Abeltzaintzako azken produkzioa. Abeltzaintzako azken produkzioaren balioa %1,8 egin zuen behera 2015ean, produkzioaren igoera txikiarekin eta prezioen jaitsierarekin.

Basoko azken produkzioa. Basoko azken produkzioaren balioak %4,5 egin zuen behera, prezio arruntetan, 2015. urtean. Mozketen jaitsierak eta prezioen igoerak eragin dute aldakuntza hori.

Bitarteko kontsumoak. Bitarteko kontsumoek (gastuek) %0,8 egin zuten behera 2015ean, etengabeko prezioei eutsi izanagatik eta bitarteko prezioen jaitsieragatik.

Ustiapenerako diru-laguntzak. 2014. urtean, ustiapenerako guztizko diru-laguntzek %31,8 egin zuten gora, hots, nekazaritzako errenta guztiaren %18,6 da.

Amortizazioak. %10,6 hazi dira.

Nekazaritza errenta nominala edo balio arruntetakoa (BEG). Nekazaritza errenta kalkulatzeko Gastuak eta Amortizazioak kendu behar zaizkio Nekazaritzako Azken Produkzioaren (nekazaritza + abeltzaintza + basogintza + bestelakoak) eta Diru-laguntzen baturari. 2015ean, nekazaritzako errentak %16,1 egin zuen gora ohiko terminoetan, hain zuzen ere honako hauek nagusitu diren urtean: beroa; NPKren erreforma eta esnearen sektorearen krisia; Errioxa ardoaren, txakolinaren, arrautzen, frutaren, ortuarien, behi-esnearen, patataren eta gizentzeko txerrien produkzio handiagoa, eta ekoizpen txikiagoa zerealetan, erremolatxetan eta moztutako zurean.

7 *Euskal Nekazaritza Elikagaien Behatokian bildutako datuak*

Nekazaritza errenta erreala. EAEko BPGaren %-0,2ko deflatorea aplikatu ondoren, %11,4 egin zuen gora etengabeko kopuruetan. Nekazaritzako lanaren bolumenak %0,6 egin zuen gora eta, beraz, %10,7 hazi zen nekazaritza errenta kopuru errealetan.

I.3.1. KOADROA. NEKAZARITZAKO MAKROMAGNITUDEEN BILAKAERA (mila eurotan)

	2011 Behin beti.	2012 Behin bet.	2013 Behin bet.	2014 Aurrerapena	2015 Aurrerapena	2014-15 aldak.
NEKAZARITZAKO AZKEN PRODUK.	449.895,2	480.646,5	471.312,3	491.490,9	522.911,9	6,4
Nekazaritzako azken produkzioa	249.661,0	266.083,8	252.526,6	251.186,3	288.872,3	15,0
Zerealak	45.602,0	54.117,7	36.830,7	34.184,2	29.617,0	-13,4
Lekadunak	3.718,9	2.347,8	3.177,6	4.641,8	4.691,1	1,1
Patata	11.847,7	8.550,2	9.370,5	9.325,7	9.935,2	6,5
Erremolatxa	8.124,2	7.475,3	6.012,2	7.929,7	6.743,0	-15,0
Industriako beste batzuk	1.125,6	1.408,6	1.755,8	1.452,7	2.382,6	64,0
Barazkiak	67.107,3	69.296,3	67.166,8	66.128,2	72.464,1	9,6
Frutak	14.658,6	15.717,0	14.701,0	17.977,5	21.788,5	21,2
Mahastiak	70.445,2	81.306,7	86.434,4	91.291,4	119.991,0	31,4
Beste batzuk	27.031,4	25.864,2	27.077,6	18.255,1	21.260,0	16,5
Abeltzaintzako azken produkzioa	154.249,4	169.525,1	173.459,0	182.029,6	178.799,0	-1,8
Abereak/Behi haragia	50.676,1	51.937,4	62.018,6	66.942,9	63.791,1	-4,7
Ab./Ardi-ahuntz haragia	6.935,1	7.323,5	6.413,0	6.444,9	6.722,8	4,3
Abereak/Txerri haragia	1.879,3	2.546,6	3.986,0	3.767,1	3.855,0	2,3
Behi-esnea	58.059,9	57.924,8	61.179,5	64.684,9	61.602,0	-4,8
Arrautzak	21.512,9	33.806,1	22.955,7	21.487,6	23.205,9	8,0
Beste batzuk	15.186,1	15.986,8	16.906,4	3.535,9	3.326,4	-5,9
Basoko azken produkzioa	36.779,4	35.500,3	35.491,9	49.064,7	46.856,1	-4,5
Insignis pinuaren zura	29.661,6	25.363,1	26.380,2	37.280,3	36.447,2	-2,2
Beste batzuk	7.117,8	10.137,1	9.111,7	11.784,4	10.408,9	-11,7
Beste produkzio batzuk	9.205,5	9.537,4	9.834,8	9.210,3	8.384,4	-9,0
BITARTEKO KONTSUMOAK	187.931,0	197.220,2	191.244,7	180.140,1	178.667,8	-0,8
DIRU-LAGUNTZAK	68.654,1	67.227,1	63.154,3	48.851,6	64.386,4	31,8
AMORTIZAZIOAK	56.547,9	55.591,2	59.391,5	61.443,8	61.910,9	0,8
BEG bbs	261.964,3	283.426,3	280.067,6	311.350,8	344.244,1	10,6
BEG ald	330.618,4	350.653,4	343.221,8	360.202,4	408.630,5	13,4
NEKAZARITZA ERRENTA (BEG)	274.070,5	295.062,3	283.830,3	298.758,7	346.719,6	16,1

Iturria: Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasun Sustatzeko Saileko Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako Sailburuordetzaren estatistika organoa

EAEko nekazaritza errentaren alderaketa balio errealetan (deflazioa aplikatuta) EBkoarekin eta Estatukoarekin alderatzea

EUROSTATek kontuen aurrerapenak erkatzen ditu estatuen artean, inflazioa kenduta, herrialde bakoitzak berea baitu, baita basoko sektorea alde batera utzita ere.

Metodologia horren arabera, nekazaritza errenta errealak %14,5 egin zuen gora EAEn 2014 eta 2015 bitartean eta %1,1 Estatuan. 27ko EBn, berriz %6 egin zuen behera.

I.3.9. KOADROA. NEKAZARITZAKO ERRENTA ERREALAREN BIAKAERA (basogintza sartu barik)*(aldakuntza-tasak) 2014-15*

	EAE	ESTATUA	27EB
Nekazaritzako errenta (kopuru errealetan)	**14,5**	1,1	-6,0
Nekazaritzako azken prod. (nekaz. eta abeltz.)	**7,3**	2,0	-2,5
Nekazaritzako azken prod.	**14,6**	5,2	-0,3
Abeltzaintzako azken prod.	**-2,4**	-2,0	-5,9
Bitarteko kontsumoak	**-0,8**	1,9	-2,4
Diru-laguntzak	**6,0**	-3,7	

Iturria: Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna Sustatzeko Saileko Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako Sailburuordetzaren estatistika org

3.2.2. Arrantza

Ekonomia Garatzeko eta Lehiakortasuna Sustatzeko Sailaren Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politika Sailburuordetzaren estatistika organoak argitaraturiko azken datuen arabera (2014ari buruzkoak), euskal arrantza-ontziteriak beherantz jarraitu zuen kopuruaren aldetik nahiz landunen aldetik.

Euskal arrantzontzien kopuruaren (baxurakoak, itsas zabalekoak eta bakailao-ontziak) bilakaerak atzerako joerari eusten dio. 2014an, 20 itsasontzi gutxiago izan ziren arrantza-ontziterian (aurreko urtean 6 gutxiago izan ziren), eta urtearen amaieran, guztira, 201 itsasontzi zeuden. Bestalde, tripulazioak ere behera egin du, %5,4 hain zuzen ere. Hots, 1.985 itsasgizon ari ziren lanean.

I.3.10. KOADROA. EAE-KO ITSASONTZI HANDIAK ETA ARRANTZA-ONTZITERIAREN TRIPULAZIOA

	2011	2012	2013	2014
Itsasontzi h.	245	227	221	201
Tripulazioa	2.455	2.264	2.099	1.985

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna Sustatzeko Saileko Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako Sailburuordetzaren estatistika org.

EAEko baxurako lonjetan 2014. urteetan egindako enkanteak guztira 49.110,56 tona izan ziren (2013an baino % 17,3 gehiago).

EAEko baxurako lonjetan egindako enkanteetan lortutako balioei dagokienez, 65,7 milioi euro bildu ziren. Beraz, diru-sarrerak 2013an baino % 0,3 handiagoak izan ziren (orduan 65,5 milioi euro lortu ziren).

EAEko baxurako lonjetan 2014an enkantean jarritako arrainaren batez besteko prezioa 1,34 /Kg izan zen, hau da, 2013an baino pixka bat merkeagoa, 1,44 €/kg.

I.3.11. KOADROA. EAEko BAXURAKO LONJETAN ENKANTEAN JARRITAKO ARRAINAK

		2011	2012	2013	2014
(*) Tarteko legatza eta merlenka barne)	Kantitatea (Tm)	3.387,4	2.312,41	1.429,31	497,38
	Mila €-tan	6.708,5	5.633,96	3.617,24	1.862,98
Antxoa	Tm	8.750,9	6.699,90	9.282,50	12.679,41
	Mila €-tan	18.018,7	15.009,10	23.116,46	22.275,64
Hegaluzea	Tm	4.536,9	6.362,30	3.577,68	2.965,71
	Mila €-tan	16.757,1	22.205,58	12.521,14	10.032,81
Hegalaburra/hegaluzea	Tm	471,2	134,39	0,00	0,00
	Mila €-tan	3.070,0	985,48	0,00	0,00
Sardina	Tm	7.120,6	19.303,21	12.224,49	15.081,56
	Mila €-tan	3.444,3	11.059,35	5.977,48	11.308,72
Txitxarroa	Tm	6.246,3	5.091,18	6.429,64	2.901,30
	Mila €-tan	3.710,7	3.269,47	4.255,31	2.246,17
Gainerako espezieak	Tm	11.214,2	15.966,76	12.855,95	14.985,20
	Mila €-tan	18.290,9	22.580,06	15.999,99	17.975,95
Guztira	**Tm**	**41.727,5**	**55.870,15**	**45.799,59**	**49.110,56**
	Mila €-tan	**70.000,2**	**80.743,01**	**65.487,63**	**65.702,28**
	B.b. prezioa, guztira (€/kg)	**1,67**	**1,45**	**1,44**	**1,34**

Iturria: Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna Sustatzeko Saileko Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako Sailburuordetzaren estatistika organoa

Lurraldeen eta portuen arabera, nabarmentzekoa da, bai kantitatean, bai enkanteko balioetan, Gipuzkoako Getariako (EAEko kantitate guztiaren %24,6 da eta %26 enkanteetan guztizko balioetan) eta Hondarribiko (EAEko kantitate guztiaren %22,7 da eta %19,4 enkanteetan guztizko balioetan) portuetan lortutako balioak, eta Bizkaian, berriz, Ondarroakoan (EAEko kantitate guztiaren %33,9 da eta %31,2 enkanteetan guztizko balioetan). Bigarren taldean, Pasaia eta Bermeo daude.

I.3.12. KOADROA. ENKANTEEN KOPURUAK ETA BALIOAK EAEko BAXURAKO LONJETAN, PORTUZ PORTU. 2014

Lurraldea	Kantitatea (T9	Guztizkoaren g. % EAE	Balioak mila €	Guztizkoaren g. % EAE
Donostia	0,0	0,0	0,0	0,0
Getaria	12.088,6	24,6	17.052,7	26,0
Hondarribia	11.138,7	22,7	12.758,9	19,4
Mutriku	0,0	0,0	0,0	0,0
Pasaia	4.183,8	8,5	9.158,5	13,9
Gipuzkoa guztira	**27.411,1**	**55,8**	**38.970,1**	**59,3**
Armintza	3,6	0,0	22,7	0,0
Bermeo	4.414,2	9,0	5.564,7	8,5
Lekeitio	639,2	1,3	603,4	0,9
Mundaka	0,4	0,0	2,6	0,0
Ondarroa	16.634,1	33,9	20.500,3	31,2
Santurtzi	8,10	0,0	38,4	0,0
Bizkaia, guztira	**21.699,5**	**44,2**	**26.732,2**	**40,67**
EAE, guztira	**49.110,6**	**100**	**65.702,3**	**100,0**

Iturria: Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna Sustatzeko Saileko Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako Sailburuordetzaren estatistika organoa

3.3. INDUSTRIA

EUSTATen Kontu Ekonomikoen datuen arabera (datuak 2016ko otsailean argitaratu dira), industria sektorea prezio arruntetan 2008an BPGd-aren % 25,3 izatetik 2015ean % 21,2 (14.567 miloi euro) izatera igaro da; lanaldi osoaren pareko lanpostuak (LOPL) 181.465 izanda, LOPLen enplegu osoaren % 20,5da; 2008an, aldiz, % 24,4 zen.

I.3.13. KOADROA. INDUSTRIA SEKTOREAREN ADIERAZLEAK

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
BPG prezio arruntetan (milioika)	17.655	14.389	15.177	15.403.	14.734	14.336	14.362	14.567
LOPL enplegua*	240.778	215.791	208.400	205.616	194.549	186.181	182.149	181.465
BEG aldakuntza (erreala)	-0,7	-12,9	2,5	1,3	-5,2	-2,7	1,5	2,7
Enplegu aldakuntza	-2,0	-10,4	-2,8	-1,3	-5,4	-4,3	-2,2	-0,4
Produktibitatea (LOPLen neurtua)	1,4	-2,9	6,1	2,7	0,2	1,7	3,7	3,1
Deflatorea	2,2	--6,4	2,9	0,2	0,9	0,0	-1,3	-2,7

**Lanaldi osoaren pareko lanpostuak*
Iturria: EUSTAT, Kontu Ekonomikoak

Kontu Ekonomikoen datuek erakusten dutenez, 2014an, BEG industrialaren urte arteko aldakuntzako hiruhilekoen tasetan aldakuntza positiboak izan ondoren, laugarren hiruhilekoan moteldu egin zen hazkundea; 2015ean, berriz, hazkunde txikia hasi zen (+%0,3), eta indarra irabazi zuen laugarren hiruhilekoan %4,3ko hazkundearekin bukatu arte. Hala, BEG industrialaren urte arteko aldakuntza-tasa erreala, 2015. urtean, %2,7 zen (2014an erregistraturiko ratioa baino %1,2 handiagoa).

I.3.14. KOADROA. BEG-AREN ETA INDUSTRIAKO ENPLEGUAREN BILAKAERA (urte arteko aldakuntza-tasak)

	2013	2014				2015			
	T4	T1	T2	T3	T4	T1	T2	T3	T4
BEG industrialaren aldak. tasa bolumenean	-0,1	1,4	1,5	2,0	1,3	0,3	3,1	3,1	4,3
Enplegu industrialaren aldak.-tasa (LOPL*)	-2,7	-2,3	-2,3	-1,9	-2,2	-1,5	-0,3	-0,2	0,6

**Lanaldi osoaren pareko lanpostuak*
Iturria: EUSTAT, Kontu Ekonomikoak

Enpleguari dagokionez, kopuruek agerian uzten dute (esana dugunez, lanaldi osoaren pareko 181.465 lanpostu) beherakada gertatu dela, urteko %0,4 batez beste. Sektorearen produktibitateak urteko %3,1eko batez besteko hazkundea du.

I.3.1. GRAFIKOA. INDUSTRIA SEKTOREAEREN BILAKAERA



Iturria: HKE. EUSTAT

EAEko industriako BEGaren urte batez besteko hazkundea txikiagoa da Estatu mailakoaren aldean, EINren arabera, %3,4koa baita.

Bestalde, EUSTATen "*Industri Produkzioaren Indizeak*" (IPI) urteko batez besteko %3,5eko hazkundea eman zuen 2015ean (datu osoekin) EAE osorako, 2014an erregistraturikoa baino %1,8 handiagoa. Izan ere, indize horren bidez, BEG industrialaren bolumenean ald-en izandako bilakaera neurtzen du.

Lurraldez lurralde, hazkunderik handiena Gipuzkoan izan zen (%4,8), eta ondoren Bizkaia (%3,4) eta Araba (%1,2).

Ondasunen jomuga ekonomikoa aztertuta, EUSTATen arabera, ondasun guztien produkzioaren igoerak eragin du batez besteko hazkunde hori, baina batez ere kontsumo iraunkorreko ondasunena (aurreko urteko %17,6ko jaitsieraren aldean) eta ekipo-ondasunena (%7,3). Bestalde, energiaren ekoizpenak %1,4 egin zuen gora, bitarteko ondasunenak %1,3 eta kontsumo ez iraunkorreko ondasunen ekoizpenak, berriz, %1 hazi zen.

2015eko otsaileko EINren datuen arabera, IPIren batez bestekoak (jatorrizko indizearen seriean nahiz zuzendutakoan) %3,2ko aldakuntza izan zuen Estatuan 2015ean aurreko urtearen aldean. EINren batez bestekoa %3,4an kokatu zen EAEn.

EUROSTATen arabera, Industri Produkzioaren Indizearen batez besteko aldakuntza, 2015ean, %1,4koa zen 2016ko otsaileko datuekin euro gunean, eta %1,7koa 28ko EBn.

IPIren analisi sektorialetik ondorioztatzen denez (datu osoekin), manufaktura-industriaren baitan, EAErentzat garrantzitsuenak diren hiru azpisektore industrialek berriz ere urte arteko batez besteko aldakuntza positiboak izan zituzten: Metalurgia (BPG industrialaren %28,4 eta enplegu industrialaren %34), Makineria eta ekipoa (BPG industrialaren %10,3 eta enplegu industrialaren %10,7) eta Garraio materiala (BPG industrialaren %10,1 eta enplegu industrialaren %10,7). Hona hemen aldakuntza horiek: Batez bestekoa baino handiagoa Makinerian eta ekipoan (%6,8, %3,5aren aldean), batez bestekoaren antzekoa Garraio-materialean (%3,4, %3,5aren aldean) eta batez bestekoa baino txikiagoa Metalurgian (%1,2, %3,5aren aldean).

Igoerarik handienak, berriz: Altzariak eta beste manufaktura batzuk (%22,3), Produktu informatikoak eta elektronikoak (%15,6), eta Zura, papera eta arte grafikoak (%6,4).

I.3.15. KOADROA. INDUSTRIA-SEKTORE NAGUSIEK EAE-KO EKONOMIAN DUTEN PISUAREN BILAKAERA						
	BPG-AREN BANAKETA			ENPLEGUAREN BANAKETA (Lanpostu baliokideak)		
	2012	2013	2014	2011	2012	2013
2. Erauzketa industriak	0,4	0,4	0,4	0,3	0,3	0,2
3. Elikagai, edari eta tabakoaren industria	5,7	6,3	6,4	7,3	7,2	7,4
4. Ehung, jantzig, larrug. eta oinetakoak	0,7	0,8	0,9	1,3	1,2	1,2
5. Zura, papera eta arte grafikoak	4,9	4,8	4,9	6,5	6,4	6,2
6. Kodea eta petrolio-findegia	0,6	0,0	0,4	0,5	0,5	0,5
7. Industria kimikoa/ 8. Produktur farmazeutikoak	3,0	3,1	3,1	2,3	2,3	2,3
9. Kautxua, plastikoak eta beste ez metaliko batzuk	9,5	9,1	8,9	10,3	9,8	9,6
10. Metalurgia eta metalezko produktuak	26,9	27,8	28,4	34,0	34,0	34,0
11. Prod. Informatikoak eta elektronikoak	2,6	2,6	2,7	2,8	3,0	3,0
12. Material eta ekipo elektrikoa	5,7	4,7	4,5	6,0	6,0	5,0
13. Makineria eta ekipoa	10,3	10,1	10,3	10,2	10,3	10,7
14. Garraio materiala	10,0	10,5	10,1	8,0	7,9	8,7
15. Altzariak eta beste manufaktura batzuk	4,3	4,2	4,1	6,7	6,9	6,7
16. Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	12,5	12,8	12,4	1,1	1,1	1,2
17. Ur hornidura eta saneamendua	2,9	2,7	2,7	3,0	3,1	3,1
Industria, guztira (BPGd- ohiko prezioetan eta lanpostu baliokideak	14.733.931	14.335.805	14.3624.35	205.616	194.549	186.181

Iturriak: EUSTAT, Kontu Ekonomikoak

I.3.16. KOADROA. IPI-REN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOEN ETA ONDASUNEN JOMUGA EKONOMIKOAREN ARABERA. Datu osoak. Urteko batez besteko hazkundea										
	EAE guztira	Lurralde historikoak			Ondasunen jomuga ekonomikoa					
					Kontsumo ondasunak			Ekipamendu ondasunak	Bitarteko ondasunak	Energia
		Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Guztira	Iraunkorra	Ez iraunkorra			
2008	**-2,9**	-4	-2,5	-2,6	-7,0	-16,7	-3,2	-1,1	-4,1	3,6
2009	**-21,7**	-24	-22	-20,3	-14,6	-29,1	-9,8	-23,2	-26,0	-6,9
2010	**2,1**	8	0,8	0,8	0,9	0,9	0,9	-2,6	7,1	-5,3
2011	**3,5**	7,7	1	3,9	-0,7	0,0	-1,0	10,3	5,1	-7,8
2012	**-5,6**	-4,6	-7,3	-4,4	-3,8	-5,1	-3,3	-5,9	-7,2	-2,0
2013	**-3,3**	-2,7	-4,4	-2,5	-5,0	-10,8	-2,7	-3,3	-2,6	-3,0
2014	**1,8**	0,6	2,5	1,6	-1,5	-16,0	3,8	2,2	2,8	0,1
2015 p	**3,5**	1,2	4,8	3,4	4,9	17,7	1,0	7,3	1,3	1,4

B Behin-behineko datuak. Iturria: EUSTAT IPI (2016ko maiatzeko datuak)

I.3.17. KOADROA. IPI JARDUERA SEKTOREEN ARABERA. Datu osoak. Urteko batez besteko hazkundea								
	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
IPI	**-2,9**	**-21,7**	**2,1**	**3,5**	**-5,6**	**-3,3**	**1,8**	**3,5**
02. Erauzketa industriak	-14,0	-26,8	-20,7	-21,7	-10,3	-18,0	9,7	-5,2
03. Elikagai, edari eta tabakoaren industria	-1,1	-4,8	3,9	-2,8	0,7	0,5	4,1	1,3
04. Ehung., jantzig., larrugintza eta oinetakoak	-7,3	-30,7	4,5	6,8	-23,4	-14,4	5,7	-2,0
05. Zura, papera eta arte grafikoak	-7,1	-18,8	-4,2	5,5	-4,3	-2,6	6,1	6,4
06. Kokea eta petrolio-findegiak	5,7	-10,6	-9,6	-5,4	-6,5	14,6	16,0	5,4
07. Industria kimikoa	-8,5	-23,6	2,2	-0,6	-12,4	-1,7	5,2	5,0
08. Produktu farmazeutikoak	4,3	-3,3	4,8	2,6	-15,0	1,6	6,9	-6,2
09. Kautxua eta plastikoak	-8,0	-20,4	9,8	1,9	-14,1	-6,0	0,0	-0,2
10. Metalurgia	-4,5	-29,3	6,2	5,3	-5,0	-2,9	2,6	1,2
11. Produk. informatikoak eta elektronikoak	-13,0	-24,4	3,8	12,5	1,0	-6,2	7,7	15,6
12. Material eta ekipo elektrikoa	-1,8	-22,7	-0,2	0,5	-4,9	-7,9	-7,4	-0,5
13. Makineria eta ekipoa	-2,2	-30,2	-4,9	15,2	-0,9	-0,3	1,8	6,8
14. Garraio materiala	6,2	-15,0	6,8	12,2	-9,5	-3,4	1,1	3,4
15. Altzariak eta beste manufaktura batzuk	-3,7	-22,5	-13,0	1,6	-9,5	-6,0	0,2	22,3
16. Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	2,5	-6,4	-3,8	-8,2	-1,2	-6,0	-3,3	0,4

b.behin-behinekoak.
Iturria: EUSTAT IPI (2016ko maiatzeko datuak)

EUSTATen "*Industri Prezioen Indizea*" (IPRI) produktuak merkaturatzeko lehen urratsean industri prezioen bilakaeraren koiuntura-adierazlea da, hots, ekoizleak transakzioan benetako jasotako prezioena, zeharkako zergak eta diru-laguntza garbiak sartu barik (horrelakorik balego). Indize horrek 2015ean %1,8 egin zuen behera gure Erkidegoan 2014ko abenduaren eta 2015eko abenduaren artean, 2013ko abenduaren eta 2014ko abenduaren artean izandako jaitsiera baino gehiagoa (-%3,6).

Hona hemen jaitsierarik handienak: Kokea eta petrolioa fintzea (-%13,7),Metalurgia eta metalezko produktuak (-%4,1) eta Industria kimikoa (-%1,3).

Manufaktura-industriaren barruan, eta EAEko funtsezko hiru azpisektore industrial bakoitzari erreparatuta, Metalurgian eta metalezko produktuetan jaitsiera izan zen (-%4,1, arestian esana dugunez). Makinerian eta ekipoan, berriz, aldakuntza nulua izan zen eta Garraio-materialean azkenik %1,6ko igoera.

Ondasunen jomuga ekonomikoaren arabera, ekipo-ondasunen prezioa izan ezik (%0,6 hazita), gainerako ondasunen prezioa jaitsi egin zen: Energiarena -%5,6, bitarteko ondasunena -%2,2, kontsumo ez iraunkorreko ondasunena -%0,3 eta kontsumo iraunkorrena -%0,4.

2015eko urtarrilaren EINren behin-behineko datuen arabera, EAEko IPRIk %-3,3ko urteko aldakuntza tasa izan zuen 2015eko abenduan 2014ko abendukoaren aldean. Estatuko aldakuntza -%2,2koa zen.

EUROSTATen arabera, Industri Prezioen Indizearen aldakuntza -%3koa izan zen 2015eko abenduan 2014ko abenduaren aldean (2016ko otsaileko datuak) euro gunean eta -%,32 28ko EBn.

I.3.18. KOADROA. IPRI, ONDASUNEN DESTINO EKONOMIKOAREN ETA JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA, CNAE-2009 (aldeko abenduarekiko aldakuntza)

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Indize orokorra	**0,6**	**-2,8**	**6,4**	**5,8**	**0,7**	**0,5**	**-3,6**	**-1,8**
Ondasunen destino ekonomikoa								
Kontsumoko ondasunak	3,6	-1,1	1,6	1,3	2,8	-0,4	-0,5	-0,4
---Kontsumo iraunkorreko ondasunak	3,4	-0,9	0	1,7	-0,3	0,4	-1,3	-0,4
---Kontsumo ez iraunkorreko ondasunak	3,8	-1,2	2,3	1,1	3,9	-0,6	-0,2	-0,3
Ekipo-ondasunak	3,2	0	0,7	1,3	1,4	0,8	-0,3	0,6
Bitarteko ondasunak	1,7	-5,9	7,5	3,7	-0,6	-1,2	0	-2,2
Energia	-9	2,9	14,8	16,2	0,6	3,4	-15,7	-5,6
Jarduera sektoreak								
-Erauzketa-industriak	14,4	0,7	-4,3	2,6	-5,2	-0,5	-1,9	0,8
--Erauzketa-industriak	14,4	0,7	-4,3	2,6	-5,2	-0,5	-1,9	0,8
-Manufaktura-industria	-1,1	-1,6	6,5	4,3	0,6	-0,4	-3,4	-2,5
--Elikagai, edari, tabakoaren industriak	4,2	-1,7	5,4	1,4	5,5	-1,6	-0,4	-0,8
--Oihal prod., jantzigintza, larru prod. eta oinetakoak	6,3	-3,8	2,3	-2,7	2,4	-0,8	-0,4	2,4
--Zura, papera eta arte grafikoak	0,9	-3	3	4,4	-1,8	0,8	0,2	0
--Kokea lortzeko eta petrolioa fintzeko fabrikak	-29	23,4	22,9	16,3	1	0,7	-22,6	-13,7
--Industria kimikoa	5,7	-3,7	3,7	6,7	2,3	0,2	-1	-1,3
--Produktu farmazeutikoak	1,7	1	-0,3	0,9	0,9	0,1	1,2	1,5
--Kautxua eta plastikoa	2,3	0,6	1,7	1,5	-0,4	5,3	-2,3	0,8
--Metalurgia eta metalezko produktuak	**1,2**	**-8,4**	**9,2**	**2,7**	**-0,5**	**-3**	**0,8**	**-4,1**
--Prod. informatikoak eta elektronikoak	0,3	0,6	-1,4	3,2	0,4	-2	1	-0,5
--Material eta ekipamendu elektrikoa	2,9	-1,9	4,5	6,5	2,1	-2	-0,5	1
--Makineria eta ekipamendua	**3,3**	**-0,2**	**0,1**	**1**	**0,4**	**2,1**	**0,2**	**0**
--Garraio materiala	**2,6**	**1,8**	**0,8**	**2**	**-0,6**	**1**	**-0,5**	**1,6**
--Altzariak eta beste manufaktura batzuk	3,7	1,7	0	1,5	2,7	-0,7	-3,7	1,6
-Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	18,9	-14,1	5,1	16,6	1,5	6	-4,4	3,1
--Energia elektrikoa eta lurruna	18,9	-14,1	5,1	16,6	1,5	6	-4,4	3,1

2010eko oinarria.
Iturria: EUSTAT. IPRI.(2016ko maiatzeko datua)

EUSTATen "*Industri estatistika*"ren (EIA) helburua sektorearen makromagnitude nagusiak kalkulatzeko informazio ekonomikoa lortzea da, eta 2016ko apirilean argitaraturiko 2014ko datuek erakusten dutenez, 2013 eta 2014 artean, %1,2ko hazkunde tasa nominala izan zuen industri sektoreko kostuaren BEGd-ak (2013an erregistraturiko %7,4ko beherakadaren aldean). Bestalde, negozio zifraren zenbateko garbia 55.866 milioi euro izan zen 2014an, hots, %2,6ko jaitsiera nominala. Hazkunde horiekin, industri sektoreak hautsi egin zuen aurreko bi urteetako joera, eta berriz ere tasa positiboetan murgildu zen.

Alabaina, gorantz jarraitu zuen enpleguak, baina aurreko epealdian baino gutxiago (-%1,7, 2013ko -%3,7aren aldean).

Aldi berean, inbertsioa %36,2 jaitsi zen, eta zergen ondoren eragiketa jarraituen emaitzek nabarmen egin zuten gora.

Industria eta energia biltzen dituzten atalen barruan, nabarmentzekoa da manufaktura-industria, industriako landunen %95,3 bilduta, baita negozioen zifraren eta balio erantsiaren %84,1 ere. Bigarren atalik garrantzitsuena, landunen kopuruari dagokionez, ur hornidura eta saneamendua da, 6.243 landunekin, enpleguaren %3,2arekin, hots, negozioko zifraren %1,9. Horren atzetik, energia elektrikoa, gasa eta lurruna; izan ere, enpleguaren %1,2 besterik ez bada ere, fakturazioaren %13,8 biltzen du eta balio erantsiaren %12 sorrarazten du. Azkenik, erauzketa-industriek 273 milioi euroko negozioko zifra lortu zuten, 459 lanposturekin.

Industriaren sektoreko negozio zifra osoan pisurik handiena duten adarrak, 2014an, hauexek izan ziren: Metalurgia eta metalezko produktuak (%24,8), Energia elektrikoa, gasa eta lurruna (%13,8) Kokea eta petrolioa fintzea (%12) eta Garraio materiala (%10).

Azpisektore ia guztietan gertatu zen, oro har, lanpostuen galera. Hona hemen nabarmenenak: Material eta ekipo elektrikoa (-%12,1), Beste mea-produktu batzuk (-%7), Garraio-materiala (-%5,7) eta Zura, papera eta arte grafikoak (-4,3), nabarmenenak. Ur hornidura eta saneamendua (%7,4) eta Makineria eta ekipoak (%2) azpisektoreek izan zituzten soilik aldakuntza positiboak.

Manufaktura-industriaren barruan, EAErako garrantzitsuenak diren hiru azpisektore industrialek, Metalurgiak eta metalezko produktuak, Makineria eta ekipoak eta Garraio materialak, funtsezkoak izaten jarraitzen dute gure industri sektorean BEGd-aren eta enpleguaren aldetik; izan ere, BEGd-aren %28,7, %10,6 eta %9,2 eta enpleguaren %34,2 eta %10,8 eta %8,7 ziren 2014. urtean.

I.3.19. KOADROA. BEGd-a ETA ENPLEGUA EAE-KO MANUFAKTURA-INDUSTRIAKO HIRU SEKTORE NAGUSIEN ENPLEGUA. BANAKAPENA

	Enplegua			BEGd-a bbs		
	2013	2014	Aldak.	2013	2014	Aldak.
Metalurgia eta metalezko produktuak						
25/26 Siderurgia/Burdinazkoak ez diren metalen ekoizpena	10.787	10.530	-2,4	646.196	679.726	5,2
27 – Metalen galdaketa	7.206	7.009	-2,7	422.992	441.304	4,3
28 – Metalezko eraikuntza	10.038	9.663	-3,7	431.858	418.664	-3,1
29 - Forja eta estanpazioa	5.689	6.342	11,5	378.848	416.492	9,9
30 – Ingeniaritza mekanikoa	17.202	17.849	3,8	895.955	937.923	4,7
31 – Metalezko produktuak	15.054	14.370	-4,5	876.525	861.433	-1,7
Makineria eta ekipamendua						
35 – Erabilera orokorreko makineria	16.052	16.617	3,5	1.097.129	1.117.206	1,8
36 – Makina erreminta	4.270	4.104	-3,9	272.848	272.879	0,0
Garraio materiala						
37 - Ibilgailu motordunak fabrikatzea	10.643	9.617	-9,6	756.896	732.609	-3,2
38 - Ontzigintza	1.016	860	-15,4	74.078	48.548	-34,5
39 - Garraiorako bestelako materiala	6.071	6.243	2,8	481.982	430.532	-10,7

Iturria: EUSTAT. Industria Estatistika

Lurraldez lurralde, negozio zifraren hazkundea oso homogeneoa da, zeren eta Araban %2,7 hazi baitzen, Gipuzkoa %2,6 eta Bizkaia %2,5. Landunen bilakaerari dagokionez, nahiz eta hiru lurraldeetan aldakuntza negatiboak izan, handiagoa da Araban, %2,2ko jaitsierarekin; Bizkaian %1,9ko jaitsiera izan zen eta Gipuzkoan, berriz, %1,2ko. Bestalde

Balio Erantsiak gora egin zuen Arabako (%2,5) eta Bizkaiko (%1,6) lurraldeetan; Gipuzkoan, berriz, maila bertsuan jarraitu zuen (-%0,1).

I.3.20. KOADROA. INDUSTRIAREN SEKTOREKO MAGNITUDEAK SEKTOREKA.

	Banaketaren %-a (Industria = 100) 2014					Inbertsioa (mila eurotan) /enplegua 2014	Emaitza (mila eurotan) /enplegua 2014	BEGd-a	Enplegua	Inbertsioa	Emaitzak eragiketa jarrait.*zergak eta gero
	BEGd-a	Enplegua	Inbertsioa	Negozio zifra (Salmenta garbiak)	Emaitzak zergen ondoren			% aldak. nominala 13-14	% aldak. 13-14	% aldak. 13-14	% aldak. 13-14
GUZTIRA	100	100	100	100	100						
INDUSTRIA (mila euro)	**13.101.641**	**192.387**	**1.712.525**	**55.865.644**	**1.169.601**	**8,9**	**6,1**	**1,2**	**-1,7**	**-36,2**	**850,5**
B. Erauzketa-industria	0,4	0,2	0,3	0,5	0,9	10,5	23,2	-25,1	-2,3	-19,9	86,5
C. Manufaktura-industria											
Elikagaien, edarien eta tabakoaren industria	6,9	7,5	6,3	7,9	18,3	7,5	14,8	1,8	-0,4	54,6	-14,7
Oihal prod., jantzigintza, larrug. eta oinetakoak	0,7	1,3	0,5	0,5	2,0	3,4	9,6	-11,4	-3,0	67,8	8,8
Zura, papera eta arte grafikoak	4,9	6,1	4,0	3,8	7,8	5,8	7,8	-3,1	-4,3	28,4	30,5
Kokea lortzeko eta petrolioa fintzeko fabrikak	0,2	0,5	2,5	12,0	-5,6	40,2	-62,1	279,6	-3,9	-62,6	-24,9
Industria kimikoa eta produktu farmaz. fabrik.	3,0	2,3	4,8	2,5	7,4	18,5	19,4	-3,1	-0,6	80,5	17,1
Kautxua eta plastikoak	6,9	6,7	6,4	5,4	9,4	8,5	8,5	-1,7	-0,6	-10,4	-19,8
Metalezkoak ez diren bestelako produktu mineralak	2,3	2,7	1,1	1,8	0,5	3,7	1,0	-1,9	-7,0	-31,6	-106,2
Metalurgi eta metalezko produktuak	28,7	34,2	25,5	24,8	16,6	6,6	2,9	2,8	-0,3	-4,7	173,7
Prod.inforrm. eta elektronikoak eta optikoak	2,2	3,0	2,3	1,4	2,0	6,9	4,1	-2,5	-1,3	-1,2	952,4
Material eta ekipo elektrikoa (etxeko tresna elekt. barne)	4,4	4,9	4,6	3,6	-0,5	8,3	-0,7	7,0	-12,1	54,2	-99,2
Makineria eta ekipamendua	10,6	10,8	6,9	7,8	20,3	5,7	11,5	1,5	2,0	-15,9	9,7
Garraio materiala	9,2	8,7	13,9	10,0	20,5	14,2	14,4	-7,7	-5,7	-43,4	-5,7
Altzariak eta beste manufakt. batzuk	4,1	6,7	2,5	2,3	3,1	3,4	2,8	-0,3	-1,6	52,0	48,1
D.Energia, gasa eta lurruna	12,0	1,2	13,0	13,8	-6,6	97,1	-33,8	9,5	-2,3	-75,7	-12,7
E. Ur hornidura eta saneamendua	3,5	3,2	5,4	1,9	4,0	14,9	7,6	3,1	7,4	-49,6	-23,7

***Operazio horien ustiapen eta finantza emaitza barne. Iturria: EUSTAT. Industria Estatistika*

Eduki teknologikoari dagokionez[8], EUSTATen datuen arabera, 2014an, aurreko urteetan bezala, lanposturik gehienak maila teknologiko ertain baxuko sektoreetan metatzen dira (industriako lanpostu guztien %47,5) eta ondoren maila teknologiko ertain handikoak (lanpostu guztien %25,9). 2008 eta 2014 bitartean gora egin zuen, lanpostuen kopuruan, maila teknologiko handiko eta ertain handiko sektoreen pisuak, baina behera egin zuen maila ertain txikiko eta baxuko sektoreenak.

Bestalde, eta aurreko urteetan bezala, 2014an, salmenta gehienak eduki teknologiko ertain baxuko sektoreetan egiten ziren (industriako sektoreko salmenten %45,4), eta eduki teknologiko ertain handiko sektoreetan (%22). Eta 2008 eta 2014 bitartean, behera egin zuen eduki teknologiko ertain txikiko sektoreekin lotutako salmenten pisuak, eta pixa bat gora egin zuten eduki teknologiko handiko sektoreetan gertaturikoek. Sektore ertain handietan eta txikietan, berriz, eutsi egin zitzaion pisuari, gorabeherekin bazen ere.

I.3.21. KOADROA. INDUSTRIAREN EDUKI TEKNOLOGIKOA EAE-N ELGA SEKTOREAREN ARABERA. (Guztizkoaren aldean duen pisua)

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Landunak							
GUZTIRA (kopurua)	249.230	225.337	218.819	213.405	203.174	195.633	192.387
Maila teknologiko handia	3,7	3,8	3,9	4,0	4,4	4,6	4,5
Maila teknologiko ertain handia	24,9	25,4	25,7	25,6	25,8	26,3	25,9
Maila teknologiko ertain txikia	49,4	48,3	47,8	47,8	47,7	47,1	47,5
Maila teknologiko txikia	18,3	18,6	18,5	18,1	17,7	17,6	17,3
Sailkatu barik	3,6	3,5	3,6	3,8	3,6	3,5	3,6
Salmenta garbiak							
GUZTIRA (mila eurotan)	65.654.476	49.226.282	53.469.783	58.733.508	55.661.105	54.443.484	55.865.644
Maila teknologiko handia	2,6	2,9	2,8	2,9	3,2	3,5	3,3
Maila teknologiko ertain handia	23,7	24,2	23,9	23,5	23,2	22,6	22,0
Maila teknologiko ertain txikia	50,7	45,1	46,1	47,6	47,0	46,6	45,4
Maila teknologiko txikia	12,2	14,6	14,1	12,8	12,6	13,5	13,1
Sailkatu barik	10,8	13,2	13,2	13,2	14,0	13,8	16,2

Iturria: EUSTAT. Industria estatistikak

8 ELGAren sailkapenaren arabera (EUSTATek erabilia), hauexek biltzen ditu maila teknologiko handiak 1. Produktu farmazeutikoen fabrikazioa, 2. Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa, eta 3. Eraikuntza aeronautikoa eta espaziala. Ertain-handian, hauexek: 4. Industria kimikoa, 5. Armen eta munizioen fabrikazioa, 6. Material eta ekipo elektrikoen fabrikazioa, makineria eta ekipoen fabrikazioa, ibilgailuen fabrikazioa, 7. Beste garraio-materialaren fabrikazioa, ontzigintza eta eraikuntza aeronautikoa izan ezik eta 8. Tresna eta hornidura medikoen eta odontologikoen fabrikazioa. Ertain-txikian 9. Euskarri grabatuen erreprodukzioa, 10. Kokea eta petrolioa fintzea, 11. Kautxuaren eta plastikoen fabrikazioa, Metalezkoak ez diren beste mea-produktu batzuen fabrikazioa. Metalurgia, 12. Metalezko produktuen fabrikazioa, makineria eta armak eta munizioak izan ezik, 13. Ontzigintza, eta 14. Makineriaren eta ekipoaren konponketa eta instalazioa. Maila txikian: 15. Elikagaien, edarien eta tabakoaren industria, ehungintza eta jantzigintza. Larrugintza eta oinetakoak. Zuraren eta paperaren eta kortxoaren industria, 16. Arte grafikoak, 17. Altzarien fabrikazioa, 18.Beste manufaktura-industria batzuk; eta 19. Sailkatu barik.

3.4. ERAIKUNTZA

EUSTATen "*Kontu ekonomikoak*" txostenaren arabera (2016ko otsailean argitaratua), eraikuntzaren sektoreak BPGd-an prezio arruntetan zuen pisua behera egin zuen, 2008ko %9tik 2014ko %5,45era (3.767 milioi euro); eta LOPLetan neurturiko 55.505 lanpostu izanik, LOPLeko lanpostu guztien %6,3 da; 2008an, berriz, %9,8 zen.

Kontu horien arabera, hainbat urtetan urte arteko aldakuntza negatiboak izan ondoren (are handiagoak enpleguaren aldetik ekoizpenaren aldetik baino), sektorearen jaitsiera 2013an hasi zen moteltzen, eta joera horrek 2014an jarraitu zuen. 2015ean, BEGd-aren %0,6ko aldakuntza tasa positiboa hasi zen, 2015eko lehen hiruhilekoan.

BEGd-AREN ETA ENPLEGUAREN BILAKAERA ERAIKUNTZAN (urte arteko aldakuntza-tasak)

	2013	2014				2015			
	T4	T1	T2	T3	T4	T1	T2	T3	T4
BEGd-aren aldakuntza tasa bolumenean	-1,1	-4,2	-3,7	-2,7	-2,1	0,6	0,2	-0,2	-0,6
Guztizko enpleguaren aldakuntza tasa (LOPL*)	-7,6	-5,4	-3,6	-2,6	-0,3	-0,1	-0,2	-0,5	-0,4

**Lanaldi osoko lanpostuaren parekoak*
Iturria: EUSTAT, HKE

Alabaina, 2015eko bigarren hiruhilekotik hasita, urte arteko hiruhileko bilakaeraren profilak motelaldia erakutsi zuen, eta jaitsierak gertatu ziren ondoren hirugarren hiruhilekotik hasita (-%0,2); urtearen amaieran, berriz, %0,6ko jaitsiera izan zen. Horrela, eraikuntzaren sektoreko BEGd-ak, 2015ean, urte arteko aldakuntza tasa nulua izan zuen. Eraikuntzako BEGd-aren urteko batez besteko aldakuntza Estatuan, EINren arabera, %5,2koa zen.

Enpleguaren arloan, EUSTATen Kontu Ekonomikoek urte arteko batez besteko murrizketa zekarten, lanaldi osoko lanpostuetan neurtutan, -%0,3, 2014ko –%3aren aldean. Sektoreko produktibitateak %0,3ko hazkundea izan zuen. Bestalde, BEGd-aren deflatoreak ere aldakuntza nulua izan zuen.

EUSTATen "*Eraikuntzaren Koiuntura Indizeak*" [9], eraikuntzako sektorearen produkzioaren eta enpleguaren arteko bilakaera zenbatesten duen adierazleak, -%0,4ko urteko batez besteko aldakuntza erakutsi zuen 2015ean (-%4,6 2014an eta -%24 2013an), obra zibilaren indizearen jaitsieraren ondorio zuzena dena (%9,8ko jaitsiera tasa), zeren eta, 2014an ez bezala, indizearen aldakuntza positiboa baitzuen (+%1,4). Enpleguan, berriz, urteko batez besteko -%1,7ko aldakuntza izan zuen 2014an erregistraturiko -%5,6aren aldean.

EUROSTATen arabera, Eraikuntzaren Produkzio Indizearen batez besteko aldakuntza, 2015ean, -%1ekoa zen (2016ko datuen arabera) eurogunean eta %0,8koa 28ko EBn.

ERAIKUNTZAREN SEKTOREAREN BILAKAERA

	Eraikuntzaren abagune-indizea Urteko batez besteko hazkundea				Hiruhilekoen kontu ekonomikoak. (Datu zuzenduak) Urte arteko aldakuntza tasak			
	Guzt.	Eraikuntza	Obra zibila	Enplegua	Bolumen kateatua BPG	Lanpostuak guztira (LOB)	Produktibitatea	Deflatorea
	Ekoizpen indizea							
2008	**2,2**	-1,3	9,5	-2,9	-5,8	-4,8	-1,1	4,0
2009	**-12,5**	-15,7	-6,4	-7,9	-7,4	-7,9	0,5	-3,0
2010	**-16,9**	-13,6	-22,4	-8,4	-7,9	-7,8	-1,0	1,9
2011	**-11**	-10,2	-15,8	-8	-7,6	-9,9	2,5	1,9
2012	**-16,5**	-15,7	-21,3	-12,9	-7,6	-12,9	6,0	-4,0
2013	**-24**	-25,2	-15,9	-12,9	-4,6	-11,9	8,3	-3,6
2014	**-4,6**	-6,6	7,1	-5,6	-3,2	-3,0	-0,1	-0,6
2015	**-0,4**	1,4	-9,8	-1,7	0,0	-0,3	0,3	0,0

Iturria: EUSTAT

9 Indize honek eraikuntza obra mota biak bereizten ditu: eraikinak egitea (eraikuntza iraunkor oro, bereizia edo independentea, etxebizitza familiar edo kolektiborako egiten dena, edo nekazaritzarako, industriarako, zerbitzuak emateko edo, oro har, jarduera bat egiteko eskolak, siloak, eta abar egiten dena) eta obra zibila (azpiegitura obra oro, eraikinak egitea ez dena, kolektiboki edo publikoki erabiltzeko dena).



EUSTATen "*Eraikuntzako Kostuen Indizea*" aztertuko dugu orain. Abagune-adierazlea da. Kostu horien bilakaera neurtzen du, eraikuntza sektoreko lehengaien edo bitarteko kontsumoen (lehengaien eta materialen kostuen, energia kostuen eta askotako gastuen kostuen batura; hori sektoreko lehengai nagusien prezioen bidez zenbatesten da) eta langileria kostuen (soldata gordinen eta gizarte kotizazioen batura, sektoreko hitzarmen kolektiboen bidez zenbatetsia) indize baten bidez.

Adierazle horrek ez du ahalbidetzen produkzioaren azken prezioari eragiten dioten kostu guztiak neurtzea, jakina, enpresa etekinaz gain, kapitalari lotutako faktoreak falta baitira.

2015ean, eraikuntza kostuak, beren osotasunean, %0,5 jaitsi dira, lan eskuarena %0,3 igo da eta lehengaien kostuak %0,7 murriztu dira, bilakaera ekonomikoaren ondorioz.

Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreei dagokienez, norabide bereko bilakaera izan dute: lehenengoaren kostuak %0,2 jaitsi dira eta bigarrenarenak %2,1.

I.3.24. KOADROA. ERAIKUNTZAREN KOSTUEN URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASA EAE-N

	Kostuak			Lehengaien prezioak			Lan-eskuaren kostua
	Guzt.	Eraikuntza	Obra zibila	Guzt.	Eraikuntza	Obra zibila	
2008	7,5	7,2	8,5	7,8	7,4	9,4	6,3
2009	0,2	0,9	-2,6	-0,5	0,6	-4,5	2,4
2010	1,1	0,5	3,2	1	0,3	3,9	1,4
2011	2,3	2	4	2,6	2,2	4,8	1,5
2012	0,8	0,7	1,3	0,8	0,6	1,4	1
2013	0,1	0,2	-0,6	-0,2	0	-1,1	1
2014	-0,8	-0,7	-1,3	-1,6	-1,4	-2,2	1,8
2015	-0,5	-0,2	-2,1	-0,7	-0,4	-2,9	0,3

Iturria: EUSTAT.EKI

Bestalde, EUSTATen «Industriako eta Eraikuntzako Estatistika»ren datuek erakusten dute eraikuntza sektoreak 2014an (informazioa eskuragarri duen azken urtea) atzerakadari eutsi zion, bai sortutako balio erantsiaren aldetik, bai enpleguaren aldetik.

Eraikuntzako enplegu kopuruak behera egin du %4,4. Hain zuzen ere, aurreko urtearekin alderatuta 2.780 pertsona landun gutxiago egon ziren. Era berean, negozio-kopuruak %1,4ko beherakada izan zuela eta langileen kostuek %5,9 behera egin zutela kalkulatzen da.

Bestalde, Ustiapenaren Soberakin Gordina %10 hazi zen, eta inbertsioek, berriz, %43,5 egin zuten gora.

Azkenik, zergen aurreko emaitzak datu negatiboetan jarri dira (-301,6 milioi euro) eta ekitaldiko emaitza, oraindik negatiboa izanik, -405 milioi euro da.

I.3.25. KOADROA. ERAIKUNTZAREN SEKTOREAREN MAGNITUDE NAGUSIAK. PREZIO ARRUNTAK. (MILA €-TAN).

	2010	2011	2012	2013	2014	% 12/13	% 13/14
Landunak	85.827	77.340	69.171	63.118	60.338	-8,8	-4,4
BEG fak. kostuetan	5.279.630	4.854.621	3.735.455	3.251.129	3.186.079	-13,0	-2,0
Ustiapeneko soberak. osoa	1.805.782	1.668.432	1.010.738	800.330	880.507	-20,8	10,0
Eginiko inbertsioak	345.899	204.184	91.045	324.044	465.057	255,9	43,5
Amortizazioetarako zuzkidura	418.234	302.100	229.681	230.458	205.411	0,3	-10,9
Negozio zifra	17.099.703	14.882.255	12.342.619	10.093.411	9.950.077	-18,2	-1,4
Hornikuntzak	10.254.339	8.383.668	6.640.032	6.027.905	5.388.182	-9,2	-10,6
Kanpoko zerbitzuak	1.981.536	1.717.977	1.420.269	1.229.895	1.176.099	-13,4	-4,4
Langileria gastuak	3.473.848	3.186.189	2.724.717	2.450.799	2.305.572	-10,1	-5,9
Emaitzak zergak baino lehen	477.814	823.799	-136.666	16.407	-301.569	-112,0	-1.938,1
Ekitaldiko emaitza	389.986	622.652	-149.271	-25.089	-404.968	-83,2	1.514,1

Iturria: EUSTAT. Eraikuntzaren estatistika.

Azterturiko informaziotik ondorioztatzen denez, beraz, eraikuntzaren sektorearen hobekuntza txikia dugu, eta 2015ean aurrerapen argia izan ez bazuen ere, badirudi jarduera maila egonkortu dela; izan ere, azken urteetako bilakaera negatiboa moteldu da, edo are gehiago, gelditu egin da.

3.5. ZERBITZUAK[10]

EUSTATen "*Kontu Ekonomikoen*" arabera (2016ko otsailean argitaratuak), zerbitzuen sektoreak gorakada izan zuen: BPGd-aren %55,9koa izatetik 2008an prezio arruntetan %62,7 izatera 2015ean (43.067,2 milioi euro); eta 634.512 lanpostu izanik, lanaldi osoko lanpostu guztien %71,8 zen. 2008an, berriz, %64,2 zen.

2015ean, EAEko zerbitzuen sektoreko BEGd-ak berriz ere egin zuen behera, hain zuzen ere %3,3 2014aren aldean. *Merkataritza, ostalaritza eta garraioak* sektorean %1,2 hazi zen (2014an baino 8 hamarren gutxiago), *Administrazio publikoa, Hezkuntza eta Gizarte zerbitzuak*, berriz, %6,1 (2014an baino 4 puntu gehiago) eta *Gainerako zerbitzuak* %3,3 (2014an %0,9 egin zuen gora).

I.3.26. KOADROA. ZERBITZUEN SEKTOREAREN BILAKAERA. Datu zuzenduak. Aldakuntzako urte arteko tasak

	Zerbitzuetako BEG. Bolumen indizea				Lanpostuak (LOPL)	Produktibitatea	Deflatorea
	Guztira	Merkatarit ostal. eta garraioa	Ad. Publik., Hezk, Osas. eta Giz Zerb	Gainerako zerbitz.			
2008	3,3	1,2	6,1	3,3	2,0	1,3	3,5
2009	-0,1	-2,8	3,4	-0,1	-1,0	0,9	2,5
2010	0,7	0,4	3,9	-0,8	0,8	0,5	0,6
2011	0,8	-0,8	3,4	0,6	0,5	0,3	1,5
2012	-0,4	-2,5	0,4	0,5	-1,6	1,2	0,5
2013	-1,1	-1,4	0,6	-1,9	-1,6	0,5	0,5
2014	1,5	2,0	2,1	0,9	1,3	0,2	0,1
2015	3,3	1,2	6,1	3,3	2,5	0,4	-2,9

Iturria: EUSTAT

Zerbitzuen sektoreko BEGd-aren hazkunde erreal hori (%3,3) Estatukoa baino pixka bat handiagoa da, non, EINren behin-behineko datuen arabera, %3,1 egin zuen gora.

Zerbitzuen sektoreko enpleguak (LOPL), EUSTATen arabera, %2,5 egin zuen gora urte arteko datuetan gure Erkidegoan, 2014an baino %1,2 gehiago. Produktibitatea, berriz, %0,4 jaitsi zen. Bestalde, deflatoreak %2,9ko jaitsiera tasa du.

10 IV. Kapituluan, "Gizarte babesa EAEn" izenekoan, era berean, gure erkidegoko gizarte zerbitzuei buruzko atal bat dago.

Zerbitzuen sektorearen barruan, berriz ere nabarmendu ziren Merkataritza eta ibilgailuen konponketa, BPGd-aren aldetik nahiz enpleguaren aldetik: zerbitzuen sektoreko prezio arruntetako BPGd-aren %16,3 (eskuragarri dugun azken datua) eta enpleguaren %19,6 (2013ko datua). Baita honako hauetako prezio arruntetan ere: Higiezinen arloko jarduerak (zerbitzuen sektoreko BPGd-aren %14,9), Finantza- eta aseguru-jarduerak (%8,7), Osasun jarduerak (%8,3), Administrazio publikoa eta defentsa (%7,9) eta Garraioa eta biltegiratzea (%7,8) eta Hezkuntza (%7,7). Eta enpleguan: Hezkuntza (zerbitzuen sektoreko LOPL guztien %10), Administrazio publikoa eta defentsa (%9), Zerbitzu osagarriak eta ostalaritza (bietan %7,9), Osasun jarduerak (%6,8) eta Garraioa eta biltegiratzea (%6,2).

2010 eta 2014 bitartean, BPGd-aren batez besteko urteko aldakuntza tasa, kopuru errealetan, 0,2 izan zen. Jaitsierarik handienak dituztenak, berriz: Edizioa, irudia, irratia eta TB (urteko batez besteko -%4,2ko jaitsiera), Finantza- eta aseguru-jarduerak (urteko batez besteko -%3,6ko jaitsiera) eta Beste lanbide-jarduera batzuk (-%1,6); eta hona BPGd-aren igoerarik nabarmenenak: Telekomunikazioak (%4,7), Jarduera publikoak eta defentsa (%2,9) eta Etxeko jarduerak (%2,4, urteko batez besteko tasa).

Enpleguari dagokionez, behera egin zuen 2009 eta 2013 bitartean, urteko batez besteko %0,6ko tasarekin. Hona jaitsierarik handienak: Edizioa, irudia, irratia eta TB (-%5), Finantza eta aseguru jarduerak (-%3,8), Telekomunikazioak (-%3,4) eta Higiezinen arloko jarduerak (-%3). Hala ere, jaitsiera handiak ditugu arlo hauetan: Ikerkuntza eta garapena (%3,3) eta Etxeko jarduerak (%2,4).

Zerbitzuen sektoreko prezioen urteko batez besteko igoera %0,7koa izan zen 2010 eta 2014 bitartean.

I.3.27. KOADROA. ZERBITZUEN SEKTOREAREN EGITURA EAT BILAKAERA EAE-N

	ZERBITZUEN SEKTOREAREN EGITURA										% urteko aldak.		
	BPG arrunta (zerbitzuen sektorearen BEGd-aren %)					Enplegua (zerbitzuen sektoreko enpleguaren %)					BPG*	Prezioak	Enpleg.
	2010	2011	2012	2013	2014	2009	2010	2011	2012	2013	2010-14		2009-13
19. Merkataritza; ibilgailuen konponketa	16,2	16,4	16,3	16,0	16,3	20,9	20,8	21,0	20,4	19,6	-1,5	1,7	-1,6
20. Garraioa eta biltegiratzea	7,3	7,5	7,4	7,6	7,8	6,9	6,5	6,5	6,3	6,2	-0,4	2,0	-2,6
21. Ostalaritza	6,2	6,4	6,7	6,7	6,9	7,7	7,6	7,8	8,0	7,9	1,0	1,6	0,6
22. Edizioa, irudia, irratia eta telebista	1,0	1,0	0,9	0,9	0,9	1,1	1,0	1,0	0,9	0,9	-4,2	0,8	-5,0
23. Telekomunikazioak	2,3	2,4	2,4	2,3	2,3	0,5	0,5	0,5	0,4	0,4	4,7	-4,2	-3,4
24. Informatika	1,8	1,8	1,7	1,7	1,7	2,2	2,0	1,9	1,9	1,9	-0,3	-0,1	-2,8
25. Finantza- eta aseguru-jarduerak	9,4	9,2	9,3	8,5	8,7	3,4	3,3	3,2	3,1	2,9	-3,6	1,9	-3,8
26. Higiezinen arloko jarduerak	14,0	14,6	15,0	14,9	14,9	1,1	1,0	0,9	0,9	1,0	0,7	0,8	-3,0
27. Aholkularitza eta jarduera teknikoak	6,4	6,7	6,9	6,9	7,0	6,3	6,5	6,5	6,4	6,3	1,7	0,8	-0,1
28. Ikerketa eta garapena	0,7	0,8	0,8	0,7	0,7	0,9	1,0	1,0	1,1	1,1	-0,6	-0,5	3,3
29. Beste lanbide-jarduera batzuk	1,1	1,2	1,1	1,1	1,1	1,7	1,7	1,7	1,7	1,6	-1,6	1,2	-2,1
30. Zerbitzu osagarriak	4,0	4,2	4,2	4,2	4,2	8,5	8,5	8,4	8,1	7,9	0,1	0,8	-1,7
31. Administrazio publikoa eta defentsa	7,6	7,7	7,6	7,8	7,9	8,8	9,2	9,2	9,0	9,0	2,9	-2,0	0,6
32. Hezkuntza	7,6	7,5	7,3	7,5	7,7	9,7	9,8	10,0	10,0	10,0	0,6	-0,2	0,9
33. Osasun jarduerak	8,0	8,1	7,9	8,0	8,3	6,9	7,0	7,0	6,9	6,8	1,4	-0,7	-0,3
34. Gizarte zerbitzuetako jarduerak	1,5	1,6	1,5	1,5	1,6	3,7	3,8	3,7	3,7	3,8	1,5	-0,9	0,3
35. Aisialdi eta kultur jarduerak	1,8	1,9	2,0	2,1	2,1	1,9	2,0	2,0	1,9	2,0	1,2	2,9	1,1
36. Beste zerbitzu batzuk	1,8	1,9	1,9	2,0	2,0	3,7	3,7	3,7	3,8	3,7	1,1	1,2	0,0
37. Etxeko jarduerak	1,2	1,4	1,4	1,4	1,4	4,1	4,2	4,6	4,5	4,5	2,4	1,6	2,4
38. Lurraldez kanpoko erakundeak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
Zerbitzuak, guztira (BPG mila eurotan eta lanaldi osoko lanpostuak)	**40.404.171**	**41.323.161**	**41.374.782**	**41.139.645**	**41.797.166**	**626.559**	**627.629**	**630.516**	**620.674**	**610.904**	**0,2**	**0,7**	**-0,6**
Ekonomia, guztira (BPG mila eurotan eta lanaldi osoko lanpostuak)	**67.595.563**	**68.041.740**	**66.775.970**	**65.906.376**	**66.930.542**	**945.909**	**933.196**	**924.389**	**893.952**	**867.306**	**-0,6**	**1,1**	**-1,3**

** BPG erreala (bolumen kateatuan) Iturria: EUSTAT. Kontu ekonomikoak*

3.5.1. Merkataritza

EUSTATen Kontu Ekonomikoetatik eskuragarri ditugun azken datuen arabera, ibilgailuen konponketaren eta merkataritzaren sektorea EAEko BPG korrontearen %9,8 da (6.577,7 milioi euro, 2014ko datua), eta horren enplegua, berriz, %14,2 (122.938 lanpostu, lanaldi osoaren parekoak, 2013ko datua).

EUSTATen "Txikizkako Merkataritza Indizea, *(TMI)*" EAEko txikizkako merkataritzaren sektoreko merkataritzako eta laneko koiunturaren bilakaeraren zuzeneko adierazlea da, eta informazioa jaso deneko bi aldagaien jokabidearen azterketan du oinarria: "salmentak" eta "landunak".

Txikizkako merkataritzaren salmenten indize orokorrak %1,7ko urte arteko hazkundea izan zuen EAEn 2014 eta 2015 bitartean, eta seriea hasi zenetik aldakuntza positiboa izan deneko lehen urtea da, hots, 2011tik hona. Lurraldez lurralde, eta guztietan joera bera izanik ere, alde nabarmenak ikusten dira, zeren eta Arabak %5aren inguruko aldakuntza baitu eta Gipuzkoan eta Bizkaian, berriz, %2koa eta %0,5ekoa hurrenez hurren.

EUROSTATen datuen arabera, Industri Prezioen Indizearen batez besteko aldakuntza, 2015ean, 2016ko datuen arabera, %2,4 da eurogunean eta %3koa 28ko EBn.

Salmenten indizearen hazkundea, EAEn, gehienbat elikagai ez espezializatuen eta etxeko ekipamendurako produktuen salmenten gorakadagatik gertatu da (bietan %3,7ko hazkundea), baita kontsumoko beste ondasun batzuen salmentagatik (%3,9) eta neurri txikiagoan produktu ez espezializatuen salmenten (%0,9), pertsonarentzako ekipamenduko produktuen (%0,6) eta automoziorako erregaien (%0,5) salmenten igoeragatik. Elikagai espezializatuen produktuen salmentek, berriz, behera egin zuten (-%2,8).

I.3.28. KOADROA. TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN SALMENTEN INDIZEAREN BILAKAERA (urte arteko tasak)

	LL.HH.			EAE										
					Elikadura			Gainerako produktuak						
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	**Indize orokorra EAE**	Guzt	Espezia-lizatua	Ez espeziali zatua	Guzti-ra	Pertsona-ren ekip.	Etxeko ekip.	Beste konts. ondasun batzuk	Ez espez.	Automozio-rako erregaia	Indize orokorra zerbitzugune barik
2011	-4	-3,2	-4,8	-3,8	-2,4	-2,9	-2,1	-4,1	-2,5	-4,6	-4,3	-8,2	-8,2	-3,4
2012	-3,5	-4,7	-5,2	-4,7	-2,3	-4,4	-1,2	-6,3	-5,9	-9,8	-4,6	-3,6	-5,6	-4,6
2013	-2,3	-3,7	-4,6	-3,8	-2,4	-0,2	-3,5	-5,4	-8,7	-6,7	-2,2	2,9	-0,8	-4,1
2014	1,1	-0,8	0,8	0,0	-2,2	-2,2	-2,2	1,7	2,9	2,8	-1	1	0,8	0
2015	4,9	0,5	2	1,7	1,5	-2,8	3,7	2,1	0,6	3,7	3,9	0,9	0,5	1,8

(*) Urteko batez besteko hazkundea prezio iraunkorretan
Iturria: EUSTAT,TMI

Txikizkako merkataritzaren okupazioaren datuek erakusten dutenez, %1,7ko hazkundea izan zen 2015. urtean, eta seriea hasi zenetik aldakuntza positiboa izan deneko lehen urtea ere bada. Automoziorako erregaien dendetako enpleguan (%3,7) eta elikagaian merkataritzan (%1,5) izandako igoeragatik gertatu da hazkundea; gainerako produktuen dendetan, berriz, beherantz jarraitzen du enpleguak (-%2,8).

I.3.29. KOADROA. TXIKIZKAKO MERKATARITZAKO LANDUNEN INDIZEA. EAE (urte arteko tasak)

	Indize orokorra	Elikadura	Gainerako produk.	Automoziorako erregaia
2011	-3,8	-2,4	-2,9	-2,1
2012	-4,7	-2,3	-4,4	-1,2
2013	-3,8	-2,4	-0,2	-3,5
2014	0,0	-2,2	-2,2	-2,2
2015	1,7	1,5	-2,8	3,7

Iturria: EUSTAT, TMI

EUSTATen *"Saltokien Merkataritza Indizea*[11]*"* EAEko Saltokien Merkataritzaren sektorearen merkataritzako eta laneko koiunturaren bilakaeraren zuzeneko adierazlea da.

Bi indize mota kalkulatzen dira helburu horretarako; "Salmenta indizea" eta "Landunen Indizea", eta lehenbizikoa saldutako produktu motaren arabera banakatuko da: Elikadura eta produktuen gainerakoak

I.3.30. KOADROA. SALMENTEN INDIZEAREN ETA ENPLEGUAREN BILAKAERA SALTOKI HANDIETAN* (urte arteko tasak)

	Salmenten indize orokorra (LL.HH.)			EAE			
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	**Salmenta indize orokorra**	Elikadura	Gainerako produktuak	**Landunen indize orokorra**
2008	-8,2	-4,8	-3,5	**-5**	-1,9	-6,6	**-2,7**
2009	-3,6	-0,8	2,8	**-0,3**	-4	1,8	**-1**
2010	-3,5	-2,5	5	**-0,5**	-2,8	0,6	**2,3**
2011	-5,3	-5,6	-4,9	**-5,4**	-2,6	-6,9	**-1,1**
2012	-2,2	-4,1	-3,1	**-3,5**	-1,8	-4,6	**-3,6**
2013	2,3	-1,8	-0,8	**-0,9**	-0,7	-1,3	**-1,6**
2014	-2,4	-1	-1,6	**-1,4**	-3,3	-0,1	**-0,8**
2015	-0,9	0,2	0,9	**0,2**	-3,3	2,2	**0,2**

Iturria: EUSTAT, Saltokien Merkataritza Indizea

Saltoki handietako salmenta indize orokorrak urte arteko hazkundea izan zuen EAE osoan, hain zuzen ere %0,2 2014 eta 2015 bitartean, hainbat urtetan beheranzko joera izan ondoren. Hala ere, hazkundea ez da gertatzen hiru Lurralde Historikoetan, zeren eta Arabak aldakuntza-tasa izan baitu (-%0,9).

EAE osoko indizearen hazkundea ez da gertatu elikagaien salmentaren igoeragatik, beherantz jarraitzen baitute (-%3,3), baizik eta gainerako produktuen salmenten gorakadagatik (+%2,2).

11 *Saltokien Merkataritza deritzo txikizkako enpresa komertzialeek eginikoari, baldin eta salmenta azalera 2500 m2-koa edo handiagoa bada.*

Okupazioaren datuek erakusten dutenez, txikizkako merkataritzan gertatzen den moduan, igoera izan zen 2015ean, kasu honetan %,2koa, eta aldakuntza positiboa izan deneko lehen urtea da urteetan jaitsierak izan ondoren.

3.5.2. Ostalaritza

EUSTATen Kontu Ekonomikoek eskura jarritako azken datuen arabera, Ostalaritza sektoreak EAEko BPGd-aren balioaren % 4,2 inguru hartzen du (2.783,7 milioi euro; 2014ko datua) eta enpleguaren % 5,7 inguru (lanaldi osoaren pareko 49.578 lanpostu; 2013ko datua).

EUSTATen establezimendu turistiko hartzaileen inkestako datuetan, EAEn kokaturiko ostatuetan[12] jasotako bidaiariak biltzen dira, eta EAEn igarotako gauak eta bidaiariak zenbatuta ikus daitekeenez, igarotako gauen, batez besteko egonaldiaren eta okupazio mailaren[13] kopurua berriz ere egin du gora 2014 eta 2015 bitartean.

Ostatuetan jasotako bidaiarien kopuruak gora egin zuen atzerritar jatorriko bidaiarien igoeragatik (%10.6, +%3,4 2014an), baita estatukoenagatik (%7,5, +%2,7an) eta EAEko berezkoenagatik ere, azken horrek %8,3 egin baitzuen gora 2014an %1,3 jaitsi ondoren.

I.3.31. KOADROA. BIDAIARIAK, IGAROTAKO GAUAK, BATEZ BESTEKO EGONALDIA ETA OKUPAZIO MAILA EAE-KO OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUETAN

	Ostatuetan hartutako bidaiariak	Okupaturiko plazak, guztira (igarotako gauak)	B.b. egonal. (egunak)	Okupazio maila plazako	Okupazio maila gelako
2011	2.420.997	4.574.989	1,89	46,0	55,2
2012	2.420.107	4.622.303	1,91	46,1	55,8
2013	2.368.080	4.478.672	1,89	44,3	53,8
2014	2.424.832	4.657.505	1,92	46,4	56,3
2015	2.637.385	5.041.338	1,91	49,8	60,5
2014-15 ald.	8,8	8,2	-0,6	7,3	7,5

Iturria: EUSTAT, establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

GRÁFICO I.3.3. BIDAIARIEK EAE-N IZANDAKO SARREREN BILAKAERA. OSTALARITZA ESTABLEZIMENDUAK



Iturria: EUSTAT

EAEko berezko bidaiariak alde batera utzita ikusten denez, %8,8 egin du gora 2014 eta 2015 bitartean EAEko ostatuetan hartutako bidaiarien kopurua. Horrela, 2.267.233 lagun izan dira guztira eta, beraz, batez besteko egonaldia 1,95 egunekoa da, eta oso antzekoa da (1,96) Estatuko bisitarien aldetik eta txikiagoa (1,93) Estatutik kanpokoei dagokienez.

12 Jarduera nagusia pertsonei ostatua ematea duen establezimendua da, prezioa tarteko dela, eta maiztasunez eta modu profesionalean, batzuekin edo beste inor barik. Euskal Autonomia Erkidegoan kokaturiko hotelek eta ostatuek eta nekazaritza eta landa-turismoko gainerako establezimenduek osatzen dute azterturiko populazioa.

13 Honelaxe definitzen da hilabeterako: hilabete batean igarotako gau guztien eta hil bakoitzeko egun kopuruak bider hoteleko plazen/gelen (egokia denaren arabera) arteko erlazioa.

I.3.32. KOADROA. BIDAIARI KOPURUAREN, IGAROTAKO GAUEN ETA BATEZ BESTEKO EGONALDIAREN (EGUNETAN) BILAKAERA, BIDAIARIAREN JATORRIAREN ARABERA

	2013			2014			2015			Aldak.		
	Bidaiariak	Igarotako gauak	B.b. egonal (egun.)	B	IG	B.B.E	B	IG	B.B.E.	B (%)	IG (%)	B.B.E. (Dif)
Guztira, EAE barik	2.021.824	3.915.498	1,94	2.083.039	4.070.359	1,95	2.267.233	4.420.729	1,95	8,8	8,6	0,00
Estatua, EAE barik	1.152.554	2.236.107	1,94	1.183.838	2.330.572	1,97	1.272.935	2.501.232	1,96	7,5	7,3	0,00
Atzerrita-rrak	869.270	1.679.391	1,93	899.201	1.739.787	1,93	994.298	1.919.497	1,93	10,6	10,3	0,00
EAEko berezkoak	346.256	563.174	1,63	341.793	587.146	1,72	370.152	620.609	1,68	8,3	5,7	-0,04

Iturria: EUSTAT, Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

3.5.3. Finantza-sektorea

EUSTATen Kontu Ekonomikoek eskura jarritako azken datuen arabera, Ostalaritza sektoreak EAEko BPGd-aren balioaren % 5,3 inguru hartzen du (3.531,1 milioi euro; 2013ko datua) eta enpleguaren % 2,1 inguru (lanaldi osoaren pareko 18.228 lanpostu; 2013ko datua).

Finantzen arloari erreparatuta, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren 2016ko otsaileko "*Adierazleen laburpena*" txostenaren arabera, Europako Banku Zentralak, 2014an, bi aldiz jaitsi zuen euro guneko egun baterako eskuhartze-tasa, ekainean (%0,15ean kokatu zuen) eta irailean (%0,05). 2015ean, %0,05 horretan mantendu zuen.

AEBetako Erreserba Federalak eta Japoniako Bankuak, aldiz, igo egin zituzten euren esku-hartze tasak. Hala, AEBetako tasak %0,5ean amaitu zuen (2014ko %0,25aren aldean); eta Japoniako Bankuak %1,1ean (aurreko urteetan erregistraturiko %0,1aren aldean).

Euroguneko diru-merkatuko interes-tasei dagokienez, urteko batez besteko balioa kontuan hartuta, epe guztietan murriztu ziren. Zehazkiago, hilabete bateko Euribor indizea % 0 izan zen urteko lehenengo hiruhilekoan, eta % -0,15 laugarren hiruhilekoaren amaieran. Hiru hilabeteko Euribor indizea % 0,05etik % -0,09ra igaro zen lehen eta laugarren hiruhilekoen artean, sei hilabeterako Euribor indizea %0,13tik %-0,01era eta urtebeteko Euribor indizea % 0,26 izan zen urtearen hasieran eta % 0,09 urtearen amaieran.

I.3.33. KOADROA. MONETA MERKATUAREN ESKU-HARTZE TASAK ETA IINTERES-TASAK

	ESKU-HARTZE TASAK (*)				INTERES-TASAK EUROKO MONETA MERKATUKO EREMUAN. GORDAILUAK. EURIBOR			
	EBB	AEB	JAPONIAN	ERRES. BATUA	Hilab.	3 hilab.	6 hilab.	Urteb.
2008	2,50	0,25	0,10	2,00				
2009	1,00	0,25	0,10	0,50	0,90	1,23	1,44	1,82
2010	1,00	0,25	0,10	0,50	0,57	0,81	1,08	1,35
2011	1,00	0,25	0,10	0,50	1,18	1,39	1,64	2,01
2012	0,75	0,25	0,10	0,50	0,33	0,57	0,83	1,11
2013	0,25	0,25	0,10	0,50	0,13	0,22	0,34	0,54
2014	0,05	0,25	0,10	0,50	0,13	0,21	0,31	0,48
2015	0,05	0,50	1,10	0,50	-0,07	-0,02	0,05	0,17
2015eko lehen hiruhilekoa					0,00	0,05	0,13	0,26
2015eko laugarren hiruhilekoa					-0,15	-0,09	-0,01	0,09

** Epealdi amaierako datuak*
Iturria: Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa

I.3.34. KOADROA. KREDITU-ENTITATEEK ETXEBIZITZEI ETA ISPSLH-ei EMANDAKO INTERES-TASA* (EBBko egoiliarrak)

	DMTE** (Definizio murriztuko tasa efektiboa) Haztatutako batez besteko tasa			UTB (urteko tasa baliokidea)		
	Etxebizitza kreditua	Kontsumo kreditua***	Beste helburuak	Etxebizitza	Kontsumoa	Beste helburuak
2008	5,65	10,48	6,51	5,83	10,99	7,03
2009	2,53	9,28	4,48	2,62	9,72	4,95
2010	2,60	6,92	5,16	2,66	7,47	5,64
2011	3,58	8,57	5,94	3,66	9,11	6,29
2012	2,81	7,76	5,81	2,93	8,31	6,23
2013	2,99	8,90	5,58	3,16	9,52	5,92
2014	2,56	7,74	4,64	2,64	8,98	4,91
2015	1,98	7,56	3,77	2,31	8,43	4,28

** Familien zerbitzurako irabazteko asmorik gabeko erakundeak **DMTEk ez du komisiorik biltzen, UTBk bai. *** 2010eko maiatzera arte, hura barne; zutabe honetan sartzen da kreditu-txartelen bidez emandako kreditua*
Iturria: Espainiako Bankua. Estatistika Buletina

Kreditu-entitateek EEBko (UTB) familiei eta ISPLSHri emandako kreditu osoak behera egin zuen 2014 eta 2015 bitartean, kontsumoan,%8,98tik %8,43ra. Gauza bera etxebizitzan, %2,64tik %2,31ra hain zuzen ere.

Kreditu entitateek EAEn emandako kreditu osoa gehitu egin da 2015. urtean, 69.177 milioi eurotik 70.037ra (%1,2), urte batzuetan beheranzko joera izan ondoren.[14].

Hazkunde hori gertatu da Herri Administrazioei emandako krediduaren igoeragatik (+%10,5) nahiz sektore pribatuari emandakoengatik, baina azken horren igoera (guztizkoaren %90,5) txikiagoa izan da (+%0,4).

I.3.35. KOADROA. KREDITU ENTITATEEK SEKTORE PUBLIKOARI ETA PRIBATUARI EMANDAKO KREDITUA (saldoak 12/31n)

	Milioi euro						EAEko banaketa 2015	Estatua 2015	% Estatua ren aldean	2014-15 aldak. %
	2010	2011	2012	2013	2014	2015				
Guztira	**86.884**	**85.956**	**79.338**	**73.237**	**69.177**	**70.037**	**100**	**1.360.361**	**5,1**	**1,2**
Admin. Publik.	3.562	3.859	4.277	4.862	6.008	6.636	9,5	85.709	7,7	10,5
Sektore pribatua (BSE)	83.322	82.097	75.062	68.375	63.169	63.400	90,5	1.274.652	5,0	0,4

Iturria: Espainiako Bankua. Estatistika buletina

Kredituko saldoei dagokienez, beste sektore egoiliar batzuetan, etxebizitza eskuratzeko hipoteka-maileguarekin, Espainiako Bankuaren datuekin Estatu osoaren aldeann (ez dago daturik Autonomia Erkidegoen mailan), hauxe dugu: magnitude honek berriz ere egin zuen behera 2014 eta 2015 bitartean, %4,8 hain zuzen (552.613 milioi eurotik 526.105 milioi eurora).

I.3.36. KOADROA. ETXEBIZITZA EROSTEKO HIPOTEKA-BERMEA DUTEN KREDITUAK ESTATUAN

	Milioi €	Aldakuntza tasak
2009	611.813	
2010	620.433	1,4
2011	612.657	-1,3
2012	594.405	-3,0
2013	569.692	-4,2
2014	552.613	-3,0
2015 p	526.105	-4,8

b. Behin-behinekoa. Iturria: Espainiako Bankua. Estatistika Buletina

Ildo horretan, EINren Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaileen Espainiako Elkargoak Hipoteken Estatistikan argitaratu dituen datuen arabera, %21,2 egin du gora EAEn eraturiko hipoteken kopuruak 2014 eta 2015 bitartean. Hipotekaturiko finkaren gainean emandako batez besteko zenbatekoa %17,2 jaitsi da, hots, 124.248 euro, aurreko ekitaldiko 149.982 euroren aldean. Etxebizitzaren gaineko hipoteken kopurua ere % 22 hazi da, eta hipotekatutako etxebizitza kontuan hartuta maileguan emandako batez besteko zenbatekoak % 5,7 egin zuen gora (120.324 milioi eurotik 127.144 milioi eurora).

14 2011tik hasita, Espainiako Bankuak informazio hori Bankuen, Aurrezki-kutxen eta Kreditu-kooperatiben artean banakatuta argitaratzeari utzi zion.

I.3.37. KOADROA. LANDA FINKEN ETA HIRI FINKEN HIPOTEKAK EAE-N												
	2013			2014			2015			Aldakuntza 2014-15		
	Kop.	Zenbat (Mil. €)	B.. zenbat. (€)	Kop.	Zenbatekoa (Mil. €)	B.b. zenbatek.(€)	Kop.	Zenbat. (Mil. €)	B.b. zenbat. (€)	Kop.	Zenbat. (Mil €)	B.b. zenbat.(€)
HIPOTEKAK GUZTIRA	**18.918**	**2.541**	**134.317**	**16.862**	**2.529**	**149.982**	**20.443**	**2.540**	**124.248**	**21,2**	**0,4**	**-17,2**
Landa finkak	481	77	160.083	613	113	184.339	386	95	246.114	-37,0	-15,9	33,5
Hiri finkak	18.437	2.463	133.590	16.249	2.416	148.686	20.057	2.913	145.236	23,4	20,6	-2,3
Etxebizit.	12.146	1.464	120.534	11.469	1.380	120.324	13.992	1.779	127.144	22,0	28,9	5,7
Orubeak	345	301	872.464	313	318	1.015.974	293	333	1.136.519	-6,4	4,7	11,9
Beste hiri finka batzuk	5.946	698	117.390	4.467	718	160.734	5.772	801	138.773	29,2	11,6	-13,7

Iturria: EIN. Hipoteken Estatistika (Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaileen Espainiako Elkargoa)

Finantza-erakundeetan jarritako gordailuei dagokienez, Herri Administrazioen jabetzapekoen guztizko saldoa 2.907 milioi eurokoa izan zen EAEn 2015. urteko abenduan, hots, urteko %3ko hazkundea eta Estatuko gordailuen %3,8, Estatuko gordailuen Espainiako Bankuaren Aldizkari Estatistikoaren datuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuetako gordailuen (BSE) balioa 69.448 milioi eurokoa izan zen, hau da, horien balioak % 3,3ko igoera izan zuen aurreko ekitaldikoaren aldean, eta estatuko guztizkoaren gainean %6,3.

Bere modalitateen (agerikoa, aurrezkia eta eperakoa) arabera aztertzen baditugu beste sektore batzuen gordailuak, hauxe ikusiko dugu: ageriko gordailuak aurrezki-gordailuak berriz ere hazi direla, lehenengoak 29.633 milioi euroraino iritsita (+%19,1) eta bigarrenak 12.089 milioi eurora (+%16); eta eperako gordailuek %12 egin dute behera, 30.145milioi euroan kokatzeraino. [15]

I.3.38. KOADROA. SEKTORE PRIBATUKO GORDAILUAK ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOENAK GORDAILU ENTITATEETAN (XII-31ko SALDOAK)										
	Milioi euro					Banak.	Estatua	Estatuko guzt. aldean	Aldak. %	
	2011	2012	2013	2014	2015				2012-13	2013-14
Pribatua eta publ., guzt.	74.850	71.947	73.729	72.269	74.676	-	1.211.817	6	-2,0	3,3
Sektore publikoa guzt.	2.757	2.533	2.660	2.822	2.907	-	76.097	3,8	6,1	3,0
Sek. pribatua guzt. (BSE)	72.093	69.414	71.068	69.448	71.770	100	1.135.720	6,3	-2,3	3,3
Ageriko gordailuak	15.795	18.805	23.175	24.883	29.633	41,3	395.586	7,5	7,4	19,1
Aurrezpen gordailuak	15.919	12.749	9.832	10.419	12.089	16,8	254.288	4,8	6,0	16,0
Eperako gordailua	40.379	37.860	38.062	34.145	30.048	41,9	485.846	6,2	-10,3	-12,0

Iturria: Bilboko Burtsa

15 2011n, Espainiako Bankuak informazio hori Bankuen, Aurrezki-kutxen eta Kreditu-kooperatiben artean banakatuta argitaratzeari utzi zion.

Burtsari dagokionez, Espainiako Bankuaren Estatistika Buletinaren datuen arabera, IBEX-35 indizeak %7,2 egin zuen behera 2014ko abendutik 2015eko abendura bitartean.

Madrilgo Burtsaren urteko batez besteko kapitalizazioa, 663.027 milioi euro orotara 2015ean, %3,8 hazi zen aurreko urtearen aldean, eta batez besteko kontratazio bolumena, 960.8079 milioi euro, %8,7 hazi zen 2015ean aurreko urtearekiko.

Bilboko Burtsaren 2000 indizeak 1.578,5 puntu izan zituen 2014ko abenduan, hau da, % 5,4 igo zen aurreko urteko abenduko datuekin alderatuta..

Bilboko Burtsaren kontratazio-bolumena (erosketak eta salmentak) % 4,5 hazi zen 2015ean, 7.926,3 milioi euro, alegia. Gehikuntza horren jatorria errenta aldagarria da (+%4,7), errenta finkoko kontratazioa %9,7 jaitsi baitzen. Kontratazio osotik % 38,9 erosketei dagokie; esan beharra dago % 4,5eko gorakada izan dutela aurreko ekitaldiaren aldean.

I.3.39. KOADROA. BALIOEN BIGARREN MAILAKO MERKATUA. MADRILGO BURTSA

	KAPITALIZAZIOA (Sozietate egoiliarrak, milioi euro)	KONTRATAZIO BOLUMENA (milioi euro)
2008	496.263	1.245.129
2009,	567.989	898.195
2010	494.798	1.038.259
2011	442.034	926.265
2012	459.336	696.262
2013	595.395	698.744
2014	638.472	884.349
2015	663.027	960.807

Iturria: Espainiako Bankua. Estatistika Buletina

I.3.40. KOADROA. BILBOKO BURTSAKO 2000 INDIZEA
2000ko oinarria, 1999ko abenduaren 31n

	AZKENA	MAXIMOA	MINIMOA	ALDAK. % (azkena/azkenaur.)
2008	1.589,9	2.625,7	1.338,6	-39,5
2009,	1.921,6	1.936,2	1.149,3	20,9
2010	1.615,2	1.975,4	1.398,7	-15,9
2011	1.366,6	1.808,9	1.210,8	-15,4
2012	1.331,0	1.443,3	974,8	-2,6
2013	1.658,6	1.660,8	1.231,7	24,6
2014	1.669,0	1.858,1	1.559,4	0,63
2015	1.578,5	1.943,8	1.522,1	-5,42

Iturria: Bilboko Burtsa

I.3.41. KOADROA. BILBOKO KURTSOAREN KONTRATAZIOI BOLUMENA (milioi euro)

	2012		2013		2014		2015		2014-15eko ald.	
	Guztira (erosk. eta salmentak)	Erosketak	Guztira (erosk. eta salmentak)	Erosketak	Guztira (erosk. eta salmentak	Erosketak	Guztira (erosk. eta salmentak)	Erosketak	Guztira (erosk. eta salm.)	Erosketak
ERRENTA ALDAGARRIA	148.300,5	73.156,8	139.476,7	68.651,2	172.655,2	88.052,2	180.714,0	91.168,44	4,7	3,5
Etengabeko merkatua: BUIS	148.300,5	73.156,8	139.476,7	68.651,2	172.655,2	88.052,2	180.714,0	91.168,4	4,7	3,5
Merkatu tradizionala: Parketa (ahots gora)	0	0	0	0	0	0	0	0	-	-
ERRENTA FINKOA	3.071,8	1.533,5	2.758,7	1.367,4	1.928,6	964,6	1.856,4	928,2	-6,7	-3,8
Etengabeko merkatua: Elektronikoa	9,2	2,2	28,2	2,1	0,6	0,6	0,1	0	-99,9	-100,0
Merkatu tradizionala: Parketa ahots gora)	0,3	0,6	0	0	0	0	0	0	-	-3,7
Konturako Anotazio Zerbitzuak (KAZ)	3.062,2	1.531,1	2.730,5	1.365,3	1.928,0	964,0	1.856,3	928,2	-3,7	
GUZTIRA, BURTSA	**151.372,3**	**74.690,3**	**142.235,4**	**70.018,6**	**174.583,8**	**89.016,8**	**182.570,3**	**92.096,6**	**4,5**	**3,5**

Iturria: Bilboko Burtsa

4. PREZIOAK, KOSTUAK ETA ERRENTAK

4.1. KONTSUMOKO ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN PREZIOAK

2015eko abenduan, +%0,3koa izan zen azkenean kontsumoko prezioen indizearen urtetik urterako tasa, 2014ko abenduaren -%0,7aren aldean. Bestalde, urteko batezbesteko inflazioa -%0,3koa izan zen. Izan ere, lehen aldia da KPIren historia osoan (Euskadiren kasuan 1979an hasia) adierazle horrek urtea batez besteko negatiboarekin bukatzen duena.

I.4.1. TAUALA. KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKAPENA: URTEARTEKO ALDAKUNTZA-TASAK. ABENDUAK

	2011	2012	2013	2014	2015
GUZTIZKO INFLAZIOA (%100)	2,4	2,7	0,6	-0,7	0,3
AZPIKO INFLAZIOA (%81,8)	1,5	2,1	0,6	0,3	1,0
- Landutako elikagaien KPI (%14,1)	3,4	3,9	1,2	0,0	1,7
- Industri ondasunen KPI (%26,2)	2,8	2,5	0,3	-2,4	0,7
- Zerbitzuen KPI (%41,5)	1,8	2,4	0,5	0,7	1,0
HONDAR-INFLAZIOA (%18,2)	6,5	5,6	0,7	-4,8	-3,0
- Landu gabeko elikagaien KPI (%7,0)	1,2	3,3	1,4	-0,3	3,1
- Energiaren KPI (%11,2)	10,3	7,1	0,3	-7,6	-6,8

Iturria: EIN eta Eusko Jaurlaritzaren KOIUNTURAZ Buletina.

Kontsumoko prezioen joera horren zio nagusia, 2015ean, petrolioaren jaitsiera nabarmena izan zen. Zehazki, 2015eko urtarrilean 48 dolarrean zegoen upela, 64 dolarreraino igo zen maiatzean, eta berriz ere beherakada handia izan zuen hurrengo hileetan. Abenduan, berriz, 38 dolarrean zegoen.

Alabaina, azpiko inflazioak, prezioen joera erakusteko adierazle egokiagoa denak, goranzko joerari eusten dio, kontsumo pribatuaren indarrak eraginda, eta 2015eko abenduan,+%1eko aldakuntza-tasa izan zuen. Talde horren barruan, %1,7 egin zuten gora landutako elikagaien prezioek, zerbitzuek %1 eta industrialek %0,7.

Erregaien eta elikagai freskoen jaitsierek, aldiz, hondar-inflazioa urtearen amaieran -%3koa izatea ekarri zuten.

I.4.1. GRAFIKOA. KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA: URTEARTEKO ALDAKUNTZA-TASA. EAE ETA ESTATUA



Iturria.- EIN.

Esan beharra dago petrolioaren kotizazioaren prezioek behea jotzeak eragina izan zuela erregaien prezioetan, eta beraz, osagaien bilakaerak gehien eragiten dituen taldeak izan ziren 2015ean gehien murriztu zirenak abenduko urtearteko tasan, hots, garraioa (-%2,5) eta etxebizitza (-%1,6).

I.4.2. TAULA. KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA. EAE ETA ESTATUA. ABENDUA (URTEARTEKOA)

	EAE				ESTATUA			
	2012	2013	2014	2015	2012	2013	2014	2015
INDIZE OROKORRA	**2,7**	**0,6**	**-0,7**	**0,3**	**2,9**	**0,3**	**-1,0**	**0**
Elikagaiak eta alkoh. gabeko edariak	3,4	0,8	-0,1	2,3	3,0	1,2	-0,3	1,8
Alkoholdun edariak eta tabakoa	5,8	5,1	-0,2	1	5,4	5,6	0,4	1,3
Jantziak eta oinetakoak	0,4	0,2	0,4	0,5	0,3	0,0	0,2	0,5
Etxebizitza	6,1	0,0	0,6	-1,6	5,6	0,0	-0,2	-2,3
Etxeko tresnak eta etxeko zerbitzuak	2,6	-0,2	-0,1	0,3	1,2	-0,2	-0,6	0,1
Zerbitzu medikoak eta osasuna	3,9	9,2	-0,2	0,9	13,3	0,0	-0,2	0,5
Garraioa	2,4	1,2	-5,0	-2,5	3,1	1,0	-5,5	-2,8
Komunikazioak	-2,8	-6,5	-5,6	0,5	-2,7	-6,6	-5,7	0,5
Aisialdia eta kultura	1,9	-0,8	-0,9	0,1	0,8	-1,2	-1,2	0,2
Irakaskuntza	3,4	2,5	2,9	0,6	10,5	1,9	1,2	0,5
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	1,1	0,7	0,4	0,8	0,8	0,2	0,6	0,9
Beste ondasun eta zerbitzu batzuk	3,6	0,5	1,4	1,8	3,3	0,3	1,3	1,7

Iturria: EIN

Aldi berean, elikagaienak eta alkoholik gabeko edarien prezioak izan ziren gehien igo zirenak (+%2,3).

Bestalde, EBko Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuaren (KPIA) [1] datuek Estatu osorako erakusten dutenez, %0,1eko jaitsiera gertatu zen 2014ko abenduaren aldean. Aurreko urtean %1,1ekoa izan zen. 28KO EB osoan, bestalde, +%0,2ko igoera izan zen prezioetan, 2014ko abenduaren -%0,1eko jaitsieraren aldean. Euro gunean +%0,2ko ratioa izan zen (-%0,2koa 2014ko abenduan), eta, beraz, gure Erkidegoak EBBren aldean duen diferentziala +%0,1ekoa da.

I.4.3. TAULA. KPIH: URTEARTEKO ALDAKUNTZA-TASAK. 2015EKO OINARRIA(2015=100)

	2013ko abe.	2014ko abe.	2015eko abe.
28KO EB	1,0	-0,1	0,2
Euro gunea	0,8	-0,2	0,2
Espainia	0,3	-1,1	-0,1

Iturria: EUROSTAT.

EBk, Estatuak eta Estatukideek KPIHren aldetik konparazioei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo beza irakurleak Kanpoko Ingurune Ekonomikoari buruzko I.1. Kapitulura.

4.2. KOSTUAK

a) Lan-kostuak

Lan-kostuen hainbat adierazle oinarri hartuta, honako emaitza hauek aipatu behar dira:

- *Indarreko hitzarmenetan itundutako lansarien hazkundeak* aintzat hartuta, 2015ean %0,63ko lansarien igoera berrikusia [2] genuen gure Erkidegoan, 2014koa baino 0,08 puntu gutxiago eta Estatu mailan itundutakoak baino 0,11 gutxiago, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren datuen arabera[3].

- Bigarren adierazlea *Soldatapeko lansaria*[4] da, EUSTATen Kontu Ekonomikoetan eta EINen estatistika oinarri hartuta kalkulatzen dena. Kontuan izan behar dugu EUSTATen Kontu Ekonomikoek ez dutela soldatapeko lanpostuen datua, MSEren aribideko urterako eta aurreko urterako lanaldi osoaren baliokidetzan (2015). Gauzak horrela, ratio hori %1,2 hazi zen gure Erkidegoan 2013. urtean (eskuragarri dugun azken datua). Espainiako Bankuaren eta EINen datuen arabera, berriz, %1,7 igo zen 2013an eta %1,3 euro gunean.

1 Kontsumorako Prezioen Indize Harmonizatuak (KPIH) inflazioaren neurri komuna ematen du Europar Batasunean. Konparazio homogeneo horiek lortzeko, kontsumoko zenbait partida baztertu behar izan dira, KPIn biltzen direnak eta gutxi gorabehera haren %5 dakartenak (hala, esaterako, KPIAtik at daude zerbitzu medikoak, irakaskuntza arautua, medikamentuak eta diruz lagundutako produktu farmazeutikoak, etab.

2 "Zaintza klasula"ren bidez soldaten berrikuspenak jatorrian itundutako soldata igoeran sartzearen emaitza.

3 Urtean berrituriko hitzarmen kolektiboetan izandako soldata aldaketak biltzen dituzte soilik kopuru horiek. Argibide gehiago nahi izanez gero, jo beza irakurleak II. Kapitulura ("Lan-merkatua"), Lan Harremanei buruzko atalera.

4 Langileei beren zerbitzuen truke eginiko ordainketa. Ekoizleek langileei eta enplegatuei emandako soldaten eta lansarien ordainketa guztiak biltzen ditu, baita Gizarte Segurantzarako ekarpenak ere. Besteak beste, kontzeptu hauek dakartza: hobariak eta aparteko orduak, primak, Gabonetako sariak eta kalte-ordainak.

Bestalde, 2014rako behin-behineko datuek erakusten dutenez, ratioa %0,6 murriztu da Estatuan; euro gunean, aldiz, %0,9ko hazkundea izan da. 2015ean, berriz ere hazi zen Estatuan (+%0,5).

- Lan-kostuen hirugarren adierazlea koiunturala da, eta halakoa da "*Lan-kostuaren hiruhilekoaren inkesta. LKHI*", EINena. [5] Inkesta horren datuek EAEko 2015erako erakusten dutenez, langileko *urteko lan-kostuek* %0,6 egin du behera, eta Estatuko batez bestekoa %0,6 hazi da.

  Jarduera-sektoreka, kostuek %2,4 egin zuten gora EAEn eraikuntzan; zerbitzuetan eta industrian, aldiz, behera egin zuten, %1 eta %0,1 hurrenez hurren. Kopuru absolutuetan, 2015ean, 35.700€-koa da langileko guztizko kostuaren batez bestekoa, Estatuko batez bestekoa baino %16,7 handiagoa.

Bestalde, EAEn *benetan lan egindako orduko guztizko kostuek* %0,1 egin zuten gora 2015ean; aurreko urtean, berriz, %1,9 jaitsi ziren. Estatuko batez bestekoak %0,6 egin zuen gora. Sektoreen arabera, %0,6 hazi zen eraikuntza EAEn; industria, berriz, %0,2, eta zerbitzuetan %0,1eko igoera gertatu zen.

Kopuru absolutuetan, EAEko batez besteko kostua, 2015ean, 24,2 eurokoa da orduko, Estatuko 19,8€-ko batez bestekoaren aldean. EBn, EUROSTATen datuekin, EAEkoa baino handiagoa da batez besteko datua, 25€-koa (24,5€ 2014an), eta 29,5 euro gunean (29,1€ 2014an).

I.4.4. TAULA. LAN- KOSTUAREN ADIERAZLE MAKROEKONOMIKOAK

	SOLDATEN IGOERA HITZARMENETAN[1]		LANSARIAK SOLDATAPEKO BAKOITZEKO. EAE[2]			LANSARIAK SOLDAT. BAKOITZEKO (% ALD.)		
	EAE (% ald.)	Estatua (% ald.)	Soldatapekoen ordainsariak (mil. €)	Lanpostuak (ABE). Soldatapekoak	Soldatapeko bakoitzeko ordains. (€)	EAE[2]	Estatua[3]	EBB[4]
2010	1,85	2,16	33.285	820.075	35.668	3,3	1,1	1,9
2011	3,03	2,29	33.308	813.319	36.033	1,0	0,9	1,9
2012	1,80	1,16	32.119	787.834	35.930	-0,3	-0,6	1,5
2013	1,01	0,53	31.551	765.596	36.379	1,2	1,7	1,3
2014 a	0,71	0,50	31.929	-	-	-	-0,6	0,9
2015 a	0,63	0,74	-	-	-	-	0,5	-

Iturria: (1) Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa. Laneko Hitzarmen Kolektiboen Estatistika. (2) EUSTATen Kontu Ekonomikoak eta HKE, 2010eko oinarria. (3) EIN (4) Espainiako Bankua
(a) Datuen aurrerapena

I.4.5. TAULA. LAN-KOSTUEN BILAKAERA JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA. LANGILE BAKOITZEKO KOSTUA, €/URTEA.

	ESTATUA				EAE			
	Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2010	30.324	34.187	30.945	29.435	35.215	39.086	35.932	33.725
2011	30.681	34.775	31.799	29.731	35.420	39.727	36.756	33.809
2012	30.483	35.438	32.266	29.353	35.655	40.173	35.698	34.131
2013	30.530	36.071	32.428	29.320	36.266	41.865	35.967	34.470
2014	30.432	36.539	32.355	29.148	35.908	42.340	37.205	33.828
2015	**30.620**	**36.405**	**32.005**	**29.443**	**35.700**	**42.310**	**38.115**	**33.491**
% 2013/14	-0,3	1,3	-0,2	-0,6	-1,0	1,1	3,4	-1,9
% 2014/15	0,6	-0,4	-1,1	1,0	-0,6	-0,1	2,4	-1,0

Iturria: EINen datuekin eginikoa. LKHK.

5 Inkesta hau oinarri hartuta, Lan-kostuen Indize Harmonizatua lortzen da, EB osorako lan-kostuen neurri konparagarria.

I.4.6. TAULA. LAN-KOSTUEN BILAKAERA JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA. LANGILE BAKOITZEKO KOSTUA, €/ORDUA

	ESTATUA				EAE			
	Guzt.	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Guzt.	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2010	19,1	20,7	17,8	19,0	23,4	25,7	22,1	22,7
2011	19,6	21,0	18,5	19,4	23,6	25,5	22,5	23,0
2012	19,5	21,5	18,9	19,2	24,1	25,8	22,0	23,7
2013	19,6	21,8	18,9	19,2	24,6	26,6	21,9	24,1
2014	19,7	21,9	18,8	19,3	24,1	26,4	22,8	23,5
2015	**19,8**	**21,8**	**18,5**	**19,5**	**24,2**	**26,4**	**22,9**	**23,5**
% 2013/14	0,1	0,5	-0,5	0,0	-1,9	-0,9	4,2	-2,8
% 2014/15	0,6	-0,5	-1,6	1,0	0,1	0,2	0,6	0,1

Iturria: EINen datuekin eginikoa.LKHK.

b) *Produktibitatea*

Produktibitatea kontzeptua ekoizpenaren eta ekoizpena lortzeko erabilitako baliabideen arteko erlazioan datza, eta garrantzitsua da ekonomiaren lehiakortasuna neurtzeko. Kontzeptu erraza da, baina bere kalkulua zaila, zeren eta askotariko faktore determinanteak baitaude (landunen gaitasuna, kapitaleko ondasunen zuzkidura, baliabideen erabilera eraginkorra eta beste faktore batzuekin uztartuta erabiltzea hala nola erakundeen ingurukoak, legearen ingurukoak, etab.). Horregatik, hurbilketara jotzen da lanaren itxurazko produktibitatearen kontzeptua erabiliz, hainbat ikuspegitatik neurtua.

I.4.7. TAULA. LANAREN ITXURAZKO BENETAKO PRODUKTIBITATEAREN BILAKAERA EAE-N (BOLUMEN KATEATUA)

	GUZTIRA	LEHEN SEKT	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK
2009	**0,0**	-1,4	-2,5	0,5	0,9
2010	**1,3**	22,2	5,3	-0,1	-0,1
2011	**1,1**	12,5	2,6	2,3	0,3
2012	**1,3**	10,1	0,2	5,3	1,2
2013	**1,2**	1,9	1,6	7,3	0,5
2014*	**1,2**	-7,8	3,7	-0,2	0,2
2015*	**1,1**	6,4	3,1	0,3	0,4

Iturria: EUSTATen Hiruhilekoen Kontu Ekonomikoak oinarri hartuta egindakoa.
(*) Behin-behineko datuak.

Lehenik eta behin, lanaren itxurazko produktibitatea, BPGAren bilakaeraren (%2,8 hazi zen 2015ean) eta lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurturiko lanaren bilakaeraren (EUSTATen Hiruhileko Kontu Ekonomikoaren arabera, %1,7 hazi zen azken urtean) arteko erlazio gisa kalkulatua, %1,1 hazi zen kopuru errealetan 2015ean, aurreko urtean baino hamarren portzentual bat gutxiago[6] (ekoizpena enplegua baino gehiago hazi baita).

Hazkunde horren oinarria, 2015ean, sektore guztietako produktibitatean gertaturiko hazkundea izan zen. Lehen sektorea %6,4 hazi zen, hain zuzen aurreko ekitaldian %7,8 jaitsi ondoren, eta industriarenak %3,1 egin zuen gora (baina 2014an pixka bat handiagoa izan zen, +%3,7), eraikuntzarena %0,3 igo zen 2014ko %0,2ko murrizpenaren aldean eta zerbitzuetan %0,4ko igoera izan zen, 2014ko igoera baino bi hamarren gehiago.

I.4.8. TAULA. LAN-PRODUKTIBITATEA ENPLEGATU BAKOITZEKO, HERRIALDEKA ETA URTEKA (27KO EB =100). (EROSTEKO AHALMENAREN PAREKOTASUNEAN)

	2012	2013	2014
28KO EB	100,0	100,0	100,0
Espainia	106,6	108,5	107,1
EAE	**130,1**	**130,5**	**130,0**

Iturria: EUROSTAT, EUSTATen.
Kopuruak 2015-10-1ean.

EAEko lehia-posizioa Europako testuinguruan erkatuz, PBGaren (erosteko ahalmenaren parekotasunaren arabera) eta enpleguaren arteko erlazio gisa kalkulatzen da lan-produktibitatea. Informazioa eskuragarri dugunez gero, abantaila bat du, hain zuzen ere alderaketak egiteko erraztasuna, baina kasu honetan, maila terminoetan egiten da azterketa, ez bilakaeraren aldetik.

Adierazle horren arabera, 130eko indizea zuen EAEk 2014an, Estatukoa baino %22,9 handiagoa eta 28ko EBko batez bestekoa baino %30 handiagoa.

6 *Benetako produktibitatea bolumen kateaturiko indizeetan, EUSTATen datuak oinarri hartuta kalkulatua.*

EBren, Estatuaren eta estatu kideen mailako produktibitateen arteko alderaketei buruzko informazio gehiago nahi bada, jo beza irakurleak I.1. Kapitulura (Kanpoko Ingurune Ekonomikoa).

c) *Lan-kostu unitarioak*

Produktibitatearen eta lan-kostuen bilakaera ikusi ondoren, EAEko ekonomiaren Lan-kostu Unitarioak[7] (LKU) aztertuko ditugu.

I.4.9. TAULA LAN-KOSTU UNITARIOAK EAE-N: URTEKO ALDAKUNTZA

	LAN-KOSTUEN ALDAK.		PRODUKTIBITAT. ALDAK.		OHIKO LKU-REN ALDAK.		LKU ERREALEN ALDAK.	
	2014	2015	2014	2015	2014	2015	2014	2015
GUZTIRA	**-1,0**	**-0,6**	**1,2**	**1,1**	**-2,2**	**-1,7**	**-2,4**	**-1,6**
INDUSTRIA	1,1	-0,1	3,7	3,1	-2,6	-3,2	-1,3	-1,9
ERAIKUNTZA	3,4	2,4	-0,2	0,3	3,6	2,1	4,2	2,1
ZERBITZUAK	-1,9	-1,0	0,2	0,4	-2,1	-1,4	-2,2	-1,5

Iturria: Geuk Egina, EUSTATen eta EINen datuekin.

2015erako behin-behineko datuek erakusten dutenez, behera egin dute gure ekonomiaren LKU arruntek (-%1,7, 2014ko -%2,2aren aldean), industrian (-%3,2) eta zerbitzuetan (-%1,4) jaitsita eta zerbitzuetan (%2,1) igota. Europar Batasunean, EUROSTATen arabera, %2,3 egin zuten gora KLU nominalek 2015ean 28Ko EBn eta %0,6 euro gunea datutzat hartuz gero.

LKU errealen bilakaerari dagokionez (BPGaren deflatorearen bidez zenbatetsitako prezioen efektua deskontaturik), 2015ean %1,6 egin zuten behera, behin-behineko datuekin, industrian (-%1,9) eta zerbitzuetan (-%1,5) gertaturiko jaitsierengatik, eraikuntzan %2,1 egin zuelako gora.

4.3. ERRENTAK

a) *Errenten banaketa faktoriala*

Gure ekonomian sortutako balio erantsia, lehenik eta behin, balio hori sortzen honela lagundu duten faktoreen artean banantzen da: soldatapeko ordainsari gisa, soldatapekoa ez den lanerako eta kapitalerako ustiapeneko soberakin garbi gisa eta, azkenik, herri administrazioari dagokion ekoizpenarekin eta inportazioarekin (diru-laguntzen garbiak) loturiko zergak. Bigarren mailan, pertsonen eta familien artean banatzen da errenta, ekoizpen-faktore horien jabetzan duten partaidetzaren eta jasotako errenten arabera.

I.4.2. GRAFIKOA. FAKTOREEN ERRENTEN EHUNEKOEN BANAKETAREN BILAKAERA EAE-N



	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Soldatapekoen lansariak	49,1	49,4	49,2	49,0	48,1	47,9	47,7
Ustiapeneko soberakin garbia	33,7	32,4	31,7	33,0	33,7	32,8	32,5
Kapital finkoko kontsumoa	8,1	9,4	9,8	9,4	9,5	10,0	9,8
Zerga garbiak	9,1	8,8	9,2	8,6	8,7	9,3	10,0

Iturria: EUSTATen datuekin eginikoa. Kontu Ekonomikoak

Produktuaren banaketa funtzionalari dagokionez, EUSTATen "*Kontu ekonomikoek*" agerian uzten dutenez, 2014an (behin-behineko datuak) prezio arruntetako BPGan %1,6ko hazkundea erreferentziatzat hartuta, zerga garbiek %8,7 egin zuten gora, soldatapekoen errentak %1,2 eta ustiapenaren soberakin garbiak %0,8. Kapital finkoko kontsumoa, berriz, %0,9 jaitsi zen.

Bilakaera hori ikusita, soldatapeko laneko errentak, 2014an, BPGaren %47,7 ziren (%47,9 2013an eta %48,1 2012an); ustiapenaren soberakin garbia, berriz, %32,5 zen (3 hamarren gutxiago BPGan, gehi 2013an galdutako beste 9

7 Hauxe da Lan-kostu Unitario arrunta (LKU): soldatapeko bakoitzeko lan-kostuaren eta landun bakoitzeko produktibitatearen arteko ratioa. LKU erreala zatidura bera da, baina "prezioen efektua" kenduta deflatorea aplikatuz. Epigrafe honetan, adierazleok Estatuko eta Europako batez bestekoen aldean urtean izandako aldakuntza aztertzen da.

hamarren gehiago) eta kapital finkoko kontsumoa %9,8 da, aurreko urtean baino 2 hamarren gutxiago. Hala, ustiapenaren soberakin garbia, bi magnitude horiek batuta, BPGaren %42,3 da. Ekoizpenerako eta inportaziorako zergei dagokienez, ken ekoizpen-sektoreetarako emandako diru-laguntzak, 7 hamarren gehiagoko ekarpena du BPGan, hots, %10 guztira.

Estatuko errenten bilakaeraren azterketak erakusten duenez (BPG %1 hazi zen 2014an), aurten antzeko proportzioan hazi dira soldaten errentak, %0,9; ustiapenaren soberakina eta errenta mistoa batuta, %0,4ko igoera dugu; eta diru-laguntzen zerga garbiak (BPGan duten proportzioa EAEko bera da): %9) %4 egin dute gora (EAEko %8,7aren aldean).

Euro gunean, aztergai ditugun faktoreek ere bilakaera positiboa izan dute. Soldatapekoen lansariek %2 egin dute gora (BPGaren hazkundetik pixka bat gorago: %1,8); ustiapenaren soberakin osoa edo misto gordina %1,2 hazi da. Aldi berean, zerga garbiek %2,7 egin dute gora.

I.4.10. TAULA. ERRENTAREN BANAKETA EAE-N, ESTATUAN ETA EURO GUNEAN. URTE BERRIA, 2010EKO OINARRIA.

	Milioi euro				% bertikala			% urteko aldak.		
	2011	2012	2013	2014p	2012	2013	2014p	11/12	12/13	13/14
EAE										
1. Soldatapekoen ordainsariak	33.308	32.119	31.551	31.930	48,1	47,9	47,7	-3,6	-1,8	1,2
2. Ustiapeneko soberakin garbia	22.472	22.506	21.595	21.768	33,7	32,8	32,5	0,2	-4,0	0,8
3. Kapital finkoko kontsumoa	6.397	6.350	6.610	6.550	9,5	10,0	9,8	-0,7	4,1	-0,9
4. Diru-laguntzen zerga garbiak	5.864	5.801	6.150	6.683	8,7	9,3	10,0	-1,1	6,0	8,7
BPG, MERKATUKO PREZIOAK	68.042	66.776	65.906	66.931	100,0	100,0	100,0	-1,9	-1,3	1,6
ESTATUA										
1. Soldatapekoen ordainsariak	530.986	498.602	486.630	490.829	47,8	47,2	47,1	-6,1	-2,4	0,9
2. + 3. Ustiapeneko soberakin gordina / Errenta misto gordina*	449.397	450.024	444.716	446.388	43,2	43,1	42,9	0,1	-1,2	0,4
4.Diru-laguntzen zerga garbiak	90.030	94.246	99.926	103.943	9,0	9,7	10,0	4,7	6,0	4,0
BPG, MERKATUKO PREZIOAK	1.070.413	1.042.872	1.031.272	1.041.160	100,0	100,0	100,0	-2,6	-1,1	1,0
EURO GUNEA										
1. Soldatapekoen ordainsariak	4.668.522	4.713.155	4.756.030	4.852.816	47,9	47,9	48,0	1,0	0,9	2,0
2. + 3. Ustiapeneko soberakin gordina / Errenta misto gordina*	4.055.066	4.009.550	4.048.549	4.096.278	40,8	40,8	40,5	-1,1	1,0	1,2
4. Diru-laguntzen zerga gordinak	1.075.437	1.111.103	1.127.221	1.157.326	11,3	11,3	11,5	3,3	1,5	2,7
BPG, MERKATUKO PREZIOAK	9.799.025	9.833.808	9.931.800	10.106.420	100,0	100,0	100,0	0,4	1,0	1,8

Iturria: EUSTAT "Kontu Ekonomikoak", EIN "Espainiako Kontabilitate Nazionala" eta EUROSTAT.
** Ustiapenaren soberakin garbia edo errenta misto osoa hauexen batura da: soberakina garbia gehi kapital finkoko kontsumoa.*
EAEren kasuan, bi aldagaiak ematen ditu EUSTATek, baina ez EUROSTATek eta EINek euro guenerako eta Estatuturako.

b) Errenta biztanle bakoitzeko

Lehenik eta behin, EINek urtero egiten duen "*Espainiako Eskualde Kontabilitateak*" ahalbidetu egiten digu "*Familien errenten kontuak*" zein diren jakiteko Autonomia Erkidego eta probintzia mailan, kopuru agregatuetan nahiz per capita kopuruetan.

EAEko familiek izan zuten 2013an *errenta baliagarri gordinik handiena biztanleko*, 18.626 eurorekin, hots, aurreko urtean baino %0,23 gutxiago eta Estatuko batez bestekoa baino %32,5 gehiago (14.059€). Estatukoak, era berean, behera egin zuen 2013an, %0,5 hain zuzen ere). Gure erkidegoaren atzetik datoz, Estatuko rankingean, Madril, Nafarroa eta Katalunia.

I.4.11. TAULA. FAMILIEN ERRENTA GORDIN BALIAGARRIA, PER CAPITA. EUROAK. 2010EKO OINARRI BERRIA

	2011	2012	2013 (p)		
			Balioa (€)	Espainiako indizea = 100	Aldak. tasa 2012-13
Andaluzia	11.650	11.133	11.075	78,8	-0,5
Aragoi	15.909	15.480	15.351	109,2	-0,8
Asturias	14.962	14.489	14.449	102,8	-0,3
Balears (illes)	15.060	14.570	14.372	102,2	-1,4
U. Kanariarrak	12.577	12.014	11.989	85,3	-0,2
Kantabria	14.301	13.700	13.761	97,9	0,4
Gaztela eta Leon	14.367	14.178	14.007	99,6	-1,2
Gaztela-Mantxa	12.105	11.699	11.789	83,9	0,8
Katalunia	16.715	16.299	16.224	115,4	-0,5
Valentziako E.	13.100	12.580	12.484	88,8	-0,8
Extremadura	10.966	10.600	10.717	76,2	1,1
Galizia	13.264	12.962	12.885	91,6	-0,6
Madril	18.258	17.640	17.548	124,8	-0,5
Murtzia	11.856	11.429	11.434	81,3	0,0
Nafarroa	18.191	17.505	17.354	123,4	-0,9
EAE	**19.083**	**18.669**	**18.626**	**132,5**	**-0,2**
Errioxa	15.058	14.600	14.644	104,2	0,3
Ceuta	12.801	11.954	12.000	85,4	0,4
Melilla	11.711	10.824	10.802	76,8	-0,2
Guztira	**14.606**	**14.129**	**14.059**	**100,0**	**-0,5**

Iturria: EIN. Espainiako Eskualde Kontabilitatea.

Bestalde, EUSTATek foru aldundiekin batera bi urterik behin egiten duen "*EAEko errenta pertsonalaren eta familiarraren estatistikak*" agerian uzten duenez, 2013an (informazioa dugun azken urtean), 19.286 eurokoa zen batez besteko errenta pertsonala, 2011n baino %2,2 gutxiago.

Lurraldeei dagokienez, Gipuzkoak zuen errenta pertsonalik handiena, 19.734€ (2011n baino %3,2 gutxiago), ondoren Araba, 19.359€ (-%3,9) eta Bizkaia (18.994€, 2011n baino %1 gutxiago). Bizkaia da, beraz, jokabiderik onena duen lurraldea (errenta pertsonalaren jaitsierarik txikiena), baina kontuan hartu behar da 2009-2011 aldian Arabako eta Gipuzkoako errentek gora egin zutela; Bizkaian, berriz, jaisten ari ziren.

I.4.3. GRAFIKOA. EVOLUCIÓN DE LA RENTA PERSONAL MEDIA EN LA CAPV DISTINGUIENDO POR TIPO DE RENTA. EUROS.



EUSTAT. Errenta pertsonalaren eta familiarraren gaineko estatistika

Errenten jatorria denaz bezainbatean, %61,4 (%62,7 2011n) lanetik dator eta %8,6 higiezinen eta higigarrien kapitaletik. Bestalde, errenten %4,2k jarduera ekonomikoren batean du jatorria eta %25,8 transferentzietan.

Gainera, PFEZren ordainketak eta langilearen kontrako kotizazio sozialak guztizko errentatik deskontatuta lortzen den errenta baliagarria, guztira, 16.216€ zen 2013an, 2011n baino %3 gutxiago, eta familien errenta guztiaren %84,1 zen.

5. SEKTORE PUBLIKOA

Atal honetan, 2015erako finantza publikoen kopuru nagusiak emango dira, sarreren, gastuen eta aurrekontuko saldoaren aldetik eta EAEko administrazio maila ezberdinen arteko transferentzien eta zorpetzearen bilakaeraren aldetik, betiere Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailak emandako informazioa eta EUSTATen estatistikak oinarri hartuta.

Nabarmentzekoa da, lehenik eta behin, sarrera publikoek %0,3 egin zutela gora 2015ean, baina 2014an baino gutxiago (%2,1). Bestalde, Euskal Sektore Publikoaren guztizko gastuak %1,9 hazi ziren, aurreko urteko %4,1aren aldean.

Sarreren eta gastuen bilakaeraren ondorioz, aurrezki publikoa % 11,3 jaitsi zen (eta BPGaren % 1 izateraino iritsi zen); aldi berean, defizit publikoa (finantzaketaren beharrizana) % 47,8 hazi zen, 293,2 milioi euroraino. Azken kopuru hori BPGaren gaineko % 0,4 izan zen.

Ratio hori BPGaren %0,69 da (%1,01, 2014an) kontuan hartzen badugu Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioko eskualde-administrazioen orekarako Plan Ekonomiko Finantzarioen ondoriozko defizitaren kalkulua (EAEKo Administrazio Orokorraz gain, haren erakunde autonomoen, LANBIDEren eta Osakidetzaren zifrak ere kontsideratu dira). Horixe da erakunde komunitarioei dagokien erreferentzia, EBk ezarritako helburuak betetzen dituena.

I.5.1. KOADROA. EAE-KO SEKTORE PUBLIKOA. ERREFERENTZIAKO ADIERAZLEAK

	BILKET. ALD. % ITUNDUTAKO ZERGENGATIK	BPG-AREN GAINEKO ESP-REN AURREKONTU-SALDOA		ESPREN ZORPETZEA*	
		AURREZ. GORD.	SUPERAB./ DEFIZITA	% ALD.	GAST. % BPG. ALD.
2011	-1,9	0,9	-1,3	+17,8	11,2
2012	-0,6	1,6	-0,7	+13,8	13,0
2013	+3,0	0,9	-0,5	+12,6	14,3
2014	+4,8	1,2	-0,3	+7,0	15,7
2015	+2,4	1,0	-0,4	+4,8	15,5

** Zor bizia epealdiaren bukaeran.*
Iturria: EUROSTATen eta EUSKO JAURLARITZAren datuekin guk geuk egina.

Beste alde batetik, EAEko sektore publiko osoaren guztizko zorpetzea (toki-erakundeak kanpoan utzita) % 25,8 beheratu zen, aurreko ekitaldian %37,8, jaitsi ondoren; hala, urtearen amaieran, zor bizia 10.667,6 milioi euroko izan zen (+% 4,8, 2014aren aldean).

5.1. DIRU-SARRERAK

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailaren "*Aurrekontuen Betearazpenaren Estatistika*"ren arabera, Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek 2015erako likidaturiko guztizko sarrerek (15.219,8 milioi euro) %0,3 igoera izan zuten aurreko urtearen aldean (+%2,1 2014an, 2013aren aldean), zeharkako zerga-bilketaren bilakaera positiboagatik; izan ere, %1,6 hazi ziren. Bi partida horiek Euskal Sektore Publikoaren diru-sarreren % 82,8 biltzen dute. Beste alde batetik, finantza-pasiboen aldakuntzak % 1,9ko igoera izan zuen, zorpetzea ere handitu zelako, Eusko Jaurlaritzarena (+% 2,1) nahiz hiru foru-aldundiena (+% 0,9).

Diru-sarreren %0,3ko hazkunde horrek bilakaera desberdina izan du administrazioen artean, zeren eta Eusko Jaurlaritzaren kasuan %0,1eko jaitsiera baita sarreretan. Foru Aldundiei dagokienez, berriz, %1,4 igoera izan zen (bilketa handiago horrengatik eta tasen eta transferentzia arruntengatik sarreretan izandako bilakaera positiboagatik).

I.5.2. KOADROA. EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN DIRU-SARREREN LIKIDAZIOA. MILAKA EUROTAN.

	2014			2015			% ald. 2014-15		
	EJ	FF.AA.	EPS	EJ	FF.AA.	EPS	EJ	FF.AA.	EPS
Zuzeneko zergak	-	5.905.830	5.905.830	-	6.001.370	6.001.370	-	1,6	1,6
Zeharkako zergak	5.700	6.505.459	6.511.159	3.941	6.594.869	6.598.810	-30,9	1,4	1,3
Tasak eta beste sarrera bat.	213.372	298.132	511.504	180.367	280.452	460.819	-15,5	-5,9	-9,9
Transferentzia arruntak	8.364.078	402.572	397.914	8.539.794	458.113	488.484	2,1	13,8	22,8
Ondare bidezko sarrerak	48.139	10.104	58.243	35.409	2.820	38.229	-26,4	-72,1	-34,4
ERAGIKETA KORROT. GUZT.	8.631.288	13.122.097	13.384.650	8.759.511	13.337.623	13.587.712	1,5	1,6	1,5
Inbertsio errealen bester.	1.966	1.391	3.357	1.467	1.316	2.782	-25,4	-5,4	-17,1
Kapital transferentziak	298.786	46.717	345.008	125.726	19.431	145.005	-47,9	-58,4	-58,0
KAPITAL-ERAGIK, GUZT.	300.752	48.108	348.364	127.193	20.746	147.787	-57,7	-56,9	-57,6
Finantza-aktibok ald.	36.122	1.913	38.036	52.590	2.813	55.403	45,6	47,0	45,7
Finantza-pas. ald. (zorra)	1.139.367	263.500	1.402.867	1.163.018	265.900	1.428.918	2,1	0,9	1,9
FINANTZA-SAR. GUZT.	1.175.489	265.413	1.440.902	1.215.608	268.713	1.484.321	3,4	1,2	3,0
SARRERAK, GUZT.	10.107.529	13.435.618	15.173.917	10.102.312	13.627.083	15.219.820	-0,1	1,4	0,3
SARRERAREN % / BPG	15,1	20,1	22,7	14,7	19,8	22,1			

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontu betearazpenari buruzko estatistika.

Ondorioz, baieztatu daiteke Euskal Sektore Publikoaren Erkidegoko BPGaren gaineko diru-sarrerak 6 ehunen jaitsi direla: 2014ko %22,7tik %22,1era (behin-behineko datuak), BPGa sarrera publikoak baino gehiago hazi baita.

Zerga itunduengatik bildutakoa 2015ean:

I.5.3. KOADROA. FORU ALDUNDIAK: ITUNDUTAKO ZUZENEKO ETA ZEHARKAKO ZERGENGATIKO DIRU-SARREREN LIKIDAZIOA. MILAKA EUROTAN

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		FF.AA., GUZTIRA	
	ZUZENEK.	ZEHARKAK.	ZUZENEK.	ZEHARKAK.	ZUZENEK.	ZEHARKAK.	ZUZENEK	ZEHARKAK.
2011	867.029	952.926	3.103.477	2.882.984	1.673.654	1.890.671	5.644.160	5.726.581
2012	843.440	927.322	3.121.454	2.825.398	1.733.893	1.847.009	5.698.787	5.599.729
2013	840.168	945.347	3.191.198	2.965.556	1.761.697	1.934.547	5.793.064	5.845.450
2014	877.909	1.011.000	3.183.988	3.237.331	1.802.454	2.103.112	5.864.350	6.351.443
2015	910.000	1.067.582	3.150.808	3.303.292	1.897.769	2.167.902	5.958.577	6.538.776
% 13/14	4,5	6,9	-0,2	9,2	2,3	8,7	1,2	8,7
% 14/15	3,7	5,6	-1,0	2,0	5,3	3,1	1,6	2,9

Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuekin geuk eginikoa. Ogasun eta Finantza Saila.

Zerga itunduen zioz bildutako kopuruak halakoek osatzen dituzte zuzeneko eta zeharkako sarrera gehienak eta guztizko sarreren % 90 behin-behineko datuetan oinarrituta, % 2,4ko hazkundea izan zuen 2015ean; aurreko urtean, berriz, % 4,8 igoera izan zuen.

Oro har, aurreko ekitaldian gertatu bezala, esan daiteke zeharkako zergen ziozko bilketak bilakaera positibo handiagoa izan zuela (+%2,9) zuzeneko zergen ziozkoak baino (+% 1,6). Eta lurraldez lurralde, nolabaiteko desberdintasuna ageri da; izan ere, Bizkaian gutxiago hazi zen zeharkako zerga-bilketa batez bestekoa baino (+%2) eta zuzenekoa %1 jaitsi zen. Gipuzkoa eta Araba, aldiz, batez bestekoa baino gehiago hazi ziren, zuzeneko zergen bilketan (%5,3 eta % 3,7 hurrenez hurren, %1,6ko batez bestekoaren aldean), nahiz zeharkakoan (%3,1 eta % 5,6 hurrenez hurren, EAEko %2,9ko batez bestekoaren aldean).

GRÁFICO I.5.1. EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN SARRERAK: ZERGA NAGUSIEN ZIOZKO BILKETAREN BIULAKAERA (MILAKA EUROTAN)



Iturria.- EGABek eginda, Eusko Jarularitzako Ogasun eta Finantza Ogasun eta Finantza

Zeharkako zergetan, guztira, aurreko urtean baino %1,6 gehiago bildu zen 2015ean, PFEZren hazkundea dela medio (+%5,9, zerga-bilketan igoerarik handiena izan duen zerga), zeren eta Sozietateen gaineko Zergak, bigarrena rankingean, %10,4 egin baitzuen behera. Ondarearen gaineko Zergaren bilketa %0,9 murriztu zen; Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga, berriz, %1,2ko igoera izan zuen.

Aurreko guztiaren emaitzaz, PFEZ zerga EAEko guztizko bilketaren % 78 izan zen eta Sozietateen gaineko zerga, berriz, % 17,4koa. Gainerako zuzeneko zerga guztiak bilketaren % 4,6 izan ziren.

I.5.4. KOADROA. EAE-KO FORU ALDUNDIETAKO ZERGA ITUNDUETATIK BILDUTAKOA (MILAKA EUROTAN)

	EAE 2014	2015				% aldak. 2013-14	% aldak. 2014-15
		AFA	BFA	GFA	EAE		
ZUZENEKO ZERGAK	5.864.350	910.000	3.150.808	1.897.769	5.958.577	1,2	1,6
PFEZ	4.390.205	707.074	2.428.451	1.512.154	4.647.680	2,9	5,9
SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA	1.159.223	160.457	627.557	251.037	1.039.051	-4,7	-10,4
EZ-EGOILIARREN ERRENT. ZERGA	9.593	3.421	-65.016	6.985	-54.610	-77,8	-669,3
OINORDETZAK ETA DOHAINTZAK	112.358	13.082	60.418	40.188	113.688	6,6	1,2
ONDAREAREN GAINEKO ZERGA	152.456	16.841	66.291	67.903	151.036	10,4	-0,9
Zergak/Gordailuak kreditu erak.	12.299	2.996	14.253	7.180	24.428	-	98,6
Energia elek. Zerga/produkzioa	28.217	6.129	18.854	12.322	37.304	15,1	32,2
ZEHARKAKO ZERGAK	6.351.443	1.067.582	3.303.292	2.167.902	6.538.776	8,7	2,9
BEZ	4.791.671	812.358	2.498.878	1.633.121	4.944.358	12,0	3,2
EJD	90.234	13.633	48.075	40.008	101.716	25,5	12,7
EJDZ	36.600	5.728	21.862	16.055	43.645	-4,9	19,3
GARRAIOEN GAINEKO Z.B.	14.913	2.447	8.224	5.854	16.525	9,3	10,8
FABRIKAZIOAREN GAINEKO Z.B.	1.339.016	224.145	689.489	450.610	1.364.244	-1,5	1,9
ASEGURU-PRIMEN ZERGAK	70.216	9.791	39.462	23.209	72.462	-1,1	3,2
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK	103.970	15.533	61.383	38.361	115.277	-8,5	10,9
JOKOAREN TASAK	46.655	5.701	24.069	11.650	41.420	-4,3	-11,2
ERREK., BERANDUTZEA ETA ZEHAP.	57.315	9.832	37.314	26.712	73.857	-11,6	28,9
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	12.319.763	1.993.115	6.515.483	4.104.032	12.612.630	4,8	2,4

Iturria: Ogasun eta Finantza Saila. EUSKO JAURLARITZA

Zeharkako zergei dagokienez, esan behar da 2015ean emaitza positiboekin jarraitu zuela honek ere, baina aurrekon urtean baino gutxiago (+%8,7 2014an eta +%2,9 2015ean). Kudeaketa propioaren BEZa %2,5 hazi zen, eta Administrazio Zentralak egin duen BEZaren doikuntza, berriz, %5,1, halako moldez non zerga horrengatiko guztizko bilketa, 2014an %12 hazi ondoren, %3,2 egin baitzuen gora 2015ean. Hala, hirugarren urtez jarraian izan ditu hazkundeak. Horrenbestez, zerga hori zeharkako zerga-bilketaren %75,6 da.

I.5.5. KOADROA. EAE-KO FORU ALDUNDIETAKO ZERGA ITUNDUENGATIK BILDUTAKOAREN BILAKAERAREN AZTERKETA									
	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
ZENBATEKOA (MILA EUROTAN)									
Zuzeneko zergak	6.706.737	6.601.180	5.392.758	5.258.435	5.644.160	5.698.787	5.793.064	5.864.350	5.958.577
Zeharkako zergak	6.946.919	6.119.330	5.298.405	6.331.514	5.726.581	5.599.729	5.845.450	6.351.443	6.538.776
Tasak eta beste b.	118.466	113.689	100.914	110.058	110.172	109.708	113.602	103.970	115.277
BILKETA, GUZTIRA	13.772.123	12.834.199	10.792.077	11.700.007	11.480.913	11.408.224	11.752.116	12.319.763	12.612.630
URTEKO ALDAK. (%)									
Zuzeneko zergak	17,2	-1,6	-18,3	-2,5	7,3	1,0	1,7	1,2	1,6
Zeharkako zergak	3,3	-11,6	-13,4	19,5	-9,6	-2,2	4,4	8,7	2,9
Tasak eta beste b.	14,3	-4,0	-11,2	9,1	0,1	-0,4	3,5	-8,5	10,9
BILKETA, GUZTIRA	9,7	-6,8	-15,9	8,4	-1,9	-0,6	3,0	4,8	2,4
INDIZEAK (2007=100)									
Zuzeneko zergak	100,0	98,4	80,4	78,4	84,2	85,0	86,4	87,4	88,8
Zeharkako zergak	100,0	88,1	76,3	91,1	82,4	80,6	84,1	91,4	94,1
Tasak eta beste b.	100,0	96,0	85,2	92,9	93,0	92,6	95,9	87,8	97,3
BILKETA, GUZTIRA	100,0	93,2	78,4	85,0	83,4	82,8	85,3	89,5	91,6
Iturria: Ondasun eta Finantza Saileko datuekin Egina. EUSKO JAURLARITZA									

Laburbilduz, guztira 12.612,6 milioi euro bildu ziren, hots, EAEko BPGaren %18,4 2015. urtean, behin-behineko datuen arabera (2014ko ratio bera). Hala ere, azken zerga-bilketa 2015eko urrian aurreikusitakoa baino 224,3 milioi txikiagoa izan da; orduan, beheranzko kalkulua egin zen bilketan eta 12.836,9 milioi euroan finkatu zen. Bildutako zenbateko osotik, %36,8 PFEZri dagokio, %39,2 BEZari (kudeaketa propiokoa eta barne eragiketen eta aduenengatik eginiko doikuntzakoak), %8,2 Sozietateen gaineko Zergari eta gainerako %15 hainbat Zerga Berezirengatik.

I.5.6. KOADROA. ZERGA ITUNDUENGATIKO GASTU FISKALAK. MILAKA EUROTAN.							
	2011	2012	2013				% ALD. 2012/13
			ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE	
PFEZ	2.146.066	2.093.109	287.044	988.668	590.137	1.865.849	-10,9
Ondarearen gaineko Z.	-	-	26.525	91.985	67.033	185.543	-
Sozietateen gaineko Z.	426.451	434.817	59.075	206.985	140.316	406.376	-6,5
ZEHARKAKO Z. GUZT.	2.572.517	2.527.926	372.644	1.287.638	797.486	2.457.768	-2,8
BEZ	3.372.248	3.126.995	417.701	1.306.120	849.814	2.573.635	-17,7
ZPZ-EJD	102.584	130.917	51.029	65.110	26.103	142.242	8,7
Garraioen Z.B.	6.163	5.694	645	1.350	1.104	3.099	-45,6
Fabrikazioaren Z.B.	229.025	196.239	28.552	89.278	58.088	175.918	-10,4
Hidrokarb. salm. Z.	3.644	4.130	-	-	-	-	-
Aseguru-primen Z.	19.934	19.562	3.460	10.820	7.040	21.320	9,0
ZEHARKAKO Z. GUZT.	3.733.598	3.483.591	501.387	1.472.678	942.149	2.916.214	-16,3
GUZTIRA	6.306.115	6.011.517	874.031	2.760.316	1.739.635	5.373.982	-10,6
Iturria: ZERGA KOORDINAZIORAKO ORGANOAN oinarrituta egina.							

Diru-sarreraren murriztapena dakarten partidei dagokienez, aurrekontuaren arabera 2013rako gastu fiskala[1] urte hori baita informazio zehatza ematen duen azkena (hau da, beren zergetan eta foru aldundien ekarpenetan kontabilizatutako zergetan eragina duten onura fiskalen zenbatekoak: salbuespenak, gastu kengarriak, murriztapenak, kenkariak, hobariak, diferimenduak eta abar izan daitezkeenak) 5.374 milioi eurokoa izan da, aurreko urtean baino % 10,6 gutxiago, hau da, diru-sarrera teorikoen % 31,7 (aurrekontuan sartutako diru-sarrerak eta gastu fiskalak). Gastu fiskalen %44,9 (2.414,5 milioi) araudi autonomoko zerga itunduei dagokie: PFEZ, Sozietateen gaineko Zerga eta ZPZ-EJD.

1 Gastu fiskalaren kontzeptuak ez du ondo argitutako eta denek onartutako definiziorik ogasunaren doktrinaren barruan. Halere, gastu fiskalen aurrekontua honela defini dezakegu: zerga sarreren murriztapenaren aurreikuspenaren zenbatekoa, politika ekonomiko eta sozialeko zenbait helburu lortzeko asmoz onura fiskalak aplikatzearen ondorioz. ELGAren definizioaren arabera, zergaren egitura arruntaren; edozein desbiderapen dira gastu fiskala. Arruntenak eta erabilienak zerga oinarrian egindako murriztapenak eta kuotako kenkariak dira.

5.2. GASTUAK

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailaren "*Aurrekontuen Betearazpenaren Estatistika*"ren arabera, Eusko Sektore Publikoaren guztizko gastua, 15.178,1 milioi euro (tokiko erakundeak alde batera utzita) %1,9 hazi zen 2015ean, aurreko urtean %4,1 igo ondoren. Hala, magnitude horrek EAEko BPGean duen portzentajea hamarren bat murriztu da, hots, %22,2tik %22,1era hain zuzen.

Gastuak bilakaera positiboa izan du bai Eusko Jaurlaritzan (+%1,1) baita foru aldundietan ere (+%2,4). Ondorioz, agregatuaren aldakuntzak indar gutxiago dauka (+%1,9), izan ere, diru partidetako batzuk erakundeen artean orekatzen dira (transferentzien zati bat, esaterako). Ondorioz, gastu publikoaren gure Erkidegoaren BPGd-aren gaineko ratioa % 19,7ari eusten zaio Foru Aldundientzat eta % 15etik % 14,8ra jaitsi da Eusko Jaurlaritzarentzat, BPGd-ak EAEn 2015ean izan duen bilakaeraren behin-behineko datuak kontuan izanik.

Euskal Sektore Publiko osoko (tokiko erakundeak kanpoan utzita) gastu kapituluetako aldakuntzarik garrantzitsuenek zenbait alde erakusten dute aurreko urteetakoekin alderatuz gero. Lehenik eta behin, 2014an baino neurri handiagoa hazi ziren gastuak (+%2 2015ean eta +%1,3 2014an), baina soilik Gobernuaren bilakaeraren zioz (+%2,4), zeren eta foru aldundietan jaitsiera txikia izan baitzen, %0,1 hain zuzen ere. Funtzionamendu gastuek (ondasunen eta zerbitzuen erosketari dagozkionak), bestalde, maila positiboetan jarraitu zuten, baina 2014an baino gutxiago hazita (%1,1 hazita 2015ean, aurreko urtean +%2,7 igo ondoren). Izan ere, murriztu egin zen 2012 eta 2013 bitartean.

Era berean, gora egin zuten zorpetzearen ondoriozko gastuek, finantza-pasiboen bilakaera dela medio (zorpetzearen amortizazioa), %26,7 hazi baitziren. Gobernuaren partidaren bilakaeragatik gertatu da datu hori (+%43), zeren eta Foru Aldundietan, aurreko ekitaldietan bezala, zifra negatiboa baita (-%3,4). Finantza-gastuak (interesak), bestalde, %12,8 egin zuten behera, eta negatiboak dira Gobernuarentzat nahiz aldundientzat.

I.5.7. KOADROA. EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN GASTUEN LIKIDAZIOA. MILA EUROTAN.

	2014			2015			% aldak. 2014-15		
	EJ	FF.AA.	EPS	EJ	FF.AA.	EPS	EJ	FF.AA.	EPS
Langileria gastuak	1.884.605	349.360	2.233.966	1.929.534	348.845	2.278.380	2,4	-0,1	2,0
Funtzionamendu gastuak	3.285.698	513.901	3.799.599	3.308.819	533.855	3.842.674	0,7	3,9	1,1
Finantza-gastuak (interesak)	251.774	74.323	326.097	231.055	53.263	284.318	-8,2	-28,3	-12,8
Transferentzia arruntak	3.133.803	11.482.750	6.247.818	3.183.752	11.818.296	6.492.625	1,6	2,9	3,9
ERAGIKETA ARRUNTAK, GUZT	8.555.880	12.420.335	12.607.480	8.653.160	12.754.260	12.897.996	1,1	2,7	2,3
Inbertsio errealak	332.040	188.543	520.583	206.942	171.181	378.123	-37,7	-9,2	-27,4
Kapital-transferentziak	600.793	203.038	803.335	542.081	210.603	752.533	-9,8	3,7	-6,3
KAPITAL-ERAGIKETAK, GUZT.L	932.833	391.581	1.323.918	749.023	381.784	1.130.655	-19,7	-2,5	-14,6
Finantza-aktiboen aldak.	85.020	136.393	221.413	72.965	139.799	212.764	-14,2	2,5	-3,9
Finantza-pasiboen aldak. (zorra)	479.805	259.299	739.104	686.326	250.403	936.729	43,0	-3,4	26,7
FINANTZA GASTUAK, GUZT.	564.825	395.692	960.516	759.291	390.202	1.149.493	34,4	-1,4	19,7
GUZTIZKO GASTUA	**10.053.538**	**13.207.607**	**14.891.914**	**10.161.474**	**13.526.245**	**15.178.145**	**1,1**	**2,4**	**1,9**
GASTU LIKIDATUAREN % BPG	15,0	19,7	22,2	14,8	19,7	22,1			

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuen Betearazpenaren Estatistika.

Bestalde, 2016ko maiatzean eguneraturiko 2015eko "*EAEko Aurrekontu Orokorren betearazpena*" delakoaren arabera, behin betiko likidazioa egiteke dagoela, Eusko Jaurlaritzaren gastua %4,7 hazi zen 2014ko ekitaldian betearazitako gastuaren aldean, aurreko urtean %9,6 hazi ondoren.

Gastu bolumena aintzat hartuta, bi sail nagusiek Hezkuntza, Hizkuntza Politika Kultura Saila (gastu osoaren % 26,4) eta Osasun Saila (% 31,7) izaten jarraitzen dute. Lehenengoa % 2 jaitsi zen eta bigarrena, aldiz, % 1,2 hazi zen, 2014ko ekitaldiko tasaren aldean. 2015eko gastu osoa 10.700,3 milioi eurokoa izan zen, eta kopuru hori gure Erkidegoko BPGaren gaineko % 15,6koa izan zen urte horretan, behin-behineko datuen arabera.

I.5.8. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN GASTUAREN BILAKAERA, SAILKA. MILA EUROTAN.

	Mila eurotan				2015 Banak. %	Aldak. %		
	2012	2013	2014	Aurrek. 2015*		12/13	13/14	14/15
00 Parlamentua	26.612	27.538	27.565	28.048	0,3	3,5	0,1	1,8
01 Gobernuko lehendakaritza	99.312	95.688	102.692	73.299	0,7	-3,6	7,3	-28,6
02 Administrazio publikoa eta Justizia	264.316	212.953	220.468	254.555	2,4	-19,4	3,5	15,5
03 Ekonomia eta Lehiakortasun Saila	-	396.312	418.828	497.411	4,6	-	5,7	18,8
04 Enplegua eta Gizarte Politika	1.088.826	796.024	953.609	1.070.240	10,0	-26,9	19,8	12,2
05 Ogasuna eta Finantza	66.851	93.698	96.899	139.063	1,3	40,2	0,9	43,5
06 Hezkuntza, Hizkuntza P. eta Kultura	2.625.112	2.630.443	2.765.248	2.820.686	26,4	0,2	5,1	2,0
07 Segurtasuna	606.672	582.849	608.868	616.608	5,8	-3,9	4,5	1,3
08 Osasuna	3.365.367	3.263.193	3.354.198	3.395.672	31,7	-3,0	2,8	1,2
09 Ingurumena eta Lurralde P.	251.555	594.157	653.540	673.469	6,3	136,2	10,0	3,0
Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoa	327.579							
Kultura	262.493							
Etxebizitza, Herri Lanak eta Garraioa	805.134							
Plan bereziak	-							
51 Lan Harremanetan Kontseilua	2.318	2.165	2.325	2.367	0,0	-6,6	7,4	1,8
52 EGAB	1.637	1.310	1.310	1.334	0,0	-20,0	0,0	1,8
53 Kooperatiben Goren Kontseilua	889	889	889	893	0,0	0,0	0,0	0,4
54 Kontuen Euskal Auzitegia	7.243	7.013	7.127	7.254	0,1	-3,2	1,6	1,8
55 Datuak Babesteko Euskal Agentzia	1.497	1.336	1.336	1.336	0,0	-10,8	0,0	0,0
90 Zor publikoa	364.806	442.066	815.059	989.517	9,2	21,2	84,4	21,4
95 Baliabideak eta konpromisoak	75.217	74.922	78.849	82.902	0,8	-0,4	5,2	5,1
99 Hainbat sail	-	94.102	106.698	45.681	0,4	-	13,4	-57,2
GUZTIRA	**10.246.438**	**9.316.657**	**10.215.506**	**10.700.333**	**100,0**	**-9,1**	**9,6**	**4,7**
% BPG bb	15,7	14,1	15,3	15,6				

Iturria: EUSKO JAURLARITZA.EAEko Aurrekontu Orokorren Betearazpena.
**2015eko aurrekontua, 2016ko maiatzean eguneratua, azarora arteko betearazpena kontuan izanik.*

5.3. AURREKONTUKO SALDOA

GRÁFICO I.5.2. AURREZKIAREN ETA SUPERABIT/DEFIZIT PUBLIKOEN BILAKAERA (AHALMENA/FINANTZATZEKO BEHARRA) EAEN. BPGREN GAINEKO %



	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
AURREZKIA	4,5	3,4	2,3	2,7	2,7	3,8	4,6	4,7	2,1	-0,5	0,5	0,9	1,6	0,9	1,2	1,0
SUPERABITA/DEFI	1,7	0,4	0,3	-0,3	0,2	1,4	2,0	2,1	-0,8	-4,0	-2,7	-1,3	-0,7	-0,5	-0,3	-0,4

Iturria.- EGABek eginda, Eusko Jaurlaritzaren datuak erabilita

2015ean Euskal Sektore Publikoaren (Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak) diru-sarrera arruntak % 1,5 hazi dira; izaera bereko gastuak, aldiz, % 2,3; horrek aurrezki gordina % 11,3 edo 1.048 milioi euro gutxitzea eragin du, 689,7 milioi euroraino. Hots, gure Erkidegoko BPGaren %1 (behin-behineko datuak).

Gainera, 293,2 milioi euroko defizit publikoa (finantzaketa premia) erregistratu da (BPGd-aren % 0,4); izan ere, gastu ez-finantzarioek (arruntak gehi kapitalekoak) izaera bereko diru-sarrerak gainditzen dituzte. Aurreko ekitaldian, defizita 198,4 milioi eurokoa izan zen; beraz, % 47,8ko gorakada egon da.

Ratio hori BPGaren %0,69 da (%1,01, 2014an) kontuan hartzen badugu Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioko eskualde-administrazioen berrorekarako Plan Ekonomiko Finantzarioen ondoriozko defizitaren kalkulua (EAEKo Administrazio Orokorraz gain, haren erakunde autonomoen, LANBIDEren eta Osakidetzaren zifrak ere kontsideratu dira). Horixe da erakunde komunitarioei dagokien erreferentzia, EBk ezarritako helburuak betetzen dituena.

Finantzen aldagaiari erreparatuta, funtsean, zorpetzeari esker, 2015eko defizita aurrekontuko superabit bilakatu zen (41,7 milioi euro, hau da, BPGaren % 0,1), aurreko ekitaldian atera zen 282 milioi euroko zenbatekoa (-%49,6) baino askoz ere kopuru txikiagoa (-%85,2).

I.5.9. KOADROA. EUSKAL SEKTORE PUBLIKOA: AURREKONTU-MAGNITUDE KONTSOLIDATUAK. MILAKA EUROTAN.

	2013	2014	2015	% 2013/14	% 2014/15
1.- SARRERA ARRUNTAK	12.852.763	13.384.650	13.587.712	4,1	1,5
2.- GASTU ARRUNTAK	12.243.539	12.607.480	12.897.996	3,0	2,3
2.1.- LANGILERIA GASTUAK	2.204.434	2.233.966	2.278.380	1,3	2,0
2.2.-FUNTZIONAMENDU GASTUAK	3.700.403	3.799.599	3.842.674	2,7	1,1
2.3.- FINANTZA GASTUAK	294.341	326.097	284.318	10,8	-12,8
2.4.- TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	6.044.361	6.247.818	6.492.625	3,4	3,9
3.- AURREZKI GORDINA(1-2)	609.225	777.170	689.715	27,6	-11,3
4.- KAPITAL-SARRERAK	431.516	348.364	147.787	-19,3	-57,6
5.- KAPITAL GASTUAK	1.341.657	1.323.918	1.130.655	-1,3	-14,6
5.1.- INBERTSIO ERREALAK	683.342	520.583	378.123	-23,8	-27,4
5.2.- KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	658.315	803.335	752.533	22,0	-6,3
6.-FINANTZAZIO AHALMENA (+) / BEHARRA (-) (3+4-5)	-300.916	-198.383	-293.153	-34,1	-
7.- FINANTZA-KTIBOEN ALDAKUNTZA GARBIA	-207.589	-183.377	-157.361	-11,7	-
7.1.- FINANTZA-AKTIBOEN ALDAKUNTZA. SARRERAK	65.647	38.036	55.403	-42,1	45,7
7.2.- FINANTZA-AKTIBOEN ALDAKUNTZA. GASTUAK	273.235	221.413	212.764	-19,0	-3,9
8.- FINANTZA-PASIBOEN ALDAKUNTZA GARBIA	1.067.608	663.763	492.189	-37,8	-25,8
8.1.- FINANTZA-PASIBOEN ALDAKUNTZA. SARRERAK	1.511.593	1.402.867	1.428.918	-7,2	1,9
8.2.- FINANTZA-PASIBOEN ALDAKUNTZA. GASTUAK	443.985	739.104	936.729	66,5	26,7
9.- AURREKONTUKO SUPERABITA / DEFIZITA (6+7+8)	559.103	282.002	41.675	-49,6	-85,2
9.1.- ORDAINTZEKE DAUDEN OBLIGAZIOAK	1.217.932	1.094.770	934.111	-10,1	-14,7
9.2.- KOBRATZEKE DAUDEN ESKUBIDEAK	1.478.602	1.333.346	1.013.943	-9,8	-24,0
10.- AURREKONTUKO SUPERABITA / DEFIZITA KUTXA TERMIN.	298.433	43.426	-38.157	-85,4	-

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuaren betearazpenaren estatistika.

5.4. SEKTORE PUBLIKOAREN ZORPETZEA

2015eko Aurrekontu Betearazpenaren Estatistikak erakusten du, lehenengo eta behin, EAEko sektore publiko osoaren (Eusko Jaurlaritza gehi foru aldundiak) zorpetze garbia %25,8 murriztu dela aurten bigarren urtez jarraian (-%37,8 2014an), aurreko ekitaldietan hazi ondoren.

Beste alde batetik, zorpetze gordinak % 1,9ko igoera txikia izan zuen 2015ean eta 1.428,9 milioi euroraino heldu zen. Horien artetik, 1.163 milioi euro Eusko Jaurlaritzari dagozkio (+%2,1, 2014 urtearekin alderatuta) eta gainontzeko 265,9 milioi euro foru aldundiei (+% 0,9).

Arestian azaldutakoaren emaitzaz, Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek 10.667,6 milioi euroko zorra izan zuten ekitaldiaren amaieran, 2013ko ekitaldian baino % 4,8 gehiago. Kopuru hori BPGaren % 15,5ekoa izan zen, behin-behineko datuen arabera, (2014ko ekitaldian, berriz, % 15,7koa izan zen). Horrela, beste urtebetez, zorrik handiena Eusko Jaurlaritzak dauka (guztizko zorraren % 80,4; aurreko urtean, % 79,6).

I.5.10. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN ZORPETZEAREN BILAKAERA (MILA EUROTAN)

	Zorpetze gordina		Amortizazioa	Zorpetze garbia		Urteko amaierako zor bizia	
	(1)	% aldak.	(2)	(1)-(2)=(3)	% aldak.	Guztira	% aldak.
EUSKO JAURLARITZA							
2012	1.084.420	13,0	174.483	909.937	15,1	6.466.631	16,4
2013	1.175.253	8,4	199.928	975.325	7,2	7.441.956	15,1
2014	1.139.367	-3,1	479.805	659.562	-32,4	8.101.518	8,9
2015	1.163.018	2,1	686.326	476.692	-27,7	8.578.210	5,9
FORU ALDUNDIAK							
2012	348.570	-6,2	235.462	113.108	-17,9	1.967.457	6,1
2013	336.340	-3,5	244.057	92.283	-18,4	2.059.740	4,7
2014	263.500	-21,7	259.299	-31.799	-134,5	2.027.941	-1,5
2015	265.900	0,9	250.403	15.497	-148,7	2.043.438	0,8
GUZTIRA, EPS							
2012	1.432.990	7,6	409.945	1.023.045	10,2	8.444.088	13,8
2013	1.511.593	5,5	443.985	1.067.608	4,4	9.511.696	12,6
2014	1.402.867	-7,2	739.104	663.763	-37,8	10.175.459	7,0
2015	1.428.918	1,9	936.729	492.189	-25,8	10.667.648	4,8

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuaren betearazpenaren estatistika. Geuk egina.

Beste alde batetik, EUSTAT erakundearen "Sektore Publikoaren Aurrekontu Estatistika" delakoari esker (eskuragarri dugun azken informazioa 2013koa da), foru-aldundien eta udal guztien zorpetzea zenbatekoa den jakin dezakegu, bai eta EAEko Administrazio osoaren (gobernua + aldundiak + udalak) zorpetzearen zenbatekoa.

I.5.3. GRAFIKOA. EAEKO ADMINISTRAZIOEN FIANATZA ZORRA (MILAKA EUROTAN)



Iturria.- EUSTAT. Sektore Publikoaren Aurrekontuaren Estatistika

Foru aldundiei dagokienez, 2013an 368,4 milioi euroko zorra jaulki zuten (aurreko ekitaldiko 348,5 milioien aurrean). Hauen artetik 68 milioi Arabako Foru Aldundiari dagozkio, 144 Gipuzkoakoari eta gainontzeko 156ak Bizkaikoari. Horrez gain, 239,1 milioi euroko balioarekin amortizatzen dute, aurreko ekitaldian baino % 25,2 gutxiago. Amortizatutako kopurutik % 65,3 Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, % 22,4 Gipuzkoakoari eta gainerako % 12,3 Arabako Foru Aldundiari. Aldundien zorraren saldo bizia % 6,3 handitu da aurreko urtekoaren aldean. BPGd-arekiko harremanean ere hala egin du: 2012an % 3,1 izan zen eta 2013an % 3,3.

EAEko udalei dagokienez, arestian aipatutako estatistikan oinarri harturik, badakigu 2013an 34,9 milioi euroko zorra jaulki zutela, eta 78,7 milioi euro amortizatu zutela. Beraz, ekitaldiaren amaieran, ordaindu gabeko zorra 44 milioi euro gutxitu zen eta 609,9 milioi eurokoa izan zen.

Beste alde batetik, guztira hartuta, EAEko herri-administrazio guztiek (gobernuak, foru-aldundiek eta udalek), 2013ko ekitaldian, 9.890 milioi euroko zor bizia izan zuten urtearen amaieran (hau da, 2012an baino % 12,3 gehiago). Zenbateko hori aipatutako urteko BPGaren % 15ekoa izan zen (2012an, aldiz, % 13,2koa izan zen).

Zorraren %71,7 Eusko Jaurlaritzari dagokio, %11,9 Bizkaiko Foru Aldundiari, %5,5 Arabakoari eta %4,7 Gipuzkoakoari. Gainerakoa, 609,9 milioi euro, hain zuzen, EAEko udaletako finantza-zorrari dagokio, eta EAEko administrazioen zor osoaren % 6,2 da (2012an % 7,4).

5.5. ERAKUNDEETAKO TRANSFERENTZIAK

EAEk bere jarduera finantzatzeko sistema berezia dauka. Zergarik gehienak biltzeko gaitasuna du. Kupoa deritzonaren bidez EAEk jaso ez dituen eskumenetan, estatuaren gastuak ordaintzen laguntzen du. EAEren eskumenen banaketaren barruan, zerga-bilketa lurralde historiko bakoitzeko Foru Aldundiek egiten dute batez ere. Eusko Jaurlaritzaren finantzazioan laguntzen dute, ekarpenen bidez. Udalek ere zerga-bilketa egiten dute. EAEko administrazio publikoek jasotzen dituzten baliabide propioez gain, Europar Batasunak eta estatuak zenbait fondo ematen diete, arrazoi desberdinengatik: BEZaren bidez eta zerga berezien bidez bildutako dirua egokitzeko, Foru Aldundiek eta Udalek zerga ez itunduetan duten partaidetzagatik, elkarrekiko, kiroleko eta ongintzako apustuetatik eta Estatuko Loteria eta Apustuen Erakunde Nazionaletik bildutako diruaren partaidetzagatik, eta estatu administrazioek eta erakunde autonomoek egiten dituzten finantzazio hitzarmen eta akordioen ondorioz.

I.5.11. KOADROA. FORU ALDUNDIEK EAE-KO ERAKUNDE KOMUNEI EGITEN DIZKIETEN EKARPENEN BILAKAERA (MILA EURO)

KONTZEPTUA	2011	2012	2013	2014	2015	% ald. 13-14	% ald. 14-15
EKARPEN OROKORRA	7.314.810	7.447.837	7.428.008	7.845.378	7.987.883	5,6	1,8
EKARPEN ESPEZIFIKOAK	600.619	864.106	392.825	416.055	451.723	5,9	8,6
EAE, GUZTIRA	**7.915.428**	**8.311.943**	**7.820.933**	**8.261.433**	**8.439.606**	**5,6**	**2,2**
EKARPENAK, ARABA	1.328.209	1.380.614	1.269.337	1.321.829	1.386.627	4,1	4,9
EKARPENAK, BIZKAIA	3.975.128	4.195.869	3.969.124	4.208.374	4.265.377	6,0	1,4
EKARPENAK, GIPUZKOA	2.612.091	2.735.460	2.582.472	2.731.230	2.787.602	5,8	2,1
% ARABA	16,78	16,61	16,23	16,00	16,43		
% BIZKAIA	50,22	50,48	50,75	50,94	50,54		
% GIPUZKOA	33,00	32,91	33,02	33,06	33,03		

Iturria: Kupoaren eta Finantza-Ekarpenen Zuzendaritzan oinarrituta Egina. Ogasun eta Finantza Saila. EUSKO JAURLARITZA

Lehenik eta behin, Foru Aldundiek Eusko Jaurlaritzari egiten dizkioten ekarpenak aipatu behar ditugu, bolumen handia baitute. Baliabideak banatzeko metodologia Ekarpenen Legean jasota dago. Hamabost egunean behin Foru Aldundiek biltzen dituzten zerga itunduetatik zein zati transferitu behar dioten Aldundiek Eusko Jaurlaritzari erabakitzen du legeak, gastu komunak ordaintzeko ekarpen gisa (horrela, Eusko Jaurlaritzak jasotzen dituen dirusarreren %90 baino gehiago ekarpen horietatik datoz). 2015ean, ekarpen horiek 8.439,6 milioi euro izan ziren, hots, 2014an baino %2,2 gehiago. Urte horretan %5,6 hazi zen 2013aren aldean.

2007-2011 aldiko berrikuntza legez Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak hainbat aldaketa erabaki zituen baliabideak banatzeko eta aldundien ekarpenak zehazteko.[2] Aldaketa horien artean, besteak beste, ondoko hauek nabarmendu behar ditugu: koefiziente bertikala % 70,44tik % 70,04ra jaitsi zen, toki erakundeen partaidetza areagotzeko; Foru Aldundien artean BEZagatik biltzen duten diruan doikuntza berria egin zen; eta Doikuntzako Fondo Orokorra sortu zen

2 2/2007 Legea, martxoaren 23koa, Baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzekoak egin beharreko ekarpenak zehazteko 2007-2011 aldian aplikatuko den metodologiari buruzkoa. Oraindik ere indarrean dago, ez baitu geroagoko beste batek ordeztu..

(lehen Elkartasun Fondoa zena), lurralde historikoentzako berme mekanismo gisa; EAEko erakundeen artean banatu beharreko baliabideetan lurralde historikoen zenbatekoa % 0,75 izatetik % 1 izatera igaro zen.

I.5.12. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAK LIKIDATURIKO DIRU-SARRERA, JATORRIAREN ARABERA. (MILA EURO).

	2011	2012	2013	% banak. 2013	% ald. 11-12	% ald. 12-13
1. FORU ALDUNDIEN EKARPENAK	7.915.428	8.311.943	7.820.933	79,7	5,0	-5,9
. Ekarpen orokorra	7.314.810	7.447.837	7.428.008	75,7	1,8	-0,3
. Ekarpen espezifikoak	600.619	864.106	392.925	4,0	43,9	-54,5
2. ERAKUNDEEN BESTE SARRERA BATZUK	371.024	476.222	494.634	5,0	28,4	3,9
. EAEko erakundeen transf.	7.746	7.469	5.091	0,1	-3,6	-31,8
. Estatuko transferentziak	254.805	381.967	366.280	3,7	49,9	-4,1
. Europar Batasuneko funtsak	108.151	86.786	123.263	1,3	-19,8	42,0
- EGIF	7.594	7.798	4.637	0,0	2,7	-40,5
- EGEF	34.809	238	37.395	0,4	-99,3	15.612,2
- NBEEF - Orientazioa	-	38	-	0,0	-	-
- LGENF	5.719	12.899	17.661	0,2	125,5	36,9
- NBEUF	51.272	51.689	52.392	0,5	0,8	1,4
- ABFT	6.376	8.715	7.244	0,1	36,7	-16,9
-Kohesio funtsa	-	3.481	-	0,0	-	-
- Beste funts batzuk	2.381	1.928	3.934	0,0	-19,0	104,0
. EBtik kanpoko funtsak	322	-	-	0,0	-	-
3. BESTE BALIABIDE BATZUK	1.479.248	1.561.701	1.493.702	15,2	5,6	-4,4
- Zor publikoa	960.077	1.084.420	1.175.253	12,0	13,0	8,4
- Zeharkako zergak	3.010	2.476	6.079	0,1	-17,7	145,5
- Ondare bidezko sarrerak	197.261	165.032	48.005	0,5	-16,6	-70,9
- Inbertsio errealen besterentzea	1.064	71.952	16	0,0	6.662,4	-100,0
- Bestelako Transferentziak	11.072	7.221	5.160	0,1	-34,8	-28,5
- Finantza aktiboen aldakuntza	49.078	48.738	63.531	0,6	-0,7	30,4
- Tasa eta prezio publikoak	210.864	181.861	195.659	2,0	-13,8	7,6
SARRERAK, GUZTIRA	9.718.879	10.349.866	9.809.269	100,0	6,5	-5,2

Iturria: ZERGAK KOORDINATZEKO ORGANOA

Bestalde, Europar Batasunaren fondoetatik datozen diru-laguntzak Europar Batasunak hartutako aurrekontu konpromisoen arabera gauzatzen dira. Diru-laguntza horien forma aurrerakinena edo behin betiko ordainketena izan daiteke, kasu bakoitzean araututa dagoenaren arabera. 2013an (informazioa duen azken urtea) % 42 handitu dira, aurreko ekitaldian % 19,8ko jaitsiera izan ondoren, Horrenbestez, 123,2 milioi eurokoak izan ziren.

Diru-partida nagusia 2007an LGENFekin (Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa) batera nekazaritzara zuzendutako diru-laguntzak kudeatzeko sortu zen BENFri (Bermerako Europako Nekazaritza Funtsa) dagokio. Horren bitartez 52,39 milioi euro jaso ziren 2013an, urte horretan jaso ziren funts europarren % 42,5. Bigarren tokian, 39 milioi euro jaso ziren LGENFren bitartez, guztizkoaren %30,3.

Beste partida interesgarri bat estatuarentzako kupoa da. Kupoaren zenbateko likidoa, Kupoaren Bost Urteko Legearen bidez urtero zehazten dena, 2015. urtean (behin-behineko likidazioen arabera) 758 milioi eurokoa da. 2014. urtearen aldean %11,2 hazi da.

I.5.13. KOADROA. EAE-K ESTATUARI ORDAINDUTAKO KUPOAREN BILAKAERA. MILA EUROTAN.

	2012	2013	2014	2015	% ald. 14/15
SARTUTAKO KUPOA	367.089	879.347	750.790	823.780	9,7
KONPENTSAZIOAK*	-78.482	-97.541	-69.041	-65.404	-5,3
ORDAIND. KUPOA	297.607	781.807	681.748	758.076	11,2

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Ogasun eta Finantza Saila.
(*) Finantza-konpentsazioak Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziengatik.

Amaitzeko, Estatuari egiten zaizkion ordainketa horiek ez ezik, zenbait zenbateko ere jasotzen dira; horietatik nabarmenena Balio Erantsiaren gaineko Zergaren doikuntza da, barne merkatuan eta inportazioetan (azken hori Estatuko Ogasunak soilik egiten du) egindako eragiketengatik. Doikuntza hori Estatuko administrazioen eta EAEko administrazioaren arteko finantza-doikuntza da, zerga administrazioen artean zerga-bilketa teorikoak eta errealak egokitu beharra dagoelako, zerga administrazio horiek beren lurraldean jarduten baitute muga fiskalik gabeko espazio

batean. Doikuntza horiei, zerga bereziei dagozkienak erantsi zitzaizkien 1997. urtean. Zerga berezi horiek kargatzen zaizkien produktuen behin betiko kontsumoa produktua fabrikatu den lurraldetik kanpo egitean gertatzen den distortsioa zuzentzeko beharrezkoak dira.

2013. urtean, informazioa dugun azken urtean, BEZagatiko doikuntza EAEn 1.139,25 milioi eurotara iritsi zen. Kopuru hori aurreko urtekoarekin erkatuta %5,9 igo zen. Diru partida honen barnean, aduanetan bildutakoagatiko doikuntzak guztizkoaren %56,8 ordezkatzen du eta gainerakoa, %43,2 aurreko operazioei dagokie. Lurralde banaketa urtero egiten da, koefiziente horizontalen arabera.

I.5.3. GRAFIKOA. BEZ ZERGAREN ZIOZKO KOIKETA LURRALDEAREN. MILAKA EUROTAN



Iturria.- EUSKO JAURLARITZA. Zerga Koordinaziako Erakundea.

6. AZPIEGITURA PRODUKTIBOAK

Azpiegitura fisikoak oinarrizko elementua dira garapen ekonomikoa, ongizate orokorra eta edozein gizarteren kohesioa posible izan daitezen, eta herrialde baten ekonomia orokorraren jardunaren gainean eragin garrantzitsua dute. Zehazki, produktibitatea eta hazkundea areagotzen laguntzen dute.

Kapitulua bi bloke handitan dago banatuta. Lehenbizikoa garraioari buruzkoa eta bigarrena energiaren ekoizpenaren eta kontsumoaren gainekoa. Garraioaren atalari dagokionez, lehenik eta behin, Estatuko erakunde publikoek (AENA, ADIF, PORTUAK eta RENFE) ingeniaritza zibilean EAEn eginiko esleipenei buruzko datuak aztertuko dira eta, ondoren, errepideko garraioaren, trenbideko garraioaren (horren barnean euskal Y-a), airetiko garraioaren eta itsasoko garraioaren gaineko hainbat adierazle aurkeztuko dira. Energiaren ekoizpenari eta kontsumoari buruzko atalean, barne kontsumo gordina edo energiaren eta azken kontsumoaren eskariaren bilakaera aztertuko da, baita energia primarioaren ekoizpenarena, energia intentsitatearena eta energiaren fakturarena ere.

6.1. GARRAIOA

Egoera estrategikoagatik nahiz industria jarduera handiagatik, EAE mota guztietako trafikoen maila handienetakoa ageri duen Europako zona bat da. Errepide sare trinkoa, trenbideak, bi itsas portu handi eta hiru aireportu dira barruko trafikoan nahiz kanpokoan ageri diren beharrak estaltzen saiatzen direnak, egunetik egunera osatuagoak eta kalitate handiagokoak diren zerbitzu batzuk eskainita.

Ondoko taulan, gure Erkidegoko Garraio Sistemaren osaera ageri da, azpiegituraren titulartasuna eta operatzailea kontuan izanik betiere.

I.6.1. KOADROA. GARRAIO SISTEMAREN ERAKETA EAE-N

SISTEMA	AZPIEGITURA	ORGANO TITULARRA	ERAKUNDEA/OPERADOREA
Bideria sistema	Errepideen Sare Nagusia.	Foru aldundiak	Garraioaren Zerbitzu Publikoaren emakidaduna / hura ematen duena.
	Hiri sarea	Udalak	
	A-68 autobidea	Estatua	
Trenbideen sistema	Europa barneko sarea Penintsula sarea	Estatua	ADIF[1] (RENFE)
	Sare metrikoa	EAE	EUSKOTren ETS[2]
		Estatua	ADIF(FEVE**)
	Metroa/Tranbia	EAE	Metro Bilbao, EUSKOTren ETS
	Zubi esekia	Bilboko Portuko Agintaritza	Pribatua
Portu sistema	Interes orokorreko portua	Estatua	Portuko agintaritza
	Erkidegoko portuak	EAE	EAE
Airetiko sistema	Interes orokorreko aireportuak	Estatua	AENA
Kable sistema	Igogailuak eta funikularrak	EAE	Pribatuak Publikoak
Garraio intermodaldeko sistema	Garraio eta logistika zentroak	Partzuergo/Erakundea publikoak, pribatuak, mistoak	Operadore logistikoak

***Bide estuko trenbide sarea.**
Iturria: Guk geuk egina.

1ADIF, Trenbide Azpiegituren Administratzailea, Sustapen Ministerioaren menpeko enpresa-erakunde publikoa da. Trenbide azpiegituren administrazioa (trenbideak, geltokiak, salgaien terminalak, etab.), trenen zirkulazioaren kudeaketa, tren operadoreen ahalmenaren esleipena eta azpiegitura, geltokiak eta salgai terminalak erabiltzeagatiko kanonak hartzen ditu bere gain.

Trenbide jardueren gero eta espezializazio handiagoa dela eta, Sustapen Ministerioari atxikitako bi enpresa-erakunde publikotan banatu da ADIF. Sustapen Ministerioa: ADIFeta ADIF Abiadura Handia, nortasun juridiko eta ondare propioekin sortu dena eta, besteak, beste, abiadura handiko trenbide azpiegituren eraikuntzaren eta administrazioaren arloko eskumenak hartzen ditu bere gain.

2 ETS, Euskal Trenbide Sarea/Red Ferroviaria Vasca EAEren eskumeneko trenbide azpiegituren administrazioaz arduratzen den Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da. Haren xede nagusia Euskal Autonomia Erkidegoaren menpeko trenbide azpiegiturak eraikitzea, artatzea, kudeatzea eta administratzea da, trena garraio sistema modernoa, eraginkorra eta iraunkorra izan dadin.

Estatuko Erakunde Publikoek (AENA, ADIF, PORTUAK eta RENFE) ingeniaritza zibilean EAEn eginiko esleipenei buruzko datuek erakusten dutenez, igoera nabarmenak ageri dira 2014 eta 2015 bitartean, RENFE OPERADOREA izan ezik.

Horrela, Sustapen Ministerioaren datuen arabera, ADIF Estatuko Sozietate Publikoak (trenbide-azpiegituren administratzailea) ingeniaritza zibilean EAEn egindako inbertsioak igo ziren 2014 eta 2015 bitartean, 69 milioi eurotik 292 milioi eurora (EAEko abiadura handiko trenbideari dagozkion gainegituraren obra guztiak ADIF erakundeak gauzatuko ditu); bestetik, AENA erakundearenak 1,4 milioi eurotik 8,3 milioira igo ziren eta, azkenik, PORTUAK erakundearenak 9,8 milioi eurotik 11,1 milioira jaitsi ziren eta RENFE erakundeak egindako inbertsioak 5 milioi eurotik 1,6 milioi eurora jaitsi ziren.

I.6.2. KOADRAO. SUSTAPEN MINISTERIOKO, ERAKUNDE AUTONOMOETAKO ETA ESTATUKO ERAKUNDE PUBLIKOETAKO INGENIARITZA ZIBILEKO ADJUDIKAZIOAK ESTATUAN ETA EAE-N (*mila eurotan*)

	EAE						ESTATUA			EAE/Estatua (%)	
	2011	2012	2013	2014	2015	Aldak. 2013-14	2013	2014	2015	2014	2015
Ministerioa, erakunde autonomoak eta Estatuko erakunde publikoak	111.443	113.257	18.569	81.062	299.084	269,0	834.570	1.788.558	1.511.670	4,5	19,8
Estatuko erakunde publikoak	111.443	113.257	18.569	81.062	299.084	269,0	705.540	1.392.241	1.135.925	5,8	26,3
AENA	5.437	1.190	1.111	1.437	8.339	480,3	47.451	65.456	136.522	2,2	6,1
ADIF	87.988	21.300	1.162	69.030	292.211	323,3	515.093	1.083.288	885.456	6,4	33,0
PORTUAK	22.194	78.444	20.092	9.854	11.093	12,6	212.678	296.022	255.874	3,3	4,3
RENFE ERAKUNDEA	212	54	73	4.986	1.640	-67,1	3.001	32.815	26.390	25,1	6,2

Iturria: Egileak egina, Ustiapen Ministerioaren datuak oinarritzat hartuta.

6.1.1. Errepideko garraioa

Gure Erkidegoko ***errepide sarea*** Europako sarerik trinkoenetakoa da, azalerako dentsitaterik handienetakoa baitu (0,58 km errepide km-ko, Estatuaren bikoitza hain zuzen ere (0,33), baina dentsitate txikiagoa du biztanleko (1,9 Km errepide 1.000 biztanleko, Estatuko 3,6 km errepide 1.000 biztanleko dentsitatearen aldean) eta %14,4 edukiera handiko errepideak dira. Edukiera handiko errepideen %40,4 bidesaria duten autobideak dira, Estatuko %18,1aren aldean.

I.6.3. KOADROA. ERREPIDE SAREA BIDE MOTAREN ETA ALDIAREN ARABERA. (Km)

	2010	2011	2012	2013	2014
ESTATUA					
Errepideen km guztira	165.787	165.885	165.595	165.361	166.284
Edukiera handiko bideak guztira	15.965	16.182	16.335	16.582	16.705
Bidesaridun autobideak	2.991	3.022	3.025	3.026	3.020
Autobiak	11.271	11.509	11.676	11.955	12.029
Galtzada bikoitzeko errepideak	1.703	1.651	1.634	1.602	1.656
EAE					
Errepideen km guztira	4.198	4.190	4.185	4.175	4.169
Edukiera handiko bideak guztira	598	598	602	600	602
Bidesaridun autobideak	254	247	248	248	243
Autobiak	281	282	284	285	231
Galtzada bikoitzeko errepideak	63	69	70	68	127

Iturria: Sustapeneko Estatistika Urtekaria. 2015ean argiaratua

I.6.4. KOADROA. ERREPIDE SAREKO INDIZEEN BILAKAERA

	EAE					ESTATUA	
	2010	2011	2012	2013	2014	2013	2014
Errepideen Km	4.198	4.190	4.185	4.175	4.169	165.361	166.284
Biztanleak	2.178.339	2.184.606	2.193.093	2.191.682	2.188.985	47.129.783	46.771.341
Sare osoa (km) / azalera	0,58	0,58	0,58	0,58	0,58	0,33	0,33
Sare osoa (km) / 1.000 biztanle	1,93	1,92	1,91	1,90	1,90	3,51	3,56
Ibilgailu parkea / guztizko sarea	309,6	312,5	312,78	310,52	311,28	186,97	186,28
Ibilgailu parkea / biztanleak	0,59	0,60	0,60	0,59	0,59	0,66	0,66

Iturria: Sustapeneko Estatistika Urtekaria, 2014. 2015ean argitaratua

Jomuga edo jatorria EAEn duten errepideko salgaien trafikoa (nazioarteko igarotze-trafikoa alde batera utzita), hainbat urtez jarraian beherakadak izan ondoren, hazi egin zen 2014an, baina 2015ean berriz ere egin zuen behera (94,9 milioi Tm-tik 91 milioi Tm-ra). Beherakada hori gertatu da eskualde barruko bidaietan garraiaturiko salgaien jaitsieraren ondorioz (-%18,1 mila tona), zeren eta beste bi joan-etorrietan, eskualde artekoan (+12,9%) eta nazioartekoan (+%3,1) trafikoa handitu egin baita.

I.6.5. KOADROA. GARRAIATURIKO TONAK, BIDAIA MOTAREN ARABERA, JATORRIA EDO JOMUGA EAE-N IZANIK (mila Tm)

		2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	Aldak. 2014-15
GUZTIRA		**119.086**	**110.243**	**101.826**	**88.505**	**84.376**	**94.875**	**91.024**	**-4,1**
ESKUALDE BARNEKOA	**GUZTIRA**	**67.126**	**57.302**	**51.928**	**42.076**	**40.922**	**50.203**	**41.109**	**-18,1**
	UDAL BARNEKOA	18.356	13.934	11.427	8.669	8.395	9.033	8.528	-5,6
	UDAL ARTEKOA	48.769	43.368	40.501	33.406	32.527	41.170	32.581	-20,9
ESKUALDE ARTEKOAA	**GUZTIRA**	**47.708**	**48.033**	**45.103**	**41.606**	**38.799**	**39.321**	**44.396**	**12,9**
	JASOA	23.878	25.391	22.039	22.301	19.818	20.204	23.674	17,2
	EMANA	23.829	22.642	23.064	19.305	18.981	19.117	20.722	8,4
NAZIOARTEKOA	**GUZTIRA**	**4.253**	**4.908**	**4.796**	**4.823**	**4.655**	**5.352**	**5.519**	**3,1**
	JASOA	2.016	2.769	2.494	2.308	2.092	2.729	2.755	1,0
	EMANA	2.237	2.139	2.301	2.514	2.563	2.622	2.764	5,4

Iturria: Sustapen Ministerioa

Eskualde arteko trafikoari dagokionez, truke kopururik handiena alboko Gaztela eta Leon, Nafarroa eta Kantabria erkidegoetan egiten da.

I.6.6. KOADROA. ERREPIDEKO SALGAIAN JOMUGA ETA JATORRIA AUTONOMIA ERKIDEGOKO (mila tona)

	2013		2014	
	Jomuga EAE	Jatorria EAE	Jomuga EAE	Jatorria EAE
Andaluzia	579	533	390	473
Aragoi	1.596	1.586	1.467	1.555
Asturias	798	490	1.012	1.003
U. Balearrak				
U. Kanariarrak				
Kantabria	2.359	1.729	2.570	2.176
Gaztela-Mantxa	543	475	627	523
Gaztela eta Leon	4.153	4.275	4.451	4.074
Katalunia	1.741	1.810	1.653	1.305
Valentziako E.	1.021	907	951	1.005
Extremadura	98	79	96	85
Galizia	1.542	1.392	1.066	1.032
Madril	1.348	1.363	1.402	1.475
Murtzia	177	106	143	250
Nafarroa	2.760	3.249	2.680	3.107
Errioxa	1.092	977	1.687	1.053
Ceuta-Melilla				
EAE	**40.922**	**40.922**	**50.203**	**50.203**

Iturria: Sustapeneko Estatistika Urtekaria, 2014. 2015ean argitaratua

6.1.2. Trenbideko garraioa

Trenbide sareak hasiera-hasieratik kontzepzioaren aldetik izan dituen arazo ugariak (bide-zabalera desberdinak, trenbide garraioaren kontzepzio erradiala estatu mailan, loturarik eza, eta.) larriagotu egiten dira gure Erkidegoan, orografia zailagatik eta kontzepzioagatik. Hain zuzen ere kontzepzio horretan ez zen lehenesten lurraldearen barneko egitura eta ikaragarri zailtzen zuen salgaien zirkulazioa eta Europarekiko konexioa. Arazo horiek direla eta, EAEn trena ez da lehiakorra beste garraiobide batzuen aldean, batez ere hiriburuen arteko loturetan. Aitzitik, trenbidea XXI. mendeko garraio publikoaren sistematzat hartzen da, ustiapen kostu txikiak dituelako eta ingurumenari beste garraiobide batzuek baino kalte txikiagoa ekartzen diolako.

I.6.7. KOADROA. TRENBIDE KM-AK EAE-N

	2012			2013			2014			
	Elek. barik	Elektrifi katua	Bide bakarra	Elektr. barik	Elektrifik atua	Bide bakarra	Elektrif. barik	Elektrifik atua	Bide bakarra	Bide bikoitza
GUZTIRA	**42,3**	**607,1**	**240,0**	**40,3**	**596,5**	**237,1**	**40,33**	**592,93**	**271,47**	**361,78**
ADIF (bide zabala)	0	304,0	86,8	0	302,6	84,9	40,33	334,94	144,95	230,31
FEVE	42,3	46,1	20,7	40,3	32,4	19,7				
EUSKOTren ETS	-	257,0	132,5	-	261,5	132,5	-	257,99	126,52	131,47

Iturria: Sustapeneko Estatistika Urtekaria, 2014. 2015ean argitaratua

Sustapen Ministerioaren arabera, 2014an, bide elektrifikatuko 592,93 kilometrok osatzen zuten EAEko trenbide sarea, eta horietatik %56,5 ADIFi dagozkio, berak kudeatzen baitu penintsularako distantzia ertaineko eta luzeko zerbitzuekin loturiko azpiegitura, baita Bizkaiko eta Gipuzkoako aldiriko zerbitzuak eta FEVEren bide estuko trenenak ere (Bilbo-Santander, Bilbo-Leon lineak eta Bilbo Handiko eskualde barruko loturakoak). Bestalde, %43,5 Eusko Trenena da (Bilbo-Donostia-Hendaia linea barne).

6.1.2.1. Euskal Y-a

Ibilbide luzeko lineei eta nazioarteko loturei dagokienez, Irun eta Frantziako TGVaren arteko lotura eta Euskal Y-aren proiektua aipatu behar dira. Sustapen Ministerioaren arabera, Euskal Y-a proiektuko obrak bukatutakoan, Gasteiz eta Bilbo arteko bidaia 40 minutu ingurukoa izango da; Gasteiz eta Donostia artekoa 50 minutukoa eta Bilbo eta Donostia artekoa, berriz, 50 minutukoa gutxi gorabehera.

2015eko amaieran Sustapeneko iturriek adierazi zutenez[3], Estatuak 5.300 milioi euroko inbertsioa egin du azpiegitura horretan, eta 2019. urteko amaieran egongo da bukatuta.

Europa mailan, azpiegitura berria Europako Trenbideko Atlantikoko Ardatzeko 3. Lehentasunezko Proiektuaren barnean sartzen da, eta jarraipena ematen dio Espainiako lurraldean Madril-Valladolid-Gasteiz lineari, Frantziako mugaraino luzatuta.

Ibilbide berria nazioarteko zabalera duen abiadura handiko bide bikoitzerako sortu da (1.435 mm) eta bidaiarien eta salgaien trenen zirkulazioa ahalbidetuko du (trafiko mistoa).

Adif Abiadura Handiari agindu zitzaion Gasteiz eta Bilbo arteko plataformako 90,2 kilometroko eraikuntza, baita Gipuzkoarekiko lotura ere Bergarako lotunearen bidez. Espainiako Gobernuak, berriz, Gipuzkoako igarobidea eraikitzea adostu du Eusko Jaurlaritzarekin (Bergara-Donostia) KUPOAREN gaineko aurrerakinen bidez; Espainiako Gobernuak itzuliko ditu aurrerakinok. Espainiako Gobernuak berak hartzen du bere gain Abiadura Handiko Linearen finantzaketa osoa.

2007-2013 epealdian, Gasteiz-Bilbo-Donostia-Frantziako mugako lineak Europako kofinantzaketa jaso zuen, guztira 72,1 milioi euro[4].

2014-2020 epealdian, “Konektatu Europa” (CEF) mekanismoaren bidez kofinantziatuko da, guztira 488 milioi euroko zenbatekoan[5].

Sustapen Ministerioaren informazioaren arabera, hauxe genuen 2015eko maiatzaren 12an:

- ADIF egiten ari den adarrean plataformako zazpi tarte bukatu ziren, eta beste zazpi tarteren obrak burututa zeuden. Halaber, Atxondo-Abadiñoko obren lizitazioa eginda zegoen; Bergarako lotunean, Kobate sektoreko plataformako obrak hasita eta adjudikatuta zeuden (martxoan) Arrasate-Bergarako tarteko obrak, 'Angiozar sektorea'n hain zuzen ere. Aldi berean, Bergarako lotuneko hiru tarteren lizitazioa ere (Zumelegi sektorea, Elorrio-Bergara eta Elorrio-Elorrio) martxoan egin zen.

  Bestela esanda, ADIF egiten ari den adarrean kontratatuta daude egiteke zeuden plataformako tarte guztiak.

3*Urrian Bordelen. Ikusi Sustapen Ministerioaren prentsa-oharra, 2015eko urriaren 16koa.*

4 *RTE-T laguntzen bidez azterlanetan eta proiektuetan, guztira 16 milioi euroko laguntzaz, Arrazua/Ubarrundia-Elorrio eta Abadiño-Galdakao tarteetako plataformako obrekin; guztira 48,7 milioi euroko laguntzaz; Elorrio-Bergara eta Bergara-Arrasateko tarteko azken eraikuntza-proiektuetan; linearako trenbideko hornidura elektrikoko ekipoaren diseinuan, guztira 2,3 milioi euroko laguntzaz; eta Astigarraga-Irungo tarteko abiadura handiko linea konbentzionalaren obretan (hirugarren erraila), guztira 5,1 milioi euroko laguntzaz.*

5*Eusko Jaurlaritzaren Elorrio-Atxondo, Atxondo-Abadiño eta Bergarako lotuneko tarteetako, Adif Abiadura Handiko eta Bergara-Astigarragako tarteetako plataformako obretarako; baina honako hauek ere bai: bideko hornidura eta muntaketa, Adif Abiadura Handiko Gasteiz-Bilbo-Donostiako lineako Basauri-Elorrioko tarteko elektrifikazioa eta instalazioak eta Astigarraga-Irungo tartearen egokitzapena eta Gasteiz-Daxeko bi nazioen arteko loturako nazioarteko atala definitzeko azterlan osagarriak eta epe laburrerako sarea garatzeko azterlanak.*

- Aldi berean, onetsitako euskal KUPOAREN zuzkidurarekin, aurrerapen handiak egin dira Gipuzkoako adarrean eta, gaur egun, plataformako obra guztiak bukatuta daude edo burutzen ari dira Astigarragaraino.

- Bidea muntatzeko, katenaria egiteko eta energiaren teleagindurako proiektuak ere idazten ari dira Euskal Y osorako, eta idatzita daude edo bukatzen ari dira azpiestazioen eta autotransformazio zentroen proiektu guztiak.

Hirietako sarbideei dagokienez, abian jarri dira erakundeen arteko komisio guztiak Bilboko, Gasteizko eta Donostiako uztarketak garatzeko. Zehazki:

- Apirilaren 21ean, proiektuaren lizitazioa egin zen, Bilboko sarbidea, Basauri-Cantalojas, lanak aurreratuz joateko eta 2019ko lehen seihilekoan bukatuko direla ziurtatzeko.

- Gasteizen, martxoan, geltokiaren birmoldaketa integraleko lanak aurkeztu ziren.

- Azkenik, Astigarra eta Irun artean trabesak aldatzeko obrak burutzen ari dira eta aurrera egin da hirugarren erraila jartzeko proiektuak idazteko lanetan. Bestalde, Astigarraga-Oiartzun-Lezoko tarteko Informazio Azterlana jendaurrean jartzeko prozesua abiarazita dago.

2015eko urriaren 16an, Ministro Kontseiluak baimena eman zion Sustapen Ministerioari, Adif Abiadura Handiaren bitartez, Abiadura Handiko Ipar-Iparmendebaldeko igarobideko Gasteiz-Bilbo-Donostia-Frantziako Mugako lineako bidearen instalaziorako muntaketa-oinarria eta biltegiratzea eraikitzeko proiektua egiteko. Lanen aurrekontua 15 M€-an zenbatetsi da, hornidurak barne[6].

6.1.3. Airetiko garraioa

2015ean, metodologia aldaketa garrantzitsua izan zen Abiazio Zibilak eskaintzen dituen datuetan (AENAk emanak), zeren eta zenbatetsi baitzen bestelako trafiko moten bidez (BTM) egiten den garraioa. Izan ere, ordura arte garraio erregularraren eta ez erregularraren bidezkoa baizik ez zen zenbatesten.

Horren ondorioz, Sustapen Ministerioak bere Estatistika Urtekarian (azkena 2015ean argitaraturikoari dagokio, 2014ra arteko datuekin), argitaraturiko datuak, aireontziei, bidaiariei eta garraiaturiko salgaiei buruzkoak eta gure MSEren aurreko edizioetan bildu izan direnak[7] eta AENAk emandakoak eta Abiazio Zibilak argitaraturikoak (2014 eta 2015ekoak) ez dira konparagarriak.

Zalantzarik gabe egungo errealitatera gehien hurbiltzen diren eta Abiazio Zibilak eman dituen datuei jarraiki, salgaien garraioaren zatirik handiena BTMren bitartez gertatzen direla-eta, honako hau dugu: EAEko hiru aireportuetan, 2015ean, guztira 4,3 milioi bidaiari izan zituzten (%94 Bilboko aireportuan), hots, %6,5eko hazkundea 2014aren aldean. Salgaien trafikoari dagokionez, %9,6 handitu zen epealdi berean, eta 50.652 Tm-era iritsi zen (%91,5 Gasteizko aireportuan).

Bilboko aireportutik, guztira, ia 4 milioi bidaiari igaro ziren 2015ean, hots, %6,5eko igoera 2014. urtearen aldean. Salgaien trafikoan, berriz, %0,6 egin zuen gora salgaien bolumenak aldi berean.

Forondako aireportuak %10eko gorakada izan zuen 2014 eta 2015 bitartean, salgaien garraioari dagokionez, guztira garraiaturiko 46,4 Tm.

Hala, Gasteizko aireportuak laugarren tokia du aireportuen rankingean garraiaturiko salgaien bolumenaren aldetik, honako hauen atzetik AS Madril-Barajas (381 Tm), Bartzelona-El Prat (117 Tm) eta Zaragoza (85,7 Tm). Bestalde, bidaiarien kopuruak gora egin zuen, 7.073 pertsona izatetik 11.182 pertsona izatera.

6Proiektua Jundizeko zentro logistikoan kokatuko da.
7Urtekariko datuen berri izateko, jo beza irakurleak 2014ko MSEra.

Donostiako aireportuan, 2014 eta 2015 bitartean, bidaiarien trafikoa %3,9 igo zen eta salgaiena, aldiz, %89,7 jaitsi (30,7 Tm-tik 3,2 Tm-ra).

I.6.8. KOADROA. AIRETIKO TRAFIKOAREN BILAKAERA KONTZEPTU, EREMU ETA AIREPORTUKA

	EAE GUZTIRA			Gasteiz			Bilbo			Donostia		
	Aireon-tziak	Bidaiariak (mila)	Salgaiak (Tm.)	Aire-ontzia	Bidaiariak (mila)	Salgaiak (Tm.)	Aireon-tziak	Bidaiariak (mila)	Salgaiak (Tm.)	Aire-ontzia	Bidaiariak (mila)	Salgaiak (Tm.)
2014	54.536	4.268	46.207	5.890	7,1	42.160,7	42.590	4.015,3	2.855,6	6.056	245,4	30,7
2015 p	57.507	4.544	50.652	6.840	11,2	46.371,3	43.862	4.277,4	2.871,7	6.805	255,1	3,2
Aldak. 2014-15	5,4	6,5	9,6	**12,4**	**58,1**	**10,0**	**3,0**	**6,5**	**0,6**	**12,4**	**3,9**	**-89,7**

b: Behin-behinekoa
Iturria: Sustapen Ministerioa. Abiazio zibila

6.1.4. Itsasoko garraioa

Itsas garraioari dagokionez, 2014 eta 2015 bitartean, portuko trafikoa (salgaiak, hornidura eta arrantza) %6 hazi zen Bilboko Portuan, eta guztira 32,9 milioi Tm izan ziren. Horietatik 22,5 milioi ontziratu gabe ziren, eta azken horietatik %81 (18,2 milioi Tm) likidoak ziren. Bestela esanda, garraiaturiko salgaien %55,4 ontziratu gabeko likidoak dira, gehienbat petrolioaren produktuak.

Bestalde, ontzien kopuruak berriz ere egin zuen behera, eta 2015ean 2.816 erregistratu ziren. Bidaiarien kopurua berriz ere igo zen (%2,7), hots, 165.522 lagun.

Pasaiako Portuko kopuruak askoz ere murritzagoak dira. Salgaien portuko trafikoak berriz ere handitu zen azken urtean , %8,3 hain zuzen ere, eta 3,8 milioi Tm-ko kopuruan kokatzen da. Izan ere, solido solteen nahiz salgai orokorren eta hornigaien eta arrantzaren trafikoa handitu zen.

Bestalde, ontzien kopurua txikitu egin da 2014 eta 2015 bitartean, eta 991 daude.

I.6.9. KOADROA. ONTZIAK, BIDAIARIAK ETA ITSASOKO GARRAIOAK MUGITUTAKO SALGAIAK, MOTAREN ARABERA SAILKATUTA										
		2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	%	% aldak. 2014-15
Bilbo	**Portuko trafikoa guztira (mila Tm.)**	**32.180**	**34.666**	**31.998**	**29.507**	**30.073**	**31.009**	**32.876**	**100**	**6,0**
	Likido solteak	20.498	19.763	17.855	15.061	15.761	16.351	18.200	55,4	11,3
	Solido solteak	3.828	4.452	4.006	4.262	4.422	4.588	4.258	13,0	-7,2
	Salgaiak oro har	7.289	9.446	9.863	9.631	9.419	9.883	9.673	29,4	-2,1
	Bestelako trafikoa	576	1.005	274	553	470	187	475	1,4	154,0
	Ontziak guztira (kopurua)	3.042	3.240	2.992	2.808	2.789	2.862	2.816		-1,6
	Bidaiariak guztira (kopurua)	166.104	165.024	151.421	142.754	141.979	161.242	165.522		2,7
Pasaia	**Portuko trafikoa guztira (mila Tm.)**	**3.519**	**3.896**	**3.252**	**3.094**	**2.955**	**3.503**	**3.794**	**100**	**8,3**
	Likido solteak	0	0	0	0	0	0	0	0,0	
	Solido solteak	1.658	1.657	1.247	1.420	1.212	1.509	1.694	44,6	12,3
	Salgaiak oro har	1.810	2.181	1.949	1.622	1.694	1.943	2.044	53,9	5,2
	Bestelako trafikoa	51	58	56	52	50	51	55	1,4	7,8
	Ontziak guztira (kopurua)	943	1.086	963	895	879	921	991		7,6
	Bidaiariak guztira (kopurua)	0	0	0	0	0	0	0		

Iturria: Sustapen Ministerioa.

6.2. ENERGIA: EKOIZPENA ETA KONTSUMOA

Inportatutako energiaren eraldaketa EAEren jarduera ekonomikoaren barruan pisu adierazgarria duen industria da, petrolioa fintzeko eta energia elektrikoa sortzeko sektoreekin batera. Aldi berean, azken urteetan gas eta elektrizitateko azpiegitura berriek izandako sarrerak energiaren euskal eskaintzaren kalitatea indartzeko joera du.

I.6.1.GRAFIKO BARNE KONTSUMO GORDINA ETA ENERGIAREN AMAIERAKO KONTSUMOA



Iturria: EVE

Energia balantzeetan ezberdindu egiten da barne kontsumo osoaren edo energia eskariaren eta amaierako kontsumoa. Energia eskaria edo barne kontsumo osoa, funtsean, lurraldean bertan sortutako lehen mailako energia gehi inportazioen, esportazioen eta galeren (garraioagatik, biltegiratzeagatik, banaketagatik) arteko orekaren berdina da…). Amaierako kontsumoa amaierako kontsumitzaileen sektoreetako kontsumoen batura da, hau da, industriaren, garraioaren, lehen sektorearen, zerbitzuen eta egoitzen kontsumoaren batura.

Energiaren Euskal Erakundeak 2014an argitaratu Euskadi Energia 2013. Datu energetikoak txostenak erakutsi zuenez, energiaren barne-kontsumo gordinak edo eskariak (alegia, ekoitzitako energia gehi energia inportatua ken esportatua), 90etako amaieratik 2008 arte goranzko joera izan du, euskal ekonomiak izandako bizkortzearen ondorioz Ondoren eta 2011ra arte, kontsumo horren motelaldia gertatu zen krisi ekonomikoaren ondorioz; 2011 eta 2012 bitartean handitu egin zen. Zehazki, 2013 eta 2014 bitartean berriz ere behera egin zuen, hain zuzen ere %2,5, 6.207 Ktep-eraino.

Bestalde, goranzko joera izan du energiaren amaierako kontsumoak 2008ko krisira arte. Ondoren kontsumoak gora egin zuen, eta berriz jaitsi da 2010etik. Zehazki, 2013 eta 2014 artean, zehazki %1,3, 4.983 Ktep-eraino.

Amaierako kontsumorik handieneko sektoreak industria (guztizkoaren %41,6) eta garraioa (%37,4) dira. Sektoreen arabera, industriak %1,3ko jaitsiera du, zerbitzuek %2,5ekoa, bizitegienak %5,6koa eta lehen sektoreak %11,2koa. Beste urte batez, garraioaren sektoreak soilik izan du hazkundea, %0,8koa hain zuzen.

Halaber, 2013 eta 2014 artean lehen mailako energiaren ekoizpena %8,4 hazi da, 384 Ktep-etik 415era; eta ekoizpen hori, batez ere, energia berriztagarrietan oinarritu da (norberaren iturri nagusia). Energia horiek, bestalde, %8,3 handitu dira (361 Ktep-etik 390era).

I.6.2. GRAFIKOA. LEHEN MAILAKO ENERGIAREN PRODUKZIOA



Iturria: EVE

Lehen mailako energiako norberaren (415 Ktep) produkzio eskas horrek EAEko energia eskariaren (barne kontsumo gordina) %6,7 asetzea bakarrik ahalbidetzen du (6.207). Ondorioz, EAEren kanpoko energiarekiko mendetasuna %93,3aren ingurukoa da, Estatukoa baino handiagoa (%73,3) eta EB28koaren gainetik (% 53,4), biak 2013koak.

Aldi berean, iturri berriztagarrietan oinarrituriko ekoizpenaren bidez (390 Ktep), amaierako kontsumoaren %7,8 baino ezin bete daiteke, hots, energia berriztagarriek amaierako kontsumoan duten partaidetza ratioa EB-28koa baino askoz txikiagoa da (%12 2012an) eta gure Erkidegoak Euskadi 2020 Energia Estrategian (3E2020) ezarritako %14ko helburutik oso urruti.[8]

Izan ere, energia motaren araberako amaierako kontsumoari dagokionez oso interesgarria bera ingurumenaren ikuspegitik, energia mota bakoitzak inpaktu ezberdina daukalako ikus daiteke petrolioa eta hartatik eratorritakoak direla oraindik ere kontsumo horren zati handiena, %41,3. Edonola ere, Ktep murriztapena eduki dute aurreko urtearen aldean, %2,8 hain zuzen ere. Garrantziaren aldetik atzetik ditu gas naturala (kontsumoaren %26,6, aurreko urtean baino -%6,6 gutxiago) eta argindarra (eskariaren % 25,7 da eta %1 jaitsi da aurreko urtearen aldean). Oso atzetik ditu energia berriztagarriak, erregai solidoak (ikatza eta hartatik eratorritakoak) eta energia eratorriak (funtsean industria prozesuetan berreskuratutako beroa edo energia transformazioa kogenerazioa adibidez biltzen ditu).

8 Gogoratu behar dugu Europako Estrategia 2020an EBrako helburua %20 dela.

i.6.10. KOADROA. EAEren ENERGIA BALANTZEA

	2014							2013-14 aldak.						
	Erregai solidoak	Petrolioa eta deribat.	Gas naturala	Energia deribat.	Energia berrizta garriak	Energia Elektrikoa	Guzt.	Erregai solidoak	Petrolioa eta deribat	Gas natu-rala	Energia deribat.	Energia ber.	Energia Elektrikoa	Guzt.
Lehen mailako energiaren produkzioa	0,0	0,0	0,0	25,0	390,0	0,0	415,0	0,0			8,7	8,3		8,4
Barne kontsumo gordin eskurag. (eskaria)	45,0	2.650,0	2.202,0	25,0	433,0	852,0	6.207,0	-9,1	1,1	-9,1	8,2	-5,8	8,0	-2,5
Transformazio sarrerak	0,0	8.913,0	806,0	10,0	105,0	0,0	9.833,0	-100,0	12,2	-11,4	11,1	2,9		9,5
Transformazio irteerak	0,0	8.727,0	0,0	1,0	0,0	483,0	9.211,0	-100,0	12,9		100,0		-11,2	11,2
Energiaren azken konts.	45,0	2.060,0	1.325,0	16,0	259,0	1279,0	4.983,0	-4,5	2,8	-6,6	8,8	-5,1	-1,0	-1,3
Industria	44,8	144,6	973,9	15,3	150,3	745,1	2.074,1	-4,9	28,8	-7,8	8,5	20,0	-0,1	-1,3
Garraioa	0,0	1.782,5	0,0	0,0	65,0	14,7	1.862,1	0,0	1,0			-4,4	7,3	0,8
Nekazaritza eta arrantza	0,0	62,3	1,3	0,5	1,2	3,2	69,3	0,0	-13,1	-7,1	0,0	100,0	-15,8	-11,2
Zerbitzuak	0,0	14,0	122,3	0,0	3,5	288,4	427,8	0,0	-23,5	-1,4		12,9	-1,6	-2,5
Bizitegia	0,0	56,6	227,4	0,0	39,2	226,7	549,9	0,0	-24,4	-3,6		7,7	-3,6	-5,6

Iturria: EEE

Energiaren intentsitateari dagokionez (ekonomiaren energia-eraginkortasunaren adierazlea eta BPGaren unitateko azken kontsumo gisa neurtzen dena), hauxe ikusten dugu: 2014an 2016an baino %11 txikiagoa izan zela. 2013. urteari dagokionez, %3ko hobekuntza izan zen energiaren azken kontsumoaren murriztapenari eta BPGaren hazkundeari esker.

Energiaren fakturari dagokionez, urteetan igoera handia izan ostean, kontsumoa murriztu eta prezioak gutxi handitu dira. Horren ondorioz, %4,5 egin du behera energiaren kostuak bigarren urtez jarraian 2014an azken kontsumitzailearentzat, eta guztira 5.866 milioiraino.

Kostu horretatik, %47 (2.789 milioi euro) garraioaren sektoreari dagokio, %24,3 (1.426 milioi euro) industriari, %15,1 etxebizitzaren sektoreari, %11,6 zerbitzuei eta %1,41 lehen mailako sektoreari.

Petrolioaren deribatuak garraioaren fakturaren %95 dira. Industrian, argindarra fakturaren %60,2 da eta gas naturala, berriz, %37,3.

Bizitegien sektorearen fakturak hazkunde txikia izan zuen 2013 eta 2014 urteetan sei urtez gorakada handia izan ondoren. 2014an %5,8 jaitsi zen. Familiako fakturaren jaitsiera %6,1ekoa izan zen, eta biztanleko fakturan %5,8koa, hots, 1.012 euro familiako eta 408 euro biztanleko.

I.6.3. GRAFIKOA. ENERGIAREN INTENTSITATEAREN BILAKAERA



Iturria: EVE

I.6.4. GRAFIKOA. ENERGIAREN FAKTUAREN BILBAKERA



Iturria: EVE

I.6.11. KOADROA. ENERGIAREN FAKTURAKO ADIERAZLEAK BIZITEGIAREN SEKTOREAN								
	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Energiaren kostua (M€ arruntak)	574	711	753	786	856	961	941	886
Kontsumoa biztanleko (€ biztanleko)	267	329	347	362	393	441	433	408
Kontsumoa familiako (€ familiako)	718	857	895	938	1.008	1.113	1.078	1.012
Iturria: EEE								

7. ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA

Gizarte berritzailea lagungarria izan daiteke enpresentzat balio erantsi handiagoko produktuak garatzeko, haien lehia-abantailari eusteko, jarduera ekonomikoa bultzatzeko eta, horren bidez, lanpostuak mantendu edota sortzeko. Aldi berean, ikerkuntza eta berrikuntza lagungarriak izan daitezke gizartearen erronka nagusietako zenbaiti irtenbidea aurkitzeko hala nola biztanleria zahartzeari, segurtasun energetikoari, klima-aldaketari, hondamendien arriskua kudeatzeari, edo gizarteratzeari.

Hainbat faktoreren araberakoa da ikerkuntza, ezagutza eta berrikuntzarako ahalmena (hala nola hezkuntza eta prestakuntzako erakundeak, enpresa-kultura, gaitasunak, trebetasunak eta sormena, berrikuntza bultzatzeko zerbitzuak, teknologiaren transferentziarako mekanismoak, azpiegiturak, ikerlarien mugikortasuna eta finantzabideak). Hezkuntza, prestakuntza eta etengabeko ikaskuntza funtsezkoak dira berrikuntzarako gaitasuna garatzeko, enpresa-sarean eta transferentzian eta ikerkuntzaren emaitzak merkaturatzeko prozesuan gero eta parte hartze handiagoa duten ikerkuntza eta garapen teknologikoko zentroekin eta unibertsitateekin.

Kapitulu hau bi bloke handitan dago banatuta; alde batetik, I+G+b jarduerak aztertzen dira eta bestetik Informazioaren eta Komunikazioen Teknologiak. I+G+b jardueren blokearen barruan, I+G+b jardueren euskal sistemaren adierazle nagusiak aztertzen dira, enpresa-sarearen eta zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren Euskal Sareko zentroen eta Euskal Herriko Unibertsitatearen jarduerak, berrikuntzako jarduerak eta Europako Berrikuntzaren adierazleen paneleko zenbait adierazle, IUS 2015.

Bestalde, Informazioaren eta Komunikazioen Teknologien blokearen barruan, EAEko IKT ekipamenduak eta erabilerak aztertzen dira, biztanleenak nahiz enpresenak, merkataritza elektronikoa (biztanleen eta enpresenak) eta administrazio elektronikoa.

7.1. I+G+B JARDUERAK

7.1.1. I+G+b-ko Euskal Sistemaren adierazle nagusiak

I+G gastua. 2014. urtean, EUSTATen arabera, 1.298,8 M€ inbertitu ziren EAEn (-%2,1 2013aren aldean). Lurraldeka, Arabak guztizkoaren %13,2 egiten du, Bizkaiak %47,2 eta Gipuzkoak %39,6.

Intentsitatea eta esfortzua I+G arloan. Intentsitatearen terminoetan, 594,8 euroko gastua da per capita, 2013ko 605,2 euroko diru-kopurua baino gutxiago.

Bestalde, BPGren gaineko I+G gastua (ahalegina), EUSTATen arabera, %1,93 izan zen 2014an, hots, beste jaitsiera bat aurreko urtearen aldean. Ehuneko hori eurogunekoa baino (%2,11) txikiagoa da, eta baita gai horretan eredu diren herrialdeetakoa baino txikiagoa ere: Finlandia (% 3,17), Suedia (% 3,16), Danimarka (% 3,08), Austria (% 2,99), Alemania (% 2,84) eta Frantzia (% 2,26). Dena den, Suediako eta Finlandiako ratioek ere behera egin dute, EUROSTATen datuen arabera.

I.7.1. KOADROA. I+G ARLOKO ESFORTZUAREN BIALAKERA ETA EUROPAKO HELBURUAK HERRIALDEKA. ERREFERENTZIAKO HERRIALDEAK, EUROGUNEA ETA EAE

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2020 HELBURUA
EAE	2,00	2,01	2,01	2,06	2,0	1,93	
Espainia	1,35	1,35	1,32	1,27	1,24	1,23	2
Eurogunea	1,99	1,99	2,04	2,01	2,11	2,11	UE = 3
Frantzia	2,21	2,18	2,19	2,23	2,24	2,26	3
Danimarka	3,07	2,94	2,97	3,03	3,08	3,08	3
Alemania	2,72	2,71	2,79	2,87	2,83	2,84	3
Austria	2,61	2,74	2,68	2,89	2,96	2,99	3,8
Suedia	3,45	3,22	3,25	3,28	3,3	3,16	4
Finlandia	3,75	3,73	3,64	3,42	3,3	3,17	4

Iturria: EUSTAT ETA EUROSTAT

EINen arabera, EAEn I+G arloan egindako ahalegina BPGren %2,03 izan zen 2014. urtean (%2,09 2013an). Estatuko batezbestekoa % 1,23 da (2013an % 1,24), eta, EAEz gain, autonomia-erkidego hauek dituzte ratio handienak: Nafarroa (% 1,76), Madril (% 1,68) eta Katalunia (% 1,47).

Ikerkuntzaren eta berrikuntzaren oinarrizko helburua da EBn gastu publikoaren eta pribatuaren %3 BPGi izatea lortzea, hain zuzen ere Europar Batasun osoarekiko. Hartara, herrialde desberdinetarako helburu konkretuetan jartzen da arreta: PBGren % 0,5 eta % 4 bitartean kasuan kasuko estatukidearen arabera. Espainian, % 2 lortzea da helburua 2020an.

Horrenbestez, I+G arloan 2014an eginiko esfortzuaren atzerakadak urrundu egiten du gure Erkidegoa Europako helburua lortzetik.

I.7.2. KOADROA. ZIENTZIARI ETA TEKNOLOGIARI BURZUKO ADIERAZLEAK EAE-N

	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
I+G-ko gastuak											
Guztira (mila eurotan)	**768.884**	**823.459**	**907.721**	**1.090.265**	**1.263.877**	**1.280.917**	**1.360.271**	**1.366.234**	**1.372.901**	**1.316.787**	**1.289.753**
Urteko hazkundea (%)	9,8	7,1	10,2	20,1	15,9	1,3	6,2	0,4	0,5	-4,1	-2,1
Per capita (euroak)	365,4	389,3	426,0	507,6	584,3	590,5	625,7	626,3	629,7	605,2	594,8
B.P.G.ren gainean (%)	1,45	1,45	1,48	1,65	1,87	2,00	2,01	2,01	2,06	2,00	1,93
Pertsonala (A.O.B.)											
Guztira	11.925,1	12.505,5	13.065,3	14.434,9	15.373,2	16.690,4	17.531,9	17.879,2	18.681,9	18.279,5	18.535,4
Urteko hazkundea	5,0	4,9	4,5	10,5	6,5	8,6	5,0	2,0	4,5	-2,2	1,4
Lanpostu baliokideen gainean (‰)	13,1	13,4	13,7	14,7	15,6	17,7	18,8	19,3	20,9	21,1	21,3
Ikerlariak (A.O.B.)											
Guztira	**7.414,2**	**7.819,7**	**8.145,0**	**9.220,4**	**9.640,1**	**10.386,2**	**11.070,8**	**11.283,1**	**11.771,7**	**11.959,3**	**12.030,3**
Urteko hazkundea	3,8	5,5	4,2	13,2	4,6	7,7	6,6	1,9	4,3	1,6	0,6
Lanpostu baliokideen gainean (‰)	8,1	8,4	8,5	9,4	9,8	11,0	11,9	12,2	13,2	13,8	13,8

Iturria: EUSTAT. Ikerketa zientifikoari buruzko jardueren eta garapen teknologikoaren estatistika

I+G arloko gastua egikaritze-sektorearen arabera[1]. Gastu gehien enpresetan egin zuten, % 75,1 (968,56 milioi euro), hain zuzen ere; % 18,4 (238,8 milioi euro) goi-mailako hezkuntzan, eta gainerakoa, % 6,5 (83,5 milioi euro) administrazioaren mende dauden erakundeetan. Beraz, aurreko urteko zifren aldean, hiru sektoreetan gastuaren murrizketak gertatu dira, % 2,4, % 1,5 eta % 0,7koak hurrenez hurren.

Aurreko urteko egoerarekin alderatuta, EAEko enpresa-sektorea da beste behin gastu gehien egin duena, nahiz eta sektorearen partaidetza-portzentajeak hiru hamarren behera egin duen. Goi-mailako irakaskuntzan eta herri-administrazioan, aldiz, ehunekoek bi hamarren eta hamarren bat egin dute gora, hurrenez hurren. Enpresen sektoreak parte-hartze txikiagoa du beste bi sektoreen mesederako, eta galtzeko joera hori 2006tik gertatzen ari da, baina bere partaidetza handiari eusten dio oraindik, hain zuzen ere I+G arloko guztizko gastuaren hiru laurdenak baino gehiago hartuta.

Gastuaren egitura hori estatuko batezbestekoaren oso desberdina da: estatuan, enpresek I+G gastuaren % 53,7 egin zuten, goi-mailako irakaskuntzako erakundeek % 28,3 eta herri-administrazioak % 18,9. EB28ko banaketa ere desberdina da, baina, EUSTATen arabera, aldeak ez dira hain handiak.

1 Komeni da kontuan hartzea administrazioaren I+G arloko gastuaren zati handi bat Zentro Teknologikoen Sarearen bitartez bideratzen dela; izan ere, zentro horiek, haien izaera juridikoa dela eta, enpresa-sektorearen parte dira eragiketa estatistiko horretan.

I+G arloko gastuaren finantzaketa (funtsen jatorriaren araberako gastua).

Sektore pribatuak gastuan duen partaidetza pixka bat jaitsi egin zen 2013 eta 2014 bitartean, hain zuzen ere % 57,1etik % 56,7ra. Herri-administrazioak gastuaren %32,6 finantzatu du. Estatuan, EINen arabera, sektore pribatuak gastuaren % 46,4 finantzatzen du (Europako helburuaren 19,6 puntu azpitik dago) eta herri-administrazioak % 41,4. Eurogunean, EUROSTATen datuei jarraiki, 2013an kopuruak % 56,7 eta % 33,3koak izan ziren, hurrenez hurren. Herrialde hauetan I+G arloko gastuaren finantzaketa pribatuaren ratioa oso handia da: Japonia (% 75,5), Txina (% 74,6), Alemania (% 65,4), Suedia (% 61),Finlandia (% 60,8), Danimarka (% 57,9), AEB (% 59, 2012ko datua).

I.7.3. KOADROA. SEKTORE PRIBATUAK ETA SEKTORE PUBLIKOAK FINANTZATUTAKO I+G GASTUA (gastuaren guztizkoarekiko portzentajea)

	Sektore pribatuak finantzatua				Administrazio publikoak ordaindua			
	2011	2012	2013	2014	2011	2012	2013	2014
EAE (EUSTAT)	53,3	54,3	57,1	56,7		36,0	34,9	32,6
ESTATUA (EIN)	43,3	45,6	46,3	46,4	44,5	43,1	41,6	41,4
EUROG. (EUROSTAT)	56,8	56,9	56,7	n.d.	33,8	33,4	33,3.	n.d.

Iturria: EUSTAT, EIN, EUROSTAT

Euskal Autonomia Erkidegoa, beraz, Europako helburuaren 9,3 puntu azpitik dago: I+G gastuaren % 66 funts pribatuekin finantzatzea.

Kontuan hartzen badugu EAEko BPG 2014an 66.930,5 milioi eurokoa izan zela (EUSTATen arabera[2]), sektore pribatuak finantzatutako I+G arloko gastua (731,5 milioi euro) BPGren % 1,1 da. Europako 2020. urterako helburua % 2 da. Aldiz, herri-administrazioak finantzatzen duen I+G gastua (419,9 milioi euro) EAEko BPGren % 0,6 da. Europako helburua % 1 da.

I+G arloko gastua diziplina zientifikoaren arabera. Ingeniaritza eta teknologia nagusitu dira berriz (gastu osoaren % 70,3); horien atzetik datoz, alde handiarekin, medikuntza-zientziak (% 10,9), zientzia zehatzak eta natura-zientziak (% 10,1). eta, azkenik, gizarte- eta nekazaritza-zientziak (%6,3 eta %2,5, hurrenez hurren).

Funtsen jatorriari dagokionez, ingeniaritza eta teknologia batik bat sektore pribatuak finantzatzen ditu. Zehazki, % 72 sektore pribatuak finantzatzen du eta % 18,4 sektore publikoak. Medikuntza-zientzietan, zientzia zehatz eta natura-zientzietan, gizarte-zientzietan eta nekazaritza-zientzietan kontrakoa gertatzen da, herri-administrazioak gastuaren %7 4,1, % 60,4, % 63,7 eta % 60,5 finantzatzen baitu.

2 2014ko azaroaren 26ko datua.

I.7.4. KOADROA. I+G ARLOKO BARNE-GASTUAK, DIZIPLINA ZIENTIFIKOAREN, EGIKARITUTAKO SEKTOREAREN ETA FUNTSEN JATORRIAREN ARABERA (MILA EUROTAN)

	2014						2013-14ko aldaketaren %					
	Guzt.	Funtsen jatorria					Guzt.	Funtsen jatorria				
		Admin.	Goi-m. irak.	Enpr.	IAGEB	Atzer.		Admin.	Goi-m. irak.	Enpr.	IAGEB	Atzer.
Diziplina zientifikoa												
Guzt.	**1.289.753**	**419.909**	**36.836**	**731.486**	**2.486**	**99.035**	**-2,1**	**-8,7**	**64,7**	**-2,7**	**-27,4**	**24,7**
Zientzia zehatzak eta naturalak	140.425	104.110	5.770	18.237	578	11.730	-1,7	-5,9	2,9	1,5	-3,0	45,0
Ingeniaritza eta teknologia	906.250	166.736	17.280	652.467	481	69.286	-2,2	-11,3	49,7	-2,9	-29,7	25,6
Zientzia medikoa (farmazia barne)	130.285	78.266	1.838	40.955	695	8.531	2,0	0,0	17,1	4,6	-51,0	16,6
Nekazaritza zientz.(abeltzaintza, basogintza eta arrantza)	31.761	19.200	182	8.508	14	3.857	-14,1	-17,1	-18,0	-8,6	55,6	-10,0
Gizarte eta giza zientziak	81.032	51.596	11.766	11.319	719	5.633	-1,5	-14,1	243,4	-16,1	0,0	23,1
Burutzapen sektorea												
Enpresak	992.631	190.449	1209	733.045	1755	66173	-2,4	-10,3	-10,3	-2,5	-50,7	22,9
Administrazio Publikoa	84.735	74.832	427	5.218	682	3.577	-1,5	-1,8	-70,7	-30,1	15,7	52,0
Goi mailako irak.	239.422	194.777	20729	13.265	989	9.661	-0,7	-9,8	71,9	1,0	-15,8	27,3

Iturria: EUSTAT. "I+G jarduerei buruzko estatistika"

I+G arloko langileak (AOB). EUSTATen datuen arabera, 18.535,4 enplegatu ari dira lanaldi osoan (AOB), hots, % 1,4ko igoera 2013. urtearen aldean.

Egikaritze-sektoreen arabera, 13.481 langile enpresetan daude (langile guztien % 72,7), 3.934 goi-mailako irakaskuntzan (% 22,2) eta 1.120,5 herri-administrazioan (% 6).

Lanbideari dagokionez (ikertzaileak, teknikariak eta laguntzaileak), % 64,9 ikertzaileak dira, % 26,2 teknikariak eta % 8,9 laguntzaileak. Dena den, sektore guztietan ez da berdin gertatzen: goi-mailako irakaskuntzan, esate baterako, ikertzaileen ratioa % 86,7 da.

Langileak sexuaren arabera sailkatuz gero, ikusten da langile guztien %35,2 baino ez dela emakumezkoa. Alde horretatik, herri-administrazioan eta goi-mailako irakaskuntzan langile gehienak emakumeak dira (%56,6 eta %49,9, hurrenez hurren), eta enpresetan, berriz, emakumeen ratioa oso txikia da (%29,1).

I.7.5. KOADROA. I+G-KO PERTSONALA (AOB) EGIKARITZE-SEKTOREKA OKUPAZIOAREN ARABERA

	GUZT.		EMAKUMEAK		Ikerlariak		Teknikariak		Laguntzaileak	
					2014					
	2013	2014	2013	2014	k	% (guzt. horizont.	k	% (guzt. Horizont.)	k	% (guzt. horizont.)
Guzt.	18.279,5	18.535,4	6.374,7	6.517,8	12.030,3	64,9	4.851,5	26,2	1.653,5	8,9
Enpresak	13.183,5	13.481,0	3.816,2	3.919,9	8.063,0	59,8	4.089,6	30,3	1.328,3	9,9
Administrazio publ.	1.185,4	1.120,5	640,2	634,0	557,4	49,7	472,8	42,2	90,3	8,1
Goi mailako irakask.	3.910,6	3.933,9	1.918,3	1.963,9	3.409,9	86,7	289,1	7,3	234,9	6,0

Iturria: EUSTAT, "I+G-ko jarduerei buruzko estatistika"

Aktibo intelektualak.

EUSTATen "*I+G jarduerei buruzko estatistikan*" patente eta eredu baliagarriei buruzko informaziorik ez dagoenez gero, "*Berrikuntza Adierazleen Panela IUS 2015*" delakoaren informazioa abiapuntu hartuta aurkeztuko dugu adierazle honen azterketa.

Panelaren dimentsio horrek berrikuntza-prozeduretako errendimendu gisa sortutako jabetza intelektualeko eskubide modu desberdinak biltzen ditu.

Beste lurralde eremuekin erkatuta, hauxe ondoriozta daiteke: 1,48 adierazlea duela EAEk BPGko bilioi bakoitzeko EEP patenteen eskarietan (EAP eurotan) [3], 4,51 adierazlea BPGko bilioi bakoitzeko EBko merkataritza-marketan (EAP eurotan) eta 0,7koa PGBko bilioi bakoitzeko (EAP eurotan) EBko diseinuetan. Beraz, estatuko batez bestekoen (1,57/7,16/0,79) eta 28ko EBkoen (3,78/5,83/1,13) azpitik dago eta urruti erreferentziako herrialdeetatik.

I.7.6. KODROA. AKTIBO INTELEKTUALEN ADIERAZLEAK, IUS 2015

	Patente eskaria BPGko bilioi bakoitzeko (EAP)	EBko marka komertzialak, BPGko bilioi bakoitzeko	EBren diseinuak BPG bilioiko (EAP)
EAE	**1,48**	**4,51**	**0,72**
Espainia	1,57	7,16	0,79
28KO EB	3,78	5,83	1,13
Austria	4,96	10,07	1,65
Holanda	6,00	6,74	1,48
Alemania	6,89	7,49	1,32
Finlandia	9,37	6,57	1,82
Danimarka	6,93	7,47	2,20
Suedia	9,16	7,30	1,99

Iturria: EUSTAT eta IUS, 2015

Datu horiek agerian uzten dutenez, EAEk zailtasunak ditu I+G jardueretan egiten duen gastua emaitzetan islatzeko, eta horrek erakusten du eraginkortasun edo produktibitate txikiagoa duela.

7.1.2. I+G jarduerak

a) Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen sektoreko I+G jarduerak, ZTESeko zentro teknologikoak alde batera utzita

Eustaten datuen arabera, 2014. urtean 1.612 enpresak (2013an baino 75 gehiago) egin zituzten I+G jarduerak (Zientzia eta Teknologiako Euskal Sareko zentro teknologikoak alde batera utzita); horietatik 763 industria-sektorekoak dira eta 783, zerbitzuen sektorekoak, 48 eraikuntzakoak eta 18 lehen sektorekoak.

Jarduera horietako enpresen guztizko gastuak %1,6 egin du behera 2013 eta 2014 bitartean, eta aldeak daude sektoreen artean. Gastua %20,1 handitu da lehen sektorean eta %0,1 zerbitzuetan. Eraikuntzan, berriz, %11,8 egin du behera, eta %3,7 industrian.

I.7.7. KOADROA. I+G ARLOKO ENPRESA- ETA LANGILE-KOPURUAREN BILAKAERA (ZTESeko ZTak gabe)

	GUZT.		Nekazaritza, abeltz., arrantza, erauzketa-ind. eta energia		Industria		Eraikuntza		Zerbitzuak	
	Enpresa kop, guzt.	Gastua (mila eurotan)	Enpresa kop. guzt.	Gastua (mila eurotan)	Enpresa kop., guzt.	Gastua (mila eurotan)	Enpresa kop., guzt.	Gastua (mila eurotan)	Enpresa kop, guzt.	Gastua (mila eurotan)
2010	1.515	824.115	11	13.192	750	457.927	41	8.702	713	344.293
2011	1.488	808.245	14	20.463	691	417.078	46	10.184	737	360.520
2012	1.565	822.805	17	19.629	716	449.135	50	9.816	782	344.225
2013	1.537	793.295	15	16.702	712	421.639	48	9.831	762	345.122
2014	1.612	780.219	18	20.060	763	406.190	48	8.674	783	345.295
Dif. 13-14	75	-13.076	3	3.358	51	-15.449	0	-1.157	21	173
13-14 ald. %	4,9	-1,6	20,0	20,1	7,2	-3,7	0,0	-11,8	2,8	0,1

Iturria.- EUSTAT, I+G jarduerei buruzko estatistika

3 Patenteen Lankidetza Ituna.

Jarduera horietan arduraldi osoan lan egiten duten langileei dagokienez, industria- eta zerbitzu-sektoreetan daude gehien: % 47,1 industrian (5.097 DOBen) eta % 47,8 (5.163,9 DOBen) zerbitzuetan. Industriako lanpostu guztietatik, % 3 I+G jardueretan ari da.

I.7.8. KOADROA. I+G-KO PERTSONALAREN BILAKAERA (ZTESeko ZTak gabe)

	2013	2014
Guzt.	**10.468,8**	**10.815,50**
Nekazaritza eta arrantza, erauzketakoak eta energia	268,6	420,7
Industria	5.194,1	5.097,8
Eraikuntza	152,9	133,1
Zerbitzuak	4.853,2	5.163,9

Iturria.- EUSTAT, I+G jarduerei buruzko estatistika

Jarduera nagusitzat I+G duten enpresak alde batera utzita[4], sektore hauetan dago I+G jardueretan aritzen den langile gehien: doitasun-materialak (EAEn I+G jardueretan lan egiten duten guztien % 12,4), makina-erremintak (% 11,6), material elektronikoa (% 9), informatika-jarduerak (% 6,7), material elektrikoa (% 5,4) kimika eta petrolio-fintzea (% 5,1) eta etxetresnak (% 4,5).

Horren harira, antzeman dugu euskal enpresek I+G gastuak beren funtsekin finantzatzen jarraitzen dutela, neurri handi batean.

Azkenik, nabarmentzekoa da I+G egiten duten euskal enpresen batez besteko tamaina handia; izan ere, 78 lanpostu ditu, euskal enpresen batez besteko tamaina baino askoz gehiago (5 lanpostuko batez bestekoa da), eta egoera hori gertatzen da ia jarduera-sektore guztietan.

I.7.9. KOADROA. ENPRESA SEKTOREKO ADIERAZLEAK (ZTESeko ZTak gabe) JARDUERA-ADARREN ARABERA. I+G 2014

		Enpresa kop	Lanpostuak b.b.	Langileak (AOB)	Barne gastua	Beren funtsen %	Inoren funtsen %	EAEko lanpostuak, guzt.	EAEn I+G arloko langileen %
Guzt.		**1.612**	**78**	**10.815,5**	**780.219**	**77,2**	**22,8**	**848.366**	**1,3**
Nekazaritza-abeltz,. Erauzketak eta energia		**18**	**93**	**420,7**	**20.060**	**96,7**	**3,3**	**17.162**	**2,5**
Industria		**763**	**103**	**5.097,8**	**406.190**	**89,3**	**10,7**	**167.436**	**3,0**
M-A	Kimika eta petrolio-finketa	49	46	254,2	16.634	89,8	10,2	5.025	5,1
M-B	Kautxua eta plastikoa	54	104	215,8	17.934	79,8	20,2	12.265	1,8
M-B	Metaleranez aparteko ind.	16	113	45,0	4.936	88,1	11,9	4.317	1,0
M-B	Metalurgia	43	244	247,5	20.173	81,2	18,8	16.850	1,5
M-B	Metalezko gaiak	203	72	738,3	48.575	87,2	12,8	39.878	1,9
M-A	Makina-erreminta	35	87	408,1	29.773	83,8	16,2	3.533	11,6
M-A	Etxetresnak	3	299	61,0	5.169	62,8	37,2	1.367	4,5
M-A	Beste makina batzuk	122	99	999,0	70.511	87,1	12,9	21.948	4,6
M-A	Material elektrikoa	50	91	415,5	32.263	90,2	9,8	7.627	5,4
A	Material elektronikoa	21	156	335,2	21.493	86,8	13,2	3.716	9,0
A	Doitasun-materiala	36	48	359,8	23.504	81,0	19,0	2.913	12,4
M-A	Garraio-materiala	38	355	793,5	100.679	94,4	5,6	16.455	4,8
	Beste manufaktura batzuk	93	53	224,9	14.546	84,8	15,2	31.542	0,7
Eraikuntza		**48**	**58**	**133,1**	**8.674**	**78,2**	**21,8**	**52.211**	**0,3**
Zerbitzuak		**783**	**54**	**5.163,9**	**345.295**	**63,6**	**36,4**	**611.557**	**0,8**
A	Informatika-jarduerak	151	38	912,4	42.404	71,6	28,4	13.707	6,7
A	I+G jarduerak	157	16	2.021,7	156.668	50,3	49,7	7.104	28,5
	Beste enpresa-jarduerak batzuk	249	29	1.559,5	102.676	74,6	25,4	58.072	2,7
	Beste zerbitzu batzuk	226	119	670,3	43.547	77,6	22,4	532.674	0,1

Iturria.- EUSTAT, Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jarduerei buruzko estatistika. I+G

[4] *Barne hartzen ditu jarduera nagusia I+g jarduerak egitean duten enpresak (hots, ingeniaritzak eta aholkularitza teknologikoak) eta, beraz, gainerakoena ez bezalako profila, helburuak eta finantzazioa dituzte.*

b) Ikerketa unibertsitateetan. Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea5

Analisia egiten hasi aurretik, komeni da kontuan hartzea ikerketa-taldeen deialdia hiru urtean behin egiten duela Eusko Jaurlaritzak eta, beraz, jarduera horien zenbatekoak hiru urtetik hiru urtera gora egiten duela asko. Ondorioz, urtetik urterako analisia egiteko ikerketa-taldeei dagokien zenbatekoa kentzea komeni da.

Eusko Jaurlaritzaren ikerketa-taldeen jardueretarako partida 25 milioi eurokoa izan zen 2013an, 2010ean baino % 5 handiagoa (2010eko partida 23,7 milioi eurokoa izan zen eta 2007koa 28,5 milioi eurokoa).

Arestian aipatutako partidan oinarri hartuz, ikus daiteke UPV-EHUk ikerkuntzaren arloan aurrera eramandako jarduera gehitu dela 2013tik 2014ra bitartean, 46,9 milioi eurotik 47,4ra igaroz (+% 1,1). Zatirik handiena, % 41,5 (19,9 M€) ikerkuntza-proiektuei dagokie; horren ondotik, prestakuntzan ari den pertsonalerako funtsak azaltzen dira (% 17,8, 8,5 M€) eta Unibertsitatearen Antolamenduari buruzko Legearen 83. artikuluaren itzalpean izenpetutako kontratuak, azken horiek funts guztien % 7,9 baitira. Urrunago, pertsonal ikertzaile/teknikoa kontratatzeko funtsak ageri dira; izan ere, azken horiek orotara % 7,9 dira.

I.7.10. KOADROA. ESLEITUTAKO / KONTRATATUTAKO I+G+B JARDUERA-MOTEN BILAKAERA (eurotan)

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	Ald. 2010-13	Ald. 2013-14
Ikerketa-proiektuak	30.871.317	26.745.792	26.539.707	29.380.420	22.128.122	19.890.219	-17,3	-10,1
I+G kontratuak, UALeko 83. artikuluaren arabera	12.349.125	11.492.239	10.013.434	9.417.928	6.873.277	8.540.024	-40,2	24,2
Ikerketa-taldeak*	1.202.900	23.741.678	3.782.468	391.414	24.921.615	428.702	5,0	-98,3
Ikertzaileen eta teknikarien kontratazioa	1.771.170	3.935.608	1.500.947	3.851.768	3.810.399	3.763.459	-3,2	-1,2
Prestatzen ari diren langileak	4.601.721	3.687.198	2.386.392	11.781.818	12.104.551	12.914.319	228,3	6,7
Azpiegitura zientifikoa	1.412.019	1.646.001	3.329.225	599.585	468.581	568.010	-71,5	21,2
Ikertzaileen mugikortasuna	576.779	487.055	631.348	527.045	319.380	547.847	-34,4	71,5
Ekintza bereziak	253.649	96.818	159.765	194.608	32.490	43.228	-66,4	33,1
Ikerketa Zerbitzu Orokorrek (SGIKER) emandako zerbitzuak	1.186.629	1.086.098	1.212.746	1.269.502	1.183.832	1.177.644	9,0	-0,5
GUZTIRA, ikerketa-taldeak gabe	53.022.409	49.176.809	45.773.565	57.022.674	46.920.632	47.444.750	-4,6	1,1
GUZTIRA, ikerketa-taldeekin	54.225.309	72.918.487	49.556.033	57.414.088	71.842.247	47.873.452	-1,5	

** *2010eko eta 2013ko datuak ikerketa-taldeentzako Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza osoei buruzkoak dira, baita zenbateko horiek hainbat urtetan erabiltzen badira ere; hori, gainerako jardueren finantzaketa adierazteko erabilitako irizpideekin bat eginez. 2012an Eusko Jaurlaritzak ikerketa-taldeen beste deialdi bat finantzatu zuen, baina 2013ra arte ez zen UPV/EHUko aurrekontuan sartu; beraz, deialdi horrek 2013an du eragin estatistikoa.*
Iturria: UPV/EHU zenbakietan. Ikerketa

Funtsen jatorriari dagokionez, finantzazioaren iturri nagusi gisa kokatu dira funts autonomikoak (guztizkoaren % 24,8, 11,8 M€) eta ondoren beren finantzazioa (guztizkoaren % 23,7, 11,3 M€).

5 Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) egiten dituzten I+G+b jarduerei eta jarduera horien neurriari dagokienez, bereizi behar dira, batetik, funts espezifikoak (kanpo-finantziaziodun proiektuak, kontratuak eta hitzarmenak, ikerketa-bekak eta ikerketa-azpiegiturako inbertsioak); eta bestetik, funts orokorrak, zeinak irakasleek ikerketa-jardueretan ematen duten denboraren eta horrek eragiten duen kostu orokorraren zenbatespenean oinarrituta dauden. Gastu horiek dira, zehazki, irakasleen gastuak, ondasun eta zerbitzuen gastuak, inbertsioak eta beste gastu batzuk. Epigrafe honetan aztertzen diren datuak lehenbiziko multzoko funtsei dagozkie, hau da, funts espezifikoei.

I.7.11. KOADROA. I+G+B JARDUERETARAKO FUNTSEN JATORRIA, EUSKO JAURLARITZAREN IKERKETA-TALDEEN DEIALDIEN ARABERA

	2007-09 aldia		2010-12 aldia		2013		2014	
	Guzt. (euro)	% bertikala	Guzt. (euro)	% bertikala	Guzt. (euro)	% bertikala	Guzt. (euro)	% bertikala
Autonomikoa	70.819.767	37,3	56.394.861	31,3	35.781.091	49,8	11.769.550	24,6
Estatukoa	39.809.710	21,0	42.340.683	23,5	10.027.986	14,0	9.406.481	19,6
Zuzeneko kontratazioa	37.782.016	19,9	32.865.201	18,3	7.736.243	10,8	9.059.973	18,9
Berezko finantzaketa (programa-kontratua)	29.054.935	15,3	26.001.225	14,5	11.964.199	16,7	11.335.224	23,7
Nazioartekoa	12.644.074	6,7	22.286.639	12,4	6.332.728	8,8	6.302.222	13,2
GUZT.	**190.010.503**	**100,0**	**179.888.608**	**100,0**	**71.842.247**	**100,0**	**47.873.451**	**100,0**

Iturria: UPV/EHU zenbakitan. Ikerketa

Arlo zientifikoen arabera, I+G+b jardueretako gastua batez ere zientziei eta ingeniaritzari eta arkitekturari dagokie. Zehazki, 2014an gastuen % 40,1 (19,2 milioi euro) zientziei zegokien, %24,3 (11,6 milioi euro) jarduera teknikoei (ingeniaritzari eta arkitekturari) eta % 14,5 (7 milioi euro) gizarte- eta zuzenbide-zientziei. Nabarmentzekoa da osasunaren zientziek guztizkoaren gainean duten pisu txikia (%8,7).

I.7.12.KOADROA. I+G+B JARDUEREN BILAKAERA ZIENTZIA-EREMUEN ARABERA

	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Zientziak	21.521.867	42.292.722	24.445.991	27.318.492	30.838.204	19.219.258
Ingeniaritza eta Arkitektura	15.117.305	12.396.143	9.078.666	9.356.914	16.258.017	11.645.721
Osasunaren zientziak	4.671.922	5.833.479	4.559.155	7.147.028	8.612.482	4.171.620
Gizarte- eta zuzenbide-zientziak	8.044.579	5.104.294	6.060.703	8.688.210	10.691.236	6.959.962
Arteak eta humanitateak	4.869.636	7.291.849	5.411.518	4.903.444	5.442.307	5.876.891
GUZT.	**54.225.309**	**72.918.487**	**49.556.033**	**57.414.088**	**71.842.247**	**47.873.451**

Iturria: UPV/EHU zenbakitan. Ikerketa

Patenteen arloan, emaitzak oraindik ere urriak dira, eta gainera, 2013 eta 2014 bitartean, jaitsiera nabarmena gertatu da. Hala, 2014an 28 patente erregistratu ziren 2014an. 2013an, berriz, 59 izan ziren. Bestalde, goranzko joerari eusten dio argitalpenen kopuruak, eta berriz ere egin du gora 2014an, guztira 2.854.Gehienak (2.518) zientzien, osasun-zientzien, ingeniaritzaren eta arkitekturaren alorretakoak dira.

Azkenik, aurkeztutako doktore-tesiek gorako joera dute 2014an: guztira 475 aurkeztu dituzte.

I.7.13.KOADROA. BESTE EMAITZA BATZUK: ARGITALPENAK ETA ERREGISTRATUTAKO PATENTEAK

	Ekoizpen zientifikoa*			Patenteak							Irakur. Doktorego -tesiak
	Zientzia, osasun-zientziak, ingeniaritza eta arkitektura	Gizarte-zientziak, zuzenbide-zient., arteak eta humanitateak	Guzt	Espainiar.	Europear.	EAP** (berriak eta luzapenak)	Amerikar.	Japoniar.	Best.	Guzt.l	
2009	1.551	212	1.742	17	13	6	5	0	11	52	280
2010	1.660	266	1.895	19	8	16	5	0	16	64	321
2011	1.697	295	1.966	25	8	13	4	1	40	91	328
2012	1.993	298	2.253	21	11	11	13	2	21	79	327
2013	2.204	325	2.294	8	6	15	4	0	26	59	383
2014	2.518	376	2.854	7	8	9	4	0	0	28	475

Iturria: UPV/EHU zenbakitan, Ikerketa eta ikerketaren emaitzak

a) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko Zentro Teknologikoen I+G jarduerak (ZTES[6])

Epigrafe honetan, soilik ZTESko zentro teknologikoak aztertuko dira; publikoak edo pribatuak izan daitezke, eta Enpresa, Goi-mailako Irakaskuntza edo Administrazio egikaritze-sektorearen baitan sar daitezke.

2014an, ZTESko zentro teknologikoek 189,6 M€-ko gastua egin zuten I+G jardueretan, eta berriz ere murriztu da bolumen hori (%2,6 2013koaren aldean), baina egonkor eusten dio bere pisu erlatiboari EAEko I+G arloko guztizko gastuarekiko (% 14,7 inguru).

I.7.14. KOADROA. ZENTRO TEKNOLOGIKOEK I+G ARLOKO BARNE-GASTUAN DUTEN PISU ERLATIBOAREN BILAKAERA (mila eurotan)

	Gastua guzt.	Zentroen gast	% horizontala
2010	1.360.271	218.762	16,1
2011	1.366.234	231.160	16,9
2012	1.372.901	222.924	16,2
2013	1.316.788	194.709	14,8
2014	1.289.753	189.642	14,7
Ald.: 2013-14	-2,1	-2,6	

Iturria: EUSTAT. I+G jarduerei buruzko estatistika.

Funtsen jatorriaren arabera, % 41,1 enpresen sektoreak finantzatzen du, eta bigarren finantziazio-iturri nagusia administrazioa da (% 31,7).

Arduraldi osoko langileen kopuruak % 2,3 egin du behera 2013tik 201era: 2.684,9 langile daude eta gehienak (% 69,7) ikertzaileak dira.

I.7.15.KOADROA. ZTESeko ZENTRO TEKNOLOGIKOEN ADIERAZLEAK

	Gastua funtsen jatorriaren arabera (mila eurotan)				Langileak (AOB)			
	Guzt.	Administ.	Enpres.	Best(1)	**Guzt.**	Ikerlariak	Teknikariak	Laguntz.
2010	**218.762**	89.432	103.184	26.146	**2.672,8**	2.049,5	406,7	216,6
2011	**231.160**	77.740	119.605	33.815	**2.831,7**	2.157,2	409,6	264,9
2012	**222.924**	73.559	111.205	38.160	**2.877,1**	1.990,6	513,5	373,0
2013	**194.709**	67.697	80.635	46.377	**2.747,1**	1.918,6	452,0	376,5
2014	**189.642**	60.201	77.893	51.517	**2.684,9**	1.871,2	438,6	375,1

(1) IAGEP, goi-mailako irakaskuntza eta atzerria.
Iturria: EUSTAT. I+G jarduerei buruzko estatistika

7.1.3. Berrikuntza jarduerak

a) Enpresa berritzaileak

EUSTATen EAEko "Berrikuntzari buruzko galdeketa"ko datuen arabera (EUSTAT), 2011-2013 eta 2012-2014 aldien artean enpresa berritzaileen ehunekoak behera egin zuen.[7]

Hala, 2012-2014 aldian berritzaileak izan ziren enpresen % 16,5 (2 hamarren gutxiago 2011-13 aldian baino). Portzentaje hori lortzeko, kontuan hartu behar dira bai berrikuntza teknologikodun (produktua edo/eta prozesua) enpresak (enpresen % 12,2, %12,7 aurreko aldian) eta bai berrikuntza EZ teknologikoa (antolakuntza edo/eta komertzializazioa) egiten duten enpresak (enpresen % 9,5, %9,3 aurreko aldian).

Hamar lanpostu eta gehiago enpresak bakarrik aintzat hartuz gero (EINekoekin alderatu ditzakegu, horiek ez baitute hamar lanpostu baino gutxiagoko enpresei buruzko informaziorik), enpresa berritzaileen (teknologikoen eta

---

[6] *Hiru azpisistematan sailkatzen eta egituratzen dira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko agenteak:*

- *Azpisistema Zientifikoa eta Unibertsitarioa, hauexek biltzen dituena: Unibertsitateak, Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroak (IKZ) eta Oinarrizko eta Bikaintasuneko Ikerkuntzako Zentroak (OBIZ).*
- *Garapen Teknologikoko eta Berrikuntzako Azpisistema, hauexek biltzen dituena: Korportazioa Teknologikoak, Zentro Sektorialak, Garapen eta Transferentzia Teknologikoko Nazioarteko Zentroak, Egiaztatzea eta Laborategien Erakundea, Laborategiak, Ikerkuntzako Erakunde Publikoak, Enpresako I+G Unitateak eta Osasuneko I+G Unitateak.*
- *Berrikuntza Bultzatzeko Azpisistema, hauexek biltzen dituena: Parke Teknologikoak eta Enpresa eta Berrikuntza Zentroak eta Berrikuntzako Bitarteko Erakundeak.*

7 Edozein tamainatako eta edozein jarduera-sektoretako establezimenduentzat, lehen sektoretakoentzat izan ezik, elkarteen jardueretarako, etxeko jardueretarako eta lurraldez kanpoko erakundeen eta antolakuntzako jardueretarako. Hots, Jarduera Ekonomikoen Nazio Sailkapenaren arabera (CNAE-2009 2. berr.), salbu eta jarduera nagusia 01-03, 84, 94, 97, 98 eta 99 dibisioetan dituzten establezimenduetarako.

teknologikoak ez direnen) portzentajea handiagoa da, % 34,5, hain zuzen ere (aurreko aldian % 34,7). Estatuan, EINen berrikuntzari buruzko galdeketaren arabera, aldi horretako ratioa % 8,6 da (aurreko aldian %26).

%34,5 horretatik, % 27,5 berrikuntza teknologikoari dagokio eta % 20,5 berrikuntza EZ teknologikoari.

Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoan hamar lanpostu eta gehiagoko establezimenduen % 38,6 berritzailea da, Araban % 34,3 eta Bizkaian % 31,7.

Sektoreka, industria-enpresen % 41,5, zerbitzu-establezimenduen % 33 eta eraikuntza-enpresen % 25,3 dira berritzaileak. Jarduera-azpisektoreei dagokienez, industrian hauek dira nagusi: Produktu informatikoak eta elektronikoak; material eta ekipamendu elektrikoa (% 70,3), energia elektrikoa, gasa eta lurruna (% 66,7), garraio-materiala (% 62), eta makineria eta ekipamendua (% 55,7). Zerbitzuetan: osasun jarduerak (% 84,1), finantza eta aseguru jarduerak (% 62) eta bidaia-agentziak eta turismo-operadoreak (% 56,8).

I.7.16. KOADROA. JARDUERA BERRITZAILEAK GAUZATZEN DITUZTEN ENPRESEN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA (EAEko ENPRESA GUZTIEN ALDEAN)

		2008-10	2009-11	2010-12	2011-13	2012-14
Enpresak, guztira	Enpresa berritzaileak (berrikuntza teknologikoa eta teknologiaz apartekoa) (1)	19,8	17,8	17,3	16,7	16,5
	Berrikuntza teknologikoko enpresak (1)	13,8	12,3	11,6	12,7	12,2
	Teknologiaz apart. berrikuntza-jarduerak dituztenak	11,8	10,7	10,0	9,1	9,5
	EBE, berrikuntza teknologikoko edo teknologiaz aparteko jarduerak dituztenak	20,3	18,3	17,7	17,1	17,0
9i lanpostu baino gehiagoko enpresak (EINeko eta EUROSTATeko datuekin alderatzeko)	Enpresa berritzaileak (berrikuntza teknologikoa eta ez teknologikoa) (1)	38,9	37,8	36,2	34,7	34,5
	Berrikuntza teknologikoko enpresak (1)	30,1	30,7	28,6	28,4	27,5
	Berrikuntza ez teknologikoa duten enpresak	26,2	23,7	23,1	20,0	20,5
	EBE, berrikuntza teknologiko edo teknologiaz aparteko jarduerak dituztenak	41,4	39,8	38,3	37,6	37,1

(1) Ez dira sartzen berrikuntza-jarduerak erabat gauzatu gabe dituzten eta arrakastarik gabeko berrikuntzak egin dituzten enpresak, produktuak (ondasun edo zerbitzuak) enpresa, lantokiko antolamendu edo kanpo-harremanen barne-jardunbideetan txertatua egon behar baitu.
PEB: arrakastarik izan ez duten enpresa berritzaileak edo arrakastarik izan ez duten berrikuntza-jarduerak martxan dituzten enpresak.
Iturria: EUSTAT. Berrikuntza Teknologikoari buruzko Estatistika.

I.7.17. KOADROA. 10 LANGILE ETA GEHIAGOKO ESTABLEZIMENDUEN PORTZENTAJEA, BERRIKUNTZA-MOTAREN ETA JARDUERA-ADARRAREN ARABERA

	2012-14					
	Teknologiaz aparteko berrikuntza-mota		Teknologiaz aparteko establezimendu berritzaileak	Establezimendu berritzaile teknologikoak (1)	Establez. berritzaileak (1) (teknol.edo teknologiaz apartekoak)	EBE establ. berritzaileak (2) (teknol. edo teknologiaz apartekoak)
	antolamendua	merkaturatzea				
Guzt.	**16,7**	**9,7**	**20,5**	**27,5**	**34,5**	**37,1**
Araba	16,3	7,6	20,2	27,6	34,3	36,9
Bizkaia	16,3	9,3	19,2	25,4	31,7	34,5
Gipuzkoa	17,4	11,2	22,6	30,5	38,6	41,0
Industria	15,6	11,6	20,0	35,8	40,5	45,8
Erauzketa-ind., kokegintza eta petrolio-fink.	7,1	10,0	17,1	7,1	17,1	27,1
Elikagaien eta edarien industria eta tabak.	10,6	12,8	17,8	17,3	22,6	26,3
Ehuna, jantzigintza, larrua eta oinetak.	.	7,9	7,9	49,5	49,5	49,5
Egurra, papera eta arte grafikoak	13,2	5,5	14,9	17,9	27,3	31,8
Industria kimikoa eta farmazia-produktuak	9,0	16,8	16,8	41,9	41,9	51,2
Kautxua eta plastikoak	19,6	17,7	20,1	41,2	41,7	50,1
Metalurgia eta metalezko produktuak	12,4	8,8	16,5	33,7	37,2	42,2
Prod. Informatikoak eta elektronikoak. Material eta ekipamendu elektrikoa	34,8	15,5	35,5	62,9	70,3	72,2
Makineria eta ekipamendua	17,1	12,6	21,8	50,4	55,7	62,7
Garraio-materiala	21,3	4,9	26,1	57,0	62,0	63,5
Altzariak eta beste manufakt. batzuk	19,0	16,5	28,3	24,6	35,5	40,8
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	47,4	49,1	53,2	56,8	66,7	83,3
Ur hornidura eta saneamendua	4,8	5,7	10,4	21,8	21,8	26,5
Eraikuntza	13,8	7,6	18,8	19,1	25,3	28,9
Zerbitzuak	17,3	9,1	20,9	25,1	33,0	34,6
Ibilgailuen merkaturatzea eta konponketa	11,3	7,2	14,3	17,3	24,6	25,2
Garraioa eta biltegiratzea	6,0	3,3	8,6	29,5	33,8	38,0
Ostalaritza	8,9	11,0	15,4	9,8	16,7	16,9
Telekomunikazioa, informatika eta hedabideak	32,9	19,6	39,0	43,0	53,9	58,9
Finantza eta aseguru jarduerak	51,0	42,5	56,9	51,0	62,0	62,0
Higiezinen jarduerak	37,5	.	37,5	14,6	37,5	37,5
I+G, aholkularitza, eta beste lanbide profesional eta tekniko batzuk	24,7	14,4	29,7	37,6	48,7	53,9
Zerbitzu osagarriak	7,5	4,3	8,7	9,5	14,0	14,0
Bidaia agentzia eta turismo operadoreak	34,1	34,1	56,8	22,7	56,8	56,8
Hezkuntza	14,5	4,5	17,5	30,3	37,4	38,7
Osasun jarduerak	72,6	12,3	74,1	76,0	84,1	85,4
Gizarte-, aisia- eta kultura-jarduerak eta beste jarduera batzuk	12,5	6,4	15,6	11,4	21,7	22,5

(1) Ez dira sartzen berrikuntza-jarduerak erabat gauzatu gabe dituzten eta arrakastarik gabeko berrikuntzak egin dituzten establez.
(2) Berrikuntza-jarduerak erabat gauzatu gabe dituzten eta arrakastarik gabeko berrikuntzak egin dituzten establez. bakarrik sartzen dira.
Iturria: EUSTAT. Berrikuntza teknologikoari buruzko estatistika

b) Berrikuntza teknologikoko jardueretarako gastuak

EUSTATen "*Berrikuntza teknologikoari buruzko inkesta*"ko datuen arabera, berrikuntza teknologikorako jardueren guztizko gastua berriz ere jaitsi zen 2014an aurreko urtearen aldean (-% 3,5), eta 2.474 M€ ditu, hots, BPGren % 3,7. Hamar lanpostu eta gehiagoko enpresetan berriz, % 5,9 txikiagoa da aurreko urtearen aldean: 2.067,7 milioi euro, BPGren % 3,1.

Beste behin, gastuaren gehiengoa baliatu dute, batetik, I+G barne-jarduerak gauzatzeko (enpresa guztiak aintzat hartuz gero, BPGren % 1,9; eta hamar lanpostu eta gehiagoko enpresak aintzat hartuz gero, BPGren % 1,8); eta bestetik, makinak erosteko (enpresa guztiak aintzat hartuz gero, BPGren % 0,9; eta hamar lanpostu eta gehiagoko enpresak aintzat hartuz gero, BPGren % 0,6).

Jarduera-sektoreen arabera eta hamar lanpostu eta gehiago dituzten enpresei dagokienez, industrian gastua honela banatu dute: garraio-materialean % 15, metalurgian eta metalezko produktuetan % 8,9, produktu informatiko eta elektronikoetan, material eta ekipamendu elektrikoan % 6,4 eta makina eta ekipamenduetan % 5,4.

I.7.18.KOADROA. BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOKO JARDUERETARAKO GASTUAK, JARDUERA-SEKTOREEN ARABERA. 10 LANPOSTU ETA GEHIAGOKO ENPRESAK. 2014

	Milaka €	% bertik.
Guzt.	**2.067.689**	
Industria	**873.925**	**42,3**
Industria	4.348	0,2
Erauzketa-ind., kokegintza eta petrolio-fink.	19.273	0,9
Elikagaien eta edarien industria eta tabak.	5.085	0,2
Ehuna, jantzigintza, larrua eta oinetak.	6.904	0,3
Egurra, papera eta arte grafikoak	22.773	1,1
Industria kimikoa eta farmazia-produktuak	36.313	1,8
Kautxua eta plastikoak	184.472	8,9
Metalurgia eta metalezko produktuak	133.155	6,4
Prod. Informatikoak eta elektronikoak. Material eta ekipamendu elektrikoa	110.772	5,4
Makineria eta ekipamendua	309.297	15,0
Garraio-materiala	21.537	1,0
Altzariak eta beste manufakt. batzuk	16.763	0,8
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	3.234	0,2
Ur hornidura eta saneamendua	**62.135**	**3,0**
Eraikuntza	**1.131.629**	**54,7**
Zerbitzuak	56.778	2,7
Ibilgailuen merkaturatzea eta konponketa	8.865	0,4
Garraioa eta biltegiratzea	2.914	0,1
Ostalaritza	109.536	5,3
Telekomunikazioa, informatika eta hedabideak	16.372	0,8
Finantza eta aseguru jarduerak	100	0,0
Higiezinen jarduerak	566.855	27,4
I+G, aholkularitza, eta beste lanbide profesional eta tekniko batzuk	1.893	0,1
Zerbitzu osagarriak	.	
Bidaia agentzia eta turismo operadoreak	283.193	13,7
Hezkuntza	79.662	3,9
Gizarte-, aisia- eta kultura-jarduerak eta beste jarduera batzuk	5.460	0,3

Iturria: EUSTAT. Berrikuntza teknologikoari buruzko estatistika

Zerbitzuen sektorean arlo hauetako gastua da azpimarratzekoa: I+G, aholkularitza eta beste jarduera profesional eta tekniko batzuk (gastuaren % 27,4). Eta hezkuntzan, %13,7, eta atzetik oso urruti telekomunikazioak, informatika eta hedabideak: % 5,3.

I.7.19.KOADROA. BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOKO JARDUERETARAKO GASTUAK, BPGren EHUNEKOAREN ARABERA

	ENPRESAK, GUZT						>= 10 LANGILE					
	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Guztira (M€)	**2.753,4**	**2.581,9**	**2.675,7**	**2.583,7**	**2563,5**	**2.474**	**2.219,9**	**2.159,5**	**2.214**	**2.179,5**	**2.197,7**	**2.067,7**
BPGren gaineko %	4,1	3,9	4	4	3,9	3,7	3,3	3,3	3,3	3,4	3,3	3,1
I+G barne-jard.	1,9	2,1	2,1	2,1	2	1,9	1,7	1,9	1,9	2	1,9	1,8
I+G kanpo-jard.	0,5	0,5	0,5	0,6	0,6	0,6	0,4	0,4	0,4	0,5	0,5	0,5
Makineria	1,2	0,8	0,8	0,8	0,8	0,9	0,7	0,6	0,6	0,6	0,6	0,6
Beste jakintza batzuk	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0
Trebakuntza	0,1	0,1	0,1	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Merkaturatzea	0,2	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0	0	0,1	0
Diseinua eta prestaketa	0,1	0,3	0,4	0,3	0,2	0,2	0,1	0,2	0,2	0,2	0,2	0,1

Iturria: EUSTAT, Berrikuntza Teknologikoari buruzko Inkesta.

7.1.4. Europako berrikuntza adierazleen panela, IUS 2014

Europako Berrikuntza Adierazleen Panel berria (IUS 2010) herrialdeen ekonomiek berrikuntza-jarduerak egiteko zenbaterainoko gaitasuna duten eta zenbateraino garatzen dituzten neurtzen saiatzen da.

EB28ko herrialdeak lau mailatan daude sailkatuta, lortu duten puntuazioa aintzat hartuta. Lehenengoan, berrikuntzan aitzindari diren herrialdeen taldean, batezbestekoa baino %120 handiagoa lortzen duten herrialdeak daude. Honako hauek daude: Suedia (0,74), Danimarka (0,74), Finlandia (0,68) eta Alemania (0,68). Europar Batasuneko kide ez direnak ere kontuan hartuz gero, talde horretan sartzen da Suitza ere, 0,81ekin; beraz, berrikuntzaren abangoardian dago.

Bigarren taldea, "berrikuntza altuko herrialdeak" Europako batez bestekoaren % 90 eta % 120 bitarteko puntuazioa lortzen duten herrialdeek osatzen dute: Holanda, Luxenburgo, Erresuma Batua, Irlanda, Belgika, Frantzia, Austria eta Eslovenia, 0,65 eta 0,53 bitarteko puntuazioekin..

Hirugarren taldean, "berrikuntza maila ertaineko herrialdeak" izenekoan (batez bestekoaren % 50 eta % 90 bitartean, Estonia, Txekiari Errepublika, Zipre, Italia, Portugal, Malta eta Espainia daude, besteak beste, 0,49 eta 0,28 bitarteko balorazioekin.

Eta "berrikuntza txikiko herrialdeak" deritzon laugarren taldean (Europako batez bestekoaren % 50etik behera), Bulgaria eta Errumania daude, 0,27 eta 0,20 puntu artean lortuta.

EUSTATen datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko adierazlearen balioa 0,50 da, hau da, EB28ko batezbestekoa baino (0,56) sei ehunen txikiagoa. Balio hori, gainera, berrikuntza handiko herrialdeen multzoko beheko muturretik hiru ehunenetara dago.

I.7.1. GRAFIKOA. EUROPAKO BERRIKUNTZA PANELA, IUS 2015. EAE ETA 28-KO EB



Iturria.- EUSTAT-a eta PRO INNO Euroepe: INNO-Metrics. Comsión Europea

Europako Berrikuntzako Adierazle-panela hiru bloke nagusitan (Bideratzaileak, Enpresa-jarduerak eta Outputak) eta zortzi dimentsiotan dago egituratuta, guztira 25 adierazle.

Hiru dimentsio daude bideratzaileetan: giza baliabideak, ikerkuntza-sistema eta finantzazioa eta laguntza.

Enpresa-jardueretan, hiru dimentsio daude: enpresa-inbertsioa, enpresa-loturak eta –ekimena eta aktibo intelektualak.

Outputetan bi dimentsio daude: Berritzaileak eta ondorio ekonomikoak.

Europako batez bestekoaren aldean, bi dimentsio hauetan nabarmentzen da EAE: Giza baliabideak eta enpresa-ekimena. Beste hiru dimentsiotan -Berrikuntza-sistema, Enpresa-inbertsioa eta Ondorio ekonomikoa- antzeko zenbakiak lortu dira EAEn, baina pixka bat txikiagoak. Gainontzeko hiru dimentsioetan, Finantzazioa eta laguntza, Aktibo intelektualak eta berritzaileak, puntuazioa Europako batez bestekoa baino txikiagoa da argi eta garbi.

I.7.20.KOADROA. EUROPAKO BERRIKUNTZA-ADIERAZLEEN PANELA, IUS 2014-2015. MULTZOAK ETA DIMENTSIOAK. EUROPAKO BERRIKUNTZA ADIERAZLEEN PANELA, IUS 2014-2015.

	IUS 2014			IUS 2015		
	27KO EB	EAE	ESTATUA	28KO EB	EAE	ESTATUA
IUS	**0,56**	**0,50**	**0,41**	**0,56**	**0,50**	**0,39**
BIDERATZAILEAK	**0,56**	**0,52**	**0,45**	**0,57**	**0,52**	**0,46**
Giza baliabideak	0,58	0,66	0,41	0,60	0,67	0,44
Ikerkuntza sistema	0,54	0,50	0,52	0,54	0,52	0,53
Finantzaketa eta laguntza	0,56	0,33	0,40	0,56	0,31	0,39
ENPRESA JARDUERAK	**0,53**	**0,45**	**0,36**	**0,54**	**0,48**	**0,34**
Enpresa inbertsioa	0,42	0,45	0,23	0,45	0,42	0,20
Loturak eta enpresa ekimena	0,55	0,52	0,33	0,47	0,61	0,24
Aktibo intelektualak	0,56	0,40	0,44	0,62	0,43	0,49
OUTPUTAK	**0,59**	**0,53**	**0,45**	**0,57**	**0,51**	**0,35**
Berritzaileak	0,55	0,42	0,35	0,51	0,37	0,24
Ondorio ekonomikoak	0,60	0,58	0,50	0,60	0,56	0,43

Iturria: EUSTAT –Berrikuntzaren adierazleen panela (IUS) eta Europar Batasuna

7.1.5. KITPren balantzea

Planaren inplementazio-maila zehazteko, ondoren agertuko den aginte-taula dakar Planak. Lehendakaritzaren informazioaren arabera:

- Helburuak honako hauetan lortu dira: Produktu berrien salmentek fakturazioan duten ehunekoa, atzerriko I+G+b arloko finantzazioaren ehunekoa, euskal finantzazioak programa-esparruko funtsen guztizkoan eta nazioarteko urteko finantzazio pribatuan duen ehunekoa;

- Bilakaera positiboa da hauexetan: I+G+b jardueren nahasketa (funtsezko ikerkuntzaren %/ industri ikerkuntzaren %/ garapen esperimentalaren %), indexaturiko argitalpen zientifikoak, EPO patenteen eskariak, I+G jarduerak egiten dituzten enpresen ehunekoa guztizkoaren gainean, doktoreen ehunekoa ikerlari guztien gainean.

- Bilakaera urrun dago honako hauetan ezarritako helburuetatik: Lehenbiziko kuartilean indexaturiko argitalpenen ehunekoa eta 10 langile baino gehiago dituzten enpresa berritzaileak guztizkoarekiko.

Gastuari dagokionez, azkenean 2014an egin ziren gastuak baino handiagoak izan ziren 2014rako eginiko zenbatespenak, salbu eta kanpoko funtsekin (Europa eta Nazioartea) finantzaturiko gastuan. Hortaz, bidea dago egiteko helburuak lortu ahal izateko.

I.7.22. KOADROA. KITP-REN BALANTZEA

Helburu operatiboak	Adierazlea	Iturria	Hasierako egoera	Egungo egoera	2020 helburua
1. I+G+b arloko inbertsioak espezializazio-eremuetan metatzea	RIS3 lehentasun estrategikoekin lerrokaturiko ikerkuntzaren ehunekoa	Eusko Jaurlaritza/ SPRI	%76 2013	N/D	%82
2. Funtsezko ikerkuntza eta garapen esperimentala indartzea	I+G+b jardueren nahasketa funtsezko inb. %/industri inb. %/garapen esp. %)	Eustat	14/47/39 2012	15/41/44 2014	15/30/55
3. Emaitzetara bideratzea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistema	Indexaturiko argitalpen zientifikoak	Ikerbasque	4.637 2013	5.220 2014	7.500
	Lehenbiziko kuartilean indexaturiko argitalpenen ehunekoa	Ikerbasque	%54,70 2013	%54,00 2014	%55
	EPO patenteen eskariak(*)	Patenteen Europako Bulegoa	195 2014	199 2015	287
	Produktu berrien salmentaren % fakturazioan	Eustat	%12,48 2010	%16,23 2013	%15
4. I+G+b arloko nazioarteko funtsak erakartzeko modua indartzea	Atzerriko I+G+b arloko finantzazioaren %	Eustat	%5,0 2012	%7,7 2014	%8
Euskal partaidetza bultzatzea H2020 delakoan	Euskal finantzazioaren % programa-esparruko funts guztien gainean	Innobasque	%0,89 (461 M€)	%1,17 (89,86 M€)	%1,00 (805 M€)
I+G+b arloko nazioarteko inbertsio pribatuak erakartzea	Nazioarteko urteko finantzazio pribatua	Eustat	6 M€ 2012	20 M€ 2014	18 M€
5. Enpresa berritzaileen kopurua igotzea	10 langile baino gehiagoko enpresa berritzaileak guztizkoaren gainean	Eustat	%45,50 2012	%44,40 2014	%50
	I+G egiten duten enpresak guztizkoaren gainean (**)	Eustat	%0,95 2012	%1,02 2014	N/A
6. Ikerlarien gaitasuna hobetzea	Doktoreen ehunekoa ikerlari guztien gainean	Eustat	%29,0 2012	%31,0 2014	%35
	Doktoreen ehunekoa enpresetako ikerlari guztien gainean	Eustat	%8,6 2013	N/D 2014	%10
	Enpresetako ikerlariak (***)	Eustat	5.779 2013	5.932 2014	N/A
Adierazlea		**Iturria**	**2014 zenbatetsia**	**2014 benetakoa**	**2020 helburua**
I+G arloko guztizko gastua		Eustat	1.326 M€	1.290 M€	1.909 M€
I+G arloko gastua finantzabideen arabera	HHAA eta Goi-mailako irakaskuntza	Eustat	461 M€	457 M€	590 M€
	Enpresen finantzazio pribatua	Eustat	779 M€	734 M€	1.167 M€
	Kanpo finantziazioa (Europa eta nazioartea)	Eustat	86 M€	99 M€	152 M€

(*) Hasieran, EPO eta PCT patenteen eskariei zegokien adierazlea. PCT patenteei buruz eskuragarri dugun informazioa 2012ra arteko dela kontuan izanik (ELGA), soilik EPO patenteak sartzea aukeratu da. Sartutako helburua aurrekoarekiko proportzionala da
(**) Adierazle osagarria, Batzorde Zientifiko Aholku-emailearen gomendioari jarraituz. Enpresa berritzaileen datua eskuratu deneko inkesta lagin-inkesta dela kontuan hartuta, I+G egiten duten enpresen datu hori osatzea aukeratu da, datu objektiboago eta irmoagoa delako
(***) Adierazle osagarria. Egoki irizten zaio ez soilik doktoreen kopurua jakiteari, baizik enpresetan dauden ikerlarien kopurua ere bai oro ohar
Iturria: Eusko Jaurlaritza. Lehendakaritza

7.2. INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

7.2.1. IKT ekipamenduak eta erabilerak familietan eta biztanlerian

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiako ekipamenduak hedatu doaz euskal etxeetan, baina ez modu berean eta intentsitate berarekin. Halaber, horien arteko aldaketak ikusten dira ordezko-ondasunak finkatzearen ondorioz. Hala gertatzen da bideoarekin, DVDa hedatu izanaren ondorioz pisua galdu baitzuen; DVDak, era berean, gero eta gutxiago sartzen dira etxeetan Interneten eta ordaindu beharreko telebistaren gehikuntzagatik.

EUSTATen *"Familientzako Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestak"(FIGI)* [8] erakusten duenez, 2015eko lehen hiruhilekoan EAEko familien %70,6k du ordenagailua, hots, 15 urte eta gehiagoko biztanleen %78,4k.

Interneteko atzipenari dagokionez, familien %70,2k du zerbitzu hori beren etxebizitzetan (2014ko epealdi berean baino % 3,8 gehiago). Aldi berean, sareko konexioa duten 15 urteko eta gehiagoko biztanleen kopurua % 3,5 hazi zen 2014ko lehen hiruhilekoaren eta 2015eko lehen hiruhilekoaren artean, eta %78an kokatu da.

Bestalde, telefono mugikorra du familien % 93,4k. 15 urteko eta gehiagoko biztanleei dagokienez, %95,9raino igotzen da telefono mugikorra dutenen ehunekoa.

Interneteko konexioa eta erabilera direnaz bezainbatean, 15 urteko eta gehiagoko gizonen % 76 da Interneten erabiltzailea. Emakumeak, berriz, % 67,7. Genero-aldea deritzona, 2014an %7,6koa zena, 2015eko lehen hiruhilekoan %8,3ra igo da.

Adinari erreparatuz gero, 15 eta 24 urte bitarteko ia euskal gazte guztiek erabiltzen dute Internet (% 99,1). Nabarmentzekoa da 55 eta 64 urte bitarteko adineko erabiltzaileen igoera, %9,2koa da, eta ondoren 65 urtetik gorakoena, %4,5ekoa hain zuzen ere.

Jarduerari dagokionez, ikasleen % 98,7 Interneteko erabiltzailea da. Langileen artean, berriz, % 91,8 da erabiltzaile, eta jardunean ari ez diren eta langabezian dauden pertsonen artean, berriz, %42,5. 2014ko lehen hiruhilekoaren aldean izandako hazkunderik handiena azken taldean kokatzen da, % 3,6koa hain zuzen ere.

Familia-etxea da oraindik ere Interneten sartzeko tokirik gogokoena, zeren eta erabiltzaileen % 96,3 etxetik konektatzen baita. Ikastetxetik Interneten sartzen direnen artean, jaitsiera txikia dago, 0,1 puntukoa 2014ko lehen hiruhilekoaren aldean. Lanetik sartzen direnen kopuruak, berriz, % 5,8 egin du gora.

EUSTATen *"Informazioaren Gizartearen Egoera Euskadin 2015"* txostenaren arabera, Interneteko konexioa ez dutenen profila egin behar izango bagenu ezaugarri soziodemografikoen arabera, bakartuta bizi diren pertsonak direla esango genuke, 55 urtekoak eta gehiagokoak, ikasketa maila txikikoak eta lanik edo jardunik gabekoak. Ildo horretan, nolabaiteko talde kaltetuak daudela esan genezake informazioaren eta komunikazioaren teknologiei dagokienez. Interneteko konexioa duten pertsonen profila hau litzateke: ikaslea da, 35 urtetik beherakoa, eta maila ertaineko eta goi-mailako ikasketak ditu.

[8] *Familia-etxebizitzetan bizi diren sei urte eta gehiagoko pertsonen multzoa.*

I.7.22. KOADRAO. BIZTANLEEN IKT EKIPAMENDUAK ETA INTERNETEKO ERABILTZAILEAK					
Etxeko tresneria			**Interneteko erabiltzaileak**		
	2015 (%)	Aldaketaren puntu portz., 2014-15		2015 (%)	Aldaketaren puntu portz., 2014-15
Familiak	100		Gizonak	76,0	4,2
Ordenagailua	70,6	1,6	Emakumeak	67,7	3,5
Telefono mugikorra	93,4	0,4	*15-24 urte*	99,1	1,1
Internet	70,2	3,8	*25-34 urte*	97,0	1,9
Seme-alabekin	92,7	4,0	*35-44 urte*	95,8	2,1
Bikote bakarra	55,6	2,1	*45-54 urte*	86,6	4,4
....Bakarrik daudenak	44,6	5,6	*55-64 urte*	67,2	9,2
15 urte eta gehiagokoak			*65 urte eta gehiago*	21,1	5,8
Ordenagailua	78,4	1,2	Ikasten	98,7	0,8
Internet	78,0	3,5	Lanean	91,8	3,0
Ordainpeko telebista	26,3	2,1	Langab edo jard. ez	42,5	3,6
Lurreko TB digitala	99,0	-0,6	*Etxetik sartzen dira*	96,3	3,2
DVDa	63,0	-3,5	*Lanetik sartzen dira*	42,5	5,8
Telefono mugikorra	95,9	0,1	*Ikastetxetik sartzen dira*	11,2	-0,1
			Beste toki batzuetatik sartzen dira	18,3	4,3
Iturria: EUSTAT, IGEE					

Gure Erkidegoak Europako batezbestearekiko duen egoera zehazteko, jarraian Interneteko sarbidea duten familien adierazlea azalduko dugu. Ratio handiagoa da 28ko EBn (% 83 EUROSTATen arabera) EAEn baino (% 81, EUSTATen arabera), eta ehuneko hori urruti legoke Europako iparraldeko herrialdeetan ikusten diren batez besteko erreferentzietatik, baina tartea txikitu egin da azken hiru urtean Europako batezbestekoarekin: bederatzi puntukoa zen 2012an eta 2 puntukoa 2015ean.

I.7.23. KOADRAO. ETXEAN INTERNET DUTEN FAMILIAK*. URTEKO BATEZ BESTEKOA (%)						
	2010	2011	2012	2013	2014	2015
28ko EB	70	73	76	79	81	83
Alemania	82	83	85	88	89	90
Austria	73	75	79	81	81	82
Belgika	73	77	78	80	83	82
Danimarka	86	90	92	93	93	92
Eslovakia	67	71	75	78	78	79
Eslovenia	68	73	74	76	77	78
Espainia	58	63	67	70	74	79
Estonia	67	69	74	79	83	88
Finlandia	81	84	87	89	90	90
Frantzia	74	76	80	82	83	83
Grezia	46	50	54	56	66	68
Hungaria	58	63	67	70	73	76
Irlanda	72	78	81	82	82	85
Italia	59	62	63	69	73	75
Letonia	60	64	69	72	73	76
Lituania	61	60	60	65	66	68
Luxenburgo	90	91	93	94	96	97
Malta	70	75	77	79	81	82
Holanda	91	94	94	95	96	96
Polonia	63	67	70	72	75	76
Portugal	54	58	61	62	65	70
Erresuma Batua	80	83	87	88	90	91
Txekiar Errepublika	61	67	65	73	78	79
Errumania	42	47	54	58	61	68
Suedia	88	91	92	93	90	91
EAE	63	66	67	72	76	81
*** 16 eta 74 urte arteko biztanleak.**						
Iturria: EUSTAT eta EUROSTAT, EUSTAT, IGEE						

7.2.2. EAEko enpresen ekipamenduak

EUSTATen "*Informazioaren Gizarteari buruzko inkesta. Enpresak*" delakoak erakusten duenez, ekipamendurik hedatuenak hauexek dira orain ere: telefono mugikorra (% 89,8) [9] eta ordenagailua (% 86,1%), eta ondoren Internet (% 84,1) eta posta elektronikoa (% 83,8). Jarduera-sektoreen arabera, industri sektoreko enpresek dute ezarpen teknologikoko mailarik altuena, eta ondoren zerbitzuen sektoreko enpresak eta eraikuntzako enpresak datoz. Azterturiko ekipamendu guztietan ageri da industri sektorearen zuzkidura teknologiko handiago hori, telefono mugikorrean izan ezik, non telefono mugikorra duten establezimenduen portzentajea % 96,3 baita eraikuntzan, eta % 94,1 industrian eta % 88,5 zerbitzuetan.

I.7.24. KOADRAO. EAEko ESTABLEZIMENDUETAKO IKT EKIPAMENDUEN BILAKAERA JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA (establezimenduen %)

	Industria					Eraikuntza					Zerbitzuak					GUZT.				
	PCa	e-pos	Internet	Tlf mugik	Web	PCa	e-pos	Internet	Tlf mugik	Web	PCa	e-pos	Internet	Tlf mugik	Web	PCa	e-pos	Internet	Tlf mug.	Web
2010	83,0	77,6	78,7	89,1	44,6	76,3	64,8	67,9	91,0	21,8	75,9	68,2	69,5	79,1	35,3	76,5	68,3	69,9	81,7	33,9
2011	83,8	78,6	79,1	88,9	49,3	74,4	67,5	71,0	94,4	26,6	77,1	70,5	72,0	80,0	38,1	77,2	70,7	72,4	82,8	37,3
2012	86,6	82,7	82,6	90,2	51,7	70,4	67,3	67,8	90,0	27,6	77,9	73,4	74,0	79,9	41,3	77,5	73,2	73,8	82,1	40,2
2013	87,4	85,1	84,7	89,8	57,7	80,5	79,8	78,7	89,3	29,8	81,9	77,8	78,3	82,0	44,1	82,1	78,6	78,8	83,6	43,2
2014	89,4	86,9	86,8	92,2	59,6	77,9	77,5	77,6	92,8	34,1	83,0	79,3	81,2	86,3	48,0	82,8	79,7	81,2	87,5	47,1
2015	92,1	90,6	90,1	94,1	61,0	83,2	83,8	84,1	96,3	36,6	86,0	83,2	83,6	88,5	51,6	86,1	83,8	84,1	89,8	50,5

Iturria: EUSTAT, GBI enpresak

Enplegua estratuen arabera aztertuz gero, ikusten da azken urteetan aldeak murrizten joan direla; EAEko enpresen ekipamendu-maila nagusiki tamainaren araberakoa da, batik bat ekipamendu oinarrizkoenetan. Izan ere, 10 langile edo gehiagoko enpresetako IKT ekipamenduen portzentajea, oro har, enpresa txikienetakoa baino handiagoa da. Nabarmentzekoa da 0tik 2rako estratuko ekipamendu murritza, batez bestekotik beherako emaitzak dituen bakarra ekipamendu guztietan, baina komeni da gogoratzea autonomoak barne daudela.

I.7.25. KOADROA. ENPRESEN TIK EKIPAMENDUA TAMAINAREN ARABERA (*establezimenduen %*)

	Ordenagailua			Posta elektronikoa			Internet			Web or.		
	2013	2014	2015	2013	2014	2015	2013	2014	2015	2013	2014	2015
Guzt.	82,1	82,8	86,1	78,6	79,7	83,8	78,8	81,2	84,1	43,2	47,1	50,5
0 - 2	74	74,3	80,0	70,4	70,9	77,5	71	72,8	78,9	28,6	32,6	36,4
3 - 9	90,9	92,6	92,7	87	89,4	90,4	86,9	90,5	89,3	56,7	61,1	64,3
10 - 19	98	96,9	98,3	95,6	94,5	96,2	94,4	94,7	96,0	73,8	78,6	78,7
20 - 49	98,2	98,9	99,3	98,5	98,9	98,7	98,2	98,8	98,7	85,2	86,9	88,5
50 - 99	99,7	100,0	99,6	99,2	99,6	99,3	99,2	99,6	98,7	93,8	94,9	93,2
>= 100	100	99,6	99,8	99,7	99,5	99,7	99,7	99,5	99,7	96,5	96,7	96,5

Iturria: EUSTAT, IGI enpresak

EUSTATen "*Informazioaren Gizartearen Egoera, 2015*" txostenaren arabera, telefono mugikorra da nagusitzen den teknologia mota enpresa txikietan; handietan, berriz, ordenagailua da nagusi. Enpresa bateko edo bi pertsonako euskal enpresen % 89,0k telefono mugikorra du eta % 80,0k ordenagailua. Aldiz, 10 langile edo gehiago dituzten ia euskal enpresa guztiek dute ordenagailua euren jarduera betetzeko (% 99,0); telefono mugikorra dutenen ehunekoa pixka bat txikiagoa da (% 94,1).

[9] *Urteko lehen hiruhilekoaren informazioa bildu denez gero, aurreko urteko azken hiruhilekoan kokatuko litzateke erreferentziako epealdia. Informazioa bildu deneko urtea utzi da.*

Alabaina, komeni da aintzat hartzea softwareko inbertsioari buruzko datuak, zeren eta alde horretan azken urteotan izan den bilakaerak beheranzko joera izan baitu, eta gai honek lotura zuzena du gure gizarte-ekoizpen sareak duen gaitasunarekin, hain zuzen 4.0 industria moduko ekoizpen-ereduetara arrakastaz eboluzionatzeko. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo beza irakurleak gure 2014ko Memoria Sozioekonomikora.

7.2.3. Interneten erabilerak EAEko herritarren eta enpresen artean

Komunikazioa eta informazio gehiago lortzea dira Interneten sartzen direnen jardunik erabilienak. Azken urteetan, eztabaida piztu da: ea zuzenagoa izango ez litzatekeen Komunikazioaren Teknologiez hitz egitea Informazioaren Teknologiez hitz egin beharrean.

Bi eginkizun horiek, komunikatzea eta informatzea, elkarren gainean jartzen dira, askotan, beste jardueretan, honako galdera hauetan, esaterako: Internet erabili al duzu izapideak egiteko edo informazioa bilatzeko? Zailtasun hori gorabehera, beste erabilera mota batzuk sakonago aztertzea interesa zaigu: Kontsumoarekin, kudeaketa ekonomikoarekin, aisialdiarekin, kulturarekin, administrazioarekin eta izapideen kudeaketarekin lotutakoak.

a) Familiak eta biztanleria

Internet bidez egin daitezkeen jardueratik, gehienbat erabiltzen dena posta elektronikoa da (% 89,9), ondoren WhatsApp eta mezuak bidaltzeko beste aplikazio batzuk (% 79,5), hedabideak begiratzea (% 77,0) eta ondasunei eta zerbitzuei buruzko informazioa bilatzea (% 60,3).

I.7.2. GRAFIKOA. 15 URTEKO ETA GEHIAGOKO BIZTANLEAK ERABILITATEKO INTERNET ZERBITZUEN ARABERA, 2015



Iturria: EUSTAT-FIGI

Ez da erraza komunikatzeko eta informatzeko helburuarekin egiten diren ekintzak bereiztea. Hala ere, eta zentzu bakarrak zenbait jardunen posibilitateak agortzen ez dituela jakinda, bereizi egin daitezke zenbait zerbitzutan dagoen izaera nagusi inplizituari erreparatuta. Hala, alde batetik, komunikatzeko helburu argiarekin egiten dira zenbait jardun: posta elektronikoa erabiltzea (% 89,9), chatetan eta foroetan parte hartzea (% 40,8), telefonoz deitzea edo bideo-konferentziak egitea (% 21,1), mugikorretarako mezuak bidaltzea –SMS- (% 35,0) edo fitxategiak transferitzea –FTP- (% 28,2). Bestalde, interneteko erabilera jakin batzuk gehiago bideratzen dira informazioa bilatzera eta informatu beharra betetzera: ondasunei eta zerbitzuei buruzko informazioa (% 60,3), kontsumitzailearen eskubideei buruzko informazioa bilatzea (% 23,8), hedabideen bidez informatzea (% 77,0), administrazioaren web orrietatik informazioa lortzea (% 48,3) edo osasun arazoei buruzkoa (% 43,1).

Kontsumoak eta jarduera ekonomikoek eragiten dute Internet bidez eginiko eragiketa asko. % 49,0k bankuetan sartzeko eta finantza-jarduerak egiteko erabili zuen Internet (burtsa, etab.), % 34,3k ondasunak eta zerbitzuak erosteko

eta % 8,0k ondasun eta zerbitzu salmentak egiteko. Azken urteetan, nabarmen garatu dira aisialdiarekin eta kulturarekin loturiko jarduerak, eta halaxe islatzen da lorturiko erantzunetan: % 57,9k aisialdi zerbitzuak erabili ditu, jokoak, musika, etab. deskargatzeko edo erabiltzeko; %31,6k liburutegiak eta beste dokumentazio-zentro batzuk kontsultatzeko eta %10,1ek museo birtualak bisitatzeko. Arestian aipaturiko kontsumo-jardueren eta aisialdiko jardueren artean, % 49,7k turismoarekin loturiko ostatu edo bidaia erreserbak egin ditu.

E-learning-ari buruzko jarduketak oraindik gutxi burutzen dira, baina bizkor sartzen ari dira presentzian oinarrituriko ikaskuntzarik tradizionalenen prozesuetan. Honako hauek presio handiagoa dakarte Internet erabiltzeko belaunaldirik gazteenen artean: nahitaezko irakaskuntzaren gaineko eraldaketa berriek, ordenagailua eta Interneteko konexioa gero eta etxe gehiagotan izateak, Europa mailako nahitaezko irakaskuntzaren ondoko irakaskuntza bateratzeak eta oro har ikaskuntza bitarteko birtualen bidez bultzatzeak. Alabaina, hazkunde hori gorabehera, badirudi orainik ez dela iritsi arauturiko ezagutzaren transmisioa eta ikaskuntza, zeren eta % 18,9k bakarrik erabiltzen baitu Internet hezkuntzako, ikastetxeko edo unibertsitateko ikastaroetarako, eta % 19,6k beste ikastaro batzuetarako. Hala eta guztiz ere, ez da ahaztu behar liburutegietan eta beste dokumentazio-zentro batzuetan kontsultak egiten dituen % 31,6 horren zati bat hezkuntzako irakaskuntzarekin lotuta egiten duela. Lan-aukerak biltzeko ikastaroak egitea ere ez dago hedatuago: %17,1.

Zenbait administrazio-izapide egiteko aukerak abantailak dakartza berekin: denbora erabiltzaileek denbora aurreztu eta kostuak murrizten dituzte. E-administrazioak, publikoak nahizko pribatuak, abantaila handiak dakartza. Erabilerarik ohikoenak liburutegietan eta dokumentazio-zentroetan kontsultak egiteko aukerarekin daude lotua (% 31,6), administrazioaren orrietatik informazioa eskuratzea (% 48,3), formulazio ofizialak deskargatzea (% 28,2), formularioak beteta bidaltzea (% 32,4), matrikulazioak eta notei, egutegiei eta abarri buruzko beste kontsulta batzuk (% 30,4), edo lana bilatzeko kudeaketan (% 22,4). Itxura guztien arabera, Internet sartzeari esker, errazago bideratzen ari dira administrazio-izapideak, lehen norbera agertuta egiten zirenak eta orain telematika bidez egiten direnak.

Zenbait zerbitzu Internet bidez erabiltzeko aukerak hazkunde nabarmena izan du azken urteotan. Gero eta ugariagoak dira era guztietako informazioa dakarten web orriak eta gestioak, erosketak, transakzioak, etab. egiteko aukerak.

b) Enpresak

Maila orokorrean, EAEko establezimenduen %50,5k du web orria. Jarduera-sektoreen arabera, industri establezimenduak nabarmentzen dira (% 61,0), ondoren zerbitzuen sektorekoak (% 51,6) eta eraikuntzakoak (% 36,6). Ehuneko horiek nabarmen hazten dira 10 langile edo gehiago dituzten establezimenduak kontuan hartzen baditugu. Tamaina horretan, enpresen % 86,5ek web orria du, eta horien artean, zerbitzuen sektoreko establezimenduak dira web orria duten establezimenduen ehunekorik handiena lortzen dutenak (% 87,3), ondoren eraikuntzakoak (% 84,7) eta industri sektorekoak (% 84,4).

I.7.26. KOADROA. WEBAREN PRESTAZIOAK EAE-N WEB GUNEA DUTEN ESTABLEZIMENDUETAN, LAN-ESTRATUAREN ARABERA (WEB GUNEA DUTEN ESTABLEZIMENDUEN %). 2015

	Establezimenduak, guztira	10 langile edo gehiagoko establez.
Enpresari buruzko informazio orokorra	99,1	99,6
Ondasun eta zerbitzuen zerrenda edo katal.	65,5	66,7
On-line eskariak edo erreserb. jasotzea	22,1	22,9
Prod./zerbitzuk zuzenean ordaintzea	14,8	14,7
Eskarien jarraipena	13,2	17,1
Salmenta-ondoko zerbitzua	19,2	22,7
Enpresako profiletarako estekak hedabide sozialetan	33,1	39,5
Informazioaren pribatutasun adierazpena	60,9	68,9
Lan eskaintzei buruzko informazioa	20,6	37,1
Edukiak ohiko erabiltzaileentzat pertsonaliz.	12,2	16,8
Ezinduentzako irisgarritasuna (AA ziurtagiria edo maila handiagokoa)	11,2	19,2
Produktuak pertsonalizatzeko edo diseinatzeko posibilitatea	4,7	9,3

Iturria: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta -IGI Enpresak.

Web guneetan ematen diren prestazioak aztertuz gero ikusiko dugunez, hona hemen ohikoenak: enpresari buruzko informazio orokorra eskuratzea (establezimendu guztien % 99,1 eta 10 langile edo gehiagoko enpresen % 99,6),

ondasunen eta zerbitzuen katalogoa edo zerrenda edukitzea (% 65,5 eta % 66,7, hurrenez hurren) eta informazioaren pribatutasun-adierazpena izatea (% 60,9 eta % 68,9). Ondoren, ehuneko txikiagoarekin bada ere, hedabide sozialetan enpresen profiletarako estekak dituztenak daude (% 33,1 eta % 37,1), eskariak on-line jasotzea edo erreserbak egitea ahalbidetzen dutenak (% 22,1 eta % 22,9) eta lan-eskaintzak argitaratzen dituztenak (% 20,6 eta % 37,1).

Gutxien ezarrita dagoen zerbitzugintza: eskarien jarraipena, ohiko erabiltzaileentzako edukien pertsonalizazioa, ezinduentzako irisgarritasuna eta produktuak pertsonalizatzeko edo diseinatzeko posibilitatea.

7.2.4. Merkataritza elektronikoa EAEn.

a) Familiak eta erabiltzaileak

EUSTATen datuen arabera, internetez (azken hiru hilean) erosi duten erabiltzaileen ehunekoa igo egin da 2015ean, hain zuzen ere % 8,2. 2014an internauten % 41,7k egiten dute erosketa internetez. 2015ean, berriz, % 49,9k erosi zuten sarea erabiliz horretarako.

I.1.27. KOADROA. INTERNETEZ EROSI DUTEN (azken 3 hilean) EAE-KO INTERNETEKO 15 URTEKO EDO GEHIAGOKO ERABILTZAILEAK

	2013		2014		2015	
	Mila	%	Mila	%	Mila	%
Guzt.	**1.215,5**	---	**1.255,8**	---	**1.321,4**	
Azken 3 hilean erosi du	471,3	38,8	523,9	41,7	659,6	49,9
Inoiz erosi du ez azken 3 hilean	249,1	20,5	232,1	18,5	279,4	21,1
Ez du inoiz erosi	495,1	40,7	499,8	39,8	382,4	28,9

Iturria: EUSTAT. FIGI

Horrek esan nahi du 15 urte eta gehiagoko biztanleen % 35ek erosketaren bat egin zuela bide hori erabilita 2015ean. Gehien erosi diren ondasunak bidaiak eta oporretako ostatuak dira (% 62), kirol-materiala eta arropa (% 57,7) eta ikuskizunetako sarrerak (% 49,4).

Internetez kontu-zenbakia edo kreditu-txartela emanda ordaintzeko segurtasunak ez zekarren arazo handirik 2015ean erosketaren bat egin zutenen % 86,7rentzat. Alabaina, 2014tik 2015era behera egin zuen internetez ordaintzeak segurtasun handia zuela uste zutenen ehunekoa (% 21,6tik % 18,4ra) eta hazi egin da nahiko segurutzat jotzen dutenena (% 51,3tik % 59,6ra). Aldiz, biztanleen %18,1ek uste du oraindik segurtasun gutxi dagoela, eta % 3,9ren usteta, segurtasun-arazo oso larriak daude.

Hau da Interneteko eroslearen profila: gizon gaztea da, seme-alabadun familia batean bizi da, erdi- eta goi-mailako ikasketak ditu eta landuna da. Etxerako eta opor-bidaietarako eta -alojamendurako produktuen erosketa emakumezkoek egiten dute maizago; nolanahi ere, gizonezkoek honako erosketa hauek egiten dituzte proportzio handiagoan: musika eta musika-tresnak, motorrak eta osagarriak, bai eta software eta bideojokoak ere.

ONDASUNAK INTERNETEZ EROSI DUTEN EAE-KO 15 URTEKO ETA GEHIAGOKO BIZTANLEAK, ORDAINTZEKO ERA ETA ORDAINKETAREN SEGURTASUNARI BURUZKO IRITZIA

	2014	2015
Erosi dute	**28,3**	**35,8**
Eskuraturiko ondasunak (a)		
Kirol materiala, arropa	42,8	57,7
Bidaiak, oporretako ostatuak	33,9	62,0
Beste produktu edo zerbitzu batzuk	21,4	8,8
Etxerako produktuak	14,8	30,9
Elektronika	14,1	25,3
Liburuak, aldizkariak	13,5	29,6
Ikuskizunetarako sarrerak	10,8	49,4
Material informatikoa	8,6	20,0
Softwarea, bideojokoak	4,9	14,4
Musika, musika tresnak	4,8	11,3
Erosketak ordaintzeko modua (a)	3,6	
Kreditu-txartelarekin	71,1	86,7
Kontu korrontetik	7,4	21,5
Jasotakoan ordaintzea	9,5	20,1
Harpidetza bidezko ordainketa	1,3	5,6
Ordaintzeko beste modu bat	28,7	18,6
Ordainketen segurtasunari buruzko iritzia		
Asko	21,6	18,4
Nahikoa	51,3	59,6
Gutxi	19,3	18,1
Batere ez	7,8	3,9

(a) (*) Erantzun bat baino gehiago emateko galdera.
Iturria: EUSTAT, FIGI

b) Enpresak

Eustaten datuen arabera, EAEko enpresa-ehunean merkataritza elektronikoa sortzen dituzten zenbaki ekonomikoetan handitzen ari da orain ere, eta bertan parte hartzen duten enpresen kopurua ere areagotu da.

Interneten bidez edo beste sistema elektroniko batzuen bitartez (datuen truke elektronikoa (EDI) eta abar) 2014an egindako salmenten negozio-bolumena 12.124,6 milioi eurokoa izan zen, eta erosketena 9.326,1 milioi eurokoa. Hortaz, 2013tik salmenten bolumena %9,5 igo da, eta erosketena %15,3.

Zenbakitan salmentak erosketak baino handiagoak dira, baina produktuak bitarteko elektronikoen bidez erosten dituzten establezimendu gehiago daude, salmentak egiten dituztenak baino.

Hala, 2014an establezimenduen %24,8k egin zituen merkataritza elektronikoko eragiketak (ehuneko hori aurreko urtekoa baino portzentajezko 3,2 puntu handiagoa da); gehienek, alegia %23,1ek erosketak egin zituzten, eta gutxi batzuk, %6k, salmentak.

Merkataritza elektronikoan 40.700 establezimendu inguru aritzen dira. Establezimendu horiek erosketa guztien % 30,6 eta salmenta guztien % 38,9 egiten dute merkataritza elektronikoa medio.

Establezimenduen tamainari dagokionez, hamar lanpostu eta gehiagoko establezimenduen multzoan merkataritza elektronikoa baliatzen dutenen ehunekoa handiagoa da, % 28,8, hain zuzen ere (ehuneko orokorra % 24,8 da), eta baita erosketa eta salmenta elektronikoak egiten dituztenen portzentajeak ere: % 25 eta % 10,8, hurrenez hurren.

EUROSTATen datuen arabera, online salmentak (Internet, EDI edo beste bitartekoren baten bidez) egin zituzten hamar lanpostu edo gehiagoko enpresen portzentajea (finantza-sektorea kontuan hartu gabe) % 15era igo da EB28n eta eurogunean. Eta online erosketak (gutxienez eskarien % 1) egin zituzten enpresen ehunekoa %22 da EB28n eta eurogunean.

Erosketa elektronikoak egiteko bitartekoei dagokienez, erosketen % 43,6 posta elektroniko bidez egin dituzte, gainerako % 34,3 EDI eta beste sare batzuk medio, % 22,2 web-orrien bitartez. Salmenta elektronikoei dagokienez, % 41,4 EDI eta beste sare batzuen bitartez egin dituzte, % 35,3 posta elektronikoa medio eta % 23,3 web-orriaren bidez.

I.7.29. KOADROA. EROSKETAK ETA SALMENTAK JARDUERA ADARRAREN ETA ENPLEGU-ESTRATUAREN ARABERA (MILIOI €)

	Erosketak					Salmentak				
	2010	2011	2012	2013	2014	2010	2011	2012	2013	2014
Guzt.	**5.284,8**	**6.649,3**	**7.207,6**	**8.090,8**	**9.326,1**	**8.773,6**	**10.530,4**	**10.699,2**	**11.072.3**	**12.124,6**
Enplegu estratuak										
0 - 9	1.764,5	2.012,7	2.082,9	2.610,0	3.009,4	1.528,5	1.943,7	2.067,2	2.157,1	2.165,5
10 eta gehiago	3.520,3	4.636,6	5.124,7	5.480,8	6.316,7	7.245,0	8.586,7	8.632,0	8.915,2	9.959,1

Iturria: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko inkesta -IGI Enpresak.

I.7.30. KOADROA. MERKATARITZA ELEKTRONIKOA EGITEN DUTEN ESTABLEZIMENDUEN BILAKAERA (%)

	Establezimenduak, guzt. EAE					10 langile edo gehiagokoak								
						EAE					28EB**		EUROGUNEA**	
	2010	2011	2012	2013	2014	2010	2011	2012	2013	2014	2013	2014	2013	2014
Merkataritza elektr.	**15,1**	**17,3**	**19,7**	**21,6**	**24,8**	**23,1**	**24,9**	**27,7**	**27,5**	**28,8**	**-**	**-**	**-**	**-**
Erosketak	14,2	16,1	18	19,7	23,1	20,3	21,4	23,6	23,4	25,0	18	22	18	22
Salmentak	3,9	4,1	4,6	5,2	6,0	8,5	9,8	10,4	10,0	10,8	14	15	14	15
Erosketen % *	28,1	30,8	33,7	29,4	30,6	24,6	30,5	33,7	27,0	28,3	-	-	-	-
Salmenten % *	38,6	39,3	36,6	35,9	38,9	38,4	40,9	42,8	36,2	37,8	-	-	-	-

** Merkataritza elektronikoan aritzen diren establezimenduetan, erosketa eta salmenta guztien arteko erosketa eta salmenta elektr, b.b.%*
*** (gutxienez %1). Finantza-sektorea kontuan hartu gabe*
Iturria: EUSTAT.IGI-enpresak

7.2.5. Administrazio elektronikoa

EUSTATen "*Informazioaren Gizartearen Egoera, 2015*" txostenaren arabera, azken urteotan igo egin da administrazioarekin izapidetze elektronikoa eskatzen duten enpresen kopurua. Hala, 2009tik 2015era honako igoera izan da interneten bidez izapideok egiten dituzten enpresetan: % 59,8tik % 67,7ra. Ehuneko horiek altuagoak dira 10 langile edo gehiago dituzten enpresak kontuan hartzen baditugu (% 82,2tik % 93,1era).

Lurraldeka, Araban % 70 dago, % 66,5 Bizkaian eta % 68,6 Gipuzkoan). Eta jarduera-sektoreka, industria nabarmentzen da, % 70ekin, ondoren zerbitzuak (% 68,3) eta eraikuntza (% 62,7)

I.7.31. KOADROA. INTERNETEKO SARBIDEA DUTEN EAEko ESTABLEZIMENDUEK HERRI-ADMINISTRAZIOAREKIN EGINDAKO IZAPIDE ELEKTRONIKOAK, LURRALDE HISTORIKOAREN, JARDUERA-SEKTOREAREN ETA TAMAINAREN ARABERA (establezimenduen %)

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Guztira	**59,8**	**61,4**	**61,8**	**64,0**	**63,8**	**67,2**	**67,7**
Araba	59,3	61,7	60,9	65,7	69,3	69,8	70,0
Bizkaia	58,7	61,2	62,3	62,6	61,7	64,9	66,5
Gipuzkoa	61,5	61,7	61,5	65,3	64,8	69,5	68,6
Jarduera sektorea							
Industria	63,2	62,9	61,9	63,8	65,8	68,5	70,0
Eraikuntza	56,0	60,6	63,6	68,0	66,4	70,4	62,7
Zerbitzuak	60,1	61,5	61,4	63,3	63,2	66,6	68,3
10 lanp. eta geh.	**82,2**	**84,9**	**85,2**	**87,8**	**91,3**	**92,1**	**93,1**
Araba	78,8	84,9	86,1	86,0	90,0	91,2	93,6
Bizkaia	81,4	84,6	83,7	87,2	91,3	91,8	93,7
Gipuzkoa	85,1	85,2	87,0	89,5	91,9	92,9	91,9
Jarduera sektorea							
Industria	83,5	87,1	89,7	90,2	93,1	93,3	93,5
Eraikuntza	85,0	82,8	81,8	90,7	90,1	92,1	94,5
Zerbitzuak	81,1	84,3	84,1	86,5	90,8	91,7	92,8

Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta, IGI Administrazioa.

Hamar langile edo gehiagoko enpresei dagokienez, % 93,6k Internet bidez egiten ditu izapideak herri-administrazioarekin (Araban % 93,7k, Bizkaian % 91,9k eta Gipuzkoan % 91,9k). Jarduera-sektoreka eraikuntza da nagusi (% 94,5), eta haren atzetik datoz industria (% 93,5) eta zerbitzuak (% 92,8).

I.7.32. KOADROA. INTERNETEKO SARBIDEA DUTEN EAEko ESTABLEZIMENDUEK HERRI-ADMINISTRAZIOAREKIN EGINDAKO IZAPIDE ELEKTRONIKOAK, EGINDAKO IZAPIDE-MOTAREN ETA TAMAINAREN ARABERA (establezimenduen %). 2015

	Guztira	10 enpl. eta +
Izapide elektr. egiten dituzte herri-administrazioekin	**67,7**	**93,1**
Informazioa lortzea	55,3	83,5
Inprimakiak eta formularioak lortzea	53,2	80,5
Betetako inprimaki eta formularioak itzultzea	40,1	69,2
Prozedura administr. erabat elektronikoki bideratzea	27,9	55,7
Lizitazio elektronikoko sistema batean proposamenak aurkeztea (e-procurement)	6,2	15,3
Langileen gizarte-kotizazioak aitortzea	33,6	60,1
Sozietateen gaineko zerga aitortzea	35,9	60,5
Balio erantsiaren gaineko zerga aitortzea (BEZ)	40,6	63,3
Zerga bereziak edo aduana-eskubideak aitortzea	6,4	19,1
Beste izapide edo zerbitzu batzuk	2,0	3,3

Iturria: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko inkesta -IGI Administrazioa.

Enpresek administrazioarekin egiten dituzten izapide motei dagokienez, nabarmentzekoak dira informazioa lortzea (establezimenduen % 55,3 eta 10 langile edo gehiago dituztenen % 83,5), inprimakiak eta formularioak eskuratzea (% 53,2 eta % 80,5, hurrenez hurren), inprimakiak eta formularioak itzultzea eta betetzea (% 40,1 eta % 69,2, hurrenez hurren), zergak aitortzea, sozietateen gaineko eta BEZa, kotizazio sozialak aitortzea eta administrazio-prozedurak izapidetzea.

Administrazio elektronikoak Informazioaren Gizartearen eragilea den aldetik duen eskaintzari dagokionez, EAEko herri erakundeek 2014. urtean eskainitako prozedura eta izapide publiko elektronikoen % 39,8k (2013an, % 40,8) 4 motako sofistikazio maila zuten, guztizko izapidetze elektronikoa, %3 5,2k (% 33,9 2013an) 2 motako sofistikazio maila eskaintzen du, formularioak deskargatzea eta % 21,8k (% 23,6k 2013an) 1. maila du, informazioa. Datuak on-line sartzeko posibilitatea nahikoa murriztua da (% 3,2).

Herri erakunde moten arabera, udalak nabarmentzen dira gainerakoetatik; izan ere, prozeduren eta izapideen eskaintzaren % 59,4 biltzen dute (% 57,4 2013an. Bigarren tokian aldundiak daude (eskaintzaren % 15,6) eta hirugarren tokian Eusko Jaurlaritza, % 15,4 (guztizkoaren % 13).

I.7.33. KOADROA. EAE-KO ERAKUNDE PUBLIKOEN PROZEDURA ETA IZAPIDE PUBLIKO ELEKTRONIKOEN ESKAINTZA IZAPIDE ELEKTRONIKOAREN SOFISTIKAZIOAREN ARABERA. 2014

	GUZT.	ELEKTRONIKA MAILA								
		1.maila -informazioa			2.maila –formularioak deskargatzea				3. maila – datuak on-line sartzea-	4.maila – izapide elektroniko a guztira
		Guzt.	Izena soilik	Informaz. eskaintzen da soilik	Guzt.	Hasierako form./eskab. deskargatzea ahalbidetzen du	Formularioen zati batzuk deskargatzea ahalbidetzen du	Beharrezko form. guztiak deskarg. ahalbidetzen du	Guztira	Guztira
Guztira	**6.006**	**1.307**	**56**	**1.251**	**2.116**	**825**	**141**	**1.150**	**193**	**2.390**
(horizontala, %)	**100**	**21,8**	**0,9**	**20,8**	**35,2**	**13,7**	**2,3**	**19,1**	**3,2**	**39,8**
Eusko Jaurlaritza	764	171	-	171	242	52	10	179	27	324
Foru Aldundia	924	167	2	164	335	90	18	226	28	395
AFA	337	98	2	96	103	22	-	81	11	124
BFA	373	49	-	49	199	54	18	127	6	119
GFA	215	19	-	19	32	14	-	18	11	152
Koadrila	2	-	-	-	2	2	-	-	-	-
Udalak	3.565	781	46	736	1.301	576	91	633	119	1.364
Mankomunitatea	11	9	4	6	-	-	-	-	-	2
Partzuergoa	28	-	-	-	4	2	-	2	5	19
Erakunde autonomoa	181	64	2	62	40	24	4	13	-	76
Sozietate publikoa	277	79	2	76	54	23	17	15	7	138
Fundazioa	14	-	-	-	-	-	-	-	5	9
Unibertsitate publikoa	239	35	-	35	139	55	2	82	2	62

Iturria: EUSTAT

Administrazio Publiko eta Justizia Sailaren "*Administrazio Elektronikoaren Barometroa. Eskariaren azterlana, 2015*" txostenaren arabera, 2009tik 2013ra, krisi ekonomikoan bete-betean, moteldu egin zen administrazioekin Internet bidez aritzea. 2013tik 2014ra administrazio elektronikoa erabiltzen zuten 3.410 establezimendu gehiago agertzen ziren, urteko % 3,8ko hazkundea.

Administrazio publikoarekin Internet bidez harremanetan jartzen diren eta 10 langile edo gehiago dituzten enpresen kopuru absolutua jaitsi egin denez 2013tik 2014ra (% 1,7), enpresen guztizko hazkundearen %3,8 enpresa txikietatik datorrela pentsa daiteke.

Gaur egungo hazkundearen erritmoari eutsiz gero, hamar urtean, alegia 2025ean, EAEko enpresa guztiek erabiliko lukete administrazio elektronikoa.

Bestalde, EAEn bizi diren 16-74 urte arteko biztanleek erabili zituzten 2014ko azken hiru hileetan eta 2015eko lehen[10] 3 hileetan herritarrekin aritzeko administrazioek eskaintzen dituzten zenbait posibilitate, hots, guztizkoaren % 45,3k.

Biztanlerian ikusitako igoera ez da orekatua izan generoaren aldetik. Dena den, emakumeek administrazio elektronikoa gutxiago erabiltzen zuten, % 44,1ek, hain zuzen ere; ehuneko hori gizonei dagokiena baino portzentajezko 2,6 puntu txikiagoa da.

I.7.34. KOADROA. ADMINISTRAZIO ADIERAZLEAK

	2003	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2015
Administrazio elektronikoa erabili duten establezimenduak*(establezimendu guztien %)	15,1	41,6	43,0	44,7	47,2	50,3	54,5	57,0
Administrazio elektronikoa erabili duten hamar lanpostu edo gehiagoko establezimenduak*	51,7	78,9	81,6	82,8	84,9	88,6	89,8	91,0
Administrazio elektronikoa erabili duten 16 eta 74 urte arteko biztanleak (%)	15,4	30,7	32,2	32,9	31,4	35,9	38,2	45,3

Iturria: Justizia eta Administrazio Publikoko Saila. Administrazio elektronikoaren barometroa.Eskaeraren azterketa, 2014
(*) Lehen sektoreko establezimenduak ez dira sartzen. 'Administrazio elektronikoa erabili dutela' esan nahi du herri administrazioen atarietan informazioa jaso dutela, formularioak elektronikoki jaitsi edota igorri dituztela edo izapidea edo prozedura osorik telematika bidez egin dutela.

Azkenik, esan behar dugu oraindik bidea dugula egiteko Euskadiko 2015 Agendan proposaturiko helburuak lortzeko. Ondoko taulan ageri dira helburuak.

I-7.35. KOADROA. EUSKADIKO AGENDA DIGITALA 2015eko HELBURUAK

	2015 HELBURUA (%)	EMAITZAK EIN ETA EUSTATEN ARABERA	2015 (%)
Administrazioaren informazioa kontsultatzeko Internet erabiltzen duten 15 urtetik gorako biztanleak (%)	65	(INE) ***Pertsonen ehunekoa (16-74urte)***	
		Administrazioarekin edo zerbitzu publikoekin harremanetan edo jarri edo aritu dira internetez arrazoi partikularrengandik azken 12 hilean	61
		Administrazioaren web orrietatik lortu dute informazioa	58,4
Administrazioaren formularioak deskargatzeko Internet erabiltzen duten 15 urtetik gorako biztanleak (%)	50	Formulario ofizialak deskargatu dituzte	33
Administrazioaren formularioak betetzeko eta bidaltzeko Internet erabiltzen duten 15 urtetik gorako biztanleak (%)	45	Formularioak beteta igorri dituzte	24,6
Lizitazio elektronikoko sistema batean (e-procurement) proposamenak aurkezteko administrazioarekin izapideak egin dituzten enpresak (%)	10	(EUSTAT)	6,2

Iturria: Agenda Digitala 2015 Euskadi, EIN eta EUSTAT (Eusko Jaurlaritzak Balantzea egiteko igorritako iturriak)

[10] 2003 eta 2008 artean, urteko 2. Eta 4. Hiruhilekoaren informazioa biltzen zuen FIGIk eta, beraz, inkesta egiten zeneko urtean sartzen zen Administrazio Elektronikoaren erabilerari buruzko erantzuna (azken hiru hileetako erabileraz galdetzen zen). 2009tik hasita, urteko lehen hiruhilekoan biltzen da informazio. Hori dela eta, erabileraren erreferentziako epealdia aurreko urteko azken hiruhilekoan kokatzen zen. Kasu guztietan utzi da inkesta egin deneko urtea. 2015ean, urteko lehen zati osora zabaldu da bilketaren epealdia, eta, beraz, azken hiru hileen erabileraz ari garenean, 2014ko 4. Hiruhilekoa eta 2015eko lehen hiruhilekoa da denbora-erreferentzia.

8. EAE-KO EGOERA EKONOMIKOA: LABURPENA ETA GOGOETAK

8.1. LABURPENA

EAE-KO EGOERA EKONOMIKOA ETA KANPOKO TESTUINGURUA

NMFren arabera, aurrera jarraitu zuen munduko ekonomiak, baina erritmo motel eta hauskorrean. Herrialde aurreratuetako jarduera ekonomikoak pixka bat hoberantz egin zuen. Ekonomia hasiberrietan, berriz, motelaldia gertatu zen; izan ere, heterogeneotasun nabarmena dago herrialdeen eta eskualdeen artean.

Hala, urte guztia hartuta, 2014. urtearekiko, munduko BPGak, erosteko ahalmenaren parekotasunaren arabera haztatuak, %3,1 gorantz egin zuen, NDFren estimazioei jarraiki.

Izan ere, 2014rako kalkulatutako ratioa baino pixka bat txikiagoa da (%3,4). Ekonomia aurreratuetan %1,9ko hazkundea izan zen (2014an baino %0,1 gehiago), non %2,4 hazi baitzen AEBko BPGd-a (2014ko ratio bera), eta eurogunekoa, berriz, %1,6., eta Japoniako %0,5 hai zen (%0 2014an). Bestalde, ekonomia hasiberriak eta garapen-bidekoak gutxi gorabehera %4ko tasan hazi ziren, aurreko urteko %4,6ko hazkuntzaren aldean. Ildo horri eutsiz, Europako ekonomia hasiberriek %3,5 (%2,8 2014. urtean) eta Asiakoek %6,6 (%6,8 2014. urtean) egin zuten gorantz. Latinoamerika eta Karibe %0,1 igo ziren, 2014ko %1,3ren aldean.

Txina eredu produktiboaren egiturak aldatzeko prozesuan dago murgilduta, inbertsiotik kontsumora eta industriatik zerbitzuetara, eta %6,9ko tasarekin hazi zen (ratiorik txikiena 1990etik hona). Brasilek %3,8ko jaitsiera izan zuen, aurreko epealdian %0,1 hazi ondoren. Errusiak, berriz, %3,7ko beherakada izan zuen, 2014. urtean %0,7 hazi ondoren, hain zuzen ere emaitzarik txarrena sei urtean. Herrialde handien arteko salbuespena India izan zen; izan ere, aurrekoa baino hamarren batekin hobetu zuen emaitza (%7,3, 2014ko %7,2ren aldean).

Munduko merkataritza hazi egin zen, baina hazkunde ahula izan zen. Haren hazkunde-tasa %2,8koa izan zen, BPGd-aren hazkundearen azpitik, eta erlazioa dago haren bilakaeraren eta inbertsioaren hazkunde txikiagoaren artean merkatu hasiberrien ekonomietan.

Prezioen bilakaerari dagokionez, lehengaien prezioen jaitsiera handiak (bereziki energiako prezioetan) eragin nabarmena izan zuen munduko inflazioaren murriztapenean 2015. urtean. 2014 eta 2015 bitartean, Brent upelaren batez besteko prezioak %39,1 egin zuen behera (abendutik abendurako aldakuntza-tasa). Bestalde, energiakoak ez diren lehengaien prezioek beherantz jarraitu zuten, eskaintzagatik nahiz eskariagatik.

Finantzen eta monetaren arloko baldintzei dagokienez, nahiko maila txikiei eutsi zieten finantza-merkatuen hegazkortasunak eta arriskua erabat baztertzeko joerak aipaturiko urteko atirik handienean. Alabaina, hirugarren hiruhilekoan, hegazkortasuna nabarmen handitu zen Txinako burtsetako merkatuen kotizazioen zuzenketa handiaren eraginez.

Testuinguru horretan, Europako Banku Zentralak %0,05ean egonkor eutsi zion Euroguneko egun baterako esku-hartzearen tasari (ehuneko horretan kokatu zuen 2014an). Bestalde, AEBko Erreserba Federalak eta Japoniako Bankuak, berriz, handitu egin zituzten beren esku-hartzearen tasak. Hala, AEBko tasak %0,5ean bukatu zuen 2015ean (2014ko %0,25aren aldean); eta Japoniako Bankuak, berriz, %1,1ean (aurreko urteetako %0,1en aldean).

Euroguneko diru-merkatuko interes-tasei dagokienez, urteko batez besteko balioa kontuan hartuta, epe guztietan murriztu ziren. Horrela, hilabete bateko Euribor indizea % 0 izan zen urteko lehenengo hiruhilekoan, eta -%0,15 laugarren hiruhilekoaren amaieran. Hiru hilabeteko Euribor indizea % 0,05etik % -0,09ra igaro zen lehen eta laugarren hiruhilekoen artean, sei hilabeterako Euribor indizea %0,13tik %-0,01era eta urtebeteko Euribor indizea % 0,26 izan zen urtearen hasieran eta % 0,09 urtearen amaieran.

Inflazioa gehiago kontrolatu arren, Erreserba Federalak interes-tasak normalizatzeari ekin zion abenduan. Europako Banku Zentralak, berriz, ekonomia pizteko neurri gehiago iragarri zituenez gero, alde nabarmena sortu da bi banku zentralen artean.

Dibisen merkatuari dagokionez, AEBko dolarraren egiazko aldaketa-tasak 1,09 $/€-an bukatu zuen urtea, 2014ko 1,23$/€-ren aldean. Hots, %11,8ko balio-galera izan zuen euroak. Euroak balio-galera izan zuen yenarekiko eta libra esterlinarekiko ere. Munduko burtsako merkatuetan, IBEX 35ek urte arteko %7,2ko jaitsiera izan zuen (2015eko abenduan, 2014ko abenduaren aldean), 2014ko %3,7koa hazkundearen aldean; Nikkei %9,1 hazi zen, 2014ko %7,1en aldean; Dow Jones %2,2 jaitsi zen (2014ko %7,5en aldean) eta azkenik Euro Stoxx zabalak %8 egin zuen gora (%1,7 aurreko urtean).

Gure azterketa EBra mugatuta, kanpoko ingurunea ahuldu bada ere, 2013ko bigarren hiruhilekoan hasitako susperraldiak jarraitu egin zuen 2015. urte osoan. Eurogunerako funtsezkoa izan zen kontsumitzaileen konfiantza nahiz gastua bultzatzeko konfiantza indartzea, baita enpresek kontratazioak eta inbertsioak egiteko eta bankuek kreditua handitzeko konfiantza indartzea ere. Hala, jarduera ekonomikoaren urte arteko hazkunde-tasa, batez beste, %1,5ean kokatu zen 2015ean, 2011tik izandako mailarik handienean.

Europako Banku Zentralak dioen bezala, euroguneko jarduera ekonomikoak sendo eutsi zion barne-eskariaren hobekuntzaren ondorioz; izan ere, batez beste, hobekuntzarik handiena izan zuen 2007tik.

Beraz, eskariaren aldetik, indartuz jarraitu zuen kontsumo pribatuak, eta urte arteko %1,6ko hazkunde izan zuen. Bestalde, inbertsioak ere aldakuntza-tasa positiboa izan bazuen ere, motelaldian murgildu zen, zenbait herrialdetako erreforma estrukturalen arloko nahikoa aurrerapen motelengatik eta hainbat sektoretako balantzeen beharrezko egokitzapenengatik.

Gainera, %0,1eko ekarpen negatiboa izan zuen kanpoko eskariak BPGd-ean, 2014ko erdialdetik euroaren balio-galera nahikoa handiaren ondoren esportazio-kuotek gora egin bazuten ere.

Eskaintzaren aldetik, nahikoa orokorra izan zen ikusitako susperraldia. Zerbitzuen eta industriaren BEGa (eraikuntza kanpo utzita) antzeko abiaduran hazi zen (kasu bietan %1,5), eta eraikuntzakoa, berriz, neurri txikiagoan (%0,1). ala, Europako Banku Zentralaren arabera, gorantz jarraitu zuen zerbitzuetako BEGak, eta krisiaren aurreko gehieneko balioaren gainetik kokatu zen. Industriako BEGak, eraikuntza alde batera utzita, krisiaren aurreko mailen azpitik eutsi zion, baina pixkanaka gorantz jarraitu zuen. Eraikuntzako balio erantsiak, aldiz, 2008an (krisia baino lehen) lortutako gehieneko mailetatik nahikoa maila txikiagoetan jarraitu zuen.

EB28an, EUROSTAT erakundearen arabera, BPGaren benetako aldakuntza-tasa % 1,9koa izan zen 2015ean; aurreko urtean, aldiz, %1,4 izan zuen.

Eurogunean, bestalde, %1,6koa izan zen, 2014ko %0,9aren aldean. Ondokoek izan zituzten tasa handienak: Irlanda (%7,8), Malta (%6,3), Luxenburgo (%4,8), Txekiar Errepublika (%4,2) eta Suedia (%4,1). Ondokoek tasa handiak izan zituzten, baina ez aurrekoak bezain nabarmenak: Errumania (%3,8), Polonia (%3,6), Espainia (%3,2), Bulgaria (%3), Hungaria eta Eslovenia (bietan %2,9), Letonia (%2,7), Erresuma Batua (%2,3) eta Herbehereak (%2). Ondoko hauek hazkunde-tasa txikiagoak izan zituzten: Alemania (%1,7), Kroazia, Zipre eta Lituania (hirurek %1,6), Portugal (%1,5), Belgika (%1,4), Danimarka eta Frantzia (biek %1,2 dutela), Estonia (%1,1), Austria (%0,4), Italia (%0,8) eta Finlandia (%0,5). Grezia izan zen tasa negatiboa izan zuen Europako estatu bakarra (-%0,2).

Lan-merkatuek suspertzeko bideari eutsi zioten 2015ean. Langabezia-tasak beherantz jarraitu zuen, 2015eko laugarren hiruhilekoan %10,9an kokatzeraino, hain zuzen ere 2012ko hasieratik izan den tasarik txikiena. Alabaina, tasak bi digitu izaten jarraitu zuen hainbat estatutan. Zehatzago esanda, ondoko herrialdeek % 10 eta % 12 arteko tasa izan zuten: Frantziak, Eslovakiak eta Italiak. % 12 eta % 16 artekoa: Portugalek eta Ziprek. Eta honako hauek % 16tik gorakoa, hau da, EB28ko langabezia-tasa handienak: Kroaziak (%16,3) Espainiak (%22,1) eta Greziak (%24,9). Honako

herrialde hauek % 6,5 eta % 10 arteko tasa izan zuten: Errumaniak, Hungariak, Herbehereek, Suediak, Poloniak, Belgikak, Esloveniak, Lituania, Bulgariak, Finlandiak, Irlandak eta Letoniak. Tasarik txikienak, berriz, hauek izan zituzten: Alemaniakk (%4,6), Txekiar Errepublika (%5,1), Erresuma Batuak (%5,3), Maltak (%5,4), Austriak (%5,7), Estoniak eta Danimarkak (bietan % 6,2) eta Luxenburgok (%6,4).

Aldi berean, kontuan izan behar dugu ezen, "*Europako Banku Zentralaren 2015eko urteko txostena*"delakoaren arabera, euroguneko langabezia-tasa 2013ko erdialdetik hona murriztu bada ere, maila handienetan jarraitu zutela lan-merkatuko adierazlerik zabalenek (lanaldi partzialean nahitaez lan egitera behartuta dauden langileak eta lan-merkatutik irten diren langileak hartzen dituzten kontuan).

Lan-ekoizkortasunari buruzko datuak aztertuta, esan dezagun ekoizkortasun handieneko herrialdeak hauexek izan zirela: Luxenburgo (100eko 167,2), Irlanda (143,9), Belgika (129,4), Frantzia eta Austria (bietan 115,3), Danimarka (113,4), Herbehereak (112,5) eta Suedia (112). Euroguneko batez bestekoaren azpitik (107,7) baina 28ko EBko batez bestekoaren gainetik (100) hauexek ditugu: Finlandia (107,5) Italia (106,8), Alemania (106,3), Espainia (105,1) eta Erresuma Batua (102,2).

Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuaren arabera, inflazioa % 0,2koa izan zen Eurogunean 2015eko abenduan, 2014ko abenduaren aldean. Espainiako estatuan, berriz, -% 0,1ekoa izan zen.

Euroguneko Herri Administrazioen zorra ia estatu guztietan murriztu zen 2015ean, Frantzian, Kroazian, Italian eta Zipren izan ezik (horietan guztietan mantendu egin zen gutxi gorabehera). Lituanian, Austrian, Polonian, Finlandian eta Erresuma Batuan, berriz, gora egin zuen. %60ko atalasea ondoko herrialdeetan gainditu zuten: Malta (%63,9), Herbehereak (%65,1), Alemania (%71,2), Hungaria (%75,3), Eslovenia (%83,2), Austria (%86,2), Kroazia (%86,7), Erresuma Batua (%89,2), Irlanda (%93,8), Frantzia (%95,8), Espainia (%99,2), Belgika (%106), Zipre (%108,9), Portugal (%129), Italia (%132,7) eta Grezia (%176,9). Eurogune19an, BPGaren gaineko zor publikoa %90,7koa izan zen; 2014an, aldiz, %92koa izan zen.

Zor publikoa dela eta, Eurogune19an, BPGaren gaineko % 2,1ekoa izan zen 2015ean. Aurreko urtean, berriz, % 2,6koa izan zen. BPGaren %3ko muga herrialdeo gainditu zuten: Greziak (-%7,2), Espainiak (-%5,1), Portugalek eta Erresuma Batuak (bietan -%4,4), Frantziak (-%3,5) eta Kroaziak (-%3,2). Ondokoek -% 1,5 eta -% 3 arteko indizea izan zuten: Eslovakiak, Esloveniak, Finlandiak, Belgikak, Italiak, Poloniak, Irlandak, Bulgariak, Danimarkak, Hungariak, Herbehereek eta Maltak. Herrialde hauek 0 eta -% 1,5 arteko indizea izan zen: Letonia, Austria, Zipre, Errumania, Txekiar Errepublika, Lituania eta Suedia. Azkenik, Estoniak, Alemaniak eta Luxenburgok superabita izan zuten.

Espainiako ekonomia ardatz hartuta, EINen eta Espainiako Bankuak argitaraturiko informazioaren arabera, urte arteko %3,2ko batez besteko hazkundea izan zuen BPGak 2015ean, 2014koa baino %1,8 handiagoa eta 2007tik izandako handiena (%3,8). 2015eko laugarren hiruhilekoan, urte arteko %0,8ko hazkundea izan zen, hirugarren hiruhilekoaren berdina eta euroguneko herrialdeetako handiena.

Autonomia erkidegoei dagokienez, Valentziako Erkidegoak izan zuen hazkunderik handiena (%3,6), eta ondoren Madril (%3,4) eta Katalunia (%3,3). rkidego horiez gain, beste seik izan zuten BPGaren benetako hazkunde-tasa Estatuko batez bestekoa (%3,2) baino handiagoa. Honakoek, hain zuzen ere: Andaluziak, Uharte Balearrek, Gaztela-Mantxak eta Galiziak. Batez bestekoaren azpitik daude gainerakoak: Asturias, Murtzia eta EAE (hiruretan %3,1eko hazkundea), Extremadura eta Ceuta (biak %3arekin), Gaztela-Leon eta Nafarroa (%2,9arekin bakoitza), U. Kanariarrak eta Errioxa (bakoitzak %2,8 izan zuen), Aragoi eta Melilla (bietan %2,7), eta Kantabria (%2,6).

Biztanle bakoitzeko BPG izendatuari dagokionez, lehen erkidegoa Madril izan zen, biztanleko 31.812 euroko indizea izan zuela 2015ean. Horren ondotik, EAE (30.459 euro biztanleko) eta Nafarroa (28.682 euro biztanleko) ditugu. Beste muturrean, Extremadura (16.166 euro biztanleko), Melilla hiri autonomoa (17.173 euro) eta Andaluzia (17.263 euro) kokatu ziren, eta Estatuko batez bestekoa 23.290 euro.

EINen zenbatespenekin jarraituz, Eskari nazionala hazkundearen eragile nagusia dela finkatu da, BPGd-aren aurrerapenean %3,7ko ekarpena eginda, 2014an baino 2,1 puntu gehiago, kontsumo pribatuaren eta inbertsio produktiboaren dinamismoak bultzatuta. Kanpoko eskari garbiak, berriz, hazkunderako puntu erdi gutxiago izan zuen (-0,2 puntu aurreko urtean), inportazioak esportazioak baino gehiago hazi baitziren.

Kontsumo pribatuak urte arteko %3,1eko hazkundea izan zuen 2015eko amaieran, eta ondasun-ekipamenduen kapitalaren eraketa osoak urte arteko %6,4ko hazkundea izan zuen batez beste, 2014ko %3,5aren aldean, ondasun-ekipamenduen ondasunetako inbertsioaren aurrerakada handiagatik, %10,2koa, baita eraikuntzako inbertsioaren igoeragatik ere (%5,3), zazpi urtez jaitsierak izan ondoren. Bestelako faktoreek ere eragin dute igoera hori: beste eraikuntza batzuetako inbertsioaren susperraldiak eta etxebizitzako inbertsioa berriz ere eremu positibora ekartzeak zazpi urtez jarraian atzera egin ondoren (%2,4).

Kanpoko eskariari dagokionez, %5,4 egin zuten gora urteko batez bestekoan ondasunen eta zerbitzuen esportazioek, 2014an baino hiru hamarren gehiago. Bestalde, ondasunen eta zerbitzuen inportazioek %7,5 egin zuten gora urteko batez bestekoan, 2014an baino %1,1 gehiago. N

Eskaintza denaz bezainbatean, eta urte arteko kopuruetan eta bolumenean, bizkortu egin zen sektore guztietan: nekazaritzaren BEGa %1,9 hazi zen (-%3,7 2014an); industriakoa %3,4 (%1,2 2014an); eraikuntzakoa %5,2 (kopuru positiboetan sei urtez jarraian jaitsierak izan ondoren) eta zerbitzuetako %3,1 (%1,9 2014an).

Lan-merkatuari dagokionez, BPGd-aren bilakaeraren ildo beretik, %3koa izan zen LOPLko biztanleriaren batez besteko hazkundea 2015. urtean, Kontabilitate Nazionalaren arabera, 2014. urteko ratioa baino %1,9 gehiago. Soldatapekoen aurrerapena %3,4koa izan zen. Horrela, langile bakoitzeko itxurazko ekoizkortasunari dagokionez, esan behar da motela egin zela urtean zehar, lehen hiruhilekoko -%0,2tik laugarren hiruhilekoko +% 0,5era.

Bestalde, EINen Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI) agerian uzten du (16 urtetik gorakoen) langabezia-tasaren gorako joera, lehen hiruhilekoan 27,8 eta laugarren hiruhilekoan, berriz, %20,9 handitu dela. Urteko batez besteko %22koa da 2015ean (%24,4 2014an).

Autonomia Erkidegoei dagokienez, berriz ere behera egin zuen langabezia-tasak autonomia erkidego guztietan 2014 eta 2015 bitartean. Hauexek dituzte tasarik txikienak: Nafarroak %13,8, EAEk %14,8, Errioxak %15,4, Aragoik %16,3, Madrilek % 17,1, U. Balearrek %17,3 eta Kantabriak %17,7. Estatuko batez bestekoaren gainetik, ondoko erkidegoetan izan ziren tasarik handienak: Melilla (%34), Andaluzia (% 31,5), Extremadura eta Kanariak (bietan % 29,1), Ceuta (% 27,7), Gaztela-Mantxa (% 26,4), Murtzia (% 24,6) eta Valentziako Erkidegoa (% 22,8).

Ingurumari horretan, Espainiako ekonomiaren finantza-egoera hobetu zen munduaren gainerakoaren aldean. Izan ere, finantzatzeko ahalmena berreskuratu zuen. Ekonomiaren finantzaketa-ahalmena (superabita) 23.053 milioi eurokoa izan zen, hots, BPGaren %2,1.

Hala eta guztiz ere, Estatuko Administrazio Publikoek, guztira 54.965 milioi euroko defizita (behin-behineko datuak) izan zuten 2015ean; horren ondorioz, BPGaren ratioa % 5,9tik % 5,1era igaro zen 2014 eta 2015 urteen artean. Datuak bereizita, Administrazio Zentralak, autonomia-erkidegoek (AAEE) eta Gizarte Segurantzak defizita zutela itxi zuten ekitaldia, hurrenez hurren, % 2,6, % 1,7 eta % 1,3. Tokiko Korporazioek (TTKK), aldiz, %0,4ko superabita izan zuten guztira.

Diru-sarrerak direla eta zerga nagusietako zerga-bilketak, autonomia erkidegoen eta tokiko korporazioen partaidetza aintzat hartuta, hazkundea izan zuen (% 3,9). Bestalde, Estatuak onartutako obligazioak % 1,4 txikitu ziren.

Ondoko lerrootan, EAEko bilakaera ekonomia jorratuko dugu.

EUSTATen Jarduera Ekonomikoen Direktorioaren (JEGID) 2015eko azken datuen arabera, guztira 158.810 enpresa zeuden jardunean EAEn (lehen sektorekoak barne), eta guztira 843.816 pertsonari ematen zieten lana. Beraz, batez

besteko tamaina 5,3 lanpostukoa izan zen urte horretan enpresako. 2014 eta 2015 bitartean, %0,1 egin zuen behera enpresen kopuruak eta %0,6 enpleguak, baina beherakadaren ratioak txikiagoak ziren aurreko urteetakoak baino. Bakarrik 1.805 enpresak dituzte, enpresa guztien %1,1ek (2014an erregistraturiko ratio bera), 50 lanpostu edo gehiago, guztira 407.496, lanpostu guztien %48,3 (%48,1 2014an). Aldiz, 121.779 establezimendu, kopuru osoaren % 76,6, ez da iristen 3 lanpostura eta enplegu osoaren % 17,8 bakarrik hartzen dute.

Enpresa-errotazioari buruzko azterketak agerian uzten duenez, 2015eko urtarrilaren 1ean, enpresa-kopuruaren (lehen sektorekoak aintzat hartuta) jaitsieraren ondorio nagusia ondokoa izan zen: 17.690 enpresa hasi ziren jardueran data horretarako eta, 17.881 enpresak, berriz, itxi egin zuten. Hala, saldo garbia -191 da. Beste alde batetik, enpresak sortzeko tasa gordina, dena delako urteko enpresa sortu berrien kopurua zati aurreko urtean zegoen enpresa-kopurua, % 10ekoa da; itxitako enpresa-tasa, aldiz, % 11,1ekoa izan zen.

Azterketa sakonagoak erakusten duenez, 2010ean sortutako enpresen %45 baino ez daude martxan (14.944 orotara) bost urteren buruan (6.728). %55, berriz, desagertu egin dira.

Kontu Ekonomikoek erakusten dutenez, 2014an hasitako joerari eusten dio euskal ekonomiak 2015ean, eta 2015eko lehen hiruhilekoan urte arteko %2,2ko aldakuntza-tasa izan da. Laugarren hiruhilekoa, berriz, %3,1eko tasarekin bukatu zen. Hala, urte arteko batez besteko hazkundea, kopuru errealetan, %2,8 izan da (2014an izandako hazkundearen bikoitza eta 2007tik izandako tasarik handiena), eta haren BPGa, kopuru arruntetan, 68.723,5 milioi eurokoa da.

Lurralde historikoen arabera, BPGaren eboluzioa 2015. urtean, EUSTATen datuekin bat, positiboa izan da ere bai. Araban eta Bizkaian %2,8ko hazkundeak izan ziren bakoitzean, eta Gipuzkoan, berriz, %2,7koa.

Eskariaren aldetik, barne-eskariaren jokabidearen eraginez izan zen, funtsean, gure Erkidegoko jardueraren hazkundea; izan ere, %2,6 hazi eta 2,7 puntu dakarzkio BPGari, eta BPGaren %2,8ko hazkundearekin batera, kanpoko saldoak oso ekarpen urria izan zuen 2015ean (0,1 puntu), honekin batera doan grafikoan agerian gelditzen den bezala.

Alabaina, arestian aipatu dugunez, urtetik urterako hiruhilekoen tasak aztertuta, urteko azken hiruhilekoan motelaldia gertatu zen (%3,1etik %2,8ra igarota hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan). Bere bi osagaiek (gastua azken kontsumoan eta kapitalaren eraketa osoa) urteko zati horretan izandako bilakaera desberdinagatik gertatu zen motelaldia. Hala, herri administrazioen azken kontsumoari dagokion gastuak %2,9ko hazkundea izan zuen lehen hiruhilekoan, %3,3 bigarrenean eta hirugarrenean eta laugarrenean %3,1arekin bukatu zuen (haren urte arteko hazkunde tasa %3,1ean kokatu da). Bestalde, herri administrazioen azken kontsumoari dagokion gastuak %0,2ko hazkundea izan zuen lehen hiruhilekoan, bigarrenean %3,2 eta hirugarrenean %1,4 egin zuen behera. Laugarren hiruhilekoan, %1,8arekin bukatu zuen. Bestalde, Kapitalaren eraketa osoak goranzko jokabidea izan zuen urte osoan. Lehen hiruhilekoan, %1,3ko hazkunde-tasa izan zuen, eta laugarrena %2,6ko tasarekin bukatu zuen. Hala, urtearteko batez besteko tasa +%2koa izan zen, lehen ratio positiboa 2007. urteaz gero. Bereziki nabarmentzekoa da ondasun-ekipamenduen kapitalaren eraketa osoa, lehen hiruhilekoa %3,8ko hazkunde-tasarekin hasi eta laugarrenean %8,8koarekin bukatu baitzuen.

Kanpoko sektorearen bilakaeran, esportazioetan nahiz inportazioetan, urtetik urterako batez besteko aldakuntza negatiboa izan zen (-%0,2), noiz-eta aurreko urtean lehenbizikoek %3,6ko hazkundea izan zutenean eta bigarrenek %3koa. Alabaina, urteko profilaren azterketak bien aldakuntza positiboa erakusten du urteko azken hiruhilekoan; esportazioek %2,1 egin zuten gora eta inportazioek %1,6 2014ko hiruhileko beraren aldean.

Aduanen Erregistroetan oinarritutako Kanpoko Merkataritzaren Estatistikak atzerriarekin ondasunen kanpoko merkataritzari buruzko datuak eskaintzen ditu eta horiek kontuan hartuta, 2015. urtean esportazioen balio arrunta %1,3 hazi da; ez-energetikoetan (guztiaren %88,89 dira) hazkuntza %0,9koa eta energetikoetan %15,9ko jaitsiera izan da. Bestalde, %3 egin dute behera guztizko inportazioek, non energi inportazioen balioa (guztizkoaren %28,6) %29,7ko eta energiakoak ez direnean %14,4ko jaitsierak gertatu diren.

EAEko energiakoak ez diren esportazioen aduana-sarien taldeko azterketan agerian gelditu denez, lehenik eta behin ekipo-ondasunak nabarmentzen dira, esportaturiko guztizkoaren %44,4 (makinak, 4.624,6 milioi euro, eta garraio materiala, 5.134 milioi euro). Esportazioak %3,6 egin du gora, makinen eta aparatuen esportazioaren (%4,2) nahiz garraio materialaren gehikuntzagatik (%3,1). Bigarrenik, metal komunen eta haien manufakturen esportazioa da nabarmena, kopuru osoaren % 23,5ekin. Horren hazkundea % 2,7koa izan da. Hirugarrenik, plastikoen eta kautxuaren esportazioa nabarmentzen da, guztizkoaren %7,1; aldakuntza-tasa positiboa du (%,0,6). Energiakoak ez diren inportazioen aldetik, azpimarratzekoak dira metalak eta haien manufakturak. Horiek inportazio guztien % 23,7 hartzen dute, eta % 33 hazi dira, garraio materialean (% 50,3) nahiz makina eta gailuetan (% 27,7) izandako inportazioaren hazkundea dela eta. Bigarrenik, ekipo-ondasunak inportazio guztien % 21,3 dira, eta % 1,5 areagotu dira.

Kanpoko saldoa 5.133,6 milioi eurokoa da, BPGaren % 7,5.

Ondasun eta produktu energetikoen eta ez-energetikoen artean bereizita, esan daiteke saldo energetikoa defizitarioa (-2.360,2 milioi euro) izan zela. Aldiz, energetikoak ez diren produktuenak superabita erregistratu zuen, 7.493,8 milioi euro, BPGaren % 10,9, hau da, 2014. urteko ratioa (% 13,2) baino ehuneko 2,3 puntu gutxiago.

Lurralde historikoei dagokienez, EUSTATen arabera, bilakaera desberdina izan zen 2015ean. Horrela, Araban eta Gipuzkoan gora egin zuten esportazioek nahiz inportazioek, baina Bizkaian behera egin zuten. Hala, %1,7 hazi ziren esportazioak Gipuzkoan eta %0,2 Araban. Bizkaian, berriz, %4,5 egin zuten behera. Inportazioei dagokienez, %31,4 egin zuten gora Araban eta %11,1 Gipuzkoan. Bizkaian, ostera, %14,5 jaitsi ziren.

Eskaintzari dagokionez, benetako BPGa igo zen jarduera ekonomikoari lotutako sektore handi guztiek bultzatuta, eraikuntzak izan ezik (%0,0). Lehen sektoreak % 7,4ko aldakuntza positiboa izan zuen. Bigarrena zerbitzuen sektorea izan zen; horrek % 3ko hazkundea izan zuen. Beste alde batetik, industria-sektoreak bilakaera positiboa izan zuen, % 2,7koa, eta manufaktura-industria % 2,8 hazi zen. Azterturiko jarduera-sektore guztiek izan zituzten 2014an lorturikoak baino hazkunde-tasa handiagoak.

Hiru azpisektorek hartzen dute parte zerbitzuen sektorearen bilakaera positiboan (Gainerako zerbitzuak, Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa; eta Herri Administrazioa, Hezkuntza, Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak). Hala ere, zerbitzuen sektoreak, osotasunean, hazkunde txikiagoa erakutsi zuen laugarren hiruhilekoan hirugarren hiruhilekoaren aldean (%2,8koa, %3,2koaren aldean). Espainiako eta Europako susperraldiak, kostuen murrizketak, euroaren balio-galerak eta finantzabideak eskuragarriago egoteak mesedea ekarriko zioten industriari. Hiruhilekoen azterketak erakusten duenez, bilakaera positiboa ageri da urte osoan. Interesgarria da ikustea, erdiko hiruhilekoetan ez bezala (industria eta zerbitzuak antzeko abiaduran hazi ziren), laugarren hiruhilekoan industriaren balio erantsiaren hazkundea aurrekoak baino handiagoa izan zela. Eraikuntzaren sektoreak, bestalde, berriz ere beheranzko joera erakutsi zuen urte arteko kopuruetan. Izan ere, hiruhilekoen azterketan, beheranzko profila erakusten du.

Lanaldi osoan neurturiko lanpostu baliokidetan neurtzen den enpleguaren bilakaera, EUSTATen HKEren arabera, positiboa izan zen, %1,7ko hazkundearekin, 2015. urteko batez besteko gisa. Enpleguaren jokabiderik hoberena zerbitzuen sektorera bideratu zen, %2,5 hazita 2014ko batez bestekoaren aldean, eta lehen sektorean ere pixka bat gora egin zuen enpleguak (%1,1). Alderantziz, industriak (-%0,4) eraikuntzak (-%0,3) lanpostuak desegiten jarraitu izan dute.

Bestalde, EAEn benetan lan egindako orduko guztizko kostuek %0,1 egin zuten gora 2015ean; aurreko urtean, berriz, %1,9 jaitsi ziren. Estatuko batez bestekoak, aldiz, %0,6ko igoera izan du. Sektoreen arabera, %0,6 hazi zen eraikuntza EAEn; industria, berriz, %0,2, eta zerbitzuetan %0,1eko igoera gertatu zen. Kopuru absolutuetan, EAEko batez besteko kostua, 2015ean, 24,2 eurokoa da orduko, Estatuko 19,8€-ko batez bestekoaren aldean. EBn, EUROSTATen datuekin, EAEkoa baino handiagoa da batez besteko datua, 25€-koa (24,5€ 2014an), eta 29,5 euro gunean (29,1€ 2014an).

Lanaren itxurako produktibitateari dagokionez, %1,1eko hazkundea izan zuen 2015ean kopuru errealetan, hots, 2014an baino ehuneko hamarren bat gehiago. Bilakaeraren araberako azterketa barik mailaren araberako azterketak agerian uzten duenez (BPGarekiko, erosteko ahalmenaren eta langabeziaren arteko parekotasunaren arabera), EAEk 130eko indizea du eta, beraz, Estatukoa baino %22,9ko tasa handiagoa du eta EB28koa baino %30 handiagoa 2014. urtean.

Eduki teknologikoari dagokionez, EUSTATen datuen arabera, 2014an, aurreko urteetan bezala, lanposturik gehienak maila teknologiko ertain baxuko sektoreetan metatzen dira (industriako lanpostu guztien %47,5) eta ondoren maila teknologiko ertain handikoak (lanpostu guztien %25,9). 2008 eta 2014 bitartean gora egin zuen, lanpostuen kopuruan, maila teknologiko handiko eta ertain handiko sektoreen pisuak, baina behera egin zuen maila ertain txikiko eta baxuko sektoreenak.

Bestalde, eta aurreko urteetan bezala, 2014an, salmenta gehienak eduki teknologiko ertain baxuko sektoreetan egiten ziren (industriako sektoreko salmenten %45,4), eta eduki teknologiko ertain handiko sektoreetan (%22). Eta 2008 eta 2014 bitartean, behera egin zuen eduki teknologiko ertain txikiko sektoreekin lotutako salmenten pisuak, eta pixa bat gora egin zuten eduki teknologiko handiko sektoreetan gertaturikoek. Sektore ertain handietan eta txikietan, berriz, eutsi egin zitzaion pisuari, gorabeherekin bazen ere.

Inflazioari dagokionez, 2015eko abenduan, +%0,3koa izan zen azkenean kontsumoko prezioen indizearen urtetik urterako tasa, 2014ko abenduaren -%0,7aren aldean. Bestalde, urteko batezbesteko inflazioa -%0,3koa izan zen. Izan ere, lehen aldia da KPIren historia osoan (Euskadiren kasuan 1979an hasi zen) adierazle horrek urtea batez besteko negatiboarekin bukatzen duena.

Finantza-sektorearn, gordailu-erakundeek EAEn guztira emandako kreditua berriro ere murriztu zen 2015. urtean, 69.177 milioi eurotik 70.037 milioi eurora, hain zuzen ere (+%1,2). Hazkunde hori gertatu da Herri Administrazioei emandako kredituaren igoeragatik (+%10,5) nahiz sektore pribatuari emandakoengatik, baina azken horren igoera (guztizkoaren %90,5) txikiagoa izan da (+%0,4).

Finantza-erakundeetan jarritako gordailuei dagokienez, Herri Administrazioen jabetzapekoen guztizko saldoa 2.907 milioi eurokoa izan zen EAEn 2015. urteko abenduan, Espainiako Bankuaren Aldizkari Estatistikoaren datuen arabera. Kopuru horrek % 3ko hazkundea ekarri zion urte arteko tasari. Beste sektore egoiliar batzuetako gordailuak (BSE) 71.770 milioi euroan kokatu ziren, eta hori %3,3ko gutxikuntza izan zen aurreko denboraldiarekiko. Modalitateen (agerikoa, aurrezpena eta eperako) araberako azterketak erakusten duenez, ageriko gordailuek eta aurrezpen-gordailuek berriz ere egin zuten gora, %19,1 eta %16 hurrenez hurren. Eperako gordailuetan, berriz, beste jaitsiera bat izan da, %12koa hain zuzen.

Burtsari dagokionez, Espainiako Bankuaren Estatistika Buletinaren arabera, Madrilgo Burtsako urteko batez besteko kapitalizazioa, 663.027 milioi euro 2015ean, %3,8 hazi da aurreko urtearen aldean eta batez besteko kontratazio bolumena, 960.807 milioi euro, %8,7 igo zen 2015ean aurreko urtearekiko: Bestalde, IBEX-35 indizeak, arestian esana dugunez, urte arteko %7,2ko jaitsiera izan du (2015eko abenduan, 2014ko abenduaren aldean).

Bilboko Burtsaren 2000 indizeak 1.668 puntu izan zituen 2015eko abenduan, hau da, % 5,4 jaitsi zen aurreko urteko abenduko datuekin alderatuta. Bilboko Burtsaren kontratazio-bolumena (erosketak eta salmentak) % 4,5 hazi zen 2015ean, 7.926,3 milioi euro, alegia. Gehikuntza horren jatorria errenta aldagarria da (+%4,7), errenta finkoko kontratazioa %9,7 jaitsi baitzen. Kontratazio osotik % 38,9 erosketei dagokie; esan beharra dago % 4,5eko igoera izan dutela aurreko ekitaldiaren aldean.

Beste alde batetik, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren Kanpoko Inbertsioen Erregistroaren datuen arabera, atzerriko inbertsioa jaitsi egin zen EAEn 2014 eta 2015. urteetan, hain zuzen ere, 43,7, atzerriko balioen edukitza-

enpresen (ABEE) balioa kontuan hartu barik. Guztira, 793,7 milioi euro jaso zituen EAEk. Hala, 2015. urtean, EAEk hirugarren lekua hartu zuen berriro ere inbertsio-bolumenean, Madrilen atzetik (10.092,7 milioi euro jaso zituen, ABEEak kenduta) eta Kataluniaren atzetik (4.783,2 milioi euro jaso zituen). Sektoreen aldetik, bereziki nabarmentzekoak dira, inbertsioaren guztizkoan duten pisuagatik, hauexetan eginikoak: higiezinen arloko jarduerak; handizkako merkataritza, txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa; elikagaiak, edariak eta tabakoak; finantza-jarduerak; informazioa eta komunikazioak eta administrazio jarduerak eta zerbitzu osagarriak. Lurralde ikuspegitik begiratuz gero, inbertsioaren azken titularra bizi den herrialdea ELGAko herrialde batean kokatzen da kasuen % 67,4an, eta % 28,9an 15EBean (guztira 229,3 milioi euro) eta %25,4an AEBetan. Inbertsioen beste zati handi bat paradisu fiskaletatik dator (%29,5). Bereziki nabarmentzekoa da Mexikotik, Txinatik eta Afrikatik datozen inbertsioen hazkundea.

ABEEak kanpo utzita, atzerrian egindako euskal inbertsioak % 36 jaitsi ziren 2014 eta 2015. urteetan, 650,6 milioi eurotik 416,2 milioi eurora. EAE seigarren tokian dago autonomia erkidegoen rankingean atzerrian eginiko inbertsioagatik, hauexen atzetik: Madril (17.331,9 milioi euro), Katalunia (3.879,4 milioi euro), Galizia (1.100 milioi), Andaluzia (536 milioi) eta Kantabria (535 milioi). Sektoreen aldetik, nabarmentzekoak dira honako hauek: produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa; finantza- eta aseguru-jarduerak; informazioa eta komunikazioak; motordun ibilgailuen fabrikazioa eta beste garraio material bat; energia elektrikoa, gasa, lurruna eta aire egokitua eta eraikuntza. Herrialdeen arabera, hauexek izan dira EAEren inbertsioaren jomuga nagusiak 2015ean EB15ean: Alemania (164,1 milioi euro), Portugal (717 milioi euro) eta Frantzia (37,6 milioi). Eta EBtik kanpora: Mexiko (68 milioi) eta Brasil (23,6 milioi euro).

Ekoizpen-azpiegiturei gagozkiela, nabarmendu behar da Estatuko Erakunde Publikoek (AENA, ADIF, PORTUAK eta RENFE) ingeniaritza zibilean EAEn egindako adjudikazioek hazkunde esanguratsua izan zutela 2014 eta 2015. urteetan, RENFE erakundearen kasuan izan ezean. Horrela, Sustapen Ministerioaren datuen arabera, ADIF Estatuko Sozietate Publikoak (trenbide-azpiegituren administratzailea) ingeniaritza zibilean EAEn egindako inbertsioak igo ziren 2014 eta 2015. urteetan, 69 milioi eurotik 292 milioi eurora (EAEko abiadura handiko trenbideari dagozkion gainegituraren obra guztiak ADIF erakundeak gauzatuko ditu); bestetik, RENFE erakundeak egindako inbertsioak 5 milioi eurotik 1,6 milioi eurora igo ziren; AENA erakundearenak 1,4 milioi eurotik 8,3 milioira igo ziren eta, azkenik, PORTUAK erakundearenak 9,8 milioi eurotik 11,1 milioira igo ziren.

SEKTORE PUBLIKOA

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailaren "*Aurrekontuen Betearazpenaren Estatistika*"ren arabera, Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek 2015erako likidaturiko guztizko sarrerek (15.219,8 milioi euro) %0,3 igoera izan zuten aurreko urtearen aldean (+%2,1, 2014an 2013aren aldean), zeharkako zerga-bilketaren bilakaera positiboagatik; izan ere, %1,6 hazi ziren.Bi partida horiek Euskal Sektore Publikoaren diru-sarreren % 82,8 biltzen dute. Halaber, finantza-pasiboen aldakuntzak % 1,9ko igoera izan zuen, zorpetzea ere handitu zelako, Eusko Jaurlaritzarena (+% 2,1) nahiz hiru foru-aldundiena (+% 0,9).

Diru-sarreren %0,3ko hazkunde horrek bilakaera desberdina izan du administrazioen artean, zeren eta Eusko Jaurlaritzaren kasuan %0,1eko jaitsiera baita sarreretan (gehienbat zeharkako zergen jaitsieragatik). Foru Aldundiei dagokienez, berriz, %1,4 igoera izan zen (bilketa handiago horrengatik eta tasen eta transferentzia arruntengatik sarreretan izandako bilakaera positiboagatik).

Ondorioz, baieztatu daiteke Euskal Sektore Publikoaren Erkidegoko BPGd-aren gaineko diru-sarrerak 6 ehunen jaitsi direla: 2014ko %22,7tik %22,1era (behin-behineko datuak), BPGa sarrera publikoak baino gehiago hazi baita.

Zerga itunduen zioz bildutako kopuruak halakoek osatzen dituzte zuzeneko eta zeharkako sarrera gehienak eta guztizko sarreren % 90 behin-behineko datuetan oinarrituta, % 2,4ko hazkundea izan zuen 2015ean; aurreko urtean, berriz, % 4,8 igoera izan zuen. Laburbilduz, guztira 12.612,6 milioi euro bildu ziren, hots, EAEko BPGaren %18,4 2015.

urtean, behin-behineko datuen arabera (2014ko ratio bera). Bildutako zenbateko osotik, %36,8 PFEZri dagokio, %39,2 BEZari (kudeaketa propiokoa eta barne eragiketen eta aduenengatik eginiko doikuntzakoak), %8,2 Sozietateen gaineko Zergari eta gainerako %15,8 hainbat Zerga Bereziri.

Euskal Sektore Publikoaren guztizko gastua, 15.178,1 milioi eurokoa (tokiko erakundeen gastua aintzat hartu barik) % 1,9 igo zen 2015eko ekitaldian; aurreko urtean, berriz, %4,1 igo zen. Horiek horrela, kopuru horren EAEko BPGaren gaineko ehunekoa 6 hamarren hazi da, % 22,2tik % 22,1era. Gastuak bilakaera positiboa izan du bai Eusko Jaurlaritzan (+%1,1) baita foru aldundietan ere (+%2,4). Ondorioz, agregatuaren aldakuntzak indar gutxiago dauka (+%1,9), izan ere, diru partidetako batzuk erakundeen artean orekatzen dira (transferentzien zati bat, esaterako). Ondorioz, gastu publikoaren gure Erkidegoaren BPGd-aren gaineko ratioa % 19,7ari eusten zaio Foru Aldundientzat eta % 15etik % 14,8ra jaitsi da Eusko Jaurlaritzarentzat, BPGd-ak EAEn 2015ean izan duen bilakaeraren behin-behineko datuak kontuan izanik.

Euskal Sektore Publiko osoko (tokiko erakundeak kanpoan utzita) gastu kapituluetako aldakuntzarik garrantzitsuenek zenbait alde erakusten dute aurreko urteetakoekin alderatuz gero. Lehenik eta behin, 2014an baino neurri handiagoan hazi ziren gastuak (+%2 2015ean eta +%1,3 2014an), baina soilik Gobernuaren bilakaeraren zioz (+%2,4), zeren eta foru aldundietan jaitsiera txikia izan baitzen, %0,1 hain zuzen ere. Funtzionamendu gastuek (ondasunen eta zerbitzuen erosketari dagozkionak), bestalde, maila positiboetan jarraitu zuten, baina 2014an baino gutxiago hazita (%1,1 hazita 2015ean, aurreko urtean +%2,7 igo ondoren). Izan ere, murriztu egin zen 2012 eta 2013 bitartean. Era berean, gora egin zuten zorpetzearen ondoriozko gastuek, finantza-pasiboen bilakaeraren dela medio (zorpetzearen amortizazioa), %26,7 hazi baitziren. Gobernuaren partidaren bilakaeragatik gertatu da datu hori (+%43), zeren eta Foru Aldundietan, aurreko ekitaldietan bezala, zifra negatiboa baita (-%3,4).

Bestalde, 2016ko maiatzean eguneraturiko 2015eko "*EAEko Aurrekontu Orokorren betearazpena*" delakoaren arabera, behin betiko likidazioa egiteke dagoela, Eusko Jaurlaritzaren gastua %4,7 hazi zen 2014ko ekitaldian betearazitako gastuaren aldean, aurreko urtean %9,6 hazi ondoren. Gastu bolumena aintzat hartuta, bi sail nagusiek Hezkuntza, Hizkuntza Politika Kultura Saila (gastu osoaren % 26,4) eta Osasun Saila (% 31,7) izaten jarraitzen dute. Lehenengoa % 2 jaitsi zen eta bigarrena, aldiz, % 1,2 hazi zen, 2014ko ekitaldiko tasaren aldean. 2015eko gastu osoa 10.700,3 milioi eurokoa izan zen, eta kopuru hori gure Erkidegoko BPGaren gaineko % 15,6ekoa izan zen urte horretan, behin-behineko datuen arabera.

2015ean Euskal Sektore Publikoaren (Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak) diru-sarrera arruntak % 1,5 hazi dira; izaera bereko gastuak, aldiz, % 2,3; horrek aurrezki gordina % 11,3 edo 1.048 milioi euro gutxitzea eragin du, 689,7 milioi euroraino. Hots, gure Erkidegoko BPGaren %1 (behin-behineko datuak). Gainera, 293,2 milioi euroko defizit publikoa (finantzaketa premia) erregistratu da (BPGd-aren % 0,4); izan ere, gastu ez-finantzarioek (arruntak gehi kapitalekoak) izaera bereko diru-sarrerak gainditzen dituzte. Aurreko ekitaldian, defizita 828 milioi eurokoa izan zen; beraz, % 47,8ko murriztapena egon da.

Halaber, 2015eko Aurrekontu Burutzapenaren Estatistikak agerian utzi duenez, EAEren sektore publikoaren zorpetze garbia (Eusko Jaurlaritza gehi foru aldundiak) %25,8 egin du behera aurten, aurreko ekitaldian %-37,8 jaitsi ondoren. Beste alde batetik, zorpetze gordinak % 1,9ko igoera txikia izan zuen 2015ean eta 1.428,9 milioi euroraino heldu zen. Horien artetik, 1.163 milioi euro Eusko Jaurlaritzari dagozkio (+%2,1, 2014 urtearekin alderatuta) eta gainontzeko 265,9 milioi euro foru aldundiei (+% 0,9).

Ondorioz, ekitaldiaren amaieran Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek 10.667,6 milioi euroko bolumena duen zorra agertu dute, 2014an baino % 4,8 gehiago. Kopuru hori BPGd-aren % 15,5 da, behin-behineko datuen arabera (% 15,7 2014an). Beste urte batez, Eusko Jaurlaritzari dagokio zorraren zatirik handiena (zor guztiaren %80,4, %79,6 aurreko urtean).

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA. LABURPENA

I+G+b jarduerak

EUSTATen arabera, 2014an 1.298,8 milioi euro (2013an baino -% 2,1 gutxiago) inbertitu zituzten I+G jardueretan EAEn. Lurralde historikoak kontuan hartuta, Arabak gastuaren osoaren % 13,2 egin zuen, Bizkaiak % 47,2 eta Gipuzkoak % 39,6. Intentsitate terminoetan, 594,8 euroko per capita gastua da, 2013ko 605,2 euro baino gutxiago; eta esfortzuaren terminoetan, BPGren % 1,93, hots, beste igoera bat aurreko urtearen aldean.

EINek EAErako bildutako esfortzua, 2014an, BGPren % 2,03 izan zen, estatuko batez bestekoa baino handiagoa.

Iturria edozein delarik, eurogunean izandakoa baino txikiagoa da esfortzua, % 2,11, eta arlo horretako erreferentziako herrialdeen azpitik: Finlandia (% 3,17), Suedia (% 3,16), Danimarka (% 3,08), Austria (% 2,99), Alemania (% 2,84) eta Frantzia (% 2,26).

Enpresek[1] egin zuten gastuaren % 75,1, eta % 18,4 goi mailako irakaskuntzari dagokio. Gainerako % 6,5a administrazioaren menpeko hainbat erakundek gauzatu zuten. Egitura hori ez dator bat estatuan dagoenarekin. Hona hemen portzentajeak: % 53,7, % 28,3 eta % 18,9.

Gastu horren finantzetari dagokionez, behera egin zuen pixa bat sektore pribatuaren partaidetzak 2013 eta 2014 bitartean, % 0,4, eta guztira % 56,7 da. Administrazioak % 32,6 finantzatzen du, hots, murrizketa gertatu da 2013ko datuen aldean (kasu honetan, % 2,3 gutxiago). Estatuan, EINen datuen arabera, sektore pribatuak % 46,4 finantzatzen du eta administrazio publikoak, berriz, % 41,4. Eurogunean, EUROSTATen arabera, 2012an, % 56,7 eta % 33,3 ziren.

Aldi berean, sektore pribatuak eta sektore publikoak finantzaturiko I+G jarduera BPGren % 1,1 eta % 0,6 dira hurrenez hurren, noiz-eta Europak 2020rako ezarritako helburuak % 2 eta % 1 diren.

Lanaldi osoko langileen kopurua % 1,4 zen 2013koarekin alderatuta. Sexuen araberako azterketak agerian uzten duenez, jarduera horietako langile guztien % 35,2 baizik ez dira emakumeak (% 35,6 aurreko urtean).

Berrikuntza-prozeduretan errendimendu gisa sortutako jabetza intelektualeko eskubide moduri dagokienez, Beste lurralde eremuekin erkatuta, hauxe ondoriozta daiteke: 1,48 adierazlea duela EAEk BPGko bilioi bakoitzeko PCT patenteen eskarietan[2] (EAP eurotan), 4,51 adierazlea PBGko bilioi bakoitzeko EBko merkataritza-marketan (EAP eurotan) eta 0,7koa PGBko bilioi bakoitzeko (EAP eurotan) EBko diseinuetan. Beraz, estatuko batez bestekoen (1,57/7,16/0,79) eta 28ko EBkoen (3,78/5,83/1,13) azpitik dago eta urrutik erreferentziako herrialdeetatik.

I+G arloan eginiko gastuetan, estatistikako beste erakunde batzuen moduan, enpresen sektorearen barruan sartzen ditu EUSTATek zentro teknologikoak, baina bi erakundeak banatuz gero, 2013 eta 2014 bitartean gora egin zuen I+G arloko gastua egiten duten enpresen kopuruak (1.537tik 1.612ra), baina behera egin zuen azken horiek I+G arloan eginiko gastua, %1,6 (793,3 milioi eurotik 780,2 milioi eurora).

Aldi berean, I+G egiten duten euskal enpresen batez besteko tamaina (78 langile) nabarmen handiagoa da euskal enpresa guztien batez besteko tamaina (5 langilekoa da).

---

[1] *Frascati Eskuliburuko metodologiaren arabera, finantziazio publiko baino pribatu gehiago jasotzen duten zentro teknologikoak enpresen sektorean sartu behar dira. Eskuliburua, "Ikerketa eta garapen esperimentaleko inkestetarako arau praktiko baten proposamena", ELGAren proposamen bat da eta gaur egun eredutzat hartzen dute zehazteko zer jarduera diren ikerketa-arlokoak eta zer jarduera diren garapen-arlokoak.*

2 Patenteen Lankidetza Ituna.

Bestalde, 189,6 M€-ko gastuak egin ziren I+G arloan euskal zentro teknologikoetan eta, beraz, berriz ere murriztu ziren gastuok (% 2,6 2013aren aldean), baina egonkor eusten zion EAEko I+G arloko guztizko gastuaren aldean duen pisu erlatiboari (% 14,7 inguru). Enpresek sektoreak finantzatu du gastu horren % 41,1, eta bigarren finantzabide nagusia administrazioa da, % 31,7 hain zuzen ere.

UPV-EHUko ikerkuntzari dagokionez, *Ikerketa taldeak*[3] partida kenduta ikusten denez, gora egin zuen UPV-EHUk ikerkuntzan eginiko jarduerak 2013 eta 2014 bitartean, 46,9M€-tik 47,4 M€-ra (+% 1,1). Zatirik handiena, % 41,5 (19,9 M€), ikerkuntza-proiektuei dagokie, eta ondoren pertsonala prestatzeko funtsak (% 27, 12,9 M€) eta Unibertsitatea Antolatzeko Legearen 83. artikuluaren itzalpean izenpeturiko kontratuak, hain zuzen ere funts guztien % 17,8 (8,5M€). Urrunago daude ikerlariak edota teknikariak kontratatzeko funtsak, guztizkoaren % 7,9 baitira.

Berrikuntzako jarduerei dagokienez, EUSTATen "*Berrikuntzari buruzko Inkesta"*en arabera[4], 2012-2014ko aldian berritzaileak ziren enpresen % 16,5 (2011-13 aldean baino 2 hamarren gutxiago). Enpresen %12,2k berrikuntza teknologikoa zuen eta berrikuntza EZ teknologikoak, berriz, enpresen % 9,5. 9 langiletik gorako enpresak soilik hartzen baditugu aintzat, % 34,5eraino igotzen da ratioa: %27,5 berrikuntza teknologikoari dagokio eta %20,5 berrikuntza EZ teknologikoari.

Berrikuntza teknologikorako jardueren guztizko gastua berriz ere jaitsi zen 2014an aurreko epealdiaren aldean (-% 3,5), hots, 2.474 M€ euro guztira, BPGren % 3,7 hain zuzen ere. Soilik 9 langiletik gorako enpresak hartzen baditugu kontuan, 2.067,7 M€-ko gastua da, aurreko urtean baino % 5,9 gutxiago, eta guztira PBGren % 3,1 da.

"*Europako Berrikuntza-adierazleen Panela, 2015"* delakoak berretsi egiten ditu arestian esandakoak, zeren eta EAEko adierazle sintetikoaren balioa 28ko EBko batez bestekoa (0,56an kokatua) baino 0,50 txikiagoa baita, eta hiru hamarrenera dago berrikuntza altuko herrialdeen taldeko beheko aldetik (Holanda, Luxenburgo, Erresuma Batua, Irlanda, Belgika, Frantzia, Austria eta Eslovenia, 0,65 eta 0,53 bitarteko puntuazioekin).

Azkenik, KITP-2020aren balantzeari dagokionez, Lehendakaritzaren arabera, Plana abiarazi zenetik urtebetera:

- Hauexetan lortu dira helburuak: produktu berrien salmenten portzentajea fakturazioan, atzerriko I+G+b-ren finantzazio portzentajea, euskal finantzazioaren portzentajea esparru-programako funts guztien gainean eta nazioarteko urteko finantzazio pribatuan.

- Bilakaera positiboa da hauexetan: I+G+b jardueren nahasketa (funtsezko ikerkuntzaren %/ industri ikerkuntzaren %/ garapen esperimentalaren %), indexaturiko argitalpen zientifikoak, EPO patenteen eskariak, I+G jarduerak egiten dituzten enpresen ehunekoa guztizkoaren gainean, doktoreen ehunekoa ikerlari guztien gainean.

- Bilakaera urrun dago honako hauetan ezarritako helburuetatik: lehenbiziko kuartilean indexaturiko argitalpenen ehunekoa eta 10 langile baino gehiago dituzten enpresa berritzaileak guztizkoaren gainean.

Gastuari dagokionez, azkenean 2014an egin ziren gastuak baino handiagoak izan ziren 2014rako eginiko zenbatespenak, salbu eta kanpoko funtsekin (Europa eta Nazioartea) finantzaturiko gastuan.

[3] *Analisia egiten hasi aurretik, komeni da kontuan hartzea ikerketa-taldeen deialdia hiru urtean behin egiten duela Eusko Jaurlaritzak eta, beraz, jarduera horien zenbatekoak hiru urtetik hiru urtera gora egiten duela asko. Ondorioz, urtetik urterako analisia egiteko ikerketa-taldeei dagokien zenbatekoa kentzea komeni da.*

4 Edozein tamainatako eta edozein jarduera-sektoretako establezimenduentzat, lehen sektoretakoentzat izan ezik, elkarteen jardueretarako, etxeko jardueretarako eta lurraldez kanpoko erakundeen eta antolakuntzako jardueretarako. Hots, Jarduera Ekonomikoen Nazio Sailkapenaren arabera (CNAE-2009 2. berr.), salbu eta jarduera nagusia 01-03, 84, 94, 97, 98 eta 99 dibisioetan dituzten establezimenduetarako.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietako ekipamenduak hedatuz doaz orain ere euskal etxeetan, baina ez modu berean eta intentsitate berarekin.

2015eko lehen hiruhilekoan, EAEko etxeen % 70,6k zuen ordenagailua, EUSTATen arabera, hots, 15 urteko eta gehiagoko biztanleen % 78,4k. Interneteko atzipenari dagokionez, familien % 70,2k zuen zerbitzu hori beren etxebizitzetan (2014ko epealdi berean baino % 3,8 gehiago). Aldi berean, sareko konexioa duten 15 urteko eta gehiagoko biztanleen kopurua %3,5 hazi zen 2014ko lehen hiruhilekoaren eta 2015eko lehen hiruhilekoaren artean, eta % 78an kokatu zen.

EUSTATen "*Informazioaren Gizartearen Egoera Euskadin 2015*" txostenaren arabera, interneteko konexioa ez dutenen profila egin behar izango bagenu ezaugarri soziodemografikoen arabera, bakartuta bizi diren pertsonak direla esango genuke, 55 urtekoak eta gehiagokoak, ikasketa maila txikikoa eta lanik edo jardunik gabe. Ildo horretan, nolabaiteko talde kaltetuak daudela esan genezake informazioaren eta komunikazioaren teknologiei dagokienez. Interneteko konexioa duten pertsonen profila hau litzateke: ikaslea da, 35 urtetik beherakoa, eta maila ertaineko eta goi-mailako ikasketak ditu.

Horrela, etxeetan dauden eta/edo biztanleek erabilgarri dauzkaten IKTen ekipamenduak gero eta gehiago dira, nahiz eta, adierazle batzuetan, Europako batez bestekoen zerbait azpitik egon, kasurako, Interneterako sarbidea daukan 16 eta 74 urte arteko kide batek gutxienez osatutako etxebizitzen ehunekoa (% 81 eta % 83 2015ean), baina tartea ixten ari da azken urteetan.

Internet bidez egin daitezkeen jardueratik, gehienbat erabiltzen dena posta elektronikoa da (% 89,9), ondoren WhatsApp eta mezuak bidaltzeko beste aplikazio batzuk (% 79,5), hedabideak begiratzea (% 77,0) eta ondasunei eta zerbitzuei buruzko informazioa bilatzea (% 60,3).

Transakzio elektronikoei dagokienez, EUSTATen datuen arabera, internetez (azken hiru hilean) erosi duten erabiltzaileen ehunekoa igo egin zen 2015ean, hain zuzen ere % 8,2. (internauten % 41,7tik % 49,9ra). Horrek esan nahi du 15 urte eta gehiagoko biztanleen % 35ek erosketaren bat egin zuela bide hori erabilita 2015ean. Gehien erosi ziren ondasunak bidaiak eta oporretako ostatuak ziren (% 62), kirol-materiala eta arropa (% 57,7) eta ikuskizunetako sarrerak (% 49,4).

EUSTATen "*Informazioaren Gizarteari buruzko inkesta. Enpresak*" txostenak erakusten duenez, ekipamendurik hedatuenak orain ere telefono mugikorra (% 89,8)[5] eta ordenagailua (% 86,1) dira, eta ondoren (% 84,1) eta posta elektronikoa (% 83,8). Jarduera-sektoreen arabera, industri sektoreko enpresek dute ezarpen teknologikoko mailarik altuena, eta ondoren zerbitzuen sektoreko enpresak eta eraikuntzako enpresak datoz.

Azterturiko ekipamendu guztietan ageri da industri sektorearen zuzkidura teknologiko handiago hori, telefono mugikorrean izan ezik, non telefono mugikorra duten establezimenduen portzentajea nagusi den, baita eraikuntzan industrian eta zerbitzuetan ere.

Enplegua estratuen arabera aztertuz gero, ikusten da azken urteetan aldeak murriztuz joan direla; EAEko enpresen ekipamendu-maila nagusiki tamainaren araberakoa da, batik bat ekipamendu oinarrizkoenetan. Izan ere, 10 langile edo gehiagoko enpresetako IKT ekipamenduen portzentajea, oro har, enpresa txikienetakoa baino handiagoa da.

Hala eta guztiz ere, software arloko inbertsioari buruzko datuak kontuan hartzea komeni da. Izan ere, azken urteetan arlo horretako inbertsioak behera egin du, eta horrek lotura zuzena du gure gizarte- eta ekoizpen-sareak egoki bilakatzeko eta 4.0 industriaren moduko ekoizpen-ereduetarako bidea arrakastaz egiteko duen gaitasunarekin.

[5] *Urteko lehen hiruhilekoan biltzen da informazioa eta, hortaz, erabilerari dagokion aldia aurreko urteko azken hiruhilekoa da. Informazioa bildutako urtea utzi da.*

Web guneetan ematen diren prestazioak aztertuz gero ikusiko dugunez, hona hemen ohikoenak: enpresari buruzko informazio orokorra eskuratzea (establezimendu guztien % 99,1 eta 10 langile edo gehiagoko enpresen % 99,6), ondasunen eta zerbitzuen katalogoa edo zerrenda edukitzea (% 65,5 eta % 66,7, hurrenez hurren) eta informazioaren pribatutasun-adierazpena izatea (% 60,9 eta % 68,9). Ondoren, ehuneko txikiagoarekin bada ere, hedabide sozialetan enpresen profiletarako estekak dituztenak daude (% 33,1 eta % 37,1), eskariak on-line jasotzea edo erreserbak egitea ahalbidetzen dutenak (% 22,1 eta % 22,9) eta lan-eskaintzak argitaratzen dituztenak (% 20,6 eta % 37,1).

EUSTATen arabera, hazten jarraitzen du merkataritza elektronikoak EAEko enpresa-sarean, eta zenbakietan salmentak erosketak baino handiagoak badira ere, partaidetzaren aldetik askoz handiagoa da bitarteko elektronikoak erabiliz produktuak erosten dituzten establezimenduen kopurua salmentak egiten dituztenena baino.

Establezimenduen tamainaren arabera, 10 lanpostu eta gehiagoko enpresen artean, % 28,8 da (% 24,8 kopuru globaletan) merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduen portzentajea; gehiago dira erosketa elektronikoak egiten dituztenak (% 25) salmentak egiten dituztena baino (% 10,8).

Emaitza horiek agerian uzten dutenez, EUROSTATen eta EUSTATen arabera, salmentak on-line egin zituzten 10 langileko eta gehiagoko enpresen portzentajerik handiena da 28ko EBn eta eurogunean EAEn baino (% 15 eta % 10,8); online erosi zuten enpresen portzentajea (eskarien % 1 gutxienez), berriz, handiagoa da EAEn 28ko EBn eta eurogunean baino (% 25 EAEn, eta % 22 28ko EBn eta eurogunean).

EUSTATen "*Informazioaren Gizartearen Egoera, 2015*" txostenaren arabera, azken urteotan igo egin da administrazioarekin izapidetze elektronikoa eskatzen duten enpresen kopurua. Hala, 2009etik 2015era honako igoera izan da interneten bidez izapideok egiten dituzten enpresetan: % 59,8tik % 67,7ra. Ehuneko horiek altuagoak dira 10 langile edo gehiago dituzten enpresak kontuan hartzen baditugu (% 82,2tik % 93,1era).

Enpresek administrazioarekin egiten dituzten izapide motei dagokienez, nabarmentzekoa da informazioa lortzea (establezimenduen % 55,3 eta 10 langile edo gehiago dituztenen % 83,5), inprimakiak eta formularioak eskuratzea (% 53,2 eta % 80,5, hurrenez hurren), inprimakiak eta formularioak itzultzea eta betetzea (% 40,1 eta % 69,2, hurrenez hurren), zergak aitortzea, sozietateen gainekoa eta BEZa, kotizazio sozialak aitortzea eta administrazio-prozedurak izapidetzea.

Administrazio elektronikoak Informazioaren Gizartearen eragilea den aldetik duen eskaintzari dagokionez, EAEko herri erakundeek 2014. urtean eskainitako prozedura eta izapide publiko elektronikoen % 39,8k (2013an, % 40,8) 4 motako sofistikazio maila dute, guztizko izapidetze elektronikoa, % 35,2k (% 33,9k 2013an) 2 motako sofistikazio maila eskaintzen du, formularioak deskargatzea eta % 21,8k (% 23,6k 2013an) 1. maila du, informazioa. Datuak on-line sartzeko posibilitatea nahikoa murriztua da (% 3,2).

Erakunde publiko motaren arabera bereizita, udalak nabarmentzen dira gainerakoen gainetik; izan ere, prozeduren eta izapideen eskaintzaren % 59,4 biltzen dute (% 57,4 2013an). Bigarren tokian aldundiak daude (eskaintzaren % 15,6) eta hirugarren tokian Eusko Jaurlaritza, % 15,4 (guztizkoaren % 13).

8.2. CONSIDERACIONES

EAE-KO EGOERA EKONOMIKOA ETA KANPOKO TESTUINGURUA

Azaldutako egoerak agerian uzten duenez, ziurgabetasun maila handia da une honetan **nazioarteko abagune ekonomikoaren ezaugarri nagusia**. Hona hemen gure ustez aintzat hartu beharreko zenbait alderdi:

Munduko hazkundeak indarra galdu zuen honako hauek eragindako testuinguruan: tirabira geopolitikoek, lehengaien prezioen jaitsierak, munduko merkataritzaren ahuleziak, ekonomia hasiberrien hazkundearen gaineko ziurgabetasunak eta, bereziki, Txinako ekonomikoaren motelaldiak, jarduera ahultzeak 2015eko amaieran ekonomia hasiberrietan eta finantza-turbulentziak areagotzeak.

NMFren arabera, merkatu hasiberrietako ekonomikoetako inbertsioen hazkunde txikiagoarekin du zerikusia nazioarteko merkataritzaren motelaldiak.

Aldi berean, Erreserba Federalak interes-tasak normalizatzeari ekin zion abenduan. Europako Banku Zentralak, berriz, ekonomia suspertzeko neurri gehiago iragarri zituen, eta horrek alde nabarmena dakar bi banku zentralen moneta-politiken artean.

Bestalde, hazkundearen susperraldia gero eta gehiago, antza denez, herrialde hasiberrien eta garapen bidean diren herrialdeen araberakoa denez gero (zeren eta ekonomia aurreratuen hazkundea txikia izango dela aurreikusten baita), bereziki nabarmentzekoa da (kezkagarria delako) petrolioa esportatzen duten herrialdeek ingurune makroekonomiko zailari egin behar diotela aurre; izan ere, ingurune horren ezaugarri nagusia truke ahula eta kanpoko finantzen egoera okerragoa baita (izan ere, Brasil eta Errusia atzeraldi sakonetan daude murgilduta). Gainera, Txinako ekonomia orekatzeko prozesua hasieran espero zena baino motelago doa.

Euroguneko kasu zehatzean, eta 2013ko bigarren hiruhilekoan hasitako susperraldiak 2015 osoan jarraitu bazuen ere, nabarmendu behar dugu inbertsioa geldiarazi egin zela egokitzapen eta erreforma estrukturalen ondorioz. Hori guztia kezkagarria da etorkizunari begira, kaltegarria baita hazteko ahalmenerako.

2014an gertatu bezala, bereziki nabarmentzekoa da **Espainiako Estatuan** aurreikusten den egoera. Izan ere, nazioarteko ziurgabetasun testuinguru horretan, Espainiako ekonomiak hedapenaren bidetik jarraitu du, eta euroguneko hiruhilekoen arteko hazkunderik handienarekin bukatu zuen 2015eko laugarren hiruhilekoa.

Nazio eskaria indartzearen ondorioz ere areagotu da hazkundea, baina eurogunean gertatu ez den bezala, ez soilik kontsumo pribatuagatik, baizik eta ekoizpen-inbertsioagatik ere bai.

Enplegua sortzeak, zergak jaisteak eta inflazio-presiorik ez izateak bultzatu dute lehenbizikoa, hots, kontsumo pribatuak, baita interes-tasa txikien inguruak eta finantzazio-baldintzen hobekuntzak ere. Bestalde, inbertsioak areagotu egin dira ekipamendu-ondasunen inbertsioen aurrerapenagatik eta eraikuntzako inbertsioaren igoeragatik. Izan ere, eraikuntzak gora egin du zazpi urtez jarraian behera egin ondoren.

Alabaina, ez da komeni alde batera uztea gaur egun hazkundea ahuldu dezaketen faktoreak, edo are gehiago, hazkundea geldiaraz dezaketenak, hots, nazioarteko egoera, bereziki finantza-merkatuen hegazkortasuna areagotzen ari diren eta merkataritza-fluxuetan eragina izaten ari diren faktore geopolitikoak. Espainiako Estatuari gagozkiola, berriz, ziurgabetasun politikoa, zor publiko handiegia eta xedeko ekoizpen-eredu zehatzik ez izatea edo horren gaineko apustu argirik ez edukitzea; eta ideia hori sakonduz, apustu zientifiko teknologikoak; prestakuntza-trebakuntzaren aldetik, egituraren aldetik eta enpresen tamainaren aldetik dauden beharren balorazioa, etab.

EAEri dagokionez, abagunearen gaineko informazioa ikusita berretsi egiten da jarduera ekonomikoaren hazkundea gertatzen ari dela, eta horren eragileetako bat barne-eskariaren bilakaera positiboa ere bada, zeren eta kanpoko saldoak ekarpen oso txikia egiten baitio BPGari.

Alabaina, ezohiko kanpoko faktoreek bultzatzen dute egoera hori, baina ez dute zertan berriz ere gertatu. Izan ere, urteko azken hiruhilekoan motelaldia gertatu da eskariaren hazkundean, eta horrek aurreikuspena egiteko modua eman dezake, hots, etorkizuneko hazkunderako erritmoak antzekoak edo txikiagoak izan litezkeela.

Pozgarri zaigu da ikustea Kapitalaren Eraketa Osoak ez duela eragin motelaldia eta, bereziki, ondasun-ekipamenduen kapitalaren eraketa osoak: hedapenerako joera erakutsi du urte osoan (hala ere, hiruhilekoen arteko benetako aldakuntza-tasan nolabaiteko motelaldia ageri da laugarren hiruhilekoan); eta bat dator industriaren sektorearen bilakaera onarekin. Izan ere, hoberantz egin du Espainiako eta Europako susperraldiak, hain zuzen ere kostuen murriztapenak, euroaren balio-galerak eta finantzazioa eskuratzeko erraztasun handiagoek eraginda.

Kontuan izan behar dugu, dudarik gabe, industriaren nagusitasunarekin batera, sormenarekin, osasunarekin, hezkuntzarekin eta informazioarekin eta komunikazioarekin loturiko sektoreak indartsu ari direla sortzen. Eta arreta jarri beharra dago aldaketa horietan, zeren eta errentak eta enplegua sortzeko balizko "eremu berriak" erakusten baitituzte. Aldi berean, automatizazioa eta digitalizazioa gure industrian "ekoizpen-eredu" gisa ezarri ahala, gero eta eragin handiagoa du enpleguan. Hala, enplegua aldatzen du alde kuantitatibotik eta kualitatibotik.

Azaldutako guztia dela eta, badirudi egoera hobetzen ari dela, baina aurreratzen jarraitu ahal izateko, komenigarria izango litzateke esportazioak indartzea eta arreta berezia jartzea atzerriko inbertsioan, batez ere alde kualitatibotik:

Esportazioen bilakaera ikusita, badirudi areagotu egin behar direla euskal ekonomikoak duen lehia-posizioa indartzeko ahaleginak; izan ere, kaltetu egin litezke egun onuragarriak diren kanpoko faktoreen balizko desagerpenarekin, euroaren balio-galeragatik eta petrolioaren prezio baxuengatik adibidez.

EAE estatu mailako batez besteko errenta, lan kostu eta produktibitate maila baino maila altuagoko lurralde bat da, eta lehiakortasuna berrikuntza eta nazioartekotzea bezalako faktoreetan fokalizatu behar da.

Aldi berean, ohartarazpen hau egin nahi dugu: hazkunde-tasa horiei eutsi ahal izateko, gure enpresen tamaina aintzat hartu beharra dago ezinbestean, zeren eta bere lehia-ahalmenaren egiturazko ezaugarri erabakigarrietako bat baita, eta horren gainean ez da gogoetarik egin behar, jardun baizik.

Enpresen tamaina batzuetan txikiegia da, eta horrek enpresen berrikuntzarako eta nazioarteratzeko prozesuak geldiaraz ditzake. Ikuspegi horretatik, gero eta handiagoa da enpresa desberdinen arteko lankidetza estrategien beharra.

Esana dugunez, Helburu estrategiko hori lortzeko, politika publikoek, funtsean, enpresa-bilbea berreskuratzen jardun beharko lukete, batik bat, berrindustrializazioa sustatzen. Horretarako, krisialdiaren aurreko garaian, industria-sektoreak BPGn zeukan kuota berreskuratzea izan beharko litzateke jomuga.

Erronka horrek berebiziko garrantzia dauka euskal gizartearen ongizate-mailaren kotari eusteko, eta erronka lortuko badugu, erakunde publiko eta pribatuen arteko lankidetzan oinarrituta, baliabide eta neurri eraginkorrak behar ditugu, euskal ekonomiaren berrikuntza eta garapen teknologikoa areagotzeko Euroguneko ereduzko herrialdeen parean. Aurreikusitako susperraldi-ingurumarian, industriaren espezializazioa eta kalitatezko enpleguaren sorrera ardatz hartuta, badirudi ezinbestekoa dela EAEko balio erantsi gordinaren maila teknologikoaren inguruko jauzia egitea; ildo horretan, azpimarratu behar dugu batez besteko maila teknologikoak ere beheranzko bilakaera daukala.

Horren ondorioz, teknologiko maila ertain-baxuetan fikatzen da euskal industria, baina hobetzeko profil nabarmena du, baldin eta 2020ko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planarekiko sinergia egokiak ezarten badira, maila teknologiko altuetan kokatzeko.

Beste alde batetik, EAEn gaur egun dauden garraio-azpiegitura oso eta anitza dela eta, komeniko litzateke garraio-modu guztien azterketa bateratua bultzatzea, sare osoaren koordinazio dinamikoa areago sustatzeko. Batzorde honen iritziz, lurraldearen lehiakortasuna diseinatzeko koherentzia-irizpideak eta nazioarteko lotura errazteko bideak garrantzi handikoak izan beharko lirateke aipatutako koordinazioa sustatze aldera.

SEKTORE PUBLIKOA

Kapitulu honetan azterturiko datuek erakusten dutenez, 2015eko ekitaldiaren amaieran, finantza publikoen hobekuntzari eusten zaio, baina 2014an baino motelago; izan ere, ez dira lortu hasieran aurreikusitako zerga-bilketako datuak, Itundutako zergen bilketa hirugarren urtez jarraian egin du gora (horri esker, gastuen hazkundea gertatu da), baina hazkundeko erritmoa erdira murriztu da (%2,4 hazita, aurreko ekitaldian %4,8 hazi ondoren).

Horri dagokionez, nabarmentzekoa da funtzionamendu gastuek, 2012-2013 biurtekoan mantendu ondoren, berriz ere egin zuten gora, eta aldi berean, mantendu egiten da transferentzia arruntekin eginiko ahalegina, are gehiago, handitu egin da.

Bestalde, kezkagarria iruditzen zaigu ikustea inbertsio errealek, gehienbat herrialdea garatzeko funtsezkoak ondo bideratuta daudenean, beheranzko joerari eusten diotela; izan ere, sei urte bete dira dagoeneko bilakaera negatiboan, eta jaitsieraren proportzioa gorantz doa.

Beste urte batez esan behar dugu gastuak finkatu eta hobetu beharra dagoela zuzenean herritarren ongizateari eragiten dioten partidetan, hala nola inbertsio errealak eta transferentzia arruntak. Izan ere, funtsezko tresnak dira gure erkidegoko bizi-kalitateari eusteko, aurrekontuen egonkortasun-helburuak betetzeko zerga-kontsolidazioari kalterik egin gabe.

Gainera, lehen aipatu dugun finantza publikoen hobekuntza gorabehera, gogorarazi behar dugu 2015eko ekitaldia berriro ere itxi dela defizitarekin, eta horren ondorioz, zor publiko biziaren ehunekoa BPGaren gaineko % 15,5eraino igo da. Egiatan, komeniko litzateke jarduera leheneratzeari eta sarrera publikoen susperraldiari esker, Sektore Publikoa zorpetzea kontrolatzeko bidean jarri ahal izatea.

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA. GOGOETAK

I+G+b jarduerak

EAEk I+G arloan eginiko esfortzu ekonomikoak inflexio-puntu kezkagarria izan zuen 2013an, eta berriz ere egin zuen behera 2014an. Hala, %1,93an kokatu da, EUSTATen arabera (%2,03an EINen datuen arabera).

Ildo horretan, aintzat hartu behar dugu ikerkuntzari eta berrikuntzari buruzko oinarrizko helburua EBn: gastu publikoaren eta pribatuaren % 3 izatea BPGren portzentaje gisa. Izan ere, helburu zehatzak finkatu dira estatu kideentzat, BPGren % 0,5etik % 4ra bitartekoak, 2020an lortu beharrekoak (% 2 Espainian). Horrenbestez, atzerakada horrek urrundu egiten du gure Erkidegoa Europako helburutik (% 3), baita Estatukotik ere EUSTATen datu-iturriak hartzen baditugu.

Beste elementu kezkagarria bat berrikuntza-prozesuetan errendimendu gisa sortutako jabetza intelektualeko eskubideen gaineko datuak dira, IUS 2015ek bilduak. Izan ere, kontzeptu hori neurtzen duten hiru epigrafeetan Estatuko batez bestekoen azpitik eta erreferentziako herrialdeetatik urrun dago EAE.

EGABen iritziz, azaldu izan dugun legez, botere publikoen eta eragile ekonomiko eta sozial partaide guztien arreta guztia eskatzen du horrek guztiak, baldin eta euskal enpresa-sarea ekonomiaren egungo globalizazioan lehian aritzeko modua izan dezan nahi badugu. Berariazko gogoeta egin beharko litzateke inbertsioetan esfortzu handiagoak zergatik

ez duen islarik patenteen emaitza hobeetan; izan ere, adierazle tradizionala da arlo horretan. Hala ere, aholku batzorde honen aburuz, I+G-ri lotutako jarduerak garatzeko baliabide nahikoak (baliabide ekonomikoak, teknikoak eta giza baliabideak) ereduzko herrialdeen antzera jartzeaz gain, neurri egokiak hartu behar dira ereduzko herrialde horietan lortzen den emaitza eraginkorra bermatzearren.

Alde batetik euskal enpresen tamaina txikia delako izan daiteke egoera hori, eta horri dagokionez, honetaz ohartarazi beharra dugu: enpresa handirik ez izatea, beharbada, eragozpen garrantzitsua gertatzen ari dela I+G jarduerak egiterako orduan.

Aldi berean, berrikuntza iturri gisa Zientziaren eta Teknologiaren mendekotasuna gero eta handiagoa izanik, eskaintza zientifiko teknologikoko politikak eskaria sustatzeko politikekin orekatzeko joera izan behar da eta, beraz, lehentasunezkoa izan behar du merkatu-balioa duen ezagutzaren transferentziak Berrikuntza Sistema eta berau dinamizatzen duen IZT sarea eratzean.

Horrela, Berrikuntzako Eskualde Sistema osoa lortzeko bidean egin behar da aurrera, EAEk toki hobea izan dezan nazioarteko lehiakortasunean, betiere EBk sustaturiko RIS3rekin eta Espezializazio Adimenduneko Estrategiekin bat etorriz.

Informazioaren eta komunikazioen teknologiak

Gure Memoria Sozioekonomikoetan agerian utzi izan dugunez, IKT ekipamenduen zuzkidurak garrantzitsuak dira EAEn, norbanakoaren aldetik zein enpresen aldetik.

Alabaina, ezin ahantz dezakegu gure gizartean baliabide horiek erabiltzerik ez duten zenbait talde daudela, eta hona hemen interneteko konexiorik ez duten pertsonen profila: bakartuta bizi diren pertsonak, 55 urtekoak eta gehiagokoak, prestakuntza maila txikiagokoak eta langabeak.

Softwarean azken urteetan izandako inbertsioaren bilakaerak beheranzko joera izatea ere ezin dezakegu ahantz, eta horrek lotura zuzena du gure gizarte-ekoizpeneko sareak beste ekoizpen-ereduetara arrakastaz eboluzionatu ahal izateko ahalmenarekin.

Posta elektronikoari dagokionez, bide hori erabilita egin diren salmentak gutxiago baliatzen dituzte euskal enpresek Europakoek baino. Ondorioz, baliteke tresna horietan aukerak galtzen ari izatea euskal enpresak azken urteetan modu esponentzialean hazten ari diren salmentetan.

Administrazio elektronikoak Informazioaren Gizartearen eragilea den aldetik duen eskaintzari dagokionez, EAEko herri erakundeek 2014. urtean eskainitako prozedura eta izapide publiko elektronikoen % 29,8k (2014an, % 40,8) 4 motako sofistikazio maila dute, 3 motako sofistikazio mailakoak –datuak on-line sartzeko aukera- nahikoa txikiak dira 2014. urtean ere (% 3,2) eta hazi egin dira, berriz, 1. mailakoa –informazioa- eta 2.mailakoa -formularioak deskargatzea.

Aurreko guztiaren ondorioz, EGABek berriz nabarmentzen du berebiziko garrantzia daukala laguntza-neurriak sustatzea administrazio elektronikoa herritarrengana eta enpresetara zabaltzeko, horixe baita informazioaren gizartearen eta ekonomia digitalizatuaren zinezko eragilea. Ez dugu ahaztu behar administrazio elektroniko horrek, gainera, erlazio modu berriak bultza ditzakeela gobernantza publikoaren eta herritarren artean, gizarte berrikuntzarako eremuak bideratuz eta sorraraziz.

II. KAPITULUA

EAEko lan-merkatua

Kapitulu honetan, EAEko lan-merkatuak azken urtean izan duen bilakaerari buruzko zifra nagusiak emango dira lan-merkatuaren hainbat aldetatik. Lehenik eta behin, jardueraren, okupazioaren eta langabeziaren bilakaera aztertuko da, baita gure Erkidegoak Europa mailan aldagai horiekiko duen egoera erlatiboa ere. Jarraian, lan-merkatuaren sarreren eta irteeren balantzea eskainiko da (kontratazioak, aldi baterako kontratuen amaiera eta iraizpenak), baita azken urtean gure Erkidegoan izan diren laneko harremanen balantzea ere, eta soldatei buruzko zifrekin jarraituko da Estatu mailarekin alderatuta.

Kapituluko bigarren zatiaren ardatza enplegu politikak dira: politika aktiboak, langabetuek lana eskuratzera eta lana dutenek enpleguari eustera bideraturiko politikak eta politika pasiboak, langabetuen babes ekonomikora bideratuak. Kapituluan amaieran, Euskadik aipaturiko urtean laneko osasunaren arloan izandako zifra nagusiak aztertuko dira.

Hamabost urtez lanpostuak sortu ondoren, EAEko lan-merkatuan okupazio zifren jaitsiera aldian murgildu zen EAE, eta 2013an hala jarraitu zuen. Ondorioz, 100.000 lanpostu galdu ziren, guztizkoaren %10.

II.1.1. KOADROA. EAE-KO ENPLEGUAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA. URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASAK ETA BALIO ABSOLUTUAK (MILAKOAK).HIRUHILEKO DATUAK.

	IV 2012	IV 2013	IV 2014	2015			
				I	II	III	IV
Lana dutenen kopurua, BJAren arabera***	1.002,7	1.053,7	1.053,7	1.063,0	1.054,6	1.052,1	1.049,7
JARDUERA TASA (BJA)	54,6	57,4	57,5	58,0	57,6	57,5	57,3
Lana dutenen kopurua, BJAren arabera	883,9	883,1	886,4	885,9	894,5	896,1	894,9
LANA DUTENEN ALDAK (BJA)	-3,7	-0,1	0,4	1,3	1,8	1,5	1,0
Lana dutenen kopurua, HKE-en arabera*	882,0	867,9	876,9	874,2	885,4	883,1	894,0
LANPOSTUEN ALDAK. (HKE)*	-4,3	-1,6	1,0	1,5	1,7	1,7	2,0
G. Segurantzako afiliatuen kopurua (Hiruhileko batezbestekoak)	893,1	871,1	881,6	881,0	888,4	882,0	901,8
GIZARTE SEGURANTZAREN AFILIZAZIOAREN ALDAK**	-3,5	-2,5	1,2	1,9	2,0	1,6	2,3
Langabetuen kopurua BJAren arabera	123,8	170,6	166,7	177,1	160,1	156,0	154,8
LANGABETUEN ALDAK. (BJA)	8,5	37,8	-2,3	1,6	-6,9	-4,3	-7,1
LANBIDEN erregistraturiko langabetuak (Hiruhileko batezbestekoak)	169,4	173,4	168,4	171,5	162,0	155,0	152,2
ERREGISTRAT. LANGABEZIAREN ALDAK. (LANBIDE)	17,2	2,4	-2,9	-2,6	-6,7	-8,1	-9,6
LANGABEZIA-TASA (BJA)	**12,3**	**16,2**	**15,8**	**16,7**	**15,2**	**14,8**	**14,7**

Iturria: Geuk egindakoa EUSTATen eta Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren datuekin.
** Lanaldi osoaren lanpostu baliokideak.*
**** Gizarte Segurantzan altan dauden kotizatzaileak.*
****Metodologia aldaketa 2015ean. Serie historiko berrikusiak. 2015eko datuak behin-behinekoak dira.*

2014an, urte arteko tasa positiboak antzematen hasi dira aintzat harturiko estatistika-iturriak, halako moldez non laugarren hiruhilekoan norabide beretik baitoaz guztiak: haien zenbatespenen arabera, 900.000 landun zeuden eta %1eko urte arteko hazkundea zegoen 2013aren aldean zenbait kasutan (HKEren arabera, %1eko hazkundea eta %1,2koa Gizarte Segurantzako afiliazioan) eta pixka bat gutxiago beste batzuetan (BJAren arabera, %0,4ko hazkundea zenbatetsi zuen 2014rako 2016an berrikusitako datuekin eta, EPAk, berriz, %0,3koa).

Joera positiboa badirudi finkatu egin zela 2015ean, halako moldez non urtearen amaieran (laugarren hiruhilekoa) okupazioaren hazkundeak %2aren ingurukoak baitziren, BJA alde batera utziz gero, hazkunde txikiagoa kalkulatzen baitu (+%1, berriki egin den metodologiaren berrikuspenaren ondoren eguneraturiko datuekin). Hiruhileko Kontu Ekonomikoak (HKE) Memoria honen I. Kapituluan aztertu dira berariaz, eta horien zenbatespenen arabera, okupazioaren hazkundea %2koa zen 2015eko laugarren hiruhilekoan, eta igoera hori %2,3koa zen Gizarte Segurantzaren kotizatzaileen kopurua eta okupazioan ere bai EINen EPAren arabera. [1]

1 "Kotizatzaileak" esatean, maiz erabiltzen den "afiliazioaz" ari gara. Egia esan, Gizarte Segurantzan alta emanda dauden afiliatuak, hau da, kotizatzera behartuta dauden pertsonak aipatu nahi dira. Hortik ondorioztatzen da kotizatzaileak hitza. Kontuan hartu behar da afiliatuen kopurua ez datorrela bat langileen kopuruarekin, kotizatu beharra sortzen duten egoerekin baizik. Hau da, pertsona batek dituen kotizazio beste aldiz zenbatzen da pertsona bera, araubide berean edo hainbat araubidetan zenbait lan-jarduera dituelako. Gainera, bizitza osorako da afilizazioa, bajak heriotzagatik bakarrik gertatzen dira, eta afiliazioa ematen da gizarte segurantzako edozein araubidetan sartzea dakarren lehen lanarekin.

II.1.1. GRAFIKOA ENPLEGUAREN BILAKAERAREN ADIERAZLEAK EAE-N: URTEARTEKO ALDAKUNTZA TASA



	I 2012	II	III	IV	I 2013	II	III	IV	I 2014	II	III	IV	I 2015	II	III	IV
KONT KONOMIKOAK	-2,2	-3,1	-3,6	-4,3	-4,2	-3,3	-2,9	-1,6	-0,5	0,1	0,5	1,0	1,5	1,7	1,7	2,0
G SEGURANTZARAFILIAZIOA	-1,7	-2,4	-2,4	-3,5	-4,3	-4,1	-4,0	-2,5	-0,6	0,1	0,5	1,2	1,9	2,0	1,6	2,3
BJA-EUSTAT	-4,3	-4,7	-7,1	-6,3	-4,1	-3,5	-3,1	-2,1	-3,3	-1,1	0,3	0,3	2,2	-0,7	1,3	2,3
EPA-EIN	-2,5	-2,5	-2,7	-3,7	-2,1	-2,5	-1,5	-0,1	-1,2	-0,6	-0,3	0,4	1,3	1,8	1,5	1,0

Fuente: Elaboración con datos de EUSTAT, INE, y Seguridad Social.
** Datos de la PRA revisados con la nueva metolodogía. Las cifras de 2015 son provisionales.*

Gainera, honako kapitulu honen 2. atalean ikusiko denez, lan-kontratazioak bi urte metatu ditu jada (2014 eta 2015) bilakaera positiboak eta garrantzitsuak (+%11,8 eta +%14,2), aurreko ekitaldietako datu negatiboen ondotik.

Halaber, LANBIDEn erregistraturiko langabetuen kopuruak behera egin zuen hileko bilakaeran, irailetik etengabe eta goraka hiruhilekoen batez besteko zifrak aintzat hartzen badira. Urtearen amaieran, %9,5eko jaitsiera izan zuen abenduko kopurua aintzat hartuz gero eta -%9,6koa laugarren hiruhilekoaren batez bestekoa kontuan hartuta. Bilakaera on hori gorabehera, langabezian jarraitzen zuten 2015 amaitzean 151.000 lagun inguruk, eta kopuru hori dirudienez bat dator BJAk bere metodologia aldatu ostean zenbatetsi duenarekin.

AURRETIAZKO OHARRA

Kapitulu honetan, Memoria honen aurreko ekitaldiekiko izandako metodologia aldaketa bildu da. Biztanleriaren Inkestak EUSTATen BJAren inkestako aldagaien urteko batez besteko datuak aintzat hartu beharrean, hiru hilean behin egiten direnak hain zuzen ere (jarduera, enplegua eta langabezia), laugarren hiruhilekoen kopuruak izango dira kontuan, urteko bilakaera baloratu ahal izateko (aurreko urtearen amaieratik erreferentziako urtearen amaierara arte), zeren eta batzuetan urteko batez bestekoek ez baitzuten ahalbidetzen urtean zehar izandako bilakaeraren eta aurreko urteko amaieraren eta erreferentziako urtearen arteko uneko aldaketaren xehetasuna ikustea. Asmo bera izanik, abenduko datuak aztertzen jarraituko dira hilekoak diren beste adierazle batzuekin, hala nola Gizarte Segurantzaren afiliazioarekin edo LANBIDEK erregistraturiko langabeziarekin.

Bestalde, BJAri dagokionez, ohartarazi beharra dago inkesta horretan berriki sartu diren metodologia aldaketak izan direla (haren emaitzak eta beste administrazio-iturriak bateratzeko, eskualde eta euskal hiriburuen mailako informazioa eskaini ahal izateko –oraindik ez dago eskuragarri- eta oro har bere datuen kalitatea hobetzeko). Aldaketa horiek direla-eta, honako Memoria honen aurreko edizioetako denbora-serieak berrikusi behar izan dira, eta kopuru berriak erabiliz, kapitulu honetan aztertu ohi diren taula eta grafiko gehienak berriz sortu dira.

Adierazle jakin bat ez izatea, Memoria hau bukatu den egunean eguneratzeke dagoena, Gizarte Segurantzan alta emanda dauden pertsonen eta LANBIDEN erregistraturiko langabetuen gaineko informazio gehiagorekin konpentsatu da.

1. JARDUERAREN, OKUPAZIOAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA[2].

1.1. Jarduera

BJAren datuek agerian uzten dutenez, EAEko biztanleria aktiboa, 2015eko amaieran, 1.049.700 lagunek osatzen zuten, eta horietatik %53 gizonezkoak ziren eta %47 emakumezkoak. Hamabost urte lehenago, 2000an, sexuen banaketa 60/40koa zen eta, beraz, agerikoa da emakumeen presentzia handitu egin dela lan-merkatuan.

II.1.2. GRAFIKOA. EAE-KO BIZTANLERIA AKTIBOAREN BILAKAERA SEXUAREN ARABERA. IV HIRUHILEKOAK (MILAKA)



Iturria: EUSTAT. BJA
**2015eko datuak behin-behinekoak dira.*

Gizonen biztanleria aktiboa nabarmen jaitsi zen 2008 eta 2012 bitartean, noiz-eta enplegurako aukerarik ezagatik lanerako adinean zeuden langabeen zati handi bat zuzenean joan zenean langabeziara. Emakumeek, aldiz, lan-merkatuan sartzen jarraitu zuten 2011ra arte, baina emakume landunen kopuruak behera egin zuen 2012an. Bi bilakaera batzearen ondorioz, biztanleria aktiboak gora egin zuen Euskadin 2011ra arte. 2012an nabarmen jaitsi zen, 24.600 lanpostu galduta, eta 2013an galera hori berreskuratu zuen. Are gehiago, biztanleria aktiboak gora egin zuen, 46.000 lagun gehiago, urte hartako laugarren hiruhilekoan inoizko kopururik handienera iritsi arte: 1.053.700 lagun.

II.1.3. GRAFIKOA. EAE-KO JARDUERA-TASA SEXUAREN ETA ADIN-TALDEEN ARABERA. IV-2015. BEHIN-BEHINEKO DATUAK



Iturria: EUSTAT. BJA

Alabaina, biztanleria aktiboa berriz jaitsi zen 2014an (600 pertsona galduta, %0,1 besterik ez, berriz ere soil-soilik gizonezkoen biztanleria aktiboaren joeragatik, emakume aktiboek kopuruak berriz ere gora egin baitzuen), eta berriz ere 2015ean %0,3 (-3.300 lagun). Azken urte horretan, ez zen sexuaren araberako alderik izan, zeren eta gizon aktiboen kopuruak (%0,2) nahiz emakume aktiboen kopuruak (%0,5) egin baitzuen behera (-1.000 eta -2.300 pertsona hurrenez hurren).

2 Epigrafe honetan, funtsean, BJAren eta LANBIDEren datuak erabiltzen dira, eta ez Hiruhilekoen Kontu Ekonomikoetatik datozenak (HKE), azterketarako ematen dituzten posibilitateak direla eta. Gogoratu behar dugu iturri desberdinek, batzuetan, emaitza desberdinak eta kontrako bilakaerak ematen dituztela. HKEek enpleguari buruz ematen duten informazioa kontsultatzeko, jo beza irakurleak Memoria honetako I. kapitulura (EAEko ekonomia).

EAEko jarduera-tasa orokorra, 2015eko amaieran, %57,3koa zen (2014an baino bi hamarren gutxiago), eta emakumeena %52koa izan zen (-3 hamarren); gizonezko aktiboenak, berriz, %63aren inguruan eusten dio (2 hamarren gutxiago 2014ko amaieran). EBn, 2015eko hirugarren hiruhilekoaren batez bestekoa %72,7 zen (%78,6 gizonezkoentzat eta %66,9 emakumezkoentzat), urtebete lehenago baino bi hamarren gehiago.

II.1.2. KOADROA. JARDUERA- ETA LANGABEZIA-TASEN BILAKAERA SEXU ETA ADIN TALDE BAKOITZEKO. IV HIRUHIL.

		2000	2008	2012	2013	2014	2015*
GUZTIRA		**53,4**	**55,2**	**54,6**	**57,4**	**57,5**	**57,3**
SEXUA	GIZONAK	66,6	63,6	60,6	63,3	63,2	63,0
	EMAKUMEAK	41,0	47,2	48,9	51,9	52,3	52,0
ADINA	16 -24	44,3	31,6	24,3	30,6	28,6	27,5
	25 - 44	85,7	87,1	85,6	89,7	91,6	90,5
	45 ETA +	31,3	37,6	40,5	42,8	42,6	43,8

Iturria: EUSTAT. "Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta".
** 2015eko datuak behin-behinekoak dira.*

Bestalde, jarduera-ratioen jokabidea ez da berdina adin-talde guztietan: 2015ean, %1,1eko murrizpenak izan ziren aurreko urtearekiko 25 urtetik beherakoen artean, eta gauza bera adin ertainekoen taldean. 44 urtetik gorakoen artean, berriz, jarduera-tasak %1,2 egin zuen gora (kapitulu hau bukatu den egunean, ez dugu sexuaren eta adin-taldearen arteko datu-gurutzaketa).

Gainera, zenbatespenen arabera, Euskadin 872.600 familia inguru zeuden, eta horietatik %32,1ek ez zuen pertsona landunik. Halaber, pertsona horien guztien erdia baino gehiago lanean ari zen (%54,2), eta pertsona guztiak lanean ari ziren familiak guztizkoaren %6 ziren, 52.200 lagun.

1.2. Okupazioa

a) EUSTATEN BJA-REN eta EUROSTAT-EN zifrak

BJAren datuek erakusten dutenez, gure Erkidegoan 2015ean izandako bilakaeran, okupazio edo enplegu tasa %64,8koa zen urtearen bukaeran (%68,1 gizonentzat eta %61,5 emakumeentzat), 2015eko metodologia berriarekin kalkulaturiko datuak. Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoakoa da okupazio tasarik handiena (%66,1), ondoren Arabakoa, %66arekin, eta azkenik Bizkaiak du ratiorik txikiena: %63,7.

II.1.4. GRAFIKOA. EAE-KO OKUPAZIO-TASAK SEXUAREN, ADINAREN ETA LURRALDEAREN ARABERA. IV-2015. BEHIN-BEHINEKO DATUAK



Iturria: EUSTAT. BJA.

Bestalde, Europar Batasunak honako helburu hau du ezarria 2020rako 20-64 urte bitarteko pertsonentzat (ez 16-64 urte bitarteko pertsonentzat EUSTATek BJAn argitaratu ohi duen moduan): %75eko tasa[3]. EBko batez bestekoa 2015eko hirugarren hiruhilekoan %70,5ean kokatu zen (%76,5 gizonentzat eta %64,5 emakumeentzat).

3 Europako 2020 Estrategia, Europako Kontseiluak 2010ean onetsia, egungo hamarkadarako agenda komuna da. Hazkunde adimenduna, iraunkorra eta integratzailea lehenesten du Europako ekonomiaren egitura-ahuleziak gainditzeko, haren lehiakortasuna eta produktibitatea hobetzeko eta merkatu-ekonomia sozial iraunkorra finkatzeko. Hona hemen estrategiaren bost helburu nagusi:

1) *Europako 20-64 urte bitarteko biztanleen %75ek lana izan beharko luke.*
2) *I+G arloko barne gastuak BPGren %3 izan beharko luke.*
3) *Klimaren eta energiaren arloko "20/20/20" helburua lortu beharko litzateke: negutegi-efektuko gas emisioak %20 murriztea, energia kontsumoaren %20 aurreztea eta %20raino sustatzea energia berriztagarrien kontsumoa.*
4) *Eskola-uztearen portzentajeak %10a baino txikiagoa izan beharko luke, eta gazteenen %40ek gutxienez goi-mailako ikasketak bukatuta izan beharko lituzke.*
5) *EBko pobrezia arriskuaren eraginpean 20 milioi pertsona gutxiago izan beharko lirateke.*

2013ko abendutik 2014ko abendura bitartean %0,4koa izan zen EAEn okupazioaren igoera, eta 3.300 lanpostu gehiago sortu ziren. Gizonezkoen enpleguak bilakaera txarragoa izan zuen (+%0,1), 700 lanpostu irabazita. Emakumezkoenak, berriz, 2.500 lanpostu gehiago izan zituen (+%0,6).

Azken urtean, 2014ko abendutik 2015eko abendura bitartean, BJAren datuekin %1eko hazkundea zenbatetsi zen enpleguan (8.500 lanpostu, horietatik 6.500 emakumezkoena, emakumeen enplegua batez bestekoaren gainetik hazi baita, %1,6, gizonezkoen enpleguaren +%0,4ko hazkundearen aldean).

II.1.3. KOADROA. LANA DUTENEN BILAKAERA, SEXUAREN ETA SEKTOREEN ARABERA. 2013-2015*. IV HIRUHILEKOAK.

		BATEZBESTEKOAK (MILAKOAK)			GEHIKUNTZA (MILA)		URTEARTEKO ALDAK.-TASA (%)	
		2013	2014	2015*	13-14	14-15*	13-14	14-15*
GIZONAK	LEHEN SEKTOREA	6,8	6,6	6,5	-0,2	-0,1	-2,9	-1,5
	INDUSTRIA	160,4	152,7	147,7	-7,7	-5,0	-4,8	-3,3
	ERAIKUNTZA	37,4	42,5	41,0	5,1	-1,5	13,6	-3,5
	ZERBITZUAK	264,4	267,8	276,6	3,4	8,8	1,3	3,3
	GUZTIRA	469,0	469,7	471,8	0,7	2,1	0,1	0,4
EMAKUM.	LEHEN SEKTOREA	1,8	2,7	2,9	0,9	0,2	50,0	7,4
	INDUSTRIA	36,0	36,4	38,8	0,4	2,4	1,1	6,6
	ERAIKUNTZA	5,3	4,9	5,8	-0,4	0,9	-7,5	18,4
	ZERBITZUAK	371,1	372,6	375,6	1,5	3,0	0,4	0,8
	GUZTIRA	414,1	416,6	423,1	2,5	6,5	0,6	1,6
GUZTIRA	LEHEN SEKTOREA	8,6	9,3	9,4	0,7	0,1	8,1	1,1
	INDUSTRIA	196,4	189,1	186,6	-7,3	-2,5	-3,7	-1,3
	ERAIKUNTZA	42,7	47,4	46,7	4,7	-0,7	11,0	-1,5
	ZERBITZUAK	635,5	640,4	652,2	4,9	11,8	0,8	1,8
	GUZTIRA	**883,1**	**886,4**	**894,9**	**3,3**	**8,5**	**0,4**	**1,0**

Iturria: EUSTAT. "Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta".
** 2015eko datuak behin-behinekoak dira.*

Zerbitzuen sektorea da enpleguaren hazkunde horren oinarria, 11.800 lanpostu irabazi baititu (+%1,8), horietatik 8.800 gizonezkoen artean eta 3.000 emakumeen artean, industriak beherako joerari eusten baitio (-%1,3), 2014an baino neurri txikiagoa bada ere (2.500 lanpostu galduta, aurreko urteko -7.300 lanpostuen aldean). Gauza bera eraikuntzan, 2015ean berriz ere datu negatiboak izan baititu (-%1,5), 2014an %11 hazi ondoren.

Adinei dagokienez, azken urtean %9,7 hazi zen 25 urtetik beherakoen enplegu maila (+2.500 lanpostu), eta 25-44 urte bitartekoena, berriz, %2,1 jaitsi zen (9.300 lanpostu galduta). 45 urte eta gehiagokoen langabezia, aldiz, %3,7 hazi zen (+15.300 lanpostu).

II.1.5. GRAFIKOA. EAE-KO OKUPAZIOAREN BIALAKERA ADIN-TALDEAREN ARABERA. IV HIRUHILEKOAK (MILAKA)



Iturria: EUSTAT. BJA
**2015eko datuak behin-behinekoak dira*

Lanbide-egoeraren araberako okupazioari helduta, 2014ko azken hiruhilekoaren BJAren datuek erakusten dutenez (eskuragarri ditugun azkenak) landunen %65,4 gure Erkidegoan sektore pribatuko soldatakoa zen, %2,9 kooperatibista, %14,6 sektore publikoko soldatakoa, %11,3 autonomoa, %5 enplegatzailea eta gainerako %0,8 laguntza gisa ari zen lanean. Zenbait desberdintasun antzeman daitezke sexuaren arabera, zeren eta sektore publikoko soldatako emakumeen pisua handiagoa baita gizonezkoen artean baino (%19,5ekoa %10,3aren aldean) eta askoz gutxiago dira, proportzioan, enplegatzaileak eta autonomoak (emakume landunen %3,7 eta %8,7, hurrenez hurren, gizonezkoen %6,1 eta %13,6aren aldean). Sektore pribatuko soldatako pertsonalaren eta kooperatibisten pisua ere pixka bat handiagoa da gizonezkoen artean.

II.1.6. GRAFIKOA. DISTRIBUCIÓN DE LA POBLACIÓN OCUPADA DE LA CAPV SEGÚN SITUACION PROFESIONAL Y SEXO. DATOS EN PORCENTAJE. IV-2014



Iturria: EUSTAT. BJA.

Lanaldi motari dagokionez (ez dugu EAErako informaziorik BJAren datuetatik kapitulu hau bukatu den egunean), lanaldi partzialeko langabezia-tasa EBn 2015ean (III. Hiruhilekoaren datuak) %19,3koa zen (%21,4koa euro gunean), eta zenbait herrialdetan ia ez dago (%2,2 Bulgarian, %5,6 Eslovakian). Beste batzuetan, berriz, %25etik gorakoa da hala nola Erresuma Batuan (%25,2), Austrian (%26,6) eta Alemanian (%26,7), eta bereziki Holandan (%49,8). Espainian, %15,1eko tasa da. Gainera, EBko herrialde guztietan emakumeen lanaldi partziala gizonezkoena baino askoz handiagoa da (batez beste %31,7, gizonezkoen %8,8aren aldean), eta %40 gainditzen da herrialdeetako bostetan: Holanda, Erresuma Batua, Alemania, Austria eta Belgika.

Behin-behinekotasun mailei dagokienez, BJAren datuek erakusten dutenez, 2014ko azken lauhilekoan (azken datu eskuragarria) %25,4koa zen aldi baterako kontratua zuten soldatakoen portzentajea, aurreko urtean baino %2,9 gehiago. Kontratua mugagabea zutenen pisua, berriz, %2,9 txikiagoa zen ("kontratu barik eta beste batzuk" deritzen beste lan-egoera batzuengatik gertatu da bi bilakaeren arteko aldea). Sexuaren arabera, aldibaterako kontratuak %27,4 ziren 2014an emakumeen artean (+%2,5 2013ko amaieraren aldean) eta gizonezkoena, berriz %23,5 (+%3,3).

II.1.4. KOADROA. SOLDATAKO 16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLEEN EHUNEKOAREN BANAKETA, KONTRATU MOTAREN ETA SEXUAREN ARABERA. EAE., 2012-2014. IV HIRUHILEKOAK.

		2012	2013	2014	ALD. 12/13	ALD. 13/14
MUGAGABEA -FINKOA	GUZT.	77,2	75,9	73,0	-1,3	-2,9
	GIZONAK	80,9	79,2	75,7	-1,7	-3,5
	EMAK.	73,2	72,4	70,2	-0,8	-2,2
ALDI BATERAKOA	GUZT.	21,6	22,5	25,4	0,9	2,9
	GIZONAK	18,5	20,1	23,5	1,7	3,3
	EMAKUM.	24,9	24,8	27,4	-0,1	2,5
KONTRATU BARIK ETA BESTE B.	GUZT.	1,2	1,7	1,6	0,4	0,0
	GIZONAK	0,6	0,7	0,9	0,1	0,2
	EMAKUM.	1,9	2,7	2,4	0,8	-0,3
GUZT.	GUZT.	100,0	100,0	100,0	-	-
	GIZONAK	100,0	100,0	100,0	-	-
	EMAKUM.	100,0	100,0	100,0	-	-

Iturria: EUSTAT. "Biztanleriari buruzko inkesta jarduerari dagokionez". Geuk eginikoa.

%20tik gorako behin-behinekotasun maila horiek soilik gertatzen dira EBren barruan Holandan, Polonian eta Espainian. Izan ere, batez bestekoa %14,8 da Europar Batasunean (%14,8 emakumeentzat eta %15,1 emakumeentzat) eta %16,3 euro gunean (%16 eta %16,6, hurrenez hurren, gizonak eta emakumeak), EUROSTATek 2015eko hirugarren hiruhilekorako emandako datuen arabera.

b) Afiliazioa Gizarte Segurantzan

Gizarte Segurantzako kotizatzaileen batez besteko kopurua, 2015eko abenduan (ikus kapitulu honetako 1 orri-oinean), 907.964 zen, eta horietatik %47 emakumeak ziren eta %53 gizonak. Hala, %2,3 egin du gora aurreko urteko hilearen aldean (+%3,2 batez beste Estatuan), eta guztira 20.730 afiliatu gehiago daude alta emanda, hain zuzen ere 2014an izandako igoerari gehituta (%1,4koa izan zen. Oso alde txikiak ikusten dira lurraldeen artean, zeren eta Bizkaia batez bestekotik pixka bat hazi baita, %2,4, eta Gipuzkoan eta Araban, berriz, %2,3 eta %2,2 hurrenez hurren.

Sexuaren arabera, emakumeen afiliazioak %2,6 egin du gora; gizonezkoena, berriz, %2,1. Bestela esanda, urtean 9.733 afiliatu gehiago zenbatu ziren Gizarte Segurantzan (hazkunde osoaren %47) eta 10.944 emakume afiliatuta (% 53).

II.1.5. KOADROA. GIZARTE-SEGURANTZAKO KOTIZATZAILEAK* LURRALDEEN ETA SEXUAREN ARABERA ABENDUKO BATEZBESTEKO DATUAK

		ABENDUKO B.B. DATUAK		14-15 ALD.	
		2014	2015	Abs.	%
ARABA	GIZONAK	79.776	81.255	1.479	1,9
	EMAKUM.	65.161	66.911	1.750	2,7
	GUZT.	144.937	148.167	3.230	2,2
GIPUZKOA	GIZONAK	158.151	161.402	3.251	2,1
	EMAKUM.	137.158	140.662	3.504	2,6
	GUZT.	295.309	302.067	6.758	2,3
BIZKAIA	GIZONAK	233.210	238.212	5.002	2,1
	EMAKUM.	213.777	219.517	5.740	2,7
	GUZT.	446.987	457.731	10.744	2,4
GUZT. EAE	GIZONAK	471.137	480.870	9.733	2,1
	EMAKUM.	416.097	427.091	10.994	2,6
	GUZT.	**887.234**	**907.964**	**20.730**	**2,3**

**Ikus kapitulu honetako 1. orri-oina.*
Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuekin eginiko.

Ekoizpen-adar gehienetan[4] bilakaera positiboa izan da, energia elektrikoaren, gasaren eta lurrunaren horniduran (-%20,4), erauzketa-industrietan (%4,1 jaitsita), finantza- eta aseguru-jardueretan (-%0,6) eta etxeko enpleguan (-%1,8) izan ezik. Eraikuntza, bestalde, %0,1 besterik ez du jaitsi. Manufaktura-industria afiliazioan pisurik handiena duen adarra da (guztizkoaren %19,1), eta 2014an ia 3.000 afiliatu galdu ondoren (eta 5.000 baino gehiago 2013an), %0,9 hazi zen 2015ean (1.462 afiliatu irabazita), baina batez bestekoaren azpitik oraindik.

II.1.6. KOADROA. GIZARTE SEGURANTZAREN AFILIAZIOAREN BILAKAERA*, EKOIZPEN-ADARRAREN ARABERA.ABENDUKO B.B. DATUAK.**

	2013	2014	2015	% ALD. 2014/15
NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA, BASOGINTZA, ARRANTZA	6.450	6.458	6.480	0,3
ERAUZKETA-INDUSTRIAK	603	628	602	-4,1
MANUFAKTURA-INDUSTRIA	168.476	165.569	167.031	0,9
ARGINDARRAREN, GASAREN, LURRINAREN HORNIDURA	2.121	2.072	1.649	-20,4
URAREN HORNIDURA, HONDAKINEN KUDEAKETA	5.435	5.516	5.657	2,6
ERAIKUNTZA	52.960	52.471	52.437	-0,1
HANDIZKAKO ETA TXIKIZKAKO MERKATARITZA; KONPONKETA	133.439	135.130	137.358	1,6
GARRAIOA ETA BILTEGIRATZEA	37.166	37.378	38.588	3,2
OSTALARITZA	57.195	59.103	61.537	4,1
INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOAK	19.662	19.804	20.579	3,9
FINANTZA- ETA ASEGURU-JARDUERAK	20.115	19.622	19.512	-0,6
HIGIEZINEN ARLOKO JARDUERAK	3.771	3.860	4.010	3,9
PROFESIONALAK, ZIENTIFIKOAK ETA TEKNIKOAK	48.494	49.357	52.335	6,0
ADMINISTRAZIO-JARDUERAK	57.223	59.422	61.404	3,3
ADMINISTRAZIO PUBLIKOA	45.502	46.207	46.766	1,2
HEZKUNTZA	59.702	61.817	64.125	3,7
OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZUETAKO JARDUERAK	82.588	85.498	88.091	3,0
ARTE, JOLAS ETA ENTRETENIMENDU JARDUERAK	13.109	13.914	14.663	5,4
BESTE ZERBITZU BATZUK	27.748	28.536	29.033	1,7
ETXEAK, PERTSONALEKO ENPLEGATZAILE	1.269	1.260	1.237	-1,8
LURRALDEZ GAINDIKO ERAKUNDEAK ETA ELKARTEAK	36	40	42	5,0
GUZT.**	**843.064**	**853.659**	**873.135**	**2,3**

Iturria:ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA. GSDO. Geuk eginikoa.
**Ikusi kapitulu honetako lehen orri-oina.*
***Nekazaritza Sistema Berezia eta Etxeko Langileena alde batera utzita*

4Hiruhilekoen Kontu Ekonomikoek (HKE) ekoizpenaren eta ekoizpen-adarren bilakaerari buruzko informazio osagarria ematen dute. Ikusi Memoria hone I. kapitulua: EAEko ekonomia.

Zerbitzuen sektorean, bestalde, batez bestekotik gora igo da afiliazioa, %3 hain zuzen, eta ondorioz, 18.300 afiliatu berri daude sektorean. Horrez gain, zerbitzuen adar guztietan afiliatu gehiago daude, plantiletan 110 lagun gutxiago dituzten finantza-jardueretan izan ezik (-%0,6). Afiliaziorik handiena biltzen duen zerbitzuen adarra den merkataritzan (guztizkoaren %15,7), urte arteko %1,6ko hazkundea izan zen (2.228 afiliatu gehiago). Pisu nabarmena duten beste jarduera batzuetan, hala nola osasunean, hezkuntzan eta ostalaritzan, batez bestekotik gorako urte arteko tasak bildu ziren (afiliazioan %3, %3,7 eta %4,1eko hazkundeekin hurrenez hurren).

Zerbitzuen sektorearen hobekuntza horri esker, emakumeen afiliazioa gizonezkoena baino hobea izan da; izan ere, gizonezkoak industriako eta eraikuntzako jardueretan metatzen da gehiago. Osotasunean, guztizkoaren %45,7 da emakumeen afiliazioa (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako abenduaren 31ko datuekin lortu da jarduera-adarraren eta sexuaren araberako banakapena; zerbitzuen sektorean, berriz, %55etik gorakoa da, baina industrian %20 besterik ez da eta %11,5 eraikuntzan.

II.1.7. KOADROA. EMAKUMEEK GIZARTE SEGURANTZAN DUTEN PARTAIDETZA*, EKOIZPEN-ADARRAREN ARABERA. DATUAK EHUNEKOTAN, ABENDUAREN 31N**

	2014	2015	P.P. ald. 2014/15
NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA, BASOGINTZA, ARRANTZA	30,5	29,9	-0,6
ERAUZKETA-INDUSTRIAK	14,3	14,7	0,3
MANUFAKTURA-INDUSTRIA	20,1	20,0	-0,1
ARGINDARRAREN, GASAREN, LURRINAREN HORNIDURA	23,2	22,7	-0,5
URAREN HORNIDURA, HONDAKINEN KUDEAKETA	15,5	15,4	0,0
ERAIKUNTZA	11,4	11,5	0,1
HANDIZKAKO ETA TXIKIZKAKO MERKATARITZA; KONPONKETA	53,2	53,1	-0,1
GARRAIOA ETA BILTEGIRATZEA	18,9	19,0	0,0
OSTALARITZA	58,7	58,2	-0,4
INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOAK	37,2	36,7	-0,5
FINANTZA- ETA ASEGURU-JARDUERAK	51,4	52,1	0,7
HIGIEZINEN ARLOKO JARDUERAK	51,9	52,2	0,3
PROFESIONALAK, ZIENTIFIKOAK ETA TEKNIKOAK	51,9	51,5	-0,3
ADMINISTRAZIO-JARDUERAK	58,0	57,0	-1,0
ADMINISTRAZIO PUBLIKOA	45,8	46,2	0,4
HEZKUNTZA	69,3	69,4	0,0
OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZUETAKO JARDUERAK	78,0	77,8	-0,2
ARTE, JOLAS ETA ENTRETENIMENDU JARDUERAK	46,3	46,3	0,0
BESTE ZERBITZU BATZUK	65,6	65,8	0,2
ETXEAK, PERTSONALEKO ENPLEGATZAILE	41,6	41,3	-0,3
LURRALDEZ GAINDIKO ERAKUNDEAK ETA ELKARTEAK	57,5	59,5	2,0
GUZT.**	**45,7**	**45,7**	**0,0**

Iturria: ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA. GSDO. Geuk eginikoa.
**Ikusi kapitulu honetako lehen orri-oina.*
***Nekazaritza Sistema Berezia eta Etxeko Langileena alde batera utzita*

Emakume gehien dituzten adarrak osasunaren eta gizarte zerbitzuen eta hezkuntzaren arloko jarduerak dira (%77,8 eta %69,4 emakumeak dira, hurrenez hurren); pisu nabarmeneko beste jarduera batzuetan, merkataritzan, ostalaritzan edo jarduera profesionaletan, zientifikoetan eta teknikoetan adibidez, %50etik gora dira emakumeak.

Bestalde, kotizatzaile atzerritarren kopurua (afiliazio guztiaren %5,5 ziren 2015eko abenduan) %5,8 egin zuen gora azken urtean, aurreko urtean %1,1 hazi ondoren. Kasu bietan, goranzko bilakaera da sexuen arabera: gizonenak %7,3 egin zuen gora (+%2,7 2014an). Emakumeena, berriz, %4,3 hazi zen (-%0,4 aurreko urtean). Joera bera gertatu zen atzerritarren jatorriaren arabera ere, zeren eta EBko beste herrialde batzuetatik datozenen artean %6,3 hazi baitzen eta Batasunetik kanpokoetan %5,6.

II.1.8. KOADROA. GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZATZAILE ATZERRITARRAK*, JATORRIAREN ETA SEXUAREN ARABERA. ABENDUKO BATEZB.

		KOTIZATZAILEAK ABENDUA		14-15EKO ALD.	
		2014	2015	Abs.	%
EUROPAR BATASUNA	GIZONAK	9.439	9.988	549	5,8
	EMAKUM.	6.236	6.671	435	7,0
	GUZT.	15.675	16.659	984	6,3
BESTE BATZUK	GIZONAK	14.750	15.958	1.208	8,2
	EMAKUM.	16.986	17.545	559	3,3
	GUZT.	31.736	33.503	1.767	5,6
GUZT.	GIZONAK	24.189	25.946	1.757	7,3
	EMAKUM.	23.222	24.216	994	4,3
	GUZT.	47.411	**50.162**	**2.751**	**5,8**

**Ikus kapitulu honetako 1. orri-oina.*
Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren datuekin egina.

1.3. Langabezia

a) EUSTATen eta EUROSTATen BJAren zifrak

2015. urtean lan-merkatuak izandako bilakaeraren emaitza gisa, BJAren langabezia-tasa orokorra %14,7koa izan da urtearen amaieran (urtebete lehenago 1,1 puntu gehiago) lau hiruhilekoen batez besteko modura; gauzak horrela, Europar Batasunaren batez bestekoa gainditzen da (EBn %9koa izan da eta Eurogunean %10,3koa, hurrenez hurren, hirugarren hiruhilekoaren datuak).[5]

II.1.9. KOADROA. LANGABEZIA-TASAREN BILAKAERA EAE-N, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA. IV HIRUHIL.

		2000	2008	2012	2013	2014	2015*
GUZTIRA		12,5	4,6	12,3	16,2	15,8	14,7
SEXUA	GIZONAK	8,4	4,1	12,5	16,3	15,7	15,2
	EMAKUM.	18,7	5,3	12,0	16,0	15,9	14,2
ADINA	16 - 24	28,1	11,8	35,8	36,8	42,4	34,9
	25 - 44	12,7	5,2	13,4	17,7	17,9	16,5
	45 ETA +	5,6	2,6	8,7	12,1	10,8	11,0

Iturria: EUSTAT. "Populazioaren inkesta jarduerarekin erlazionatuta".
**2015eko datua behin-behinekoa da.*

Sexuaren arabera, gizonezkoen langabezia-tasa emakumeena baino puntu bat handiagoa da (%15,2 eta %14,2 hurrenez hurren); adin-taldearen arabera, berriz, gehienak 25 urtetik beherako gazteak dira, eta talderik txikiena 45 urteko eta gehiagokoen taldean. 2014ko amaieraren aldean, behera egin zuen langabeziak sexu bietan eta aintzat harturiko adin-segmentuetan, 44 urtetik gorakoetan izan ezik (bi hamarren gutxiago).

II.1.10. KOADROA. EB-KO LANGABEZIA: ADIERAZLE NAGUSIAK 2014-2015. III HIRUHILEKOAK.

	LANGABEZIA-TASA OROKORRA		GIZONAK		EMAKUM.		GAZTEEN LANGABEZIA-TASA (< 25 URTE		IRAUPEN LUZ. LANG. %(>1 URT.)	
	2014	2015	2014	2015	2014	2015	2014	2015	2014	2015
28KO EB	9,8	9,0	9,5	8,8	10,0	9,2	21,6	19,9	49,9	48,2
EURO GUNEA	11,1	10,3	10,8	10,1	11,5	10,5	23,1	21,9	53,2	51,5
BELGIKA	8,7	8,2	9,0	8,5	8,3	7,8	21,3	22,2	49,8	51,0
BULGARIA	10,8	8,3	11,5	8,8	9,9	7,6	21,4	19,2	61,3	63,0
TXEKIAR E.	5,9	4,8	4,8	3,9	7,3	6,0	16,3	12,9	43,8	48,5
DANIMARKA	6,5	6,2	6,5	5,7	6,6	6,8	13,1	12,8	25,4	25,2
ALEMANIA	4,8	4,4	5,0	4,8	4,6	4,0	8,4	8,3	43,0	43,1
ESTONIA	7,5	5,2	8,1	4,7	6,8	5,8	13,4	11,6	43,4	35,6
IRLANDA	11,3	9,3	12,6	10,6	9,8	7,8	23,2	20,7	57,6	55,6
GREZIA	25,6	24,1	22,7	20,7	29,2	28,2	49,5	48,8	75,4	73,7
ESPAINIA	23,7	21,2	22,5	19,9	25,0	22,7	52,4	46,6	53,4	51,0
FRANTZIA	9,9	10,0	9,9	10,3	9,9	9,7	23,8	24,5	44,8	44,8
KROAZIA	15,7	15,5	15,3	14,4	16,3	16,7	40,4	41,0	61,5	67,5
ITALIA	11,8	10,6	11,0	10,0	12,8	11,4	39,6	35,3	63,3	59,1
ZIPRE	16,1	14,8	16,9	14,2	15,2	15,5	33,4	32,3	48,5	44,6
LETONIA	10,6	9,7	11,0	11,1	10,1	8,3	21,4	16,2	42,7	50,6
LITUANIA	9,1	8,3	10,5	9,1	7,8	7,6	16,4	15,3	47,5	43,9
LUXENBURGO	6,4	7,7	5,7	6,9	7,4	8,8	36,6	17,4	27,7	26,7
HUNGARIA	7,4	6,4	7,1	6,1	7,7	6,7	21,6	16,7	46,6	47,4
MALTA	5,9	5,3	6,0	5,5	5,6	4,9	12,0	13,3	46,3	44,5
HOLANDA	7,0	6,6	6,7	6,3	7,3	6,9	12,0	11,0	40,1	43,8
AUSTRIA	5,6	5,6	5,7	6,0	5,4	5,2	10,5	11,2	27,3	28,9
POLONIA	8,2	7,1	7,5	6,7	9,0	7,5	23,1	19,7	43,7	37,7
PORTUGAL	13,3	12,1	12,5	11,7	14,2	12,4	32,2	30,8	60,1	57,5
ERRUMANIA	6,5	6,5	6,8	7,0	6,2	5,9	22,5	19,9	39,7	45,2
ESLOVENIA	9,3	8,6	8,4	7,2	10,2	10,1	18,4	12,9	52,6	55,6
ESLOVAKIA	12,9	11,3	12,3	10,0	13,6	12,9	30,0	27,9	69,9	67,0
FINLANDIA	7,5	8,4	7,9	8,5	7,1	8,2	13,5	16,3	25,5	28,2
SUEDIA	7,2	6,6	7,4	6,7	7,0	6,4	18,1	15,9	19,4	22,2
ERRESUMA B.	6,1	5,5	6,3	5,6	5,9	5,4	17,2	15,2	34,1	28,2
EAE*	**15,8**	**14,7**	**15,7**	**15,2**	**15,9**	**14,2**	**42,4**	**34,9**	**:**	**:**

Iturria: EUROSTATen eta EUSTATen datuekin eginikoa.
**Laugarren hiruhilekoaren datuak. 2015eko datuak behin-behinekoak dira.*

5 Memoria honetako "I. EAEko ekonomia" I. kapituluak Estatuko langabeziaren bilakaerari buruzko informazioa dakar, Autonomia Erkidegoen arabera.

Europar Batasunean, askotarikoak dira langabeziak dituen balioak: %20tik gorakoak, Espainian (%21,2) eta Grezian (%24,1), eta %6tik beherakoak, Maltan Erresuma Batuan, Estonian eta Austrian esaterako. AEBetan, %5eko langabezia-tasa zegoen 2015eko amaieran, Japonian %3,3 eta Frantziak, Irlandak eta Letoniak EBko batez bestekoaren antzeko zifrak zituzten, zenbait adibide aipatzearren.

2015ean, behera egin zuen langabetuen kopuruak gure Erkidegoan (laugarren hiruhilekoak), 2014an gauza bera egin ostean eta 2008tik etengabe langabeziak Euskadin gora egin ondoren. Zehazki, eginiko zenbatespenen arabera, 2015eko amaieran 154.800 langabetu zeuden, aurreko urtean baino %7,1 gutxiago (-11.900 lagun), eta horietatik 84.600 gizonezkoak ziren eta 70.200 emakumeak. Langabeziaren jaitsiera gehienbat emakumeen artean gertatu zen, zeren eta %11,1 egin baitzuen gora emakume langabeen kopuruak (8.800 langabetu gutxiago). Gizonezkoena, berriz, %3,5 jaitsi zen (-3.100 gutxiago). Bilakaera horren ondorioz, 2015eko amaieran, puntu bateko aldea zegoen 2015eko langabezia-tasan sexuaren aldetik; izan ere, %15,2koa zen gizonentzat eta %14,2 emakumeentzat (%14,7 batez beste, ikusi dugunez), noiz-eta 2014ko amaieran emakumeen tasa gizonezkoena baino bi hamarren handiagoa zenean (%15,9 eta %15,7 hurrenez hurren).

Adinen arabera, behera egin zuen langabeziak 44 urtera arte (-%20 25 urtetik beherakoen artean eta -%11,4 25-44 urte artekoen taldean). Adin horretatik gorako pertsonen artean, aldiz, gora egin zuen, %6,5 hain zuzen ere (+3.200 pertsona). Horren ondorioz, adin-talde horretako langabezia-tasa %11raino igo zen, %14,7ko batez bestekoaren azpitik artean. Gazteenen taldean, berriz, behera egin zuen, baina batez bestekoaren gainetik zegoen: %16,5 25-44 urte arteko pertsonentzat eta %34,9 gazteenentzat.

EBn, %20 ingurukoa zen gazteen langabezia-tasa EB osoan (%19,9 28ko EBn eta %21,9 euro gunean), eta %30etik gorakoak ziren Italian, Portugalen eta Zipren, esaterako, eta %40tik gorakoak Grezian (%48,8) eta Espainian (%46,6). Beste muturrean zeuden Danimarka, Malta, Austria eta Holanda, %11-%13 inguruko ratioekin, eta Alemania nabarmentzen zen gazteen langabezia-tasa txikiagatik: %8,3.

II.1.11. KOADROA. LANGABETUAK EAE-N. ALDAGAI NAGUSIEN BILAKAERA. MILAKA. (IV HIRUHILEKOAK)

	PERTSONA KOP. (MILA)			DIFERENTZIA		% ALDAK.		LANGABEZIA-TASA	
	2013	2014	2015*	2013-14	2014-15*	2013-14	2014-15*	2014	2015*
GUZT.	**170,6**	**166,7**	**154,8**	**-3,9**	**-11,9**	**-2,3**	**-7,1**	**15,8**	**14,7**
GIZONAK	91,5	87,7	84,6	-3,8	-3,1	-4,2	-3,5	15,7	15,2
EMAKUM.	79,1	79,0	70,2	-0,1	-8,8	-0,1	-11,1	15,9	14,2
16-24 urte	18,0	19,0	15,2	1,0	-3,8	5,6	-20,0	42,4	34,9
25-44 urte	97,7	98,4	87,2	0,7	-11,2	0,7	-11,4	17,9	16,5
45 urte eta +	54,8	49,3	52,5	-5,5	3,2	-10,0	6,5	10,8	11,0
OINARRIZKO IKASKETAK	10,2	7,0	:	-3,2	:	-31,4	:	16,0	:
ERDI MAILAKO IKASKETAK	121,1	120,6	:	-0,5	:	-0,4	:	18,7	:
GOI-MAILAKO IKASKETAK	39,3	39,1	:	-0,2	:	-0,5	:	10,7	:

Iturria: EUSTAT "BJA".
**** 2015eko datuak behin-behinekoak dira.***

Bestalde, oinarrizko ikasketak zituzten langabetuak 7.000 ziren 2014ko amaieran (azken datu eskuragarria), eta %31,4 egin zuen behera. Hala, %16ko langabezia-tasa zen (%15,8ko batez bestekoaren aldean). Bestalde, erdi mailako ikasketak zituztenak 120.600 ziren (guztien %72,3), %0,4 gutxiago, langabezia-tasa batez bestekoa baino handiagoa izan arte: %18,7.

Azkenik, goi-mailako ikasketak zituzten langabetuen kopurua batez bestekotik behera jaitsi zen (%0,5), eta %10,7ko langabezia-tasa zuten 2014ko amaieran, 2013an baino hamarren bat gutxiago.

Sektoreen arabera, langabetuen %59,1 zerbitzuen sektorekoak ziren 2015eko laugarren hiruhilekoan, non langabezia %17,2 jaitsi baitzen (-19.000 pertsona, eta horien erdia baino gehiago emakumeak ziren %56).

II.1.12. KOADRAO. LANGABETUEN BILAKAERA EAE-N, SEXUAREN ETA SEKTOREEN ARABERA. 2013-2015*. IV HIRUHILEKOAK.

		BATEZBESTEKOAK (MILAKOAK)			GEHIKUNTZA (MILAKOAK)		URTE ARTEKO ALDAK.-TASA (%)	
		2013	2014	2015*	13-14	14-15*	13-14	14-15*
GIZONAK	LEHEN SEKTOREA	1,5	2,1	1,4	0,6	-0,7	40,0	-33,3
	INDUSTRIA	23,8	18,8	19,0	-5,0	0,2	-21,0	1,1
	ERAIKUNTZAN	18,7	17,0	16,7	-1,7	-0,3	-9,1	-1,8
	ZERBITZUAK	44,8	46,2	37,9	1,4	-8,3	3,1	-18,0
	1. LANAREN BILA	2,7	3,7	9,7	1,0	6,0	37,0	162,2
	GUZT.	91,5	87,7	84,6	-3,8	-3,1	-4,2	-3,5
EMAKUM.	LEHEN SEKTOREA	0,1	0,2	0,5	0,1	0,3	100,0	150,0
	INDUSTRIA	6,7	5,0	4,9	-1,7	-0,1	-25,4	-2,0
	ERAIKUNTZAN	3,0	2,3	0,7	-0,7	-1,6	-23,3	-69,6
	ZERBITZUAK	63,1	64,4	53,7	1,3	-10,7	2,1	-16,6
	1. LANAREN BILA	6,2	7,2	10,5	1,0	3,3	16,1	45,8
	GUZT.	79,1	79,0	70,2	-0,1	-8,8	-0,1	-11,1
GUZT.	LEHEN SEKTOREA	1,6	2,2	1,8	0,6	-0,4	37,5	-18,2
	INDUSTRIA	30,5	23,8	23,9	-6,7	0,1	-22,0	0,4
	ERAIKUNTZAN	21,7	19,3	17,4	-2,4	-1,9	-11,1	-9,8
	ZERBITZUAK	107,8	110,5	91,5	2,7	-19,0	2,5	-17,2
	1. LANAREN BILA	8,9	10,8	20,2	1,9	9,4	21,3	87,0
	GUZT.	**170,6**	**166,7**	**154,8**	**-3,9**	**-11,9**	**-2,3**	**-7,1**

Iturria: EUSTAT. "Biztanleriaren Inkesta jarduerarekin erlazionatuta".
** 2015eko datuak behin-behinekoak dira.*

Bestalde, industria langabezia osoaren %15,4 zen 2015eko bukaeran, eta %0,4 hazi zen langabezia sektore horretan (+100 pertsona), aurreko urtean %22 behera egin ostean. Industriako langabeziaren igoera hori gizonezkoena zen soilik (+%1,1); izan ere, murriztu egin zen emakumeen artean (-%2). Eraikuntzan, bestalde, %9,8 egin zuen behera langabetuen kopuruak (-1.900 pertsona garbi). Horrez gain, nabarmen egin zuen gora lehen lana bilatzen ari ziren pertsonen kopuruak, 9.400 gehiago (%87), eta guztira 20.200 zenbatu ziren hiruhilekoaren batez besteko gisa; horietatik %52 emakumeak ziren eta %48 gizonezkoak.

Lurraldeka, guztietan jaitsi zen langabezia, baina neurri desberdinean: Gipuzkoak, 2015eko laugarren hiruhilekoan, langabezia-tasarik txikiena zuen, %13koa, eta gainera 1,3 puntu murriztu zen 2014aren aldean; Araba, berriz, nabarmendu hobetu zen, 2,2 puntu gutxiago izan baitzuen, %14,4raino, hori ere EAEko batez bestekoaren azpitik (%14,7). Bizkaiak, azkenik, langabezia-tasarik handiena zuen (%15,9), eta hobekuntzarik txikiena izan zuena izan zen azken urtean (ratioa 7 hamarretan jaitsi zen).

II.1.7. GRAFIKOA. EAE-KO LANGABEZIA-TASAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA



Iturria: EUSTAT. BJA.
**2015eko datuak behin-behinekoak dira.*

b) LANBIDEk (Enpleguko Euskal Zerbitzua) erregistraturiko langabezia

Bestalde, 2015eko bukaeran, BJAk zenbatetsitakoen oso antzeko zifrak bildu zituen LANBIDEk langabeziaren inguruan, estatistika-eragiketa horretan berriki sartu ziren metodologia aldaketaren ondoren. 2015eko abenduan, 150.017 langabetu zeuden erregistraturik LANBIDEn (%9,5 gutxiago aurreko urtearen aldean, eta Estatuan batez besteko -%8ko jaitsiera izanik), EUSTATen Biztanleriaren Inkestak urteko azken hiruhilekoan Jarduerarekin Erlazionatuta zenbatetsitako 151.000 langabetuen aldean, hots, 15.754 lagun gutxiago.

II.1.13. KOADROA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LANGABEAK, ADINAREN ETA SEXUAREN ARABERA. ABENDUA.

		LANGABETUAK (ABENDUA)			14-15 ALDAK.	
		2013	2014	2015	Abs.	%
< 25 URTE	GIZONAK	5.350	5.081	4.259	-822	-16,2
	EMAKUM.	4.866	4.852	4.177	-675	-13,9
	GUZT.	10.216	9.933	8.436	-1.497	-15,1
25 - 44 URTE	GIZONAK	42.488	40.546	33.864	-6.682	-16,5
	EMAKUM.	42.838	42.535	38.388	-4.147	-9,7
	GUZT.	85.326	83.081	72.252	-10.829	-13,0
45 URTE ETA +	GIZONAK	34.690	34.800	32.246	-2.554	-7,3
	EMAKUM.	37.142	37.957	37.083	-874	-2,3
	GUZT.	71.832	72.757	69.329	-3.428	-4,7
GUZT.	GIZONAK	82.528	80.427	70.369	-10.058	-12,5
	EMAKUM.	84.846	85.344	79.648	-5.696	-6,7
	GUZT.	**167.374**	**165.771**	**150.017**	**-15.754**	**-9,5**

Iturria: EEZPren datuekin egindakoa.

Krisia hasi zenetik erregistraturiko langabeziaren urte arteko saldoa negatiboa deneko hirugarren urtea da, eta gainera, 2014an ez bezala, 2015ean bi sexuetan egin zuen behera langabeziak. Bereziki jaitsi zen langabezia gizonen artean, (-%12,5), baina emakumeen artean ere bai (-%6,7). Aurreko urtean, berriz, gizonenean artean baizik ez zen jaitsiera gertatu (-%1eko batez bestekoa izanik, %2,5 jaitsi zen gizonen artean, baina erregistraturiko emakume langabetuen kopuruak %0,6 egin zuen gora).

II.1.8. GRAFIKOA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LANGABEEN BANAKETA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA. ABENDUA. 2015



Iturria: EEZPren datuekin egina.

Adinen aldetik ere antzeko zerbait gertatu zen, zeren eta 2014ko abenduaren eta 2015eko abenduaren artean LANBIDEn erregistraturiko langabeziak behera egin baitzuen adin guztietan (neurri handiagoan gazteenen artean: -%15,1 25 urtetik beherakoentzat eta -%13 25-44 urte bitartekoentzat, adin horretatik gorakoen -%4,7aren aldean. Aurreko urtean, berriz, behera egin zuen 44 urtetik beherakoen artean (bereziki nabarmentzen da 25 urtetik beherakoen artean izandako jaitsiera), baina gora egin zuen adin horretatik gorakoentzat.

Ikasketa mailaren arabera, behera egin zuen langabeziak 2014ko abenduarekin alderatuta maila guztietan eta sexu bietan, salbu eta ikasketarik gabeko edo amaitu gabeko oinarrizko ikasketak zituzten emakumeen artean (+%2,7), baina, nolanahi ere, emakume langabeen %7,1 ziren. Hala ere, jaitsierarik handienak, batez bestekoaren gainetik, goi-mailako ikasketak zituzten pertsonen artean gertatu zen, bereziki lehen zikloko unibertsitateko tituludunen artean (-%15,2); bigarren mailako ikasketen bilakaera, berriz, batez bestekoaren inguruan kokatzen zen (-%9,5 LHko tituludunentzat eta -%10,9 hezkuntza orokorreko ikasketak zituztenentzat). Oinarrizko ikasketadunen langabeziak behera egin zuen, baina batez bestekoaren azpitik (-%5,6).

Aipaturik joera hori, gainera, oso antzekoa da bi sexuetan. Hala ere, langabetuen talderik handiena hezkuntza orokorreko titulua zuten pertsonen artean kokatzen zen (erregistraturiko pertsona guztien %49,5) eta, oinarrizko ikasketak dituztenak gehituz gero (%20,6)), langabetuen % 70,1 ziren orotara (gizonezkoen %74,3 eta emakumezkoen %66,5).

II.1.14. KOADROA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LANGABETUAK, IKASKETA MAILAREN ETA SEXUAREN ARABERA. ABENDUAK.

			LANGABEAK (ABENDUA)				14-15 ALDAK.	
			2013	2014	2015	Dist. 2015*	Abs.	%
OINARRIZKOAK	IKASKETARIK EZ EDO OINARRIZKOAK BUKATU GABE	GIZONAK	5.371	5.666	5.483	7,8	-183	-3,2
		EMAKUM.	4.995	5.510	5.657	7,1	147	2,7
		GUZT.	10.366	11.176	11.140	7,4	-36	-0,3
	OSOAK	GIZONAK	10.580	10.877	9.922	14,1	-955	-8,8
		EMAKUM.	9.295	10.073	9.848	12,4	-225	-2,2
		GUZT.	19.875	20.950	19.770	13,2	-1.180	-5,6
BIGARREN MAILAKOAK	LANBIDE PRESTAKUNTZA	GIZONAK	6.652	6.551	5.643	8,0	-908	-13,9
		EMAKUM.	7.705	7.676	7.231	9,1	-445	-5,8
		GUZT.	14.357	14.227	12.874	8,6	-1.353	-9,5
	HEZKUNTZA OROKORRA	GIZONAK	44.836	42.797	36.871	52,4	-5.926	-13,8
		EMAKUM.	41.569	40.597	37.445	47,0	-3.152	-7,8
		GUZT.	86.405	83.394	74.316	49,5	-9.078	-10,9
BIGARREN MAILAKOEN ONDORENGOAK	GOI-MAILAKO TEKN. PROF.	GIZONAK	7.361	7.214	6.035	8,6	-1.179	-16,3
		EMAKUM.	5.279	8.384	7.651	9,6	-733	-8,7
		GUZT.	15.640	15.598	13.686	9,1	-1.912	-12,3
	LEHEN ZIKLOA	GIZONAK	2.517	2.203	1.782	2,5	-421	-19,1
		EMAKUM.	4.499	4.367	3.791	4,8	-576	-13,2
		GUZT.	7.016	6.570	5.573	3,7	-997	-15,2
	BIGARREN ETA HIRUGARREN ZIKLOA	GIZONAK	5.127	5.035	4.559	6,5	-476	-9,5
		EMAKUM.	8.345	8.575	7.877	9,9	-698	-8,1
		GUZT.	13.472	13.610	12.436	8,3	-1.174	-8,6
	BESTEK BATZUK	GIZONAK	84	84	74	0,1	-10	-11,9
		EMAKUM.	159	162	148	0,2	-14	-8,6
		GUZT.	243	246	222	0,1	-24	-9,8
GUZT.		GIZONAK	82.528	80.427	70.369	100,0	-10.058	-12,5
		EMAKUM.	84.846	85.344	79.648	100,0	-5.696	-6,7
		GUZT.	**167.374**	**165.771**	**150.017**	**100,0**	**-15.754**	**-9,5**

Iturria: EEZPren datuekin egindakoa.
****Sexu bakoitzaren guztizkoarekiko portzentajearen banaketa.***

Aurreko lan esperientzia duten eta langabetu gisa inskribaturik dauden pertsonen jarduerari dagokionez, EEZPek argitaraturiko datuek erakusten dutenez, 2015eko abenduan behera egin zuen jarduera-atal guztietan EAEn erregistraturiko langabetuen kopuruak, bereziki enpleguan -eta langabezian- pisu handiena dutenetan, 2014ko abenduko datuen aldean. Erregistraturiko langabezian %13,1 duten administrazio-jarduerek %10,3 egin zuten behera, bereziki gizonen artean. Manufaktura-industria %16 jaitsi zen, eta hala ere, erregistraturiko langabeziaren %12,8 zen.

Eraikuntza ere batez bestekoaren azpitik jaitsi zen, %1,46, eta 2015eko amaieran langabeziaren %10,1 zen. Bi jarduera horietan, gainera, gizonezkoak askoz gehiago ziren emakumezkoak baino (manufaktura-industriako langabetuen %61,4 eta eraikuntzaren %89raino).

Hona hemen batez bestekoaren azpitik jaitsi ziren eta erregistraturiko langabezian pisu handia zuten bi jarduera-atal: merkataritza (langabezia guztiaren %13,8, eta horietatik %65 emakumeak ziren), %7,6 jaitsita, eta ostalaritza (erregistraturiko langabeziaren %9,2, eta horretatik %66,1 emakumezkoak ziren): %6,9 egin zuen behera, batez bestekoaren -%9,5aren aldean.

II.1.15. KOADROA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LANGABEZIA, SEXUAREN ETA JARDUERAREN ARABERA (CNAE 2009). ABENDUA.						
	2014	LANGABEAK 2015				% 14/15 ald.
		GIZONAK	EMAKUM.	GUZT.	% bertikala	
NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA, BASOGINTZA, ARRANTZA	3.359	2.509	837	3.346	2,2	-0,4
ERAUZKETA-INDUSTRIAK	119	62	46	108	0,1	-9,2
MANUFAKTURA-INDUSTRIA	22.806	11.753	7.395	19.148	12,8	-16,0
ARGINDARRAREN, GASAREN, LURRINAREN HORNIDURA	88	57	27	84	0,1	-4,5
URAREN HORNIDURA, HONDAKINEN KUDEAKETA	972	653	186	839	0,6	-13,7
ERAIKUNTZA	17.753	13.494	1.669	15.163	10,1	-14,6
HANDIZKAKO ETA TXIKIZKAKO MERKATARITZA; KONPONKETA	22.412	7.213	13.498	20.711	13,8	-7,6
GARRAIOA ETA BILTEGIRATZEA	4.817	2.823	1.245	4.068	2,7	-15,5
OSTALARITZA	14.819	4.674	9.118	13.792	9,2	-6,9
INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOAK	3.209	1.445	1.360	2.805	1,9	-12,6
FINANTZA- ETA ASEGURU-JARDUERAK	1.137	333	640	973	0,6	-14,4
HIGIEZINEN ARLOKO JARDUERAK	619	176	319	495	0,3	-20,0
PROFESIONALAK, ZIENTIFIKOAK ETA TEKNIKOAK	9.656	3.090	5.482	8.572	5,7	-11,2
ADMINISTRAZIO-JARDUERAK	21.957	9.363	10.326	19.689	13,1	-10,3
ADMINISTRAZIO PUBLIKOA	5.008	2.302	2.238	4.540	3,0	-9,3
HEZKUNTZA	3.943	1.006	2.576	3.582	2,4	-9,2
OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZUETAKO JARDUERAK	6.958	1.201	5.203	6.404	4,3	-8,0
ARTE, JOLAS ETA ENTRETENIMENDU JARDUERAK	2.874	1.254	1.269	2.523	1,7	-12,2
BESTE ZERBITZU BATZUK	4.383	1.201	2.915	4.116	2,7	-6,1
ETXEAK, PERTSONALEKO ENPLEGATZAILE	3.178	591	2.874	3.465	2,3	9,0
LURRALDEZ GAINDIKO ERAKUNDEAK ETA ELKARTEAK	38	23	23	46	0,0	21,1
AURREKO LANIK GABE	15.666	5.116	10.432	15.548	10,4	-0,8
GUZT.	**165.771**	**70.339**	**79.678**	**150.017**	**100,0**	**-9,5**

Iturria: EEZPren datuekin eginikoa.

II.1.16. KOADROA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LANGABEZIA, JARDUERA SEKTORE HANDIEN ETA SEXUAREN ARABERA. 2014KO ETA 2015EKO ABENDUAK										
	2014				2015				14-15 ABS. ALD.	
	GIZONAK		EMAKUM.		GIZONAK		EMAKUM.		GIZONAK	EMAKUM.
	ABS.	% B.	ABS.	% B.	ABS.	% B.	ABS.	% B.		
LEHEN SEKTOREA	2.514	3,1	845	1,0	2.509	3,6	837	1,1	-5	-8
INDUSTRIA	15.380	19,1	8.605	10,1	12.525	17,8	7.654	9,6	-2.855	-951
ERAIKUNTZA	15.865	19,7	1.888	2,2	13.494	19,2	1.669	2,1	-2.371	-219
ZERBITZUAK	41.472	51,6	63.536	74,4	36.695	52,2	59.086	74,2	-4.777	-4.450
AURREKO LANIK GABE	5.196	6,5	10.470	12,3	5.116	7,3	10.432	13,1	-80	-38
GUZT.	**80.427**	**100,0**	**85.344**	**100,0**	**70.339**	**100,0**	**79.678**	**100,0**	**-10.088**	**-5.666**

Iturria: EEZPren datuekin eginikoa.

Aurreko lanik ez duten eta langabetu gisa erregistraturik dauden pertsonei dagokienez, 2015eko abenduan, guztizkoaren %10,4 ziren (batez bestekoa baino neurri txikiagoan jaitsi zen, %0,8 besterik ez), eta emakumeen presentzia handia zen taldean, zeren eta kategoria horretan inskribaturiko 15.500 pertsonen bi herenak baitziren (%67,1).

Langabezian emandako denbora kontuan hartzen badugu, 2015ean behera egin zuen kategoria guztietako langabetuen kopuruak, neurri desberdinean bada ere, halako moldez non langabezian denbora gehien daramatenen taldea baita gutxien murriztu zena, gehienbat emakumeen artean. Horrek argi erakusten du laneratzea gero eta zailagoa dela, langabezian etengabe egoteko denbora handituz doan heinean.

Erregistraturiko guztizko langabezia %9,5 murriztuta, langabezian hilabete baino denbora laburragoa daramaten pertsonen guztizkoak (ondoko taulan 25 urtetik beherakoen eta gorakoen gaineko datu banakatuak emango dira) %13,5 egin zuen behera, %127, lanik gabe 1-6 hilabete daramatzatenak, %11,9 6 hilabete eta urtebete arteko denbora daramatenak eta, batez bestekoaren gainetik, langabezian urtebetetik gora egin dutenenak. Gauzak horrela, iraupen luzeko langabezia-tasa (egoera horretan urtebetetik gorako denbora daramaten langabetuen portzentajea) %53,3koa zen 2015eko abenduan, 2014ko abenduan baino %1,7 gehiago. Ratio hori %48,4 zen gizonen artean (+1,1 puntu) eta %57,6koa emakumeen artean (+1,9 puntu).

II.1.17. KOADROA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LANGABEAK, ENPLEGUAREN IRAUPPENAREN, ADINAREN ETA SEXUAREN ARABERA. ABENDUA.

			LANGABETU ERREGISTRATUAK			ALDAK. %	
			2013	2014	2015	2013-14	2014-15
< 25 URTE	< HILAB.	GIZONAK	753	639	579	-15,1	-9,4
		EMAKUM.	555	571	481	2,9	-15,8
		GUZT.	1.308	1.210	1.060	-7,5	-12,4
	1-6 HILAB.	GIZONAK	2.622	2.585	2.108	-1,4	-18,5
		EMAKUM.	2.254	2.274	1.844	0,9	-18,9
		GUZT.	4.876	4.859	3.952	-0,3	-18,7
	6 HILAB. – URTEB.	GIZONAK	793	719	586	-9,3	-18,5
		EMAKUM.	724	713	593	-1,5	-16,8
		GUZT.	1.517	1.432	1.179	-5,6	-17,7
	> URTEB.	GIZONAK	1.182	1.138	986	-3,7	-13,4
		EMAKUM.	1.333	1.294	1.259	-2,9	-2,7
		GUZT.	2.515	2.432	2.245	-3,3	-7,7
	GUZT.	GIZONAK	5.350	5.081	4.259	-5,0	-16,2
		EMAKUM.	4.866	4.852	4.177	-0,3	-13,9
		GUZT.	10.216	9.933	8.436	-2,8	-15,1
> 25 URTE	< HILABETE	GIZONAK	7.113	6.254	5.314	-12,1	-15,0
		EMAKUM.	4.986	4.632	4.083	-7,1	-11,9
		GUZT.	12.099	10.886	9.397	-10,0	-13,7
	1-6 HILAB.	GIZONAK	21.653	21.224	18.326	-2,0	-13,7
		EMAKUM.	18.509	18.542	16.687	0,2	-10,0
		GUZT.	40.162	39.766	35.013	-1,0	-12,0
	6 HIL.- URTEB	GIZONAK	12.120	10.972	9.406	-9,5	-14,3
		EMAKUM.	11.774	11.064	10.081	-6,0	-8,9
		GUZT.	23.894	22.036	19.487	-7,8	-11,6
	> URTEB.	GIZONAK	36.292	36.896	33.064	1,7	-10,4
		EMAKUM.	44.711	46.254	44.620	3,5	-3,5
		GUZT.	81.003	83.150	77.684	2,7	-6,6
	GUZT.	GIZONAK	77.178	75.346	66.110	-2,4	-12,3
		EMAKUM.	79.980	80.492	75.471	0,6	-6,2
		GUZT.	157.158	155.838	141.581	-0,8	-9,1
GUZT.		GIZONAK	82.528	80.427	70.369	-2,5	-12,5
		EMAKUM.	84.846	85.344	79.648	0,6	-6,7
		GUZT.	**167.374**	**165.771**	**150.017**	**-1,0**	**-9,5**

Iturria: EEZPren datuekin eginikoa.

25 urtetik beherakoen artean, iraupen luzeko langabeziaren pisua pixka bat txikiagoa bada ere, gauza bera gertatzen da: gutxiago murriztu zen iraupen luzeko langabezia iraupen laburragoko langabezia eta batez bestekoa baino, halako moldez non iraupen luzeko langabezia %26,6 hazi baitzen gazteen artean (%23,2 gizonezkoetan eta %30,1 emakumezkoetan).

Eta 25 urtetik beherako langabetuentzat, are handiagoa da iraupen luzeko langabeziaren pisua: batez bestekoa %54,9 zen (+1,5 puntu), %50 gizonen artean (puntu 1) eta ratiorik handiena 25 urtetik gorako emakumeen artean zegoen: horien %59,1ek urtebetetik gora zeraman langabezian (+1,6 puntu 2014ko abenduarekin alderatuta).

II.1.18. KOADROA. IRAUPEN LUZEKO LANGABEZIA-TASA (> URTEBETE) EAE-N ADINAREN ETA SEXUAREN ARABERA. ABENDUA.

		LANGABETU GUZTIEN %			ALDAK. P.P.	
		2013	2014	2015	2013-14	2014-15
< 25 URTE	GIZONAK	22,1	22,4	23,2	0,3	0,8
	EMAKUM.	27,4	26,7	30,1	-0,7	3,4
	GUZT.	24,6	24,5	26,6	-0,1	2,1
> 25 URTE	GIZONAK	47,0	49,0	50,0	2,0	1,0
	EMAKUM.	55,9	57,5	59,1	1,6	1,6
	GUZT.	51,5	53,4	54,9	1,9	1,5
GUZT.	GIZONAK	45,4	47,3	48,4	1,9	1,1
	EMAKUM.	54,3	55,7	57,6	1,4	1,9
	GUZT.	49,9	51,6	53,3	1,7	1,7

Iturria: EEZPren datuekin eginikoa.

Bestalde, 2013an eta 2014an ez bezala, enplegu-eskatzaileen guztizko kopurua ez zen igo EAEn 2015ean; egonkor eutsi zion, teknikoki langabezian[6] ez zeuden enplegu-eskatzaileen kopuruak gora egin bazuen ere (guztira 122.757 pertsona ziren, aurreko urtean baino %14,6 gehiago). Enplegu-eskatzaileak, guztira, 272.774 ziren, 2014ko abenduan baino 108 gutxiago. Motelaldi hori gertatu zen gizonen guztizko enplegu-eskariaren bilakaerari esker, %2,8 murriztuta, zeren eta emakumeenak goranzko bideari eusten baitzion, 2014an baino askoz gutxiago bada ere: %2,4 hazi zen, aurreko urteko +%14,3arekin alderatuta. Estatu mailan, enpleguaren guztizko eskaria %7 jaitsi zen (-%5,7 2014an).

II.1.19. KOADROA. ENPLEGU-ESKARIAREN BILAKAERA EAE-N LAN EGOERAREN ETA SEXUAREN ARABERA. ABENDUA.

		2013	2014	2015	ALDAK. %	
					2013-14	2014-15
LANGABEAK	GIZONAK	82.528	80.427	70.369	-2,5	-12,5
	EMAKUM.	84.846	85.344	79.648	0,6	-6,7
	GUZT.	167.374	165.771	150.017	-1,0	-9,5
LANGAB. EZ DIRENAK	GIZONAK	34.229	47.416	53.848	38,5	13,6
	EMAKUM.	42.062	59.695	68.909	41,9	15,4
	GUZT.	76.291	107.111	122.757	40,4	14,6
GUZT.	GIZONAK	116.757	127.843	124.217	9,5	-2,8
	EMAKUM.	126.908	145.039	148.557	14,3	2,4
	GUZT.	**243.665**	**272.882**	**272.774**	**12,0**	**0,0**

Iturria: EEZPren datuekin eginikoa.

Azkenik, LANBIDEren bulegoetan erregistraturiko langabeziari buruzko datuek erakusten dutenez, 2015ean murriztu egin zen atzerritarren langabezia, baina guztizko langabezia baino neurri txikiagoan (-%3,3, guztizko batez bestekoaren -%9,5aren aldean). Hori dela-eta, gora egin zuen atzerritar langabetuen pisuak, %14,7tik %15,7ra.

Estatu mailan, langabetuen %11,9 ziren, aurreko urteko ratio bera; izan ere, atzerritarren langabezia %8,2 jaitsi zen, guztizko langabeziaren antzera (-%8).

II.1.20. KOADROA. ATZERRITARREN ARTEAN ERREGISTRATURIKO LANGABEZIAREN BILAKAERA EAE-N, JATORRIAREN ARABERA, ETA ESTATUAREKIKO ERKAKETA. ABENDUA.

		EAE	ESTATUA	% EAE/ESTATUA
2013	EB	4.706	180.115	2,6
	EB-KOAK EZ	17.936	375.613	4,8
	GUZT.	22.642	555.728	4,1
	Guz. lang. %	13,5	11,8	-
2014	EB	5.409	188.699	2,9
	EB-KOAK EZ	18.952	342.292	5,5
	GUZT.	24.361	530.991	4,6
	Guz. lang. %	14,7	11,9	-
2015	EB	4.954	173.248	2,9
	EB-KOAK EZ	18.609	313.969	5,9
	GUZT.	23.563	487.217	4,8
	Guz. lang. %	15,7	11,9	-
2014-15 ald. %	EB	-8,4	-8,2	
	EB-KOAK EZ	-1,8	-8,3	
	GUZT.	-3,3	-8,2	
	Guz. lang. %	6,8	0,0	-

Iturria: EEZPren datuekin eginikoa.

[6] *Hauexek osatzen dute enplegu-eskatzaileen guztizko kopurua: enplegu-eskatzaileek (gehienak ziren, 2015eko abenduan: EAEko enplegu-eskatzaile guztien %55) gehi beste lanpostu bat eskuratu nahi dutenek eta bestelako egoeretakoek hala nola lan-eskatzaileak izan barik lanerako eskabide bereziak eta baliagarritasun mugatua dituztenek (bakarrik etxez etxe, atzerrian, telelana, etab.).*

2. KONTRATAZIOEN BILAKAERA, ALDI BATERAKO KONTRATUEN AMAIERA ETA IRAIZPENAK

2.1. Kontratazioaren egoera

Kontratazioak gora egin zuen 2015ean aurreko urtearen aldean (+%14,2 guztira, eta %14,1 hasierako kontratuen kopuruan, hots, kontratu guztien %98 dira), eta 2014ko zifra positiboak finkatu ziren (+%11,8 eta +%12,1 hurrenez hurren. 2012an eta 2013an, berriz, behera egin zuen kontratazioak.

GRÁFICO II.2.1. EAE-KO LAN-KONTRATUEN URTEKO ALDAKUNTZA (%): HASIERAKO KONTRATUAK ETA GUZTIAK. ESTATUKO GUZTIZKOAREKIKO ALDERAKETA



Iturria: EEZPren datuekin egina.

Orotara, EEZPek 2014. urtean 867.255 lan-kontratu erregistratu ditu (berriak gehi konbertsioak). Horietatik %50 emakumeek izenpetu zuten (%50 aurreko urtean), eta gainera, kontrataturiko pertsona guztien %47,1 zen (aurrerago aztertuko dugu emakumeek eta gizonek urtean –txandaketa- izenpeturiko kontratuen batez besteko kopurua). Lurraldez lurralde, Araban %15,1ekoa izan da kontratazioaren igoera, eta %14,8koa Gipuzkoan. Bizkaian, berriz, %13,6 egin du gora kontratazioaren kopurua, batezbestekoaren azpitik hazita. Banaketari dagokionez, Bizkaian kontratuen %52 sinatu zen, %29,2 Gipuzkoan eta gainerako %18,8a Araban.

Estatuan 2015ean 18,6 milioi kontratu erregistratu dira, hau da, 2014an baino % 11,1 gehiago, nahiz eta urte horretan % 13,1eko gehikuntza egon zen aurreko urtearen aldean.

Sektorez sektore, industria %25,3 hazi zen eta kontratazioaren %16,2 bildu zuen, hots, %1,4 puntu irabazi zituen 2014. urteko zifrekin alderatuta. Zerbitzuek, ordea, 6 hamarren galdu zituzten aurreko urtearekiko (batez bestekoa baino gutxiago hazi ziren, %13,4, baina kontratazio gehien biltzen jarraitzen dute, %77,8 azken urtean. Bestalde, eraikuntzak kontratuen %4 biltzen du, eta puntu erdi galdu du 2014koaren aldean. Lehen sektoreak, berriz, kontratazio berrien %2,1 hartzen du, eta 2014aren aldean jaisten den bakarra, da, %2,2 hain zuzen ere. Gainera, 2009 eta 2015 urte bitartean gertaturikoa kontuan hartuta, industriako kontratazioa %159 jasi zen guztira. Eraikuntzakoak, berriz, %34 galdu zuen.

II.2.1. KOADROA. EAE-N EGONDAKO LAN-KONTRATUEN BILAKAERA, SEXUAREN ETA JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	% 13/14	% 14/15
GUZT.	673.925	710.042	723.820	703.837	678.946	759.149	867.255	11,8	14,2
GIZONAK	309.337	344.521	357.087	328.466	330.787	376.235	433.438	13,7	15,2
EMAKUM.	364.588	365.521	366.733	375.371	348.159	382.914	433.817	10,0	13,3
LEHEN SEKTOREA	10.983	12.827	12.852	14.027	15.622	18.289	17.890	17,1	-2,2
INDUSTRIA	54.108	61.743	64.214	58.410	59.539	111.814	140.145	87,8	25,3
ERAIKUNTZA	52.736	47.488	41.954	33.606	32.250	34.186	34.434	6,0	0,7
ZERBITZUAK	556.180	587.984	604.800	597.794	571.535	594.860	674.786	4,1	13,4

Iturria: EEZP. Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Hona hemen 2015ean gehien kontrataturiko jarduerak: [7] manufaktura-industria (hasierako kontratuen %15,5, eta 2014an baino %25,9 gehiago), ostalaritza (kontratuen %15,2arekin, %17,3 hazita), administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak, horien artean ABLE (hasierako kontratu guztien %12,3, baina 2014an baino %0,6 gehiago besterik ez), osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuetakoak (kontratuen %12 eta %+14,1 2014aren aldean) eta merkataritza (guztizkoaren %11,2 eta +%13,3 aurreko urteko datuen aldean). Sexuaren araberako aldeak ikusten dira, zeren eta

7 Kontratuak jarduera-atalaren arabera aztertzeko, kontuan hartzen dira hasierako kontratuak, kontratu guztien % 98.

manufaktura-industriak biltzen baitu gizonek izenpeturiko kontratuen laurdena (guztien %24,3). Emakumeen artean, berriz, osasun jarduerako eta ostalaritzak dira pisurik handiena biltzen duten jarduera-atalak (bien artean kontratu berrien %38).

II.2.2. KOADROA. KONTRATAZIOA EAE-N (HASIERAKO KONTRATUAK) SEXUAREN ETA JARDUERA-ATALAREN ARABERA (CNAE 2009)

	2014	2015eko KONTRATUAK				ALD. %	ALD. %
		GIZONAK	EMAKUM.	GUZT.	% bertik.	13/14	14/15
NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA, BASOGINTZA, ARRANTZA	18.169	16.207	1.581	17.788	2,1	17,0	-2,1
ERAUZKETA-INDUSTRIAK	94	54	26	80	0,0	46,9	-14,9
MANUFAKTURA-INDUSTRIA	104.437	103.027	28.458	131.485	15,5	97,7	25,9
ARGINDARRAREN, GASAREN, LURRINAREN HORNIDURA	74	59	49	108	0,0	5,7	45,9
URAREN HORNIDURA, HONDAKINEN KUDEAKETA	4.597	4.635	484	5.119	0,6	29,1	11,4
ERAIKUNTZA	33.460	31.952	1.607	33.559	3,9	6,2	0,3
HANDIZKAKO ETA TXIKIZKAKO MERKATARITZA; KONPONKETA	83.718	37.299	57.583	94.882	11,2	34,8	13,3
GARRAIOA ETA BILTEGIRATZEA	47.413	48.507	9.391	57.898	6,8	98,1	22,1
OSTALARITZA	110.026	48.689	80.340	129.029	15,2	33,5	17,3
INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOAK	17.576	12.479	9.145	21.624	2,5	20,7	23,0
FINANTZA- ETA ASEGURU-JARDUERAK	4.229	1.660	3.833	5.493	0,6	38,9	29,9
HIGIEZINEN ARLOKO JARDUERAK	1.302	958	560	1.518	0,2	31,8	16,6
PROFESIONALAK, ZIENTIFIKOAK ETA TEKNIKOAK	25.463	12.606	16.788	29.394	3,5	22,0	15,4
ADMINISTRAZIO-JARDUERAK	103.665	43.464	60.825	104.289	12,3	-43,4	0,6
ADMINISTRAZIO PUBLIKOA	8.615	3.914	5.908	9.822	1,2	44,7	14,0
HEZKUNTZA	33.227	10.850	27.183	38.033	4,5	10,9	14,5
OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZUETAKO JARDUERAK	89.239	19.901	81.901	101.802	12,0	10,2	14,1
ARTE, JOLAS ETA ENTRETENIMENDU JARDUERAK	29.295	19.056	14.067	33.123	3,9	14,4	13,1
BESTE ZERBITZU BATZUK	15.291	7.141	11.365	18.506	2,2	16,3	21,0
ETXEAK, PERTSONALEKO ENPLEGATZAILE	15.162	1.537	14.985	16.522	1,9	7,5	9,0
LURRALDEZ GAINDIKO ERAKUNDEAK ETA ELKARTEAK	31	8	26	34	0,0	158,3	9,7
GUZT.	**745.083**	**424.003**	**426.105**	**850.108**	**100,0**	**12,1**	**14,1**

Iturria: EEZPren datuekin eginikoa. Kontratazioen datuak

Manufaktura-industriaren barnean (esana dugunez kontratu berrien %15,5 biltzen du eta %24,3raino gizonen artean), hona hemen kontratazioaren rankingean buruan zeuden jarduerak 2015ean (CNAE bi digiturekin): Metalezko produktuen fabrikazioa (28.325 kontratu, manufaktura-industriak erregistraturikoen %21,5 eta %23raino gizonen artean), Metalurgia (kontratuen %13,5) eta elikagaien industria (%12,5), halako moldez non 3 atal horien artean 60.000 kontratutik gora biltzen zituzten, manufaktura-industrian erregistraturikoen erdia ia.

II.2.3. KOADROA. MANUFAKTURA-INDUSTRIA:
HASIERAKO KONTRATU KOPURURIK HANDIENA DUTEN ATALAK (CNAE 2009 BI DIGITURA) EAE-N. DATUAK SEXUAREN ARABERA. 2015

	2015EKO KONTRATUAK			2015EKO KONTRATUEN %			2014/15 HAZK. %		
	GIZONAK	EMAKUM.	GUZT.	GIZONAK	EMAKUM.	GUZT.	GIZONAK	EMAKUM.	GUZT.
1. METALEZKO PROD. FABRIK,	23.720	4.605	28.325	23,0	16,2	21,5	21,0	51,7	25,1
2. METALURGIA. PROD. FABRIK.	16.297	1.396	17.693	15,8	4,9	13,5	21,3	17,1	21,0
3. ELIKAGAIEN INDUSTRIA	7.566	8.820	16.386	7,3	31,0	12,5	21,1	22,9	22,0
4. MOTOR. IBILGAILUEN FABRIK.	10.848	2.536	13.386	10,5	8,9	10,2	26,0	8,4	22,2
5. GARRAIO BEST. MAT. FABRIK.	6.822	1.642	8.464	6,6	5,8	6,4	116,2	261,7	134,5
6. KAUTXO ETA PLAST. PROD. FABRIK.	6.110	1.688	7.798	5,9	5,9	5,9	34,6	45,6	36,8
GAINERAKOAK	31.664	7.769	39.433	30,7	27,3	30,0	20,2	8,9	17,8
MANUFAKTURA-INDUSTRIA GUZT.	**103.027**	**28.458**	**131.485**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**25,7**	**26,5**	**25,9**
KONTRATU BERRI GUZTIEN %	34,3	6,7	15,5						

Iturria: EEZP. Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Adin-taldeen arabera, 2015ean sinaturiko kontratu berri gehienak, gizonezkoenak nahiz emakumezkoenak, 25-45 urte bitarteko adin-tarteari dagozkio, kontratuen %60 inguru, 25-35 urte bitarteko eta 35-46 urte bitarteko adinen artean banatuta, %32 eta %27 hurrenez hurren. 25 urtetik beherakoen artean, kontratuen %15 izenpetu zen, biztanleria aktiboan duen pisua baino kopuru handiagoa (%4,1ekoa zen). 2014ko kontratazioen bilakaerari dagokionez, gora egin zuen kontratuen kopuruak adin-talde guztietan, gizonezkoetan nahiz emakumezkoetan, eta ratiorik handienak, batez bestekoaren gainetik, adinik handienetan eta gazteenetan izan ziren, kontratazioen guztizkoen kopuruan pisu txikiagoa izanik ere.

Gizonen eta emakumeen arteko aldeari dagokionez, kontratazioak %50ean banatzen dira bi sexuen artean, baina handiagoa da gizonen artean bitarteko adin-taldeetan (kontratazioaren zatirik handiena biltzen dutenak). Gazteenen artean (30 urtetik beherakoak) eta adin nagusiagokoen artean (45 urtetik gorakoak) emakumeek gizonek baino kontratu gehiago sinatu dituzte.

II.2.4. KOADROA. HASIERAKO KONTRATUAK EAE-N, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA. 2014-2105EKO ERKAKETA

	2015EKO KONTRATUAK			2015EKO KONTRATUEN %			2014-15EKO HAZK. %		
	GIZONAK	EMAKUM.	GUZT.	GIZONAK	EMAKUM.	GUZT.	GIZONAK	EMAKUM.	GUZT.
16-19	7.778	7.635	15.413	1,8	1,8	1,8	28,7	25,0	26,8
20-24	51.494	61.216	112.710	12,1	14,4	13,3	16,8	13,0	14,7
25-29	75.384	76.417	151.801	17,8	17,9	17,9	10,1	9,8	10,0
30-34	69.599	59.566	129.165	16,4	14,0	15,2	9,1	9,0	9,0
35-39	71.555	57.069	128.624	16,9	13,4	15,1	13,3	13,0	13,2
40-44	55.615	53.193	108.808	13,1	12,5	12,8	18,1	14,6	16,4
45-49	41.651	47.610	89.261	9,8	11,2	10,5	20,6	14,1	17,0
50-54	28.744	37.151	65.895	6,8	8,7	7,8	21,9	16,8	19,0
55-59	15.694	19.152	34.846	3,7	4,5	4,1	23,7	22,3	22,9
>59	6.489	7.096	13.585	1,5	1,7	1,6	25,6	21,9	23,6
GUZT.	**424.003**	**426.105**	**850.108**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**15,0**	**13,2**	**14,1**

Iturria: EEZP. Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

II.2.2. GRAFIKOA. EAE-KO LAN-TXANDAKETAREN BILAKAERA (KONTRATATURIKO PERTSONA BAKOITZEKO KONTRATUEN BATEZ BESTEKO KOPURUA), SEXUAREN ARABERA



Iturria: EEZPren datuekin egina.

Kontratazioak ikasketa mailaren arabera duen banaketari dagokionez, hamar kontratutik sei (%59,5) bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonek izenpetzen dituzte, eta horietatik gehienak hezkuntza orokorreko ikasketa mailarekin, gizonezkoen artean (kontratuen %48,5) nahiz emakumeen artean (%46).

HASIERAKO KONTRATUAK EAE-N, SEXUAREN ETA IKASKETA MAILAREN ARABERA. 2014-2105EKO ALDERAKETA

	2015EKO KONTRATUA			2015EKO KONTRATUEN %-a			2014/15eko HAZK. %-a		
	GIZONAK	EMAKUM.	GUZT.	GIZONAK	EMAKUM.	GUZT.	GIZONAK	EMAKUM.	GUZT.
IKASKETARIK GABE	23.573	16.487	40.060	5,6	3,9	4,7	-3,9	-9,3	-6,2
OINARRIZKO IKASKETAK	64.611	53.674	118.285	15,2	12,6	13,9	27,8	25,5	26,8
- Oinarrizkoak bukatu gabe	11.055	8.701	19.756	2,6	2,0	2,3	16,3	7,9	12,5
- Oinarrizkoak bukatuta	53.556	44.973	98.529	12,6	10,6	11,6	30,5	29,6	30,1
BIGARREN MAILAKO IKASKETAK	256.286	249.172	505.458	60,4	58,5	59,5	12,0	12,4	12,2
- LHko programak	50.516	53.056	103.572	11,9	12,5	12,2	14,0	10,1	12,0
- Hezkuntza orokorra	205.770	196.116	401.886	48,5	46,0	47,3	11,5	13,1	12,3
2. MAILAKO IKASKETEN ONDOKOAK	79.120	103.232	182.352	18,7	24,2	21,5	23,2	14,2	17,9
- Goi-mailako teknik. prof.	36.260	28.865	65.125	8,6	6,8	7,7	27,2	20,1	23,9
- Lehen zikloa	11.572	25.430	37.002	2,7	6,0	4,4	19,7	15,4	16,7
- Bigarren eta hirugarren zikloa	26.316	44.955	71.271	6,2	10,6	8,4	20,1	8,9	12,8
- Beste batzuk	4.972	3.982	8.954	1,2	0,9	1,1	20,6	30,3	24,7
ZEHAZTU BARIK	413	3.540	3.953	0,1	0,8	0,5	-12,9	2,0	0,2
GUZT.	**424.003**	**426.105**	**850.108**	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**15,0**	**13,2**	**14,1**

Iturria: EEZP. Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa

Bigarrenik, oinarrizko ikasketak dituzten pertsonei dagokie kontratuen %13,9, gehienek ikasketak bukatuta dituztela. Ondoren, %12,8 unibertsitate ikasketak dituztenei dagokienez, gehienak bigarren eta hirugarren ziklokoak.

Bestalde, kontratazioen gaineko hazkunderik handienak lehen hezkuntzako mailei dagozkie (+%26,8 2014aren aldean, eta %30,1eraino maila bukatu dutenen artean) eta, bigarren mailako ikasketen ondoko ikasketen barnean, goi-mailako lanbide-titulazio teknikoak dituzten langileentzat (+%23,9 kontratu guztietarako eta +%27,2 gizonezkoentzat).

Lanaldi motari helduta, bilakaera positiboa izan zen lanaldi partzialeko kontratuetan, EAEn 342.219 guztira (+%12,9 2014aren aldean), kontratu guztien %39,5ekin, nahiz lanaldi osoko kontratuetan, guztira 522.996, %15,1 hazita (kontratuen %60,3). Gainerako %0,2 lanaldi eteneko 2.040 kontratuei dagokie. Sexuaren arabera, oso desberdina da lanaldi partzialeko kontratazioaren pisua, zeren eta emakumeek sinaturiko kontratuen erdia baino gehiago baita (%52,5 2015ean), gizonek izenpeturiko kontratuen %26,4aren aldean.

II.2.6. KOADROA. EAE-N ERREGISTATURIKO KONTRATUEN BILAKAERA EAE-N, LANALDI MOTAREN ETA SEXUAREN ARABERA

		2012	2013	2014	2015	%13/14	%14/15
LANALDI PARTZIALA	GIZONAK	81.863	85.316	99.147	114.612	16,2	15,6
	EMAKUM.	195.883	183.627	203.939	227.607	11,1	11,6
	GUZT.	277.746	268.943	303.086	342.219	12,7	12,9
LANALDI OSOA	GIZONAK	245.765	244.649	276.242	317.926	12,9	15,1
	EMAKUM.	178.368	163.480	178.024	205.070	8,9	15,2
	GUZT.	424.133	408.129	454.266	522.996	11,3	15,1
LANALDI FINIKO ETENA	GIZONAK	835	821	846	900	3,0	6,4
	EMAKUM.	1.120	1.052	951	1.140	-9,6	19,9
	GUZT.	1.955	1.873	1.797	2.040	-4,1	13,5
GUZT.	GIZONAK	328.463	330.786	376.235	433.438	13,7	15,2
	EMAKUM.	375.371	348.159	382.914	433.817	10,0	13,3
	GUZT.	**703.834**	**678.945**	**795.149**	**867.255**	**11,8**	**14,2**

Iturria: EEZP. Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

II.2.7. KOADROA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LAN-KONTRATUEN BILAKAERA, IRAUPENAREN ETA SEXUAREN ARABERA

		2012	2013	2014	2015	Ald. Abs. 2014-15	% aldak. 2014-15
MUGAGABEAK	GIZONAK	23.069	21.060	25.300	29.626	4.326	17,1
	EMAKUM.	43.619	23.534	27.143	30.411	3.268	12,0
	GUZT.	66.688	44.594	52.443	60.037	7.594	14,5
ALDI BATERAKOAK	GIZONAK	305.394	309.726	350.935	403.812	52.877	15,1
	EMAKUM.	331.752	324.625	355.771	403.406	47.635	13,4
	GUZT.	637.146	634.351	706.706	807.218	100.512	14,2
GUZT.	GIZONAK	328.463	330.786	376.235	433.438	57.203	15,2
	EMAKUM.	375.371	348.159	382.914	433.817	50.903	13,3
	GUZT.	**703.834**	**678.945**	**759.149**	**867.255**	**108.106**	**14,2**
MUGAGABEEN TASA	GIZONAK	7,0	6,4	6,7	6,8		
	EMAKUM.	11,6	6,8	7,1	7,0		
	GUZT.	9,5	6,6	6,9	6,9		

Iturria: EEZPren datuekin Egina. Kontatuen Estatistikak.

Kontratuen iraupenari dagokionez, 2015ean sinaturiko kontratu guztietatik 60.037 mugagabeak izan ziren, hots, %6,9 (2014ko ratio bera). Kontratu mugagabeen tasa horrek %2,6 puntu galdu zituen 2012 eta 2015 artean (9,5etik 6,9ra), baina pixka bat hobetu egin zen azken bi urteetan.

Sexuaren arabera, kontratazio mugagabearen pisua pixka bat handiagoa dago gizonen artean (%6,8 emakumeen %7aren aldean), baina ratio biek berdintzeko joera dute. 2015eko kontratu mugagabeen zifra hori %14,5 hazi zen 2014koaren aldean. Aldi baterako kontratazioak (kontratazio guztien %93,1) %14,2 egin zuen gora epealdi berean, baita kontratuen guztizko kopuruan ere.

II.2.8. KOADROA. 2015EKO, TIPOAREN ARABERA CAPV-ean SINATUTAKO DENBORAZKO KONTRATUEN BANAKETA, SEXUA ETA JARDUNALDI-TIPOA

	GUZT.		GIZONAK	EMAKUM.	LANAL. OSOA	LANAL. PAR.
	ABS.	% BERTIK.				
OBRA EDO ZERBITZUA	252.493	31,3	155.807	96.686	154.883	97.610
EKOIZPENAREN INGURUABARRAK	353.862	43,8	187.657	166.205	208.563	145.299
BITARTEKOTASUNA	185.026	22,9	50.518	134.408	112.991	72.035
EZINDUAK	971	0,1	630	341	771	200
ERRELEBOA	1.291	0,2	711	580	715	576
ERRETIRO PARTZIALA	3.132	0,4	2.223	909	-	3.132
64 URT.ERRETIROA HARTZEAGATIKO ORDEZKOA	13	0,0	4	9	13	-
PRAKTIKAK	6.350	0,8	3.855	2.495	5.113	1.237
PRESTAKUNTZA	3.022	0,4	1.638	1.384	3.022	-
BESTE BATZUK	1.058	0,1	669	389	755	303
GUZT.	807.218	100,0	403.712	403.406	486.826	320.392

Iturria: EEZPren datuekin eginikoa. Kontratuen Estatistika.

Aldi baterako kontratu mota desberdinei dagokienez, gehienak, %43,8, ekoizpenaren inguruabarren ziozko behin–behineko kontratuak ziren. Bigarren tokian, obra edo zerbitzu kontratuak zeuden (%31,3), eta ondoren bitarteko kontratuak (%22,9). Hiru kontratu mota horiek batuta, aldi baterako kontratuen %98 osatzen dute.

Nahiz eta aldi baterako kontratuen batuketa %50ean banatzen den gizonen eta emakumeen artean, emakumeen presentzia bereziki nabarmena zen bitarteko kontratuetan, emakumeek sinatu baitzuten kontratu horien %72,6. Emakumeen presentzia askoz txikiagoa zen, aldiz, obra edo zerbitzu kontatuetan (%38,3) eta ekoizpenaren inguruabarren ziozko kontratua baino (guztizkoaren %47). Lanaldi motari dagokionez, lanaldi partzialaren batez besteko pisua %39,7 zen, eta ez zen desbideratze handirik antzematen aipaturiko aldi baterako hiru kontratu mota horien artean.

Aldi baterako kontratazioaren pisu handi hori dela eta, kontrataturiko pertsona horietako gehienak hainbat alditan kontratu ziren urtearen barruan. Hala, 2015ean 272.846 lagun kontratatu ziren, erregistraturiko kontratu guztiak baino askoz gutxiago (867.255). Zifra horiek oinarri hartuta, lan-txandaketaren indizea kalkulatzen da (sinaturiko kontratuen kopuruaren eta kontrataturiko pertsonen kopuruaren arteko zatidura).

II.2.3. GRAFIKOA. EAE-KO LAN-TXANDAKETAREN BILAKAERA (KONTRATATURIKO PERTSONA BAKOITZEKO KONTRATUEN BATEZ BESTEKO KOPURUA), SEXUAREN ARABERA



Iturria: EEZPren datuekin egina.

Txandaketak igoera txikia izan zuen 2015ean, zeren eta ratioa 3,18koa baitzen, 2014an baino 12 ehunen bat gehiago. Bilakaera hori antzekoa da sexuaren aldetik; izan ere, txandaketa gizonezkoentzat (2,88 kontratutik 3ra) eta emakumezkoentzat (2014ko 3,26 kontratutik 2015eko 3,37 kontratura) hazi zen, eta bi ratioen arteko aldea hamarren bat besterik ez zen: 2015ean 0,37 puntukoa zen.

II.2.4. GRAFIKOA. EAE-KO LAN-TXANDAKETA: 2015EAN KONTRATATURIKO PERTSONEN BANAKETA, KONTRATU KOPURUAREN ARABERA. SEXUAREN ARABERAKO DATUAK



Iturria: EEZPren datuekin egina.

Lan-txandaketa hori islatzeko beste modu bat da 2015ean kontrataturiko pertsonen erdiak urtean kontratu bat izan zuela azpimarratzea da (guztizkoaren %52,4, %54,6 gizonen artean eta %50 emakumeen artean), hirutik batek 2 edo 3 lan-kontratu izan zituen, %18,1ek 4-20 kontratu bitartean sinatu zituen eta gainerako %2ak 20 kontratu baino gehiago sinatu zituen urtean. Oso antzeko banaketa da sexuen arabera.

Aldi baterako kontratuen batez besteko iraupenari dagokionez, 48 egunekoa zen (52 egunekoa 2014an), Estatuko

II.2.9. KODROA. EAE-N SINATURIKO IRAUPEN JAKIN BATEKO ALDI BATERAKO KONTRATUEN BATEZ BESTEKO IRAUPENA (EGUNAK)

	2014			2015		
	GIZONAK	EMAKUM.	GUZT.	GIZONAK	EMAKUM.	GUZT.
EKOIZPENAREN BEHIN-BEHINEKO INGURUABARRAK	34	35	35	34	35	35
PRESTAKUNTZA	347	343	345	344	346	345
BITARTEKOTASUNA	23	23	23	24	22	23
ERRETIRO PARTZIALA	1.308	1.338	1.316	1.290	1.341	1.305
OBRA EDO ZERBITZUA	35	51	42	36	51	42
BESTE BATZUK	243	257	249	273	264	269
PRAKTIKAK	250	252	251	251	258	254
ERRELEBOA	1.152	1.185	1.166	1.183	1.233	1.205
AURRETIAZKO ERRETIROAREN ZIOZKO ORDEZKOA*	:	:	360	360	319	328
EZINDUEN ALDI BATERAKOA	381	376	379	384	372	380
GUZT. EAE	53	45	49	52	45	48
GUZT. ESTATUA	53	54	53	53	54	54

Iturria: EEZPren datuekin eginikoa
** Ez dago sexuaren araberako informaziorik 2014an.*

batez besteko 54 egunen aldean (estatuan aurreko datuari eusten zaio). Kontratu motaren arabera, laburrenak behin-behinekoak dira (23 egun batez beste, 2014koaren erdia), eta ondoren datoz obra edo zerbitzukoak, batez beste 35 egunekoak (2014ko datu bera). Sexuaren arabera ikusten denez, batez beste, gizonek sinaturiko aldi baterako kontratuak luzeagoak dira emakumeek sinaturikoak baino (52 egun, 45 egunen aldean), baina alde hori ez da estatu mailan ikusten.

EAEn 2015ean izandako kontratazioa kontratuen iraupenaren eta lanaldi motaren arabera aztertuta, bi aldagaiak gurutza daitezke hauxe egiaztatzeko: sinaturiko 867.255 kontratuetatik erdia baino gehiago (%56,1) lanaldi osorako aldi baterako kontratuak izan ziren, eta modalitate hori %15,1 hazi zen 2014aren aldean (kontratu guztiak baino +%14,2 gehiago). Bigarrenik, lanaldi partzialeko aldi baterako kontratuak zeuden, hots, kontratu guztien %36,9. Modalitate hori %13 hazi zen aurreko urtearen aldean. Hirugarrenik, lanaldi osoko kontratazio mugagabea zegoen, kontratuen %4,2, eta lanaldi partzialeko mugagabeak, %2,5. Azkenik, lanaldi finko eteneko kontratuak %0,2 ziren.

II.2.10. KOADROA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LAN-KONTRATUAK: DATUEN GURUTZAKETA LANALDI MOTAREN ETA IRAUPENAREN ARABERA ETA BESTELAKO DATU INTERESGARRIAK

		2012	2013	2014	2015	14/15 ald. %
LANALDI PARTZIALA	MUGAGABEA	30.244	16.843	19.478	21.827	12,1
	ALDI BAT.	247.502	252.100	283.608	320.392	13,0
	GUZT.	277.746	268.943	303.086	342.219	12,9
LANALDI OSOA	MUGAGABEA	34.489	25.878	31.168	36.170	16,0
	ALDI BAT.	389.644	382.252	423.098	486.826	15,1
	GUZT.	424.133	408.130	454.266	522.996	15,1
LANALDI FINKO ETENA	MUGAGABEA	1.955	1.873	1.797	2.040	13,5
KONTRATUAK GUZT.		703.834	678.946	759.149	867.255	14,2
HASIERAKO KONTRATUAK		687.711	664.523	745.083	850.108	14,1
KONBERSIOAK		16.123	14.423	14.066	17.147	21,9
LANALDI PARTZIALEKO TASA		39,5	39,6	39,1	39,5	1,0
ATZERRITARREN KONTRATUAK		90.665	74.968	75.986	84.787	11,6

Iturria: EEZP. Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

EEZPren datuek agerian uzten dutenez, azkenik, gure Erkidegoan 2015ean sinaturiko lan-kontratu guztietatik 84.778 atzerritarrek izenpetu zituzten, hots, guztizkoaren %9,8k (%10ek 2014an) eta 2014an baino %11,6 gehiago. Horrenbestez, kontratazioaren bilakaera positiboa izan arren, okerragoa izan zen EAEn atzerriko etorkinentzat. Atzerritarrek izenpeturiko kontratu guztien %60 gizonezkoei zegokien eta %40a emakumeei.

2.2. Iraizpen kolektiboen bilakaera

Lehenengo eta behin, gogorarazi behar da erregistraturiko banakako iraizpenak Autonomia Erkidegoko lan-administrazioko agintaritza eskudunaren aurrean (Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ordezkatuta) egindako adiskidetzeen ondorioz eta bi aldeak ados egonik egin direla, baita Lan arloko Epaitegien bidez izapidetutakoak ere; iraizpen horiek Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioari jakinarazten zaizkio. Bestalde, enpresak arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak direla medio epealdi jakin batean lan-kontratuen ehuneko jakin bat iraungitzeko harturiko erabakiak (langileen legezko ordezkarien adostasunarekin edo adostasunik gabe) dira iraizpen kolektiboak.

Nabarmendu behar da 2012ko otsailean indarrean sartu zen lan erreformak taldeko iraizpenetarako administrazio baimenaren behar historikoa ezabatu zuela. Horrenbestez, ordutik aurrera enpresak berez erabakitzen du, langileen ordezkariak ados egonda edo ados egon gabe, eta lan agintaritzari taldeko iraizpena gauzatzeko erabakia jakinarazi besterik ez du egin behar. Kasu berezi gisa, ezinbesteko iraizpenei dagokienez, oraindik lan agintaritzak egiaztatu behar du zirkunstantzia hori egon badagoela, enpresak iraizpen horiek gauzatu ditzan.

Nolanahi ere, kontuan izan behar da Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioak arlo publiko honi buruz emandako estatistiketan ez direla biltzen izandako iraizpen guztiak, zeren eta ez baititu jasotzen arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak direla izandako iraizpenak, noiz-eta iraizpen kolektibotzat ezarritakoa baino langile kopuru txikiagoari eragiten dionean[8].

II.2.11. KOADROA. ENPLEGUA ERREGULATZEKO EAE-N BAIMENDUTAKO ESPEDIENTEEN ERAGINPEKO LANGILEEN KOPURUA (EUSKO JAURLARITZA

	ESPEDIENTEAK	ERAGINPEKO LANGILEAK			
		GUZT.	MURRIZTEA	ETETEA	AZKENTZEA
2010	1.993	35.426	1.051	32.349	2.026
2011	1.560	22.072	2.203	17.991	1.878
2012	2.636	37.429	5.466	28.627	3.336
2013	2.426	31.790	5.814	24.104	1.872
2014	1.434	16.747	3.196	12.091	1.460
2015	**695**	**8.108**	**1.530**	**5.718**	**860**
% ald. 13/14	-40,9	-47,3	-45,0	-49,8	-22,0
% ald. 14/15	-51,5	-51,6	-52,1	-52,7	-41,4

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EUSKO JAURLARITZA

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ere EAEn erregistratutako enplegua erregulatzeko espedienteei buruzko estatistikak argitaratu ditu. Iturri horretako eta Enplegu Ministerioko datuak bat etorri ez arren (Ministeriokoak gehiago dira, erkidegoa baino esparru handiagoko espedienteak, euskal langileak ukitzen dituztenak, erregistratzen dituelako), interesgarria da bi estatistikek egindako azterketa, bien bilakaera norabide berean baitoa.

Iturri horrek lan-erregulazioko 695 espediente jaso zituen 2015ean; enplegua erregulatzeko espediente horiek 8.108 langileri eragin zieten (2014an baino -%51,5 gutxiago), horietatik % 70,5 behin-behineko etete-espedienteak ezarri zitzaizkien (-%52,7 2014an), % 18,9ri lanaldia murriztu zitzaien (-%52,1 2014an) eta gainerako % 10,6ri amaiera-espedientea ezarri zitzaien (-%41,4 aurreko urtean). Kasuei dagokienez, kausa ekonomikoak dira nagusi, eraginpeko langileen %98,6, eta ondoren datoz teknologikoak (%1,2). Horren %0,2 nahitaezko zioengatik izan dira. Gainera, 545 langile kaltetu zituzten beste 21 espedientetan kasua utzi edo artxibatu zen.

II.2.12. KOADROA. EAE-N EGONDAKO ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK: LANGILE KALTETUAK LURRALDEEN ARABERA (EUSKO JAURLARITZA)

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	EAE
2008	2.484	4.504	5.806	12.794
2009	18.744	25.190	24.788	68.722
2010	7.603	15.808	12.015	35.426
2011	3.372	9.971	8.729	22.072
2012	9.049	12.426	15.954	37.429
2013	9.747	9.102	12.941	31.790
2014	5.064	6.273	5.410	16.747
2015	**2.181**	**2.691**	**3.236**	**8.108**
13/14 ald. %	-48,0	-31,1	-58,2	-47,3
14/15 ald. %	-56,9	-57,1	-40,2	-51,6

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EUSKO JAURLARITZA.

Lurraldeen arabera, beherakadarik handiena Bizkaian izan da, non eraginpeko langileen kopuruak %57,1 egin baitu behera, eta ondoren Araban (-%56,9). Bizkaian ere behera egin du, baina EAEn baino proportzio txikiagoan (-%40,2, -%51,6ren aldean). Eraginpeko langileen guztizkoan antzeko banaketa dugu lurraldeka, herena bakoitzean.

Bestalde, EAEn erregistraturiko iraizpenen guztizko kopuruak, Enplegu Ministerioa iturritzat hartuta (Estatuko gainerako erkidegoetan gertatzen denarekiko alderaketa egitea ahalbidetzen digu), oso antzeko bilakaera du Eusko Jaurlaritzak emandako eta arestian aipaturiko datuekin alderatuta, Euskadin nahiz Estatu osoan.

EAE-N EGONDAKO ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK: LANGILE KALTETUEN BILAKAERA

	EAE	ESTATUA	% EAE/ESTATUA
2008	14.797	148.088	10,0
2009	83.340	549.282	15,2
2010	43.889	302.746	14,5
2011	28.492	343.629	8,3
2012	51.948	483.313	10,7
2013	42.449	379.972	11,2
2014	17.854	159.566	11,2
2015	8.511	100.522	8,5
13/14 ald. %	-57,9	-58,0	
14/15 ald. %	-52,3	-37,0	

Iturria: ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOA. Lan Estatistiken Buletina

8 Taldeko iraizpentzat jotzen da hark 5 langiletik gorako langileria osoari eragiten dionean, enpresa jarduera erabat amaitzearen ondorioz edo, laurogeita hamar eguneko epean, 100 langiletik beherako enpresetan gutxienez 10 soldatakori, langileen % 10i 100 eta 300 langile arteko enpresetan edo 30 soldatakori 300 langiletik gorako enpresetan (Langileen Estatutuaren Legeko 51. artikulua).

2015eko datuei erreparatuta eta iturri horren arabera, %52,3 egin zuen behera ERE kopuruak EAEn, eta, beraz, nabarmen jaitsi zen EAEko espedienteen pisua, %8,5ekoa izateraino.

3. LAN-HARREMANAK

3.1. Negoziazio kolektiboa: Soldaten igoera eta lanaldia

II.3.1. GRAFIKOA. EAE-N ERREGISTRATURIKO HITZARMENEN ERAGINPEKO LANGILEAK. DATUAK EHUNEKOTAN



Iturria: LHK

LHKren 2015eko "*Gizarte-laneko egoera Euskadin*" txostenaren arabera, langileen %24k indarreko hitzarmenarekin hasi zuen urte hori. %56,8k, berriz, berritzeke zegoen hitzarmen luzatua zuen, eta %19,2k indarrik gabeko kontratua zuen. Beraz, %80,8 hartzen zuen negoziazio kolektiboak. Hona hemen urtearen amaieran zegoen egoera: langileen %36k indarreko hitzarmena zuen, %46k berritzeke zegoen hitzarmen luzatua zuen eta gainerako %18k indarrik gabeko hitzarmen zeukan. Horrenbestez, %82ko estaldura mailarekin bukatu zen urtea negoziazio kolektiboan.

II.3.1. KOADROA. EAE-N APLIKATU BHEARREKO LANALDIA ORDUAK URTEAN. INDARREKO HITZARMENAK. 2015.

	2015		
	EMPRESA	SECTOR	GUZT.
ARABA	1.683	1.721	1.707
BIZKAIA	1.659	1.706	1.695
GIPUZKOA	1.652	1.707	1.688
LURRALDE ARTEKOAK	1.580	1.371	1.439
EAE-N ERREGISTRATUAK	1.652	1.671	1.665
ESTATU MAILA	1.678	1.729	1.716
GUZT. EAE	**1.659**	**1.688**	**1.680**

Iturria: LHK

Bestalde, negoziazioek ez zuten emaitza handirik izan 2015eko ekitaldian, zeren eta urtearen amaieran indarrean zeuden hitzarmenen %36tik %24 aurreko urteetan sinaturiko hitzarmenetatik baitzetorren, eta %12 besterik ez zen sinatu 2015ean, negoziatzeko marjina zabala izanik ere (luzaturiko eta indarrik gabeko hitzarmenak batuta, %76ko emaitza izan zen).

II.3.2. KOADROA. EAE-N ADOSTUTAKO SOLDATEN IGOEREN BILAKAERA

	2013	2014	2015
ARABA	1,25	0,72	0,45
BIZKAIA	1,02	0,76	0,65
GIPUZKOA	1,10	0,60	0,54
LURRALDE ARTEKOAK	2,15	0,87	0,64
EAE-N ERREGISTRATUAK	1,15	0,71	0,58
ESTATU MAILA	0,51	0,53	0,68
GUZT. EAE	**0,93**	**0,65**	**0,62**

Iturria. LHK.

Bestalde, negoziazio kolektiboari esker, soldaten eroste-ahalmenari eutsi ahal izan zitzaion 2015ean, zeren eta 2015ean EAEn indarrean zeuden hitzarmenetan itundutako batez besteko soldata igoera %0,62 baitzen, Estatu mailako hitzarmen kolektiboetarako itundutako batez besteko soldata igoera baino txikiagoa (%0,74). Lehen aldiz Estatu osorako soldata igoera handiagoa izan zen EAEn indarrean zeuden hitzarmenetan itundutako gehikuntzak baino handiagoa. Halaber, EAEn negoziaturiko hitzarmenen batez besteko igoera, EAEn eragina duten estatu mailakoak alde batera utzita, %0,58an kokatu zen.

Guztira, 2015ean 57 hitzarmen gutxiago erregistratu ziren EAEn 2014an baino, eta 14.813 langile gutxiagori eragin zien. Estatuan erregistratu ziren eta gure Erkidegoan eragina zuten hitzarmenei dagokienez, 2014an baino 21 gutxiago izan ziren, baina gora egin zuen estaldura jaso zuten langileen kopuruak, guztira 11.926 pertsona gehiago.

Azkenik, azken urteotako joerari eusten zaie berritzen ari diren hitzarmenetan, hots, lanaldia mantentzeko, halako moldez non hitzarmen horien %3,4k baino ez baitu lanaldia gutxitu. Portzentaje hori, ordea, 2014koa baino pixa bat handiagoa da (hitzarmenen %2,9). Ratio horiek oso urruti daude 2009an lanaldia murrizten zuten hitzarmenen %22,9tik. Nolanahi ere, eta lanaldiak murrizteko joeran azken urteotan izandako motelaldi nabarmena gorabehera, EAEn negoziaturiko hitzarmenek eutsi egiten diote urtean 100 ordu gutxiago baino gehiago izateko aldeari estatukoarekiko, LHKren datuen arabera betiere.

II.3.2. GRAFIKOA. EAE-N LANALDIA MURRIZTEN DUTEN HITZARMEN KOLEKTIBOEN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA



Iturria: LHK

EAEn eragina duten hitzarmen berrituen multzoan, urteko 0,23 orduko murriztapena lortu da batez beste (aurreko urtean -0,21); 0,26 ordukoa da EAEn izenpeturiko hitzarmenak kontuan hartuz gero eta 0,18 Euskadin eragina duten Estatu eremukoak. Horren ondorioz, batez besteko lanaldi aplikagarria, hots, indarreko hitzarmenek ezarritakoa (hitzarmenak indarrean nahiz luzatuta egon), 1.6802 ordukoa izan zen EAE osoan.

3.2. Lan-gatazka

II.3.3. KOADROA. LAN-GATAZKA EAE-N. ADIERAZLE NAGUSIEN BILAKAERA

	GREBAK	PARTAIDEAK	LAN EGIN GABEKO EGUNAK	PARTAIDEAK GRABEKO	GREBAGATIK LAN EGIN GABEKO EG.	LAN EGIN GABEKO ORDUAK LANGILEKO, GREBAN
2011	240	18.640	83.935	78	350	36
2012	278	21.600	130.930	78	471	48
2013	350	37.020	140.391	106	401	30
2014	226	16.360	55.717	72	247	27
2015	**181**	**10.604**	**18.217**	**59**	**101**	**14**
13/14 ald. %	-35,4	-35,4	-55,8	-31,6	-38,5	-10,2
14/15 ald. %	-49,6	-19,9	-35,2	-19,1	-59,2	-49,6

Iturria: LHKren datuekin eginikoa.

Lan Harremanen Kontseiluaren (LHK) "Euskadiko gizarte-laneko egoera" deritzon txostenaren 2015Eko emaitzen aurrerapenean emandako informazioaren arabera, 2015ean guztira 181 greba izan ziren EAEn, guztira 10.604 partaide. Orotara lan egin gabeko 18.127 egun eragin dituzte, hots, urte arteko %49,6ko, %19,9ko eta %35,2ko jaitsierak izan ziren hurrenez hurren. Gutxipen nabarmena da, zeren eta gatazka-parametro horiek inoizko txikienak baitira EAEko lan harremanetan.

Datu horiek izanik, greba bakoitzeko partaideen kopurua 59 langile izan da (-%19,1 2014aren aldean), grebagatik lan egin gabeko lanegunak 101 (-%59,2) eta greba egin duen langile bakoitzeko lan egin gabeko orduen kopurua, berriz, 14 (%-49,6 2014aren aldean). Hortaz, murrizpen nabarmena gertatu zen azken urtean gatazken aldetik, baina LHKek kopuru horien inguruan oharazten du ez direla sartzen Estatuan aurkeztu ziren eta EAEn azaroan eta abenduan ondorioak izan zituzten grebei dagozkienak.

Sektorez sektore, zerbitzuetan metatu zen greba kopururik handiena, 94 guztira (guztien %51,9), 6.503 langileri eraginda (%61,3) eta lan egin gabeko 7,810 egunekin (guztien %42,9); bigarrenik, industria zegoen, non greben %41,4 metatzen zen, %37,3 langileri eraginda eta lan egin gabeko %51,1 egun. Eraikuntzan 10 greba izan ziren, eta bi besterik ez nekazaritzaren sektorean.

Negoziazio kolektiboa nabarmentzen da lehen gatazka arrazoi gisa, greben %37arekin eta eraginpeko langileen %44,6arekin, baina lan egin gabeko egunen kopuruari dagokionez, antolaketarekin, lan-sistemekin edo enpresen berregituraketaren lotutako zioek lan egin gabeko egunen %47 hartu zuten, negoziazio kolektiboarekin zerikusia zuten kausen gainetik; izan ere, %33,8 baitziren, azken urteetan gertatu ez zen bezala.

Estatuan, azarora arteko behin-behineko datuak izanik, greba kopuruak ere behera egin zuen 2015ean. Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren datuen arabera, gatazken batura –orotara 516- %19,4 jaitsi da aurreko urteko

epealdi berarekiko, eta partaideen kopuruak %3,4. Halaber, lan egin gabeko lanegunen kopurua, guztira 378.921 izanik, % 21,7 8 jaitsi zen.

4. SOLDATAK EAE-N

4.1. 2013ko soldata-egiturari buruzko inkestaren emaitzak

LANGILE BAKOITZAREN URTEKO BATEZ BESTEKO IRABAZIAK (EUROTAN). 2012-2013.							
	2012	2013			2012/13 arteko aldearen %		
		GUZT.	GIZONAK	EMAKUM.	GUZT.	GIZONAK	EMAKUM.
ESTATUKO BATEZB.	22.726	22.698	25.675	19.515	-0,1	0,0	-0,1
ANDALUZIA	20.892	20.782	23.565	17.690	-0,5	-0,1	-0,8
ARAGOI	22.104	22.055	25.129	18.702	-0,2	-2,5	3,7
ASTURIAS	21.751	21.995	25.500	18.455	1,1	1,8	2,4
BALEARS, ILLES	20.961	20.776	22.585	18.998	-0,9	-1,2	-0,1
U. KANARIARRAK	19.278	19.168	20.678	17.620	-0,6	-2,0	0,7
KANTABRIA	20.192	20.052	23.225	16.542	-0,7	-0,4	-1,4
GAZTELA ETA LEON	20.569	20.441	23.379	17.429	-0,6	-0,4	-0,7
GAZTELA-MANTXA	20.536	20.630	23.317	17.481	0,5	2,2	-0,3
KATALUNIA	24.436	24.254	27.684	20.741	-0,7	-0,5	-0,9
VALENTZIAKO E.	21.224	20.878	23.651	17.918	-1,6	-2,6	0,3
EXTREMADURA	19.721	19.130	21.781	16.305	-3,0	0,9	-6,3
GALIZIA	19.389	19.825	22.523	17.258	2,2	2,1	3,2
MADRIL	26.044	26.215	29.224	22.959	0,7	0,4	0,5
MURTZIA	20.682	20.450	23.428	16.957	-1,1	-0,3	-2,9
NAFARROA	23.784	23.837	27.848	19.364	0,2	0,8	-0,5
EAE	**26.537**	**26.915**	**30.313**	**22.687**	**1,4**	**0,8**	**1,7**
ERRIOXA	20.346	20.629	23.641	17.436	1,4	2,4	-0,3
Iturria:EIN. Sei 2013.							

EINren "Soldata-egituraren urteko Inkestak" autonomia erkidegoetako datuak ematen ditu, beste aldagai batzuen artean, sexuaren eta lanbidearen araberako soldatei buruz. Ordura arte lau urterik behin baino ez zen lortzen horren inguruko informazioa soldata-egituraren inkesten bidez, hain zuzen ere, eta gainera, 10 langile edo gehiagoko enpresei buruzkoa baino ez zen. Inkesta horrek hainbat iturritako administrazio-erregistroak erabiltzen ditu, hala nola, Gizarte Segurantza edo Zerga Agentziak, baita EINren beraren lan-kostuari buruzko hiruhilekoko inkestako informazioaren zati bat ere. Emaitzetan erabiltzen diren soldaten kontzeptuak balio gordinetan daude, hau da, PFEZren konturako atxikipena edo langileak Gizarte Segurantzarako kotizazioak egin gabe.

Inkestaren arabera, 2013an EAEn urteko batez besteko irabaziak 26.915 euro ziren langile bakoitzeko, aurreko urtearekin alderatuta % 1,4 handituta (2011 eta 2012 bitartean % +0,6). Kopuru hori Estatuko batez bestekoa baino % 18,6 handiagoa da denboraldi berean, eta autonomia erkidegoen zerrendako lehenengoa da, Nafarroarekin batera. Extremadura, U. Kanariarrak eta Galizia dira soldatarik baxuenak dituztenak.

Sexuen araberako soldaten aldeari dagokionez, emakumeen batez besteko soldata txikiagoa zen gizonezkoena bainoa autonomia erkidego guztietan 2013an. U. Kanariarrek zuten desbideratzerik handiena gizonen eta emakumeen soldaten artean (%17,4), eta ondoren U. Balearrek eta Madrilgo Erkidegoak. Beste muturrean, Nafarroak zuen dibergentziarik handiena (%43,8), eta ondoren Kantabriak eta Asturiasek. EAEn, emakumeen eta gizonen arteko soldaten aldea %33,6 zen 2013an. Alde hori 1,2 puntu murriztu zen azken urtean (2012an %34,8koa zen), zeren eta gizonezkoen soldatak emakumeenak baino neurri txikiagoa egin baitu gora (+%0,8 eta +%1,7 hurrenez hurren). Kopuru absolutuetan, EAEn gizonezkoen batez besteko soldata 30.313€ zen eta emakumeena 22.687€.

Kontratu erlazio motaren araberako[9] soldatei dagokienez ikusten denez, urteko soldata gordina %57,4 handiagoa zen, batez beste, kontratu mugagabea duten langileentzat aldi baterako kontratuekin lan egiten zuten langileentzat

9 Soldaten kopuruak jarduera-sektorearen eta sexuaren arabera banakatzean lagineko errore handia dagoenez gero, ezin eman daiteke informazio hori Memoria honetan.

baino. Alde hori, gainera, askoz handiagoa zen gizonen artean (%75,4) emakumeen artean (%32,8) baino, eta alde hori estatu mailan ere gertatu zen.

II.4.2. KOADROA. URTEKO BATEZ BESTEKO IRABAZIA, SEXUAREN ETA KONTRATU MOTAREN ARABERA, EAE-N ETA ESTATUAN. 2012-2013. EUROAK.

	Bi sexuak			EMAKUM.			Gizonak		
	2012	2013	% ald	2012	2013	% ald.	2012	2013	% ald.
EAE									
GUZT.	26.537	26.915	1,4	22.313	22.687	1,7	30.085	30.313	0,8
Iraupen mugagabea	28.355	28.864	1,8	23.385	23.863	2,0	32.461	32.756	0,8
Iraupen zehatza	18.915	18.338	-3,1	18.038	17.971	-0,4	19.708	18.677	-5,2
Mug./iraupen zeh. %	49,9	57,4		29,6	32,8		64,7	75,4	
ESTATUA									
GUZT.	22.726	22.698	-0,1	19.537	19.515	-0,1	25.682	25.675	0,0
Iraupen mugagabea	24.277	24.333	0,2	20.633	20.643	0,0	27.608	27.768	0,6
Iraupen zehatza	15.894	15.433	-2,9	14.891	14.570	-2,2	16.881	16.258	-3,7
Mug./iraupen zeh. %	52,7	57,7		38,6	41,7		63,5	70,8	

Iturria: EIN. Soldata-egituraren inkesta.

4.2. 2014ko Lan-kostuen Inkestaren emaitzak

Lan-kostuari buruzko urteko inkesta langileek jasotzen duten soldataren hurbilketa egiten duen EINren bigarren estatistika da. Lan-kostuaren hiru hilez behingo inkestaren galdetegi erantsia oinarri hartuta lantzen da, eta lan-kostuaren urteko maila eta haren osagaiak ezagutzea ahalbidetzen du. Horien artean, "lansarien eta soldaten" partidak besteren konturako langileei diruz zein gauzaz emandako ordainsari guztiak hartzen ditu barne. Soldata-egituraren Inkestaren kasuan bezala, zenbatekoak gordinak dira, hau da, atxikipenak edo langileak Gizarte Segurantzarako kotizazioak egin aurrekoak.

II.4.1. GRAFIKOA. LAN-KOSTUAREN "SOLDATAK ETA LANSARIAK" PARTIDAREN ZENBATEKOA LANGILE BAKOITZEKO ETA URTEKO. EAE-REN ETA ESTATUAREN ARTEKO ALDERAKETA



Iturria: EIN. Lan-kostuaren Urteko Inkesta

2012ko lan-kostuari buruzko inkestaren arabera, EAEn langile bakoitzaren lan-kostu gordina 36.282 euro dira; horietatik %73,98 "lansariei eta soldatei" dagozkie, hau da, 26.843 euro. Gainerako %26,02a hauexen baturari dagokio: nahitaezko kotizazioak (%22,93), borondatezkoak (%0,74) eta zuzeneko gizarte prestazioak (%0,71), eta gainontzeko %1,64 beste partida batzuei hala nola gizarte gastuei, kalte-ordainei, etab. Batez besteko soldata hori Estatuko batez bestekoa baino %18,7 handiagoa eta, Madrilgo Erkidegoarekin batera, autonomia erkidegoen artean kopuru handiena da. "Soldatak eta lansariak" partida hori etengabe hazi zen Euskadin 2002 eta 2013 bitartean, baina behera egin zuen 2014an. Estatuko batez bestekoa, berriz, %0,2 jaitsi zen.

II.4.2. KOADROA. LAN-KOSTUA LANGILEKO ETA URTEKO. DATUAK AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. 2013-2014								
	2013			2014			2013-2014 ald. %	
	KOSTU OSOA	Lansariak eta soldatak	Lans. eta sold./ guzt.%	KOSTU OSOA	Lansariak eta soldatak	Lans. eta sold./ guzt. %	KOSTU OSOA	Lansariak eta soldatak
ESTATUA	30.845	22.654	73,44	30.653	22.606	73,75	-0,6	-0,2
ANDALUZIA	27.879	20.349	72,99	27.820	20.366	73,21	-0,2	0,1
ARAGOI	29.725	21.416	72,05	29.338	21.465	73,17	-1,3	0,2
ASTURIAS	30.247	22.365	73,94	30.087	22.299	74,11	-0,5	-0,3
BALEARS (ILLES)	28.359	20.826	73,44	28.754	21.030	73,14	1,4	1,0
U. KANARIARRAK	25.410	18.633	73,33	25.649	18.811	73,34	0,9	1,0
KANTABRIA	27.553	20.186	73,26	28.365	20.809	73,36	2,9	3,1
GAZTELA ETA LEON	27.767	20.124	72,47	27.346	20.044	73,30	-1,5	-0,4
GAZTELA-MANTXA	28.018	20.600	73,52	28.134	20.686	73,53	0,4	0,4
KATALUNIA	32.936	24.290	73,75	32.251	23.849	73,95	-2,1	-1,8
VALENTZIAKO E.	27.627	20.120	72,83	27.121	19.879	73,30	-1,8	-1,2
EXTREMADURA	25.289	18.419	72,83	25.361	18.658	73,57	0,3	1,3
GALIZIA	27.257	19.884	72,95	27.271	19.854	72,81	0,0	-0,1
MADRIL	36.291	26.877	74,06	36.453	27.172	74,54	0,4	1,1
MURTZIA	27.428	20.157	73,49	27.386	20.260	73,98	-0,2	0,5
NAFARROA	31.998	23.299	72,81	32.383	23.732	73,29	1,2	1,9
EAE	**36.718**	**27.121**	**73,86**	**36.282**	**26.843**	**73,98**	**-1,2**	**-1,0**
ERRIOXA	28.662	21.270	74,21	28.507	20.961	73,53	-0,5	-1,4
Iturria: EIN: Lan-kostuei buruzko Urteko Inkesta								

5. ENPLEGU POLITIKAK

Enplegu politikek politika aktiboak biltzen dituzte, langabetuek enplegua lor dezaten eta lana dutenek lanari eutsi diezaioten; eta politika pasiboak, langabetuen babes ekonomikorako.

5.1. Enplegu politika aktiboak

(a) 2014-2016ko Enplegu Plana. 2014ko Ekintza Planaren ebaluazioa

Eusko Jaurlaritzak, 2014ko urtarrilean, 2014-2016ko Enplegu Plana onetsi zuen, pertsona ahulenen enplegua eta laneratzea errazteko funtseko helburuarekin, eta bereziki gazteenak. Horretarako, ekintzailetza eta ETEentzako laguntza indartuko dira. Halaber, enpleguan eragin zuzena duten obretako eta proiektuetako inbertsio pribaturako pizgarriak eman nahi ditu, eta aldi berean, erakundeen arteko lankidetza eta sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetza sustatzen da enpleguaren suntsiketa geldiarazteko nolabait. Batzorde honek Planaren zirriborroari buruzko irizpena eman zuen, eta bertara jo daiteke informazio gehiago nahiz izanez gero[10].

II.5.1. GRAFIKOA. EAE-KO 2014-2016KO ENPLEGU PLANEN EGIKARITZEA 2014AN: AURREKONTUAREN BETETZE-MAILA PROGRAMA OPERATIBO BAKOITZEKO. %



Iturria: EUSKO JAURLARITZA

10 Euskadiko EGABren abenduaren 20ko 7/2013 Irizpena, 2013-2016ko Enplegu Planaren zirriborroari buruzkoa: http://www.cesegab.com/Portals/0/Libros/D13-07_Dictamen.pdf

Orain arteko jardueretatik dakigu zein den Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eginiko 2014ko Ekintza Planaren Balantzea. Lehenik eta behin, ekitaldirako aurrekontuan bildutako zenbatekoei dagokienez, urtean programa operatiboetarako aurreikusten ziren 770,63 milioi euroetatik, azkenean, 566,53 milioi egikaritu ziren, hots, aurreikusitako guztiaren %73,5.

Gainera, aurreikusitako baliabide ekonomikoen egikaritze-maila jatorri pribatuaren edo publikoaren arabera zein izan den bereiz daiteke. Nabarmentzekoa da, baliabide publikoen kasuan, %85aren inguruan kokatzen dela lorturiko egikaritze-maila. Pribatuetan, berriz, aurreikusitakoaren %68 baino ezin izan da betearazi.

Kontuan izan behar da 1, 2 eta 6. programa operatiboetan, Eusko Jaurlaritzaren finantzaketarekin bat egiteko funts pribatuak mugiaraztea zegoela aurreikusita. Betetze-maila ezberdina izan da, zeren eta funts pribatuak oso gutxi mugiarazi baitziren 1 eta 2. programetan (ETEen sustapena eta tokiko garapena eta Ekintzailetzaren sustapena, %22 eta %2ko betetze-mailekin hurrenez hurren). 6. programan (Renove birgaikuntza), berriz, sektore pribatuaren partaidetza aurreikusitakoa baino handiagoa izan da, funtsen %136ko betetze-maila lortu arte. Laburbilduz, egikarituriko 566,53 milioietatik 214,27 milioi (%37,8) Eusko Jaurlaritzari dagozkio, eta gainerako 352,26 milioiak (%62,2) sektore pribatuak mugiarazi ditu.

Eusko Jaurlaritzaren ekarpena aintzat hartuta, desberdina izan da egikaritze-maila, ardatzen eta programen arabera. Balantzean nabarmentzen denez, ETEekin eta tokiko garapenarekin, ekintzailetzarekin eta enplegu inklusiboarekin loturiko programa operatiboek (1, 2 eta 5. programak) %90etik gorako aurrekontu-egikaritzea izan zuten. Halaber, enplegurako prestakuntzari buruzko 4. programak aurrekontuaren %88ko egikaritze-maila du, gehienbat orientazioko (2015eko aurrekontura aldatuta) eta landunen prestakuntzarako ekintzak neurri txikiagoan betearazi izanaren ondorioz.

II.5.1. KOADROA. EAE-KO 2014-2016KO ENPLEGU PLANA: 2014KO EKINTZA PLANAREN XEHEETASUNA. AURREIKUSITAKO BALIABIDEAK ETA EGIKARITUTAKO BALIABIDEAK ARDATZEN ETA PROGRAMEN ARABERA. EUROAK.

	AURREIKUSITAKO BALIABIDEAK			EGIKARITUTAKO BALIABIDEAK			EGIK. %
	EJ	BALIABIDE PRIBATUAK	GUZT.	EJ	BALIABIDE PRIBATUAK	GUZT.	
1. ETE-EN ETA TOKIKO GARAPENAREN SUSTAPENA	14.369.818	302.000.000	316.369.818	13.327.838	66.310.000	79.637.838	25,2
- ETEen eta autonomoen finantzaketa	2.120.600	302.000.000	304.120.600	619.000	66.310.000	66.929.000	22,0
- Turismoa eta tokiko merkataritza eta enpl.	7.009.279	0	7.009.279	8.216.392	0	8.216.392	117,2
- Lehen sektorearen eta enpleguaren garap.	5.239.939	0	5.239.939	4.492.445	0	4.492.445	85,7
2 EKINTZAILETZAREN SUSTAPENA	20.085.466	5.000.000	25.085.466	18.049.721	117.200	18.166.912	72,4
- "Euskadi, lurralde ekintzailea". Ekintzailetzako euskal sistema indartzea eta hobetzea	1.745.353	0	1.745.353	1.513.590	0	1.513.590	86,7
- Autoenplegua eta mikroekintzailetza bultzatzea	2.792.073	5.000.000	7.792.073	2.137.906	117.200	2.255.106	28,9
- Enpresa berritzaile berriak	15.548.040	0	15.548.040	14.398.225	0	14.398.225	92,6
3. GAZTEEN ENPLEGUAREN SUSTAPENA. GAZTE BERMEA	28.239.326	-	28.239.326	13.809.491	0	13.809.491	48,9
- Gazteen ekintzailetzat bultzatzea	5.683.400	0	5.683.400	2.563.000	0	2.563.000	45,1
- Trebakuntza duala	4.889.260	0	4.889.260	952.858	0	952.858	19,5
- Lehen lan esperientzia	11.912.038	0	11.912.038	4.236.769	0	4.236.769	35,6
- Gazteen talentua	5.574.628	0	5.574.628	6.056.864	0	6.056.864	108,7
4. ENPLEGURAKO TREBAKUNTZA	54.084.106	-	54.084.106	47.696.274	0	47.696.274	88,2
- Langabetuentzako trebakuntza	36.084.106	0	36.084.106	33.946.274	0	33.946.274	94,1
- Landunentzako trebakuntza	18.000.000	0	18.000.000	13.750.000	0	13.750.000	76,4
5. ENPLEGU INKLUSIBOA. ENPRESAREN ALDEKO ELKARTASUNA	74.416.083	-	74.416.083	71.717.450	0	71.717.450	96,4
- Toki eta eskualdearen arloko enplegu planak	16.000.000	0	16.000.000	15.939.816	0	15.939.816	99,6
- Kontrataziorako beste pizgarri batzuk	1.200.000	0	1.200.000	2.584.979	0	2.584.979	215,4
- Bazterketa arriskuan daudenak gaitzea eta laneratzea bultzatzea	57.216.083	0	57.216.083	53.192.655	0	53.192.655	93,0
6. RENOVE BIRGAIKUNTZA	61.596.023	210.840.000	272.436.023	49.672.331	285.833.579	335.505.911	123,2
- RENOVE Etxebizitza	16.869.800	210.840.000	227.709.800	17.629.988	285.833.579	303.463.568	133,3
- RENOVE Hezkuntza	38.326.223	0	38.326.223	23.342.343	0	23.342.343	60,9
- RENOVE Osasuna	6.400.000	0	6.400.000	8.700.000	0	8.700.000	135,9
GUZT.	**252.790.822**	**517.840.000**	**770.630.822**	**214.273.106**	**352.260.779**	**566.533.885**	**73,5**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. 2014-2016ko Enplegu Plana. 2014ko Ekintza Planaren azken ebaluazioaren txostena.2015eko apirila. Geuk egina.

Bestalde, 6. Programak, Renove Birgaikuntza izenekoak, %81eko betearazpena zuen aurrekontuaren aldetik, ikastetxe publikoak birgaitzeko aurrekontuaren egikaritze-maila txikiagoak eraginda. Ildo horretan, nabarmendu egin behar da aurrekontuaren aldetik garrantzi handiena duen Renoveren (horren egikaritze-maila %61 besterik ez da izan), hots, hezkuntzaren eta Renove Etxebizitza eta Osasuna programen arteko dibergentzia handia. Izan ere, kasu bietan aurrekontuko %130ko egikaritze-maila dute hasierako aurreikusitakoarekiko.

Azkenik, gazteen enplegua sustatzeari buruzko 3. programaren aurrekontuaren betearazpena izan zen helburuetatik gehien desbideratu zena, %48,9koa izan baitzen. Honela justifikatu du Sailak desbideratze hori: gazteen ekintzailetza bultzatzeko ekintzetarako aurreikusitako aurrekontuaren erdia gutxi gorabehera 2. programa operatiboan birsailkatu dela eta prestakuntza duala bultzatzeko ekintzek, hain zuzen ere lan-tokietako prestakuntza praktikoek, aurrekontu-murriztapena izan dutela, prestakuntzen planteamendua bideratzeko modua aldatu egin baita. Izan ere, prestakuntza guztiekin batera praktika egitea sustatu nahi da, praktikek hobaria jasotzen duten ala ez aintzat hartu barik. Horrez gain, lehen lan esperientzia bultzatzeak egikaritze-maila txikiagoa du, Lehen Aukera programa gutxiago egikaritu delako, honako hauetara birbideratu egin baita: kontrataziorako laguntzak emateko (beka-programa gisa sortu zen), gazteak eta 35 urtetik gorakoak euskal enpresek atzerrian dituzten zentroetan kontratatzeko aurreikusitako aurrekontua banatzeko eta 2015. urterako aldatu delako lanek orientaziorako ekintzetarako aurreikusitako aurrekontuaren zati handi bat.

Azalpen hori kontuan izanik, ikusi egin beharko litzateke, beraz, aurreikusitakoa baino aurrekontuaren egikaritze-maila handiagoa izan dela ekintzailetza sustatzeari buruzko 2. ardatzean. Ez da hala gertatu, inondik inora: 2. ardatzaren aurrekontuaren egikaritze-maila %72,4an gelditu da.

Bigarrenik, horiek ekimen guztiek enpleguan izan duten inpaktua aztertzen da, eta hartara, sortutako enplegua, mantendutako enplegua eta lanpostu gehiago sortzea bereizten dira, Enplegu Planak sailkatzen dituen legez. 2014an abiarazitako ekimenek bete egin zituzten aurreikusitako inpaktu globalak sortutako enpleguan (%110,9) eta mantendutako enpleguan (%112,9); lanpostu gehiago sortzeko ekimenean, berriz, %71,2ko igoera besterik ez da izan orotara.

Enpleguaren sorkuntzan izan duen benetako inpaktuak (%110,9) honako ñabardura hauek behar ditu:

- Enpresak sortuta eta hazita aurreikusitako lanpostuen %88, hain zuzen ere Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzen (5. Programa Operatiboa) deialdian tokiko ekintzailetzat bultzatzeko ekintzetarako aurrekontu txikiagoa erabili izanak eraginda. Halaber, Gazteen Ekintzailetza eta Enplegua Sustatzeko Programa Operatiboetan aurreikusitako inpaktua egokitu da ekintzaileei laguntzako deialdi berriaren egituraren arabera.
- Birgaikuntzan aurreikusitako lanpostuen %104, RENOVE Osasuna (6. Programa Operatiboa) programaren aurrekontuaren egikaritze-maila handiagoak eraginda.
- Kontrataziorako zeharkako pizgarrien bidez aurreikusitako lanpostuen %165. Lanpostu gehiago sortu dira Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzen deialdian (5. Programa Operatiboa) ezarritako enpresek kontrataziorako erabilitako laguntzetarako aurrekontu handiagoa izan delako, baita lana eta familia uztartzeko laguntzek aurreikusitakoa baino inpaktu handiagoa izan dutelako ere.

II.5.2. KOADROA. EAE-KO 2014-2016 ENPLEGUA PLANA: ENPLEGUAN IZANDAKO INPAKTUA PROGRAMA OPERATIBOEN ARABERA. 2014.

	AURREIKUSIA			EGINA			EGINAREN %-a		
	ENPLEGU SORTUA	MANT. ENPLEGU A	LANPOSTU GEHIAGO SORTZEA	ENPLEGU SORTUA	MANT. ENPLEGU A	LANPOSTU GEHIAGO SORTZEA	ENPLEGU SORTUA	MANT. ENPLEGU A	LANPOSTU GEHIAGO SORTZEA
1. ETE-AK ETA TOKIKO GARAPENA SUSTATZEA	135	33.401	114	131	36.522	109	97,0	109,3	95,6
2. EKINTZAILETZA SUSTATZEA	2.257	1.320	0	2.591	1.342	0	114,8	101,7	-
3. GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA, GAZTE BERMEA	740	0	52.807	480	55	15.035	64,9	-	28,5
4. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA	0	0	59.600	0	0	61.415	-	-	103,0
5. ENPLEGU INKLUSIBOA. ENPLEUGAREN ALDEKO ELKARTASUNA	3.579	10.155	6.830	4.531	12.754	8.405	126,6	125,6	123,1
6. RENOVE BIRGAIKUNTZA	3.964	0	0	4.110	0	0	103,7	-	-
GUZT.	**10.676**	**44.876**	**119.351**	**11.843**	**50.673**	**84.964**	**110,9**	**112,9**	**71,2**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. 2014-2016ko Enplegu Plana. 2014ko Ekintza Planaren azken ebaluazioaren txostena.2015eko apirila. Geuk egina.

Enplegua mantentzean izandako benetako inpaktuak ere helburua gainditu du oro har (%112,9), eta xehetasun eta ñabardura hauek ditu:

- Enpresentzako finantzaketaren bidez aurreikusitako enpleguaren %57, ETEak eta autonomoak finantzatzeko laguntza ekimenek mugiarazitako baliabide pribatuetan murrizpena nabarmenak eraginda. Halaber, ez da onartu Bideratu programara aurkezturiko proiektuetako bat bera ere (1. Programa Operatiboa).
- ETEen lehiakortasuna hobetuz edota finkatuz aurreikusitako enpleguaren %190, IKTak merkataritzan sartzeko programaren norainokoan eginiko aldaketak eraginda (1. Programa Operatiboa). Halaber, Turismo Enpresak Berritzeko eta Hobetzeko Programaren inpaktuaren gaineko zenbatespena egiteko, estatistika-iturri ofizialetan bildutako turismo establezimenduen batez besteko tamaina hartu zen oinarritzat. Errealitatean egiaztatu denez, askoz inpaktu handiagoa izan du enpleguan (establezimendu bakoitzeko 3,05eko batez besteko tamaina izatetik 10,07kora igarota). Horrez gain, txikiagoa da Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzen deialdian ezarritako ekintzailetzarako laguntzaren bidez sortutako inpaktua (5. Programa Operatiboa), horrelako ekintzetarako aurrekontua murriztu egin baita.
- Enpresen oinordetza, belaunaldien arteko erreleboa eta enpresak ekonomia sozialetako enpresak bihurtzeko laguntzaren bidez aurreikusitako enpleguaren %58, ETEen eta autonomoen finantzaketa bultzatzeko ekintzak neurri txikiagoan egikaritu direlako (zehazki, 1. Programa Operatiboan sartuta zegoen Lanpar funtsa) eta aurrekontu txikiagoa erabili delako belaunaldien arteko errelebo programaren bidez autoenplegurako eta mikroekintzailetza bultzatzeko aurrekontuan (2. Programa Operatiboan sartua).
- Enplegurako Zentro Bereziei eta Laneratze Enpresei emandako laguntzaren bidez aurreikusitako enpleguaren %144. Enplegurako Zentro Berezien (5. Programa Operatiboa sartuak) bidez mantendutako enpleguaren benetako inpaktua aurreikusitakoa baino nabarmen handiagoa izan da.

Enplegua sortzeko modua hobetzean izan duen benetako inpaktua, aldiz, aurreikusitako baino txikiagoa da (%71,2), honako zio hauek tarteko:

- Gazteentzako lehen lan esperientziaren bidez aurreikusitako enpleguen kopurua igotzearen %24. Behera egin du, gehienbat inpaktu txikiagoa lortu baita Lehen Aukera Programan (6.350 gazteko kopurua izatetik 499 gazte izatera errealitatean). Halaber, Junior Kooperatibak Programaren inpaktua txikiagoa izan da (10 Junior Kooperatibako helburutik 2 Junior Kooperatiba izatera errealitatean). Ekimen biak 3. Programa Operatiboaren barruan daude.
- Enplegu gehiago sortzeko ekimen batzuen igoeraren bidez aurreikusitakoa hobekuntzaren %74. Beherakada hori gertatu da 3. Programa Operatiboak inpaktu txikiagoa izan duelako. Alde batetik, murriztu egin da lan-tokietan prestakuntza praktikoko programaren onuradunen kopurua, prestakuntzaren planteamenduaren gaineko orientazioa aldatu egin baitzen (arestian esana dugunez, 40.000 praktikako helburutik 10.000 praktikara igarota errealitatean). Bestalde, jaitsiera izan da prestakuntza ikastaroen eta ekonomia soziala ezagutaraztearen bidez gazteen ekintzailetza bultzatzeko laguntzaren onuradunen kopurua (3.000 gazteko helburutik 1.000 gazteko helburura errealitatean).

II.5.3. KOADROA. EAE-KO 2014-2016KO ENPLEGU PLANA: AURREIKUSITAKO BESTE INJPAKTU BATZUK. 2014.

	AURREIKUSIA			EGINA			EGINAREN %-a		
	ENPRESAK	ENPRESA BERRIAK	ETXEBIZITZ.	ENPRESAK	ENPRESA BERRIAK	ETXEBIZITZAK	ENPRESAK	ENPRESA BERRIAK	ETXEBIZITZ.
1. ETE-AK ETA TOKIKO GARAPENA SUSTATZEA	5.167	87	0	3.835	85	0	74,2	97,7	-
2. EKINTZAILETZA SUSTATZEA	45	937	0	726	1.182	0	1.613,3	126,1	-
3. GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA, GAZTE BERMEA	0	544	0	55	343	0	-	63,1	-
4. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA	0	0	0	0	0	0	-	-	-
5. ENPLEGU INKLUSIBOA. ENPLEUGAREN ALDEKO ELKARTASUNA	1.843	1.091	0	1.852	626	0	100,5	57,4	-
6. RENOVE BIRGAIKUNTZA	0	0	12.435	0	0	12.755	-	-	102,6
GUZT.	**7.055**	**2.657**	**12.435**	**6.468**	**2.236**	**12.755**	**91,7**	**84,2**	**102,6**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. 2014-2016 Enplegu Plana.2014ko Ekintza Planaren azken ebaluazioari buruzko txostena. 2015eko apirila. Geuk egina.

Azkenik, enpresa berrietan eta lehendik daudenetan eta etxebizitzetan aurreikusitako inpaktuaren gaineko helburuen betetze-mailak lotura zuzena du enpleguan duten inpaktuaren aldakuntzekin:

- Enpresa berrietan aurreikusitako inpaktuaren %84,2, Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzen (5. Programa Operatiboa) deialdian tokiko ekintzailetza bultzatzeko ekintzetarako aurrekontu txikiagoa erabili delako. Halaber, Ekintzailetza Sustatzeko eta Gazteen Enplegua Sustatzeko Programa Operatiboetan aurreikusitako inpaktua egokitu egin da, ekintzaileei laguntzeko deialdi berriaren egituraren arabera.
- Egungo enpresetan aurreikusitako inpaktuaren %91,7, hauexek eraginda: batetik, ETEen eta Autonomoen finantzaketarako ekimenek mugiarazitako baliabide pribatuak nabarmen jaitsi izanak enpresetan aurreikusi zen inpaktua jaitsarazi dute (1. Programa Operatiboa). Bestetik, Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzen (5. Programa Operatiboa) ezarritako tokiko ekintzailetza bultzatzeko ekintzetarako (zehazki enpresak finkatzeko) aurrekontu txikiagoak aurreikusitakoa baino inpaktu txikiagoa dakar.
- Etxebizitzetan aurreikusitako inpaktuaren %102,6, aurrekontu handiagoa egikaritu baita RENOVE Etxebizitza programan (6. Programa Operatiboa), hain zuzen ere banakako birgaikuntzarako eta jabeen erkidegoentzako birgaikuntzako laguntzetan. Era berean, «etxebizitzen eta eraikinen birgaikuntza eraginkorraren arloko laguntzak, ondare eraikinean jarduteko proiektuak egiteko» deritzenak birsailkatzeak, banakako eta jabeen erkidegoen birgaikuntzako laguntzen zatia izanik, inpaktu handiagoa dakar etxebizitzan.

(b) LANBIDEren jarduera. 2014ko Kudeaketa Planaren Ebaluazioa

LANBIDEK funtsezko eginkizuna du eratxikia EAEko enplegurako politika aktiboak garatzeko eta Enplegu Plana abiarazteko, zeren eta haren funtzioak lan jarduera (enplegua sustatzeko programekin, bitartekaritzarekin, orientazioarekin, etab.) eta enplegurako prestakuntza baitira, landunena nahiz langabetuena, baita Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta beste prestazio osagarri batzuk kudeatzea ere [11].

GRÁFICO II.5.2. LANBIDE: LIQUIDACION PRESUPUESTARIA POR PROGRAMAS. MILES DE EUROS.



Iturria: LANBIDEren datuekin egina.

Aurrekontuko likidazioak oinarri hartuta (obligazio aintzatetsiak), jakin badakigu 2014an 776,76 milioi euroko gastua izan zuela, 2013an baino %4,8 gehiago, eta horietatik 481,84 milioi, gastu guztien %62, Gizarteratze Programarako erabili ziren (2013an baino %8,8 gehiago), 181,25 milioi euro (guztizkoaren %23,3) Enplegu Programarako (2013an baino %1,4 gutxiago) eta 98,98 milioi (gastuaren %12,7) Prestakuntza Programarako (-%13,8 2013koaren aldean)[12]. Horrenbestez, eta enplegurako politika aktiboetan eginiko gastua prestakuntzako eta enpleguko programak batuta kontsideratzea sinplifikazioa bada ere, gizarteratze-programekin lotura zuzena duenez gero, 280,24 milioi euroko gastua zenbatetsi daiteke LANBIDEk 2014an betearazitako enplegu aktiboetako gastutzat, 2013an baino %6,1 gutxiago. Murrizketa hori 2013an izandakoari batu behar zaio (-%40,7), 205 milioi euro gutxiago gastatu baitziren, hots, 2012ko 503 milioitik 2013ko 299 milioira.

Laburbilduz, 2012 eta 2014 bitartean, 503 milioi eurotik 280 milioi eurora jaitsi zen enplegurako politika aktiboen gastua, hots, %59 gutxiago. LANBIDEK gizarteratzearen arloan eginiko gastua, berriz, igo egin zen 2014an, 39 milioi gehiago (+%9), eta 2012 eta 2014 urte bitartean, 63 milioi gehiago batu ziren (+%15).

11 DBEri eta beste prestazio batzuei buruzko informazioa izateko, jo beza irakurleak Memoria honetako EAEko gizarte babesari buruzko IV. kapitulura.

12 Gainerakoa, egikarituriko gastuaren %2 gutxi gorabehera, erakunde honen egitura eta laguntza gastuei dagokie.

II.5.4. KOADROA. LANBIDE. 2014KO BERE JARDUEREN LABURPENA*. ADIERAZLEEN AGINTE-KOADROA.					
ARDATZA/HELBURUA	ADIERAZLEA	2013KO DATUA	2014 XEDEA	2014 DATUA	2015 XEDEA
1. Euskal sistemaren liderra izatea PAEak garatzearen eta betearaztearen arloan, gobernantza eredu berriarekin, eragile publikoen eta pribatuaren arteko lankidetza eta koordinazioa oinarri hartuta					
LANBIDEK betearazi beharreko PAEak osatzen dituzten ekintzak eta neurriak arautzeko marko juridiko autonomikoa egitea	1. LANBIDEren eskumenen arloarekin loturiko xedapen orokorrak izapidetzea, onetsiak edo egiten ari direnak	3	8	7	7
2. LANBIDE ekoizpen-sarera eta ingurune geografikora hurbiltzea, enpleguaren eta prestakuntzaren arloko bere beharrak errazago betetzeko					
LANBIDEren bulego-sareak lurraldeko ekonomia, gizarte eta prestakuntza sarrerak eragile aktibo gisa duen eginkizuna indartzea, eta erakunde kolaboratzaileen sarera hurbilketarako eta hedapenerako tresnatzat sartzea	2.LANBIDE sareak zerbitzuak eskaintzeko bisitaturiko enpresak	-	400	0	400
	3. LANBIDEren bitartekaritza zerbitzuaren erabiltzaileak diren enpresa eskaintzaileak	3.990	>	5.035	>
3. Pertsonen enplegurako aukerak hobetzea LANBIDEren jardueraren ardatz gisa, eta erreferente izatea enpleguaren eta laneko bitartekaritzaren sustapenean					
Biderapen integrala eta pertsonala indartzea, bakoitzaren gaitasunen eta ahalmenen arabera, betiere bizitza osoan orientazioa izateko sistema integratuarekin bat	4. Orientazio Zerbitzuak enplegua lortzeko aukerei buruzko balorazioa eginda duten pertsonak, edo EURES zerbitzuaren arreta pertsonalizatua dutenak aribideko kurtsoan (bulegoetan eta erakunde kolaboratzaileetan)	26.044	>	73.276	Langabezia tasaren antzeko bilak.
LANBIDEK emandako enplegurako aukerak eta laneko bitartekaritzaren eraginkortasuna hobetzea	5. LANBIDE sareak kudeaturiko lanpostua eskainiak	13.625	15.000	18.000	>
	6. LANBIDEK lan-merkatuan duen bitartekaritza maila (kudeaturiko lanpostuen % erregistraturiko kontratuekiko)	%1,9	%3	%2,6	%4
	7. LANBIDEK kontratazioan egiten dituen jarduketen eraginkortasunaren indizea (urtebetean kontratua egin zaien pertsona guztiekiko, LANBIDEren zerbitzuak jaso dituztenen %a –orientazioa, prestakuntza edo lan eskaintza-kontratazioa baino 6 hilabete lehenago)	%14,7	%18	22%	>
Enplegua, autoenplegua eta jarduera ekonomikoa sustatzeko programak bultzatzea	8. Inoren konturako eta norbere konturako pizgarriak izan dituzten landun pertsonak (laneko jardueraren programan multzoan)	23.749	13.860	13.578	12.775
Biztanleria aktiboa gaitzeko ekintzak bultzatzea ekoizpen-sarearen egungo eta etorkizuneko beharren arabera, enplegurako prestakuntza sistema integratuaren bidez	9. Prestakuntzan parte hartu duten pertsonak (azpisistema motaren arabera)	60.219	60.300	55.958 (Lanb.=22.608) (HOB.=33.350)	60.200
	10. Pertsona egiaztatuak (PErekin** edo Esperientzia Aintzatesteko Sistemarekin loturikoak)	11.282	13.500	23.118	20.000
	11. PErekin loturiko eta urtean bukaturiko prestakuntzak eta urtean bukaturiko prestakuntza guztiekiko %	1.851 (%37,7)	2.000	1.767 (%38,4)	>
4. Gizarte kohesioan aurrera egitea prestazio publikoen kudeaketa eraginkorraren eta zailtasun bereziak dituzten taldeen laneratzearen bidez					
Aukera-berdintasunean aurrera egitea, adina, sexua, jatorria, gaitasuna edo bestelako edozein direla ere, eta lana eskuratzeko zailtasunak dituztenen laneratzea bultzatzea, bazterketarako arriskua eta arazo kronikoa bihurtzea galaraziz	12. Lanerako aktibazioaren edo prestakuntzaren programetan edota zerbitzuetan parte hartu dutenen %, erreferentziazko bere taldeko pertsona guztiekiko (25 urtetik beherako gazteak, ezinduak, emakumeak, 45 urtetik gorakoak, DBEren onuradunak)	-	> %35,4 (eskatzaileen b.b.)	<%25: 42,5 Ezind: %52,9 M: %33,3 >45: %30,7 DBE: %62,3	>eskatzaileen b.b.
LANBIDEK prestazio publikoen administrazio-kudeaketan duen jardunaren eraginkortasuna hobetzea	13. 60 egun baino lehen bukaturiko izapideen %	%74	%100	%73	%85
	14. DBE/PE espedienteak ebazteko denbora (egunak) eskabidea aurkezten denetik	65,3	<60	48	40
	15. Aurkezturiko errekurtsoak eta urtean eginiko ebazpen guztiekiko % (DBE/EPO laguntzetan)	3.999 (%3,51)	2.000	2.319	2.000
	16. Behar ez ziren kopuruak kobratu direneko DBE/EPOren gaineko ebazpenak (hileko batezbestekoa)	%23,7	<	%23,8	%15
	17. DBE/EPOren kudeaketaren gainean Arartekoari eginiko kexak	836	670	433	400

Iturria: LANBIDE. 2014ko Kudeaketa Plana. Abenduaren 31ko egoerari buruzko txostena. Geuk egina.
****Lehen 17 adierazleen laburpena, zerbitzuaren prestazioari buruzkoa. Ez da aintzat hartu Lanbideren barne kudeaketari buruzkoa (pertsonalaren politika, etab.).***
*****PE: Profesionaltasun Egiaztagiriak***

Eginiko lanari dagokionez, baditugu 2014ko Kudeaketa Planaren ebaluazioari buruzko zifrak, Plan Estrategikoan ezarritako helburuen jarraipenerako sortutako adierazle sistemaren bidez. Horietatik hauexek nabarmenduko ditugu:

1. Euskal sistemaren liderra izatea PAEak garatzearen eta betearaztearen arloan, gobernantza eredu berriarekin, eragile publikoen eta pribatuaren arteko lankidetza eta koordinazioa oinarri hartuta. 2014an, LANBIDEren eskumenekin loturiko 8 xedapen orokor aurreikusietatik 7 izapidetu ziren.
2. LANBIDE ekoizpen-sarera eta ingurune geografikora hurbiltzea, enpleguaren eta prestakuntzaren arloko bere beharrak errazago betetzeko. Ez da aurrera egin 400 enpresak bisitatzeko helburuan, hain zuzen LANBIDEren zerbitzuak eskaintzeko (ez da bisitarik egin), baina 2014an gora egin zuen bitartekaritza zerbitzuaren enpresa erabiltzaileen kopuruak, guztira 5.035, 2013an baino %26,2 gehiago.
3. Pertsonen enplegurako aukerak hobetzea LANBIDEren jardueraren ardatz gisa, eta erreferente izatea enpleguaren eta laneko bitartekaritzaren sustapenean.

- Guztira 73.276 lagunek jaso zuten orientazio zerbitzuen arreta, 2013an baino hiru aldiz gehiago ia (+%181,4).
- LANBIDEren sareak eskainitako 15.000 lanpostu kudeatu zituen, 2013an baino %10,1 gehiago, eta izenpeturiko lan kontatu guztietatik %2,6 LANBIDEk kudeatu zituen, aurreikusitakoa baino %3 gutxiago, baina 2013ko %1,9koa gaindituta.
- Lan aktibaziorako programen barnean, inoren konturako eta norbere konturako 13.578 lanposturako pizgarriak eman ziren (-%42,8 2013ko datuaren aldean).
- Merkatuaren beharrei erantzuteko gaikuntzari begira, 55.958 lagunek hartu zuten parte prestakuntzako jardunetan (horien %60 Hobetuzen bitartez), antzeko kopurua 2013aren aldean; 23.118 lagun Profesionaltasun Egiaztagiriaren edo antzekoen bidez egiaztatu ziren (2013koaren bikoitza) eta beste 1.767 lagunek egiaztagiri horiekin loturiko prestakuntzetan hartu zuten parte.

4. Gizarte kohesioan aurrera egitea prestazio publikoen kudeaketa eraginkorraren eta zailtasun bereziak dituzten taldeen laneratzearen bidez.

- LANBIDEn inskribatuta dauden eta laneratzeko zailtasun bereziak dituzten taldeetakoak diren pertsonen %35ek baino gehiagok laneko aktibaziorako zerbitzuetan edota programetan hartze hartzeko helburuaren aurrean, 25 urtekoen kasuan bete egin dela esan behar da (%42,5), baita ezinduen (%42,9) eta DBEren hartzaileen (%62,3) kasuan ere. Ez da bete, %30etik gorako emaitzak izanik ere, emakume langabeekin (%33,3) eta 45 urtetik gorako pertsonekin (taldearen %30,7).
- Prestazioen kudeaketaren eraginkortasuna hobetzeari dagokionez, 2014rako aurreikusitako helburuak bete ez badira ere, murriztu egin da espedienteak izapidetzeko eta ebazteko batez besteko denbora, baita Ararteko-ari aurkezturiko kexen eta errekurtsoen kopurua ere.

Laburbilduz, 2014ko abenduaren 31n, LANBIDEren ustez, %40koa zen bere ebaluazioan aurrerapen maila lehen ardatz estrategikoan (enpleguaren euskal sistemako liderra izatea), %45ekoa bigarrenean (LANBIDE ekoizpen-sarera hurbiltzea), %70ekoa hirugarren ardatzean (pertsonek enplegua lortzeko dituzten aukerak hobetzea) eta %55ekoa laugarren ardatzean (zailtasun bereziak dituzten taldeen gizarte kohesioan aurrera egitea).

(c) EPAen beste zifra batzuk

Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioak autonomia erkidegoek "*enplegua sustatzeko*" eginiko gastua zein den jakitea ahalbidetzen du lurraldeko estatistika datuak oinarri hartuta, haien aurrekontuko likidazioek dakartzaten partida orokor gisa. Informazio horren arabera, 2013. urtean (eskuragarri dugun azken datua), Euskadik 321,71 milioi euro erabili zituen prestakuntza, orientazio eta laneratze programetarako, 2012an baino %39 gutxiago. Zifra hori nahikoa hurbil dago (ez da berdina) LANBIDEk prestakuntza eta enpleguko programetan urte horretarako zituen kontuen 298,55 milioi euroko gastutik, 2012an baino %40,7 gutxiago hain zuzen.

II.5.5. KOADROA. ENPLEGU POLITIKA AKTIBOAK: EAE-ESTATUAREN ARTEKO ERKAKETA.

	KOPURUA (MILIOI €)*			GASTUA (€/LANGABETU)		
	EAE	ESTATUA	% EAE/ESTATUA	EAE	ESTATUA	% EAE/ESTATUA
2008	80,45	4.976,88	1,6	950,91	1.959,48	48,5
2009	191,63	5.259,47	3,6	1.590,30	1.443,32	110,2
2010	94,59	4.994,44	1,9	714,43	1.229,92	58,1
2011	399,85	4.642,07	8,6	2.755,68	1.090,40	252,7
2012	527,11	4.004,13	13,2	3.245,77	848,26	382,6
2013	**321,71**	**2.799,03**	**11,5**	**1.834,16**	**577,68**	**317,5**
11/12 %	31,8	-13,7	-	17,8	-22,2	-
12/13 %	-39,0	-30,1	-	-43,5	-31,9	-

Iturria: OGASUN ETA ENPLEGU MINISTERIOEN datuekin eginikoa.
**Autonomia erkidegoetako aurrekontuko likidazioetatik kontsolidaturiko datuak. Sailkapen funtzionala, 24. kodea: "enplegua sustatzea". Ogasun eta Administrazio Publikoen datu-basea.*

Jaitsiera hori gorabehera, programetarako funts bolumenik handiena erabili zuen autonomia erkidegoa EAE izan zen 2013an, Estatuko guztizkoaren %11,5, eta data horretan Estatuan erregistraturiko langabeziaren %3,6 metatzen zuen (urteko batez besteko datua). Horren ondorioz, Estatuko batez bestekoa baino %317,5 handiagoa izan zen urte horretan langabetuko eginiko gastua: 1.834,16€, 577,68€ren aldean. Gastu hori, hala ere, nabarmen gutxitu zen 2012aren aldean: %43,5.

(d) Etengabeko prestakuntza

Indarreko araudiaren eta eskumenen banaketaren ondorioz, langileentzako etengabeko prestakuntzako jarduerak Etengabeko Lanbide Heziketarako Euskal Fundazioaren (HOBETUZ) eta Estatuko Enplegurako Prestakuntzaren Hirutariko Fundazioaren (EPHF) bidez kudeatzen dira EAEn. Ekintza horien finantzazioa baterako bilketako kuoten eta Europako Gizarte Funtsak emandako kopuruen eta aurrekontu publikoetatik (bai administrazio zentraletik EEZPri emandakoak bai Eusko Jaurlaritzatik HOBETUZen kasuan) eratorritako funtsen kargura egiten da, batez ere.

II.5.6. KOADROA. HOBETUZ: 2014KO DEIALDIAREN BALANTZEA. BEHIN BETIKO DATUAK.

		PLAN MOTA	ESPE-DIENTEAK	EMANDAKO DIRUL. (milaka €)	PARTAIDEAK
ENPRESA	EKINTZA ESTRATEGIKOAK	ENPRESA PLANAK	354	2.143,42	10.644
		ENPRESA-TALDEEN PLANAK	57	659,02	2.282
		GUZT.	411	2.802,43	12.926
LANGILEAK	SEKTOREEN ARTEKO SEKTORE PLANAK. ERAK. SINATZAILEAK	ERAKUNDE SINATZAILEAK	17	6.236,52	9.998
		ERAK. SINATZAILEAREN SEK.	4	438,70	842
		ERAK. SINATZAILEEN SEKTOREEN ARTEK.	13	5.797,87	9.156
	PRESTAKUNTZA ERAKUNDEEN PLANAK- AUTONOMOAK- GIZARTE EKONOMIA, SEKTORE ARTEKOAK ETA SEKTOREKOAK, ERAK ETA ZENTRO EZ SINATZAILEENAK	PRESTAKUNTZA ERAKUNDEEN SEKT. ARTEKOA	12	45,92	294
		EZ SINATZAILEEN SEK.	27	237,33	1.147
		PRESTAKUNTZA ERAKUNDEEN SEKT. ARTEKOA	222	2.345,34	6.816
		MODULU KATALOGOA	180	4.999,97	7.811
		GIZARTE EKONOMIA	2	161,71	202
		AUTONOMOAK	7	275,81	521
		GUZT.	467	14.302,61	26.789
		GUZT.	**878**	**17.105,04**	**39.715**

Iturria: HOBETUZ.

Etengabeko Lanbide Heziketarako Euskal Fundazioaren (HOBETUZ)[13] bidez burutzen diren etengabeko prestakuntzako jardueren kasuan, 2014an (urte horretakoa da eskuragarri dagoen azken datua) 878 espediente kudeatu zituen, guztira (%-10,7, 2013aren aldean). Horretarako 17,11 milioi euroko diru-laguntzak eman ziren (% -11,2). HOBETUZ organismoak landunen etengabeko prestakuntza kudeatzen du EAEn.

2015eko emaitzen aurrerapenari dagokionez, guztira 397 espediente izapidetu ziren enpresen arloan (ez zen egon langileentzako eskaintza-deialdirik, LANBIDEk ez baitzuen deialdia onartu), eta guztira 4,3 milioi euroko diru-laguntzak eman ziren.

Etengabeko Lanbide Heziketarako Euskal Fundazioaren (HOBETUZ) bidez burutzen diren etengabeko prestakuntzako jardueren kasuan (enpresa planak, sektore arteko prestakuntza planak, gizarte ekonomiarako eta langileen autonomoentzat), 2014an (urte horretakoa da eskuragarri dagoen azken datua) guztira 174.343 partaide izan ziren, aurreko urtean baino %2,1 gutxiago, 22.336 enpresa trebatzaileren jarduerari esker (+%1,2 2013aren aldean), enplegurako prestakuntzarako funts eskuragarrietako 32,7 milioi euro erabilita (-%0,5). Hori dela-eta, hobaria jaso dute Gizarte Segurantzako kuotetan.

Partaidetza mailari dagokionez, %29,2koa zen (%28,9 batez beste Estatuan) Euskadin prestakuntzetan parte hartu zuten sektore pribatuko soldatakoen portzentajea, eta enpresa trebatzaileen estaldura-tasa, berriz, %34,5ekoa zen (%29,7 batez beste Estatuan).

13 Enpresa eta sindikatu erakundeetako ordezkariek eta Eusko Jaurlaritzak osatzen dute.

Prestaturiko langileen profila dela eta, pertsona horien %56,8 gizonak ziren eta %43,2 emakumeak, halako moldez non prestakuntzaren estaldura-tasa aldatu egiten baita sexuaren arabera. Izan ere, handiagoa zen gizonena (%31) emakumeena baino (%27,1). Gainera, prestakuntzako partaidetza handiagoa zen 36-45 urte bitarteko adin-taldean (partaideen %37,7), eta ondoren 26-35 urte bitarteko adin-taldea (%25,4) eta 46-55 urte bitarteko taldea (%25,3) datoz. Halaber, partaideen maila akademikoa gehienbat nahitaezko bigarren mailaren ondoko ikasketei zegokien (prestakuntzen %41,7), ondoren unibertsitate ikasketak zituztenena (%33,7) eta, azkenik, oinarrizko ikasketak eta nahitaezko bigarren mailako ikasketak zituztenena (%21,4).

Prestakuntzako edukiei dagokienez, gehienbat arlo hauekin zeuden lotuta prestakuntzak: Segurtasuna eta ingurumena (partaideen %21,8), Administrazioa eta kudeaketa (%21), prestakuntza osagarria (%11,8) eta merkataritza eta marketina (partaideen %10,2, besteak beste.

II.5.7. KOADROA. EPHF: ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA EAE-N: 2013-2014KO EKITALDIEN BILAKAERA

	2013	2014	13/14 ald. %
EAE-N TREBATURIKO PARTAIDEAK			
GUZT.*	178.019	174.343	-2,1
IKASKETA MAILAREN %			
Ikasketarik gabe, oinarrizkoak eta derrigorrizko bigarren mailako ikask.	25,7	23,8	-7,4
Bigarren mailakoak eta LH	41,9	41,7	-0,5
Unibertsitateko diplomaturak	12,1	33,7	4,0
Uniberts. goi-mailako ikask.	20,3		
ENPRESA TREBATZAILEAK			
GUZT.	22.072	22.336	1,2
JARDUERA SEKTOREA			
Nekazaritza	142	179	26,1
Manufaktura-industria	3.522	3.410	0,8
Gainerako industria		139	
Eraikuntza	2.295	2.233	-2,7
Merkataritza	5.284	5.359	1,4
Ostalaritza	2.885	3.003	4,1
Beste zerbitzu batzuk	7.944	8.013	0,9
PRESTAKUNTZA ORDUAK PARTAIDEKO	26,13	24,6	-5,9
FINANTZAKETA: ezarritako kreditua (milioi €)	**33,55**	**32,70**	**-0,5**

Iturria: ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZARAKO HIRUALDEKO FUNDAZIOKO datuekin eginikoa.
** Ez dira langileak, prestakuntzako partaidetzak baino, pertsona berak ezin baitu parterik hartu hainbat prestakuntzatan.*

5.2. Enplegu Politika Pasiboak

II.5.3. GRAFIKOA. LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOEN HARTZAILEEN KOPURUAREN HILEKO BILAKAERA EAE-N (MILAKA)



Iturria: EGSM

Langabeziagatiko prestazioek lan egin ahal eta nahi dutenak baina aldi baterako edo behin betiko lana galdu edo lanaldiaren zati handi bat murriztuta dutenak eta, horren ondorioz, soldatak antzeko moduan murriztuta dituztenak babesten dituzte. Kotizaziopeko prestazioak (erabateko langabezia edo langabezia partziala) eta laguntzako prestazioak (langabeziagatiko subsidioa) daude. 2012ko uztailean, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna[14] sustatzeko neurriei buruzko 20/2012 Errege Dekretu-legea aplikatzearen ondorioz, murriztu egin dira langabeziagatiko prestazioen zenbatekoak, eta kopuru hauek ditugu:

14 168 zk.ko BOE, 2012ko uztailaren 14koa.

- Kotizaziopeko prestazioen zenbatekoa langileek eta enpresariek Gizarte Segurantzari egoera horretarako ordaindutako kotizazioekin finantzatzen da, eta langabeziaren lehenengo 6 hiletan langabearen kotizazio oinarriaren % 70 da (gainerakoan % 50), langabe bakoitzaren familia egoeraren arabera zenbait muga dituela.
- Langabeziagatiko subsidioa familia egoeraren arabera IPREMen (Askotariko Efektuen Errentaren Adierazle Publikoa) gaineko ehuneko jakin baten erreferentzia duen prestazio ekonomikoa da. 2015erako IPREM 532,51ekoa izan da hilean, aurreko bost urteetako berdina, beraz.

a) Langabeziako estaldura eta prestazioen jasotzaileak

2015ean langabeziagatiko prestazioen onuradunak, batez beste, 65.148 lagun izan ziren EAEn, aurreko urtean baino % 17,5 gutxiago, nahiz eta urte horretan % 11,8 jaitsi 2013aren aldean, Sustapen Ministerioak emandako batez besteko datuen arabera. EAEn zeuden 65.148 hartzaileetatik %49,7 emakumeak ziren (kopuru hori batez bestekoa baino gutxiago jaitsi zen, %14,2) eta %50,3 gizonak (-%20,5).

Prestazioen hartzaileen kopuruak 2015eko hilez hile izan duen bilakaerari erreparatuta ikusiko dugunez, 2014an gertatu zen legez, gorakada izan zen uztailean eta abuztuan, eta harrezkero behera egin eta urtea 58.405 hartzailerekin bukatu zen, 2014ko abenduan baino %17,7 gutxiago (orduan %15,8 behera egin zuen urtebete lehenagoko datuen aldean).

II.5.8.KOADROA. EAE-KO LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOAK JASOTZEN DITUZTENEN KOPURUA BATEZ BESTE

	ORDAINDUTAKOAREN ARABERAKO PRESTAZIOAK			LAGUNTZAKO PRESTAZIOAK			GUZT. PRESTAZIOAK*		
	Gizona	Emakum.	GUZT.	Gizona	Emakum.	GUZT.	Gizona	Emakum.	GUZT.
2011	28.632	22.357	50.989	14.841	16.016	30.857	43.473	38.374	81.847
2012	31.014	24.471	55.485	16.065	16.586	32.651	47.079	41.057	88.136
2013	30.526	25.082	55.608	17.313	16.611	33.924	47.839	41.693	89.532
2014	24.488	22.039	46.527	16.704	15.698	32.402	41.192	37.737	78.929
2015	18.224	18.588	36.812	14.530	13.806	28.336	32.754	32.394	65.148
% ald. 12/13	-1,6	2,5	0,2	7,8	0,2	3,9	1,6	1,5	1,6
% ald. 13/14	-19,8	-12,1	-16,3	-3,5	-5,5	-4,5	-13,9	-9,5	-11,8
% ald. 14/15	-25,6	-15,7	-20,9	-13,0	-12,1	-12,5	-20,5	-14,2	-17,5

(*) Laneratzeko Errenta Aktiboa, Langabeziagatiko Babeserako eta Laneratzeko Aldi Baterako Programa eta Enplegurako Aktibazio Programa biltzen ditu
Iturria: EEZP,ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOA.

Abenduko langabeziagatiko prestazioen 58.405 onuradunetatik %56,2 kotizaziopeko prestazioen onuradunak ziren, %38,1 subsidioena, %5,6k Laneratzeko Errenta Aktiboa jasotzen zuen eta gainerako %0,1ek, 76 lagunek, Enplegurako Aktibazio Programaren prestazioa jasotzen zuten[15].Estatuan, hile berean, 2,13 milioi onuradun erregistratu ziren (-%11,7 2014ko abenduaren aldean), eta kotizaziopeko prestazioen hartzaileen ratioa %38,4koa zen, %49,5ekoa subisdioetarako eta %11 laneratzeko errenta aktiborako. Gainera, %1,1ek Enplegurako Aktibazio Programaren prestazioa jaso zuen.

Erregistratutako langabezia-tasak aintzakotzat harturik, esan liteke 2015eko abenduan Euskal Autonomia Erkidegoan 100 langabetuetatik 61ek ez zuela inola prestaziorik jasotzen (2014. urtean, 57k), eta gainerako 39etatik 22k zerga-prestazio bat jasotzen zuen, 15ek laguntza eta 2k Laneratzeko Errenta Aktiboa.

Estatuan, langabeziagatiko prestazioen estaldura nabarmen handitzen da erkidegoen artean langabeziari dagokionez. Nabarmentzekoa da, alde batetik, U. Balearren kasua, non, eskuragarri ditugun datu guztiek arabera, aurretik lan esperientzia duten langabetuek prestazioren bat jasotzen duten eta, bestetik, Ceuta eta Melilla, non langabetuen %40k besterik ez duten prestazioa jasotzen.

15 Ohiz kanpoko eta aldi baterako programa, luzaroko langabeei zuzenduta dagoena eta Enplegu Zerbitzu Publikoek kudeatutako enplegu politika aktiboak eta lan bitartekotza barne hartzen dituena, lan-merkatura itzultzeko aukerak gehitzeko asmoz. Horrez gain, SEPEk kudeatutako laguntza ekonomikoa eskaintzen du, enplegurako aktibatzeko politika horietan parte hartzeari lotuta dagoena. 16/2014 Errege Lege Dekretua, abenduaren 19koa, Enplegurako Aktibatzeko Programa arautzen duena.

2015eko abenduko datuen arabera, Estatuko batez besteko estaldura % 55,2 izan da (2014ko abenduan baino 2,4 puntu portzentual gutxiago). Horrekin alderatuta, EAEko datua txikiagoa da (hil horretan erregistratu diren eta aurretik lan egin duten langabeen % 43,4 Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak erabiltzen duen metodologiaren arabera). Gure Erkidegoan ere behera egin zuen estaldura mailak, %3,8 2014ko abenduaren eta 2015eko abenduaren artean. Horren ondorioz, EAEk zuen langabeziaren estaldura-tasarik txikiena autonomia erkidego guztietatik, Ceuta eta Melilla alde batera utzita eta, beraz, erregistraturiko langabezia kopurua jaistearekin batera, langabezian daudenentzat, areagoatu egiten da langabeziaren babeserako sistemaren babesik eza.

Langabeziagatiko kotizaziopeko prestazioaren batez besteko zenbatekoa 889,2 eurokoa izan da EAEn 2015eko abenduan (aurreko urtean baino % 1,5 gutxiago), Estatu osoko batezbestekoaren (815,4€, 2014. urteko abenduan baino).

II.5.9. KOADROA. AUTONOMIA ERKIDEGO BAKOITZEKO LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOEN GASTUAREN ETA ESTALDURAREN ADIERAZLEAK ABENDUA.

	ESTALDURA-TASA*				KOTIZAZIOPEKO PRESTAZIOAREN BATEZ BESTEKO KOPURUA ONURADUN BAKOITZEKO (€/HILEA)			
	2013	2014	2015	14/15 ALDAK (pp.)	2013	2014	2015	14/15 %
ANDALUZIA	64,1	61,6	59,8	-1,8	784,9	771,9	779,7	1,0
ARAGOI	60,4	56,9	53,1	-3,8	849,4	837,0	821,0	-1,9
ASTURIAS	59,2	54,3	49,4	-4,9	822,6	779,9	771,8	-1,0
U. BALEARRAK	111,5	115,9	118,3	2,4	911,5	931,0	946,6	1,7
U. KANARIARRAK	56,3	52,0	50,8	-1,3	744,8	743,3	755,6	1,7
KANTABRIA	60,8	56,5	53,0	-3,5	814,1	775,2	770,0	-0,7
G. MANTXA	54,5	50,8	47,9	-2,9	800,8	769,5	765,0	-0,6
G. ETA LEON	53,0	51,6	49,7	-1,9	803,7	790,7	785,2	-0,7
KATALUNIA	67,4	63,3	61,2	-2,0	878,9	857,5	852,2	-0,6
VALENTZIAKO E.	55,4	51,5	49,3	-2,2	812,9	798,1	792,3	-0,7
EXTREMADURA	66,9	65,3	63,0	-2,3	705,1	692,5	686,6	-0,9
GALIZIA	60,0	55,6	53,5	-2,1	789,0	780,2	785,4	0,7
MADRIL	58,5	53,2	47,8	-5,4	858,0	845,9	848,6	0,3
MURTZIA	55,1	52,4	51,2	-1,2	791,7	781,9	781,4	-0,1
NAFARROA	61,0	55,2	50,8	-4,5	927,5	905,3	909,3	0,4
EAE	**55,0**	**47,3**	**43,4**	**-3,8**	**929,9**	**903,1**	**889,2**	**-1,5**
ERRIOXA	58,0	53,5	50,6	-2,8	864,0	840,0	838,5	-0,2
CEUTA	38,8	39,9	42,4	2,5	842,1	789,5	773,7	-2,0
MELILLA	41,7	35,6	38,4	2,8	793,5	749,8	763,9	1,9
GUZTIRA	**61,4**	**57,6**	**55,2**	**-2,4**	**829,8**	**815,3**	**815,4**	**0,0**

Iturria: EGSMren datuekin egina
(*) Estaldura-tasak kalkulatzeko, Ministerioaren metodologiaren arabera, edo hileko azken egunean alta emanda zeudenen prestazioen onuradunen
Kopuruaren (ordaindutakoaren araberakoak gehi subsidiaok) eta lan esperientzia zuten langabetu erregistratuaren arteko zatidura gehi nekazaritzako
behin-behinekoen subsidioen onuradunak (Andaluzian eta Extremaduran)

Alabaina, onuraduneko prestazioa handiagoa zen Euskadin artean ere: %9,1 handiagoa EAEn Estatu osoan baino. EAE, Nafarroarekin, U. Balearrekin eta Kataluniarekin batera, goiko postuan dago aldagai honetan.

II.5.4. GRAFIKOA. LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOAK EAE-N: HARTZAILEEN KOPURUAREN ETA GASTUAREN BILAKAERA



Iturria: EEZPren datuekin egina

(b) Langabeziaren babeseko gastua eta diru-sarrera

Langabeziaren ziozko prestazioetarako guztizko gastua EAEn, 2015ean eta behin-behineko datuen arabera, 794,78 milioi euro zen, 2014an baino %24 gutxiago. Zenbateko hori EAEko BPGaren %1,17 zen (%1,56 aurreko urtean), hots, Estatu mailako langabeziaren ziozko guztizko gastuaren %3,81 zen, non 20.836 milioi euroko zenbatekoa gainditzen zen (-%12,6 2014ren aldean).

Datu hori eta jasotzaileen kopuruak direla eta, guztira 12.200€-ko urteko batez besteko gastua zenbatesten da jasotzaileko, hots, 2014koa baino %8 gutxiago.

II.5.10. KOADROA. EAE-KO LANGABEZIAKO GASTUAREN ETA EEZP-REN GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZAZIOENGATIKO DIRU SARREREN BILAKAERA (€, MILIOIKA)

	2010	2011	2012	2013	2014	2015*	13/14 ald.%	14/15 ald. %
Ordaindutakoaren araberako prest. gord.	737,48	667,86	789,87	799,31	656,71	472,29	-23,0	-28,1
(-) Gizarte Seg. Langilearen kontura	*40,67*	*36,04*	*42,51*	*44,02*	*46,97*	*37,03*	*8,5*	*-21,2*
(-) PFEZren atxikipenak	*3,39*	*6,15*	*6,15*	*6,16*	*4,36*	*2,83*	*-29,2*	*-35,1*
Ordaindut. araberako prest. garbiak	693,42	628,64	741,21	749,13	605,38	432,43	-24,8	-28,6
Langabeziagatiko diru-laguntza prestazioak	164,90	161,29	168,60	171,71	160,64	143,01	-5,0	-11,0
EEZPren kotizaz. Gizarte Segurantzarako	325,21	315,27	342,83	338,04	280,04	219,34	-18,6	-21,7
-EEZPren kargura, ord. araberako prest bak	*293,70*	*279,93*	*305,61*	*305,79*	*250,09*	*191,74*	*-19,8*	*-23,3*
-EEPZren kargura, laguntzako prest. baz.	*31,51*	*35,34*	*37,22*	*32,25*	*29,95*	*27,60*	*-7,1*	*-7,8*
GASTUA LANGABEZIAN, GUZTIRA	1.183,53	1.144,42	1.252,64	1.258,88	1.046,06	794,78	-20,4	-24,0
% ESTATUAREN GASTU GUZTIEKIKO	3,78	3,80	4,11	4,36	4,39	3,81	-	-
EEZPrentzat BILDUTAKO KUOTAK	1.127,62	1.131,52	1.088,31	1.056,10	1.071,30	:	1,4	:
SALDOA	0,03	-12,90	-164,33	-202,45	25,24	:		
SARRERA / GASTUA	1,00	0,98	0,87	0,84	1,02	:		

Iturria: EEZPren eta GSDOren datuekin egindakoa. Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa.
****2015eko kopuruak behin-behinekoak dira.***

Beste alde batetik, enpresek eta soldatako langileek ordaindutako eta EAEko Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak bildutako EEZPrentzako Gizarte Segurantzaren kotizazioen diru-sarrerek gora egin zuten 2014an (eskuragarri dauden azken datuak) eta 1.071,3 milioi euro izan ziren guztira, aurreko urtean % 1,4 gehiago. Hortaz, EAEko langabeziaren arriskua estaltzeko diru-sarreren eta gastuen arteko kenduran, 2014an, 25,24 milioi euroko saldo positiboa dago, aurreko urteko 200 milioitik gorako saldoaren aldean.

II.5.5. GRAFIKOA. LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOETAKO GASTUA ETA SARRERA EAE-N.



Iturria: EEZPren eta EUSTATen datuekin egina.

6. LANEKO OSASUNA

OSALANek (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea) agerian utzi duenez, 2015ean 36,15 istripu izan ziren (lan-egunetan baja eragin duten istripu berriak, hain zuzen ere 1.000 langileko istripu kopuruaren eta berariaz laneko istripuen kontingentzia estalia duten Gizarte Segurantzako afiliatuen kopuruaren arteko zatiduraren bidez kalkulatzen den kopurua) gure Erkidegoan milako (36,01 milako 2014an eta, beraz, berdin eusten zaio ratioari, +0,14 punturekin).

II.6.1. KODROA. AA.EE. BAKOITZEAN LANEKO BAJA ERAGIN DUEN ISTRIPU KOPURUA*, JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA. DATUAK, KONTINGENTZIA BETETA DUTEN MILA AFILIZATUKO.

	2014				
	LEHEN SEKT.	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBIT.	GUZTIRA
ARABA	19,93	54,93	89,46	29,93	39,51
BIZKAIA	91,17	61,19	70,92	25,48	35,26
GIPUZKOA	64,72	58,09	81,20	24,41	35,26
EAE	72,13	58,68	76,21	25,85	36,01
	2015				
	LEHEN SEKT.	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBIT.	GUZTIRA
ARABA	34,64	58,08	77,45	29,85	39,14
BIZKAIA	95,89	63,17	76,04	26,35	36,91
GIPUZKOA	77,08	58,60	82,72	24,48	34,91
EAE	73,49	60,41	78,08	26,31	36,15
	ALDAK. 2014-2015 EHUNEKOTAN				
	LEHEN SEKT.	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBIT.	GUZTIRA
ARABA	14,71	3,15	-12,01	-0,08	-0,37
BIZKAIA	4,72	1,98	5,12	0,87	1,65
GIPUZKOA	12,36	0,51	1,52	0,07	-0,35
EAE	1,36	1,73	1,87	0,46	0,14

Iturria: OSALAN. EUSKO JAURLARITZA.

Sektore bakoitzari erreparatuta, eraikuntzan izan zen intzidentziarik handiena (78,08 milako), 1,87 puntu hazi baitzen 2014aren aldean. Ondoren lehen sektorea zegoen, 73,49 milako (+1,36 2014aren aldean) eta industria, 60,41 milako, 1,73 puntu hazita 2014aren aldean. Azkenik, zerbitzuen intzidentzia batez bestekoaren azpitik zegoen, 26,31 milako (+0,46 puntu).

16 2014ko urtarriletik hasita, ez dira halakotzat zenbatzen lanean ari ez diren inoren konturako nekazari afiliatuak eta 13/2010 LEDen eraginpeko funtzionario afiliatuak.

Autonomia erkidegoei dagokienez, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioak kalkulatzen duen lanaldiko istripuen intzidentziaren indizeak erakusten duenez, U. Balearrak ziren rankingeko buruan istripuetan, eta ondoren Gaztela-Mantxa zegoen. EAEren indizea 33,25ekoa zen milako, eta %2,5 egin zuen gora bere indizeak. Hala, Estatuko batez bestekoaren gainetik zegoen kopuru absolutuetan; industriaren sektoreak duen pisu handiak eragin zezakeen intzidentzia hori. Portzentajetan, estatuko aldakuntza urte horretan EAEren berdina zen, %2,5ekoa.

II.6.2. KOADROA. AUTONOMIA ERKIDEGO BAKOITZEAN LANEKO BAJA ERAGIN DUEN ISTRIPU KOPURUA*. MILAKOETAKO DATUAK.

	2012	2013	2014	2015**	14/15 ald. p.p.	14/15 ald. p.p.
ESTATUA	29,49	30,09	31,11	31,90	0,79	2,5
ANDALUZIA	31,75	33,59	34,67	35,99	1,32	3,8
ARAGOI	26,31	26,95	27,40	29,33	1,93	7,0
ASTURIAS	35,16	35,22	36,69	36,67	-0,02	-0,1
U. BALEARRAK	38,85	40,70	43,57	45,28	1,71	3,9
U. KANARIARRAK	33,64	34,16	35,87	35,81	-0,06	-0,2
KANTABRIA	25,93	26,58	28,47	29,52	1,05	3,7
GAZTELA-MANTXA	34,58	35,25	36,96	38,49	1,53	4,1
GAZTELA ETA LEON	27,87	27,83	29,36	30,70	1,34	4,6
KATALUNIA	29,10	29,92	31,17	30,67	-0,50	-1,6
VALENTZIAKO E.	26,22	27,23	27,29	28,77	1,48	5,4
EXTREMADURA	29,89	30,85	33,94	35,66	1,72	5,1
GALIZIA	30,05	29,57	30,95	31,75	0,80	2,6
MADRIL	26,05	25,75	26,03	26,42	0,39	1,5
MURTZIA	28,43	29,73	31,11	33,76	2,65	8,5
NAFARROA	28,13	28,77	30,73	31,53	0,80	2,6
EAE	**32,92**	**32,44**	**32,44**	**33,25**	**0,81**	**2,5**
- ARABA	35,21	34,53	36,09	35,51	-0,58	-1,6
- GIPUZKOA	32,60	32,32	31,71	32,11	0,40	1,3
- BIZKAIA	32,35	31,80	31,67	33,20	1,53	4,8
ERRIOXA	29,44	29,68	30,50	33,92	3,42	11,2
CEUTA	29,21	29,36	35,17	38,01	2,84	8,1
MELILLA	28,79	29,20	29,22	27,63	-1,59	-5,4

Iturria: ENPLEGU ETA G.S. MINISTERIOA. Laneko Istripuen Estatistikak.
(*) Ministerioaren 2014ko Memoria argitaratuta berrikusi diren serieak eta, beraz, ez datoz bat Memoria honen aurreko edizioetako datuekin.
(**) Datuen aurrerapena.

Bestalde, kontratu motaren araberako lan istripuen datuek erakusten dutenez, lan ezbeharren kopurua handiagoa zen aldi baterako kontratua zuten pertsonen artean kontratu mugagabea zutenen artean baino. Hala uzten dute agerian Enplegu eta Gizarte Segurantzak emandako 2014ko azken datuek. Hain zuzen ere 30,4koa zen mila soldatako bakoitzeko kontratu mugagabea zuten pertsonen artean (BJAren enplegu serie berrikusiak erabiliz); aldi baterako kontratua zuten pertsonen artean, berriz, 41,6 milakoa izan zen. Istripuen banaketa zein den jakin beharko litzateke sektoreen, adinaren eta okupazio motaren arabera, behin betiko ondorioak atera ahal izateko. Baina ikuspegi dinamikoan, nabarmentzekoa da 2009an 41,5ekoa zela istripuen indizea 1.000 soldatako bakoitzeko kontratu mugagabea eta aldi baterakoa zuten langileen artean. 2014an, berriz, 11,1ra murriztu zen.

II.6.2. GRAFIKOA. EAE-KO LAN ISTRIPUAK KONTRATU MOTAREN ARABERA: ISTRIPUAK 1.000 SOLDATAPEKO BAKOITZEKO



Iturria: EUSTATen eta Enplegu Ministerioaren datuekin egina.

Datu absolutuei helduta, 2015ean 30.221 lan istripu izan ziren EAEn, 2014an baino %7,6 gehiago (lan istripuagatik baja hartu behar izan duten langileen kopurua aintzat hartuta, lanaldian eta "*in itinere*" izandako istripuak barne). Estatu mailan, berriz, %5,7ko igoera izan zen, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren arabera (+%3,2 aurreko urtean). Bilakaera hori ikusita, berretsi egiten da 2014an hasitako aldaketa (+%0,5) , gure Erkidegoan 2009az gero gertatzen ari zen jaitsieraren ondotik. Hala, bajarik eragin ez zuten 50.828 istripu izan ziren 2015ean (+%11 2014aren aldean) eta guztira 1.650 berrerortze, aurretik baja eragin zuten istripuekiko (+%6,4).

LAN-OSASUNA EAE-N: BAJA ERAGIN DUTEN LANEKO ISTRIPUEN ETA LANBIDE-GAIXOTASUNEN ERAGINPEKO LANGILEAK											
	LANALDIKO ISTRIPUAK								IN ITINERE ISTRIPUAK	ISTRIPUAK GUZTIA	GAIX. PROF.
	GUZT.	LARRITASUNA			SEKTOREA						
		ARINAK	LARRIAK	HERIOTZA	NEKAZARITZA	INDUS-TRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK			
2011	30.628	30.392	199	37	665	11.460	4.372	14.124	3.384	34.012	1.028
2012	25.615	25.424	159	32	616	9.322	3.143	12.534	3.326	28.941	945
2013	24.611	24.445	138	28	574	8.611	2.562	12.864	3.349	27.960	777
2014	24.816	24.651	137	28	639	8.792	2.527	12.858	3.279	28.095	895
2015	**26.641**	**26.460**	**153**	**28**	**629**	**9.094**	**2.555**	**14.333**	**3.580**	**30.221**	**999**
13/14 ald.%	0,8	0,8	-0,7	0,0	11,3	2,1	-1,4	-0,1	-2,1	0,5	15,2
14/15 ald.%	7,3	7,7	11,7	0,0	3,1	3,4	1,1	11,5	9,2	7,6	11,6

Iturria: OSALAN.

Lanaldian istripua izan zuten pertsonei dagokienez (26.641, 2014an baino %7,3 gehiago), %73,4 gizonezkoak ziren eta %26,6 emakumezkoak. Gainera, azken urtean gora egin zuten gorabehera arinek, %7,7, eta bereziki larriek (+%11,7). Heriotza eragin zuten istripuetan, berriz, egonkor eusten zitzaien kopuruei 2013 eta 2014ko datuen aldean (guztira 28 hildako). Horrez gain, sektorekako azterketak agerian uzten duenez, istripuen kopurua bereziki nabarmen hazi zen zerbitzuen sektorean (%11,5) eta, neurri txikiagoan, industrian (+%3,4) eta lehen sektorean (+%3,1). Eraikuntzan izan zen hazkunderik txikiena, %1,1ekoa.

Azkenik, 2015ean 999 lanbide-gaixotasun adierazi ziren 2015ean, 2014an baino %11,6 gehiago. Jakinarazpenen sisteman aldaketak sartu izanak baldintzatu egin du azken urteetan bilakaeraren azterketa eta, beraz, zuhurtziaz hartu behar dira zifrak.

7. LAN MERKATUA: LABURPENA ETA GOGOETAK

7.1. LABURPENA

Lehenik eta behin, 2014ko abendutik 2015eko abendura bitartean, EUSTATen BJAren datuekin %1eko hazkundea zenbatetsi zen enpleguan (8.500 lanpostu gehiago, +0,4 aurreko epealdian). Gizonezkoen enpleguak bilakaera txarragoa izan zuen (gutxiato hasi zen, +%0,4), 2.000 lanpostu irabazita. Emakumeen enpleguan, berriz, guztira 6.500 lanpostu gehiago bildu ziren (%1,6).

Zerbitzuen sektorea da enpleguaren hazkunde horren oinarria, 11.800 lanpostu irabazi baititu (+%1,8), horietatik 8.800 gizonezkoen artean eta 3.000 emakumeen artean, industriak beherako joerari eusten baitio (-%1,3), 2014an baino neurri txikiagoa bada ere (2.500 lanpostu galduta, aurreko urteko -7.300 lanpostuen aldean). Gauza bera eraikuntzan, 2015ean berriz ere datu negatiboak izan baititu (-%1,5). Adinei dagokienez, azken urtean %9,7 hazi zen 25 urtetik beherakoen enplegu maila (+2.500 lanpostu), eta 25-44 urte bitartekoena, berriz, %2,1 jaitsi zen (9.300 lanpostu galduta). 45 urte eta gehiagokoen langabezia, aldiz, %3,7 hazi zen (+15.300 lanpostu).

Bestalde, Gizarte Segurantzako kotizatzaileen batez bestek kopurua, 2015eko abenduan (ikus kapitulu honetako 1 orri-oinean), 907.964 zen, eta horietatik %47 emakumeak ziren eta %53 gizonak. Hala, %2,3 egin du gora aurreko urteko hilearen aldean (+%3,2 batez beste Estatuan), eta guztira 20.730 afiliatu gehiago daude alta emanda, hain zuzen 2014an izandako igoerari gehituta (%1,4koa izan zen.

Ekoizpen-adar gehienetan, bilakaera positiboa izan da, erauzketa-industrietan (%4,1 jaitsita), finantza- eta aseguru-jardueretan (-%0,6) eta etxeko enpleguan (-%1,8) izan ezik. Eraikuntza, bestalde, %0,1 besterik ez da jaitsi. Manufaktura-industria afiliazioan pisurik handiena duen adarra da (guztizkoaren %19,1), eta 2014an ia 3.000 afiliatu galdu ondoren (eta 5.000 baino gehiago 2013an), %0,9 hazi zen 2015ean (1.462 afiliatu irabazita), baina batez bestekoaren azpitik oraindik.

Zerbitzuen sektorean, bestalde, batez bestekotik gora igo da afiliazioa, %3 hain zuzen, eta ondorioz, 18.300 afiliatu berri daude sektorean. Horrez gain, zerbitzuen adar guztietan afiliatu gehiago daude, plantiletan 110 lagun gutxiago dituzten finantza-jardueretan izan ezik (-%0,6). Afiliaziorik handiena biltzen duen zerbitzuen adarra den merkataritzan (guztizkoaren %15,7), urte arteko %1,6ko hazkundea izan zen (2.228 afiliatu gehiago). Pisu nabarmena duten beste jarduera batzuetan, hala nola osasunean, hezkuntzan eta ostalaritzan, batez bestekotik gorako urte arteko tasak bildu ziren (afiliazioan %3, %3,7 eta %4,1eko hazkundeekin hurrenez hurren).

Kontratazioak gora egin zuen 2015ean aurreko urtearen aldean (+%14,2 guztira, eta %14,1 hasierako kontratuen kopuruan. Hala, SEPEK 2014. urtean 867.255 lan-kontratu erregistratu ditu. Horietatik %50 emakumeek izenpetu zuten (%50 aurreko urtean), eta gainera, kontrataturiko pertsona guztien %47,1 ziren. Estatuan, bestalde, 2015ean 18,6 milioi kontratu erregistratu ziren, 2014an baino %11,1 gehiago.

Hona hemen 2015ean gehien kontrataturiko jarduerak: manufaktura-industria (hasierako kontratuen %15,5, eta 2014an baino %25,9 gehiago), ostalaritza (kontratuen %15,2arekin, %17,3 hazita), administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak, horien artean ABLE (hasierako kontratu guztien %12,3, baina 2014an baino %0,6 gehiago besterik ez), osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuetakoak (kontratuen %12 eta +%14,1 2014aren aldean) eta merkataritza (guztien %11,2 eta +%13,3 aurreko urteko datuen aldean). Sexuaren araberako aldeak ikusten dira, manufaktura-industriak biltzen baitu gizonek izenpeturiko kontratuen laurdena (guztien %24,3). Emakumeen artean, berriz, osasun jarduerak eta ostalaritza dira pisurik handiena biltzen duten jarduera-atalak (bien artean kontratu berrien %38).

Adin-taldeen arabera, 2015ean sinaturiko kontratu berri gehienak, gizonezkoenak nahiz emakumezkoenak, 25-45 urte bitarteko adin-tarteari dagozkio, kontratuen %60 inguru, 25-35 urte bitarteko eta 35-46 urte bitarteko adinen artean banatuta, %32 eta %27 hurrenez hurren. 25 urtetik beherakoen artean, kontratuen %15 izenpetu zen, biztanleria aktiboan duen pisua baino kopuru handiagoa (%4,1ekoa zen). 2014ko kontratazioen bilakaerari dagokionez, gora egin zuen kontratuen kopuruak adin-talde guztietan, gizonezkoetan nahiz emakumezkoetan.

Kontratazioak ikasketa mailaren arabera duen banaketari dagokionez, hamar kontratutik sei (%59,5) bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonek izenpetzen dituzte, eta horietatik gehienak hezkuntza orokorreko ikasketa mailakoak dituzte, gizonezkoen artean (kontratuen %48,5) nahiz emakumeen artean (%46). Bigarrenik, oinarrizko ikasketak dituzten pertsonei dagokie kontratuen %13,9. Ondoren, %12,8 unibertsitate ikasketak dituztenei dagokie, gehienak bigarren eta hirugarren ziklokoak. Gainera, kontratazioaren igoerarik handienak lehen hezkuntzari dagozkio (+%26,8).

Lanaldi motari helduta, bilakaera positiboa izan zen lanaldi partzialeko kontratuetan, EAEn 342.219 guztira (+%12,9 2014aren aldean), kontratu guztien %39,5ekin, nahiz lanaldi osoko kontratuetan, guztira 522.996, %15,1 hazita (kontratuen %60,3). Sexuaren arabera, oso desberdina da lanaldi partzialeko kontratazioaren pisua, zeren eta emakumeek sinaturiko kontratuen erdia baino gehiago baita (%52,5 2015ean), gizonezkoek izenpeturiko kontratuen %26,4aren aldean.

Kontratuen iraupenari dagokionez, 2015ean sinaturiko kontratu guztietatik 60.037 mugagabeak izan ziren, hots, %6,9 (2014ko ratio bera). Sexuaren arabera, kontratazio mugagabearen pisua pixka bat handiagoa da gizonen artean (%6,8 emakumeen %7aren aldean), baina ratio biek berdintzeko joera dute. 2015eko kontratu mugagabeen zifra hori %14,5 hazi zen 2014koaren aldean. Aldi baterako kontratazioaren pisua (guztizkoaren %93,1), berriz, %14,2 hazi da, guztizko kontratuen kopurua bezala. Aldi baterako kontratazioak duen pisu handia dela-eta, kontrataturiko pertsonen zati handi bat hainbat alditan kontratatu ziren urtean. Txandaketa (sinaturiko kontratuen kopuruaren eta kontrataturiko pertsonen kopuruaren arteko zatidura) 3,18 izan zen 2015ean, 2014an baino 12 ehunen gehiago. Aldi baterako kontratuen batez besteko iraupenari dagokionez, 48 egunekoa izan zen (52 egunekoa 2014an), estatuko batez besteko 54 egunen aldean, non aurreko datuari eusten zaion.

2015. urtean lan-merkatuak izandako bilakaeraren emaitzaren ondorioz, BJAren langabezia-tasa orokorra % 14,7koa izan da urtearen amaieran. Horrela, Europar Batasunaren batez bestekoa gainditzen da (EBn % 9koa izan da eta Eurogunean % 10,3koa). Europar Batasunean, askotarikoak dira langabeziak dituen balioak: %20tik gorakoak, Espainian (%21,2) eta Grezian (%24,1), eta %6tik beherakoak, Maltan, Erresuma Batuan, Estonian eta Austrian esaterako. AEBetan, %5eko langabezia-tasa zegoen 2015eko amaieran, Japonian %3,3 eta Frantziak, Irlandak eta Letoniak EBko batez bestekoaren antzeko zifrak zituzten, zenbait adibide aipatzearren.

2015ean, behera egin zuen langabetuen kopuruak gure Erkidegoan (laugarren hiruhilekoetan), 2014an gauza bera egin ostean eta 2008tik etengabe langabeziak Euskadin gora egin ondoren. Zehazki, eginiko zenbatespenen arabera, 2015eko amaieran 154.800 langabetu zeuden, aurreko urtean baino %7,1 gutxiago (-11.900 lagun), eta horietatik 84.600 gizonezkoak ziren eta 70.200 emakumeak. Langabeziaren jaitsiera gehienbat emakumeen artean gertatu zen, %11,1 egin baitzuen gora emakume langabeen kopuruak (8.800 langabetu gutxiago). Gizonezkoena, berriz, %3,5 jaitsi zen (-3.100 gutxiago). Bilakaera horren ondorioz, 2015eko amaieran, puntu bateko aldea zegoen 2015eko langabezia-tasan sexuaren aldetik; izan ere, %15,2koa zen gizonentzat eta %14,2 emakumeentzat (%14,7 batez beste, ikusi dugunez), noiz-eta 2014ko amaieran emakumeen tasa gizonezkoena baino bi hamarren handiagoa zenean hain zuzen ere.

Adinen arabera, behera egin zuen langabeziak 44 urtera arte (-%20 25 urtetik beherakoen artean eta -%11,4 25-44 urte artekoen taldean). Adin horretatik gorako pertsonen artean, aldiz, gora egin zuen, hain zuzen ere %6,5 (+3.200 pertsona). Horren ondorioz, adin-talde horretako langabezia-tasa %11raino igo zen, %14,7ko batez bestekoaren azpitik artean. Gazteenen taldean, berriz, behera egin zuen, baina batez bestekoaren gainetik zegoen: %16,5 25-44 urte arteko pertsonentzat eta %34,9 gazteenentzat.

Halaber, 2015eko bukaeran, BJAk zenbatetsitakoen oso antzeko zifrak bildu zituen LANBIDEk langabeziaren inguruan, estatistika-eragiketa horretan berriki sartu diren metodologia aldaketaren ondoren. 2015eko abenduan, 150.017 langabetu zeuden erregistraturik LANBIDEn (%9,5 gutxiago aurreko urtearen aldean, eta Estatuan batez besteko -%8ko jaitsiera izanik), EUSTATEn Biztanleriaren Inkestak urteko azken hiruhilekoan Jarduerarekin Erlazionatuta zenbatetsitako 151.000 langabetuen aldean, hots, 15.754 lagun gutxiago.

Krisia hasi zenetik erregistraturiko langabeziaren urte arteko saldoa negatiboa deneko hirugarren urtea da, eta gainera, 2014an ez bezala, 2015ean bi sexuetan egin zuen behera langabeziak. Bereziki jaitsi zen langabezia gizonen artean, (-%12,5), baina emakumeen artean ere bai (-%6,7). Adinen aldetik ere antzeko zerbait gertatu zen, zeren eta 2014ko abenduaren eta 2015eko abenduaren artean LANBIDEN erregistraturiko langabeziak behera egin baitzuen adin guztietan (neurri handiagoan gazteenen artean: -%15,1 25 urtetik beherakoentzat eta -%13 25-44 urte bitartekoentzat, adin horretatik gorakoen -%4,7aren aldean. Aurreko urtean, berriz, behera egin zuen 44 urtetik beherakoen artean, baina gora egin zuen adin horretatik gorakoentzat.

Ikasketa mailaren arabera, behera egin zuen langabeziak 2014ko abenduarekin alderatuta maila guztietan eta sexu bietan, salbu eta ikasketarik gabeko edo amaitu gabeko oinarrizko ikasketak zituzten emakumeen artean (+%,27), baina, nolanahi ere, emakume langabeen %7,1 ziren. Hala ere, jaitsierarik handienak, batez bestekoaren gainetik, goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen artean gertatu zen, bereziki lehen zikloko unibertsitateko tituludunen artean (-%15,2); bigarren mailako ikasketen bilakaera, berriz, batez bestekoaren inguruan kokatzen ziren (-%9,5 LHko tituludunentzat eta -%10,9 hezkuntza orokorreko ikasketak zituztenentzat). Hala ere, langabetuen talderik handiena hezkuntza orokorreko titulua zuten pertsonen artean kokatzen zen (erregistraturiko guztien %49,5) eta, oinarrizko ikasketak dituztenak gehituz gero (%20,6), langabetuen % 70,1 ziren (gizonezkoen %74,3 eta emakumezkoen %66,5).

Langabezian emandako denbora kontuan hartzen badugu, 2015ean behera egin zuen kategoria guztietako langabetuen kopuruak, neurri desberdinean bada ere, halako moldez non langabezian denbora gehien daramatenen taldea baita gutxien murriztu dena, gehienbat emakumeen artean. Erregistraturiko guztizko langabezia %9,5 murriztuta, langabezian hilabete baino denbora laburragoa daramaten pertsonen guztizkoak %13,5 egin zuen behera, %12,7 lanik gabe 1-6 hilabete daramatzatenak, %11,9 6 hilabete eta urtebete arteko denbora daramatenenak eta, batez bestekoaren gainetik, langabezian urtebetetik gora egin dutenenak. Gauzak horrela, iraupen luzeko langabezia-tasa (urtebetetik gorako langabezia) %53,3koa zen 2015eko abenduan, 2014ko abenduan baino %1,7 gehiago. Ratio hori %48,4 da gizonen artean (+1,1 puntu) eta %57,6koa emakumeen artean (+1,9 puntu).

Lan-merkatuaren egoera horretan, berebiziko garrantzia duten enplegu politikek politika aktiboak biltzen dituzte, langabetuek enplegua lor dezaten eta lana dutenek lanari eutsi diezaioten; eta politika pasiboak, langabetuen babes ekonomikorako.

Lehenbizikoei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak, 2014-2016ko Enplegu Plana onetsi zuen, pertsona ahulenen enplegua eta laneratzea errazteko funtseko helburuarekin, eta bereziki gazteenak. Horretarako, ekintzailetza eta ETEentzako laguntza indartuko dira. Halaber, enpleguan eragin zuzena duten obretako eta proiektuetako inbertsio pribaturako pizgarriak eman nahi ditu, eta aldi berean, erakundeen arteko lankidetza eta sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetza sustatzen da enpleguaren suntsiketa geldiarazteko nolabait.

Orain arteko jardueretatik badakigu zein den Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eginiko 2014ko Ekintza Planaren Balantzea. Lehenik eta behin, ekitaldirako aurrekontuan bildutako zenbatekoei dagokienez, urtean programa operatiboetarako aurreikusten ziren 770,63 milioi euroetatik, azkenean, 566,53 milioi egikaritu ziren, hots, aurreikusitako guztiaren %73,5. Gainera, betearazitako 566,53 milioi euro horietatik 214,27 milioi (%37,8) Eusko Jaurlaritzari dagozkio, eta gainerako 352,26 milioiak (%62,2) sektore pribatuak mugiarazi ditu.

Eusko Jaurlaritzaren ekarpena aintzat hartuta, desberdina izan da egikaritze-maila, ardatzen eta programen arabera. Balantzean nabarmentzen denez, ETEekin eta tokiko garapenarekin, ekintzailetzarekin eta enplegu inklusiboarekin loturiko programa operatiboek (1, 2 eta 5. programak) %90etik gorako aurrekontu-egikaritzea izan zuten. Halaber, enplegurako prestakuntzari buruzko 4. programak aurrekontuaren %88ko egikaritze-maila du, gehienbat orientazioko eta landunen prestakuntzarako ekintzak neurri txikiagoan betearazi izanaren ondorioz. Bestalde, 6. Programak, Renove Errehabilitazioa izenekoak, %81eko betearazpena zuen aurrekontuaren aldetik, ikastetxe publikoetako birgaitzeko aurrekontuaren egikaritze-maila txikiagoak eraginda. Azkenik, gazteen enplegua sustatzeari buruzko 3. programaren aurrekontuaren betearazpena izan zen helburuetatik gehien desbideratu zena, %48,9koa izan baitzen.

Ekimen horien enpleguan izan duten inpaktuari buruz Eusko Jaurlaritzak aurkezturiko azterketaren arabera ikusten denez, bete egin dira inpaktu globalak sortutako enpleguan (aurreikusitakoaren %110,9, hots, 11.843 lanpostu gehiago)

eta mantendutako enpleguan (%112,9, hots, 50.673 lanpostua); lanpostu gehiago sortzeko ekimenean, berriz, %71,2ko igoera besterik ez da izan (120.000 aurreikusietatik 84.964 lanposturi eraginda).

Bestalde, LANBIDEK funtsezko eginkizuna du eratxikia EAEko enplegurako politika aktiboak garatzeko eta Enplegu Plana abiarazteko, zeren eta haren funtzioak lan jarduera (enplegua sustatzeko programekin, bitartekaritzarekin, orientazioarekin, etab.) eta enplegurako prestakuntza baitira, landunenak nahiz langabetuenak, baita Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta beste prestazio osagarri batzuk kudeatzea ere.

Aurrekontuko likidazioak oinarri hartuta, jakin badakigu 2014an 776,76 milioi euroko gastua izan zuela, 2013an baino %4,8 gehiago, eta horietatik 481,84 milioi, gastu guztien %62, Gizarteratze Programarako erabili ziren (2013an baino %8,8 gehiago), 181,25 milioi euro (guztizkoaren %23,3) Enplegu Programarako (2013an baino %1,4 gutxiago) eta 98,98 milioi (gastuaren %12,7) Prestakuntza Programarako (-%13,8 2013aren aldean. Horrenbestez, eta enplegurako politika aktiboetan eginiko gastua prestakuntzako eta enpleguko programak batuta kontsideratzea sinplifikazioa bada ere, gizarteratze programekin lotura zuzena duenez gero, 280,24 milioi euroko gastua zenbatetsi daiteke LANBIDEk 2014an betearazitako enplegu aktiboetako gastua, 2013an baino %6,1 gutxiago.

Ogasun eta Herri Administrazioetako Ministerioaren zifrak erkatuz, prametarako funts bolumenik handiena erabili zuen autonomia erkidegoa izan zen EAE 2013an, Estatuko guztizkoaren %11,5, eta data horretan Estatuan erregistraturiko langabeziaren %3,6 metatzen zuen (urteko batez besteko datua). Informazio horren arabera, 2013an, Euskadik 321,71 milioi euro erabili zituen prestakuntza, orientazio eta laneratze prametarako, 2012an baino %39 gutxiago. Zifra hori nahikoa hurbil dago (ez da berdina) LANBIDEk prestakuntza eta enpleguko prametan urte horretarako zituen kontuen 298,55 milioi euroko gastutik, 2012an baino %40,7 gutxiago hain zuzen.

2015ean, nabarmen jaitsi zen langileen etengabeko prestakuntzako jarduera. Hobetuz 2014an %11,2 murriztu zuen trebakuntzarako diru-laguntzen kopurua (-%10,7 trebaturiko langileen kopuruan), eta ez du eskaintza-deialdirik atera (ez baitu LANBIDEK onartu). Enpresaren arloko 397 espediente baizik ez ditu kudeatu. Era berean, Hirualdeko Fundazioaren jarduera ere pixka bat jaitsi da.

Enpleguko politika pasiboei dagokienez, langabeziaren ziozko prestazioetarako guztizko gastua EAE, 2015ean eta behin-behineko datuen arabera, 794,78 milioi euro zen, 2014an baino %24 gutxiago. Zenbateko hori EAEko BPGaren %1,17 zen (%1,56 aurreko urtean), hots, Estatu mailako langabeziaren ziozko guztizko gastuaren %3,81 da, non 20.836 milioi euroko zenbatekoa gainditzen den (-%12,6 2014ren aldean).

2015. urtearen bukaeran, langabeziagatiko prestazioen 58.405 hartzaile zeuden EAEn, 2014an baino %17,7 gutxiago (aurreko urtearen aldean %15,8ko beherakada izan zen). Horietatik %56,2 kotizaziopeko prestazioen onuradunak ziren, %38,1 subsidioenak, %5,6k Laneratzeko Errenta Aktiboa jasotzen zuen eta gainerako %0,1ek, 76 lagunek, Enplegurako Aktibazio Programaren prestazioa jasotzen zuten[1]. Estatuan, hile berean, 2,13 milioi onuradun erregistratu ziren (-%11,7 2014ko abenduaren aldean), eta kotizaziopeko prestazioen hartzaileen ratioa %38,4koa zen, %49,5ekoa subisdioetarako eta %11 laneratzeko errenta aktiborako. Gainera, %1,1ek Enplegurako Aktibazio Programaren prestazioa jaso zuen. Erregistratutako langabezia-tasak aintzakotzat harturik, esan liteke 2015eko abenduan Euskal Autonomia Erkidegoan 100 langabetuetatik 61ek ez zuela inola prestaziorik jasotzen (2014. urtean, 57k), eta gainerako 39etatik 22k zerga-prestazio bat jasotzen zuen, 15ek laguntza eta 2k Laneratzeko Errenta Aktiboa.

Zifra horiek izanik, 2015eko abenduko datuen arabera, Estatuko batezbestekoa % 55,2 izan da (2014ko abenduan baino 2,4 puntu portzentual gutxiago). Horrekin alderatuta, EAEko datua txikiagoa da (hil horretan erregistratu diren eta aurretik lan egin duten langabeen % 43,4 Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak erabiltzen duen metodologiaren arabera). Gure Erkidegoan ere behera egin zuen estaldura mailak, %3,8 2014ko abenduaren eta 2015eko abenduaren artean. Horren ondorioz, EAEk zuen langabeziaren estaldura-tasarik txikiena autonomia erkidego

1 Ohiz kanpoko eta aldi baterako programa, luzaroko langabeei zuzenduta dagoena eta Enplegu Zerbitzu Publikoek kudeatutako enplegu politika aktiboak eta lan bitartekotza barne hartzen dituena, lan-merkatura itzultzeko aukerak gehitzeko asmoz. Horrez gain, SEPEk kudeatutako laguntza ekonomikoa eskaintzen du, enplegurako aktibatzeko politika horietan parte hartzeari lotuta dagoena. 16/2014 Errege Lege Dekretua, abenduaren 19koa, Enplegurako Aktibatzeko Programa arautzen duena.

guztietatik, Ceuta eta Melilla alde batera utzita eta, beraz, erregistraturiko langabezia kopurua jaistearekin batera, langabezia daudenentzat, handitu egiten da langabeziaren babeserako sistemaren babesik eza.

Bestalde, OSALANek (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea) agerian utzi duenez, 2015ean 36,15eko istripu [2] (lanaldian baja eragin duten istripu berriak) izan ziren gure Erkidegoan milako (36,01 milako 2014an eta, beraz, berdin eusten zaio ratioari, +0,14 punturekin). Sektore bakoitzari erreparatuta, eraikuntzan izan zen intzidentziarik handiena (78,08 milako), 1,87 puntu hazi baitzen 2014aren aldean. Ondoren lehen sektorea zegoen, 73,49 milako (+1,36 2014aren aldean) eta industria, 60,41 milako, 1,73 puntu hazita 2014aren aldean. Azkenik, zerbitzuen intzidentzia batez bestekoaren azpitik zegoen, 26,31 milako (+0,46 puntu).

Autonomia erkidegoei dagokienez, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioak kalkulatzen duen lanaldiko istripuen intzidentziaren indizeak erakusten duenez, U. Balearrak ziren rankingeko buruan istripuetan, eta ondoren Gaztela-Mantxa zegoen. EAEren indizea 33,25ekoa zen milako, eta %2,5 egin zuen gora bere indizea. Hala, Estatuko batez bestekoaren gainetik zegoen kopuru absolutuetan; industriaren sektoreak duen pisu handiak eragin zezakeen intzidentzia hori. Portzentajetan, estatuko aldakuntza urte horretan EAEren berdina zen, %2,5ekoa.

LHKren 2015eko behin-behineko datuen arabera, bestalde, langileen negoziazio kolektiboaren %80,8ko estaldura-mailarekin hasi zen urtea, eta %82arekin bukatu zen. Beraz, %1,2ko igoera izan zen. Negoziazio jardunari dagokionez, indarreko hitzarmenen %12 baizik ez zen sinatu (gainerakoak aurreko urteetan sinatu ziren), negoziaziorako marjina zabala izanik ere, zeren eta urtea hastean, %58 luzatutako hitzarmenak baitziren eta indarra galdu zutenak, berriz, %19,2.

Bukatzeko, HKLren lan-gatazkari buruzko datuek erakusten dutenez, 2015ean guztira 181 greba izan ziren EAEn, guztira 10.604 partaide. Orotara lan egin gabeko 18.127 egun eragin dituzte, hots, urte arteko %49,6ko, %19,9ko eta %35,2ko jaitsierak izan ziren hurrenez hurren. Datu horiek izanik, 59 langilekoa izan zen grebako partaideen kopurua (-%19,1 2014aren aldean), grebagatik lan egin gabeko 101 egun (-%59,2) eta lan egin gabeko ordu kopurua 14 langile bakoitzeko 14 (-%49,6 2014aren aldean). Hortaz, nabarmen jaitsi zen lan-gatazken kopurua azken urtean, LHKren zifra horiek direla-eta, ohartarazi beharra dago ez direla sartzen Estatuan aurkeztu ziren eta ondorioak EAEn azaroan eta abenduan izan zituzten grebei dagozkienak.

7.2. GOGOETAK

Enplegua sortzen hamabost urte eman ondoren, 2009-2013 aldian ia-ia 100.000 lanpostu galdu ziren, hau da, guztizko lanpostu-kopuruaren %10. 2014an, joera-aldaketa gertatu zen, eta 2015ean finkatu egin zen lan-merkatuaren susperraldia Euskadin: Gora egin zuen BJAk zenbatetsitako okupazioak, baita Gizarte Segurantzako afiliazioa (Estatuko batez bestekoaren azpitik) eta kontratazioak (Estatuko batez bestekoaren gainetik) ere. Hala, aurreko urtean hasitako joera positiboa finkatu zen. Gainera, sexu bietan eta adin guztietan eta ikasketa maila guztietan egin zuen gora enpleguak, baina esan beharra dago enpleguak joera hobea izan zuela goi-mailako irakaskuntzan prestaturiko pertsonekin. Era berean, hiru urtez jarraian murriztu zen erregistraturiko langabezia eta, aurreko urtean ez bezala, bi sexuetan jaitsi zen, baina gizonen artean neurri handiagoan.

Hortaz, hazkunde ekonomikoak lan-merkatuan isla duela berresten da, baina sortutako enpleguaren ezaugarriak nabarmendu beharra dago, oso lotuta baitago oraindik egungo ziurgabetasunik ezarekin. Hala, lanaldi partzialeko nahiz aldi baterako kontratazioak betetzen duen eginkizuna garrantzitsua bada ere, indarra galdu zuen 2014aren aldean (gehiago hazi ziren lanaldi osoko kontratuak lanaldi partzialekoek baino, eta kontratu mugagabeek ere aldi baterakoek baino gehiago egin zuten gora).

2 Hona hemen istripu kopurua: 100.000 langileko istripu kopuruaren eta Gizarte Segurantzan lan-istripuen arriskua berariaz estalita duten afiliatutakoen kopuruaren arteko zatidura. 2014ko urtarriletik hasita, ez dira halakotzat zenbatzen lanean ari ez diren inoren konturako nekazari afiliatuak eta 13/2010 LEDren eraginpeko funtzionario afiliatuak.

Alabaina, testuinguru horretan, arreta berezia behar duen elementua dugu: aldi baterako kontratuen batez besteko iraupena; izan ere, beheranzko joeran jarraitzen du (batez besteko 52 egunetik 48 egunera), eta txandaketa hori kaltegarria da norberaren proiektuak garatu ahal izateko. Aldi baterako kontratu gehienen iraupen labur hori (horietatik %39,7, gainera, lanaldi partzialekoak dira) ezin ahantz daiteke kontratazioetan izandako hazkundeak aztertzerakoan eta enpleguaren hazkundearen gaineko ondorioak ateratzerakoan.

Hortaz, argi-ilunak ikusten dira lan-merkatuak 2015ean izan zuen joeraren inguruan, non ezin uka daitekeen enpleguak jaso duen bultzadarekin batera ez dela etorri enpleguaren beharrezko kalitatea. Kalitate txarra ez da lagungarria langileen igurikapenen hobekuntza argia izan dadin eta, zalantzarik gabe, etorkizuneko egoera ekonomiko eta sozial hobea zaildu dezake.

Lanpostu gehien sortzen dituzten sektoreei dagokienez, ahalegin handiak egiten jarraitu beharra dago hazkundearen bidea finkatzeko osasunean, hezkuntzan eta aisialdian, etorkizun handiko arloak baitira.

Era berean, erregistraturiko langabeziaren bilakaera nabarmendu behar da; izan ere, behera egin du, baina neurri desberdinean, sexu bietan eta adin-talde guztietan. Hala ere, gorantz jarraitzen du iraupen luzeko eta oso luzeko langabetuen proportzioak: Langabetuen erdiak baino gehiagok (batez ere emakumeak) urtebetetik gora darama egoera horretan, eta, beraz, langabeziagatiko prestazioen estaldurak beherako bidean jarraitu zuen 2015ean, langabeziagatiko prestazioen aldiak agortu egin baitziren. Gauzak horrela, oraindik zaila da eskubide hori berriz sortzeko adina lan egitea, egungo enpleguaren behin-behinekotasun eta eskari maila handiak direla eta. Ildo horretan, EGAB kezkatuta dago talde horrek, lan-merkatuan sartzeko zenbat eta denbora gehiago behar izan, lan-merkatu horretatik baztertua izateko probabilitate gehiago izango ote duen.

Enplegurako politika aktiboei dagokienez -funtsezkoak baitira lan-merkatuan sartzeko eta gizarte ongizatea lortzeko, deigarria gertatzen da, lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu Planeko ekintzek enplegua sortzean nabarmen gainditzen dituztela testuinguru honetan ezarritako aurreikuspenak: 1. Diru gutxiago ezarria aurrekontuetan, 2. Hobetu beharreko egikaritze-mailak (bereziki zenbait programatan), 3. Oso baliabide pribatu gutxi mugiaraztea eta 4. Zerbitzu publikoen bitartekotza maila oraindik oso txikia izatea. Horrenbestez, ezinbestekoa eta premiazkoa da ebaluazioa egitea, itxurazko kontraesan horiek ulertu ahal izateko eta helburuak sortzearen, ezartzearen eta finkatzearen inguruko balizko arazoak ikusarazteko.

Bestalde, behera egin du LANBIDEk langabetu bakoitzeko dituen prestakuntza programen gastua; hori ere kezkagarria da eta, beraz, zuzendu beharrekoa. Enplegurako Euskal Zerbitzuak aurrera egin jarraitu behar du bere helburuak lortzeko bidean, hots, langabetuek, eta bereziki laneratzeko zailtasun bereziak dituzten taldeek, prestakuntzako eta orientazioko ekintzetan partea hartzea, halako moldez non lan-merkatuan sartzeko beharrezko jakintza eta trebetasunak eskuratuko baitituzte. Halaber, arreta jarri behar da helburuak eta programak sortzeko moduan, lanpostuen kalitatea hobetu behar horretan, batez ere gazteei begira.

Nolanahi ere, halako moldez eratu beharko lirateke politika aktiboak non lan-merkatuaren hobekuntzarako benetan lagungarriak izango baitira, batik bat lan-merkatuaren egoera ona ez denean. Politika horien arrakasta edo porrota ez litzateke ziklo ekonomikoaren menpe egon behar. Ildo horretan, argi dirudi hobetu beharreko eremu berezia dagoela politika horien jardunean: pertsonen enplegua hobetzearekin zerikusia duen oro, aldatuz doan ingurunearen beharkizun berrietara egokitua. Izan ere, ingurune hori sakon aldatzen ari da “enpleguaren erlazio estandarra” eta lan-merkatuaren funtzionamendua bera.

Bestalde, 2015eko negoziazio kolektiboaren datuek erakusten dutenez, negoziazio hori ez aurrera ez atzera dago, eta mugimendurik ez handi horren eraginez, murriztuz doa orain ere EAEn sinaturiko hitzarmen sektorialen estaldura. Beraz, berretsi egiten da eremu ekonomikoko negoziazio kolektibo sektorialean eta, neurri txikiagoan, enpresaren eremuan protagonistak diren eragileen erreakziorik eza, Estatu mailako negoziazioak aurrerabidea egin duen bitartean.

Horrez gain, negoziazio kolektiboaren egoera dela-eta, orain arte ezagutzen ez ziren ondorioak izaten ari dira EAEn (Estatu mailako batez bestekoaren azpitik dauden soldata igoerak edo lan-kostu txikiagoak), eta horri gehitu behar zaio ziurgabetasunez beteriko testuingurua. Baina hori ez dator bat lan-gatazkaren datuekin, zeren eta lan-gatazka murriztuz

baitoa, eta inoiz daturik txikienak bildu ditu neurketako parametro guztietan. Erantzun zuhurra behar da egoera zailaren aurrean eta, batez ere, zalantzaz beteriko egoeraren aurrean.

EAEko lansarien edo soldaten mailak oraindik Estatuko bate bestekoaren gainetik daude, produktibitate maila handiagoek eutsita; hala ez balitz, arriskuan jarriko litzateke gure lan-merkatuaren bideragarritasuna epe luzera. Halaber, jakin beharra dago ea gure lan-merkatuak soldaten bidez aintzatesten ditu prestakuntza eta lanbide mailak eta ea nahikoa bizkorra den ordezpen-prozesu eraginkorrak egiteko beharrezko aldaketa teknologikoetan, edo alderantziz, eskuratze-efektua gertatzen den soldaten errentetan eta, hala, merkatuaren funtzionamendu eraginkorra galarazten den.

Azkenik, istripuen kopuruaren igoera oso txikia izanik ere, EGABk ohartarazi nahi du laneko arriskuen prebentzioari zorrotz eutsi behar zaiola, jarduera handitzearen ondorioz istripu gehiago izan ez dadin.

III. KAPITULUA

Bizi-kalitatea EAEn



1. DEMOGRAFIA

Kapitulu honek, lehenik eta behin, biztanleriaren berezko mugimenduari (jaiotzak eta heriotzak), migrazio-mugimenduei eta ezkontzei (ezkontzak eta desegiteak) buruzko oinarrizko adierazle demografikoen datu nagusiak ematen ditu, betiere Estatuan eta Europar Batasunean izandakoarekin erkatuta. Ondoren, Euskadiko migratzaileen azken zifrak emango dira (demografikoak, bizikidetza eta ongizatekoak eta inpaktu ekonomikokoak). Hona hemen xedea: euskal familiek lana, bizitza pertsonala eta familia uztartzeko dituzten beharren egoera eta familiok administrazio publikotik jasotzen duten erantzuna zein diren zehaztea.

Nazio Batuen erakundeak eskura dauzkan azken datuek diotenez, munduan 7.300 milioi biztanle bizi dira (2015ean). Bestalde, EUROSTATen zenbatespenen arabera, Europar Batasunean 508,2 milioi biztanle daude, 2015eko urtarrileko datuen arabera, hain zuzen 2014ko urtarrilean baino 1,3 milioi gehiago. Milako 2,1eko hazkunde horri esker -milako 3,2koa izan zen aurreko urtean-, beste urte batez eutsi ahal izan zaio 1960tik gertatu izan den etengabeko hazkunderako joerari, egungo Batasunaren populazioa 400 milioi biztanlekoa zenetik. Bilakaera positibo hori berriro ere immigrazioaren portaeraren ondorioa izan da; izan ere, aldaketa osoaren % 14 baino ez ezin zaio hazkunde naturalari egotzi (jaiotza eta heriotzen arteko alde positiboa).

III.1.1. KOADROA. EAE-KO EGUNGO BIZTANLERIAREN BILAKERA. 2010-2015

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	14-15 ald.
ARABA	317.352	319.227	322.557	321.417	321.932	323.648	+1.716
BIZKAIA	1.153.724	1.155.772	1.158.439	1.156.447	1.151.905	1.148.775	-3.130
GIPUZKOA	707.263	709.607	712.097	713.818	715.148	716.834	+1.686
EAE	**2.178.339**	**2.184.606**	**2.193.093**	**2.191.682**	**2.188.985**	**2.189.257**	**+272**

Iturria: EIN. Biztanleen Udal Errolda.

EAEn, Biztanleen Udal Erroldak [1] emandako 2015eko urtarrileko azken datuen arabera, EAEko biztanleriak pixka bat gora egin du bi urtez behera egin ondoren, eta 2.189.257 biztanle ditu (+% 0,1 2014aren aldean), hots, aurreko urtean baino 272 gehiago.Lurralde Historikoei dagozkien datuek erakusten dutenez, biztanleria hazi egin da Gipuzkoan (1.686 biztanle gehiago, +%0,24) eta Araban (+%0,53, 1.716 biztanle gehiago); Bizkaian, berriz, jaitsi egin da (-%0,27, 3.130 biztanle gutxiago.

Kopuru horiekin batera, gainera, EAEn erroldaturiko atzerritarren % 6,3ko pisua dugu (eta % 8,4 atzerrian jaiotakoak kontuan hartuz gero, hots, nazionalizaturikoak barne); 2014ko urtarrilaren 1ean, berriz, % 6,5 zen. Epealdi berean, proportzio handiagoan egin du behera atzerritarren populazioak Estatuan (% 10,78tik % 10,1era), baina EAEko datua orain ere oso urruti dago Espainiako batez bestekotik -errolda azkenengoz eguneratu zenean, 4,6 milioi atzerritar ziren, eta 5,9 milioi herrialdetik kanpora jaiotakoak kontuan hartzen baditugu- eta, batez ere, beste erkidegoetako batzuen aldean hala nola Balearren, Valentziako Erkidegoaren edo Madrilen aldean, non atzerritarren portzentajea nabarmena den.

1 Biztanleen Udal Erroldako zifrak ez dira hertsiki konparagarriak Populazioaren eta Etxebizitzaren Zentsukoarekin, metodologia ezberdina darabiltelako. Udal Errolda erregistro administratiboa da, eta Espainian dauden 8.000 udal bakoitzari dagokio hura eratzea, mantentzea eta kudeatzea. Haren datuak bizilekua eta helbidea frogatzeko balio dute udal mugartearen barruan, eta ziurtagiriak dokumentu publikoaak eta sinesgarriak dira administrazio-ondorio guztietarako. Alabaina, Populazioaren Zentsua estatistika da, eta Estatistikako Nazio Erakundeari dagokio hura eratzea. Bildutako datuek estatistika-sekretupean daude, Erroldakoak ez bezala: Erroldan ezinbestekoa da pertsonak identifikatzea.

1.1. OINARRIZKO ADIERAZLE DEMOGRAFIKOEN BILAKAERA

1.1.1. Populazioaren berezko mugimendua

Euskal Autonomia Erkidegoan 2014ko behin-behineko datuek hazkunde begetatibo (jaiotza eta heriotzen arteko alde gisa zenbatzen den biztanle-aldaketa, immigrazio-mugimenduak kontuan hartu barik) negatiboa erakusten dute, saldo positiboak izandako 9 urteren ondoren: urte honetan 19.378 jaiotza gertatu dira, aurreko urtean baino % 1,4 gehiago, eta guztira 20.157 heriotza, 2013an baino % 2,4 gutxiago. Horren ondorioz, hazkunde begetatiboa -779 izan da, hots, milako -0,4koa. 2014ko saldoa negatiboa da, beraz, zeren eta jaiotzek gora egin arren heriotzen igoera handiagoa izan baita.

III.1.2. KOADROA. EAE-KO POPULAZIOAREN BEREZKO MUGIMENDUA

	Bizirik jaioak	Tasa	Heriotzak	Tasa	Hazkunde begetat.	Tasa
2007	20.596	9,6	19.252	9,0	1.344	0,6
2008	21.315	9,9	19.437	9,0	1.878	0,9
2009	20.928	9,7	19.624	9,1	1.304	0,6
2010	21.159	9,7	19.357	8,9	1.802	0,8
2011*	21.180	9,7	19.832	9,1	1.348	0,6
2012*	20.533	9,4	20.281	9,3	252	0,1
2013*	19.118	8,8	19.692	9,0	-574	-0,2
2014*	19.378	8,9	20.157	9,3	-779	-0,4

(*) Behin-behineko datuak. Tasak mila biztanleko.
Iturria: EUSTAT. Jaiotzen eta Heriotzen gaineko Estatistikak, eta geuk eginikoa.

Ohikoa denez, joera desberdina da lurraldeak aintzakotzat hartuz gero: Bizkaiak, 2013. urtean 996 biztanle galdu zituenak, 2014an berriro ere galdu ditu 1.415 biztanle, behin-behineko datuen arabera. Bestalde, Arabak urte horretan joera positiboari eutsi dio, eta biztanleria 800 pertsonan hazi da (+520 2013an); aitzitik, Gipuzkoak 164 biztanleko saldo negatiboa dauka (-98 2013an).

III.1.3. KOADROA. JAIOTZAK ETA HERIOTZAK MILA BIZTANLEKO EB-N. 1975 ETA 2014 ARTEKO ERKAKETA.

	JAIOTZAK		HERIOTZAK	
	1975	2014	1975	2014
28KO EB	14,7	10,1	10,7	9,7
ALEMANIA	9,9	8,6	12,6	10,8
AUSTRIA	12,4	9,6	12,7	9,2
BELGIKA	12,2	11,1	12,2	9,3
BULGARIA	16,6	9,4	10,3	15,1
ZIPRE	16,3	10,9	9,8	6,2
DANIMARKA	14,2	10,1	10,1	9,1
ESLOVAKIA	20,6	10,2	9,5	9,5
ESLOVENIA	16,6	10,3	10,1	9,2
ESPAINIA	18,8	9,2	8,4	8,5
ESTONIA	14,9	10,3	11,6	11,8
FINLANDIA	13,9	10,5	9,3	9,6
FRANTZIA	14,1	12,4	10,6	8,4
KROAZIA	:	9,3	:	12,0
GREZIA	15,7	8,5	8,9	10,5
HERBEHEREAK	13,0	10,4	8,3	8,3
HUNGARIA	18,4	9,5	12,4	12,8
IRLANDA	21,1	14,4	10,4	6,4
ITALIA	14,9	8,3	10,0	9,8
LETONIA	14,2	10,9	12,2	14,3
LITUANIA	15,7	10,4	9,5	13,7
LUXENBURGO	11,1	10,9	12,2	6,9
MALTA	18,8	9,8	9,5	7,7
POLONIA	19,0	9,9	8,7	9,9
PORTUGAL	19,8	7,9	10,8	10,1
ERRESUMA BATUA	12,4	12,0	11,8	8,8
TXEKIAR ERRP.	19,1	10,4	12,4	10,0
ERRUMANIA	19,6	9,2	9,3	12,7
SUEDIA	12,6	11,9	10,8	9,2
EAE	**19,1**	**8,9**	**7,1**	**9,3**

Iturria: EUROSTAT eta EUSTAT.

Jaiotzetan igoerak ageri dira hiru lurraldeetan: 2014an, Araban 3.277 haur jaio ziren (+%5,7, EAEko +%1,4ko batez besteko igoeraren aldean). Bizkaian, berriz, 9.740 jaiotza izan ziren, aurreko urtean baino %0,1 gehiago, eta Gipuzkoan EAEko batez bestekoa baino pixka bat txikiagoa da igoera: 6.361 jaiotza izan dira, hots, 2013. urtean baino %1,2 gehiago. Emaitza horien ondorioz, jaiotza-tasa 8,9 milakoa da EAEn (8,8koa 2013. urtean). 60ko hamarkadan kopuru hori milako 20tik gorakoa zen, eta Estatuko batez bestekotik gorago zegoen. Gaur egun, EAEk Estatuko eta EBko batez bestekoak (milako 9,2 Estatuan eta 10,1 EBn) baino tasa baxuagoei eusten die.

Lurraldez lurralde, Arabak milako 10,3ko jaiotza-tasa du –hiru lurraldeetatik handiena-, Bizkaiak 8,5ekoa –txikiena- eta Gipuzkoak milako 9,0koa.

Horrez gain, jaiotza-tasak oso desberdinak dira amaren herritartasuna kontuan hartzen bada. 2014. urtean bizirik jaio ziren 19,378 haurretatik 3.551k ama atzerritarra dute, alegia, jaiotakoen % 18,3k (%17,7 2013an), herritartasun atzerritarra duten biztanleen proportzioa nahikoa txikiagoa denean, dagoeneko ikusi den moduan. Jatorriko herrialderik ohikoenak Maroko (ama atzerritarrengandik jaiotakoen % 16,7), Errumania (% 9,8) eta Kolonbia (% 7) dira.

Beste urte batez, azpimarratu behar da ama ezkongabeengandik jaiotakoen portzentajea gero eta handiagoa dela. 2014. urtean ezkontzatik kanpo jaiotakoak 7.732 izan ziren, guztien % 39,9 (% 37,9 aurreko urtean) eta % 6,6ko igoera. Bizkaia izan zen EAEn ehuneko handiena izan zuen lurraldea (% 41,2) eta Araban eta Gipuzkoan balio erlatibo txikiagoak izan ziren (% 39,7 eta % 38 hurrenez hurren). Egungo ehunekoa 2004koarekin (% 22) alderatuz gero, ikusten da ama ezkongabeengandik jaiotako haurren ratioa ia bikoiztu egin dela.

Herrien arabera, ama ezkongabeengandik jaiotako umeen EBko ehunekoak Bulgariako eta Esloveniako (% 57tik gora) mailen eta Kroazia (% 15,4) edo Greziakoen (% 7,6) artean mugitzen dira. Batasuneko batez bestekoa % 39,3 da, eta bertatik kanpo, nabarmentzekoa da Islandiako ratio handia. Bertan, 2012an jaiotakoen %66,9 amak ezkongabeak izan ziren.

III.1.1. GRAFIKOA. IJAIOTZA-TASEN ETA AMA EZKONGABEENGANDIK JAIOTAKO HAURREN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA, LURRALDEEN ARABERA. EAE.



Iturria: EUSTATen datuekin eginikoa. ENAC.

Bestalde, EUROSTATen datuen arabera, 2014an guztira 5,11 milioi jaiotza izan ziren EBn (milako 10,1), aurreko urtean baino 33.000 gehiago, 5 urtez behera egin ondoren. Jaiotza-tasarik handienak Irlandan eta Erresuma Batuan izan dira (milako 14,4 eta 12,4, hurrenez hurren). Tasarik txikiena, aldiz, Portugalen izan da (milako 7,9) eta, bigarren postuan, Italian (milako 8,3). Espainian milako 9,2koa da.

Azken urteetan jaiotza-tasa jaisteari mesede egin dion faktoreetako bat, jakina den bezala, amatasuna pixkanaka atzeratu izana da. 2014an joera bera egon da, eta haurrak izan zituzten emakumeen % 80,5ek 30 urte edo gehiago zituzten. Talderik ugariena 30 eta 34 urte arteko emakumeei dagokie, jaiotza guztien % 38,3arekin.

III.1.2. GRAFIKOA. JAIOTZEN BILAKERA AMAREN ADINAREN ARABERA. EAE.



Iturria: EUSTAT. Heriotzei buruzko estatistikak.

Halaber, 35 urtetik gorako amek izandako haurren jaiotza kopuruak (% 42,3) handitzen jarraitzen du, eta 25 eta 29 urte arteko taldea (% 13,6) nabarmen gainditzen du. Ama nerabeak guztizkoaren %1,3 dira. Espainiar nazionalitateko amen batez besteko adina 33,9 urtekoa izan zen. Ama atzerritarrena, berriz, 30 urtekoa (33,2 emakume guztiak hartuta). Halaber, lehen haurra izan duten amen batez besteko adina, 2014an, 32,3 urte da.

Heriotzei dagokienez, 2014an EAEn 20.157 lagun zendu ziren, aurreko urtean baino % 2,4 gehiago; haietatik, % 50,5 gizonak eta % 49,5, aldiz, emakumeak. 2014an izandako heriotzen %31,6 tumoreen ondorioz gertatu ziren. Haien

atzean, zirkulazio sistemaren gaitzak datoz, hain zuzen ere % 26,7, eta hirugarren tokian, urrunago, arnas eritasunak, % 9,3 orotara. [2]

Europar Batasuneko kopuruak direla eta, 2003an mailarik handiena lortu zen, ia 5 milioi heriotzarekin, hots, milako 10,5eko tasa gordina, EAEk urte hartan izan zuen 9,2aren aldean. Jaisteko ageriko joeren barruan EBko heriotzen kopuruek urtero gorabehera handiak izaten dituzte, hortaz, urte batzuk itxaron beharko dira joera hori baieztatzeko. 2014ko datuen arabera, 4,95 milioi pertsona hil ziren, aurreko urtean baino 46.000 pertsona gutxiago (milako 9,7ko tasa da), eta, beraz, hazkunde begetatiboa edo berezkoa (jaiotzak ken heriotzak) positiboa izan zen Batasunean, 161.000 lagun ingurukoa.

III.3.1. GRAFIKOA. EAE-N HILDAKO PERTSONEN BATEZ BESTEKO ADINAREN BILAKAERA SEXUAREN ARABERA.



Fuente: EUSTAT. Estadística de Defunciones.

Halaber, EUSTATen Heriotzen gaineko Estatistikak hauxe agertu du: 2014. urtean hildakoen batez besteko adina 79,3 urte zen EAEn, 76,2 gizonezkoena eta 82,6 emakumezkoena, bizitza luzeagoa izaten baitute. Hala, azken hamarkadan gure autonomian bizi-esperantza gizonentzat 4 urte handitu da eta emakumeentzat, berriz, 2. Gainera, 2014an EAEn hildako pertsonen 326k 100 urte edo gehiago zituzten, eta horietatik %88,3 emakumezkoak ziren. 100 urte beteta hiltzen diren pertsonen ehunekoa, %1,6, bikoiztu egin da azken hamarkadan (% 0,8 zen 2004an).

1.1.2. Migrazio-mugimenduak

"Migrazio Mugimenduen 2014. urteko Estatistikak" zenbatu zuenez, urte horretan gure erkidegoak 3.602 biztanle irabazi zituen (2013an 1.956 biztanle gehiago zituen, 13 urtez jarraian migrazio-saldo positiboen ondoren). Lurraldeen arabera, Bizkaiak 82 lagun gehiago ditu, Arabak 2.195 eta Gipuzkoak 1.326.

III.1.4. KOADROA. MIGRAZIO-SALDOEN BILAKAERA EAE-N

	ATZERRIAREKIN	ESTATUA-REKIN	GUZTIZKO MIGRAZIO-SALDOA / KANPOKOA*			
			EAE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
2008	14.903	1.898	**16.801**	4.207	8.773	3.821
2009	9.802	3.452	**13.254**	3.670	7.394	2.190
2010	9.342	3.686	**13.028**	3.902	6.562	2.564
2011	8.689	6.297	**14.986**	3.704	8.333	2.949
2012	4.683	5.266	**9.949**	1.773	4.867	3.309
2013	-5.176	3.220	**-1.956**	82	-3.426	1.388
2014	-2.207	5.809	**3.602**	2.195	82	1.326

(*) Estatuarekiko eta atzerriko herrialdeekiko migrazio-saldoarekin batuketa.
Iturria: EUSTAT. "Migrazio-mugimenduen estatistika".

EAEren eta gainerako autonomia-erkidegoen artean izandako mugimenduei dagokienez, 2014. urtean 5.809 pertsonako saldo positiboa izan zen, hau da, immigrazioak gehiago izan ziren emigrazioak baino, eta EUSTATek estatistika hau prestatzen duenetik, saldoak hirugarren urtez gainditu du atzerriko herrialdeekin izaten dena; izan ere, atzerriko herrialdeekiko saldoa negatiboa da (-2.207), atzerrira pertsona gehiago doazelako beste herrialde batzuetatik datozenak baino.

2 Memoria honetako "Osasuna eta osasun sistema" deritzon III.5 kapituluan, zehazki aztertzen dira euskal biztanleriaren heriotzaren kausak.

Europar Batasun osoko joerei buruz EUROSTATek emandako datuek zera agertzen dute: 90eko hamarkadan nahiko jaitsiera handiko aldiaren ondoren, EBn nazioarteko migrazio-mugimenduen saldo positiboa 2003an bi milioi pertsona gehiagoren bidez hazi zen, finkatutako datuen arabera. Bestalde, 2014. urtean migrazio-saldoa hazi egin da 2013arekin alderatuz gero, 0,9 milioi lagunekoa hain zuzen ere (+1,6 milioi aurreko urtean); migrazio tasa gordina milako 1,8koa izan da 28-EBrako eta antzeko tasa eurogunerako. Saldo positiboaren % 63 Alemaniari dagokio, eta % 23 Erresuma Batuari. Bestalde, Batasuneko hamahiru herrik (Bulgaria, Estonia, Irlanda, Grezia, Espainia, Kroazia, Zipre, Letonia, Lituania, Polonia, Portugal, Eslovenia eta Errumania) migrazio-saldo negatiboak dauzkate.

III.1.4. GRAFIKOA. EAE-KO MIGRAZIO-SALDOEN BILAKAERA



Iturria: EUSTAT. Migrazio-mugimenduei buruzko estatistikak

Bestalde, 2014. urtean, 214.810 lagunek, aurreko urtean baino % 0,9 gutxiagok, bizileku aldaketaren bat egin zuten EAEn (EAEko biztanleen % 9,9k); aipaturiko mugikortasun horren % 45,2 udal beraren barruan izan zen (97.021 joan-etorri guztira). Erkidego barneko mugikortasunak (jatorria eta helmuga EAEko udalerrien artean) 50.409 mugimendu gehiago dakartza. Gainontzekoetatik, 35.491 mugimendu kanpoko immigrazioak lirateke (jatorria erkidegotik kanpo eta helmuga EAE) eta 12.746 kanpoko emigrazio jatorria EAE eta 31.889 kanpoko emigrazioak (jatorria EAE eta hortik kanpora dutela), haietatik 14.953 helmuga atzerrian dutela.

Kanpoko eta erkidegoaz kanpoko mugikortasun geografikoak 2014an EAEko mila biztanleko 31ri eragin zien (Araban milako 37,8ri, Bizkaian milako 28,6ri eta Gipuzkoan milako 31,9ri). Tasa horiek baxu samarrak dira gainerako autonomia erkidegoekin alderatuz gero, batez beste mila biztanleko 36 mugitzen baitira. Estatu Autonomia Erkidego guztiek, kasu honetan salbuespenik gabe, biztanle gehiago ematen diote EAEri handik jasotzen dutena baino (gehien ematen dutenak Gaztela eta Leon eta Madril dira); EAEko migratzaileentzat erakarpen-gune diren erkidegoak, berriz, hauexek dira ordena honen arabera: Madril, Gaztela eta Leon, Kantabria, Katalunia, Andaluzia eta Nafarroa. Sei erkidego horien artean EAE uzten duten pertsonen % 65 jasotzen dute.

Bestalde, atzerriko nazionalitateko pertsonen immigrazioak, 2014an, 18.602 pertsona bildu zituen, 2013an baino 363 gehiago. Horietatik 8.022 beste erkidego batzuetakoak dira, eta 10.580 atzerritik datoz zuzenean. Atzerritarren emigrazioak, berriz, 2014an 14.332 lagunenak izan ziren, 2013an baino 5.024 gutxiago.

Azkenik, Migrazio Mugimenduen Estatistikak agerian uzten dutenez, etorkinen eta migratzaileen batez besteko adina desberdina da (33,1 eta 36 urte hurrenez hurren), eta mugimenduak egiten dituzten biztanleen generoa kontuan hartuz gero, etorkinen % 52 gizonak dira (% 48 emakumeak). Emigrazioetan, berriz, sexuen arteko aldea handiagoa da: Gizonak % 54 dira eta % 46 emakumeak.

1.1.3. Ezkontzak

"*Ezkontzen Estatistikak*", Jaiotzenak eta Heriotzenak bezala, Biztanleriaren Mugimendu Naturala osatzen du.

EUSTATen datuek diotenez, 2014an EAEn 7.937 ezkontza izan ziren, 2013an baino %1,7 gehiago. Haien artetik 7.798 sexu diferenteko pertsonen artean izan ziren eta 139 sexu bereko pertsonen artean. 79 emakumeen artean izan ziren eta 60 gizonen artean. Hots, % 10,3ko igoera aurreko urtearen aldean.

III.1.5. GRAFIKOA. EZKONTZA ZIBILEN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA EAE-N



Iturria: EUSTAT. Migrazioei buruzko estatistikak.

Bestalde, azken urteetan ezkontza zibiletan izandako igoera handia nabarmendu behar da; izan ere, 1990ean % 23 izatetik 2014an % 75,6ra izatera igaro da. Lurraldez lurralde, Bizkaian izan zuten ezkontza zibilek pisurik handiena (% 78,9), ondoren Gipuzkoan (% 77,5) eta Araban (% 73,3). Guztira, EAEn 2014an 5.899 elkartze zibil egon dira, 1.877 ezkontza katolikoen eta beste erlijio batzuetako 22en aurrean.

Gainera, nabarmentzekoa da ezkontzeko adina atzeratzeko joerak dirauela. Izan ere, erreferentziazko urtean, ezkondu ziren gizonezko ezkongabeen batez besteko adina 35,7 urte zen, eta emakumezkoena, berriz, 33,6. Azken 25 urteetan, senarren batez besteko adinak gora egin du 7,2 urte, eta emazteenak 7,4. Eta, ezkontza aurretiko egoera zibila kontuan izanik, gizon ezkongabeak % 88,3 izan ziren, emakume ezkongabeen antzeko zifra (% 89).

EAEko ezkontzen tasa 3,4koa da 1.000 biztanleko 2014. urtean, Estatukoaren antzeko ratioa, baina Europar Batasunekoa baino txikiagoa; izan ere, milako 3,3koa zen 2013. urtean. Hona hemen ezkontza tasa handiena duten Europako herrialdeak, 2013rako behin-behineko datuekin: 2013, Lituania (6,9), Zipre (6,4) eta Malta (6,1). Ratiorik txikienekoak, berriz, hauexek: Bulgaria eta Eslovenia (3 ezkontza 1.000 biztanleko) eta Portugal (3,1ekoa 1.000 biztanleko).

Bestalde, EINen "Baliogabetzeen, banantzeen eta dibortzioen estatistika"[3] delakoak dibortzio eta banantzeen igoera erakusten du, bai gure erkidegoan bai estatuan. Zehazki, 2014an EAEn 3.881 dibortzio eta 195 banantze gertatu ziren. Baliogabetzeen urteko kopurua 5 ingurukoa zen batez beste informazioa dugunetik, eta 5 izan da 2014an.

III.1.5. KOADROA. EZKONTZAK EUROPAR BATASUNEAN. ADIERAZLEAK 1.000 BIZTANLEKO.

	EZKONTZAK		DIBORTZIOAK	
	2012	2013	2012	2013
27-EB	4,2*	:	2,0*	:
ALEMANIA	4,8	4,6	2,2	:
AUSTRIA	4,6	4,3	2,0	:
BELGIKA	3,8	:	2,3	:
BULGARIA	2,9	3,0	1,6	1,5
ZIPRE	6,7	6,4	2,4	:
DANIMARKA	5,1	4,9	2,8	3,4
ESLOVAKIA	4,8	4,7	2,0	2,0
ESLOVENIA	3,4	3,0	1,2	1,1
ESPAINIA	3,5	3,3	2,2	2,0
ESTONIA	4,5	4,3	2,4	2,5
FINLANDIA	5,3	4,6	2,4	2,5
FRANTZIA	3,7	:	2,0*	:
GREZIA	4,5	4,7	1,3	:
KROAZIA	4,8	4,5	1,3	1,4
HERBEHEREAK	4,2	3,8	2,1	2,0
HUNGARIA	3,6	3,7	2,2	2,0
IRLANDA	4,5	:	0,6	:
ITALIA	3,5	3,2	0,9	:
LETONIA	5,5	5,7	3,6	3,5
LITUANIA	6,9	6,9	3,5	3,4
LUXENBURGO	3,4	3,2	2,0	2,1
MALTA	6,7	6,1	1,1	0,8
POLONIA	5,4	4,7	1,7	1,7
PORTUGAL	3,3	3,1	2,4	2,2
ERRESUMA Bat.	4,5*	:	2,0	:
TXEK. ERREP.	4,3	4,1	2,5	2,7
ERRUMANIA	5,4	5,4	1,6	1,4
SUEDIA	5,3	5,4	2,5	2,8
EAE	**3,5**	**3,3**	**1,9**	**1,7**

Iturriak: EUROSTAT, EUSTAT eta EIN.
****2011ko datuak.***

3 "Ezkontzen, banantzeen eta dibortzioen estatistika" Lehen Instantziako, Instrukzioko eta Emakumeenganako Indarkeriako Epaitegiek, ezkontza-lotura desegiteko prozesuei buruz emandako informazioa oinarri hartuta egin da.

Guztira, erreferentziako urtean 4.081 ezkontza desegin ziren, 2013an baino % 8,6 gehiago, hots, 1,88 desegite mila biztanleko (Estatuan % 5,6ko igoera da). Estatuko batez bestekoa, berriz, 2,28 da milako. Desegite tasarik handiena izan duten autonomia erkidegoak Kanariar Uharteak (2,79 milako) eta Katalunia (2,65 milako) dira. Haustura tasarik txikienak, berriz, Gaztela eta Leonen eta Extremaduran daude (1,76 eta 1,83 desegite mila biztanleko, hurrenez hurren).

Nazioarteko konparazioa eginez, dibortzioen tasa gordina azken urteetan milako biaren ingurukoa da Europar Batasunean, baina maila ezberdinak daude: 0,8 milako Maltan (dibortzioa 2011ko maiatzean legeztatu zen) eta 0,6 milako Irlandan, 3,5 milako Letonian eta 3,4 milako Lituanian eta Danimarkan (EUROSTATen azken datuak, 2013. urtekoak).

III.1.6. GRAFIKOA. EZKONTZA DESEGITEAK EAE-N: BANANTZEEN ETA DIBORTZIOEN BILAKAERA



Iturria: EIN. Baliogabetzeen, banantzeen eta dibortzioen gaineko estatistikak.
(*) Desegiteen barruan, elizako baliogabetzeak sartzen dira.

2006. urtetik aldaketa antzematen da desegite horien osaeran Estatuan oro har, eta nabarmen gure Erkidegoan. Izan ere, dibortzioen kopurua handitu egin da eta banantzeena, berriz, jaitsi egin da, hain zuzen ere Kode Zibila eta Auziperatze Zibila banantzeen eta dibortzioen arloan aldatu dituen uztailaren 8ko 15/2005 Estatu mailako Legearen ondorioz. Arau horri esker, aurretik banandu barik lor daiteke dibortzioa. Autonomia erkidegoak erkatuta, ikusten da legea aldatu aurretik zein ondoren EAE toki neurritsuan dagoela dibortzioen rankingean, erregistro gutxien izandako bosgarren erkidegoa izan baitzen.

EAEn banantzen edo dibortziatzen diren pertsonen profilari dagokionez, EINen datuek erakusten dute gehienak 40 eta 49 urte bitartekoak direla gizonezkoetan eta 30 eta 39 urte artekoa emakumezkoetan, eta emakumeen batez besteko adina 42,8 urtekoa izan zen eta gizonena, berriz, 45,3 urtekoa. Gainera, desegindako ezkontzen batez besteko iraupena 15,8 urtekoa da, eta kasuen % 57,2an ezkontideek haurrak izan dituzte. Kasuen % 48,1ean, adingabeak dira.

Azkenik, 2014ko ezkontzen desegiteen % 72,1 elkarren adostasunak egin ziren, eta kasuen % 86,2an prozesua sei hileren barruan ebatzi zen.

1.2. IMMIGRAZIOA EAE-N

1.2.1. Testuingurua: Immigrazioa Europar Batasunean

Nazioarteko migrazioak nazioarteko agenda politikoen gai erabakigarrienetakoa izatera pasatu dira epe laburrean. Gizartearen eta ekonomia orokorraren gaur egungo garaiaren ezaugarrietako bat dira.

Europar Batasuneko biztanleria nabarmen hazi da azken urteetan (milako 2,1 2014. urtean, gehienbat immigrazioagatik; izan ere, horren ratio garbia, 2014an, hazi egin da azken urteetako batez bestekoan (milako 1,8), 2013. urtean ikaragarri igoera handiaren ostean (3,1). Berezko hazkundea (jaiotzak ken heriotzak), berriz, milako 0,3 da. Hortaz, migrazio mugimenduek Europar Batasuneko herrialdeetako biztanleen dinamikan oinarrizko zeregina dute.

III.1.7. GRAFIKOA. HAZKUNDE DEMOGRAFIKOAREN BILAKAERA EB-N, OSAGARRIEN ARABERA. RATIOAK 1.000 BIZTANLEKO



Iturria: EUROSTAT.

2014an (esku artean dugun azken zifra) 34,1 milioi atzerritar bizi ziren 28ko EBn, biztanleriaren % 6,7. Horietako gehienak, 19,9 milioi, erkidegokoak ez diren herrialdekoak ziren, gainontzeko 14,2 milioiak EBko beste herrialde batekoak ziren bitartean. Baina, gainera, herrialde atzerritarretan jaiotako pertsonen zifra aintzat hartzen badugu (herritartasun atzerritarrekoak eta egoitza-herrialdean nazionalizatutako atzerritarrak), zifra 50 milioi pertsonetara heltzen da, Europar Batasuneko biztanleria guztiaren % 10.

EUROSTATeko datuen arabera, EBn bizi diren atzerritarren % 76 baino gehiago Alemanian, Espainian, Erresuma Batuan, Frantzian eta Italian bizi dira. EBko populazioaren % 63 dute bost herrialde horiek.

Immigrazioaren tipologia asko aldatzen da herrien arabera. Familiarekin berriz elkartzea Austrian, Frantzian edo Suedian immigraziorako arrazoi nabaria da. Aldiz, Irlanda, Espainia, Portugal edo Erresuma Batua bezalako herrialdeetan laneko immigrazioaren ehuneko handia dute. Espainian erregularizazio handiak egin ziren, eta Frantzian, Alemanian eta Holandan, aldiz, erregularizazio mugatuak egin ziren etorkin talde zehatzentzat.

Hirugarren herrialdeen nazionalen talderik ugarienak, EBn, herrialde hauetakoak ziren 2014an: Ukraina (EBkoak ez diren bost herritartasun nagusietakoa da estatukideetatik 9tan), Turkia eta Errusia (toki berean estatukideen artean kasu bietan). Dena den, atzerrian jaiotako estatu kideetako -adibidez, Frantzia, Suedia, Holanda eta Erresuma Batua- herritar kopurua hirugarren herrialdeetako nazionalena baino handiagoa da, etorkin askok harrera-herrialdeko herritartasuna eskuratu baitute.

EAEn ere fenomeno hori gertatu da, eta kultura-aniztasunaren aldetik hazten ari da, biztanle-talde berriak geroz eta gehiago gehitzen ari baitira aspaldian. Hurbileko gizarteetako mailak oraindik gainditu ez badira ere, EAEko atzerritarren immigrazioa nabarmen hazi da azken urteetan. Horrek lurraldeetan erabat banatutako aniztasun-egoera eratu du. Berez, epe laburrean gertatutako immigrazio jendetsuak ekonomiarena eta gizartearen epe luzerako joerak aldatu ditu, biztanleen zahartzeko joera geldituz eta belaunaldien berriztatzea erraztuz, baita gizartearen jokaera berriak gehituz.

1.2.2. Bilakaera demografikoa

Udal-erroldaren datuei jarraiki, 2015ean Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duen atzerriko biztanleria hirugarren urtez jarraian murriztu da, betiere hazkunde ekonomikoaren azken etapari lagundu dion migrazio-fenomenoa hasi zenetik; hori guztia gaur egungo krisialdiaren eraginen ondorioz gertatu da.

2005etik 2012ra bitartean Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatutako atzerriko biztanleak bikoiztu ziren eta urteko igoerarik handiena 2008. urtean izan zen, urte horretan erroldatutako atzerriko biztanleria 19.000 pertsonan hazi baitzen (ikus lehen grafikoa).

III.1.8. GRAFIKOA. ATZERRITARREN URTEARTEKO HAZKUNDE ABSOLUTUA EAE-N. 1999-2015



Iturria: IKUSPEGI, EINen datuekin.

2015eko urtarrilaren 1ean, udal-erroldak zenbatu zuen 17.397 atzerritarrek egoitza zutela Euskadin, aurreko urtean baino % 2,8 gutxiago (2015erako behin-behineko datuak eta 2014rako behin betiko datuak erabiliz). Etorkinen jaitsiera hori islatzen da biztanleria osoaren barnean duen kopuruan: 2015. urtean atzerritarrak % 6,3 izan dira (aurreko urtean baino 2 hamarren gutxiago) eta estatuan % 10,1 (bigarren grafikoa). Hortaz, Estatuan handiagoa izan da jaitsiera; izan ere, 6 hamarren gutxiago ditu.

Atzerritarren kopururik handiena Bizkaian bizi da (65.041), 2014. urtean baino % 4,6 gutxiago, eta horren ondotik Gipuzkoa azaltzen da atzerriko 46.408 erroldaturekin (-% 0,1) eta Araba 25.948rekin (-% 2,8). Beraz, ikus dezakegu atzerriko biztanleria Araban eta, bereziki, Bizkaian jaitsi dela. Gipuzkoan, ordea, jaitsiera txikiagoa da.

III.1.9. GRAFIKOA. UDAL ERROLDAN INSKRIBATURIKO ATZERRITARREN PORTZENTAJEAREN BIALAKERA ESTATUAN ETA EAE-N



Iturria: EINen datuekin eginikoa.

Eusko Jaurlaritzaren Immigrazioaren Euskal Behatokiak (Ikuspegi) egiten duen erroldako datuen aurrerapenari buruzko azterketan ageri denez (2015eko maiatzaren 57 zk.ko Aldizkarian), Euskadi izan da, 2015ean, migratzaileen igoerarik txikiena izan duena (-% 2,8), baina txikiagoak izan dira horietan guztietan. Euskadiren ondoren, Andaluzia eta Murtzia azaltzen dira, -% 6,3 eta -% 4,2ko kopuruekin, hurrenez hurren. Jaitsierarik handienak honako erkidegoetan izan dira: Extremadura (-%9,6) eta Gaztela-Mantxa (-%9,2). Bilakaera negatiboa txikiagoa izan da 2015ean, beraz, erkidego guztietan, baina jaitsiera txikiagoa izan da aurreko urtearen aldean.

III.1.9. GRAFIKOA. ATZERRITARREN URTEARTEKO ALDAKUNTZA AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. 2013-2015



Iturria: IKUSPEGI, EINen datuekin

Immigrazioak gure erkidegoko dinamika demografikoan duen eragina ere aintzat hartu beharrekoa da: 1998 eta 2015 bitartean, 90.267 biztanle gehiago izan ditu EAEk, eta hazkunde hori gertatu da atzerritarrak iritsi izanagatik. Izan ere, epealdi berean 15.198 erroldatu izatetik 122.199 izaterakok igaro dira (+107.001). Epealdi berean, ordea, murriztu egin da biztanleria autoktonoa, 31.932 lagun gutxiago, baina badirudi azken bost urteotan goranzko joera duela talde horrek.

Nolanahi ere, atzerritarren nazionalizazioen kopuruak izan lezake eragina zati batez behinik behin. Horrela, gero eta egokiagoa da atzerriko naziotasunari buruzko informazioa osatzea atzerrian jaiotako biztanleriaren gaineko informazioarekin; izan ere, horrek irudi argiagoa eskaintzen du Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duen atzerritar jatorriko etorkin-kolektiboaren inguruan. “Jaioterriaren” aldagaia aintzakotzat hartuz gero “naziotasunarena” hartu beharrean, ikus daiteke atzerriko jatorria duen biztanleria handiagoa dela, zehatzago 2015. urtean 40.000 pertsona inguru gehiago; horrek esan nahi du etorkinen ratioa erroldatutako biztanleriaren % 8,3koa dela, atzerriko naziotasuna duen biztanleriaren % 6,3ren aldean. Estatuan alde hori handiagoa da, bost milioi atzerritarretatik (% 10,1) atzerrian jaiotako sei milioitik gorako kopurura igarotzen baita (biztanleria osoaren % 12,8).

Ikuspegik bere txostenean nabarmendu du ildo desberdinak daudela kanpoko nazionalitatea duen biztanlerian eta atzerrian jaiotako biztanleen artean, halako moldez non kanpoko nazionalitatekoen kopuruak hiru urte daramatza beherantz, eta bigarrenak, berriz, haziz doa, nazionalizazioen ondorioz. Hala, 2010ean atzerrian jaiotako pertsonen % 83,3k atzerriko nazionalitatea zuen. 2015ean, berriz, ia 10 puntu egin du behera ratio horrek, %74,7ra.

III.1.11. GRAFIKOA. ATZERRITARRAK EAE-N: ATZERRIKO NAZIONALITATEA DUTEN PERTSONEN ETA ATZERRIAN JAIOTAKOEN ARTEKO ERLAZIOA. PORTZENTAJEA.



Iturria: IKUSPEGI, EINen datuekin.

EAEko atzerritarrak ia erdi bana daude banatuta sexuaren arabera: % 51 gizonezkoak dira eta % 49 emakumezkoak. EAEn erroldatuta dauden nazionalitate-taldeak aintzat hartzen baditugu, antzematen da 2015ean jatorrizko herrialdearen arabera hiru talde nagusi daudela: %33,7 Latinoamerikatik dator, %24,7 Batasunekoa da eta %18,4 magrebtarra. Hala ere, aztertzen badugu immigrazio berriaren jatorria, hau da, azken urteotan EAEra heldu denaren jatorria, ikusten da Latinoamerikako nazionalitateen nagusitasunak Afrikakoei utzi diela lehen tokia.

III.1.12. GRAFIKOA. ATZERRITARRAK EAE-N NAZIONALITATE-EREMUEN ARABERA. ATZERRITAR GUZTIEKIKO PORTZENTAJEA. 2015



Iturria: IKUSPEGI, EINen datuekin

Izan ere, ondoz ondoko hiru etapa bereizten dira azken hamarkadan: hasieran, 2003-2004 biurtekoan, latinoamerikarren migrazioaren gorakada oso garrantzitsua izan zen, eta atzerritar guztien ia erdia (%48,4) izan ziren; kopuru horrek 2007ra arte iraun du. Hala eta guztiz ere, 2006az geroztik Europako gainerako aldeetako biztanleria kopurua igotzen hasi zen, eta hazkunde horren eragile nagusia errumaniar nazionalitatea izan da. Errumania 2007an sartu zen EBn, eta horren ondorioz, talde horren garrantzia %27,3ra arte igo da erroldatutako atzerritar guztien artean. 2009tik, azkenik, magrebtarrak dira (marokoarrak gehienbat) hazkundearen eragile nagusiak: 2007an %11,8 izatetik 2014an %17,7 izatera. Datu horiek ikusita esan beharra dago, Ikuspegik ohartarazi duenez, nazionalizazio prozesuek estatistikak desitxuratu ditzaketela, zeren eta nazionalitate espainiarra lortzen duten biztanleak estatistikatik desagertzen baitira. Halaber, gogoratu beharra dago desberdin gertatzen dela nazionalizazio prozesua taldeen artean, ezarritako beharkizunen arabera: bizileku-baimena eskuratu eta bi urtera nazionalizazioa eska dezakete Amerika Latinoko jatorrikoek, baina epe hori hamar urtera igotzen da beste talde batzuentzat, magrebtarrentzat esaterako.

Herrialdeka, 2015ean, lehenengo hamar garrantzitsuenen artean lau Latinoamerikakoak dira (Kolonbia, Bolivia, Brasil eta Paraguai), bi komunitarioak (Portugal eta Errumania), bi Magrebekoak (Maroko eta Aljeria) eta bi Asiakoak (Txina eta Pakistan). 2012tik Marokoko biztanleria Euskal Autonomia Erkidegoko atzerriko naziotasun nagusia da; izan ere, erroldatutakoak guztira 18.885 dira, EAEko atzerritar guztien % 13,7 hain zuzen ere. Bigarren nazionalitatea errumaniarra da, atzerritar guztien % 12,4, alegia.

III.1.13. GRAFIKOA. ATZERRITARREN HAMAR NAZIONALITATE NAGUSIEN BILAKAERA EAE-N. 200-2015



Iturria: IKUSPEGI, EINen datuekin

Interesgarria da ikustea zelako bilakaera izan den hamar nazionalitaterik garrantzitsuenen presentzian 2007 eta 2015 bitartean: Maroko %118,9 hazi da, hots, 2007an laugarren nazionalitatea izatetik (Kolonbia, Bolivia eta Errumaniaren atzetik) lehena izatera 2015ean, laugarren urtez jarraian. Errumania dela eta, bigarren nagusia zen 2015ean, eta %95,7ko hazkundea izan du. Halaber, esanguratsua da Aljeriako (+%116,3) eta Senegalgo (+%187,7) pertsonen hazkundea, etorkinen taldean haien pisua askoz txikiagoa bada ere.

Nazionalitate nagusien artean, hazkunderik negatiborik handiena Kolonbiari dagokio; izan ere, kolonbiarren presentzia %46,4 jaitsi da azken zortzi urtean. Hala ere, kontuan hartu behar da, berriz ere, nazionalizazioen eragina, Ekuatoreko nazionalitateko biztanleen jaitsierarekin gertatu zen bezala.

1.2.3. Elkarbizitza eta ongizatea

Ikuspegiren 2015eko urriko Barometroaren arabera, euskaldunentzat immigrazioa ez da arazo. %1,6k besterik ez du esaten bat-batean EAEko lehen arazoa denik, eta aipamenen guztizkoa %12,4koa da, 2014koa baino pixka bat altuagoa den ratioa (%12,1). Berez emandako hiru erantzunak osotasun gisa hartuz, immigrazioa bosgarren lekuan ageri da, eta horren atzetik langabezia (%90,4), arazo ekonomikoak (%30,5), klase politikoa (%17,4) eta ustelkeria eta iruzurra (%18,2).

III.1.14. GRAFIKOA. ZEIN DIRA EAE-REN HIRU ARAZO NAGUSIAK? (GEHIENEZ HIRU ERANTZUN). 2015.



Iturria: Ikuspegi barometroa 2015

Enpleguari dagokionez, immigrazioak lan-merkatuan betetzen duen eginkizunari buruzko ikuspegi funtzionala eta utilitarista nabarmen jaitsi da krisiaren ondorioz: 2004an %80k uste zuen etorkinak behar genituela zenbait sektoretan lan egiteko. 2014an, berriz, %30,5ek uste du hala. 2015ean, aldiz, biraketa gertatu da ikuspegi horretan, zeren eta ia 12 puntu igo baita, %42,2raino, baina joera-aldaketa hori hurrengo inkestetan finkatu arte itxaron beharko da. Alabaina,

2014an, %11k uste zuen ez zirela atzerriko migratzaileak behar. 2015ean, berriz, %41,3koa dugu, eta gehiengoen iritzia den aldetik finkatu da.

Antzeko zerbait gertatu da baieztapen honekin: ekonomia hobeto dabil migratzaileek betetzen dituztelako biztanle autoktonoen nahi ez dituzten postuak. 2014an, %32,8 ados zegoen baieztapen horrekin, eta 2015ean %44,9raino igo da ehuneko hori.

Halaber, euskal biztanleriak atzerritarrek osasun-laguntza eskuratzearen aldeko joera handiagoa erakusten du 2015ean 2014an baino (% 67,8, +2,9 aurreko urtearen aldean), baita seme-alabek hezkuntza izatea ere (%69,9, +1,5 puntu). Alabaina, ia eskubide unibertsaltzat hartzen diren bi zerbitzu horietan izan ezik (osasun laguntza eta hezkuntza), euskal biztanle gehienek uste dute, aurreko urteetan bezala, egoera erregularizatuarekin lotuta egon behar du gainerako eskubideak eskuratzeak. Ratioa % 51,5ekoa da laguntza juridikoan, % 60,5 familia berriz batzean, % 63,2, boto eskubidean eta % 62,9 gizarte laguntzetan.

Eta azkenik, immigrazio politikei dagokienez, euskal biztanleen %11,6k uste du 2015ean ezin jar dakiokeela lege eragozpenik migratzaileak sartzeari (%8,7 2014an), eta %6,6 bitarteko guztiak jarrita sarrera hori galaraztearen aldekoa da (%5,9 2014an). Gehienek uste dute, %56,5ek, sartzen utzi behar zaiela lan-kontratua izatearen trukean (%62,4 2014an). %14,9, berriz, sartzearen aldekoa da baina legezko beste beharkizun batzuk betetzen badituzte (familia berriz batzea, ikasleak, errefuxiatuak…) (%17,1 2014an).

III.1.15. GRAFIKOA. IMMIGRAZIOAREN IKUSPEGI UTILITARISTA EAE-N: PERTSONEN PORTZENTAJEA EGINIKO ADIERARAZPENEN ARABERA



Iturria: IKUSPEI. Barometroa 2015

III.1.16. GRAFIKOA. MIGRATZAILEEK ESKUBIDE HAUEN JABE IZAN BEHARKO LUKETE? EAE, 2015



Iturria: Ikuspegi barometroa 2015

III.1.17. GRAFIKOA. IMMIGRAZIO POLITIKARIK EGOKIENA EUSKAL BIZTANLERIAREN ARABERA. 2015



Iturria: IKUSPEGI. Barometroa 2015

Beste alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten etorkinen bizi-baldintzei dagokienez, EAEren 2014ko "Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak" nabarmentzen du pobreziaren molde desberdinen eragina oso desproportzionatua dela atzerriko pertsona bat buru duten etxebizitzetan bizi diren biztanleen artean eta, gainera, azken urteotan proportzio handiagoan handitu dela biztanle autoktonoen artean baino[4].

Benetako pobrezia-tasa % 2,9tik % 4ra hazi da 2008tik 2014ra bitartean gure erkidegoan bizi den eta estatuko naziotasuna duen biztanleriaren artean; aitzitik, atzerriko biztanleen etxebizitzetan bizi direnen pobreziaren hazkundea % 27,7tik % 36,2ra igaro da. Eta tasa hori are handiagoa da Europar Batasunetik kanpo datozen pertsonen etxebizitzetan; horrela bada, 2008ko % 34,5etik 2012ko % 37,3ra eta 2014ko % 47,2 handitu da.

III.1.18. GRAFIKOA. BENETAKO POBREZIA-TASA ETXEKO PERTSONA NAGUSIAREN NAZIONALITATEAREN ARABERA. EAE.



Iturria.- EUSKO JAURLARITZA. PGDI

Zentzu berean, EUROSTATek 2013ko datuekin zenbatetsitakoaren arabera, Batasunetik kanpoko nazionalitatea duten 18 urtetik gorakoen ia erdia (%48,7) pobrezian edo gizarte bazterkeria arriskuan dago. Populazio autoktonoaren artean, berriz, %22,8 da bizilekuko herrialdeko nazionalitatea aintzat hartuz gero, eta %28,1 EBko herrialdeetako baten nazionalitateari dagokionez.

1.2.4. Immigrazioaren inpaktu ekonomikoa

Atzerritarren immigrazioak EAEn izan duen inpaktua aztertu du IKUSPEGIK 2015ean. Horretarako, moneta-terminoetan erkatu ditu atzerritarrek EAEko ongizate sistematik jasotzen dutena eta altxor publikoetan zergetan eta kotizazioetan 2008an eta 2012an izan duten ekarpena.

Lehenik eta behin, 2008an nahiz 2012an, atzerritarrek altxor publikoari dakarzkioten diru-sarrerak handiagoak dira haiek gizarte ongizatearen sistemari dakarkioten gastua baino. 2008an, aldea 71 milioi eurokoa zen. 2012an, berriz, 38 milioitik gorakoa da. Beraz, krisiaren ondorioz alde hori murriztu arren, positiboa izaten jarraitzen duela ikus dezakegu.

III.1.6. KOADROA. GUZTIZKO BIZTANLERIAK ETA ATZERRITARREK ALTXOR PUBLIKOARI DAKARZKIOTEN GASTUAK ETA SARRERAK EAE-N. MILA EUROTAN. 2008-2012KO ERKAKETA

		2008			2012		
		ATZERRITARRAK	OROTARA	ATZER. %	ATZERRITARRAK	OROTARA	ATZER. %
GASTUA	PRESTAZIOAK +GIZARTE S.	118.329	1.681.034	7,0	236.841	2.124.040	11,2
	HEZKUNTZA	130.896	2.074.735	6,3	172.650	2.244.420	7,7
	OSASUNA	100.417	3.176.160	3,2	144.712	3.399.651	4,3
	ETXEBIZITZA	22.354	520.415	4,3	39.187	290.313	13,5
	OROTARA	371.994	7.452.345	5,0	593.389	8.058.525	7,4
SARRERAK	PFEZ	112.830	4.199.653	2,7	201.517	4.453.753	4,5
	BEZ	54.249	1.238.550	4,4	84.027	1.707.562	4,9
	ZERGA BEREZIAK	55.983	1.393.919	4,0	59.743	1.497.171	4,0
	ETXEBIZITZA	11.086	349.201	3,2	9.055	113.078	8,0
	KOTIZAZIOAK	208.949	6.331.789	3,3	277.245	6.447.565	4,3
	OROTARA	443.097	13.513.112	3,3	631.587	14.219.128	4,4
DIFERENTZIA (SAR.-GASTUA)		71.103			38.198		

Iturria: IKUSPEGI.ATZERRITARREK EAE-N DUTEN INPAKTU EKONOMIKOA ETA DEMOGRAFIKOA (2015)

4 Emaitza hauei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo beza irakurleak 2014ko Memoria Sozioekonomikora.

Oro har, atzerritarrek 2008. urtean eginiko gastua, guztira, 371,99 milioi eurokoa izan zen, hau da, aintzat harturiko guztizko gastuaren %5. 2012an, kontzeptu hori 593,39 milioiraino igo da, aintzat harturiko guztizko gastuaren %7,4. Sarrerei dagokienez, atzerritarren ekarpena, 2008an, 443,09 milioi euroko da, hots, guztizko ekarpenaren %3,3, eta sarrera horiek gora egin zuten 2012. urtean, 631,58 milioi euroraino hain zuzen ere, aintzat harturiko guztizko sarreren %4,4.

Atzerritarren pisu demografikoa kontuan hartzen badugu, hain zuzen ere %5,4koa 2008. urtean eta %6,9koa 2012an, honako hau ikusiko dugu: talde horri egotz dakiokeen gizarte gastua haien pisua baino pixka bat txikiagoa zela (%5 eta %5,4); sarrerena, berriz, azpitik dago. 2012an, aldiz, egotz dakiekeen gizarte gastuak gora egin du, eta haien pisu demografikoaren gainetik kokatzen da (%7,4 eta %6,9), sarrerak, berriz, pisu demografikoaren azpitik daude. Alabaina, bilakaera hori gorabehera, positiboa da orain ere sortutako sarrera-gastuaren balantzea.

Populazioaren araberako azterketak agerian uzten duenez, atzerritarrei egotz dakiekeen per capita gastua jaitsi egin da: 2008an per capita 3.170€ izatetik (3.653€ biztanleriaren guztizkoarekiko) 3.906€ izatera 2012an (3.947€ biztanleko biztanleria osoarekiko). Azken finean, krisiaren ondorioetarako bat izan daiteke atzerritarren per capita gizarte gastua ia parekatu egin dela guztizko biztanleriarekiko.

Bilakaeraren aldetik, atzerritarrei egotz dakiekeen gizarte gastua, gehienbat, prestazio ekonomikoei eta gizarte zerbitzuei dagokie; izan ere, 118 milioi gehiago izan ziren 2008 eta 2012 bitartean; hezkuntzako (+41 milioi) eta etxebizitzako (+16) gastuak, berriz, txikiagoak dira.

Sarrerei dagokienez, PFEZren bilketari (+88 milioi) eta gizarte kotizazioei (+68) esker gertatu da gehienbat hazkundea. BEZarena, berriz, igoera txikiagoa izan da (+29), zerga berezietan igoera txikia izan da (+3 milioi) eta etxebizitzaren ziozko sarrerek ere gehikuntza txikia izan dute (-2 milioi euro).

Halaber, langile migratzaileek 208 milioi euro ordaindu zituzten Gizarte Segurantzan 2008. urtean, hots, guztizko bilketaren %3,3. 2012an, 227 milioi euroraino igo da bilketa, hau da, 68 milioi euroko igoera lau urtean. 2012. urtean, EAEk Gizarte Segurantzari eginiko sarreren %4,3 atzerritarrek jarri zuten, hots, atzerritarrek bilketan duten pisuak gora egin du termino erlatiboetan, hain zuzen ere %1 azken lau urtean.

1.3. FAMILIAK ETA LANEKO BIZITZA, BIZITZA PERTSONALA ETA FAMILIA UZTARTZEA

EAEko familia-sistemen tipologia asko aldatu da azken hamarkadetan, demografia, gizarte eta kultura prozesuen ondorioz. Aldaketarik azpimarragarrienean artean, honako hauek aipa daitezke: etxebizitza-moten dibertsitate handiagoa, batez bestekoaren tamainaren jaitsiera, etxebizitza horietako erreferentziazko pertsonen profilean izandako aldaketa garrantzitsuak, etxebizitzetan dauden adin txikikoen proportzioaren jaitsiera eta mendekotasun-egoeren gehikuntza.

EINen "Familien etengabeko inkestak" erakusten duenez, EAEk guztira 894.100 familia zituen 2014an (Estatuko familien % 4,9), eta horietatik %32,4 eurekin bizi diren bikoteekin daude osatuta, %26,8 pertsona bakarrekoak dira eta %22,7 seme-alabarik gabeko bikoteak dira.

Aldaketak gorabehera, familiak zentraltasunari eusten dio pertsonen bizitzan. Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egindako «Familia EAEn» azterlanak agerian jartzen du elkarrizketatutako pertsonen % 96ren iritziz familia oso edo nahiko garrantzitsua dela, bestelako alderdi batzuen gainetik, hala nola aisialdiaren (% 93), lagunen (% 92) edo lanaren (% 91) gainetik. Gainera, gehienen ustetan, familia aurreko etapetan bezain garrantzitsua da (elkarrizketatutakoen % 47) edo are garrantzitsuagoa (% 15).

2014ko datuak erabiliz, inkesta horretan (eskuragarri dagoen azkena)[5] nabarmentzen da elkarrizketatutako pertsonen % 97k adierazten duela oso edo nahiko pozik dagoela familiarekin, eta horixe da poztasunik handiena ematen duen bizi-alderdia; horren ondoren, honakoak azaltzen dira: aisialdia (% 84), osasuna (% 83), ikasketa-maila (% 81) eta lana (% 71).

III.1.19. GRAFIKOA. GOGOBETETASUNA BIZITZAKO HAINBAT ALDERDIREKIN. EAE, 2014



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Familia EAEn 2014

Bestalde, eta aurreko inkestetan bezala, euskaldunik gehienek uste dute seme-alaben kopururik egokiena bi dela (erantzunen %40), eta ondoren hiru (%17). Gainera, %30ek uste du ez dagoela seme-alaba kopuru idealik. Etorkizunean gurasoak izateari dagokionez, nabarmen hobetu da etorkizunean seguru asko seme-alabak izango dituztela dioten elkarrizketatuen portzentajea 2012ko inkestarekiko, hain zuzen ere %11tik %20ra. Gainera, seme-alabarik izango ez dutela ziurtasun osoz adierazten dutenen ehunekoa oraindik ere nahikoa handia da, %65ekoa hain zuzen, baina jaitsi egin da 2012ko %77tik.

1.3.1. Uztartzeko betebeharrak

Azken urteotan, familiaren instituzioak izandako aldaketek eta horiek ugalkortasun-tasetan izan duten inpaktuak gero eta interes publiko handiagoa izan dute, horrek dakartzan eraginak direla eta. Ugaltzeko eta laneratzeko adin aproposak bat datozenez gero, emakumezko gazteak egoera zailean daude, seme-alabak izateko erabakiari dagokionez. Ama izan nahi duten gehienek amatasuna lanarekin bateratu nahi izaten dute eta geroz eta gehiago dira bikoteko bi kideek lan egiten duten eta 15 urte baino gutxiagoko seme-alabak dituzten familiak.

Inguruabar horiek arazo berriak ekarri dituzte elkarbizitza unitateen barruan, ordaindutako lana eta familiaren zaintza bateratzeko beharrizanen inguruan. Lanaren eta familia bizitzaren arteko gatazka une bitan areagotzen da: haurrak txikiak direnean, baina gero eta sarriago, mendeko adinekoei arreta eman behar zaienean ere bai. Hori dela-

5 Ezin izan da eguneratu 2014ko Memorian sartutako azterlan horri buruzko informazioa eta, beraz, laburpena emango dugu. Argibide gehiago nahi izanez gero, jo beza irakurleak Memoria horretara.

eta, herritarrek euren familia bizitza eta norberaren konpromisoak eta lana bateratu ahal izatea gizarte politikari buruzko eztabaidaren ardatzetako bat bihurtu da.

Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eginiko 2014ko *"Gizarte Zerbitzuen Beharren Inkestak"* (GZBI), aurreko inkestekin erkatuta, nahi den seme-alaba kopurua izateko posibilitatearekin lotutako arazoek gora egin dutela antzeman du (inkestan "ugalkortasun arazoak" deritzena), ekonomiaren eta lanaren aldetik dagoen egoeratik eta seme-alabak zaintzeko zailtasunengatik. 2014. urtean, EAEko familien %5,6k adierazi zuen ezin zuela eduki nahi duen seme-alaba kopurua, hots, ia 50.000 familia (49,358); 2010ean, berriz, %5,1 zen. 2014ko proportzio hori, ordea, ez da iristen 2006ko Inkestan izandako zenbakietara: orduan %6,2 izan zen.

III.1.20. GRAFIKOA. NAHI DEN SEME-ALABA KOPURUA IZATEKO ARAZOAK DITUZTEN EAE-KO FAMILIAK



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. GSIN 2014
**Askotariko erantzunak, laugarren kategoriak aurrekoetako bat edo hainbat biltzen ditu*

Azterturiko kausa guztietan gertatu da 2006ko datuekin alderatuta 2010ean izandako jaitsieratik gertatu den igoera hori (zergati bat baino gehiago aipa daitezke): lehenik eta behin, nahikoa diru-sarrerarik edota etxebizitza egokirik ez izateagatik dela dio elkarrizketaturiko familien %4k (%4,4k 2006. urtean eta %3,4k 2010ean). Bigarrenik, %3,4k dio laneko segurtasunik ezagatik dela (%3,4k 2006an eta %4k 2010ean). Azkenik, familien %2,6k seme-alabak zaintzeko arazoei egozten die errua (%3,9k 2006an eta %2,6k 2010ean).

Inkestak ohartarazten du ugalkortasun arazoen gehikuntza hori biztanle autoktonoengan metatzen dela (eraginpeko familien % 5,4, eta % 5,3 zen 2006. urtean eta 2010ean, berriz, %4,1), zeren eta atzerritarren familietan beherako joerari eutsi baitzaio 2014. urtean, 2010eko datuekin alderatuta betiere. Hala eta guztiz ere,famili horiek nahi dituzten seme-alabak izateko arazoak askoz gehiago dira EAEn jaiotako biztanleen artean, honako zifrak ditugula kontuan hartuta: %35,1 2006an, %27,2 2010ean eta %9 2014an.

Halaber, laneko eskubideen eta uztartzearen arloan, honako hauek ikus daitezke:

- elkarrizketaturiko pertsonen %62k ez du malgutasunik izan laneko ordutegiak egokitzeko seme-alabak zaintze aldera. %37k, berriz, aukera hori izan du.
- %84k lanaldia murriztu du edo lanaldi partzialeko kontratua eduki du seme-alabak zaindu ahal izateko; %15ek, berriz, ez du hala egin.
- %12k lan egiteari behin betiko utzi behar izan dio seme-alabak zaintzeko.
- Elkarrizketaturiko pertsonen %4k besterik ez du baliatu urtebeteko eszedentzia edo luzeagoa seme-alabak zaintzeko.

"Familia EAEn" azterlanak nabarmentzen du, zentzu horretan, 2014. urtean elkarrizketatutako pertsonen % 45ek uste duela ondorengoak izateak nahiko oztopatzen duela emakumezkoen karrera profesionala (% 47ren iritzia 2012an) eta % 22k uste duela "asko" oztopatzen duela (% 20ren iritzia 2012an). Aitzitik, gizonezkoen artean, galdetutako pertsonen % 14k baino ez du nahiko oztoporik edo oztopo askorik ikusten karrera profesionalean seme-alabak izateagatik (% 10en iritzia 2012. urtean egindako inkestan).

III.1.21. GRAFIKOA. AMATASUNA/AITATASUNA, LANBIDE-KARRERAKO OZTOPO. EAE, 2014



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Familia EAEn 2014

EAEn inkesta bat jarri zuen abian EUSTATek 2010ean, EAEn bizi diren eta lanean ari diren familiek lana familiarekin eta norberaren bizitzarekin bateratzeko dituzten posibilitateak aztertzeko. Era berean, EUSTATek Lana, Familia eta Norberaren Bizitza Uztartzeari buruzko Inkesta"k lehenik eta behin nabarmentzen du lehenik eta behin, etxetik kanpo lan egiten duten emakumezkoek egunero-egunero adin txikiko seme-alabak eta menpeko pertsonak zaintzeko % 50 ordu gehiago erabiltzen dituztela gizonezkoek baino.[6] Ildo horretan, Inkestak ondorioztatzen du emakumeak direla familia eta norberaren bizitza uztartzea beren gain hartzen dutenak, zeren eta askoz denbora gehiago ematen baitute seme-alaba adingabeak eta mendekotasunean diren pertsonak zaintzen gizonezkoek baino. Gizonezkoek 3,1 ordu erabiltzen dituzte egunean-egunean adin txikikoak zaintzeko (2012. urtean 2,9 ordu); emakumezkoek, ordea, 4,9 ordu (2012. urtean 4,6). Alde hori areagotzen da menpeko pertsonak zaintzeko lanak kontuan hartuz gero; izan ere, gizonezkoek 1,5 ordu erabiltzen dituzte egunero jarduera horri begira (2012. urtean 1,4 ordu) eta emakumezkoek 2,3 ordu (2012an 2,9).

III.1.22. GRAFIKOA. LANDUNEK ETXEKO LANETAN EGUNEAN EMANDAKO ORDU KOPURUA, EZAUGARRIEN ARABERA. EAE, 2013



Iturria: EUSTAT. BLUI, 2013.

6 Ezin izan da eguneratu 2014ko Memorian sartutako azterlan horri buruzko informazioa (2013ko datuak) eta, beraz, laburpena emango dugu. Argibide gehiago nahi izanez gero, jo beza irakurleak Memoria horretara.

Bere gain hartutako zametan dagoen desberdintasun horrek kostua dauka etxeko zereginak banatzeko asebetetze-mailari dagokionez; izan ere, emakumezkoek adierazten dute euren asebetetze-maila, batez beste, 5,8koa dela 10 punturen gainean ezkontideak edo bikotekideak etxeko zereginak egitean eskainitako lankidetzari buruz; gizonezkoek, ostera, 7,6ko asebetetze-maila azaltzen dute.

Enpresan edo organizazioan zenbait baimen eskatzeko zailtasun-mailari dagokionez, datuek erakusten dute zailtasunek gora egin dutela, baimen modalitate guztietan, 2010-2013 aldian. EUSTATeko inkestak agerian jartzen du lana duten pertsonek batez beste 3,4ko zailtasun-maila adierazten dutela 10 punturen gainean, eta 2,9koa lanean huts egin ahal izateko, gai partikularrak konpontze aldera. Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeko modua erraz dezaketen neurrien artean, lanaldiaren murrizketak 3,8ko batez besteko zailtasuna du; horren ondoren, eszedentziek, 3,7koa eta enplegurik eta soldatarik gabeko egunek 3,2koa, 10 punturen gainean. Oro har, ez da desberdintasun garrantzitsurik sumatzen sexuen artean; salbuespena da gizonezkoek adierazten dutela zailtasun gehiago dituztela lanaldiaren murrizketa eskatzeko (4,0 puntukoa; emakumezkoek, ostera, 3,6koa).

III.1.23. GRAFIKOA. LANEAN UZTARTZEAREKIN LOTURIKO BAIMENAK ESKATZEKO ZAILTASUNAREN BATEZ BESTEKO MAILAREN BILAKAERA. EAEN



Iturria: EUSTAT. BLUI Datu-bankuak

Azkenik, ordutegi motei eta malgutasunei dagokienez, EAEko langileen %20,9k lanaldia luzatu behar du ia egun guztietan (eta %19,8 zenbait alditan). Egoera horretan dira, gainera, enplegatzaileen %42 eta autonomoen %32,4. Irteteko ordutegi malgua, hau da, bateratzea hobetzeko beste baliabide osagarria, langileen %46,5k erabiltzen du (%40,6k 2012an), eta emakumeek (%43,8) gizonezkoek (%48,7) baino gutxiago. Norberaren etxean lan egiteari dagokionez, %7,7k lantzean behin egiten du lan etxean eta %4,2k egun erdiak gutxienez. Lana duten zazpi pertsonetatik batek, oro har, etxean egiten du lan maiztasun ezberdinekin.

1.3.2. Familiei laguntzeko politika publikoak

Azaldutako egoera horiek arintzeko, familiei laguntzeko planak abiarazi zituen Eusko Jaurlaritzak 2002an, zertarako-eta familiek seme-alaba kopurua askatasunez erabakitzea galarazten duten eragozpen ekonomikoak eta gizarte eta laneko eragozpenak gainditzeko. Hala, Familiei Laguntzeko Legea onetsi zuen 2008an, markoari lerrun juridiko handiagoa emateko eta famili politika integralerako oinarriak ezartzeko, betiere familien eta familiako kideen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetze aldera.

III.1.7. KOADROA. EAE-KO FAMILIENTZAKO LAGUNTZAK: ESPEDIENTE KOPURUAREN ETA EUSKO JAURLARITZAREN FAMILI POLITIKAREN ZUZENDARITZAK EMATEN DITUEN LAGUNTZEN BILAKAERA. MILA EUROTAN.

	JAIOTZA EDO ADOPZIOA		UZTARTZEA	
	ESPEDIENTEAK	GASTUA	ESPEDIENTEAK	GASTUA
2008	28.175	25.333	27.005	11.297
2009	29.754	26.185	46.816	18.830
2010	34.887	31.505	48.140	26.824
2011	32.563	29.521	32.505	32.973
2012	25.620	22.420	26.351	24.434

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuen likidazioen memoria.

Familientzako zuzeneko laguntzak 2002an hasi ziren I. Famili Planarekin. Harrezkero, 2012ra arte, 500 milioi euroko gastuak izan dira laguntza horietan, gutxi gorabehera erdibana banatuta jaiotza, adopzio edo aurre-adopzioko harrerarako laguntzen eta uztartzeko laguntzen artean.

2012ko aurrekontuko likidazioa dela-eta (eskuragarri ditugun azken datuak: ezin izan da eguneratu 2013ko Memoriako informazioa ezein iturri ofizialetatik), jakin badakigu urte horretan 46,8 milioi euro erabili zirela familiei laguntzeko, hots, 2011n baino %25 gutxiago. Horietatik 24,4 milioi uztartzeko laguntzak ordaintzen erabili ziren (-%25,9 gutxiago 2011ren aldean), eta beste 22,4 milioi jaiotza edo adopzioagatiko laguntzetarako -%24,1). Espediente kopuruari dagokionez, guztira 25.620 diru-laguntza eman ziren (-%21,3 2011rekiko) jaiotzengatik eta adopzioengatik (urte anitzeko laguntzak barne), eta aldi berean, gora egin du bateratzerako laguntzen kopuruak: 26.351 (%-18,9). 25.379 diru-laguntza adingabeak zaintzeko eszedentziagatik edo lanaldi murrizketagatik, 466 mendekotasunean edo osasun larritasunean diren senideak zaintzeko eszedentziagatik edo lanaldi murrizketagatik eta 506 3 urtetik beherakoen zaintzaileak kontratatzeko.

III.1.24. GRAFIKOA. SEME-ALABEN JAIOTZAGATIKO EDO ADOPZIOAGATIKO LAGUNTZAK EAE-N. ESKABIDEEN ETA GASTUAREN BILAKAERA, MILA EUROAN



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Familia eta Komunitate Politikaren Zuzendaritza

Azkenik, 2011ko abenduan EAEko Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko III. Plana onetsi zen 2011-2015 aldirako eta, gutxi gorabehera 674,6 milioi euroko aurrekontua izanik, famili politiken gaineko zeharkakotasun handiagoa eman zaio aurreko bi planekin alderatuta. Hartara, sailen eta erakundeen arteko lana indartu da. Lehendik dauden neurriak nahiz neurri berriak modu koherentean ordenatu nahi ditu, printzipio honen inspirazioarekin: lana, familia eta norberaren bizitza uztartzea familiako eta gizarteko kide guztiei dagokie, denok baitaukagu erantzukizun maila handiago edo txikiagoa.

III.1.8. TAULA. III. EAE-KO FAMILIA PLANA (2011-15): ILDO ESTRATEGIKOAK ETA GASTUAREN AURREKONTUA (MILIOI EURO).

ILDO ESTRATEGIKOAK	GASTUA (MIL. €)
-FAMILIEI LAGUNDU ETA HAIEN AUTONOMIA ERRAZTEN DUTEN ZERBITZUAK, NEURRIAK ETA POLITIKAK INDARTZEA	607,4
-FAMILIEN GIZARTE BALIOA ETA FAMILIEN JABEKUNTZA, GIZARTE SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA BULTZATZEKO EKINTZA POLITIKOAK ETA SOZIALAK SUSTATZEA ETA HEDATZEA	57,2
-FAMILIE LAGUNTZAKO POLITIKAK SAILEN ETA ERAKUNDEEN ARTEAN KOORDINATZEA ETA GIZARTE PARTAIDETZA GARATZEA	1,1
-PARADIGA ETA JARDUTEKO MARKO BERRIAK FAMILIEI LAGUNTZEKO POLITIKETEAN ETA NEURRIETAN	8,7
OROTARA	**674,6**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA, Lan eta Gizarte Politiketako Saila.

Memoria hau itxi den egunean, ez dago Plan honen ondoriozko jarduketa-multzoari buruzko informaziorik, baina bai 2015eko balantzearen gainekoa uztartzeko laguntzen partida zehatzean:

- 2015ean, guztira, 17.194 lagunek (horien zati batek 2014ko ekitaldian) baliatu zituzten seme-alabak zaintzeko eszedentziagatiko eta lanaldia murrizteagatiko onurak (2.645 eszedentzia eta 14.549 lanaldi-murrizketa), eta laguntzaren batez besteko zenbatekoa 1.761,19€ izan zen, hots, 30 milioi euro inguruko gastua.
- Halaber, 376 lagunek baliatu zituzten mendekotasunean edo osasun egoera oso larrian dauden senideak zaintzeko eszedentziak edo lanaldi-murrizketak, eta batez beste 1.861,95€-ko laguntza jaso dute, hots, 700.000€ inguruko gastua.
- Azkenik, 400 lagunek baliatu zituzten seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzak, batez beste 700,87€-ko laguntzarekin (orotara 280.000 euro gutxi gorabehera).

III. Familia Planaren helburuekin alderatzeko ebaluazioa egitea ahalbidetuko duen informazio ofizial gehiago izan barik, aipaturiko zifretatik 31,37 milioi euro inguruko gastua ondorioztatzen da.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eginiko 2014ko "*Gizarte Zerbitzuen Beharren Inkestak*" (GZBI) ohartarazten du behera egin duela familia-laguntzak eskuratzen dituzten familien proportzioak aurreko inkesten aldean (2006an eta 2010ean eginikoak).

Azken 12 hilean seme-alabak dituzten familiei laguntzeko Erakundearteko Planaren ondoriozko laguntzak edo laguntzarako aldi bereko beste neurri batzuk (esaterako zenbait udalek edo Estatuaren Administrazioak kudeaturikoak, normalean seme-alaba jaiotzean ematen diren laguntzekin lotuta) baliatu dituzten familiei buruzko informazioa dakar GZBIk. Beheranzko joera nabarmena da; izan ere, horrelako laguntzak baliatu zituen familien %10,2k 2006an. 2010ean, berriz, %8k eta 2014an, azkenik, %3,9k.

2006 eta 2014 bitartean, gizonak (%12,5etik %4,7ra) eta 35 urtetik beherakoak (%21,7tik %6,9ra) buru direneko familietan gertatu dira beherakadarik deigarrienak, baita atzerritarren familiak ere (2006an %31,4 eta 2014an, berriz, %11,1).

III.1.9. TAULA. EAE-KO FAMILIENTZAKO LAGUNTZAK: LAGUNTZOK AZKEN URTEAN ERABILI DITUZTEN FAMILIEN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA, PERTSONA NAGUSIAREN ALDAGAI DEMOGRAFIKOEN ARABERA (TALDE BAKOITZAREN %a)

		2006	2010	2014
SEXUA	GIZONAK	12,5	9,9	4,7
	EMAKUMEAK	3,8	2,6	1,9
ADINA	< 35 URTE	21,7	18,8	6,9
	35 - 44 URTE	34,0	26,2	13,5
	45 - 54 URTE	5,9	3,2	2,2
	55 URTE ETA GEHIAGO	0,3	0,4	0,2
NAZIONALIT.	ESTATUA	9,8	16,7	3,1
	BESTE BAT	31,4	17,0	11,1
ETXEKO GABEZIA	OIN. GABEZIA	11,0	11,8	1,6
	GABEZIRIK EZ	10,1	7,7	4,2
ETXEKO JARDUERAREKIKO ERLAZIOA	PERTS. BATZUEK LAN EGONK.	15,0	11,4	6,3
	PERTS. BATZUEK LANA BAI EG. EZ	7,9	6,9	2,7
	GUZTIAK LANIK GABE	1,0	1,3	0,4
OROTARA		**10,2**	**8,0**	**3,9**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA, ENSS.

2. HEZKUNTZA ETA KULTURA

Pertsonen eta gizarteen aurrerapenean eta aurrerabidean gehien eragiten duten faktoreetako bat da hezkuntza. Jakintza sustatzeaz gain, hezkuntzak kultura, espiritua, balioak eta gizaki egiten gaituzten ezaugarri guztiak aberasten ditu.

Hezkuntza beharrezkoa da gizarte ongizatearen eta hazkunde ekonomikoaren mailarik onenetara iristeko; gizarte kohesio mailarik handienak lortzeko; gizarte harremanak indartzeko; zientzia, teknologia eta berrikuntza bultzatzeko, etab. Garrantzitsua izan da beti garapen ekonomikorako eta sozialerako, baina gaur egungo munduan, neurri batean zientziaren aurrerapenak eta horren aplikazioek eragindako eraldaketa sakonak bizi garen munduan, gero eta garrantzi handiagoa hartu du, baita garapen motelagoa ez duten IKTen garapenak eragindako eraldaketengatik ere.

Ekonomia modernoetan, ekoizpenaren faktorerik garrantzitsuenetako bat bilakatu da jakintza. Arlo ekonomikoan eta sozialean gehien aurreratu diren gizarteak dira jakintzan oinarrituriko aurrerapena lortu dutenak, eskolaren bidez transmititzen den jakintzan nahiz ikerketaren bidez sortzen den jakintzan. Hezkuntzak, zientziak eta berrikuntza teknologikoak gero eta eragin handiagoa dute produktibitatean eta lehiakortasun ekonomikoan, baita nazioen garapen sozialaren eta kulturaren zati handi batean ere.

Kapitulu hau bi epigrafetan dago banatuta, eta alde batetik, Hezkuntza aztertuko da eta, bestetik, kulturako gastuei buruzko zenbait alderdi. Hezkuntzari buruzko epigrafearen barruan, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetan matrikulaturiko ikasleen bilakaera, unibertsitateko irakaskuntzetan matrikulaturiko eta graduaturiko ikasleen bilakaera eta hezkuntza-adierazle nagusiak aztertuko dira, hiru bloke handitan banatuak: eskolaratzea eta hezkuntza-testuingurua, hezkuntzako gastua eta hezkuntzako emaitzak.

Bestalde, memoria honetako Kultura epigrafearen barruan, Estatuaren Administrazio Orokorrak, Administrazio Autonomikoak eta tokiko erakundeek eginiko kulturaren arloko gastu publikoa aztertzen da. Udala eta aldundiak, kontseiluak edo kabildoak, eta familien kontsumo kulturaleko gastua.

2.1. HEZKUNTZA

2.1.1. Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzak

EUSTATen Eskola-jardueraren Estatistikaren datuen aurrerapenaren arabera[1], unibertsitatekoa ez den araubide orokorrean matrikulaturiko 370.426 ikaslek hasi zuten 2015/16 ikasturtea EAEn (helduentzako hezkuntza alde batera utzita), hots, %0,5eko beste hazkunde bat (aurreko ikasturtean baino 1.807 ikasle gehiago) Hezkuntza Berezia barne hartzen badugu, %1,6raino Hezkuntza Bereziko ikasleak alde batera utzita (+5.954 ikasle).

Hezkuntza Berezi a alde batera utzita ditugun matrikulazioko datuei helduta eta mailen arabera bereizita, hauxe ikusten dugu: mailarik baxuenetan (haur eta lehen hezkuntza) 220.694 ikasle daude matrikulatuta (92.601 ikasle Haur Hezkuntzan (-%1,9) eta 128.093 ikasle Lehen Hezkuntzan (+%0,9%), Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan 79.486 (+%3) eta Oinarrizko Lanbide Hezkuntza berrian, aurreko Hasierako Lanbide Prestakuntza Programa (HLPP) tokia hartu duen horretan, 4.137 ikasle[2].

1Zentsukoak eta urtekok dira Unibertsitate Estatistikako (UE) eta Eskola-jardueraren Estatistika (EJE) eragiketak, eta horiei esker, hezkuntza sistema ezagutzeko modua dago, baita goi-mailako ikasketetan (hirugarren gradua) nahiz aurretiazko ikasketetan (lehen eta bigarren hezkuntza) izan den bilakaera ere, hurrenez hurren. Eusko Jaurlaritzaren Ikastetxeen Erregistroan sartuta dauden eta irakaskuntza arautua ematen duten zentro guztiak hartzen dira aintzat.

2 Abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoa, hezkuntzaren kalitatea hobetzeari buruzkoa.

Oinarrizko Lanbide Heziketaren tituluari esker, aurrera egin daiteke Hezkuntza Sisteman, lanbide bat gaitasunez bete, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatuko tituluaren lan-efektu berdinak ditu enplegu publikoak eta pribatuak eskuratzeko.

Derrigorrezko Irakaskuntzaren Ondorengoari dagokionez, Batxilergoan 30.168 pertsona matrikulatu dira eta 14.304 pertsona gradu ertaineko LHn. Gradu ertaineko LHn izandako hazkundea (%2,6) Batxilergoan erregistraturikoa baino handiagoa da (%0,6).

Komeni da gogoratzea Lanbide Heziketaren irakaskuntza-sisteman 16 urterekin sartzen direla ikasleak gradu ertainean Batxilergoaren alternatiba gisa eta 18 urterekin goi-mailako graduan, betiere hezkuntza tertziarioaren edo goi-mailako irakaskuntzaren baitan.

Bestalde, goi-mailako graduko LHn 20.308 lagun matrikulatu dira, eta nabarmentzekoa da hainbat urtetan aldakuntza positiboak izan ondoren matrikulazioan izandako gutxipena (-%1,5).

III.2.1. KOADROA. EAE-KO IKASLEAK TITULARITATEAREN ETA MAILAREN ARABERA (1)

	2010/11	2011/12	2012/13	2013/14	2014/15	2015/16 behin-beh.	2014/15-2015/16 aldak.
GUZTIRA: ikastetxe guztiak Hezk. Bereziarekin	345.734	353.157	359.618	363.206	368.619	370.426	0,5
Ikastetxe guztiak Hezkunktza Berez. barik	340.165	347.656	353.970	357.926	363.143	369.097	1,6
Haur Hezkuntza	94.818	96.577	96.713	95.483	94.433	92.601	-1,9
Lehen Hezkuntza	117.193	120.288	122.139	124.276	127.001	128.093	0,9
Hezkuntza Berezia (Haur eta Lehen Hezk.)	444	449	473	476	470	502	6,8
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)	70.516	72.144	73.940	75.161	77.169	79.486	3,0
Hezkuntza Berezia (DBH)	208	221	234	263	288	306	6,3
Hasierako Lanbide Prestakuntza Programak (HLPP)	4.519	4.404	4.484	4.076	4.238		
Oinarrizko Lanbide Heziketa						4.137	
Batxilergoa	28.769	28.968	29.444	29.607	29.988	30.168	0,6
Gradu ertaineko LH	11.468	11.990	12.718	13.442	13.938	14.304	2,6
Goi mailako graduko LH	17.401	17.689	19.016	19.957	20.614	20.308	-1,5
Lanak ikastea (LH. Hezkuntza Berezia)	398	427	457	465	480	521	8,5

(1) Unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak. Ez da sartzen Helduen Hezkuntza Iraunkorra, ezta araubide bereziko irakaskuntzak ere (arteak eta ofizioak, hizkuntzak eta musika.
Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren Estatistika

Lanbide Heziketako Prestakuntza-zikloak: matrikulaturiko ikasleak

EUSTATen arabera, 2013-14 eta 2014-15 ikasturte artean, %3,7 hazi zen matrikulaturiko ikasleen kopurua gradu ertaineko LHn (13.442tik 13.938ra) eta %3,3 goi-mailako gradukoan (19.957tik 20.614ra).

Hona hemen 2014-15 ikasturtean ikasleen kopururik handiena bildu duten gradu ertaineko lanbide-taldeak: Osasuna (%14,7), Ostalaritza eta Turismoa (%13,2), Energia eta ura (%10,2), Administrazioa eta Kudeaketa (%7,6) eta Zura, altzariak eta kortxoa (%7,1). Bestalde, hauexek bildu zituzten hazkunderik handienak ikasleen kopuruan: Merkataritza eta Marketina (+%21,8), Arte Grafikoak (%17,7) eta Gizarte-kulturako zerbitzuak eta erkidegoarentzako zerbitzuak (%15,8).

Goi-mailako tituluen artean, hauexek nabarmentzen dira matrikulazioen kopuruaren aldetik: Fabrikazio Mekanikoa (%12), Administrazioa eta Kudeaketa (%11,9), Gizarte-kulturako zerbitzuak eta erkidegoarentzako zerbitzuak (talde bietan %11,6) eta Mantentzea eta ekoizpenerako zerbitzuak / Instalazioa eta mantentzea (%6,4). Bestalde, hona hemen hazkunderik handienak dituztenak ikasleen kopuruan: Segurtasuna eta ingurumena (+%25,4) eta Irudi pertsonala (%14,7), eta nabarmentzekoa da Elikagaien industrien (-%28,6) eta Energia eta uraren (-%19,5) taldeetan izandako murriztapena.

III.2.2. KOADROA. LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEAK GRADUAREN ETA LANBIDE-ARLOAREN ARABERA. EAE.								
	GRADU ERTAINA				GOI-MAILAKO GRADUA			
	GUZTIRA		%	Bi ikast.	GUZTIRA		%	Bi ikast.
	2013-14	2014-15	bertikala	aldak.	2013-14	2014-15	bertikala	aldak.
GUZTIRA	13.442	13.938	100,0	3,7	19.957	20.614	100,0	3,3
Jarduera fisikoak eta kirolekoak	183	196	1,4	7,1	788	784	3,8	-0,5
Administrazioa eta kudeaketa	1.039	1.055	7,6	1,5	2226	2.446	11,9	9,9
Nekazaritzakoa	278	274	2,0	-1,4	229	238	1,2	3,9
Arte grafikoak	192	226	1,6	17,7	302	295	1,4	-2,3
Merkataritza eta marketina	280	341	2,4	21,8	1.007	1.065	5,2	5,8
Eraikuntza eta obra zibila	113	124	0,9	9,7	404	444	2,2	9,9
Elektrizitatea eta elektronika	123	123	0,9	0,0	2.350	2.386	11,6	1,5
Energia eta ura	1.455	1.427	10,2	-1,9	174	140	0,7	-19,5
Fabrikazio mekanikoa					2.350	2.469	12,0	5,1
Ostalaritza eta turismoa	1.806	1.835	13,2	1,6	966	1.031	5,0	6,7
Irudi pertsonala	809	893	6,4	10,4	368	422	2,0	14,7
Irudia eta soinua	848	858	6,2	1,2	440	446	2,2	1,4
Elikagaien industria	127	135	1,0	6,3	14	10	0,0	-28,6
Informatika eta komunikazioak	842	858	6,2	1,9	1.668	1.756	8,5	5,3
Zura, higiezinak eta kortxoa	945	993	7,1	5,1	64	66	0,3	3,1
Ekoizpenerako mantentzea eta zerbitzuak / Instalazioa eta mantentzea	254	279	2,0	9,8	1.274	1.313	6,4	3,1
Itsasoko arrantza	148	146	1,0	-1,4	249	245	1,2	-1,6
Kimika	83	88	0,6	6,0	469	462	2,2	-1,5
Osasuna	2.002	2.048	14,7	2,3	1.359	1.380	6,7	1,5
Segurtasuna eta ingurumena					130	163	0,8	25,4
Gizarte-kulturako zerbitzuak eta erkidegoarentzako zerbitzuak	653	754	5,4	15,5	2.485	2.401	11,6	-3,4
Ehungintza, joskintza eta larrugintza	40	20	0,1	-50,0	96	104	0,5	8,3
Garraioa eta ibilgailuen mantentzea	1.222	1.265	9,1	3,5	546	548	2,7	0,4

Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren Estatistika

Emakumeek lanbide-ikasketetan duten partaidetzak gizonezkoenak baino txikiagoa izaten jarraitzen du, batez ere profil teknikoko lanbide-taldeetan. Izan ere, gainera, laneratze hobea duten taldeak izan ohi dira. Alabaina, zenbait lanbide-taldetan, emakumeak dira nagusi, eta batzuetan are parte-hartze handiagoa dute, %70ekoa hain zuzen ere.

Beraz, %50etik gorako partaidetza du gradu ertaineko lanbide-talde hauetan: Elikagaien industriak (%55,6), Merkataritza eta marketina (%59,8), Administrazioa eta Kudeaketa (%69,1), Osasuna (%79,3), Kultur zerbitzuak eta Erkidegoarentzako zerbitzuak (%79,7), Ehungintza eta larrugintza (%80) eta Irudia eta soinua (%97).

Eta goi-mailako graduetako hauetan: Ostalaritza eta Turismoa (%50,3), Merkataritza eta marketina (%51,1), Kimika (%54,3), Elikagaien industriak (%60), Administrazioa eta kudeaketa (%64,4), Osasuna (%77,7), Kultur zerbitzuak eta erkidegoarentzakoak (%83), Ehungintza, joskintza eta larrugintza (%86,5) eta Irudi pertsonala (%96).

III.2.3. KOADROA. LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEAK GRADUAREN ETA LANBIDE-ARLOAREN ARABERA. EAE.								
	GRADU ERTAINA				GOI-MAILAKO GRADUA			
	GUZTIRA		Emakumeen %a (% horizontalak)		GUZTIRA		Emakumeen %a (% horizontalak)	
	2013-14	2014-15	2013-14	2014-15	2013-14	2014-15	2013-14	2014-15
GUZTIRA	13.442	13.938	35,8	35,1	19.957	20.614	38,6	38,3
Jarduera fisikoak eta kirolekoak	183	196	16,9	17,3	788	784	17,0	18,2
Administrazioa eta kudeaketa	1.039	1.055	68,9	64,1	2226	2.446	65,3	64,4
Nekazaritzakoa	278	274	16,5	17,5	229	238	18,3	18,9
Arte grafikoak	192	226	49,0	45,1	302	295	48,0	48,1
Merkataritza eta marketina	280	341	61,1	59,8	1.007	1.065	51,1	51,1
Eraikuntza eta obra zibila	113	124	48,7	47,6	404	444	30,2	32,0
Elektrizitatea eta elektronika	123	123	11,4	15,4	2.350	2.386	34,2	5,4
Energia eta ura	1.455	1.427	3,6	2,7	174	140	5,2	17,1
Fabrikazio mekanikoa					2.350	2.469	16,7	10,8
Ostalaritza eta turismoa	1.806	1.835	4,4	3,1	966	1.031	10,9	50,3
Irudi pertsonala	809	893	32,1	33,6	368	422	50,6	96,0
Irudia eta soinua	848	858	95,8	97,0	440	446	95,1	25,6
Elikagaien industriak	127	135	55,9	55,6	14	10	57,1	60,0
Informatika eta komunikazioak	842	858	10,8	10,0	1.668	1.756	16,7	14,9
Zura, altzariak eta kortxoa	945	993	2,4	2,9	64	66	5,8	19,7
Ekoizpenerako mantentzea eta zerbitzua / Instalazioa eta mant.	254	279	7,1	5,7	1.274	1.313	21,9	6,2
Itsasoko arrantza	148	146	2,0	1,4	249	245	4,8	4,9
Kimika	83	88	57,8	46,6	469	462	55,4	54,3
Osasuna	2.002	2.048	81,9	79,3	1.359	1.380	76,6	77,7
Segurtasuna eta ingurumena					130	163	37,7	37,4
Gizarte-kulturako zerbitzuak eta erkidegoarentzakoak	653	754	79,8	79,7	2.485	2.401	82,9	83,0
Ehungintza, joskintza eta larrugintza	40	20	85,0	80,0	96	104	90,5	86,5
Garraioa eta ibilgailuen mantentzea	1.222	1.265	2,1		546	548	1,8	1,6

Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren Estatistika

2.1.2. Unibertsitateko irakaskuntzak

a) Unibertsitateko matrikulazioa

EUSTATen Unibertsitate Estatistikaren arabera, 2013-14 ikasturtean 68.913 ikasle zeuden matrikulatuta EAEko unibertsitateetan, hots, %1eko hazkundea aurreko ikasturtearen aldean. Ikasturte honekin, laugarren urtez jarraian igo zen matrikulen kopurua 15 urtez jaitsi ondoren.

III.2.4. KOADROA. MATRIKULATURIKO IKASLEEN BILAKAERAIKASKETAN ARABERA. EAE							
	2009/10	2010/11	2011/12	2012/13	2013/14		Aldak. % 2012/13-2013/14
					Guzt.	% bertikala	
GUZTIRA	**62.720**	**65.601**	**66.472**	**67.551**	**68.193**	**100,0**	**1,0**
1 eta 2. zikloetan matrik.	55.088	40.335	28.323	15.822	7.750	11,4	-51,0
Gradua	4.646	18.791	30.998	44.067	51.739	75,9	17,4
Graduatu-ond. matrik.	2.986	6.475	7.151	7.662	8.704	12,8	13,6
Master ofizialak	2.584	3.344	4.122	4.390	4.929	7,2	12,3
Doktoretza	402	3.131	3.029	3.272	3.775	5,5	15,4

Iturria: EUSTAT. Unibertsitate Estatistika

Gorantz jarraitzen du graduetan matrikulaturiko ikasleen kopuruak, baina aurreko ikasturtean baino neurri txikiagoan (+%17,4, aurreko ikasturteko +%42,2aren aldean), dagoeneko finkatuta baitago Bologna Planeko ikasketen egitura berria. Bestalde, jaitsiera dakar aurreko planeko lehen eta bigarren zikloko ikasketak egiten dituztenen kopuruan (lizentziaturak, arkitekturak eta ingeniaritzak, diplomatura eta arkitektura eta ingeniaritza teknikoak:-%51,1).

Horrela, %11,4 1. eta 2. zikloko ikasketetan zeuden matrikulatuta (aurreko ikasturtean %23,4ko ratioa izan zen) eta %75,9 Goi-mailako Hezkuntzako Europako Eremuaren (EHEE) ondoriozko graduetako ikasketetan, %7,2k master ofizialak egin zituen eta %5,5 Doktoretza egiten ari zen.

Bi ikasketa-planak, 1. eta 2. zikloko ikasketak eta Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Eremuaren (GHEE) ondoriozko gradu-ikasketak aintzat hartuta, ikasle guztien kopurua 59.489 da, hots, %0,7ko murrizpena aurreko ikasturtearen aldean.

Zentroen titularitatearen araberako bereizketa eginda, ikasleen %75 unibertsitate publikora doa; unibertsitate pribatuan, berriz, %24 matrikulatzen da. Zentro publikora doanen proportzioa %75ekoa edo handiagoa da ikasketa mota guztietan, Master Ofizialetan izan ezik, non Unibertsitate Publikoaren matrikulazioen proportzioa txikiagoa izan zen, %59koa hain zuzen.

III.2.5. KOADROA. IKASKETETAN MATRIKULATURIKO IKASLEAK EAE-N, SEXU ETA UNIBERTSITATEKO TITULUAREN ARABERA

	2012-13			2013-14		
	GUZT.	Emakumeen %	Zentro publik. %	Guztira	Emakumeen %	Zentro publ %
GUZTIRA	**67.551**	53,1	**77**	**68.193**	**52,7**	**76**
1 eta 2. Zikloetan matrik.	15.822	50,9	89	7.750	48,5	94
Gradua	44.067	53,6	74	51.739	53,0	75
Graduatu-ond. matrik.	7.662	54,5			88,5	
Master ofizialak	4.390	55,2	62	4.929	54,4	59
Doktoretza	3.272	53,4	79	3.775	53,7	81

Iturria: EUSTAT. Unibertsitate Estatistika

Bestalde, unibertsitateko ikasgeletan dagoen sexuaren araberako banaketak emakumearen aldeko diferentzia islatzen du unibertsitatean sartzeari dagokionez, %6koa 2013-14 ikasturtean. Joera bera gertatzen da ikasketa maila gehientsuenetan: Emakumeak %53 direneko graduak, Masterretan %54,4koa eta doktoretzetan %53,7. Lehen eta bigarren zikloko ikasketetan, berriz, %48,5 dira.

Graduko ikasketen titulazioaren aukeraketari dagokionez, EUSTATen arabera, hauxe izan zen matrikulazioen rankinga: Enpresen administrazioa eta zuzendaritza (5.405), Lehen hezkuntza (3.561), Zuzenbidea (3.049), Psikologia (2.472), Ingeniaritza mekanikoa (2.375), Haur hezkuntza (2.084), Teknologia industrialeko ingeniaritza (1.642), Erizaintza (1.500), Negozioen kudeaketa (1.345), Medikuntza (1.285) eta Hezkuntza soziala (1.244).

b) Unibertsitateko graduazioa

2013-14 ikasturtean, guztira 13.919 lagun graduatu ziren, hots, %7,5eko hazkundea 2012-13 ikasturtearen aldean. Guztien %55 emakumeak ziren.

Ikasketa motari dagokionez, lehen eta bigarren zikloko titulua eskuratu zuten 4.084 lagunek (-%38,7 aurreko ikasturtearen aldean), 6.673k graduetan, 2.662k master ofizialetan (+%8,4) eta 500ek doktore gradua eskuratu zuten.

Lehen eta bigarren zikloko ikasketei dagokienez, unibertsitateko ikaslerik gehienak Gizarte eta Zuzenbide Zientzien arloan espezializatu ziren (%52,3), eta ondoren %27,7 Irakaskuntza Teknikoetan. Neurri txikiagoan Giza Zientzietan (%8,7), Osasunaren Zientzietan (%6,3) eta Zientzia Esperimentaletan (%5).

Graduko ikasketetan antzeko banaketa ageri da. Ikaslerik gehienak Gizarte eta Zuzenbide Zientzietan arloko ikasketetan graduatu ziren (%54,9), eta ondoren Ingeniaritza eta Arkitekturakoetan (%23,5). Neurri txikiagoan hauetan: Arteak eta Giza Zientziak (%7,3), Osasunaren Zientziak (%9,7) eta Zientziak (%3,7). %1ek bi titulu eskuratu zituen.

EUSTATen arabera, sexuaren araberako diferentziak ageri dira ikasketa-arloa aukeratzean, eta emakumeek gehienbat (%56) Gizarte eta Zuzenbide Zientzien barruko programak nahiago dituzte ingeniaritzakoen aldean, ingeniaritzetan %16 baino ez baitziren graduatu. Gizonen %85, berriz, modu orekatuagoan dago banatuta Ingeniaritza eta Arkitekturaren (%46) eta Gizarte eta Zuzenbide Zientzien artean (%39).

Oso nabarmena izaten jarraitzen du Osasunaren Zientzien ikasketen presentziak emakumeen artean (%14) gizonen artean baino (%4). Arte eta Giza Zientzietan eta Zientzietan, graduatu kopuru txikieneko adarretan, alde txikiagoa izan zen, %2 eta %1eko diferentziarekin bi sexuen artean, hurrenez hurren.

III.2.6, KOADROA. EAE-N GRADUATURIKO IKASLEEN BILAKAERA

	2009/10	2010/11	2011/12	2012/13	2013/14	% bertikalak (graduat. 1. eta 2. Zikloak bereizita)	2012/13-2013/14 aldak.
1 eta 2. zikloetan graduatuak	**10.348**	**10.025**	**8.791**	**6.661**	**4.084**	**100,0**	**-38,7**
Osasunaren zientziak	739	678	555	371	424	*6,3*	14,3
Zientzia esperimentalak	423	382	439	320	209	*5,0*	-34,7
Gizarte eta Zuzenbide zientziak	5.289	5.325	4.597	3.226	1.429	*52,3*	-55,7
Irakaskuntza teknikoak	3.155	2.911	2.439	2.021	1.749	*27,7*	-13,5
Giza zientziak	742	729	761	723	273	*8,7*	-62,2
Graduak	**150**	**363**	**762**	**3.333**	**6.673**	**100,0**	**100,2**
Arteak eta Giza zientziak	.	.	.	164	486	*7,3*	196,3
Zientziak	.	25	51	73	245	*3,7*	235,6
Osasunaren zientziak	.	.	.	470	644	*9,7*	37,0
Gizarte eta Zuzenbide zientziak	.	.	.	1.668	3.662	*54,9*	119,5
Ingeniaritza eta arkitektura	.	.	232	958	1.570	*23,5*	63,9
Titulazio bikoitzak	.	.	.	.	66	*1,0*	
Master ofizialak	**1.517**	**1.946**	**2.278**	**2.456**	**2.662**		**8,4**
Doktoretza-tesiak	**362**	**520**	**420**	**500**	**500**		**0,0**
GUZTIRA	**12.377**	**12.854**	**12.251**	**12.950**	**13.919**		**7,5**

Iturria: EUSTAT. Unibertsitate Estatistikak

2.1.3. Hezkuntza-adierazleak[3]

Zabala da hezkuntzako Adierazle-sistemaren Mapa. Epigrafe honetan, horietako zenbait aztertuko dira. Bildu ez direnak aztertzeko, aurreko urteetako memoriak irakur dezala gomendatzen diogu irakurleari.

2.1.3.1. Eskolaratzea eta hezkuntza-testuingurua

Hezkuntzako bizitza-esperantza 5 urtetik hasita

Honelaxe definitzen da hezkuntzako bizitza-esperantza: bost urteko pertsona batek hezkuntza eta trebakuntza sisteman ustez emango duen urte kopurua.

Biztanleriak hezkuntzan eta trebakuntzan duen batez besteko partaidetza adierazten duen indizea da. Nahiz eta Espainian hezkuntza nahitaezkoa den 6 urtetik hasita, 5 urtetik aurrera hartzen da aintzat, ELGAren adierazleek dakarten bezala, zeren eta nazioarteko alderaketa egitea ahalbidetzen baitu eta, gainera, Espainian 5 urterik ia ume guztiak hasten baitira hezkuntza sisteman.

3Kontuan hartu behar da epigrafe honetan Hezkuntzako Nazioarteko Sailkapen Normalizatuak (HNSN 2011), kategoria hauek ezarri dituela:
HNSN 0 maila – Hasierako hezkuntza edo maila txikiagokoa
HNSN 1 maila – Lehen hezkuntzaa
HNSN 2 maila – Bigarren hezkuntzako maila txikia
HNSN 3 maila – Bigarren hezkuntzako maila gorena
HNSN 4 maila – Bigarren hezkuntzaren ondorengoa, ez tertziarioa
HNSN 5 maila – Ziklo laburreko hezkuntza tertziarioa
HNSN 6 maila – Hezkuntza tertziarioko gradua edo maila baliokidea
HNSN 7 maila – Maisutza, espezilzazioa edo baliokidea
HNSN 8 maila – Doktoretza maila edo baliokidea

2015eko uztailearen argitaraturiko *"2015eko hezkuntza-adierazleen estatuko sistema"* txostenaren arabera, 18,3 urtekoa zen bost urteko ume batek Espainiako hezkuntzan eta trebakuntzan ematea espero zen batez besteko urte kopurua; hala, 1,3 urte gehiago dira 2007-2008 ikasturtearen aldean. Sei autonomia erkidegotan, Estatuko batez bestekoa gainditu zen, eta urte kopururik handiena Errioxari zegokion (19,7 urte), ondoren EAE (19,5), Madril (19,4), Gaztela eta Leon (19,3) eta Valentziako E. eta Galizia (bietan 18,4) zeuden..

Autonomia erkidego guztietan, bost urtetik hasita hezkuntzan eta trebakuntzan espero den urte kopurua igo egin da 2007-2008 ikasturtetik, baina badirudi hazkundearen erritmoa motelagoa dela azken ikasturteetan.

Txosten beraren datuen arabera, emakumeek esperantza handiagoa zuten hezkuntza eta trebakuntza sisteman gizonezkoek baino. Hala, 2012-2013 ikasturtean, 18,6 urteko eskolako bizitza-esperantza zuen emakumeak, gizonezkoaren 18,0 urtekoaren aldean. Alabaina, aldea murriztuz joan zen: 2007-08 ikasturteko 1,1 urtetik 2012-13 ikasturteko 0,7 urtera.

Nazioarteko alderaketa egiteko datuak 2011-2012 ikasturtekoak dira, eta hezkuntzan espero den urte kopurua 5 urtetik 39 urterakoa da ELGAkoak diren EBko 21 herrialdeetan. Espainian, hezkuntza 17,6 urte egitea espero da, hau da, ELGAko herrialdeen batez bestekoaren barruan (17,6 urte) eta ELGAko Europako 21 herrialdeen batez bestekoa baino pixka bat beherago (17,8 urte).

Hezkuntzan espero den urte kopururik handiena zuen herrialdea Finlandia da (19,7), eta ondoren Danimarka eta Suedia (19,4 eta 19,3 hurrenez hurren). Luxenburgo eta Eslovakia ziren, 15,1 eta 16,3 urterekin, hezkuntza espero den urte kopururik handiena zuten herrialdeak.

Espainian bezalaxe, Europako herrialderik gehienetan handiagoa da emakumeentzat hezkuntza espero den urte kopurua.

III.2.7. KOADROA. 5 URTETIK HASITA HEZKUNTZAN ESPERO DEN BATEZ BESTEKO URTE KOPURUA AA.EE.REN ARABERA. 2007-08 eta 2012-13

	2007-08	2012-13
Estatua	**17,0**	**18,3**
U. Balearrak	14,2	15,8
Melilla	14,8	16,6
Gaztela-Mantxa	15,0	17,1
Ceuta	15,2	17,4
U. Kanariarrak	15,7	17,5
Extremadura	15,7	17,7
Nafarroa	16,2	17,8
Kantabria	15,8	17,8
Murtzia	15,4	17,9
Aragoi	15,9	17,9
Katalunia	15,7	18,0
Andaluzia	15,6	18,1
Asturias	16,5	18,2
Galizia	16,4	18,4
Valentziako E.	15,6	18,4
Gaztela eta Leon	17,0	19,3
Madril	16,6	19,4
EAE	**17,3**	**19,5**
Errioxa	15,1	19,7

Iturria: HKKM. Hezkuntza adierazleen estatuko sistema 2015

III.2.8.KOADROA. 5 URTETIK 39 URTERA HEZKUNTZAN ESPERO DEN B. BESTEKO URTE KOP. AA.EE.REN ARABERA, EB-KO HERRIALDEAK, 2011-12

	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Finlandia	19,7	19,2	20,1
Danimarka	19,4	19,1	19,9
Suedia	19,3	18,9	20,3
Belgika	18,9	18,6	19,5
Holanda	18,7	18,7	18,7
Grezia	18,6	18,5	18,7
Eslovakia	18,4	17,8	19,1
Polonia	18,4	18,1	19,2
Alemania	18,2	18,3	18,0
Txekiar E.	18,1	17,7	18,7
EB (21) (1)	17,8	17,6	18,3
Portugal	17,6	17,5	17,8
Espainia	17,6	17,4	17,9
ELGA	17,6	17,5	18,0
Irlanda	17,6	17,6	17,5
Hungaria	17,6	17,5	17,8
Estonia	17,5	16,9	18,1
Austria	17,0	16,8	17,3
Italia (2)	16,8	16,4	17,3
Frantzia	16,4	16,1	16,8
Erres. Batua	16,4	16,1	16,7
Eslovakia	16,3	16,1	16,8
Luxenburgo (3)	15,1	15,0	15,2

(1) EBko 21 herrialdeak, ELGAko hemeretzi herrialde eta bi elkartu (Eslovenia eta Estonia) sartzen dira.
(2) 2011ko datuak.
(3) Atzerriko matrikulazioaren maila handiak eta immigrazioak eragina izan dezakete hezkuntzan espero den urte kopuruan.
Iturria: HKKM. Hezkuntza adierazleen estatuko sistema 2015

Ikaskuntza iraunkorrean parte hartzea

Estatistikaren aldetik, honelaxe definitzen da: inkestaren aurreko lau asteetan hezkuntza edo trebakuntza iraunkorreko ekintzaren batean parte hartzen duten 25-64 urte bitarteko biztanleen portzentajea adin bereko biztanle guztiekiko.

25-64 urteko helduen %15ek gutxienez ikaskuntza iraunkorreko jardueraren batean parte hartzea ezarri du EBk 2020rako helburu.

"HKKMren Espainiako hezkuntza zenbakitan. 2016ko edizioa" deritzon txostenaren arabera, 2014.urtean 28ko EBn 25-64 urte bitarteko biztanleriaren %10,7k hartu zuen parte trebakuntzako jardueretan; oraindik ez da lortu 2020rako proposaturiko helburua, hots, %15eko ratioa. Espainiako Estatuaren ratioa %9,8koa zen.

Herrialde hauexek baizik ez zuten helburua gainditu: Erresuma Batuak (%15,8), Holandak (%17,8), Frantziak (%18,6), Finlandiak (%25,1), Suediak (%28,9) eta Danimarkak (%31,7).

"HKKMren 2015eko hezkuntza adierazleen estatuko sistema" txostenaren arabera, Espainiak urte berean %9,8ko ratioa zuen, eta emakumeen partaidetza puntu bat handiagoa zen gizonezkoena baino, %10,5 eta %9,2 hurrenez hurren. Nabarmentzekoa da emakumeen partaidetzaren ehunekorik handiena EAEn lortua izana, %12,9 hain zuzen ere.

Autonomia erkidego guztietan emakumeek partaidetza handiagoa izan zuten gizonek baino.

III.2.9. KOADROA. IKASKUNTZA IRAUNKORREKO PARTAIDETZA AUTONOMIA ERKIDEGOKA. 2014

	Guztira	Gizonak	Emakum.
Estatua	9,8	9,2	10,5
Illes Balears	8,0	7,1	9,0
Katalunia	8,0	7,2	8,8
Ceuta eta Melilla	8,2	7,4	9,0
Asturias	8,5	7,8	9,1
Andaluzia	8,8	8,4	9,3
Kantabria	9,0	8,2	9,8
Extremadura	9,0	8,6	9,5
U. Kanariarrak	9,2	8,5	10,0
Galizia	9,8	9,2	10,3
Murtzia	10,2	10,0	10,5
Gaztela-Mantxa	10,2	9,7	10,8
Errioxa	10,5	9,8	11,2
Gaztela eta Leon	10,6	9,5	11,8
Aragoi	10,6	8,8	12,5
Nafarroa	11,0	9,9	12,2
Valentziako E.	11,3	11,0	11,6
Madril	11,6	11,1	12,0
EAE	**11,8**	**10,6**	**12,9**

Iturria: HKKM. Hezkuntza adierazleen estatuko sistema 2015

III.2.10. KOADROA. IKASKUNTZA IRAUNKORREKO PARTAIDETZA EB-N

	GUZTIRA			GIZONAK			EMAKUMEAK		
	2004	2009	2014	2004	2009	2014	2004	2009	2014
28KO EB	**9,1**	**9,3**	**10,7**	**8,5**	**8,4**	**9,8**	**9,8**	**10,2**	**11,6**
Alemania	7,4	7,8	7,9	7,8	7,8	8,0	7,0	7,7	7,8
Austria	11,6	13,8	14,2	11,0	12,8	13,2	12,3	14,8	15,3
Belgika	8,6	6,8	7,1	8,7	6,4	6,7	8,5	7,2	7,6
Bulgaria	1,3	1,4	1,8	1,2	1,3	1,6	1,3	1,5	2,0
Kroazia	9,3	7,8	6,9	9,0	7,7	6,3	9,6	7,8	7,3
Zipre	1,9	2,6	2,5	1,8	2,8	2,4	2,0	2,5	2,6
Danimarka	25,6	31,2	31,7	22,1	25,3	26,0	29,1	37,2	37,5
Eslovenia	16,2	14,6	11,9	14,8	12,9	10,4	17,6	16,4	13,6
Espainia	4,8	10,6	9,8	4,3	9,6	9,2	5,3	11,6	10,5
Estonia	6,6	10,5	11,5	5,4	7,5	9,2	7,6	13,2	13,7
Finlandia	22,8	22,1	25,1	19,2	18,5	21,6	26,4	25,9	28,8
Frantzia	6,0	5,7	18,3	5,8	5,2	15,9	6,1	6,1	20,7
Grezia	1,8	3,3	3,0	1,8	3,3	3,1	1,8	3,3	2,8
Hungaria	4,0	2,7	3,2	3,4	2,4	2,9	4,6	3,0	3,5
Irlanda	6,1	6,3	6,7	5,1	5,6	6,0	7,1	7,0	7,3
Italia	6,3	6,0	8,0	5,9	5,6	7,7	6,7	6,3	8,3
Letonia	8,4	5,4	5,5	5,7	3,5	4,8	10,8	7,0	6,2
Lituania	6,0	4,4	5,0	4,3	3,4	4,5	7,5	5,2	5,4
Luxenburgo	9,8	13,4	14,0	9,5	13,4	13,4	10,1	13,5	14,5
Malta	4,3	6,1	7,1	4,8	6,0	6,8	3,8	6,2	7,5
Holanda	16,4	17,0	17,8	16,1	16,5	17,5	16,8	17,5	18,2
Polonia	5,0	4,7	4,0	4,3	4,3	3,6	5,7	5,1	4,3
Portugal	4,2	6,4	9,6	4,0	6,0	9,3	4,4	6,8	9,9
Txekiar E.	5,8	6,8	9,3	5,5	6,5	9,1	6,0	7,0	9,6
Eslovakiar E.	4,3	2,8	3,0	3,8	2,2	2,8	4,8	3,3	3,1
Erresuma Batua	29,0	20,1	15,8	24,9	16,7	14,2	33,1	23,3	17,4
Errumania	1,5	1,5	1,5	1,5	1,3	1,6	1,4	1,6	1,3
Suedia	..	22,2	28,9	..	16,1	22,1	..	28,5	36,0

Datu horiek ez datoz bat 2005eko abendua baino lehen argitaraturikoekin
Iturria: EUROSTAT, Espainiako Hezkuntzaren zifrak. 2016ko edizioa

Irakasle bakoitzeko ikasle kopurua, lanaldi osoaren pareko lanaldiarekin

Lanaldi osoaren pareko lanaldia duten irakasleak zati ikasleen batez besteko kopurua egin behar da kalkulua egiteko, hezkuntza maila bakoitzean (HKE).

"HKKMren Espainiako 2016ko hezkuntzaren zifrak. 2016ko edizioa" txostenaren arabera, 2014an, EAEko unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko lanaldi osoaren pareko lanaldiko irakasle bakoitzeko ikasleen batez bestekoa kopurua alderatzen badugu, ratio txikiagoa zen Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Batxilergoko eta/edo LHko eta Hezkuntza Bereziko zentroetan, baina DBH ematen den ikastetxeetan, ratiorik txikiena Estatuari zegokion.

Azterketan, zentroaren titularitatearen araberako aldeak islatzen dira; hala gertatzen da bai Estatuan bai EAEn. Hala, irakaskuntza horien batez bestekoa 9,1 ikaslekoa da herri ikastetxeetan EAEn; ikastetxe pribatuetan, berriz, 17,6rainokoa da (8,5 ikasle gehiago). Alderik handienak Batxilergoa eta/edo LH ematen zuten zentroetan zeuden (7,9 ikasle gehiago), baita Lehen Hezkuntzan, DHBn eta Batxilergoetan/LHn (8,1 ikasle gehiago) ere.

2012-13 eta 2013-14 ikasturte artean, gora egin zuen Lehen Hezkuntza (10,9 ikasletik 11ra) ematen duten ikastetxe publikoetako eta Hezkuntza Berezia (1,9 ikasletik 2ra) ematen duten ikastetxeetako ikasleen kopuruak, eta behera egin zuen gainerakoetan.

Bestalde, ikastetxe pribatuetan gora egin zuen Batxilergoa edota LH eta Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoa/LH ematen dituzten ikasleen kopuruak. Gainerakoetan, berriz, behera egin zuen.

III.2.11. KOADROA. IRAKASLE BAKOITZEKO IKASLEEN BATEZ BESTEKO KOPURUA LANALDI OSOAN, IKASTETXE ETA TITULU MOTAREN ARABERA. UNIBERTSITATEZ KANPOKO ERREGIMEN OROKORREKO IRAKASKUNTZAK. 2012-13 IKASTURTEA

	GUZTIRA		H. Hezkuntzako ikastetxeak		L. Hezkuntzako ikastetxeak		L. Hezkuntzako eta DBHko ikast.		Batxilergo edota LHko ikast.		L. Hezkuntza, DBH eta Batx./LHko ikast.		H. Bereziko ikast.	
	2012-3	2013-4	2012-3	2013-4	2012-3	2013-4	2012-3	2013-4	2012-3	2013-4	2012-3	2013-4	2012-3	2013-4
Estatua. Ikastetxe guztiak	**12,6**	**12,7**	**9,6**	**9,6**	**13,4**	**13,3**	**13,4**	**14,5**	**10,9**	**11,1**	**16,2**	**16,3**	**3,9**	**4,0**
Estatua. Publikoak	11,8	11,8	9,0	9,0	13,4	13,3	13,4	9,3	10,7	10,9	7,9	8,9	3,5	3,5
Estatua. Pribatuak	15,0	15,1	10,4	10,4	14,8	14,6	14,8	15,8	13,9	14,0	16,2	16,4	4,5	4,6
Pribat. eta publ. dif.	3,2	3,3	1,4	1,4	1,4	1,3	1,4	6,5	3,2	3,1	8,3	7,5	1	1,1
EAE. Ikastetxe guztiak	**11,8**	**12,0**	**4,7**	**4,1**	**11,0**	**11,1**	**11,0**	**15,7**	**8,8**	**8,8**	**18,6**	**19,3**	**4,3**	**3,9**
Estatua. Publikoak	9,1	9,1	4,7	4,0	10,9	11,0	10,9	8,8	7,8	7,8	11,6	11,3	1,9	2,0
Estatua. Pribatuak	17,1	17,6	-	-	17,0	15,5	17,0	16,4	15,2	15,7	18,8	19,4	4,8	4,2
Pribat. eta publ. dif.	8	8,5			6,1	4,5	6,1	7,6	7,4	7,9	7,2	8,1	2,9	2,2

(*) Lansaio osoaren baliokide den enplegua.
Iturria: HKKE Espainiako Hezkuntza zenbakitan. 2015eko eta 2016ko edizioa eta EIN

ELGAk argitaraturiko "*2014ko eta 2015eko hezkuntzaren egoera*" txostenen arabera, Espainiak 2012-13 ikasturtean irakasle bakoitzeko ikasleen ratio txikiagoa zuen ELGAko batez bestekoak baino. Horren ondorioz, iturriak ezberdinak izanik ere, EAE posizio onean dagoela esan daiteke ELGAko herrialdeen batez bestekoarekiko.

2.1.3.2. Hezkuntzako gastua

HKKMren datuen arabera, Hezkuntzako gastu publikoa, 2013. urtean, 2.493 milioi eurokoa izan zen EAEn(aurreko urtean, 2.604 milioi eurokoa); Estatu osoan, Hezkuntza Administrazioei egokitutako gastua 42.595 milioi eurokoa izan zen (2012an, 40,285 milioi eurokoa izan zen). Hezkuntza administrazioek EAEn BPGarekiko egin zuten gastua %3,99koa izan zen (2012koa baino txikiagoa: %4,05), eta %3,82 Estatuan.

"HKKMren Espainiako hezkuntza zenbakitan. 2016ko edizioa" txostenaren arabera, 2012. urtean BPGaren %4,34 izan zen, herrialde hauetakoa baino ratio txikiagoa: Suedia (%7,38), Finlandia (%7,12), Malta (%6,76), Zipre (%6,67), Belgika (%6,60), Irlanda (%6,16), Erresuma Batua (%6,1), Holanda (%5,89) eta Frantzia (%5,68).

Horrenbestez, iturriak bat ez badatoz ere, Erkidegoak BPGarekiko duen gastu publikoa arlo horretan erreferentziako herrialdeena baino txikiagoa dela esan daiteke.

Unibertsitate-hezkuntza eta unibertsitatez kanpoko hezkuntza bereizita, EAEn, BPGaren gaineko hurrenez hurreneko ratioak % 3,26koa eta % 0,7koa izan ziren; Estatuan, aldiz, % 2,81ekoa izan zen unibertsitatez kanpoko hezkuntzan eta % 0,89koa unibertsitate-hezkuntzan.

III.2.12. KOADROA. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK HEZKUNTZAN EGINKO GASTUA, AUTONOMIA ERKIDEGOKA, 2012

	BPG (mila €)	Guztira hezkuntzako gastua				Unibertsitatez kanpoko hezk. gastua				Unibertsitateko hezkuntzako gastua			
		Guztira (mila €)	% (3) Ohiko gastua	% (3) Kapital gastua	Gt./BPG	Guztira (mila €)	% (3) Ohiko gastua	% (3) Kapital gastua	Gt./BPG	Guztira (mila €)	% (3) Ohiko gastua	% (3) Kapital gastua	Gt./BPG
GUZTIRA ESTATUA (1)	1.031.272.000	42.594.565	93,0	5,8	4,13	31.111.727	97,0	3,0	3,02	9.173.286	79,4	15,6	0,89
Guztira hezkuntz administ.		39.439.627	93,1	5,7	3,82	28.966.537	97,3	2,7	2,81	9.160.337	79,4	15,6	0,89
HKM		1.772.146	98,3	1,4		480.166	97,7	2,2		250.839	92,7	5,6	
HKM AA.EE. transf. egin ondoren		1.540.480	98,1	1,6		455.552	97,5	2,3		250.839	92,7	5,6	
Andaluzia	138.584.587	7.306.495	90,9	8,1	5,27	5.354.152	95,0	5,0	3,86	1.681.403	77,0	18,8	1,21
Aragoi	32.658.415	1.055.201	93,1	6,2	3,23	790.485	97,1	2,9	2,42	262.506	81,1	16,3	0,80
Asturias	20.719.197	789.574	95,5	3,7	3,81	604.689	99,0	0,8	2,92	182.351	83,8	13,4	0,88
Illes Balears	25.837.947	762.960	93,8	5,5	2,95	674.074	95,8	3,5	2,61	88.153	77,5	20,5	0,34
U. Kanar.	39.986.124	1.499.125	96,1	3,7	3,75	1.207.777	98,2	1,9	3,02	282.558	87,2	11,9	0,71
Kantabria	11.756.993	525.316	90,9	8,9	4,47	419.650	94,3	5,6	3,57	104.583	76,8	22,2	0,89
Gaztela eta Leon	52.109.288	1.998.635	95,9	3,6	3,84	1.495.472	98,9	1,1	2,87	492.991	86,6	11,5	0,95
Gaztela-Mantxa	36.836.883	1.497.036	96,9	2,8	4,06	1.312.995	97,2	2,8	3,56	184.041	94,5	3,1	0,50
Katalunia	194.267.932	5.734.321	94,5	5,2	2,95	4.269.590	97,8	2,1	2,20	1.408.460	84,0	14,5	0,73
Valentzia	95.884.093	4.175.878	88,6	6,5	4,36	2.981.312	97,4	2,2	3,11	1.182.766	66,3	17,1	1,23
Extremadura	16.840.911	959.078	94,3	5,4	5,69	802.369	97,6	2,3	4,76	155.641	76,9	21,1	0,92
Galizia	53.898.655	2.236.307	92,6	6,4	4,15	1.696.971	98,3	1,7	3,15	515.472	77,4	18,2	0,96
Madril	193.833.734	4.758.759	91,5	6,4	2,46	3.138.353	98,3	1,6	1,62	1.564.536	77,4	16,1	0,81
Murtzia	26.653.719	1.276.973	93,7	6,0	4,79	1.018.968	97,3	2,7	3,82	253.053	79,3	19,2	0,95
Nafarroa	17.453.580	579.231	96,1	3,9	3,32	500.731	98,0	2,1	2,87	74.052	83,5	16,5	0,42
EAE	62.516.910	2.493.674	96,0	3,8	3,99	2.036.766	97,6	2,4	3,26	435.211	88,5	10,5	0,70
Errioxa	7.576.692	250.587	96,1	2,7	3,31	206.634	97,8	2,2	2,73	41.723	87,4	5,4	0,55
Guztira hezk. ez diren adm. (2)		3.289.400	92,4	7,6		2.498.400	93,4	6,5		12.949	96,2	3,7	
Egokitzapen-partidak		-134.462				-353.210							

(1) Banaketa kalkulatzeko, Administrazioak banatu ez duena eta doitze-paratidak kendu zaizkio guztizkoari (2) Beste Ministerio eta Sail batzuk eta tokiko korporazioak biltzen ditu. (3) 100era iristen ez badira, beste partida batzuk daudelako da (finantza aktiboak eta pasiboak).
Iturria: HKKE Espainiako Hezkuntza zenbakitan. 2015eko edizioa eta EIN

Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan ikasle bakoitzeko (zentro publikoa eta itunpekoa) zegoen gastu publikoa 2013an, Lan Heziketa alde batera utzita, 6.475 eurokoa zen 2013an. Beraz, berriz ere zuen gure Erkidegoak ikasle bakoitzeko gasturik handiena zatidura pixka bat jaitsi bazen ere aurreko urtearekiko. Estatuko batez bestekoa 4.569 eurokoa zen eta, beraz, ikasle bakoitzeko gastua EAEn Estatukoa baino %41,7 handiagoa zen.

III.2.13 KOADROA. IKASLEKO GASTU PUBLIKOA UNIBERTSITATEZ KANPOKO IRAKASKUNTZAN (1) AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA

	Ikasle publiko eta itunpeko ikasle bakoitzeko gastua (eurotan)			Ikasle publiko bakoitzeko gastu publikoa (eurotan)		
	2010	2012	2013	2010	2012	2013
Estatua	5.515	4.729	4.569	6.470	5.431	5.231
Andaluzia	4.763	4.307	4.110	5.351	4.851	4.595
Aragoi	5.490	4.778	4.775	6.513	5.557	5.517
Asturias	6.647	5.647	5.667	7.996	6.622	6.615
U. Balearrak	6.068	4.909	4.817	7.372	5.780	5.623
U. Kanariarrak	5.167	4.533	4.524	5.816	5.005	5.031
Kantabria	6.292	5.506	5.534	7.573	6.453	6.474
Gaztela eta Leon	5.986	5.366	5.129	7.412	6.302	6.125
Gaztela-Mantxa	5.902	4.663	4.335	6.427	5.008	4.624
Katalunia	5.409	4.515	4.237	6.481	5.220	4.876
Valentziako E.	5.609	4.507	4.383	6.438	5.048	4.880
Extremadura	5.771	5.140	5.219	6.529	5.747	5.815
Galizia	6.499	5.620	5.562	7.670	6.527	6.423
Madril	4.630	4.015	3.908	5.573	4.671	4.505
Murtzia	5.417	4.643	4.439	6.183	5.195	4.941
Nafarroa	7.131	5.799	5.738	9.058	7.108	6.955
EAE	**7.359**	**6.572**	**6.475**	**10.592**	**9.143**	**9.175**
Errioxa	5.739	4.876	4.730	7.024	5.789	5.530

(1) Ikasleko gastu publikoa hezkuntza sistemako unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetan eta, beraz, lan heziketa alde batera utzita. Lansaio osoko enplegu baliokidea, nazioarteko estatistikan erabilitako metodologiaren arabera.
Iturria: HHKM. Espainiako Hezkuntza zenbakitan. 2015 eta 2016ko edizioa

Zentro publikoen ikasle bakoitzeko gastu publikoa Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan, Lan Heziketa alde batera utzita, 9.175 eurokoa izan zen EAEn 2013. urtean. Beraz, berriz ere dugu gure Erkidegoa ikasle bakoitzeko gasturik handiena duena. Estatuko batez bestekoa 5.231 euro zenez gero, ikasle bakoitzeko batez besteko gastua ikastetxe publikoetan %75,4 handiagoa izan zen EAEn Estatuan baino.

Azterketa bukatzeko, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren gastua, soilik hezkuntza arloan, 2.513,4 milioi eurokoa zen 2014an. Horrenbestez, %4,5eko hazkundea zen aurreko ekitaldiarekiko. Partaidetza hori, Eusko Jaurlaritzaren guztizko gastuan, %25ekoa izan zen, aurreko urteko ratio bera. Gastu hori EAEko BPGaren %3,76 da; 2013an, berriz, %3,65ekoa izan zen.

Hezkuntzan ikasle bakoitzeko eginiko gastuaren ratioa (ikasle guztiak, hots, araubide orokorrekoak unibertsitatekoak eta unibertsitatez kanpokoak- edo berezikoak –Arte plastikoak eta diseinua, hizkuntza, musika, dantza, kirola eta goi-mailako diseinu ikasketak-) igo egin zen 2013 eta 2014 bitartean, 5.014 eurotik 5.218 eurora hain zuzen ere.

Bestalde, 2015eko aurrekontuetan, 2.490,1 milioi eurokoa zen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak soilik hezkuntzarako erabilitako partida. Hots, %1,1ko gehikuntza aurreko urteko aurrekontuko gastuarekiko. Eusko Jaurlaritzaren gastuen aurrekontuan duen partaidetzaren portzentajea %23,4 da. Bestela esanda, EAEko BPGaren %3,62, 2014ko %,68aren aldean.

III.2.14. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAK HEZKUNTZAN LIKIDATURIKO/AURREKONTUAN JASOTAKO GASTUAREN BILAKAERA								
Urteak	Mila euro	Gobernuarena, guztira (mila euro)	EJk likidaturiko gastu guztiarekiko %	BPG mila €	BPGarekiko %	Oinarria: 2008=100	Ikasleak guztira (1)	Ikasleko gastua eurotan
Aurrekontuko likidazioekin								
2010	2.697.631	10.327.556	26,1	67.595.563	3,99	100	458.854	5.879
2012	2.553.288	10.246.437	24,9	66.775.970	3,82	95	471.212	5.419
2013	2.405.343	9.579.464	25,1	65.906.376	3,65	89	479.684	5.014
2014	2.513.394	10.053.537	25,0	66.930.542	3,76	93	481.657	5.218
Aurrekontuekin								
2014	2.463.099	10.215.506	24,1	66.930.542	3,68	91	481.657	5.114
2015	2.490.390	10.638.959	23,4	68.723.511	3,62	92		

(1) Ikasle guztien artean erregimen orokorreko ikasleak eta erregimen bereziko ikasleak sartzen dira. Erregimen orokorreko ikasleen artean unibertsitatez kanpoko ikasleak - zeinen artean hezkuntza bereziko ikasleak eta helduen hezkuntza iraunkorrekoak sartzen baitira- eta unibertsitateko ikasleak daude. Erregimen bereziko ikasleen artean, arte plastikoko eta diseinuko, hizkuntzetako, musikako, dantzako, kiroleko eta diseinuko goi-mailako ikasketetako ikasleak sartzen dira.
(2) Aurrekontuak aurrekontuen likidazioa izan beharrean
Iturria: EUSTATen datuetatik geuk egina, EAEko Kontu Orokorrak, eta azken bi urterako aurrekontuak

2.1.3.3. Hezkuntza-emaitzak.

Egokitasuna ikaslearen adinean

Ikasleen adinaren egokitasuna hezkuntza-sistemaren emaitzen neurketa garrantzitsua da. Neurketa horrek erakusten digu zer ikasle-tasak egiten duen aurrera modu egokian derrigorrezko eskolaldiaren barruan, hau da, zenbatek ikasten duen ikasleari dagokion mailan. Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloen hasiera (8 eta 10 urte) ezartzen duten adinetarako, DBH hasteko adin teorikorako (12 urte) eta etapa horretako azken bi urteekin lotutako adinetarako (14 eta 15 urte) aztertzen da.

Estatistikaren ikuspegitik, adinari doakion mailan matrikulatuta dagoen ikasleriaren ehunekoa da.

HKKMren "*205eko hezkuntza-adierazleen estatuko sistema. 2016ko edizioa*" eta "*Espainiako hezkuntza zenbakitan. 2016ko edizioa*" txostenen arabera:

- Ikasleen egokitasun-tasek behera egiten dute adinean gora egin ahala. Datuek adierazten dutenez, arreta berezia jarri behar da lehen mailetan; izan ere, eskolako atzeraldiak eta, horren ondorioz, egokitasun eza, urteetan zehar metatzen eta areagotzen dira.
- Emakumeen tasak gizonenak baino handiagoak dira, eta aldea handitu egiten da adinarekin.
- Nolabaiteko hobekuntza antzematen da urte gehiago dituzten ikasleen taldean. Hala ere, gizonen %68 baizik ez zeuden 16 urterekin zegokien kurtsoan.
- Autonomia erkidegoen arabera, Asturiasko, Kataluniako eta EAEko egokitasun-tasak 2013-14 ikasturtean handienen artean zeuden aintzat harturiko adin guztietan.

III.2.15. KOADROA. EGOKITASUN-TASAK 8, 10, 12, 14 ETA 15 URTETAN. 2013-14 IKASTURTEA										
	8 urte		10 urte		12 urte		14 urte		15 urte	
	2003-04	2013-14	2003-04	2013-14	2003-04	2013-14	2003-04	2013-14	2003-04	2013-14
BI SEXUAK										
Estatua	94,4	93,7	90,8	89,5	85,0	84,9	70,1	71,0	59,4	63,6
EAE	96,0	94,4	92,8	90,5	88,4	86,8	77,5	77,2	70,3	72,6
GIZONAK										
Estatua	93,4	92,9	89,3	88,2	82,1	82,7	64,3	67,0	53,0	59,0
EAE	95,5	93,4	91,8	89,3	86,4	84,7	72,2	73,1	63,9	68,2
EMAKUMEAK										
Estatua	95,4	94,5	92,5	90,9	88,0	87,3	76,2	75,3	66,0	68,5
EAE	96,5	95,5	94,0	91,8	90,6	89,1	83,0	81,5	77,0	77,4

Iturria: EUROSTAT Espainiako Hezkuntzaren kopuruak. 2016ko edizioa

Eskola-uzte goiztiarra (EUG)[4]

Gehienez bigarren hezkuntzako lehen etapa edo aurreko hezkuntza duten (HNSN 0, 1 eta 2) eta ezelako hezkuntzarik edo prestakuntzarik jarraitzen ez duten 18-24 urte bitarteko pertsonen portzentajea da.

EBren helburu behinena da kopuru hori % 10etik beherakoa izatea 2020. urtean. Espainiak, tasa txikia duenez gero, %15etik behera murrizteko helburua ezarri du.

"*Espainiako hezkuntza zenbakitan. 2016ko edizioa*" txostenaren arabera, %11,2koa zen 2014. urtean hezkuntzaren eta trebakuntzaren uzte-goiztiarraren tasa 28ko EBn, eta beheranzko joera erakutsi zuen. 28ko EBko zortzi herrialdetan aurkitzen ditugu Europako batez bestekotik gorako ehunekoak: Estonia, Hungaria, Erresuma Batua, Bulgaria, Italia, Portugal, Errumania, Malta eta Espainia(%21,9). Gainerako herrialdeek dagoeneko betea dute %10eko Europako helburua, 2020rako ezarria.

III.2.16. KOADROA. ESKOLA-UZTE GOIZTIARRA EUROPAN									
	GUZTIRA			GIZONAK			EMAKUMEAK		
	2004	2009	2014	2004	2009	2014	2004	2009	2014
28KO EB	16,0	14,2	11,2	18,3	16,1	12,8	13,7	12,3	9,6
Alemania	12,1	11,1	9,5	12,2	11,5	10,0	11,9	4,8	2,3
Austria	9,8	8,8	7,0	10,5	8,6	7,6	9,1	21,1	18,3
Belgika	13,1	11,1	9,8	15,4	12,8	11,8	10,8	10,7	8,9
Bulgaria	21,4	14,7	12,9	22,2	13,7	12,8	20,6	8,9	6,5
Kroazia	20,6	11,7	6,8	27,2	15,2	11,2	14,9	10,5	6,6
Zipre	5,4	5,2	2,7	6,2	5,5	3,1	4,6	9,0	7,2
Danimarka	8,8	11,3	7,8	10,5	14,3	9,5	7,1	15,8	12,9
Eslovenia	4,3	5,3	4,4	6,0	7,2	6,0	2,5	5,2	5,2
Espainia	32,2	30,9	21,9	39,0	37,4	25,6	25,0	24,1	18,1
Estonia	13,9	13,5	11,4	20,0	17,9	15,3	7,9	8,7	2,9
Finlandia	10,0	9,9	9,5	12,5	10,7	11,9	7,5	14,5	10,7
Frantzia	12,3	12,4	9,0	14,2	14,5	10,2	10,5	9,1	7,5
Grezia	14,5	14,2	9,0	17,7	17,9	11,5	11,3	3,2	2,7
Hungaria	12,6	11,5	11,4	13,6	12,2	12,5	11,5	11,0	5,1
Irlanda	13,1	11,7	6,9	16,0	14,7	8,0	10,0	8,1	6,1
Italia	23,1	19,1	15,0	27,0	21,8	17,7	19,2	10,3	7,9
Letonia	15,9	14,3	8,5	21,0	17,6	11,7	10,8	10,8	10,3
Lituania	10,3	8,7	5,9	11,9	11,6	7,0	8,6	8,6	5,7
Luxenburgo	12,7	7,7	6,1	12,6	8,9	8,3	12,7	16,2	12,2
Malta	42,1	25,7	20,3	44,3	30,1	22,2	39,8	5,8	4,6
Holanda	14,1	10,9	8,7	16,4	13,1	10,6	11,7	6,6	3,7
Polonia	5,6	5,3	5,4	7,3	6,6	7,3	3,9	8,6	6,8
Portugal	39,3	30,9	17,4	47,6	35,8	20,7	30,9	3,9	3,3
Txekiar E.	6,3	5,4	5,5	6,1	5,5	5,8	6,6	9,3	7,7
Eslovakiar E.	6,8	4,9	6,7	7,3	5,7	6,9	6,3	4,1	6,6
Erresuma Batua	12,1	15,7	11,8	13,0	16,9	12,8	11,2	6,0	6,0
Errumania	22,4	16,6	18,1	23,7	16,1	19,5	21,1	25,8	14,1
Suedia	9,2	7,0	6,7	10,6	8,0	7,3	7,8	17,2	16,7
EAE	**13,8**	**16,6**	**9,4**	**18,7**	**21,7**	**11,8**	**8,5**	**11,5**	**7,0**

Kontzeptu eta definizio bateratuak edota urteko batez bestekoekin eginiko kalkulu berrietarako trantsizioa dela-eta, datu horiek ez datoz bat 2009ko azaroa baino lehen argitaraturikoekin
Iturria: EUROSTAT Espainiako Hezkuntza zenbakitan. 2016ko edizioa

Sexuaren aldetik, aurreko urteetan legez, uzte-tasa handiagoa zen gizonen artean emakumeen artean baino herrialderik gehienetan.

42014tik aurrera, CNED-2014 berria aplikatzean da, Hezkuntzako Nazioarteko Sailkapen Normalizatua 2011 (HNSN-2011).

"*2015eko hezkuntzako adierazleen estatuko sistema*" txostenaren arabera, EUG tasa %21,9koa zen 2014. urtean, hots, aurreko urtean baino %1,7 txikiagoa.

Txosten horren arabera, Helduen ikasketa maila neurri handi batean biztanleek hezkuntza sistemari buruz dauzkaten itxaropenak baldintzatzen dituen eragilea da, eta ondorioz hezkuntzaren plangintzan eta lan jardueran eragingo du. Hala, goi-mailako ikasketak dituzten amak dituzten gazteen uzte-tasa, 2014an, %3,7an kokatu zen, eta %11,4raino bigarren hezkuntzako bigarren etapa hartzen bazen kontuan; bigarren hezkuntzako lehen etapan, berriz, batez bestekotik pixka bat gorako ehunekoak genituen, %23,1, eta nabarmen handiago lehen hezkuntzan edo maila txikiagokoan, %41,1 hain zuzen. 2009an, %7,1, %15,6, %28,8 eta %44,3koak izan ziren hurrenez hurren. Beraz, jaitsierak proportzioan handiagoak dira amaren prestakuntza maila handitzen den neurrian.

Autonomia erkidegoei dagokienez, nabarmentzekoa da EAEk izatea eskolako uzte-tasarik txikiena, %9,4koa, halako moldez non 2014rako lortua zuen 2020rako Europako helburua.

2014an, EAEko uzte-tasa, herrialderik eta autonomia erkidegorik gehienetan bezala, nabarmen handiagoa zen gizonen artean (%11,8) emakumeen artean baino (%7). Izan ere, Europako helburua lortu da EAEn emakumeek duten bilakaera onagatik: %7ko uzte-tasa 2014. urtean, zeren eta mutilen tasak Europako helbururako ezarritako %10ekoa baino %1,8 handiagoa baita.

Graduazio-tasa bigarren hezkuntzako bigarren etapa ikasketetan

Gizarte garatuek prestakuntza maila handiko gero eta jende gehiago behar dute eta, beraz, hezkuntza sistemak ikasketen jarraipena sustatu behar du nahitaezko ikasketak bukatutakoan.

Adierazle honetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondoko graduazio-tasak aztertuko dira. Bi irakaskuntza mota ditugu arlo horretan: Batxilergoa eta Gradu Ertaineko Lanbide Heziketa, Batxilergo eta teknikari tituluetarako bidea ematen dutenak hurrenez hurren.

Arestian aipatu dugunez, gradu ertaineko irakaskuntza da Lanbide Heziketa, teorian 16 urterekin hasi beharrekoa Batxilergoaren alternatiba gisa, eta 18 urterekin goi-mailako graduan, hezkuntza tertziarioaren edo maila handiagoko hezkuntzaren baitan.

III.2.17. KOADROA. BIGARREN HEZKUNTZAKO BIGARREN ETAPAN GRADUATZEN DEN (BATXILERGOA ETA GRADU ERTAINEKO LH) BIZTANLEEN TASA GORDINA, AA.EE. ETA SEXUAREN ARABERA, 2012-13

	BATXILERGOA			GRADU ERTAINEKO LH		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Estatua	53,4	46,9	60,3	21,7	21,2	22,1
Andaluzia	50,1	43,7	57,0	20,4	19,4	21,6
Aragoi	53,2	49,3	57,4	20,8	24,0	17,4
Asturias	64,3	56,9	72,0	30,2	28,6	31,8
Illes Balears	39,7	33,2	46,4	18,6	17,8	19,4
U. Kanariarrak	51,9	44,9	59,2	21,1	20,6	21,7
Kantabria	55,4	49,8	61,5	30,5	28,8	32,5
Gaztela-Leon	58,2	51,9	64,9	22,0	23,1	20,8
Gaztela-Mantxa	48,4	41,2	58,1	20,2	19,5	20,9
Katalunia	49,8	42,7	57,5	24,9	25,6	24,2
Valentziako E.	48,5	41,5	56,0	29,5	28,6	30,4
Extremadura	52,4	44,8	60,4	20,1	18,7	21,6
Galizia	59,5	52,2	67,2	26,7	26,8	26,5
Madril	62,0	56,9	67,3	15,5	15,7	15,2
Murtzia	51,3	45,6	57,2	17,4	17,0	17,8
Nafarroa	58,3	51,1	65,8	18,8	21,7	15,8
EAE	**69,3**	**62,2**	**77,0**	**25,0**	**29,0**	**20,7**
Errioxa	51,7	41,9	61,8	23,2	23,2	23,2
Ceuta	38,8	33,9	43,6	18,5	22,8	14,3
Melilla	41,6	34,6	49,6	13,7	13,8	13,7

Iturria: HKKM. Hezkuntzaren adierazleen estatuko sistema 2015

Honelaxe definitzen da bigarren hezkuntzako bigarren etapako ikasketen graduazio-tasa estatistikaren aldetik: aintzat harturiko derrigorrezko irakaskuntzaren ondoko irakaskuntza bakoitzean graduaturiko pertsonen kopuruaren eta irakaskuntza horiek hasteko "adin teorikoa" duten biztanle guztien arteko erlazioa. Alabaina, ez du zertan bat etorri "gainditueen" tasarekin.

"*2015eko hezkuntza adierazleen estatuko sistema*" txostenaren arabera, Espainian alde handia dago Batxilergoko graduatuen tasaren (%53,4) eta gradu ertaineko prestakuntza zikloko (%21,7) graduatuen artean, 2012-13 ikasturteko datuak ikusita. Batxilergoko tasa gordinik altuena duen autonomia erkidegoa EAE da (%69,3), ondoren Asturiasko Printzerria (%64,3). Gradu Ertaineko Lanbide Heziketan, Kantabria (%30,5), Asturias (%30,2), Valentziako Erkidegoa (%29,5), Galizia (%26,7) eta EAE (%25) nabarmentzen dira.

Batxilergoan graduaturiko emakumeen tasa gizonezkoena baino handiagoa da, estatu mailan (13,4 puntuko aldea) nahiz autonomia erkidegoen aldetik. Gradu ertaineko prestakuntza zikloetan, titulua dutenen estatuko tasa ere handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino. Aragoin, Nafarroan, EAEn eta Ceutan gizonezkoen graduazio-tasa emakumezkoena baino handiagoa da, 5 puntu hain zuzen ere. Alderik handiena hain zuzen ere EAEn dago, 8 puntutik gorako aldea emakumeen alde.

2002-03 eta 2012-13 ikasturte artean, gradu ertaineko prestakuntza zikloko tituludunen bilakaera, Estatuan, etengabeko hazkunde izan zuen; 2012-13 ikasturtean, berriz, %0,7ko jaitsiera izan zuen aurreko ikasturtearen aldean.

ELGAk "*2015eko hezkuntza adierazleen estatuko sistema*" bildutako datuen arabera, 2012an bigarren etapako bigarren irakaskuntza orokorrek[5] zortzigarren tokia zuten Espainian azterturiko Europako 21 herrialdeetatik, %52,1 graduaturekin, eta ELGAko batez bestekoa baino pixka bat gorago (%51,7); tasarik altuenak Grezian, Hungarian eta Irlanda zeuden. Lanbide edo lanbide aurreko irakaskuntzetan[6], Espainian graduatuen tasa %33,2koa izanik, ELGAko batez bestekoaren gainetik zegoen (%39,7); gorago Grezia, Frantzia, Hungaria eta Estonia baizik ez zeuden.

Arestian esana dugunez, 2012-2013 ikasturtean,

- Batxilergoko graduatuen tasa %53,4koa zen Estatuan eta %69,3koa EAEn (autonomia erkidegoetako tasarik altuena). Hortaz, gure Erkidegoa Estatuko eta ELGAko batez bestekoaren gainetik legoke bigarren etapako bigarren irakaskuntza orokorren graduazio-tasan.

- Bestalde, Gradu Ertaineko Lanbide Heziketako graduatuen tasa %21,7koa zen Estatuan eta %25ekoa EAEn (aurretik Kantabria (%30,5), Asturias (%30,2), Valentziako E. (%29,5) eta Galizia (%26,7) zeuden). Horrenbestez, gure Erkidegoa tasarik handiena duen bosgarren autonomia erkidegoa izango litzateke, baina ELGAko batez bestekoaren azpitik lanbide eta lanbide aurreko (gradu ertaina) irakaskuntzen aldetik).

5 Programa orokorrak HSNN 3A kategorian sailkatu ohi dira, zeren eta unibertsitateko irakaskuntza eskuratzera bideratuta baitaude.
6 Programa profesionaletan, 3A, 3B eta 3C luzea kategoriak sartzen dira. 3A ere sartzen bada, zenbait herrialdetan maila hori profesionala baita.

Gradu ertaineko eta goi-mailako graduko Lanbide Heziketako prestakuntza zikloetako graduazio-tasa

Arestian esana dugunez, "*2015eko hezkuntza adierazleen estatuko sistema*" txostenaren arabera, 2012-13 ikasturtean autonomia erkidego hauetan izan ziren gradu ertaineko prestakuntza zikloetako titulazio-tasarik handienak: Kantabrian (%30,5), Asturiasen (%30,2), Valentziako Erkidegoan (%29,5) eta Galizian (%26,7).

Alabaina, goi-mailako graduan nabarmen goitik zeuden EAE (%39,4), ondoren Asturias (%33,0) eta Valentziako E. (%32,2), Galizia (%29,5), Kantabria (%28,8) eta Katalunia (%28,5).

Horrenbestez, gure Erkidegoak estatuko graduazio-tasarik altuena du goi-mailako lanbide irakaskuntzetan.

Helduen ikasketa maila.

Hezkuntza sistemaren gaineko igurikapenak eta motibazioak baldintzatzen dituen faktorea da helduen prestakuntza maila, eta hezkuntzako plangintzan eta lan-jardueran du eragina.

Oso garrantzizkoa da biztanleria horren prestakuntza mailaren bilakaera zein den jakitea, zeren eta, AETen azterlanean eta bestelako ebaluazio azterlanetan adierazi dugunez (PISAn esaterako), erlazio estua baitago gurasoen prestakuntza mailaren eta seme-alabek hezkuntza sisteman dituzten emaitzen eta igurikapenen artean. Horrez gain, prestakuntza maila oso garrantzitsua da maila hori dutenentzat, garapen profesionalean eta pertsonalean duen eragina ikusita.

Estatistikaren aldetik, prestakuntza maila jakin bat osatu duten helduen (25-64) prestakuntzaren ehunekoa da.

ELGAk argitaraturiko eta ondoko taulan bildutako datuen arabera, 2014an, estatuko 25-63 urte bitarteko biztanleen %43,3k zuen bigarren etapako bigarren hezkuntzatik beherako ikasketa maila (%44,3k 2012an), %21,9 Bigarren Hezkuntzako bigarren etapara iritsia zen (2012ko ratio bera) eta %34,7k goi-mailako ikasketak zituen (%33,7k 2012. urtean).

Herrialdeen araberako azterketak erakusten duenez, Portugal, Espainia, Italia eta Grezia zeuden bigarren hezkuntzako 2. etapa gaindituta zeukaten 25-64 urte bitarteko biztanleen portzentajerik txikiena zuten herrialdeen artean. Portugal, %43,3rekin (%21,6+%21,7); Espainia, %56,6rekin (%21,9+%34,7); Italia, %59,3rekin (%42,2+%16,9); Grezia, %68,3rekin (%40,2+%28,1). Beste muturrean, Txekiar Errepublikak %93,2 zuen, Estoniak %91,1, Eslovakiar Errepublikak %90,8, Poloniak %90,5, Alemaniak %86,9 eta Finlandiak %86,5.

EAE, %68,4ko tasa izanik (%21,4+%47), toki hobean dago, baina portzentajea oso urruti zegoen aurreko lerroaldean aipaturiko herrialdeek lortutako mailatik. Azterketa sakonagoa eginez, taulako datuei erreparatuta, 2. etapako hezkuntza mailarik handia duen (HNSN) eta hezkuntza tertziariora iristen ez den hezkuntza maila txikiagoa da, konparazioz, gure Erkidegoan.

III.2.1. GRAFIKOA. BIGARREN HEZKUNTZAKO 2. ETAPA GAINDITU DUTEN 25-64 URTE BITARTEKOAK (%)



Iturria: 2014ko hezkuntzaren egoera. ELGAren adierazleak Espainiako hezkuntza zenbakitan. txostenean. 2016ko edizioa.

III.2.18. KOADROA. HELDUEN EHUNEKOEN BANAKETA, PRESTAKUNTZA MAILAREN ETA ADIN-TALDEEN ARABERA. 2014

	DBHko 2. etapa baino maila txikiagoa			DBHko 2. etapa (2) (HNSN 3)			Goi-m. irakaskuntza		
	25 - 64 urte	25 - 34	55 - 64	25 - 64	25 - 34	55 - 64	25 - 64	25 - 34	55 - 64
ELGAko her. b.b.	23,6	16,8	33,8	42,7	42,4	41,1	33,6	40,8	25,1
Europar Batasuna-21 herrialde (1)	21,7	15,0	32,0	46,6	45,5	45,0	31,7	39,5	23,1
Alemania	13,1	12,7	14,2	59,8	58,9	60,3	27,1	28,4	25,5
Austria	16,1	10,0	24,8	54,0	51,6	53,8	29,9	38,4	21,3
Belgika	26,4	17,7	41,3	36,7	38,0	32,3	36,9	44,2	26,3
Danimarka	20,4	17,8	28,4	43,8	40,0	42,6	35,8	42,1	29,1
Eslovenia	14,3	6,1	25,4	57,1	55,8	56,6	28,6	38,1	17,9
Espainia	43,4	34,4	61,4	21,9	24,1	17,4	34,7	41,5	21,2
Estonia	8,9	11,0	7,8	53,6	48,6	56,6	37,5	40,4	35,7
Finlandia	13,5	9,8	22,8	44,7	49,9	43,0	41,8	40,3	34,2
Frantzia	25,2	14,7	39,0	42,7	41,2	40,7	32,1	44,1	20,3
Grezia	31,7	18,3	50,2	40,2	43,0	28,7	28,1	38,7	21,1
Hungaria	16,9	13,0	22,8	59,7	54,9	60,3	23,4	32,1	16,9
Irlanda	21,2	9,9	41,1	37,8	39,3	34,6	41,0	50,8	24,3
Italia	40,7	26,2	53,9	42,4	49,7	33,8	16,9	24,2	12,3
Luxenburgo	18,0	13,1	26,9	36,0	33,9	41,4	45,9	52,9	31,7
Holanda	24,1	14,8	35,1	41,5	40,9	38,0	34,4	44,3	26,9
Polonia	9,5	5,8	15,8	63,5	51,6	70,5	27,0	42,6	13,7
Portugal	56,7	35,3	77,1	21,6	33,2	10,0	21,7	31,4	12,8
Txekiar E.	6,8	5,4	12,4	71,7	64,7	72,4	21,5	29,9	15,1
Eslovakiar E.	9,2	7,5	15,5	70,5	62,6	70,6	20,4	29,8	13,9
Erresuma Batua	20,8	13,8	28,7	36,9	37,1	36,5	42,2	49,2	34,8
Suedia	18,4	18,2	26,3	42,9	35,9	43,8	38,7	46,0	29,9
EAE	**31,6**	**19,8**	**48,8**	**21,4**	**22,6**	**21,4**	**47,0**	**57,6**	**29,8**

(1) Barne daude EBko 21 herrialdeak, ELGAren barruko hemeretziak eta bi elkartu (Eslovenia eta Estonia)
(2) Bazter utzi ditu HNSN 3C mailako programa laburrak.
Iturria: Hezkuntzaren egoera 2014. ELGAren adierazleak HKKMen. Espainiako Hezkuntza zenbakitan. 2016ko edizioa

Zientzia eta Teknologiako goi-mailako hezkuntzako graduazio-tasa 20-29 urteko 1.000 biztanleko

EBk ez du 2020rako erreferentzia punturik adierazle honetan, baina, hala ere, Adierazleen Estatuko Sisteman mantentzen da, herrialdearen garapen zientifikoa eta produktiboa neurtzeko argienetakoa baita.

Estatistikaren aldetik, honelaxe definitzen da Zientzietan, Matematikan eta Teknologian graduaturikoen tasa gordina: irakaskuntza horiek Goi-mailako Lanbide Heziketan eta Unibertsitate Irakaskuntzan bukatzen dituzten ikasleen eta 20-29 urteko guztizko biztanleriaren arteko erlazioa, hori guztia bider mila eginda.

EUROSTATen datuen arabera, Espainiako ratioa hobetuz joan arretan eta, 2013an milako 19 izatea lortu arren, oso urruti zegoen ratioa beste herrialde batzuetatik, esaterako: Erresuma Batua (milako 23), Frantzia (milako 22,9 2008an) Austria (milako 21,8) Finlandia (milako 21,6), Irlanda (21,6) eta Lituania (21,3).

III.2.19. KOADROA. ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO GRADUATUAK

	GUZTIRA			GIZONAK			EMAKUMEAK		
	2004	2009	2013	2004	2009	2013	2004	2009	2013
28KO EB	12,4	14,6	17.1*	16,9	19,5	..	7,9	9,5	..
Alemania	9,0	13,5	17,2	13,4	18,3	24,4	4,3	8,6	9,7
Austria	8,7	14,0	21,8	13,4	21,1	32,2	4,0	6,8	11,1
Belgika	11,2	12,0	13,0	16,6	17,5	19,5	5,7	6,6	6,4
Bulgaria	8,5	10,8	14,1	9,6	13,0	16,9	7,2	8,4	11,2
Kroazia	4,3	4,7	8,2	5,5	5,9	10,1	3,2	3,5	6,4
Zipre	5,8	13,5	15,5	7,5	17,4	20,1	3,9	9,4	10,7
Danimarka	13,8	15,2	19,9	18,6	19,1	25,3	9,0	11,2	14,2
Eslovenia	9,3	11,3	19,1	13,6	16,2	25,5	4,8	6,0	12,3
Espainia	12,3	12,4	19,0	16,7	16,9	26,7	7,6	7,8	11,3
Estonia	8,9	11,4	14,2	10,3	13,4	17,3	7,4	9,3	10,9
Finlandia	17,9	19,0	21,6	24,6	26,3	30,7	10,9	11,3	12,0
Frantzia	..	20,4	22,9	..	29,3	31,8	..	11,6	13,9
Grezia	8,0	..	15,4	9,2	..	18,6	6,7	..	12,1
Hungaria	5,1	7,5	10,3	7,1	10,4	14,4	2,9	4,4	5,9
Irlanda	23,3	16,4	21,6	32,0	23,0	33,6	14,6	10,0	10,0
Italia	10,9	..	13,5	13,6	..	15,8	8,2	..	11,0
Letonia	9,7	10,7	13,2	12,9	14,2	17,8	6,4	6,9	8,3
Lituania	18,1	21,2	21,3	23,2	29,2	30,5	13,0	13,0	11,6
Luxenburgo	..	..	3,6	..	..	4,9	..	..	2,3
Malta	..	7,2	15,0	..	9,7	20,6	..	4,6	8,9
Holanda	7,9	8,9	9,5	12,6	14,2	14,3	3,1	3,6	4,7
Polonia	9,4	14,3	..	12,4	17,4	..	6,4	11,0	..
Portugal	9,0	15,4	21,0	10,7	19,5	25,4	7,3	11,2	16,6
Txekiar E.	7,4	15,6	16,9	10,2	20,9	22,2	4,4	10,0	11,4
Eslovakiar E.	9,3	17,8	17,6	11,7	22,6	22,0	6,7	12,8	13,0
Erresuma Batua	18,0	17,5	23,0	24,7	24,2	28,6	11,2	10,8	17,3
Errumania	10,4	24,0	16,8	12,6	30,0	19,3	8,1	17,7	14,0
Suedia	15,9	13,0	14,7	20,6	17,1	19,4	11,0	8,7	9,7

** 2012ko datua*
Iturria: EUROSTAT Espainiako Hezkuntza zenbakitan. 2016ko edizioa

Bestalde, Zientzia eta Teknologiako Goi-mailako Hezkuntzako graduazio-tasa, 2011-12 ikasturtean (argitaraturiko azken datuak) gure Erkidegoan milako 24an kokatzen zen. Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzak eta unibertsitate irakaskuntzak bereizita ikusten denez, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetan graduaturiko pertsonak (goi-mailako prestakuntza zikloak) milako 6,9 ziren eta unibertsitatekoak milako 17,1. Hona hemen estatuko batez bestekoak: milako 2,8 eta milako 13. Sexuaren araberako graduazio-datuak aztertuz gero, antzematen da alde handiak daudela heziketa-zikloetan eta unibertsitate-irakaskuntzetan , gizonezkoen alde.

III.2.20. KOADROA. ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO GRADUATUAK. ***2011-12 ikasturtea***
(Zientzia eta Teknologiako graduatuen kopurua 1.000 biztanleko 20-29 urte bitarteko biztanleen artean)

	Goi-m. irakaskuntza			Gradu goreneko prestakuntza zikloak			Unibertsitateko irakask.		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Estatua	15,8	20,9	10,5	2,8	4,7	0,9	13,0	16,2	9,6
EAE	**24,0**	**31,9**	**15,7**	**6,9**	**11,3**	**2,3**	**17,1**	**20,6**	**13,4**

Iturria: EUROSTAT Espainiako Hezkuntza zenbakitan. 2015eko edizioa

Langabezia-tasa prestakuntza mailaren arabera

Herrialde bateko biztanleek lortutako prestakuntza maila hezkuntza sistemako emaitza behinen barruan sartzen da, baina, aldi berean, eragina du pertsonek lana eskuratzerakoan, eta hori sistemaren epe luzerako emaitzatzat edo inpaktutzat har daiteke.

Estatistikaren aldetik, honelaxe definitzen da: 25-64 urte bitarteko langabetuen portzentajea adin horretako biztanleria aktiboarekiko, osaturiko prestakuntza mailen arabera.

Lan-merkatuaren beharren eta prestakuntza maila bakoitzeko lan-eskuaren eskaintzaren araberakoak dira hezkuntza maila desberdinak dituzten pertsonek enpleguaren aldetik dituzten igurikapenak, baina oro har, langabezia-tasa jaitsi egiten da hezkuntza maila handiagoa denean. Hala, HKKMren "*2015eko hezkuntza adierazleen estatuko sistema*" txostenaren arabera, 2014an, goi-mailako ikasketak zituzten biztanleen langabezia-tasa nabarmen txikiagoa zen soilik Bigarren Hezkuntzako lehen etapa lortu zuten pertsonena baino.

III.2.21. KOADROA. LANGABEZIA-TASAK, PRESTAKUNTZA MAILAREN ADINAREN, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ETA SEXUAREN ARABERA. 2014

		GUZTIRA	DBH edo maila txikiagoa	DBHko bigarren etapa	Goi-m. hezkuntza
		25-64 urte	25-64 urte	25-64 urte	25-64 urte
Estatua	Gizona	21,5	30,1	19,4	12,3
	Emakumea	23,4	33,3	24,1	15,2
Andaluzia	Gizona	30,2	39,2	23,3	18,0
	Emakumea	35,4	47,3	33,5	22,3
Aragoi	Gizona	16,2	21,7	19,9	7,4
	Emakumea	20,4	28,3	21,3	14,7
Asturias	Gizona	19,2	28,0	16,4	12,9
	Emakumea	21,1	29,2	19,5	17,4
Balearrak	Gizona	19,8	25,1	18,4	10,8
	Emakumea	16,3	21,0	14,3	13,1
U. Kanar.	Gizona	30,0	38,4	24,9	18,0
	Emakumea	31,2	38,0	32,9	22,5
Kantabria	Gizona	18,5	24,5	18,8	12,3
	Emakumea	17,7	27,3	17,4	12,6
Gaztela Leon	Gizona	17,5	23,4	15,7	11,2
	Emakumea	21,0	29,0	19,9	15,8
Gaztela Mantxa	Gizona	23,1	29,4	19,0	13,9
	Emakumea	30,5	42,3	27,5	20,0
Katalunia	Gizona	18,5	27,0	15,7	10,5
	Emakumea	18,0	26,1	20,0	11,0
Valentziako E.	Gizona	22,6	28,9	20,3	15,4
	Emakumea	24,7	31,7	26,8	16,7
Extremadura	Gizona	25,0	32,3	15,7	14,8
	Emakumea	31,1	42,4	27,6	18,7
Galizia	Gizona	20,1	27,1	17,8	12,2
	Emakumea	20,3	25,3	20,8	16,0
Madril	Gizona	16,1	24,4	20,3	9,9
	Emakumea	17,4	25,4	20,9	12,1
Murtzia	Gizona	22,6	27,6	23,0	13,6
	Emakumea	26,9	35,3	25,7	16,9
Nafarroa	Gizona	13,0	19,8	14,0	7,2
	Emakumea	14,7	22,8	16,5	9,5
EAE	**Gizona**	**15,2**	**25,2**	**17,4**	**8,4**
	Emakumea	**14,9**	**22,4**	**17,7**	**10,6**
Errioxa	Gizona	13,7	19,5	12,8	8,5
	Emakumea	19,5	27,9	23,9	11,5
Ceuta Melilla	Gizona	24,4	43,6	12,1	7,1
	Emakumea	31,5	46,9	25,9	15,0

Iturria: HHKM.Hezkuntzaren adierazleen estatuko sistema 2015

Hona hemen, lehenik eta behin, langabezia-tasaren eta prestakuntza mailaren arteko erlazioaren ondorioak: prestakuntza maila handieneko pertsonek langabezia-tasa txikiagoa dute, gizonezkoetan nahiz emakumezkoetan eta autonomia erkidego guztietan. Bigarrenik, EAEk ditu, Nafarroaren atzetik, langabeziaren daturik onenak, eta bereziki nabarmentzekoa da Goi-mailako Hezkuntzako biztanleen artean erregistraturiko langabezia-tasetan duen posizioa.

2.2. KULTURA

2.2.1. Finantzaketa eta gastua kulturan

Kulturaren sektoreak EAEko ekonomian eta gizartean duen pisua zenbatesteko, zeharkako iturriak erabiltzen dira, hain zuzen ere Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak argitaratzen duen "*Kultura Estatistiken Urtekaria*" delakoaren bidez[7].

Urtekari horretan, Estatuko Administrazio Orokorrak, Administrazio Autonomoak eta Tokiko Erakundeek (Udalak eta aldundiak, kontseiluak edo kabildoak) kulturaren arloan eginiko gastu publikoari eta finantzaketari buruzko informazioa dakarren kapitulua bildu da.

Bestalde, Kultura Ministerioaren Urtekariak kulturako gastu publikotzat hartzen du "*herri administrazioek, aintzatetsitako obligazioen aldian, kulturarako erabilitako gastu likidatua eta, beraz, finantza-emailearen arabera izango da gastu publikoa edo pribatua, eta ez hartzailearen arabera*". Zenbait kultur erakunde publikok izan ditzaketen sarrera pribatuak ez dira kentzen, museoek egiten dituztenak adibidez. Enpresek edo partikularrek kultur erakunde publikoei emandako babesengatik, dohaintzengatik, etab. izan ditzaketen balizko zerga-arintzeak ere ez dira sartzen kulturako gastutzat.

III.2.22. KOADROA. ADMINISTRAZIO AUTONOMIKOEK KULTURAN LIKIDATURIKO GASTUA, AUTONOMIA ERKIDEGOKA.

	Balio absolutuak (milioi €)		Estatuko kulturan likidaturiko gastuaren %-a		AA.EEn likidaturiko guztizko gastuaren %-a			BPGaren %-a			Biztanleko batez besteko gastua (€)		
	2012	2013	2012	2013	2011	2012	2013	2011	2012	2013	2011	2012	2013
Estatua, guztira	1.273,8	1.071,1	100	100	0,85	0,70	0,62	0,14	0,12	0,10	31,8	27,2	22,9
Andaluzia	194,2	175,0	15,2	16,3	0,62	0,61	0,6	0,13	0,14	0,12	22,2	23,2	20,8
Aragoi	20,2	18,7	1,6	1,7	0,50	0,40	0,4	0,08	0,06	0,06	20,1	15,1	14,0
Asturias	27,8	27,4	2,2	2,6	1,25	0,68	0,7	0,23	0,13	0,13	48,7	25,8	25,7
Balearrak	9,9	10,5	0,8	1	0,30	0,23	0,3	0,04	0,04	0,04	9,1	8,9	9,5
U. Kanariarrak	18,2	27,7	1,4	2,6	0,51	0,26	0,4	0,08	0,05	0,07	16,8	8,7	13,2
Kantabria	18,3	18,3	1,4	1,7	0,89	0,76	0,9	0,15	0,15	0,15	33,3	30,8	31,0
Gaztela Leon	69,0	61,5	5,4	5,7	0,89	0,66	0,7	0,14	0,13	0,11	31,7	27,2	24,4
Gazt.-Mantxa	32,3	27,7	2,5	2,6	0,88	0,34	0,4	0,24	0,09	0,07	42,7	15,3	13,2
Katalunia	283,3	241,7	22,2	22,6	0,92	0,82	0,6	0,16	0,15	0,12	43,4	37,7	32,3
Valentziako E.	152,0	100,5	11,9	9,4	1,06	0,88	0,7	0,16	0,16	0,10	31,8	30,3	20,1
Extremadura	40,3	39,4	3,2	3,7	1,21	0,88	0,9	0,35	0,25	0,23	55,0	36,5	35,7
Galizia	97,2	67,7	7,6	6,3	0,99	1,01	0,7	0,17	0,18	0,12	34,0	35,1	24,5
Madril	115,9	82,7	9,1	7,7	0,66	0,54	0,4	0,06	0,06	0,04	18,6	18,0	12,9
Murtzia	26,9	21,1	2,1	2	0,72	0,51	0,5	0,12	0,10	0,08	22,5	18,4	14,4
Nafarroa	36,4	30,7	2,9	2,9	1,43	1,00	0,8	0,31	0,20	0,17	89,2	56,8	48,1
EAE	**107,9**	**95,6**	**8,5**	**8,9**	**1,06**	**1,05**	**1,0**	**0,16**	**0,17**	**0,15**	**49,6**	**49,4**	**43,9**
Errioxa	9,4	9,7	0,7	0,9	0,84	0,76	0,6	0,13	0,12	0,12	31,8	29,2	30,3
Ceuta	5,1	5,7	0,4	0,5	2,78	1,77	2,5	0,44	0,35	0,37	82,5	61,0	67,6
Melilla	9,8	9,4	0,8	0,9	4,61	4,21	4,2	0,81	0,75	0,67	139,1	119,6	112,4

Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. Kultur Estatistiken Urtekaria 2015

Euskal Autonomia Erkidegoak, 2013an, kulturan likidatutako gastua, Kultura Ministerioaren datuen arabera, 95,6 milioi eurokoa izan zen, 2012an baino 12,3 milioi gutxiago. Horrek esan nahi du %11,4 jaitsi dela. Gastu horrek Estatuko Administrazio Autonomikoek, 2013an, kulturan likidatu zuten gastu osoaren %8,9 hartu du (%8,5 aurreko urtean) eta Eusko Jaurlaritzak urte horretan egindako gastu osoaren %1 (%1,1 aurreko urtean). Gainera gure erkidegoko BPGaren % 0,15 da. Horrek esan nahi du kulturak gurean beste Autonomia Erkidegoetan baino pisu handiagoa duela, batez beste %

7Hona hemen ikerketa honen eremuan sartutako kultur sektoreak: Kultur ondasunak eta zerbitzuak (Monumentu historikoak, museoak, aztarnategi arkeologikoak, artxiboak eta liburutegiak); Arte plastikoak eta eszenikoak (Erakusketak, argazkigintza, musika, dantza eta antzerkia); Liburuak eta ikus-entzunezkoak (Zinema, bideoa eta musika grabatua); arloen artekoa (Kulturaren sustapena eta zabalkundea, administrazioa eta zerbitzu orokorra, hizkuntza politika).

0,1 izaten baita gainerako erkidegoetan. Adierazle honetan buruan ageri diren erkidegoak Extremadura eta Nafarroa dira, betiere, dituzten ezaugarri bereziengatik Ceuta eta Melilla kanpoan utziz gero. Biztanleko egin den gastuari dagokionez, EAEn kopuru hori 43,9 eurora iritsi zen 2013an, 2011n baino 5,5 gutxiago, eta kopuru hori Estatu osoko batez bestekoa baino altuagoa da (22,9 €).

2.2.2. Familien gastua kulturaren kontsumoan

Kultura Ministerioaren datuen arabera, euskal etxeek kultura ondasun eta zerbitzuetan egindako gastua, 2014. urtean, 674,6 milioi eurokoa izan zen, 2013an baino 17 milioi euro gutxiago. Horrek %2,5eko murriztapena ekarri zuen. Gastu hori EAEko ondasun eta zerbitzuetan eginiko gastuaren %2,4 da, autonomia erkidego guztien batez besteko portzentaje bera. Adierazle honen buruan kokatzen diren erkidegoak Aragoi (%2,8), Katalunia (%2,7), eta U. Kanariarrak eta Kantabria dira (%2,6arekin bakoitza).

Familia bakoitzeko batez besteko gastuari dagokionez, hirugarren postuan dago EAE 2014an, 754,6 eurorekin (aurreko urtean baino -%3), Nafarroaren (823,9) eta Madrilen (772,7) atzetik. Pertsona bakoitzeko batez besteko gastuari dagokionez, EAEn kopuru hori 315,6 -ra iritsi zen 2014. urtean, 2013. urtean baino % 2,1 gutxiago. Kopuru hori Estatuko batez bestekoan igarritako kopurua baino %21,3 gehiago da, eta EAE jartzen du gehien gastatzen duen bigarren erkidego gisa, Kataluniaren (326) atzetik.

Kasu bietan, jaitsiera izan da gastuan, EAEn nahiz Estatu osoan, 2013 eta 2014 urte bitartean.

III.2.23. KOADROA. FAMILIEK KULTUR ZERBITZUTAN EGINIKO GASTUA AUTONOMIA ERKIDEGOKA

	Balio absolutua (milioi €)		Ondasun eta zerbitzu guztien gastuaren %-as		Etxeko batez bestekoa (euro)		Pertsonako batez bestekoa (euro)	
	2013	2014	2013	2014	2013	2014	2013	2014
Estatua, guztira	12.261,7	11.963,2	2,5	2,4	673,3	653,6	265,7	260,1
Andaluzia	1.771,6	1.695,7	2,3	2,2	565,2	536,0	212,6	203,4
Aragoi	373,5	397,1	2,5	2,8	694,0	735,8	285,0	304,3
Asturias	341,7	303,9	2,9	2,5	743,6	660,7	324,6	291,1
Balearrak	323,4	309,3	2,7	2,4	737,2	697,6	292,1	277,7
U. Kanariarrak	492,7	496,6	2,8	2,6	612,2	612,0	234,8	235,7
Kantabria	170,6	167,8	2,6	2,6	717,4	700,7	292,8	289,1
Gaztela Leon	566,6	622,3	2,2	2,4	549,6	603,8	230,8	255,8
Gazt.-Mantxa	423,6	405,7	2,2	2,1	539,8	516,8	206,1	199,0
Katalunia	2.196,1	2.388,0	2,5	2,7	745,7	811,0	297,9	326,0
Valentziako E.	1.304,2	1.205,9	2,7	2,5	653,4	601,8	264,4	245,1
Extremadura	201,2	209,3	2,1	2,1	469,0	485,0	185,3	193,6
Galizia	603,1	548,6	2,2	2,0	563,3	509,6	220,8	201,9
Madril	2.205,9	1.943,6	2,7	2,5	883,9	772,7	349,0	308,5
Murtzia	286,7	283,3	2,1	2,1	544,3	532,3	197,1	194,6
Nafarroa	190,1	207,5	2,5	2,6	759,5	823,9	302,4	330,9
EAE	**691,6**	**674,6**	**2,4**	**2,4**	**777,6**	**754,6**	**322,5**	**315,6**
Errioxa	91,7	77,0	2,7	2,3	709,3	596,3	293,4	248,7
Ceuta eta Mel.	27,1	27,0	2,0	1,9	537,3	531,0	162,8	162,8

Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. Kultur Estatistiken Urtekaria 2015

EAEko gastu motari arreta emanez gero (liburuak eta argitalpenak, kultura zerbitzuak, informazioa tratatzeko banako ekipamendua eta osagaiak...), pertsona bakoitzeko gastatu diren 315,6 euroetatik % 22,9 liburuetarako eta aldizkako argitalpenetarako erabili zen 2014. urtean, % 29,5 kultura zerbitzuetarako (ikuskizunak eta bestelako kultur zerbitzuak), % 39,7 informazioa tratatzeko banako ikus-entzunezko ekipo eta osagaietarako eta % 7,9 beste ondasun eta zerbitzu batzuetarako. Estatuko batez bestekoak aztertzeak aldeak islatzen ditu. Hala, Estatua EAEn baino gutxiago gastatzen da aldizkako liburuetan eta argitalpenetan (%13,9 Estatuan eta %22,9 EAEn), eta gehiago kultur zerbitzuetan (%35,9, %29,5ren aldean).

Arestian esana dugunez, ikuskizunetan eginiko gastua sartzen da kultur zerbitzuetako gastuen artean. Azken hori neurtzeko, etxe bakoitzak kultur zerbitzuetan eginiko batez besteko gastuen gaineko argibideak ematen ditu Urtekariak (ez pertsonako gastuaren gainekoak), eta ikuskizunak eta beste kultur zerbitzu batzuk bereizten ditu. Etxe bakoitzak ikuskizunetan 93,4 euro gastatu zituen ikuskizunetan 2014an (hazi egin da 86,7€-tik, 2012 eta 2013 bitarteko jaitsierarekin ondotik); Estatuan, berriz, gastu txikiagoa da, 83,7 euro etxe bakoitzeko. Ikuskizunetan etxeko gehien gastatzen duten autonomia erkidegoak Madril (133,7 euro), Nafarroa (133,6) eta Katalunia (111,6).

III.2.24. KOADROA. FAMILIEK KULTURA ONDASUNETAN ETA ZERBITZUETAN EGINIKO GASTUA, GASTU-TALDEAREN ARABERA, AUTONOMIA ERKIDEGOKA

	BATEZ BESTEKO GASTUA PERTSONA BAKOITZEKO (EUROAK)										IKUSKIZUNETAKO BATEZ BESTEKO GASTUA FAMILIAKO (EURO)	
	Guztira (euro)		Liburuak eta aldizkako argitalpenak		Kultura zerbitzuak (emankizunak eta beste kultura zerbitzu batzuk hartzen ditu)		Informazioa tratatzeko ikus-entzunezko ekipoak eta osagaiak		Beste ondasun eta zerbitzu batzuk			
	2013	2014	2013	2014	2013	2014	2013	2014	2013	2014	2013	2014
Estatua, guztira	265,7	260,1	42,1	36,1	89,2	91,6	116,6	115,2	17,8	17,2	77,8	83,7
Andaluzia	212,6	203,4	27,4	23,1	67,9	74,6	101,1	95,6	16,2	10,1	63,5	62,8
Aragoi	285,0	304,3	43,6	47,1	99,3	105,6	125,3	128,8	16,7	28,1	78,8	93,5
Asturias	324,6	291,1	51,8	46,7	115,8	111,7	134,0	116,7	23,0	16,0	67,2	58,3
Balearrak	292,1	277,7	40,2	37,0	103,6	93,5	138,3	129,0	10,0	18,2	98,9	75,9
U. Kanariarrak	234,8	235,7	26,6	22,9	86,2	90,4	106,4	112,5	15,6	9,9	62,2	61,2
Kantabria	292,8	289,1	57,6	51,2	89,3	107,1	129,6	110,9	16,3	19,9	77,0	67,2
Gaztela Leon	230,8	255,8	44,1	45,6	76,9	87,3	97,1	104,2	12,7	18,8	48,6	80,2
Gazt.-Mantxa	206,1	199,0	33,2	24,8	59,6	63,8	96,4	100,1	16,9	10,4	53,8	68,0
Katalunia	297,9	326,0	46,5	40,0	101,4	118,4	131,9	143,4	18,0	24,2	87,9	111,6
Valentziako E.	264,4	245,1	31,0	28,9	96,8	81,6	116,7	113,8	19,9	20,9	64,8	60,1
Extremadura	185,3	193,6	23,3	24,0	49,1	58,6	93,7	98,7	19,1	12,3	46,5	42,1
Galizia	220,8	201,9	43,0	36,6	64,8	55,4	98,0	94,1	15,0	15,8	36,5	44,2
Madril	349,0	308,5	58,2	42,9	127,0	121,6	139,4	128,5	24,4	15,5	135,5	133,7
Murtzia	197,1	194,6	33,0	27,6	72,5	65,4	77,7	88,7	13,9	12,9	67,3	70,7
Nafarroa	302,4	330,9	68,3	65,9	85,1	102,8	133,0	132,7	15,9	29,5	79,3	133,6
EAE	**322,5**	**315,6**	**81,9**	**72,2**	**83,8**	**93,1**	**140,2**	**125,2**	**16,5**	**25,1**	**86,7**	**93,4**
Errioxa	293,4	248,7	45,6	41,8	114,9	78,5	112,9	112,2	20,0	16,2	148,6	89,4
Ceuta eta Mel.	162,8	162,8	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-

Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. Kultur Estatistiken Urtekaria 2015

3. EAE-KO NATUR INGURUNEAREN EGOERA

Ingurumenaren garrantzia bi faktoretan datza: alde batetik, izaki guztiak bertan eta ez beste leku batean garatzea; eta, beste aldetik, ingurumenak guri natur baliabideek ematea. Hori dela eta, haren zainketa eta babesa giza ekintzaren funtsezko elementuetako bat izan beharko litzateke.

Garapen ekonomikoak eta sozialak bizi-kalitatea eta erosotasuna ematen dizkiote gizarteari alderdi askotan, baina, aldi berean, presio handia dakarte ingurumenaren gainean, hainbat ukipen sorrarazten dituena.

Zorionez, gaur egun gero eta kontzientzia nabarmenagoa dago ukipen horien garrantziaren gainean, eta, herritarrak ez ezik, gobernuak eta enpresak ere hasi dira ingurumena babesteko edo horren gaineko kaltea mugatzeko helburua daukaten jarduerak garatzen.

Kapitulu honen helburua da EAEn ingurumenari lotutako gai nagusien errealitatea eta orain dela gutxiko bilakaera ezagutzea. Horretarako, erkidego honetako ingurumen adierazle nagusiak aztertu dira. Honako hauek dira, zehatz-mehatz: airearen kalitatea, ur gezaren kontsumoa, hondakinen sorrera eta kudeaketa, eta manufaktura-industriaren ingurumen babesa.

Argitaratu diren azken datu gehienak 2013koak dira.

3.1. AIREAREN KALITATEA

Airearen kalitate-indizeak (AKI) biztanleei airearen kalitateari buruzko informazioa modu argian eta errazean helarazteko balio du.

AKI bat ezartzen da kutsatzaile eta estazio bakoitzeko, kutsatzaile guztien AKI txarrenak zehazten duena. Osasuna babesteko balio objektibo batzuk dituzten kutsatzaileak honako hauek dira: SO_2 (sufre dioxidoa), NO_2 (nitrogeno dioxidoa), PM_{10} (10 mikratik beherako diametroa duten partikulak), $PM_{2,5}$ (2,5 mikratik beherako diametroa duten partikulak), CO (karbono monoxidoa), O_3 (ozonoa), C_6H_6 (bentzenoa), Pb (beruna), As (artsenikoa), Cd (kadmioa), Ni (nikela) eta B(a)P (bentzo(a)pirenoa).

Aldi berean, EAEko lurraldea eremuka banatzen da, indarreko araudiaren eskakizunen arabera. Horretarako, Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sarea EAEko lurralde osoan dauden 51 estaziok osatzen dute; horietatik 13 industria-jarduerei dagozkie. Halaber, 6 unitate mugikor daude.

Kutsatzaile gehienak (SO_2, NO_2, PM_{10}, $PM_{2,5}$, CO eta O_3) lurraldeko eremu guztietan neurtzen dira, eta, bentzenoari, metal astunei eta bentzo(a)pirenoari dagokienez, neurketa-estazioak gutxiago dira, ebaluazioa oro har egiten baita EAE osorako.

III.3.1. KOADROA. ZONIFIKAZIOA, AIREAREN KUTSATZAILEAK EBALUATZEKO
Enkarterri – Nerbioi Garaia
Nerbioi Behera
Kostaldea
Donostialdea
Ibaizabal – Deba Garaia
Goierri
Arabako lautada
EAE - Erribera
Iturria: INGURUMENA

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak emandako informazioaren arabera, azken urteetan EAEko airearen kalitatea nabarmen hobetu da, eta, erabilgarri dauden azken datuen arabera, kalitatea ona edo, behintzat, onargarria da gaur egun.

Hona hemen airearen kutsatzaileei buruzko azterlana, 2014ko datuen arabera:

- SO_2-aren mailak ez dira airearen kalitaterako ezarritako helburuak baino handiagoak.
- NO_2-ari dagokionez, mailak ez dira handiagoak. Puntak erregistratu dira, baina oso zehatzak izan dira. Eta, oro har, bai Gasteizko estazioa bai Donostiakoa eta Bilbokoa (azken horiek zirkulazioaren isurien eragin handiagoa daukate) dira maila handienak agertzen dituztenak.
- Partikulen (bai PM_{10} bai $PM_{2,5}$) mailak airearen kalitatearen helburuen azpitik daude. PM_{10}-ei dagokienez, nahiz eta estazio batzuetan mailak gainditu, erregistratutako kantitate osoa gehieneko mugaren azpian dago (35 gainditze onartzen dira, gehienez). Gainditze kopurua zein P90,4 aurreko urteetako datuekin erkatzen badira, estazio askotan beherakada handia egon dela ikus daiteke.
- CO-aren neurriak oso txikiak dira estazio guztietan, behetik ebaluatzeko atalasearen azpi-azpitik ere egonda.
- O_3-ari dagokionez, ez da baliorik neurtu 180 µg/m3-tik (herritarrei jakinarazteko atalasea) gora. Balio handienak dituzten estazioak landa inguruneetan (Eltziego eta Valderejo) daude, eta zenbait kasutan kota altuetan ere bai: Jaizkibel eta Serantes (mendietako gailurrak, eskualdeko garraioa dokumentatzeko helburua daukatenak).
- Hurrenez hurren, industria-eremuak eta zirkulazioa ordezkatzen dituzten San Julián (Muskiz) eta Easo (Donostia) estazioetako bentzenoaren batezbestekoak txikiak dira, eta mugatik zein ebaluazio-atalaseetatik urrun daude.
- Oro har, metalen eta bentzo(a)pirenoaren mailak oso txikiak dira horiek neurtu dituzten lau estazioetan: Mª Díaz de Haro (Bilbo), Erandio (Erandio), Avda. Tolosa (Donostia) eta Tres de Marzo (Gasteiz).

Oro har, urtean kalitate ona edo onargarria izan duten egunen portzentajea % 96,8 zen 2008an; 2013n, berriz, % 99,2.

Beste behin egin du behera 11 laginketa-estazioetan airearen kalitatea oso txarra edo txarra izan deneko egun kopuruak, aurreko aldiarekin alderatuta: 8 egunetik 4 egunera, 2012 eta 2013 bitartean. Bestalde, murriztu egin da airearen kalitatea arina deneko egun kopurua ere: 49 egunetik 29 egunera.

III.3.2. TAULA. EAE-KO AIREAREN KALITATE-INDIZEA, MAILEN ETA URTEEN ARABERA (urteko egunen %)

	2009	2010	2011	2012	2013
Ona	57,4	61,7	57,2	68,5	64,2
Onargarria	40,0	37,5	40,7	30,1	35,0
Arina	2,2	0,8	1,8	1,2	0,7
Txarra	0,4	0,1	0,4	0,2	0,1
Oso txarra	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Arriskutsua	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0

Iturria: Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

Urola Garaia nabarmentzen da, airearen kalitate arineko 15 egunekin, 2 egun txarrekin eta egun 1 oso txarrarekin; Hegoaldeko Araba, kalitate arineko 5 egunekin eta egun 1 txarrarekin; Ibaizabal-Deba Garaia, kalitate arineko 4 egunekin; Oria Garaia kalitate arineko 3 egunekin; eta Nerbioi Behera kalitate arineko 2 egunekin.

III.3.3. TAULA. AIRE KALITATE TXARREKO EDO OSO TXARREKO EGUN KOPURUA, GUNEEN ETA URTEEN ARABERA

	2010		2011		2012		2013	
	Arina	Txarra edo oso txarra	Arina	Txarra edo oso txarra	Arina	Txarra edo oso txarra	Arina	Txarra edo oso txarra
Hegoaldeko Araba	2	0	3	0	6	0	5	1
Arabako lautada	0	0	2	0	0	0	0	0
Arabako Errioxa	0	0	1	0	5	0	0	0
Kostaldea	0	0	3	0	2	0	0	0
Donostialdea	0	0	1	0	0	0	0	0
Oria Garaia	3	0	10	1	3	0	3	0
Urola Garaia	24	4	36	14	21	8	15	3
Ibaizabal - Deba Garaia	1	0	7	0	4	0	4	0
Nerbioi Garaia	0	0	0	0	2	0	0	0
Enkarterri	0	0	0	0	0	0	0	0
Nerbioi Behera	1	0	8	1	6	0	2	0
EAE, GUZTIRA (egunak)	**31**	**4**	**71**	**16**	**49**	**8**	**29**	**4**

Iturria: Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

3.2. UR GEZAREN BILKETA ETA KONTSUMOA

EINek egindako *Ur hornidurari eta saneamenduari buruzko inkesta*ren[1] arabera, 2013an EAEn hiriko hornidurako sare publikoetara 192 Hm^3 ur hornitu ziren, hau da, 2012an baino % 3,4 gutxiago. 192 Hm^3 horietatik % 82,2 (154,1 Hm^3) erregistraturiko ur bolumenak izan ziren (erabiltzaileen edukiontzietan neurtuak), eta gainerako ur bolumenak erregistratu gabekoak izan ziren (neurketa-estazioen bidez zenbatetsiak edo neurtu gabekoak).

Erabiltzaile taldeak bereizita, 154,1 Hm^3-etatik 97,8 Hm^3 (guztizkoaren % 63,5) etxeetan ura hornitzeko erabiltzen da, 41,6 Hm^3 (% 26,9) sektore ekonomikoetarako (industria, zerbitzuak eta abeltzaintza), eta 10,2 Hm^3 (% 6,6) udal kontsumoetarako (lorategiak ureztatzea, kaleetan ura botatzea eta beste erabilera batzuk).

Aurreko urtearekin alderatuta, udal kontsumoetan % 51,1eko jaitsiera egon zen; etxeetan eta sektore ekonomikoetan, berriz, % 5,8ko eta % 10,9ko gorakadak, hurrenez hurren.

Erregistratu gabeko ura itxurazko galeretan (neurketako akatsak, iruzurrak eta gutxi gorabeherako kontsumoak) eta benetako galeretan (ihesak, hausturak eta matxurak saneamendu sarean) bereizten dira. Azken horiek sare horietara hornitutako ur guztiaren % 6,5 izan ziren 2013an, 2012an izandako (% 12) eta Estatuan balioetsitako (% 15,7) portzentajeak baino askoz txikiagoak izanda.

Ura hornitzen duten enpresek eta erakunde publikoek bildutako uraren jatorriari dagokionez[2], % 93 lurrazaleko uretatik zetozen, eta gainerako % 7a, aldiz, lur azpiko uretatik.

III.3.4. TAULA. EAEn HORNIDURA PUBLIKORAKO KONTROLATUTAKO ETA BANATUTAKO UR BOLUMENA

	2010	2011	2012	2013	% var. 12/13
SARERA HORNITUTAKO UR BOLUMENA (mila m3)					
1. Hornidura publikoko sarera hornitutako ur bolumena (a)	235.356	229.222	198.951	192.243	-3,4
1.1. Erregistratutako eta banatutako guztizko ur bolumena, erabiltzaile motaren arabera	183.420	176.180	154.880	154.091	-0,5
1.2. Erregistratu gabeko ur bolumena	51.936	53.042	44.071	38.152	-13,4
1.2.1. Benetako galerak (b)	36.965	39.251	23.798	12.552	-47,3
1.2.2. Itxurazko galerak	14.971	13.791	20.273	25.600	26,3
Banaketa sare publikoan galdutako uraren %: benetako galerak (b/a)	15,7	17,1	12,0	6,5	
UR BANAKETA ERABILTZAILE TALDE HANDIEN ARABERA (mila m3)					
Erregistratutako eta banatutako guztizko ur bolumena, erabiltzaile motaren arabera	183.420	176.180	154.880	154.091	-0,5
Etxeak	95.564	91.753	92.471	97.802	5,8
Sektore ekonomikoak	56.643	54.501	41.592	46.113	10,9
Udal kontsumoak eta BESTE BATZUK	31.213	29.926	20.817	10.176	-51,1
Banatutako uraren zenbateko osoa (mila euro)	105.398	109.847	112.465	115.584	
Hornidura zerbitzuetako inbertsioaren zenbateko osoa (mila €)	9.629	2452	5.199	4.312	
ENPRESAREN BERAREN UR-BILKETAK (mila m3)					
GUZTIRA	**187.157**	**165.198**	**172.632**	**221.247**	**28,2**
Lurrazaleko urak	179.838	154.274	162.087	205.079	26,5
Lur azpiko urak	7.319	10.924	10.545	16.168	53,3

Iturria: EIN. Uraren hornidurari eta tratamenduari buruzko inkesta.

[1] *Ureztaketako nekazaritzan erabilitako ura inkesta honen esparrutik kanpo geratu da, Nekazaritza sektoreko uraren erabilerari buruzko inkestan aztertu baita.*

2 Ur-bilketa naturako ura atera edota biltzean eta erabiltzeko biltegiratzean datza. Hemen ura biltzeko eta lehen mailako arteria edo hodietatik eramateko zerbitzuak sartzen dira. Besteak beste, lurrazaleko eta lur azpiko ur-bilketak bereizten dira. Azkena zundaketa edo zulatzeen bidez egiten da.

Kontinenteko lurrazaleko urak lurrazaleko korrontea duten urak edo lehorreko sakonune baten gainean atxikitakoak, hots, ur pilatuak, dira. Lurrazaleko korrontea duten uren artean ubide naturaletako urak (ibaiak eta errekak) eta ubide artifizialekoak (ureztatzeko bideratze sistemak, industria eta nabigazioa, drainatze sistemak eta erreserba artifizialak) sartzen dira.

Inkesta honen xedeetarako, ibaiertzetan gertatutako iragazteak lurrazaleko uren artean hartzen dira, eta trantsizioko urak, zingira gazikarak eta estuarioak, lurrazaleko urtzat jo beharrean, bestelako baliabide hidrikoen artean sartzen dira.

Lur azpiko urak orokorrean lur azpiko egitura, hots, akuifero batetik edo baten bidez ateratakoak dira. Akuiferoak lur azpian dauden ur biltegi iraunkor edo behin-behineko guztiak dira, bai artifizialki bai berez birbetetzen direnak, erabilera jakin baterako behar bezalako kalitatea badaukate Atal horretan iturburuetatik bildutako ura ere sartzen da. Kanpoan geratzen da iragazteetatik datorren lur azpiko ura, lurrazaleko uretan sartuko baita.

EAEko uraren per capita kontsumoa berriz ere Estatuko batezbestekoa baino txikiagoa izan da: 123 litro/biztanle/egun (130 litro Estatuan), baina % 3,4ko gorakada ageri da 2012 eta 2013 bitartean. Estatuan, berriz, % 5,1eko beherakada egon da 2013an.

Bestalde, uraren aleko balioa (ur-hornidurako tasen zenbatekoak gehi estolderiarako eta arazketarako ordaindutako zenbatekoak eta saneamenduko eta isurpeneko kanonak zati erregistratutako eta erabiltzaileei banatutako ur bolumena) 1,52 euro/m^3 izan zen 2013an EAEn (% 49,3 hornidura-tasei dagokie eta % 50,7 saneamendukoei). Beraz, beste igoera bat dugu, kasu honetan % 11,8koa, aurreko urteko balioaren aldean. Estatuan, batez besteko prezioa handiagoa da: 1,83 euro/m^3, hain zuzen ere (1,73 euro/m^3 aurreko urtean).

III.3.5. TAULA. URAREN BATEZ BESTEKO KONTSUMOA ETA ALEKO BALIOA ETXEETAN

	BATEZ BESTEKO KONTSUMOA (litro/biztanle/egun)					BATEZ BESTEKO PREZIOA (€/m3)						
	2010	2011	2012	2013	12-13 ald. %	2010	2011	2012	2013			12-13 ald. %
									Guzt.	Hornidura	Saneamendua	
Andaluzia	143	140	129	120	-7,0	1,36	1,46	1,62	1,74	1,04	0,70	7,4
Aragoi	144	132	138	129	-6,5	1,34	1,29	1,29	1,46	0,70	0,76	13,2
Asturias	159	153	130	122	-6,2	1,07	1,17	1,29	1,32	0,68	0,64	2,3
Balear Uh.	121	124	133	141	6,0	2,69	2,19	2,38	2,71	1,11	1,10	13,9
Kanariar Uh.	149	150	149	143	-4,0	1,9	2,02	1,97	2,03	1,66	0,37	3,0
Kantabria	173	161	155	144	-7,1	1,14	1,3	1,36	1,56	0,91	0,65	14,7
Gaztela eta Leon	167	170	152	157	3,3	0,98	0,9	1,02	1,00	0,54	0,46	-2,0
Gaztela-Mantxa	152	156	146	140	-4,1	1,31	1,28	1,31	1,28	0,79	0,49	-2,3
Katalunia	133	130	126	117	-7,1	1,83	1,84	2,29	2,54	1,34	1,20	10,9
Valentziako Erk.	157	152	160	157	-1,9	1,69	1,78	1,98	2,03	1,23	0,80	2,5
Extremadura	160	144	140	140	0,0	1,23	1,27	1,45	1,49	1,04	0,45	2,8
Galizia	132	133	134	119	-11,2	1,01	1,07	1,11	1,19	0,77	0,42	7,2
Madril	140	141	135	131	-3,0	1,64	1,69	1,90	2,02	1,28	0,74	6,3
Murtzia	158	152	143	124	-13,3	2,17	2,29	2,50	2,73	1,86	0,87	9,2
Nafarroa	128	135	129	112	-13,2	1,36	1,25	1,38	1,47	0,73	0,74	6,5
EAE	**122**	**117**	**119**	**123**	**3,4**	**1,14**	**1,20**	**1,36**	**1,52**	**0,75**	**0,77**	**11,8**
Errioxa	122	123	134	112	-16,4	0,91	0,90	1,02	1,06	0,50	0,56	3,9
Ceuta eta Melilla	-	170	118	106	-10,2	-	1,43	1,88	1,95	1,37	0,58	3,7
Estatua	144	142	137	130	-5,1	1,51	1,54	1,73	1,83	1,09	0,74	5,8

Iturria: EIN. Uraren hornidurari eta tratamenduari buruzko inkesta

3.3. HONDAKINEN SORRERA ETA KUDEAKETA

3.3.1. Hiri hondakinak

EINen "*Hondakinen bilketari eta tratamenduari buruzko estatistika. Hiri hondakinak: 2010-2013 aldia*" izeneko dokumentuak agerian uzten duenez, hiri hondakinak kudeatzen dituzten enpresek, 2013an, 1,1milioi Tm hiri hondakin bildu zituzten, aurreko urtean baino % 4,3 gehiago. Nahastuak eta gaika bildutakoak bereiziz, gehienak (% 70) hondakin nahastuak dira. 2012. urtearen aldean, lehenbizikoetan % 2,7ko gehikuntza izan da, eta gaika bildutakoetan, berriz, % 8,2koa. Estatuan, bestalde, bietan ageri dira beherakadak: % 2,5 eta % 3,6, hurrenez hurren.

Gaika bildutako hiri hondakinen artean, hauexek nabarmentzen dira EAEn, bolumenaren arabera: papera eta kartoia (130.614 Tm, guztizkoaren % 37,8), beira (54.402 Tm, % 15,8), mea hondakinak –horien artean eraikuntzakoak eta eraispenekoak sartzen dira– (41.650 Tm, % 12,1), ontzi mistoak eta bilgarri nahastuak (33.942 Tm, % 9,8) eta zura (33.587 Tm, % 9,7). Estatuan, hauexei dagozkie: papera eta kartoia (guztizkoaren % 25,1), animaliak eta landareak (% 21,5), beira (% 18,3), ontzi mistoak eta bilgarri nahastuak (% 14,2) eta mea hondakinak –horien artean eraikuntzakoak eta eraispenekoak sartzen dira– (% 11,8).

III.3.6. TAULA. HIRI HONDAKINEN SORRERA (tonak)								
	ESTATUA				EAE			
	2011	2012	2013	2012-13 ald.	2011	2012	2013	2012-13 ald.
Hiri hondakinak (HH)	23.281.979	22.395.811	21.785.683	-2,7	1.048.759	1.098.892	1.146.581	4,3
HH nahastuak	18.773.628	18.315.103	17.852.826	-2,5	691.950	780.061	801.449	2,7
Gaika bildutako HH	4.508.351	4.080.708	3.932.857	-3,6	356.809	318.831	345.132	8,2

Iturria: EIN: Hondakinen bilketari eta tratamenduari buruzko estatistika. Hiri hondakinak: 2010-2013 aldia

III.3.7. TAULA. HIRI HONDAKINEN GAIKAKO BILKETA. 2013				
	EAE		ESTATUA	
	Kantitatea (Tm)	Guztizkoaren %	Kantitatea (Tm)	Guztizkoaren %
06 Metal hondakinak	929	0,3	20.985	0,5
07.1 Beira hondakinak	54.402	15,8	720.930	18,3
07.2 Paper eta kartoi hondakinak	130.614	37,8	988.226	25,1
07.4 Plastiko hondakinak	1.062	0,3	21.577	0,5
07.5 Zur hondakinak	33.587	9,7	105.646	2,7
07.6 Ehun hondakinak	6.278	1,8	23.488	0,6
08.2 eta 08.43 Botatako ekipo elektrikoak eta botatako ekipo elektronikoetako osagaiak	15.067	4,4	41.644	1,1
08.41 Pila eta metagailu hondakinak	164	0,0	7.119	0,2
09. Animalia eta landare hondakinak	25.286	7,3	844..081	21,5
10.21 Ontzi mistoak eta bilgarri nahastuak	33.942	9,8	559258	14,2
11 Lohi arruntak (lehorrak)	0	0,0	0	0,0
12 Mea hondakinak (eraikuntzakoak eta eraispenekoak barne)	41.650	12,1	465.104	11,8
18 Beste batzuk	2.152	0,6	134.801	3,4
GUZTIRA	**345.133**	**100,0**	**3.932.857**	**100,0**

Iturria: EIN: Hondakinen bilketari eta tratamenduari buruzko estatistika. Hiri hondakinak: 2010-2013 aldia

Per capita bolumenetan, EAEn 528,2 kg/biztanle hiri hondakin bildu ziren 2013an, hots, 2012rako kalkulatzen zena (516,3 kg/biztanle) eta Estatuko batezbestekoa (467,6 kg/biztanle) baino gehiago. Autonomia erkidegoen arabera, Balear Uharteak (727,4), Kanariar Uharteak (571,4), Andaluzia (544) eta Kantabria (523,2) izan ziren per capita balio handienak bildu zituztenak.

Hiri hondakinen kudeaketa aztertzeko asmoz, eta kontuan hartuta EINek ez duela horri buruzko informaziorik ematen, "*Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren hondakinei buruzko estatistika*" erabiliko dugu. Horren arabera, hiri hondakinak kudeatzen dituzten enpresek hondakinen antzeko kantitatea (1,1 milioi Tm) bildu zuten EAEn, nahiz eta per capita pixka bat gutxiago diren (498 kg/biztanle; Estaturako kalkulatutakoak, berriz, 528,2 kg/biztanle dira).

Estatistika honen datuek adierazten dute, alde batetik, 2012 eta 2013 bitartean sortutako hiri hondakinen per capita bolumena murriztu dela (501 kg/biztanle-tik 498 kg/biztanle-ra); eta, beste aldetik, 498 kg/biztanle horietatik 191 birziklatu zirela, 191ri balioa eman zitzaiela eta 11 konposterako (ongarri organikoa) erabili zirela. Gainerakoak, hau da, 202 kg, hondakindegira eraman ziren. 2012. urtearen aldean, energiaren aldetik balioa hartu duten eta erre diren hondakinen kantitatea egonkorra izan da, birziklatutako hondakinak % 20,1 gehitu ziren, konposterako erabilitakoak % 22,2 gehitu ziren, eta, amaitzeko, hondakindegira eramandakoak % 15,8 gutxitu ziren.

Lurralde Historikoen araberako analisiak alde batzuk agertzen ditu. Araban handitu egin zen birziklatutako hondakinen per capita bolumena (2012an baino 31 kg/biztanle gehiago), konposterako erabilitakoak erabat desagertu ziren, eta hondakindegira eramandakoak murriztu ziren (2012an baino 42 kg/biztanle gutxiago). Bizkaian birziklatutakoak pixka bat murriztu ziren (2012an baino 2 kg/biztanle gutxiago), baina hondakindegira eramandakoak

ere gutxitu ziren (2012an baino 12 kg/biztanle gutxiago). Gipuzkoan gehitu egin ziren birziklatutako hondakinak (gehikuntza

handia, gainera: 2012an baino 90 kg/biztanle gehiago) eta konposterako erabilitakoak; hondakindegira eramandakoak, aldiz, murriztu egin ziren (murrizketa hori ere handia izan da: 2012an baino 80 kg/biztanle gutxiago).

III.3.8. TAULA. EAE-N SORTUTAKO HIRI HONDAKINEN KUDEAKETA (unitateak: kg/biztanle/urte)

	2012				2013				2012-13 ald.			
	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Sortutako eta kudeatutako hiri hondakinak, guztira	**501**	**424**	**535**	**481**	**498**	**399**	**524**	**499**	**-3,0**	**-25,0**	**-11,0**	**18,0**
Energiarako balioa eta errausketa	93	0	177	0	93	0	178	0	0,0	0,0	1,0	0,0
Birziklapena	159	86	203	119	191	117	201	209	32,0	31,0	-2,0	90,0
Konpostajea	9	12	2	19	11	0	4	28	2,0	-12,0	2,0	9,0
Hondakindegira eramatea	240	325	153	343	202	283	141	263	-38,0	-42,0	-12,0	-80,0

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

3.3.2. Hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren datuen arabera, 2012 eta 2013 bitartean % 5 egin du behera kudeatutako hondakin arriskutsuen kantitateak; ez-arriskutsuenak, aldiz, % 22 egin du gora. Hala, guztira, 284.424 Tm hondakin arriskutsu kudeatu ziren 2013. urtean eta 3.254.731 Tm hondakin ez-arriskutsu.

III.3.9. TAULA. EAE-KO HONDAKIN ARRISKUTSUEN ETA EZ-ARRISKUTSUEN BILAKAERA, HEZ* KODEAREN ARABERA (Tonak)

	2011		2012		2013		2012-13 ald.	
HEZ	Arrisku-tsuak	Ez-arrisku-tsuak	Arriskutsuak	Ez-arriskutsuak	Arriskutsuak	Ez-arriskutsuak	Arriskutsuak	Ez-arriskutsuak
01-Meategiak eta harrobiak	0	3.586	0	370	0	3.124		744,3
02-Lehen mailako ekoizpena	6		9		7	78.114	-22,2	
03-Zur eta paper industria	0	565.537	1	492.702	15	470.007	1400,0	-4,6
04-Larrugintza eta ehungintza	0	2.329	0	1.131	0	476		-57,9
05-Petrolio findegiak	4.805	86	7.970	195	10.021	540	25,7	176,9
06-Ind. kimiko ez-organikoa	1.618	18.727	2.387	3.655	1.160	19.041	-51,4	421,0
07-Ind. kimiko organikoa	13.831	21.117	8.471	17.008	5.632	30.840	-33,5	81,3
08-Margoak, bernizak eta tinduak	5.363	2.094	5.156	2.138	4.513	1.816	-12,5	-15,1
09-Ind. fotografikoa	397	33	300	11	294	417	-2,0	3690,9
10- Prozesu termikoetako ind.	138.151	1.358.825	119.646	1.192.482	121.731	1.106.928	1,7	-7,2
11-Metalen trat. eta estaldura	70.186	6.012	50.440	5.867	47.079	16.660	-6,7	184,0
12-Metalen mekanizazio ind.	21.613	167.746	20.510	201.438	18.523	545.950	-9,7	171,0
13-Olio erabiliak	17.992	-	16.573	-	24.919	0	50,4	
14-Disolbagarri erabiliak	2.154		2.094		1.768		-15,6	
15-Ontziak eta zapiak	8.195	81.049	7.877	67.481	7.186	103.773	-8,8	53,8
16-Beste hondakin batzuk	17.798	75.150	20.385	88.352	15.568	125.042	-23,6	41,5
17-Eraikuntza eta eraispena	10.627		19.322		8.145		-57,8	
18-Zerbitzu medikoak	1.592		1.670		1.440	6.752	-13,8	
19- Hondakinen tratamenduko ind.	10.957	581.765	12.281	595.098	12.523	745.252	2,0	25,2
20-Udalekoak eta parekagarriak	3.396	-	3.995	-	3.900	-	-2,4	
Guztira	**328.681**	**2.884.057**	**299.089**	**2.667.928**	**284.424**	**3.254.731**	**-4,9**	**22,0**

** HEZ: Hondakinen Europako Zerrenda*
Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

2013an kudeatu diren hondakin ez-arriskutsuen artean, hauexek nabarmentzen dira: prozesu termikoetako industriako hondakinak (hondakin ez-arriskutsu guztien % 34), metalen mekanizazioaren hondakinak (hondakin ez-arriskutsu guztien % 16,8) eta zuraren eta paperaren industriako hondakinak (hondakin ez-arriskutsu guztien % 14,4). Eta hondakin arriskutsuen artean hauek nabarmentzen dira: prozesu termikoetako industriako hondakinak (hondakin arriskutsu guztien % 42,8) eta metalen tratamenduko eta estaldurako hondakinak (hondakin arriskutsu guztien % 16,6).

III.3.10. TAULA. EAE-N SORTUTAKO HONDAKIN ARRISKUTSUEN ETA EZ-ARRISKUTSUEN KUDEAKETA

	2012		2013	
	Arriskutsuak	Ez-arriskutsuak (guztizko bertikalaren %)	Arriskutsuak (guztizko bertikalaren %)	Ez-arriskutsuak (guztizko bertikalaren %)
Hondakinak, guztira	Erabilgarri ez dauden datuak	**2.667.928**	**284.424**	**3.254.731**
Energiarako balioa eta errausketa		5,5	0,5	2,2
Birziklapena+berrerabilera+konpostajea		53,6	68,8	59,3
Errausketa		0,0	0,1	0,0
Desagerraraztea		40,9	30,6	38,5

Iturria: Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. EAEko Hiri Hondakinei buruzko Estatistika

Hondakin horien 2013ko kudeaketari dagokionez, hondakin arriskutsu guztien % 68,8 birziklatu edo konposterako erabili zen, % 0,5i balioa eman zitzaion energiaren aldetik, % 0,1 erre zen, eta gainerako % 40,9 desagerrarazi zen. Horrez gain, hondakin ez-arriskutsu guztien % 59,3 birziklatu edo konposterako erabili zen, % 2ri balioa eman zitzaion energiaren aldetik, eta gainerako % 38,5 desagerrarazi zen.

3.4. INGURUMENAREN BABESA ETA MANUFAKTURA-INDUSTRIA

Epigrafe honen xedea da manufaktura-industriek ingurumena babesteko egiten duten gastua aztertzea.

EINek egindako *"Enpresa industrialek ingurumen babesean izandako gastuaren inkesta"*ri buruzko azken datuen arabera, 2013an EAEn enpresa horiek ingurumen babesean izandako gastua (gastu arrunta eta inbertsioa), guztira, 184 milioi eurokoa izan zen Hori 2012an egondakoa baino % 5,9 txikiagoa da.

III.3.1. GRAFIKOA. MANUFAKTURA-INDUSTREEN INGURUMENA BABESTEKO GASTUA, BPGd-AREN GAINEAN, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. 2013 (PORTZENTAJEAK)



Iturria: INE

Gastua BPGd-aren portzentaje bezala neurtuta, 2013an murrizketa txiki bat (% 0,1) ikusten da, 2012koaren aldean. Gauzak horrela, % 0,29koa izan da, nahiz eta ratio hori Estatuko batezbestekoa (% 0,2) baino handiagoa den.

Hala, 2013an EAE seigarren tokian dago, Asturiasen (% 0,45), Nafarroaren (% 0,4), Kantabriaren (% 0,36) eta Gaztela-Mantxaren eta Murtziaren (bietan % 0,3) atzean.

III.3.11. TAULA. MANUFAKTURA-INDUSTRIEN INGURUMENA BABESTEKO GASTU ARRUNTA ETA INBERTSIOA

	Gastu arrunta eta inbertsioa (€)				BPGd-aren gaineko portzentajea**			
	2010	2011	2012	2013	2010	2011	2012	2013
Andaluzia	269.491.825	273.601.694	274.241.103	264.402.878	0,18	0,19	0,19	0,19
Aragoi	82.389.070	83.699.495	82.608.445	94.532.022	0,24	0,25	0,25	0,29
Asturias	81.542.529	73.746.120	73.417.239	96.055.447	0,36	0,33	0,34	0,45
Balear Uh.	8.742.389	7.486.187	7.191.958	5.609.727	0,03	0,03	0,03	0,02
Kanariar Uh.	36.498.020	31.264.197	40.871.648	30.734.659	0,09	0,08	0,10	0,08
Kantabria	53.156.731	50.832.796	41.982.812	4.424.0043	0,41	0,40	0,34	0,36
Gaztela eta Leon	126.361.021	117.737.569	120.367.890	123.943.872	0,23	0,21	0,22	0,23
Gaztela-Mantxa	90.337.119	97.059.482	117.735.595	114.798.036	0,23	0,25	0,31	0,30
Katalunia	576.136.825	583.526.312	542.294.327	562.127.294	0,28	0,29	0,27	0,28
Valentziako Erk.	191.922.961	199.081.324	210.029.050	168.510.822	0,19	0,20	0,21	0,17
Extremadura	13.800.639	12.067.913	12.958.589	15.311.895	0,08	0,07	0,08	0,09
Galizia	137.490.450	127.347.834	121.233.871	131.610.393	0,24	0,23	0,22	0,24
Madril	113.172.775	101.619.259	101.815.023	86.914.104	0,06	0,05	0,05	0,04
Murtzia	63.088.837	74.314.742	66.648.072	79.744.699	0,23	0,27	0,25	0,30
Nafarroa	61.774.996	62.656.159	69.395.368	69.979.993	0,34	0,34	0,39	0,40
EAE	**205.734.323**	**190.053.113**	**195.502.883**	**183.980.409**	**0,31**	**0,29**	**0,30**	**0,29**
Errioxa	20.912.268	24.477.888	20.213.533	21.877.198	0,26	0,31	0,26	0,28
Estatua*	2.132.578.188	2.110.572.084	2.098.507.406	2.094.373.491	0,20	0,20	0,20	0,20

***Estatuko BPGd-aren barruan Ceuta, Melilla eta Extra-Regio biltzen dira. 2010eko oinarria**
Iturria: EIN

4. EAE-KO BIZI-BALDINTZAK

Gizarte bazterkeriaren arazoa zeharkako errealitatea da gizarte garaikideetan. Erakunde eta ikertzaileek urte askoan erabili duten "pobrezia" kontzeptuak ez ditu agortzen gizarte-bazterketaren errealitatea eta dinamikak. Hori dela eta, azken bi hamarkadatan gizarte-ikertzaileak eta kudeatzaile publikoak bat etorri dira: pobrezia kategoria hedatu dute eta "gizarte-bazterketa" erabiltzen dute, pobrezia ekonomikoaren ideia zurruna atzean utzi dutelako eta, batik bat, kontuan hartzen dituztelako gaur egungo gizarteetan aurrerapen teknologikoek, bizimodu-aldaketek eta gizarte-erreformek eragin dituzten eraldaketa sakonak.

III.4.1. GRAFIKOA. POBREZIA ETA BAZTERKETA ARRISKUAREN TASAREN ETA HORREN HIRU OSAGAIEN BILAKAERA EUROPAR BATASAUNEAN (28KO EB)



Iturria.- EUROSTAT

Kapitulu honetan, EBko bizi-baldintzei buruzko kopuru nagusiak emango dira, EUROSTATen Bizi-baldintzei buruzko Inkestako azken datuak oinarri hartuta (EB-SILC), eta EAEko eta Estatuko egoerarekin alderatuta jarriko dira.

III.4.1. TAULA. EAE-KO BIZI-BALDINTZAK. ERREFERENTZIAKO ADIERAZLEAK: "EUROPA 2020"

	EAE		ESTATUA	28 EB
	2009	2014	2014	2014
"AROPE" TASA	**14,8**	**15,3**	**29,2**	**24,4**
- POBREZIA-ATALASEAREN AZPITIK DAUDEN BIZTANLEEN % (MEDIANA %60) – MONETA POBREZIA	10,0	10,2	22,2	17,2
- GABEZIA MATERIAL LARRIA	3,4	4,8	7,1	8,9
- LAN-INTENTSITATE TXIKIA	5,5	12,2	17,1	11,1

Iturriak: EUROSTAT eta EIN.

Jarraian, EINen 2014ko Bizi-baldintzei buruzko Inkestaren emaitzak eskainiko dira. Horiei esker, EAEk gaineko Autonomia Erkidegoen aldean izan duen bilakaera erka daiteke errenta eta gabezia materiala adierazle nagusiei dagokienez. Ondoren, Eusko Jaurlaritzaren 2014ko Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak (PGDI) Euskadiko errenten banaketaren bilakaeraren gainean emandako zenbaki nagusiak eskainiko dizkigu. Bukatzeko, EAEren Memoria Sozioekonomikoaren edizio honetan, modu monografikoan aztertzen da Euskadin etxerik ez duten pertsonen egoera, Eusko Jaurlaritzak egin berri duen ikerketa eta EINen estatistika oinarri hartuta betiere.

III.4.2. TAULA. AROPE TASAREN BILAKAERA ETA OSAGAIAK. EAE-REN ETA ESTATUKO BATEZBESTEKOAREN ARTEKO ALDEAK.

	POBREZIA ETA BAZTERK. ARRIS. (AROPE)		POBREZIA ARRISKUA (<ATALASEAREN %60) (MONETA POBR.)		GABEZIA MATERIALA		LAN-INTENTSIT. TXIKIA	
	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE
2009	24,7	14,8	20,4	10,0	4,5	3,4	7,6	5,5
2010	26,1	16,3	20,7	11,7	4,9	2,1	10,8	8,8
2011	26,7	18,9	20,6	13,8	4,5	4,0	13,4	9,8
2012	27,2	17,7	20,8	13,3	5,8	2,1	14,3	11,1
2013	27,3	16,8	20,4	10,5	6,2	4,8	15,7	13,0
2014	29,2	15,3	22,2	10,2	7,1	4,8	17,1	12,2

Iturria: EINen datuekin eginikoa.

Europar Batasunean, egungo krisiak eragin larria du jarduera ekonomikoan eta enpleguan. Batzordearen aburuz, 2015eko amaieran, ekonomia suspertzen ari zela erakusten zuten adierazleak gero eta ageriagoak izan arren, langabezia eta pobrezia oraindik bereziki altuak ziren EBko zenbait herrialdetan, eta enplegu eta langabezi mailetan zeuden dibergentziak handiagoak ziren haien artean krisiaren aurretik zeudenak baino.

1 EUROPEAN COMMISSION.Employment and social developments in Europe 2015.21.01.16.

Krisiaren ondorioz, nabarmen hazi da pobrezia edo bazterkeria arriskuan dauden EBko herritarren kopurua azken urteetan, eta gehieneko kopuruak 2012an izan ziren. Harrezkero behera egin du pixka bat. Egoera horren eraginpean daude gaur egun (2014koa da azken datu eskuragarria) biztanleriaren %24,4, hots, EBko 121,9 milioi herritar, Europa 2020 Estrategian ezarritako irizpideen arabera. Estrategia horri "*AROPE tasa*" deritzo (*population at risk of poverty and exclusion*). Horietatik %53 emakumeak ziren (haien AROPE tasa batez bestekoa baino puntu bat handiagoa da) eta %47 gizonezkoak (pobrezia edo bazterketa arrisku-tasa: %23,6). 2014an, arrisku-maila handienak Bulgaria eta Errumaniakoak ziren (bi herrialdeetan biztanleen %40 baino gehiago zegoen egoera horretan), eta gero Grezia, Letonia, Lituania eta Hungariakoak (herrialde horietan ratioak %30 eta %40 artekoak dira). Arrisku-egoeran biztanle gutxien dituzten herrialdeak dira Txekiar Errepublika (%14,8), Suedia (%16,9) Holanda (%17,1), Finlandia (%16) eta Danimarka (%17,8).

2013koaren aldean, Batasuneko batez besteko tasa hamarren bat jaitsi zen (eraginpeko 800.000 lagun gutxiago), baina intzidentzia hazi egin zen EBko herrialdeetatik ia erdian. Espainian, %29,2ko tasa zegoen 2014an (eraginpeko 13 milioi lagun baino gehiago), eta ia ehuneko bi puntu handitu da aurreko urtearen aldean.

EAEn, biztanleriaren %15,3 zegoen (2013an baino puntu eta erdi gutxiago, baina krisia hasi aurretik zegoen tasa baino handiagoa -%14,8 2009an-) pobrezia eta bazterketa arriskuaren eraginpean 2014an, bestela esanda, 340.000 lagun (ez dago talde horren banaketari buruzko sexuaren araberako informaziorik). Intzidentzia hori Europan nahiko txikia da, eta Suedia, Finlandia eta Frantziakoaren oso antzekoa.

Adierazle horren osagaiei dagokienez, batetik, 2014an EBko biztanleen %17,2 pobrezia-arriskuan zegoen gizarte-transferentzien ondoren (diru-pobrezia); egoera horretan daude, zehazki, diru-sarreren kontsumo-unitateko banaketaren herrialde bakoitzeko medianaren %60tik (pobrezia-atalasetik) beherako diru-sarrerak dituztenak (osagai hori da, beraz, herrialde bakoitzean gutxieneko errenta-atalase horretara heltzen ez diren biztanleen portzentajea, horri "moneta-pobrezia" ere deritzo). Portzentaje hori %1,5 hazi zen 2013ren aldean, halako moldez non bost pertsonetatik bat baitzegoen egoera horretan Errumanian (%25,4), Espainian (%22,2), Grezian (%22,1) eta Bulgarian (%21,8). Ratiorik txikienak Txekiar Errepublikan (%9,7), Holandan (%11,6) eta Danimarkan (%11,9) zeuden. 2008tik hona, hazi egin da pobrezia arriskuan dauden pertsonen proportzioa informazioa duguneko EBko herrialdeetatik hamazortzi herrialdetan, eta bost herrialdetan baino ez da jaitsi. EAEn, %10,2ko tasa zegoen, eta azken urtean 3 hamarreneko jaitsiera izan da eta 2 hamarrenekoa krisia hasi zenetik.

III.4.3. KOADROA. POBREZIA EDO GIZARTE BAZTERKETA ARRISKUAN DAGOEN EB-KO BIZTANLERIA, "EUROPA 2020 ESTRATEGIA"REN IRIZPIDEEN ARABERA

	PORTZENTAJEA			ABSOLUTUAK (MILIOIAK)		
	2008	2013	2014	2008	2013	2014
28KO EB	23,8	24,5	24,4	166,6	122,7	121,9
BELGIKA	20,8	20,8	21,2	2,2	2,3	2,3
BULGARIA	44,8	48,0	40,1	3,4	3,5	2,9
TXEKIAR ER.	15,3	14,6	14,8	1,6	1,5	1,5
DANIMARKA	16,3	18,9	17,8	0,9	1,0	1,0
ALEMANIA	20,1	20,3	20,6	16,4	16,2	16,5
ESTONIA	21,8	23,5	:	0,3	0,3	:
IRLANDA	23,7	29,5	:	1,1	1,4	:
GREZIA	28,1	35,7	36,0	3,1	3,9	3,9
ESPAINIA	24,5	27,3	29,2	11,1	12,6	13,4
FRANTZIA	18,5	18,1	18,6	11,2	11,2	11,5
KROAZIA	:	29,9	:	:	1,3	:
ITALIA	25,3	28,4	28,1	15,1	17,3	17,0
ZIPRE	23,3	27,8	27,4	0,2	0,2	0,2
LETONIA	34,2	35,1	32,7	0,7	0,7	0,7
LITUANIA	27,6	30,8	27,3	0,9	0,9	0,8
LUXENBURGO	15,5	19,0	:	0,1	0,1	:
HUNGARIA	28,2	33,5	31,1	2,8	3,3	3,0
MALTA	20,1	24,0	23,8	0,1	0,1	0,1
HOLANDAS	14,9	15,9	17,1	2,4	2,7	2,9
AUSTRIA	20,6	18,8	19,2	1,7	1,6	1,6
POLONIA	30,5	25,8	24,7	11,5	9,8	9,3
PORTUGAL	26,0	27,4	27,5	2,8	2,9	2,9
ERRUMANIA	44,2	40,4	40,2	9,4	8,6	8,6
ESLOVENIA	18,5	20,4	20,4	0,4	0,4	0,4
ESLOVAKIA	20,6	19,8	18,4	1,1	1,1	1,0
FINLANDIA	17,4	16,0	17,3	0,9	0,9	0,9
SUEDIA	14,9	16,4	16,9	1,4	1,6	1,6
ERRESUMA BATUA	23,2	24,8	:	14,1	15,6	:
EAE	**14,8***	**16,8**	**15,3**	**0,32***	**0,37**	**0,34**

Iturria: EUROSTAT eta EINen datuekin eginikoa.
** EAEko datua 2009koa da.*

2 "Europa 2020 Estrategia" delakoaren ondorioetarako, pertsona bat pobrezia eta gizarte bazterketa arriskuan dago langabezi arazoak edo laneko oso intentsitate txikiak dituzten familia unitateetako kidea bada, gizarte transferentzien ondoren pobrezia arriskuan badago edota gabezia material larria badu.

Bigarrenik, Europako populazioaren %8,9k oinarrizko baldintzak eskuratzeko muga larriak zituen 2014an, zeren eta oinarrizko baliabiderik ezak eragindako bizi-baldintzak baitituzte hala nola fakturei aurre egiteko ahalmena (familien ohiko gastuei dagokienez), etxea bero mantentzeko edo urtean astebeteko oporraldia gozatzeko[3]. Gabezia horren intzidentziari dagokionez, Europar Batasuneko estatu-kideen artean alde handiak daude: %0,7 Suedian edo %2,8 Finlandian; Bulgarian %33,1 eta Errumanian %26,3 da.

Espainian duen intzidentzia %7,1ekoa da, eta EAEn %4,8koa (2013ko ratio bera). EBn nahikoa txikia da tasa hori, eta gainera zazpi hamarreneko jaitsiera izan du 2013ko %9,6tik. 2008-2014ko aldia aztertuta, bilakaera negatiboa izan da, hots, %8,5etik %8,9ra.

Azkenik, EBko biztanleriaren %11,1 lan-intentsitate oso txikiko etxeetan bizi dira. Talde horretan sartzen dira azken urtean guztizko laneko ahalmenaren %20an baino lan gutxiago egin duten 59 urtetik beherako pertsona helduak (2013an baino 4 hamarren gehiago eta 2008an baino %2 gehiago). Grezia (%17,2), Belgika (%14,6) eta Espainia daude EBko tokirik gorenean, azken horretan %17,1ko ratioarekin. EAEn, berriz, %12,2 da, hain zuzen ere 2013an baino ia puntu bat gutxiago, baina EBko batezbestekoaren gainetik (%11,1).

Testuinguru horretan, Europar Batzordeak 2015eko bere balantzean (ikusi 1. oin-oharra) ohartarazi duenez, familien errenten hazkundea gertatu da enpleguaren nahiz gizarte babesaren ondorioz eta oraindik ez dira berreskuratu 2009ko ongizate mailak. Halaber, ekonomiarik ahulenak indartzen diren neurriaren araberakoa izango da Europa Batasuneko herrialdeak bateratzeko bidea, eta bereziki hazkunderako eta enplegua sortzeko oztopoak desagerraraztearen araberakoa. Hartara, lan-merkatua eta ongizaterako erakundeak indartu behar dira, bereziki moneta-batasuneko kideak diren herrialdeetan.

4.1. BIZI-BALDINTZEI BURUZKO 2014KO INKESTAREN EMAITZAK

EINen "Bizi-baldintzei buruzko inkesta" Europar Batasuneko errentari eta bizi-baldintzei buruzko estatistikak (Statistics on income and living conditions, EB-SILC) bateratzeko prozesu baten parte da. Helburu nagusietako bat da pobrezia eta gizarte-bazterketa aztertu ahal izateko informazioa ematea. Alde horretatik, askotariko informazioa ematen du, etxebizitzei buruzko datuak, hain zuzen ere: etxeko gastuak, diru-sarrerak, ekipamendua, egoera ekonomikoa, helduen jarduera, osasuna, osasun-arreta eskuratu ahal izatea, hezkuntza eta datu biografikoak.

2014ko Inkesta emaitzetan, hauxe nabarmentzen da lehenik eta behin: urtean jasotako batez besteko errenta, EAEn, 34.240 euro zen (2013an baino %0,7 gutxiago), eta Estatuko batez bestekoa baino %30,9 gehiago, hots, 26.154 euro (%2,3 jaitsi da bertan aurreko urtearen aldean). EBn, familien errentaren aldakuntza 2013an (eskuragarri dugun azken datua) -%0,2 izan zen. EAEk 2014an zuen datua ikusita, lehen tokiari eusten dio autonomia erkidegoen rankingean, eta ondoren Nafarroako Erkidegoa dator (familiako batez besteko diru-sarrera 33.047 euro da). 2008-2014 aldean gertatu dena kontuan hartzen badugu, krisia hasi zenetik, EAEko familiek, batez beste, errentaren %5,2 galdu zuten. Estatu mailan, berriz, %9,1eko jaitsiera izan zen. Zenbait erkidegotan %15etik gorakoa jaitsiera izan zen (Andaluzian -%15,5; Murtzian -%21,2); beste batzuetan, aldiz, familien errentak berdintsu eusten zion, edo pixka bat handitu egin zen.

3 Zehazki, EUROSTATek uste du gabezia material larria jasaten dela bederatzi item hauetako lau gutxienez gertatzen badira: fakturak garaiz ezin ordaintzea, etxebizitza behar bezala bero ezin mantentzea, ustekabeko gastuei ezin aurre egitea, haragia, arraina edo proteina baliokideak bi egunean behin ezin jatea, urtean astebeteko oporraz ezin gozatzea, autoa, garbigailua, koloreko telebista edo telefonoa (mugikorrak barne) ezin edukitzea.

BATEZ BESTEKO URTEKO ERRENTA GARBIAREN BILAKAERA FAMILIAKO ETA PERTSONAKO (ELKARRIZKETAREN AURREKO URTEA) AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. 2008-2014. EURO.

	BATEZ B. ERRENTA FAMILIAKO					BATEZ B. ERRENTA PERTSONAKO				
	2008	2013	2014	Ald. % 13/14	Ald. % 08/14	2008	2013	2014	Ald. % 13/14	Ald.% 08/14
ESTATUKO BATEZ BESTEKOA	28.787	26.775	26.154	-2,3	-9,1	10.737	10.531	10.391	-1,3	-3,2
ANDALUZIA	25.248	22.450	21.332	-5,0	-15,5	9.007	8.408	8.079	-3,9	-10,3
ARAGOI	29.506	29.311	29.120	-0,7	-1,3	11.485	12.022	12.037	0,1	4,8
ASTURIAS	29.473	25.704	25.623	-0,3	-13,1	11.880	11.211	11.251	0,4	-5,3
BALEARS (ILLES)	28.981	26.307	26.923	2,3	-7,1	11.229	10.386	10.660	2,6	-5,1
U. KANARIARRAK	24.510	22.037	21.539	-2,3	-12,1	8.902	8.513	8.302	-2,5	-6,7
KANTABRIA	29.576	24.188	23.905	-1,2	-19,2	11.232	9.843	9.824	-0,2	-12,5
GAZTELA ETA LEON	26.525	25.717	24.587	-4,4	-7,3	10.488	10.760	10.406	-3,3	-0,8
GAZTELA-MANTXA	24.974	22.256	22.271	0,1	-10,8	9.064	8.425	8.545	1,4	-5,7
KATALUNIA	32.561	30.423	30.407	-0,1	-6,6	12.436	12.111	12.205	0,8	-1,9
VALENTZIAKO E.	25.802	23.189	22.392	-3,4	-13,2	9.864	9.375	9.144	-2,5	-7,3
EXTREMADURA	21.756	21.078	19.364	-8,1	-11,0	8.107	8.224	7.729	-6,0	-4,7
GALIZIA	25.859	25.939	26.001	0,2	0,5	9.482	10.106	10.235	1,3	7,9
MADRIL	33.889	32.632	31.587	-3,2	-6,8	12.496	12.823	12.597	-1,8	0,8
MURTZIA	26.995	23.011	21.269	-7,6	-21,2	9.119	8.253	7.767	-5,9	-14,8
NAFARROA	35.370	34.320	33.047	-3,7	-6,6	13.123	13.608	13.221	-2,8	0,7
EAE	36.110	34.487	34.240	-0,7	-5,2	14.038	14.312	14.281	-0,2	1,7
ERRIOXA	27.835	25.643	26.666	4,0	-4,2	10.916	10.686	11.120	4,1	1,9
CEUTA	29.776	31.453	30.336	-3,6	1,9	8.047	9.336	8.712	-6,7	8,3
MELILLA	33.986	36.196	35.741	-1,3	5,2	11.065	11.313	11.619	2,7	5,0

Iturria: EIN. Bizi-baldintzei buruzko Inkesta 2014.

Gainera, inkestaren arabera, EAEko pertsona bakoitzaren batez besteko errenta 14.281 euro zen urtean (ez dugu sexuaren araberako informaziorik), aurreko urtean baino %0,2 gutxiago, berriz ere lehen tokian, eta ondoren Nafarroa. Gainera, estatuko batez bestekoa baino %37,5 da (Estatukoak %1,3 egin du behera). 2008. urteari dagokionez, positiboa izan zen EAEn bakoitzaren batez besteko errentaren bilakaera (+%1,7), eta Estatuko batez bestekoan %3,2 jaitsi zen.

Rankingaren beste muturrean, bi aldagaietan (familiako eta pertsonako errenta) eta aurreko urteetan bezala, Extremadura, Murtzia, U. Kanariarrak eta Andaluzia erkidegok daude.

ZAILTASUN MATERIALAK DITUZTEN ETA/EDO GASTU BATZUK ORDAINDU EZIN DITUZTEN ETXEEN PORTZENTAJEA. EAE-REN ETA ESTATUKO BATEZ BESTEKOEN ARTEKO ERKAKETA.

	EZIN DUTE URTERO GUTXIENEZ ASTEBETEKO OPORRALDIA HARTU		HIL BUKAERARA HELTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTE		ETXEBIZITZA NAGUSIAREN ORDAINKETAK BERANDU EGIN DITUZTE*		USTEKABEKO GASTUAK EZIN DITUZTE ORDAINDU	
	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE
2008	34,5	15,8	60,9	44,0	6,0	3,5	29,9	17,7
2009	40,3	22,1	60,4	45,9	8,1	2,5	36,1	22,2
2010	40,8	21,1	60,1	41,6	8,7	3,3	38,5	19,8
2011	40,0	27,4	56,3	41,9	7,0	5,2	37,8	23,4
2012	45,1	23,5	60,9	39,2	8,4	3,2	41,4	19,8
2013	45,8	26,0	65,0	50,4	9,3	5,0	41,0	24,2
2014	45,0	24,6	66,4	50,4	10,2	4,4	42,4	20,5

** Etxebizitza nagusiarekin lotutako gastuen ordainketetan (hipoteka edo alokairua, gasaren, erkidegoaren, etab.en ordainagiriak,...) atzerapenak izan dituzte azken 12 hilabeteetan.*
Iturria:EIN. Bizi-baldintzei buruzko inkesta.

Etxeetako bizi-baldintzen eta errenta-mailaren beste adierazle bat hil-bukaerara heltzeko zailtasunak dituzten familien portzentajea da: gure erkidegoan familien %50,4 zegoen egoera horretan 2014an, eta portzentaje hori aurreko urtekoaren berdina da. Estatuko batez bestekoa %66,4 da, hots, %1,4 igo da 2013aren aldean. 2008ko egoerarekin alderatuta, %6 hazi da zailtasun hori EAEn eta %5,5 Estatuko batezbestekoan.

Horrez gain, kontuan izan behar da ezen, 2014an, hil bukaerara iristeko zailtasunak dituztela dioten euskal familien %50,4tik %11,5ek "zailtasun handiak" ditu (%12,3k 2013an), % 13,7k "zailtasunak" soilik eta gainerako %25,2ak "nolabaiteko zailtasunak" dituela dio. Banaketa hori estatuan antzekoa da, baina zailtasun gehien dituztenen portzentajea handiagoa da: %16,1, hain zuzen ere.

Inkestan, halaber, gastu batzuk ordaindu ezin dituzten etxeen portzentajea kalkulatzen dute: 2014an, EAEko etxeen %24,6k ezin zuten urtean astebeteko oporraldirik hartu (estatuan %42,4), eta etxeen %20,25ean ezin zituzten ustekabeko gastuak ordaindu (estatuko batezbestekoa %42,4 da). Ratio horrek ehuneko 3,7 puntu egin du behera 2013rekin alderatuta.

Europan, 2014an (EUROSTATeko datuak), familien %38,9k ezin zituen ustekabeko gastuak ordaindu, %36,9k ezin zuen etxea berotu eta %11,5ek hil-bukaera heltzeko arazo handiak zituen. Alde handiak zeuden herrialdeen artean, eta honako hauek nabarmentzen ziren bizi-mailaren beherakada azterturiko adierazle guztietan: Errumania, Irlanda, Grezia, Kroazia, Zipre, Lituania eta Letonia (horietan guztietan, ustegabeko gastuei aurre egiteko zailtasunak dituzten familien %50 edo gehiago ageri dira, esaterako).

Horren harian, EUROSTATek "gabezia materialaren indizea" sortu du, eta indize horrek adierazten du sarreran aipatu bederatzi gastu- eta ekipamendu-kontzeptuetatik hiru, gutxienez, eduki ezin dituzten pertsonen kopurua; EINen lau gastu-kontzeptuez gain, honako hauek ere aintzat hartu dituzte: hipotekako ordainketak egunean edukitzea eta garbigailua, koloretako telebista, telefonoa eta ibilgailua edukitzea. Definizio horren arabera, EBko populazioaren %18,6k ezin zituen baliabideok eskuratu 2014an (2013an baino %1 gutxiago), eta alde handiak daude herrialdeen artean, gehienbat Europako kide berrien eta gainerako kideen artean.

III.4.6. KOADROA. EB-KO ETXEEN GABEZIA-ADIERAZLE NAGUSIAK. EAE-REKIKO ERKAKETA. 2012-2013.

	EZUSTEKO GASTUEI AURRE EGITEKO EZINTASUNA		GABEZIA MATERIALAREN INDIZEA		ETXEA TENPERATURA EGOKIAN MANTENTZEKO EZINTASUNA	
	2013	2014	2013	2014	2013	2014
28KO EB	39,8	38,9	19,6	18,6	10,8	10,2
EB B.B.	36,5	36,1	16,5	16,3	10,2	10,2
BELGIKA	24,2	24,0	11,7	11,8	5,8	5,4
BULGARIA	64,1	49,6	58,0	46,8	44,9	40,5
TXERKIAR ER.	41,7	40,8	15,9	16,5	6,2	6,1
DANIMARKA	27,6	28,5	8,8	7,7	3,9	2,9
ALEMANIA	32,9	32,6	11,6	11,3	5,3	4,9
ESTONIA	41,9	39,1	19,4	15,7	2,9	1,7
IRLANDA	55,3	54,5	24,4	22,6	10,0	8,9
GREZIA	47,1	51,8	37,3	39,5	29,5	32,9
ESPAINIA	41,0	42,4	16,9	17,8	8,0	11,1
FRANTZIA	34,0	33,4	12,0	11,9	6,6	5,9
KROAZIA	65,1	63,7	34,6	33,8	9,9	9,7
ITALIA	40,4	38,8	23,8	23,0	19,1	18,0
ZIPRE	54,3	59,8	36,0	36,5	30,5	27,5
LETONIA	69,5	67,4	40,4	34,6	21,1	16,8
LITUANIA	56,9	54,7	31,7	28,3	29,2	26,5
LUXENBURGO	23,8	23,8	5,6	5,0	1,6	0,6
HUNGARIA	74,2	76,1	44,1	39,6	13,7	11,2
MALTA	22,8	24,7	19,4	20,2	23,4	22,1
HOLANDA	23,4	23,7	8,1	9,0	2,9	2,6
AUSTRIA	23,2	23,9	9,9	9,4	2,7	3,2
POLONIA	50,5	48,6	25,5	22,2	11,4	9,0
PORTUGAL	43,2	42,2	25,5	25,7	27,9	28,3
ERRUMANIA	52,1	51,8	45,8	44,0	14,3	12,3
ESLOVENIA	45,8	45,8	17,0	17,2	4,9	5,6
ESLOVAKIA	39,5	38,9	23,4	22,2	5,4	6,1
FINLANDIA	27,5	27,2	8,5	7,9	1,2	1,5
SUEDIA	18,2	16,9	4,3	3,2	0,8	0,8
ERRESUMA BATUA	41,1	38,9	17,4	15,5	10,6	9,3
EAE	**24,2**	**20,5**	**10,2***	**8,9***	**7,9**	**7,3**

Iturria: EUROSTATen eta EINen datuekin guk geuk egina.
**Zenbatespena da, metodologiak desberdinak baitira (ikusi testua)..*

Alde batetik, familien %3-5 baino ez zegoen egoera horretan Suedian eta Luxenburgon, eta %10 baino gutxiago Europako iparraldeko herrialdeetan eta Holandan. Gabezia materialaren indizea, ordea, %46,8koa zen Bulgarian eta %44koa Errumanian. Espainiak % 17,8ko ratioa zuen.

EINek, bizi-baldintzei buruzko inkestan, antzeko adierazle bat kalkulatzen du autonomia-erkidegoetarako, eta adierazle horretan zazpi gastu- eta ekipamendu-kontzepturen gabezia hartzen du aintzat. Alde horretatik, EAEko gabezia-indizea %8,9 zen 2014an (bederatzi kontzeptu horietatik gutxienez hiru ez dituzten etxeak), eta estatuko batezbestekoa %16,9 (EUROSTATen indizea %17,8 zen). Beraz, Europako eta Espainiako adierazleak alderagarriak dira, adierazitako zuhurtasunarekin bada ere.

Azkenik, krisiaren ondorioz, zoritxarrez, gaurkotasun handikoa da beste gabezia-adierazle bat ere, hain zuzen ere "pobrezia energetikoa". Etxebizitza batean pobrezia energetikoa dute gai ez direnean etxeko beharrak asetzeko energia nahikoa ordaintzeko eta/edo etxebizitzako energia-faktura ordaintzeko diru-sarreren parte handi bat erabili behar dutenean[4]. Euskal Autonomia Erkidegoan gertakari nahiko berria da, baina krisiaren ondorioz gaur-gaurkoa. Europan, ordea, "fuel poverty" esaten zaiona agenda politikoan dute aspaldidanik hainbat herrialdetan, Erresuma Batuan, Irlandan eta Belgikan, esate baterako.

Europan, EUROSTATen datuen arabera, familien %10,2k ezin zuen 2014an etxea tenperatura egokian mantendu, eta tasa horrek %10aren inguruan egonkor eutsi zion azken urteetan. Iturri horren arabera, balio-aniztasun handia du arazoak: oso balio handiak dira Bulgarian (%40,5) edo Grezian %32,9) esaterako, eta %1etik beherako indizeak Europako iparraldeko herrialdeetan (Norvegia eta Suedia). Estatuan, EBko batezbestekoa baino pixka bat handiagoa da arazo horren intzidentzia, 2014an %11,1ekoa hain zuzen ere.

Bestalde, EINen Bizi-baldintzen Inkestak erakusten duenez, euskal familien %7,3k ezin zuen etxea tenperatura egokian mantendu, eta Estatu mailan, berriz, %11,1ko tasa zegoen. Hona hemen erkidego kaltetuenak: Murtzia (%18,5), Valentziako Erkidegoa (%18,4) eta Galizia (familien %16); beste muturrean, berriz, U. Kanariarrak eta Nafarroa daude (% 0,2 eta %1 hurrenez hurren). Aurreko urtearen aldean, 6 hamarren hobetu da EAEko datua. Estatuko batezbestekoa, berriz, %3,1ekoa da.

Eta 2008an gertaturikoa kontuan hartzen badugu, gabezia horren intzidentziak 3,9 egin zuen gora EAEn eta 4,9 Estatuko batezbestekoan.

III.4.7. KOADROA. POBREZIA ENERGETIKOA ESTATUA: ETXEA TENPERATUA EGOKIAN MANTENTZERIK EZ DUTEN FAMILIEN PORTZENTAJEA. 2008-2014.

	2008	2013	2014
ESTATUA, GUZT.	6,2	8,0	11,1
ANDALUZIA	8,3	8,4	15,8
ARAGOI	2,8	4,0	4,7
ASTURIAS	4,2	10,1	13,7
BALEARRAK	5,1	12,4	6,6
U. KANARIARRAK	3,7	5,1	0,2
KANTABRIA	2,5	4,0	8,3
GAZTELA-MANTXA	3,6	2,4	5,8
GAZTELA ETA LEON	4,7	11,5	14,2
KATALUNIA	5,4	4,7	8,7
VALENTZIAKO E.	6,0	10,5	18,4
EXTREMADURA	8,8	6,5	8,3
GALIZIA	9,4	13,3	16,0
MADRIL	7,3	9,0	8,5
MURTZIA	9,8	11,9	18,5
NAFARROA	2,8	2,4	1,0
EAE	**3,4**	**7,9**	**7,3**
ERRIOXA	4,1	10,2	9,1
CEUTA	9,8	11,1	10,7
MELILLA	17,7	11,9	14,4

Iturria: EIN.Bizi-kalitateei buruzko inkesta.

4.2. PGDI 2014: DESBERDINTASUN-ADIERAZLEAK

Eusko Jaurlaritzak, 2012. urtera arte, "Pobreziari eta gizarte-desberdintasunari buruzko inkesta" (PGDI) egin du lau urtez behin, jakiteko gure gizartearen pobreziaren indizeak zer bilakaera duen, pobrezian zer arrisku-faktorek eragiten duten eta zergatik banatzen den desberdin. 2014an, berritasun gisa, eragiketa estatistiko horren modulu txikiago bat aurkeztu dute, dagozkion adierazle nagusiekin, bi urte lehenago egindako galdeketako emaitzak eguneratze aldera. Inkestako emaitza nagusia da EAEko pobrezia- eta estutasun-egoeren intzidentzia etengabe handitu dela eta gero eta pertsona gehiago daudela egoera horretan, krisi ekonomikoa hasi eta sei urte baino gehiago igarota[5].

III.4.8. KOOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN PGDIko OINARRIZKO ADIERAZLEEN BILAKAERA

		1996	2000	2004	2008	2012	2014
MANTENTZE-POBREZIA	POBREZIA ARRISKUA	13,3	7,9	5,6	5,7	7,3	8,2
	ONGIZATERIK EZA	36,3	24,7	21,9	16,4	19,9	21,9
METATZE-POBREZIA	POBREZIA ARRISKUA	3,6	4,2	3,6	1,5	1,4	2,0
	ONGIZATERIK EZA	25,3	17,2	19,4	18,6	17,5	20,0
BENETAKO POBR.	POBREZIA ARRISKUA	8,7	5,1	4,5	4,2	5,3	5,9
	ONGIZATERIK EZA	16,5	11,0	11,2	8,2	10,1	11,5

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PGDI 2014.

4 Ikerketari buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikusi Memoria Sozioekonomiko honen 2014ko edizioa, monografiko gisa aztertzen duena.

5 Inkestari buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikusi Memoria Sozioekonomiko honen 2014ko edizioa.

EAEko 2015eko Memoria Sozioekonomiko honen edizioaren ardatza hauxe izango da: desberdintasun-adierazle nagusien bilakaera aztertzen duen estatistika-eragiketa honen atala, betiere errentaren banaketa aztertuta. Halaber, azterketa honen emaitzak EUROSTATen zenbakiekin erkatuko dira (EB-SILC).

III.4.9. KOADROA. DESBERDINTASUN-ADIERAZLE NAGUSIEN BILAKAERA EAE-N

	GINI INDIZEA	RATIOA 80/20	SARREREN % 10 BEHARTS. %
1996	28,0	4,2	3,68
2000	27,3	4,1	3,55
2004	26,0	3,9	3,76
2008	25,2	3,6	3,88
2012	25,3	3,7	3,75
2014	27,1	4,2	3,41

Iturria: PGDI 2014.

Lehenik eta behin, beste adierazleen artean, Gini-ren indizea aztertzen da. Ekonomia bateko kideen edo familien diru-sarreren banaketaren eta berdintasunezko banaketaren artean dagoen aldea neurtzen du, halako moldez non 0 indizeak berdintasun perfektua adierazten baitu, eta 100eko indizeak, berriz, berdintasunik ez perfektua. 2014ko PGDIk nabarmentzen duenez, koefiziente horren arabera, EAE jasaten ari den egungo krisiarekin batera, desberdintasuna areagotu da krisiaren azken fasean: 2008ra arte, jaitsi egin zen indize hori (urte horretan 25,2ko gutxienekoa lortu zen), eta nahikoa egonkor eutsi zion krisiaren lehen urteetan (2008 eta 2012 bitarteaN hamarren bat besterik ez zen hazi), 2012 eta 2014 bitartean nabarmen hazi zen, 25,3tik 27,1era. Emaitza horrekin, 2000ko desberdintasunaren egoerara itzuli gara (27,3), baina 1996. urtean (Inkesta horrek azterturiko lehen urtea) handiagoa zen, Gini indizea 28 baitzen.

III.4.10. KOADROA. DESBERDINTASUN-ADIERAZLEEN BILAKAERA EB-N: PGDI-K EAE-RAKO IZANDAKO EMAITZEKIKO ERKAKETAV

	GINI KOEFIZIENTEA			RATIOA: 20/80		
	2008	2012	2014	2008	2012	2014
28KO EB	30,9	30,4	31,0	5,0	5,0	5,2
15EKO EB	30,8	30,4	31,0	4,9	4,9	5,2
BELGIKA	27,5	26,5	25,9	4,1	4,0	3,8
BULGARIA	35,9	33,6	35,4	6,5	6,1	6,8
TXEKIAR E.	24,7	24,9	25,1	3,4	3,5	3,5
DANIMARKA	25,1	28,1	27,5	3,6	4,5	4,1
ALEMANIA	30,2	28,3	30,7	4,8	4,3	5,1
ESTONIA	30,9	32,5	:	5,0	5,4	:
IRLANDA	29,9	29,9	:	4,4	4,7	:
GREZIA	33,4	34,3	34,5	5,9	6,6	6,5
ESPAINIA	31,9	34,2	34,7	5,7	6,5	6,8
FRANTZIA	29,8	30,5	29,2	4,4	4,5	4,3
KROAZIA	28,0	30,9	30,2	4,5	5,4	5,1
ITALIA	31,0	31,9	32,7	5,1	5,5	5,9
ZIPRE	29,0	31,0	34,8	4,3	4,7	5,4
LETONIA	37,5	35,7	35,5	7,3	6,5	6,5
LITUANIA	34,5	32,0	35,0	6,1	5,3	6,1
LUXENBURGO	27,7	28,0	28,7	4,1	4,1	4,4
HUNGARIA	25,2	26,9	27,9	3,6	4,0	4,2
MALTA	28,1	27,1	27,7	4,3	3,9	4,0
HOLANDA	27,6	25,4	26,2	4,0	3,6	3,8
AUSTRIA	27,7	27,6	27,6	4,2	4,2	4,1
POLONIA	32,0	30,9	30,8	5,1	4,9	4,9
PORTUGAL	35,8	34,5	34,5	6,1	5,8	6,2
ERRUMANIA	36,0	33,2	34,7	7,0	6,3	7,2
ESLOVENIA	23,4	23,7	25,0	3,4	3,4	3,7
ESLOVAKIA	23,7	25,3	26,1	3,4	3,7	3,9
FINLANDIA	26,3	25,9	25,6	3,8	3,7	3,6
SUEDIA	24,0	24,8	25,4	3,5	3,7	3,9
ERRESUMA BATUA	33,9	31,3	:	5,6	5,0	:
EAE	**25,2**	**25,3**	**27,1**	**3,6**	**3,7**	**4,2**

Iturria: EUROSTAT eta EUSKO JAURLARITZAREN datuekin eginikoa. PGDI 2014.

Erkaketa eginez, EBkoaren antzekoa izan da koefizientearen bilakaera: 2012-2014ko aldean, EBko ia estatu guztietan hazi da desberdintasuna.

31ko batez bestekoa izanik 28ko EBra nahiz 15eko EBrako, nabarmentzekoak dira Lituaniako eta Letoniako kopuru handiak (35etik gora), edo Errumaniakoa eta Espainiakoa (bietan 34,7) eta Greziakoa (34,5). Beste eremu geografiko batzuetan daudenen antzekoak dira (Japonia 33,6; AEB 38,9, ELGAk 2013rako emandako datuak). Betalde, ratiorik txikienak (eta, beraz, errenta berdintasun handiagoz banatzen da), EBn, Eslovenian, Suedian, Finlandian eta Txekiar Errepublikan daude, horietan guztietan 25 inguruan. EAEk 27,1eko indizea duenez, Danimarkaren (27,5) edo Holandaren (26,2) eta Austriaren (27,6) parean kokatzen da.

Bigarrenik, azaldutako joera antzekoa da EAEko biztanleriak aberatsenen %20ko diru-sarrerak eta pobreenen %20ri dagozkionak erlazionatzen dituen ratioari dagokionez (S80/S20). Kasu honetan, 1996ko 4,2tik 2008ko 3,6ra jaitsi zen indizea, eta pixka bat gora egin zuen 3,7ra 2012an eta nabarmenago 2014an, urte horretan 4,2koa izan baitzuen. Kasu honetan, 1996 eta 2000 urteetakoen antzeko datua da.

EBn, bilakaera beste behin oso antzekoa da herrialde guztietan, eta ratioa hazi egin zen 2012 eta 2014 bitartean, batezbestekoan (5tik 5,2ra 28ko EBn) nahiz ia EBko estatu kide guztietan. Beste behin, Espainia ageri da baliorik handiena dutenen artean, Grezia, Errumania eta Bulgariarekin batera (6,8ko indizea, 2012an baino hiru hamarren

gehiago). Baliorik txikienak (4tik behera 2014an, baina guztietan igoera txikiak 2012ko datuen aldean), berriz, Txekiar Errepublikan, Finlandian, Eslovenian eta Suedian ditugu. EAE (4,2arekin) oso toki onean dago, Danimarkaren, Austriaren edo Hungariaren parean.

Azkenik, dinamikarik kezkagarriena, PGDIren aburuz, EAEko baliabide gutxien dituzten pertsonen %10ari dagokion biztanleriaren guztizko diru-sarreren zatiaren adierazlea da. 2000ko %3,55etik 2008ko %3,88ra igo ondoren, adierazlea %3,75era jaitsi zen 2012an eta %3,41era 2014an. Hala, 1996tik izandako daturik txarrena da.

III.4.2. GRAFIKOA. BEHARTSUENEN %10EK GUZTIZKO SARRERETAN DUTEN PARTAIDETZA-PORTZENTAJEAREN BILAKAERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN ETA EUROSTATen datuekin egina

Bilakaera hori Europar Batasunarekin gertatu denarekin erkatuz gero ikus daitekeenez, azken bi hamarkadetan, gutxi gorabehera, egonkor eutsi zion ratioak %3aren inguruan 15eko EBn, baina %2,7raino jaitsi zen azken bi urteetan. Espainian, 2000an aipaturiko %3an kokatu ondoren, harrezkero nabarmen jaitsi zen. 2014an, %1,8 zen, hain zuzen ere EAEkoaren erditik gora pixka bat.

Berriz ere PGDIri helduta, honekin dago lotuta EAEn adierazle honetan izandako okerrerako joera: biztanleriaren dezilen arabera oso bilakaera desberdinak izatea diru-sarrerak batezbesteko diru-sarreren mailarekiko. Gauzak horrela, 2014ko batezbesteko per capita diru-sarrera garbiak 2008koak baino handiagoak ziren biztanleriaren %50 aberatsenen artean (6-10 dezil). %50 pobreenen artean, berriz, nabarmenak izan dira jaitsierak (1-5 dezil).

2008-2014KO aldiko diru-sarreren jaitsiera, gainera, areagotu egin zen argi eta garbi diru-sarreren eskolan behera egin ahala. Horrela, -%1 eta -%2,6 bitarteko murriztapena zegoen pobreenen 4 eta 5 deziletan baina -%4,4raino igotzen zen hirugarren dezilean eta -%8,2ra aberatsenen bigarren dezilean. Jaitsierarik handiena EAEko pobreenen %10i dagokio; izan ere, 2008 eta 2014 bitartean per capita diru-sarreren korronte garbien %13,4 galdu baitzuen.

III.4.11. KOADROA. PER CAPITA BATEZ BESTEKO SARRERA BALIOKIDEAK, SARREREN DEZILEN ARABERA (HILEKO OHIKO SARRERA GARBIAK) EAE, 2008-2014KO ALDIA.

	2008	2012	2014	Ald. % 2008-2012	Ald. % 2012-2014	Ald. % 2008-2014
BEHARTS. %1-10 (D1)	575	564	498	-2,0	-11,6	-13,4
%10-20 (D2)	820	818	753	-0,2	-8,0	-8,2
%20-30 (D3)	973	980	930	0,8	-5,1	-4,4
%30-40 (D4)	1.137	1.147	1.108	0,9	-3,5	-2,6
%40-50 (D5)	1.289	1.307	1.276	1,2	-2,2	-1,0
%50-60 (D6)	1.438	1.474	1.441	2,5	-2,2	0,2
%60-70 (D7)	1.607	1.650	1.631	2,7	-1,2	1,5
%70-80 (D8)	1.813	1.883	1.857	3,8	-1,3	2,4
%80-90 (D9)	2.094	2.191	2.187	4,7	-0,2	4,4
ABERATS. %10 (D10)	2.999	2.943	3.032	-1,9	3,0	1,1
BATEZBESTEKOA	**1.475**	**1.495**	**1.471**	**1,4**	**-1,6**	**-0,3**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PGDI 2014.

4.3. BIZITEGI-BAZTERKETA LARRIA ETXERIK GABEKO PERTSONAK

Nahiz eta fenomeno berria ez den, krisi ekonomikoak gaurkotasuneko gaia bihurtu du bizitegi-bazterketa larria, baita horrek eraginpeko pertsonen herritartasun eskubideetan duen eragina ere. Europar Batasunak onartu duenez, lehentasunezko arazoa da pobreziaren eta gizarte bazterketaren kontrako borrokarekin loturiko agenda politikoan Europako 2020 Estrategiaren baitan. Beren beregi aipatzen dira "*etxerik gabekoak*" eta etxebizitzaren gaineko bazterketa Europan politika publikoak sortzeko lehentasunezko esku-hartzearen ardatzetako bat.

Hona hemen erakundeek bizitegi-bazterketa larriari aurre egiteko duten muga nagusietako bat: fenomeno horrek oro har herritarrengan duen intzidentziari buruzko informazioa bildu eta talde horren ezaugarriak zein diren jakitea ahalbidetzen duten estatistikak eta azterlan espezifikoak ez izatea.

EAEn bizi diren eta bizitegi-bazterketa larria duten pertsonen kopurua zehazteko, haien ezaugarri soziodemografiko garrantzitsuenak eta haien bizi-baldintzak eta bizi-ibilbideak zein diren jakiteko, Eusko Jaurlaritzak 2014an "*EAEn bizitegi-bazterketa larria bizi duten pertsonen inguruko II. Azterlana*" egin zuen. Horri esker, gainera, 2012an bildutako datuekin 2013an eginiko lehen azterlanaren emaitzak eguneratu ahal izango dira. Ikerketa egiteko, 2014ko urriaren 29tik 30erako gauean aldi berean EAEko hamar herritan (Barakaldo, Bilbo, Getxo, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Donostia, Irun, Laudio eta Gasteiz) eginiko pertsona-kontaketaren datuak izan dira oinarria. Horiek udalerri guztiak batuta, euskal biztanleriaren erdia lortzen da (%52,8). Berariaz etxerik gabe daudenentzat edo aldi batez aterpetxeetan edo etxerik gabekoei osatuta emateko beste toki batzuetan dauden pertsonentzat dira kontaketa horiek, eta 80ko hamarkadatik hona egin izan dira munduko hiri handi askotan. Izan ere, baliozko metodologia dira une jakin batean jakiteko zenbat pertsona dauden egoera horretan eta zein diren haien ezaugarriak.

III.4.12. KOADROA. BIZITEGI-BAZTERKETA LARRIA BIZI DUTEN PERTSONEN EZAUGARRI NAGUSIEN BILAKAERA EAE-N. 2012-2014KO BILAKAERA.

		2012		2014		BILAKAERA**
		K	%*	K	%*	
SEXUA	EMAKUMEAK	224	17,1	271	21,9	▲
	GIZONAK	1.089	82,9	965	78,1	▼
ADINA	< 24 URTE	370	28,2	314	25,4	
	< 35 URTE	639	48,7	550	44,5	▼
	> 55 URTE	129	9,8	127	10,3	
JAIOTERRIA	EAE	312	23,8	343	27,8	▲
	ESTATUKO GAINERAKOA	149	11,3	148	12,0	
	ATZERRIKOA	852	64,9	740	59,9	▼
NAZIONALITAT.	ESPAINIARRA	471	35,9	518	41,9	▲
	ATZERRIKOA	816	62,1	676	54,7	▼
BIZI-BALDINTZAK	FAMILIA HARREMANAK	1.084	82,6	1.029	83,3	
	ADISKIDETASUN ERLAZIOA	865	65,9	988	79,9	▲
	OSASUN TXARRA / OSO TX.	149	11,3	136	11,0	
	OSASUN TXARTELIK GABE	172	13,1	260	21,0	▲
	IKASKETARIK GABE	152	11,6	170	13,8	▼
	OINARRIZKO IKASKETAK	620	47,2	543	43,9	
	LANGABE	482	36,7	517	41,8	▲
	LAN INFORMALA	182	13,9	206	16,7	
	SARRERARIK GABE	274	20,9	257	20,8	
	PRESTAZIO / LAGUNTZA PUBLIKOAK	542	41,3	522	42,2	
	PRESTAZIOREN BAT UKATZEA	329	25,1	224	18,1	▼
GUZTIRA		**1.313**	**100,0**	**1.236**	**100,0**	

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEn bizitegi-bazterketa larria bizi duten pertsonei buruzko II. azterlana.
**Kontaketako gauean galdetegia erantzun nahi izan duten pertsona guztiekiko kalkulatu dira emaitzak.*
*** Informazioa emate aldera, gutxienez hiru puntuko aldea ikusten deneko bilakaera-joerak aipatzen dira.*

Kontaketa egin zen gauean, 780 boluntariok hartu zuten parte, eta guztira 1.836 pertsona aurkitu ziren bizitegi-bazterketan larrian. Horietatik %17,6 aintzat harturiko 10 udalerrietako bateko kaleetan zegoen. Gainerako %82,4ak, berriz, talde horretako bizitegian zuen ostatu. Zenbaturiko pertsona guztien %16,2 Araban aurkitu ziren, %49,2 Bizkaian eta %34,6 Gipuzkoan. Hortaz, agerian gelditu da etxerik gabekoen arazoaren intzidentziarik handiena duen lurraldea Araba dela (0,923 lagun etxerik gabe 1.000 biztanleko), eta ondoren (0,888) eta Bizkaia (0,785). Alabaina, azterlanak berak ondorioztatzen du Arabako intzidentzia handiago horren zioa: Araban ostatua emateko etxetako plazen eskaintza erlatibo handiagoa deigarria izan daitekeela talde horrentzat.

Zenbaturiko pertsona guzti horietatik, 1.236 pertsonen gaineko informazio zehatza dugu, galdetegia erantzun baitzuten. Horietatik %78,1 gizonezkoak ziren eta %21,9 emakumezkoak. Proportzio hori desberdina da aurkitu ziren tokiaren arabera; izan ere, kalean aurkiturikoen %80 gizonezkoak izan ziren. Inkestaturikoen erdia baino gehiago (%54,7) atzerritarrak ziren, eta batezbesteko adina 37 urte zen (%40k 35 urte baino gutxiago zituen).

Etxerik gabekoen egoeraren iraupenari dagokionez, galdetegia erantzun zutenen herenak (%33,3) urtebete baino gutxiago zeraman egoera horretan, %25,6k urte bat eta hiru urte bitartean eta heren batek baino gehiagok (%36,2) hiru urtetik gora zeramatzan etxerik gabe. Azken talde horretako pertsonen %13,2 egoera horretan izan da 3 eta 5 urte bitartean, %12,1 5 eta 10 urte bitartean eta %10,8k 10 urtetik gora daramatza kalean.

Haien bizi-baldintzei dagokienez, datu hauek nabarmentzen ditu txostenak:

III.4.3. GRAFIKOA. BIZITEGI-BAZTERKETA LARRIA DUTEN PERTSONEN BANAKETA EAE-N, ADIN-TALDEEN ARABERA. 2014



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEn bizitegi-bazterketa larria bizi duten pertsonen egoerari buruzko II. azterlana.

- %59,9 atzerrian jaiotakoa zen, %28 EAEn eta gainerako %12a Estatuko beste erkidego batzuetan. Atzerritarren jatorriari dagokionez, erdia baino gehiago Magrebekoa zen (%50,4), batez ere Marokokoak (etxerik gabeko atzerritarren %43,9 hain zuzen ere).
- Elkarrizketaturiko pertsonen erdiak baino gehiagok (%14) ez zuen ikasketarik edo oinarrizko ikasketak zituen bakarrik (%44), eta %6k bakarrik zuen lan egonkorra eta iraunkorra. Gainera, behin-behinekotasuna da laneko ibilbide gehienen ezaugarri nagusia, zeren eta elkarrizketaturiko pertsonen %40k aldi baterako kontratuarekin lan egiten baitzuten edo lan egin baitzuten. Laurden batek (%26,5), aldiz, kontratu barik egin zuen.
- Hamarretik zortzik harremanak zituen familiarekin, baina %25ek baino pixka bat gehiagok bakarrik eman zuten eguneko zatirik handiena. Ohikoagoa zen gizartetatik bakartuta egotea gizonezkoen artean; izan ere, horien %28,2k bakarrik ematen zuen eguneko zatirik handiena. Etxerik gabeko emakumeak, berriz, gutxiago ziren, %19,6 hain zuzen.
- %11k uste du osasun txarra edo oso txarra duela. 15 urte eta gehiagoko biztanleen arteko proportzioa, berriz, askoz txikiagoa da Osasunari buruzko Inkestaren arabera, biztanleen %3,9 hain zuzen. Inkestaturiko pertsonen %21ek, gainera, ez du osasun-txartelik.
- Elkarrizketaturiko pertsonen %18k zioen gizarte zerbitzuren bat ukatu egin izan zaiola, eta diru-laguntzak dira atal honetan gehien aipatu direnak; ondoren, ostatua duten zerbitzuak. Antzeko kopuru batek zioen (%18,4k) Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titularra zela. Diru-laguntza hori jasotzen ez zuten pertsonetatik bi herenek bazuten laguntzaren berri, baina gainerakoek (%33,8k) ez zuten prestazio horren berri.

Pertsona horiek emandako informazioan, berebiziko garrantzia zuten etxerik gabeko egotea eragindako kausa subjektiboaren gaineko argibideek. Galdera (askotariko erantzuna emateko aukera zegoen) erantzun zuten 949 lagunetatik (galdetegia erantzun zutenen %76,8k) erdiak baino gehiagok aipatu zituen diru arazoak haien egungo egoeraren eragile nagusi edo eragile nagusietako bat (%54,8). Hamarretik hiruk, gainera, lan arazoak aipatu zituen (%30), eta lautik batek zioen familia eta bikote arazoengatik zeudela etxerik gabe (%24 hain zuzen ere). Halaber, legezko bizilekuen inguruko egoera erregulatzearekin loturiko administrazio arazoak aipatzen zituen %22k, eta elkarrizketaturiko pertsonen %20,1ek zioen alkoholaren edo beste drogen ondoriozko arazoak zirela.

Azkenik, azterlan horrek 2012ko urriaren 17tik 18rako gauean eginikoaren egituraren zati handi bati eusten dionez gero, EAEko talde horren ezaugarrien bilakaera aztertu ahal izan da (2012an bakarrik euskal hiriburuetan egin ziren kontaketak eta, beraz, ezin erka daitezke bi zenbaketen emaitza kuantitatiboak). Lehenik eta behin, emakumeen pisu erlatiboa hazi egin dela ikusten da. Atzerritarren pisuak, berriz, behera egin du. Halaber, identifikaturiko pertsonen batez besteko adina pixka bat handitu dela ikus daiteke, gazteenen pisu erlatiboak indarra galdu izanaren ordez, gehienbat atzerritarrenak.

III.4.13. KOADROA. BIZITEGI-BAZTERKETA LARRIA DUTEN PERTSONEK EGOERA HORRETAN EGOTEKO ZIOEI BURUZ DUTEN IRUDIPENA. EAE, 2014. N=949.

	ERANTZUN DUTENAK		ETXERIK GABEKO GUZTIEN % (N=1.236)
	N	%	
LAN ARAZOAK	285	30,0	23,1
DIRU ARAZOAK	520	54,8	42,1
ARAZOAK OSTATUAREKIN	61	6,4	4,9
ARAZOAK ALKOHOLAREKIN EDO BESTE DROGA BATZUEKIN	191	20,1	15,5
NORBERAK HALA NAHI DUELAKO	44	4,6	3,6
ADMINISTRAZIO ARAZOAK (SIT. ADM. IRREGULARRA…)	209	22,0	16,9
OSASUN ARAZOAK	60	6,3	4,9
ARAZOAK JOKOAREKIN	15	1,6	1,2
ARAZOAK FAMILIAREKIN EDO BIKOTEKIDEAREKIN	228	24,0	18,4
ERAKUNDEEK ABANDONATUTA	54	5,7	4,4
ARAZOAK HARRERA-SAREAREKIN	16	1,7	1,3
BESTELAKO ARRAZOIAK	71	7,5	5,7
ERANTZUNAK, GUZTIRA	**1.754**	**-**	**-**
ERANTZUN DUTEN PERTSONA GUZTIAK	949	100,0	76,8

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEn Bizitegi-bazterketa larria bizi duten pertsonen inguruko II. azterlana

Igo egin da langabetuen portzentajea, baina lan egiten dutenenak ere gora egin du, ekonomia informalean egiten dutela egiten dutenenak barne. Egonkor eusten zaio laguntza edo prestazio publikoak jasotzen dituzten pertsonen proportzioari, baita osasun txarra dutela diotenenari ere. Azken finean, eta aipaturiko aldaketa txikiak alde batera utzita, ondorio hau ematen du azterlanak: EAEn bizitegi-bazterketa larria bizi duten pertsonen ezaugarri soziodemografikoen eta bizi-baldintzen zati handienak egonkor eutsi zion 2012 eta 2014 bitartean.

Bestalde, EINek 2014an "*Etxerik gabekoei laguntzeko zentroei buruzko inkesta*" egin zuen. Inkestaren helburua bitarteko horien ezaugarriak zein diren jakitea da; izan ere, erkidegoen arteko alde handiak erausten ditu batez besteko okupazioaren edo zentroko gastuaren aldetik. Aldi berean, EAEko zentroen zenbait bereizitasun identifikatzeko modua ematen du.

III.4.14. KOADROA. ETXERIK GABEKOEI LAGUNTZEKO ZENTROAK AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. ADIERAZLE NAGUSIAK. 2014.

	PLAZAK	OKUPAZIOA (%)	
ESTATUA, GUZT.	16.684	81,8	
ANDALUZIA	1.545	70,2	
ARAGOI	839	80,0	
ASTURIAS	435	87,9	
BALEARRAK	629	86,5	
U. KANARIARRAK	624	99,3	
KANTABRIA	161	73,6	
GAZTELA-MANTXA	741	67,0	
GAZTELA-LEON	410	69,2	
KATALUNIA	1.543	93,7	
VALENTZIAKO E.	856	78,5	
EXTREMADURA	125	80,0	
GALIZIA	855	66,9	
MADRIL	1.803	90,0	
MURTZIA	654	54,8	
NAFARROA	336	79,2	
EAE	**2.721**	**74,3**	
ERRIOXA	232	64,4	
CEUTA	618	128,0	
MELILLA	1.561	98,1	

Iturria: EIN. Etxerik gabekoei laguntzeko zentroei buruzko inkesta

Inkestatik ondoriozta daitekeenez, lehenik eta behin, EAEn 2.721 plaza zeuden eskuragarri etxerik gabekoei ostatua emateko erreferentziako urtean, Estatuko plaza guztien %16,3. Halaber, zentroen batez besteko okupazioa %81,8raino igo zen Estatuan. Gure Erkidegoan, berriz, %74,3raino.

Autonomia erkidegoen arteko erkaketan ikus daitekeenez, 2014an gainezka egon ziren Ceutako, U. Kanariarretako eta Melillako zentroak, hain zuzen %128, %99,3 eta %98,1eko batezbesteko okupazioarekin hurrenez hurren. Lurralde horietan dagoen immigrazio irregularrarekin du zerikusia datu horrek.

Halaber, nabarmentzekoa da EAEn dauden zentroen kopuru herri txikia izanik (234, Estatuko %29,5, baina dagoeneko esan dugunez, plazen %16,3 baino ez dute eskaintzen eta, beraz, batez besteko dimentsio txikiagoa dela esan daiteke). Horrez gain, Estatu mailan gertatzen ez den bezala (2014. urtean zentroen %30,5 titulartasun publikokoak ziren), Euskadin %60,7 dugu (hala ere, gehienak -%94,8-, titulartasuna alde batera utzita, funts publikoen bidez finantzatzen dira Estatuan).

5. INTERESEKO TALDEAK: 55 URTETIK GORAKOAK

Europak aurrerapen ekonomiko eta sozial handia bizi izan du azken hamarkadetan eta, eskualde eta gizarte mailako alde nabarmenak izanik ere, europarrak urte gehiagoz bizi dira. Bizi-itxaropenaren hazkunde horrek berekin dakartza zenbait erronkari aurre egitea eta era askotako ondorioak, eta gizarte osoak eman beharko die erantzuna horiei guztiei. Gainera, erronka berriak dakartzate beste fenomeno demografiko batzuek: ume gutxi jaiotzen denez gero, epe ertainera, gehienbat pentsioetan eta osasunean gero eta gastu handiagoa finantzatzeko langile gutxiago izango da. Testuinguru horretan, administrazioak eta gizartea oro har adinekoek gure gizartean betetzen duten eginkizuna aztertzen ari dira berriz ere, eskaintzaren aldetik (ekoizpen-sistemarako ekarpena egiten duten langileak diren aldetik) nahiz eskariaren aldetik (gero eta kontsumo handiagoko segmentua den aldetik).

Ondoren, EAEko 55 urtetik gorakoen bizi-baldintzen egoera aurkeztuko da, eta horretarako, haien eguneroko bizitzako alderdi ugariri (baldintza materialak, osasun egoera, ikasketa maila, aisialdia, gizarte harremanak...) buruzko laburpena eskainiko da, gehienbat Eusko Jaurlaritzak berriki egin duen "*55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi-baldintzak Euskadin*" (2015) azterlana oinarri hartuta. Izan ere, talde horren beharrak zein diren jakiteko balio izan du, baita zahartzearen inguruko etorkizuneko joerak ere, hori guztia "*Zahartze Aktiborako 2015-2020 Euskal Estrategia*" delakoa egiteko prozesuaren baitan (horren ildo nagusiak azalduko dira), eta kapituluaren bukaeran, Zahartze Aktiboaren Europako Indizeari buruzko epigrafea agertuko da, baita gure Erkidegoak prozesu horren dimentsioetan duen posizioa ere.

III.5.1. TAULA. EB-KO BIZTANLERIA: 55 URTETIK GORAKOEK GUZTIZKO POPULAZIOAN DUTEN PISUA ETA TALDEAREN BARRUAN DUTEN BANAKETA. 2014.

	POPULAZIO GUZT (MILA)	% 55 URTETIK GORAKOEN GUZT. GAINEAN	55 URTETIK GORAKOEN TALDEAN DUEN PISUA			
			% 55 - 64	% 65-74	% 75 - 85	% 85 ETA +
28-KO EB	506.847,6	31,3	40,7	30,9	20,7	7,7
BELGIKA	11.204,0	30,3	41,2	29,5	21,1	8,2
BULGARIA	7.245,7	33,8	42,1	33,0	20,0	5,0
TXEKIAR ER.	10.512,4	31,0	44,1	34,0	16,6	5,4
DANIMARKA	5.627,2	30,5	40,3	35,6	17,4	6,7
ALEMANIA	80.767,5	34,2	39,0	31,0	22,4	7,5
ESTONIA	1.315,8	31.4	41,4	30,4	21,6	6,6
IRLANDA	4.605,5	23,0	45,2	31,7	17,1	6,0
GREZIA	10.926,8	32,7	37,3	30,5	24,2	8,0
ESPAINIA	46.835,6	29,7	38,9	30,0	22,1	9,0
FRANTZIA	65.835,6	30,6	41,1	29,2	20,3	9,4
KROAZIA	4.246,8	32,6	43,4	30,0	21,5	5,1
ITALIA	60.782,7	33,9	36,8	31,5	22,6	9,1
ZIPRE	858,0	25,3	45,2	32,1	17,6	5,2
LETONIA	2.001,5	32,1	40,7	31,5	21,5	6,2
LITUANIA	2.943,5	31,1	40,7	30,2	22,5	6,6
LUXENBURGO	549,7	25,4	44,5	29,2	19,3	6,9
HUNGARIA	9.877,4	31,8	45,1	31,4	18,0	5,5
MALTA	425,4	31,9	43,8	33,5	17,4	5,2
HOLANDA	16.829,3	30,3	42,7	32,9	17,9	6,6
AUSTRIA	8.506,9	30,4	39,8	33,4	18,7	8,1
POLONIA	30.017,9	29,4	49,4	27,1	17,9	5,6
PORTUGAL	10.427,3	32,6	39,2	31,0	22,4	7,4
ERRUMANIA	19.947,3	30,4	45,6	29,1	20,2	5,0
ESLOVENIA	2.061,1	31,6	44,7	29,2	19,8	6,3
ESLOVAKIA	5.415,9	27,1	50,0	29,6	15,8	4,6
FINLANDIA	5.451,3	33,2	41,7	32,7	18,5	7,1
SUEDIA	9.644,9	31,3	38,0	34,8	18,7	8,4
ERRESUMA BATUA	64.308,3	28,9	39,4	32,9	19,8	8,0
EAE	**2.172,9**	**35,2**	**37,8**	**30,1**	**21,6**	**10,5**

Iturria: EUROSTAT eta EUSTATen datuekin guk geuk eginikoa.

Adinekoak inoiz baino aktiboagoak dira lanean, familian eta gizartean. 55 urtetik gorakoak prestatzeko inbertsioa egitea, sarritan, baliabideak alferrik galtzea dela iritzi izan zaio, inbertsio hori errentagarri egiteko epealdi laburra kontuan hartuta betiere. Horrez gain, aurretiazko erretiroa erabili izan da urte askoan plantilla berregituratu ahal izateko, bereziki krisian zeuden sektoreetan, nazioarteko gero eta lehia handiagoari aurre egiteko, baina sektore publikoan ere bai.

Azken urteotan, pixkanaka atzeratzen ari da erretiroa hartzeko adina pentsioen sistema publikoa hobeto kudeatzeko prozesuaren baitan, sistema horren iraunkortasuna bermatzeko eta gure Ongizate Estatuaren oinarrizko ardatz izaten jarrai dezan. Agintariek jakin badakite joera horrek gogoeta behar duela, baita neurriak hartzea ere, enpresa mailan nahiz nazio eta nazioarte mailan. Hain zuzen ere, honako hauetarako politika hartzea dakar berekin: langileen osasuna mantentzeko eta sustatzeko, adin nagusiagoko langileen gaikuntza garatzeko eta eguneratzeko eta haien lan-baldintza

egokiak bermatzeko, lana eta familia uztartzeko lagungarriak direnak barne, batik bat zaintzako ardurekin eta bereziki gero eta gehiago diren adineko emakumeentzat.

Bestalde, enpresek gero eta arreta handiagoa jartzen dute biztanleriako helduen segimentuek kontsumitzeko duten gaitasunean. Ingelesez "silver economy" deritzonak esan nahi du gero eta eskari handiagoa dela pertsona hauen taldea: etxebizitza eta seme-alaben prestakuntza ordaindutakoan, errenta eskuragarri handiago dutenak eta, are garrantzitsuagoa dena, dirua aisialdian, etxebizitzan, osasunean, etab. gastatzeko denbora eta gogoa dutenak. Bezero horien eskari berriei aurre egiteko erronka berriak sortzen dira, eta askotan "neurrira" eginiko produktuak behar dituzte, kontsumo-produktuetatik hasita (telefono mugikorrak, autoak, etab.) finantza zerbitzuetara, edo bidaia edo osasun zerbitzuetara, betiere haien berezietara egokituta.

5.1. EZAUGARRI DEMOGRAFIKOAK

5.1.1. Datu demografikoak

Azken urteetan jazotako aldaketa ekonomikoek eta sozialek joera soziodemografikoen aldakuntzak ekarri dituzte. familien egiturak eta harremanak, familien eraketa, kontsumo-ohiturak, jarduerak egitea, laguntza-trukeak, eta abar. Aldakuntza horietako zenbait krisi ekonomikoaren ondoriozkoak dira, eta zehazki eragiten die adinekoei. Horien azterketa da aipaturiko biztanleria-talde horren gaineko politikak, estrategiak eta esku-hartzeak egiteko eta garatzeko oinarria.

III.5.2. TAULA. EAE-KO ADINEKOAK ADIN-TALDEEN ARABERA. 1996, 2013 ETA 2029RAKO PROIEKZIOAK. DATU ABSOLUTUAK ETA BZITANLE GUZTIEKIKO PORTZENTAJEA

		GUZTIRA	EMAK.	GIZONAK
1996				
> 54 URTE	N	550.117	306.054	244.063
	%	26,2	28,6	23,8
> 64 URTE	N	321.953	190.023	131.930
	%	15,3	17,7	12,8
> 79 URTE	N	69.606	48.523	21.083
	%	3,3	4,5	2,1
2013				
> 54 URTE	N	725.789	401.832	323.957
	%	33,1	35,8	30,3
> 64 URTE	N	443.250	256.878	186.372
	%	20,2	22,9	17,4
> 79 URTE	N	139.629	91.334	48.295
	%	6,4	8,1	4,5
2029				
> 54 URTE	N	923.010	505.416	417.588
	%	44,9	47,3	42,2
> 64 URTE	N	596.329	339.572	256.755
	%	29,0		
> 79 URTE	N	203.806	127.712	76.094
	%	9,9		

Iturria: EUSKO JAURLARITZA, EINen datuekin egina.

Eusko Jaurlaritzaren azterlanak, lehenik eta behin, Euskadiko 55 urtetik gorakoen datu demografiko nagusiak erakusten ditu. EINen 2013ko Udal Erroldaren datuak oinarri hartuta [1], nabarmentzekoa da Euskadin 2.191.682 lagun zenbatu direla, eta horietatik 725.789, biztanle guztien % 33,1 55 urtetik gorakoak dira; horietatik %44,6 gizonak dira eta %55,4 emakumeak. Halaber, %20,2k 65 urteko atalasea gainditu du (443.250), eta 80 urtekoen eta gehiagoen taldea 139.629 lagunek osatzen du. Izan ere, euskal populazioaren % 6,4 da. Laurogei urteko pertsona guztien %65,4 emakumeak dira eta %34,6 gizonak.

Zenbaki horiek Euskadin 1996ko biztanleriaren egiturarekin erkatuz gero, ondorio hau atera daiteke: harrezkero eta 2013ra arte, EAEko guztizko biztanleriak 93.638 lagun gehiago zituela (hots, %4,5eko hazkundea), 55 urtetik gorakoak 175.672 gehiago ziren (% 31,9), 65 urtetik gorakoen taldea 121.297 lagun gehiagok osatzen zuten (+%37,7), eta laurogei urtekoen taldean 70.023 pertsona gehiago zeuden (bikoiztu egin da taldea, azken 17 urtean %100,6 hazita).

Biztanleria-piramidean agertzen den 1996-2013 epealdian, agerian gelditzen da "baby boom" [2] deritzoneko adin-tarteak posizio zahartuagoetara igaro izana. Zahartze-prozesu hori, gainera, bizkorragoa eta nabarmenagoa da EAEn

1 Nahiz eta Memoria hau itxi den egunean biztanleriari buruz eskuragarri ditugun azken datuak ez diren, Eusko Jaurlaritzaren azterlanak eskainitakoak atal honetan aurkeztea erabaki da, urte desberdinetako iturriak eta datuak ez nahastearren. Nolanahi ere, 2014ko (sarrerako taulan aurkeztuak, Europa mailan eskuragarri dauden azkenak) eta 2015eko (argitaraturiko azkenak, EUSTATen Udal Estatistika oinarri hartuta) biztanleriaren kopuruen arteko ezberdintasunak oso txikiak dira eta ez dute eraginik haiei buruz eman ditzakeen ondorioetan.

2 "Baby boom" deritzon eta II. Mundu Gerraren ondoren Europako herrialde askotan orokortu zen fenomenoaren ezaugarri nagusia 1957eta 1977 arteko ugalkortasunaren igoera handia izan zen. Belaunaldi horiek, gaur egun, biztanleriaren herena dira. "Baby boom"-eko belaunaldiak erretiroa hartzeko adinera iristearen ondorioez ohartarazi gaituzte, hain zuzen ere mendearen hirugarren hamarkadarako (2020). Belaunaldion efektua hezkuntza-sistematik edo lan-merkatUtik igarotzean izan zuena bezain garrantzitsua izango da.

Espainiako Estatuan eta Europan baino, zeren eta 1990ean txikiagoa baitzen Euskadin adinekoen pisua Estatuan eta 27ko EBn 2013. urtean baino. 65 urtetik gorakoen ratioak Europakoa nahiz Estatukoa gainditu ditu, eta gauza bera 80 urtetik gorakoen proportzioak.

Biztanleria-proiekzioei dagokienez, adinekoen taldearen pisuak igoera nabarmena izango duela aurreikusten da. EINen azken zehaztapenen arabera, 2029 urterako, euskal biztanleriako 596.329 lagunek gaindituko dute 65 urteko atalasea, hots, guztizkoaren %29k. Milioi bat inguru dira 55 urtekoak eta gehiagokoak, hots, euskal biztanleriaren ia erdia. Baina 66 urtetik gorakoen kopuruaren hazkunde handia baino are nabarmenagoa da laurogei urtetik gorakoentzat aurreikusitakoa: zenbatespenen arabera, 2029an Euskadin 80 urteko eta gehiagoko 200.000 lagun egongo dira, biztanleria osoaren %9,9 eta 65 urtetik gorakoen %34,1.

5.1.2. Bizikidetza-ereduak

III.5.1. GRAFIKOA

País Vasco: Pirámide de población 1996 y 2013



Fuente: INE: INEBASE: Padrón municipal de Habitantes, 1996-2013. Elaboración propia.

"55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi-baldintzak Euskadin" azterlanean, EAEko familietan bizi diren 55 urtetik gorako 2.469 laguneko laginak hartu zuen parte. Horietatik % 55 gizonezkoak ziren eta % 45 emakumezkoak. Adinean gora egin ahala, handiagoa zen emakumeen portzentajea, eta bien arteko alderdik handiena 80 urtetik gorakoen taldean zegoen (emakumeen proportzioa %65,3koa zen).

Egoera zibilari dagokionez, lagineko erdia baino gehiago ezkonduta zegoen edo bikotekidearekin bizi ziren (% 61,1), %25 inguru alargunduta zegoen eta %10 baino gutxiago zegon ezkondu gabe (% 9,3), bananduta edo dibortziatuta (%5,6). Alargundutako pertsonei dagokie pertsona bakarreko etxeen erdia baino gehiago (%62,3). Ezkongabeak etxe horietako % 22,4 dira, eta banandutakoak eta dibortziatuak, berriz, %13,7. Familia ugariko etxeei dagokienez, gehienbat ezkonduta dauden edo bikotekidearekin bizi diren pertsonek osatzen dituztela esan behar da (%68,7), edo seme-alabaren etxean bizi direnek, gehienbat alarguntasunagatik (% 64,4).

EAEko 55 urteko eta gehiagokoen etxeei dagokienez, % 37,1, portzentajerik altuena, bikotekidearekin bizi da etxean, eta ondoren beren etxean askotariko belaunaldietako familietan bizi diren pertsonen proportzioa dator, hots, gehienbat familia mantentzen duen adineko pertsonena (emantzipatu gabeko seme-alabak dituzten gurasoak) duten gurasoek eta seme-alabek osatutako familiak; izan ere, familien % 32,9 dira. % 20,5 bakarrik bizi da pertsona bakarreko etxean; % 8,2 beste mota bateko familietan, non beste senide batzuekin bizitzea aurreikusten den, eta azkenik, % 1,3 besterik ez da bizi seme-alabekin seme-alaben etxean (seme-alabekin bizi izatera joan diren adinekoak). 65 eta 79 urte bitarteko pertsona-taldea aintzat hartuz gero, % 47,97 bikotekidearekin bizi da, %21,3 bakarrik eta % 24,2 bere etxean bizi da seme-alabekin, % 5,4 bestelako familia motetan bizi da eta % 1,2 seme-alaben etxean bizi dira. 80 urteko eta gehiagoko pertsonei dagokienez, gehienak pertsona bakarreko familian bizi dira (Kasuen % 31,5), eta berdintsuak dira norberaren etxean senide askorekin edo bikotekidearekin bizi direnen portzentajea (% 24,8 eta % 24,9 hurrenez hurren). Seme-alabekin bizitzeko aukeran, gehieneko portzentajea izan da, % 3,4.

Hala, adina funtsezko faktorea da familien egituren aldaketan: belaunaldirik gazteenak (65 urtetik beherakoak), gehienbat, beren etxean bizi dira belaunaldi askoko familiekin. 65 eta 79 urte bitartekoak, berriz, neurri handiagoak bizi dira bikotekidearekin, eta 80 urtetik gorakoak bakarrik bizi dira.

Eusko Jaurlaritzaren azterlanak nabarmentzen duenez, gainera, azken urteotan aldaketa gertatu da ohiko bizikidetza moduetan pertsona nagusien artean, gehienbat 65 urtetik gorakoetan: EINen populazioaren datuak erabiliz, EAEko 65 urtetik gorakoen % 15,2, etxean bizi zen seme-alabekin 1993an, eta hala zenean, ilobekin. Ratio horrek % 1,8raino egin zuen behera 2014an. Pertsona bakarreko etxeetan, berriz, gora egin zuen: 1993ko % 16,5etik 2014ko % 24,5era. Osasun egoeran izandako hobekuntzen eta independentzia ekonomikoaren ondoriozkoa da bizitzeko autonomia handitu izana, baina egoera horrek berekin ekar dezake arrisku handiagoa izatea egoera zailetan eta laguntzaren beharra dagoenean. Bakarrik bizi diren pertsonek arrisku handiagoa dute gizartean baztertuak izateko eta gabezia ekonomikoa pairatzeko, eta alarguntzen direnak emakumeak gehiago direnez gizonezkoak baino (gizonezkoen heriotza-tasa handiagoa dela eta), emakumeek jasaten dute bakardadea neurri handiagoan.

III.5.2. GRAFIKOA. EAE-KO 55 URTETIK GORAKOEN FAMILIA MOTA, ADIN-TALDEEN ARABERA. PORTZENTAJEAK, 2014



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi-baldintzak.

III.5.3. GRAFIKOA. EAE-KO 65 URTETIK GORAKOEN FAMILIA MOTEN BAILAKAERA. PORTZENTAJEAK.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA EINen datuekin

5.2. ERLAZIOA JARDUERAREKIN

Eusko Jaurlaritzaren 55 urtetik gorakoen bizi-baldintzei buruz eginiko azterlanak nabarmentzen duenez, urte horretan bertan, 2014an, % 60,3k zioen erretiratua edo pentsioduna zela, % 15,9 lanean ari zela, eta % 18,7k erantzun zuen etxeko lanetan ziharduela. Langabeen proportzioa % 4,5ekoa zen.

Alde nabarmenak antzematen dira, jakina, adin-tartearen arabera: 55 eta 64 urte arteko pertsonen taldean, lanean ari zirenen portzentaje altua zegoen (%39,4); izan ere, talde horretan pisurik handiena zuena zen, eta ondoren erretiratuak edo pentsiodunak zeuden (% 33,6). Halaber, % 11,1 lanik gabe zegoen. 65 eta 79 urte bitarteko pertsonen artean, aldiz, dikotomia dugu, hots, bi aukera soilik: edo erretiratua edo pentsioduna (% 76,5) zen edo etxeko lanetan ziharduen (% 21,4). Etxeko lanetan emakumeen % 33,6k hartzen zuen parte. Gizonezkoen portzentajea, berriz, oso txikia zen, % 0,2koa. Portzentaje horiek berdintsu eusten zioten 80 urte eta gehiagokoen tartean.

III.5.3. TAULA. EAE-KO 55 URTETIK GORAKOAK: JARDUERAREKIKO ERLAZIOA, ADINAREN ETA SEXUAREN ARABERA. GUZTIZKOAREN PORTZENTAJEA, 2014.

	LANEAN	ERRETIRATUA EDO PENTS.	LANGABEA	ETXEKO LANAK	BESTE B.	LAGINA GUZT.
55 URTE ETA +, GUZTIRA	15,9	60,3	4,5	18,7	0,1	100,0
65 URTE ETA +, GUZTIRA	0,9	77,4	0,2	20,8	0,1	100,0
ADINA						
55 - 64	39,4	33,5	11,1	15,4	0,3	100,0
65 - 79	1,1	76,5	0,3	21,4	0,1	100,0
80 ETA +	0,6	79,5	-	19,5	-	100,0
SEXUA						
GIZONAK	18,4	75,2	5,8	0,2	0,2	100,0
EMAKUMEAK	14,0	48,3	3,4	33,6	0,1	100,0
IKASKETAK						
ANALFABETOA	-	45,9	-	54,1	-	100,0
IKASKETA BARIK EDO AMAITU GABE	5,0	66,8	1,6	25,6	0,2	100,0
OINARRIZKOAK	12,7	58,5	5,3	23,2	0,1	100,0
BIGARREN MAILAKO ETA GOI-MAIL.	30,1	56,1	6,7	7,0	0,1	100,0

Iturria. EUSKO JAURLARITZA. 55 urteko eta gehiagokoen bizi-baldintzak Euskadin.

EAE-KO 55 URTETIK GORAKOAK. LORTURIKO LANBIDE-KATEGORIA GAUR EGUN LAN EGITEAREN ETA EZ EGITEAREN ARABERA. PORTZENTAJEAK



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi-baldintzak.

Bestalde, gizonen taldean, honako kategoria nagusi hauek antzematen dira: egun lanean ari direnak (% 18,4) eta erretiratuak edo pentsiodunak (% 75,2); emakumeen artean, ostera, beste talde bat gehiago sartu behar dugu, etxeko lanetan dihardutenak (inkestaturikoen % 33,8), hots, 55 urtetik gorako emakumeen herena. Horrenbestez, murriztu egin da lanean diharduten edo erretiratuta dauden edo pentsioa jasotzen duten 55 urtetik gorako emakumeen proportzioa gizonekiko, bereziki erretiratuen eta pentsiodunen kasuan (% 48,3).

Bestalde, lanean ari diren edo lan egin duten 55 urtetik gorako emakumeen erdia gutxi gorabehera langile gaituen taldean sartzen da (horien barnean daude enplegatu edo langile gaituak), % 52,7arekin (lanen jarraitzen dutenen % 48,1 eta lan egiten ez dutenen % 54). Honelaxe dago banatuta lagineko gainerako zatia: beren kontura lan egiten duten langileak (55 urtetik gorako guztien % 14,1), baina % 17,1eraino lanean jarraitzen dutenen kasuan), zuzendaritza eta gerentzia postuak eta bitarteko agintariak (% 14,9) eta langile ez gaituak (% 14,9).

Horrez gain, grafikoan ikusten denez, desberdintasunak daude lanbide-kategorian pertsonaren egungo lan-egoera kontuan hartzen badugu (une honetan lanean ari den ala ez). Langile gaituen eta langile ez gaituen artean, gehiago dira egun lanean ari direnak lanean ez dabiltzanak baino. Alabaina, kontrako egoera gertatzen da zuzendaritza eta gerentzia postuetako langileekin eta beren kontura lan egiten duten langileekin.

Azaldutako desberdintasunek, jakina, lotura zuzena dute lagina osatzen duten pertsonen ikasketa-mailarekin, halako moldez non unibertsitateko ikasketak dituzten 55 urtetik gorakoen % 30,1ek egiten baitu lan. Ikasketa osatugabeak dituztenei edo ikasketarik ez dutenei dagokienez, % 5ek baino ez du lan egiten.

III.5.4. TAULA. EAE-KO 55 URTETIK GORAKOAK: IKASKETA MAILA ADINAREN, SEXUAREN, OSASUN EGOERAREN ETA LAGUNTZA BEHARRAREN ARABERA. BIZTANLE GUZTIEKIKO PORTZENTAJEA, 2014.

	ANALFA BETOA	IKASKE-TARIK EZ	OINARRIZKOA OSATU GABE	OINARRIZKOA OSATUTA	BIGA RREN HEZK.	LANBIDE HEZIKETA	UNIBERTSITATE IRAKASK.	BESTE B.	LAGINTZA, GUZT.
55 URTE ETA +, GUZTIRA	0,8	10,4	22,8	32,0	8,2	12,7	12,7	0,2	100,0
65 URTE ETA +, GUZTIRA	1,2	15,4	26,9	32,2	5,6	9,0	9,3	0,2	100,0
ADINA									
55 - 64	0,2	2,6	16,2	31,7	12,3	18,4	18,2	0,2	100,0
65 - 79	0,9	12,4	25,9	32,1	6,0	11,3	11,0	0,2	100,0
80 ETA +	1,7	22,1	29,3	32,3	4,8	4,0	5,4	0,2	100,0
SEXUA									
GIZONAK	0,3	9,0	19,9	27,3	9,2	16,9	16,9	0,2	100,0
EMAKUMEAK	1,2	11,5	25,1	35,8	7,4	9,3	9,4	0,2	100,0
OSASUN EGOERA									
OSO ONA + ONA	0,3	4,9	18,1	31,8	10,5	15,9	18,1	0,1	100,0
HALA-MODUZKOA	0,7	14,6	27,0	35,0	6,3	9,9	6,0	0,3	100,0
TXARRA + OSO TXARRA	2,3	24,6	22,2	29,9	4,4	8,2	8,0	0,5	100,0
LAGUNTZA BEHARRA									
LAGUNTZA BEHAR DU	1,9	22,2	30,8	28,9	4,4	6,3	5,0	0,4	100,0
EZ DU BEHAR	0,5	7,5	20,7	32,8	9,1	14,3	14,7	0,2	100,0

Iturria. EUSKO JAURLARITZA. 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi-baldintzak Euskadin.

Euskadiko 55 urtetik gorakoen %1 baino gutxiago dira analfabetoak, eta 65 urtetik gorakoen % 1,2. Lagineko ia guztiek izan zituzten oinarrizko ikasketak (% 88,6), baina horietatik % 22,8k ez zituen ikasketak bukatu. 55 eta 64 urte artekoan taldean, % 0,2raino jaisten da analfabetismoa, eta % 2,6k baino ez ditu ikasketak, baina irakurtzen eta idazten daki. Laurogei urteko pertsonen artean, berdintsuak dira bakarrik irakurtzen eta idazten dakitenen kopurua eta oinarrizko ikasketak hasi bai baina bukatu ez dituztenen kopurua. Pertsona gutxik ditu bigarren hezkuntzako edo goi-mailako ikasketak (guztien % 14,4k). Gainera, emakumeen proportzio handiagoa daukagu irakaskuntza maila txikienetan. Datu horrek lotura izan dezake generoaren gaineko betiko rolekin: emakumea, gehienbat, etxe inguruan kokatu izan da, prestakuntza arautua egiteko aukera gutxiagorekin.

Azkenik, nabarmentzekoa da lanaren eremuan maila handiagoa duten pertsonak direla, proportzioan, osasun hobea sentitzen dutenak eta eguneroko bizitzako jardueretarako laguntzarik behar ez dutenak. Halaxe ikusten da langile ez gaituekin ere, baina alderantziz.

5.3. GIZARTE-BIZITZA ETA EGUNEROKO BIZITZA

5.3.1. Gertutasuna eta gizarte harremanak

Lehenik eta behin, EAEko 55 urtetik gorako pertsonen % 32,9 seme-alabekin bizi da; gainerakoetatik % 53,6 dio hurbilen duen seme-alabaren etxetik kilometrora baino distantzia laburragoan bizi dela (% 3,6 eraikin bereko beste etxebizitza batean), eta % 23,3 1 eta 5 kilometro arteko distantziara. Hortaz, 55 urtetik gorakoen 10etik ia 8 bizi da 5 km-tik beherako distantziara seme-alabaren batengandik.

III.5.5. TAULA. EAE-KO 55 URTETIK GORAKOAK: HURBILEN DAGOEN SEME-ALABAREN ETXEBIZITZARAINOKO DISTANTZIA, ADINAREN, SEXUAREN, OSASUN EGOERAREN ETA LAGUNTZA BEHARRAREN ARABERA. BIZTANLE GUZTIEKIKO PORTZENTAJEA, 2014.

	ERAIKIN BERA, EZ ETXEBIZITZA BERA	< 1 KM	1-5 KM	6-25 KM	26-100 KM	101-500KM	> 500 KM HER. BEREAN	> 500 KM BESTE HER.	LAGINA GUZT.
55 URTE ETA +, GUZT.	3,6	50,0	23,3	11,6	3,5	3,0	2,1	1,6	100,0
65 URTE ETA +, GUZT.	4,1	51,1	24,3	11,7	2,7	2,9	1,1	0,8	100,0
ADINA									
55 - 64	2,3	47,1	20,5	11,4	5,5	3,2	4,6	3,5	100,0
65 - 79	2,5	50,8	24,7	13,0	2,8	3,2	0,9	0,7	100,0
80 ETA +	7,8	51,7	23,5	8,6	2,4	2,3	1,5	1,2	100,0
SEXUA									
GIZONAK	2,8	48,5	22,6	12,9	3,9	4,0	1,8	1,4	100,0
EMAKUMEAK	4,3	51,2	23,9	10,5	3,1	2,2	2,2	1,7	100,0
OSASUN EGOERA									
OSO ONA + ONA	3,1	50,2	22,7	11,1	4,0	3,2	2,7	2,1	100,0
HALA-MODUZKOA	2,8	49,2	24,2	12,5	3,1	2,9	1,4	1,5	100,0
TXARRA + OSO TXARRA	6,8	47,1	28,0	10,0	2,7	3,5	1,8	0,0	100,0
LAGUNTZA BEHARRA									
LAGUNTZA BEHAR DU	6,2	53,4	23,5	10,3	2,9	1,8	0,3	0,3	100,0
EZ DU BEHAR	2,9	49,1	23,2	12,0	3,6	3,3	2,5	1,9	100,0

Iturria. EUSKO JAURLARITZA. 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi-baldintzak Euskadin.

Gertutasun hori, zalantzarik gabe, lagungarria da laguntza trukatzeko baliabideak eta elkarrekikotasuna partekatzeko, edo horiexek dira euskarria. Azterlanak nabarmentzen duenez, gurasoen eta seme-alaben artean laguntzeko beharrengatik edo behar ekonomikoengatik izan daiteke. Horren betiko etsenpluak dira iloba txikiak zaintzea edo seme-alabek gurasoei laguntzea osasun arazoak direnean edo mendekotasunean bizi direnean.

Aldagai soziodemografikoen gurutzaketan, hauxe nabarmentzen da: 80 urte eta gehiagokoak eraikin berean bizi direla, baina ez etxebizitza berean (% 7,8), gainerako adinekoetan baino portzentaje handiagoan (% 3,6koa da batezbestekoa). Gauza bera esan daiteke emakumeei (% 4,3), osasun txarra duten pertsonei (% 6,8) eta laguntza behar duten pertsonei buruz (% 6,2).

Beste muturrean, 500 km-tik gorako distantziara bizi diren seme-alabak dituzten 55 eta 64 urte bitarteko pertsonen portzentaje altua nabarmentzen da, dela herrialde berean edo beste batean (guztizkoaren %8,1); oraindik kopuru txikiak dira, ordea.

III.5.5. GRAFIKOA. ADINEKOEN GIZARTE-SAREA EUSKADIN: EGUNEROKO PRESENTZIAKO HARREMANAK ADIN-TALDEAREN ARABERA. 2014



Iturria. EUSKO JAURLARITZA. Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi-baldintzak

Presentziazko harremanen arloan, 55 urtetik gorakoen % 67,4k dio astero dituela harremanak seme-alabaren batekin, eta % 47,6k egunero edo ia egunero ditu. Ohiko harreman horien barnean, lagunak eta auzokideak astero ikusten dituzten pertsonen portzentaje altua dugu (% 81,3), ia biztanle guztiak. Halaber, asteroko presentziazko harremanak ditu % 45,2k beste senide batzuekin (ez seme-alabak edo gurasoak).

Azterlanak desberdintasunak antzematen ditu sexuaren arabera harreman horien maiztasunean eta mantentzean: senideekin egunero izaten diren presentziazko harremanen proportzioan gehiago dira emakumeak. Gizonezkoek, berriz, eguneroko presentziazko harremanen proportzio handiagoa dute lagunekin eta auzokideekin. Hortaz, generoak badu eraginik harreman horietan, zeren eta familiaren eremu pribatua oraindik lotuago baitago emakume nagusiarekin. Eremu publikoa eta etxetik kanpokoa, aldiz, adin bereko gizonekin dago lotuago.

Adinari dagokionez ikusten denez, adinean gora egin ahala, txikiagoa dira presentziazko harremanak, seme-alabekin izan ezik. 80 urte eta gehiagokoen % 56,6k ikusten ditu seme-alabak egunero. 55 eta 65 urte bitartekoen artean, berriz, txikiagoa da proportzioa, % 39 hain zuzen. Gurasoek laguntza handiagoa behar dutelako izan daiteke alde hori, hain zuzen ere seme-alabek emandako laguntza.

5.3.2. Laguntza trukatzea

Zaintza egiteari buruzko azterketan, EAEko 55 urtetik gorakoen % 31,1ek egunero egiten ditu seme-alabei laguntzeko lanak, egunero edo ia egunero, eta alde handiak daude sexuaren (emakumeek gehiago hartzen dute beren gain zaintzaile rola) eta adinaren arabera (gazteenek proportzio handiagoan egiten dituzte lanok). 55 urteko eta gehiagoko pertsona guztien % 25ek dio seme-alabei laguntzen diela ilobak zaintzen. Zaintza behar duten ilobak dituzten adinekoak zenbatzen baditugu soilik, % 50 ingurukoa da proportzioa. Zaintzailearen profilean, esana dugunez, emakumeak eta 65 eta 79 urte bitartekoak nabarmentzen dira. %11k senide nagusiak edo ezinduren bat ere zaintzen du, eta soilik senide nagusiak edota ezinduak dituen taldea aintzat hartuta, % 25eko proportzioa dugu.

Laburbilduz, inkestaturiko biztanleen erdiak baino gehiagok dio zaintzaren bat egiten duela, zehazki % 54,8k. Horietatik % 75 emakumezkoak dira eta % 43 gizonezkoak, eta 55 eta 79 urte bitartekoak dira zaintza-lanetan gehien aritzen direnak.

Bestalde, badira familia barruan elkartasun transferentziak egiteko bestelako erak ere zaintzatik harago, eta horien artean diru-laguntzak nabarmentzen dira: 55 urtetik gorakoen % 8,7k ematen dio diru-laguntza bere etxetik kanpoko pertsonaren bati, ia erdiak hilero. 100 eta 500€ bitarteko diru-kopuruak dira kasuen % 35,4an, eta etxetik kanpora beste pertsona batzuei diru-laguntza ematen dieten pertsonen % 62,3k aitortzen du horrelako laguntzek gora egin dutela krisi ekonomikoaren ondorioz. Beste laguntza batzuk etxeko lanak egitea (kasuen % 4,5 eta, 55 eta 64 urte bitarteko emakumeak dira diru-laguntza hori ematen dutenak) eta senideak hartzea izango lirateke: kasu honetan, 55 urtetik gorakoen % 5ek dio senideren bat hartu duela bere etxean.

III.5.6. TAULA. EAE-KO 55 URTETIK GORAKOAK: EMATEN DITUZTEN ZAINTZAK ETA LAGUNTZAK, ADINAREN ETA SEXUAREN ARABERA. BIZTANLE GUZTIEKIKO PORTZENTAJEA, 2014.

	ZAINTZA			LAGUNTZA		
	SEME-ALABAK	ILOBAK	ADINEKO SEN. EDOTA EZINDUAK	DIRU-LAG. EMATEN DUTE	LAG. ETXEKO LANETAN	SENIDE BAT HARTZEA
55 URTE ETA +, GUZT.	32,4	25,0	11,0	8,7	4,5	5,0
65 URTE ETA +, GUZT.	24,8	28,9	7,7	8,4	3,2	5,3
ADINA						
55 - 64	44,2	19,0	16,0	9,1	6,5	4,6
65 - 79	24,2	38,4	9,7	9,0	3,4	5,0
80 URTE +	26,1	8,3	3,5	7,2	2,7	6,0
SEXUA						
GIZONAK	30,9	23,4	9,9	9,2	3,4	4,0
EMAKUMEAK	33,6	26,4	11,8	8,2	5,4	5,9

Iturria. EUSKO JAURLARITZA. 55 urteko eta gehiago pertsonen bizi-baldintzak Euskadin.

Jasotako laguntzari dagokionez, 55 urteko eta gehiagoen % 7,7k laguntza jasotzen du osasun egoeragatik. Jasotako zaintza hori handiagoa da, jakina, adinean gora egin ahala, halako moldez non, 80 urte eta gehiagoen artean, % 22,6raino igotzen baita portzentajea. Laguntza jasotzen duten adinekoen artean, laguntzen % 33,2 zaintza pertsonaleko laguntza da (eta % 41raino 80 urtetik gorakoen artean), etxeko laguntza kasuen % 93,1ean, izapideak eta gestioak egiteko laguntza kasuen % 53an eta, azkenik, beste % 52ak laguntasun gisa jasotzen du laguntza.

Zaintza ematen duen pertsonari dagokionez, beste behin, familia zaintzean nor den nagusi erakusten dute azterlaneko emaitzek: laguntza jasotzen duten 55 urtetik gorakoen erdiak, lehenik eta behin, senide baten laguntza jasotzen du, bereziki emakume batek emandakoa. Oso gertutik, % 42,6arekin, etxeko langilea edo zaintzetarako lehentasunezko laguntzaile izateko kontrataturiko pertsona. Gero eta ohikoa da etxeko langileak modu pribatuan kontratatzea mendetasuna duten pertsonak zaintzeko lanak egiteko. Bestalde, lehen aukera gisa, kasuen % 4,2an gizarte zerbitzuak erabiltzen dira, eta pertsonen edota auzokideen laguntzak portzentaje txikia du, % 1,2 hain zuzen ere.

III.5.6. GRAFIKOA. OSASUN ARAZOENGATIK LAGUNTZA JASOTZEN DUTEN EAE-KO ADINEKOAK: NORK EMATEN DUEN LAGUNTZA. DATUAK PORTZENTAJETAN EMANAK, 2014



Iturria.- EUSKO JAURLARITZA. Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi-baldintzak

Osasunagatik jasotako laguntzez gain, bestelako laguntza motak zenbatzen dira hala nola etxeko lanei, familia hartzeari eta diru-laguntza emateari buruzkoak. 55 urtetik gorakoen % 8,2k dio laguntza jasotzen duela lehen kasurako, % 0,7k bigarren kasurako eta % 1,4k hirugarrenerako.

Bukatzeko, zaintza informala ematen duten adinekoen eta laguntza hori jasotzen dutenen portzentajeari buruzko balantzea eginez, zaintza-lana (seme-alabak, ilobak, adinekoak edo ezinduak) betetzen du 55 urtetik gorakoen % 54,8k , baina % 7,7k soilik dio osasun arrazoiengatik jasotzen duela. Ratio horiek % 49,7 eta % 11,2koak dira soilik 65 urtetik gorako pertsonengan jartzen badugu arreta.

III.5.7. GRAFIKOA. 55 URTETIK GORAKOAK EAE-N: ZAINTZAREN BALANTZEA. 2014



Iturria: EUSKO JAURLARITZA.
Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsoen bizi-baldintzak

Hortaz, argi ikusten da balantze positiboa egiten dela emandako laguntzari buruz adinekoek jasotakoari dagokionez, bereziki zaintza eta harrera lanetan, baita diru-laguntzak emateko ere, hain zuzen ere zahartzaroarekin lotutako gizarte-karga izatearen gaineko estereotipoaren aurka.

5.3.3. Eguneroko bizitza

Zaintza-lanez gain, 55 urtetik gorakoek egunean egiten dituzten jarduera hauek nabarmentzen ditu Eusko Jaurlaritzaren azterlanak:

- Etxeko lanak dira, zaintza-lanekin batera, etxebizitza pribatuan denbora gehien hartzen dutenak: 55 urtetik gorako 10 pertsonatik ia 7k dio egunero egiten dituela halakoak, baina alde handiak daude sexuaren (% 80 gainditzen dute emakumeek) eta adinaren arabera.
- Aisialdi jarduerei dagokienez, ariketa fisikoarekin eta kirolarekin loturiko jarduerak egiten ditu egunero % 60,8k, baina proportzio hori txikiagoa da 80 urte eta gehiago dituztenen artean, % 47,8koa hain zuzen ere. Sexuaren ziozko aldea, gainera, 13 puntu handiagoa da gizonen alde.

- Talde horretako ia guztiek egiten dituzte egunero jarduera sedentarioak (telebista ikustea, irratia entzutea), baina ez da alde handirik ikusten adinaren, sexuaren, osasun egoeraren edo ikasketa mailaren arabera. Biztanle gehientsuenek kontsumitzen dituzte hedabideak, esate baterako.
- "Etxeko aisialdi jarduerak" (baratzea edo lorategia zaintzea, esku-lanak egitea, puntua egitea, kakorratza, etab.) askotan (astean behin) egiten du 55 urtetik gorakoen herenak, eta emakumeen protagonismoa agerikoa da (emakumeen % 36,3 eta gizonezkoen % 29,6).
- Kultur jarduerei dagokienez, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen erdiak aitortzen du ez duela horrelako jarduerarik inoiz egiten, eta 65 urte eta gehiago dituztenen % 63,8k. Bestalde, % 17,6k gutxienez hilean behin egiten ditu, eta % 33tik gorako portzentajea dugu bigarren mailako edo goi-mailako ikasketak dituzten adinekoen artean.
- Gizarte-bizitzako jarduerak, ordea, oso ohikoak dira 55 urtetik gorakoen artean: % 82,4k noizean behin egiten ditu, % 21,7k egunero, % 31,6k astean behin eta % 11k hilean behin. Ratiorik handienak gizonen artean eta bitarteko adineko segmentuan daude, 65 eta 79 urte bitartekoan.

III.5.7. TAULA. EAE-KO 55 URTETIK GORAKOAK: OHIKO JARDUERAK ADINAREN, SEXUAREN ETA IKASKETA MAILAREN ARABERA, GUZTIZKOAREKIKO PORTZENTAJEA, 2014.

	EGUNEROKO ETXEKO LANAK	EGUNEROKO JARDUERA FISIKOA	ETXEKO AISIA EGUNEAN/ASTEAN	ASTEKO/HILEKO KULTUR JARDUERAK	EGUNEROKO BIZITZA SOZIALA	HEZKUNTZA JARDUERAK	TURISMOA
55 URTE ETA +. GUZT.	67,6	60,8	33,3	17,6	21,7	12,9	60,7
65 URTE ETA +, GUZT.	64,8	61,1	31,5	11,9	22,6	8,1	51,7
ADINA							
55 - 64	71,9	60,3	36,2	20,4	20,1	20,4	74,8
65 - 79	69,2	67,3	34,3	15,6	26,2	10,6	63,0
80 URTE ETA +	55,3	47,8	25,4	4,2	14,8	2,6	27,1
SEXUA							
GIZONAK	51,3	68,2	29,6	17,6	28,3	11,9	65,4
EMAKUMEAK	80,7	54,8	36,3	17,6	16,3	13,7	56,9
IKASKETAK							
OINARRIZKOAK BAINO GUTX.	60,5	57,3	29,2	5,9	-	4,0	46,9
OINARRIZKOAK	72,0	58,4	33,2	13,7	-	11,3	57,9
BIGARREN ETA GOI MAILAKOAK	70,2	66,7	37,6	33,1	-	23,4	77,4

Iturria. EUSKO JAURLARITZA. 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi-baldintzak Euskadin.

- Turismoarekin eta bidaiekin loturiko jarduerak egitearen inguruan, 55 urtetik gorako 10 pertsonatik 6k dio egiten dituela horrelakoak, baina ohikoagoak dira (bidaiak, txangoak) talde horretako gazteagoen artean (65 urtetik beherakoak), % 74,8ko ratioa baitu. 80 urtetik beherakoen artean, ordea, nabarmen egiten du behera horrelako jarduerak egiteak: % 27,1ek besterik ez.

- Hezkuntza jardueretan duten parte-hartzea, bestalde, oso txikia da. 55 urtetik gorakoen % 12,9k baino ez du parte hartu ikastaroren batean, unibertsitatean, klaseetan, etab. Ohikoagoa da jarduera hori gazteenen artean (55 eta 65 urte bitartekoak, % 20,4arekin), eta oso gutxi zabalduta dago adin nagusiagokoen artean (80 urtekoak, % 2,6arekin).
- IKTen erabilerari dagokionez, adinekoek eguneroko bizitzan

III.5.8. TAULA. EAE-KO 55 URTETIK GORAKOAK: INTERNET ERABILTZEKO MAIZTASUNA, ADINAREN, SEXUAREN ETA IKASKETA MAILAREN ARABERA. GUZTIZKOAREKIKO PORTZENTAJEA, 2014.

	EGUNERO	ASTERO	HILERO	GUTXIAGOTAN	INOIZ EZ
55 URTE ETA +. GUZT.	22,8	6,1	2,1	5,8	62,5
65 URTE ETA +, GUZT.	12,6	3,6	1,5	3,9	77,9
ADINA					
55 - 64	38,7	10,1	3,2	7,5	48,3
65 - 79	11,7	4,4	1,6	4,9	76,2
80 URTE ETA +	10,8	1,8	1,2	3,9	78,8
SEXUA					
GIZONAK	27,5	6,7	2,3	6,0	56,8
EMAKUMEAK	18,9	5,6	2,0	5,7	67,2
IKASKETAK					
OINARRIZKOAK BAINO GUTX.	5,6	2,9	1,1	3,1	86,7
OINARRIZKOAK	11,6	6,3	2,2	7,8	71,3
BIGARREN ETA GOI MAILAKOAK	50,7	9,1	3,1	6,8	29,9

Iturria. EUSKO JAURLARITZA. 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi-baldintzak Euskadin.

gero eta gehiago erabiltzeak bizi-kalitatea, osasuna eta autonomia hobetzea dakar. Halaber, lanean eta komunitatean aktibo jarraitzeko modua ematen die adinekoei. 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 36,8k dio internet erabili duela azken urtean, eta horietatik % 22,8k egunero erabiltzen du. Teknologien erabilera oso desberdina da belaunaldien artean, halako moldez non 10 gazteenetatik 6k erabiltzen dituzten, baina oso gutxi hedatuta dago laurogei urteko pertsonen artean (% 2,6). Era berean, desberdintasun handiak antzematen dira lortutako ikasketa mailaren arabera.

- Azkenik, EAEko 55 urtetik gorakoen % 18,7k dio borondatezko lanetan hartzen duela parte, hainbat erakundetan hala nola komunitatearentzako gizarte zerbitzuetan, hezkuntza elkarteetan edo kultur, kirol edo lanbide elkarteetan, gizarte edo ongintzako elkarteetan, alderdi politikoetan eta sindikatuetan, auzoen elkarteetan, etab. Honelaxe banantzen dira portzentajeak: % 5,2k gizarte erakundeetan hartzen du parte, % 6,9k elkarteetan, % 3,9k gizarte mugimenduetan, % 2k alderdi politikoetan edota sindikatuetan, % 4,5ek auzokideen elkarteetan eta % 4,1ek parrokia-taldeetan.

III.5.9. KOADROA. EAE-KO 55 URTETIK GORAKOAK: ORDAINDU GABEKO BORONDATEZKO LANAK EGITEA, ADINAREN, SEXUAREN ETA IKASKETA MAILAREN ARABERA. GUZTIZKOAREKIKO PORTZENTAJEA, 2014.

	GIZARTE ZERB. ETA KOMUNITATERAKOAK	ELKARTEAK	GIZARTE MUGIMENDUAK	ALDERDI POLITIKOAK ETA SINDIKATUAK	AUZO ELKARTEAK	PARROKIA-TALDEAK	BESTE B.
55 URTE ETA +. GUZT.	5,2	6,9	3,9	2,0	4,5	4,1	2,9
65 URTE ETA +, GUZT.	5,2	5,2	2,8	1,7	3,6	4,3	2,4
ADINA							
55 - 64	5,1	9,5	5,6	2,5	5,8	3,6	3,7
65 - 79	5,8	6,0	3,2	1,8	3,8	4,1	2,7
80 URTE ETA +	3,9	3,5	2,1	1,3	3,4	4,8	1,9
SEXUA							
GIZONAK	4,8	9,3	4,4	3,4	4,3	2,9	2,6
EMAKUMEAK	5,5	4,9	3,5	0,8	4,6	5,0	3,2
IKASKETAK							
OINARRIZKOAK BAINO GUTX.	2,7	4,3	1,6	1,3	4,8	4,9	2,7
OINARRIZKOAK	4,5	4,6	2,9	1,3	4,2	2,3	2,2
BIGARREN ETA GOI MAILAKOAK	8,3	11,7	7,2	3,3	4,5	4,8	3,9

Iturria. EUSKO JAURLARITZA. 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi-baldintzak Euskadin.

5.4. BIZI-BALDINTZAK

5.4.1. Diru-sarrerak

55 urtetik gorakoek 2014an aitorturiko hileko batez besteko diru-sarreren gaineko informazioa ematen du Eusko Jaurlaritzaren azterlanak. Portzentajerik handienean (nahikoa sakabanaketa dago), 1.200 eta 1.800 euro jasotzen dituzte hilean (% 16,3). Baldin eta 65 urtetik gorakoei erreparatzen badiegu, hots, erretiroa hartzeko adina dutenei, batez besteko diru-sarrerek behera egiten dute, 900-1.200 euroraino (%17). Alabaina, kontuan hartu behar da lagineko portzentaje handi batek (% 36,4k) ez zuela nahi izan galdera erantzun.

III.5.10. KOADROA. EAE-KO 55 URTETIK GORAKOAK: SARREREN MAILA ADINAREN, SEXUAREN ETA IKASKETA MAILAREN ARABERA, GUZTIZKOAREKIKO PORTZENTAJEA, 2014.

	> 300€	301-600€	601-900€	901-1.200€	1.201-1.800€	<1.800€	ED/EE
55 URTE ETA +. GUZT.	0,3	3,2	12,9	15,0	16,3	15,6	36,4
65 URTE ETA +, GUZT.	0,3	3,1	16,3	17,0	15,4	10,7	37,0
ADINA							
55 - 64	0,3	3,3	7,6	12,0	17,8	23,2	35,5
65 - 79	0,2	2,3	14,6	18,1	17,5	13,2	34,0
80 URTE ETA +	0,7	4,9	19,9	14,5	10,9	5,2	43,5
SEXUA							
GIZONAK	0,2	2,0	8,4	17,2	18,1	19,4	34,3
EMAKUMEAK	0,4	4,1	16,4	13,3	14,9	12,5	38,1
IKASKETAK							
ANALFABETOA	0,0	4,7	14,3	14,4	0,0	5,1	52,3
IKASKETARIK EZ/OSATUG.	0,4	5,0	17,9	16,9	16,4	6,7	36,6
OINARRIZKOAK	0,2	3,3	15,5	19,7	15,7	9,3	36,2
BIGARREN ETA GOI MAIL.	0,3	1,2	5,5	8,9	17,4	30,6	35,6

Iturria. EUSKO JAURLARITZA. 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi-baldintzak Euskadin.

Aldeak daude hileko diru-sarreren batez besteko mailan sexuaren arabera: emakumeek diru-sarrera gutxiago jasotzen dituzte, eta galderari erantzun zioten gehienak 601-900€-ko tartean zeuden (% 16,4), Gizonak, berriz, %19,4 ziren, eta beste muturrean, erreferentziako datan, 1.800 € baino gehiago jasotzen zituzten hilean.

Aldi berean, adinarekin ere aldatzen da diru-sarreren maila, halako moldez non hilean 1.800 € baino gehiago jasotzen dituztenak 55 eta 64 urte bitartekoen % 23,2 baitziren, eta 80 urtetik beherakoen % 5,2 besterik ez. Gainera, 55 eta 64 urte bitartekoen taldean 1.800€-tik gorakoen tartean kokaturiko portzentaje nagusi hori (%23,2) jaitsi egiten da adinean gora egin ahala. Hala, 65 eta 79 urte bitartekoen taldean, gehienak 900 eta 1.200€-ko tartean kokatzen dira (%18,1), eta 80 urtetik gorakoan, 600 eta 900€ bitartean (taldearen %19,9).

5.4.2. Osasuna, mendetasuna eta gizarte baliabideak

Eusko Jaurlaritzaren txostenaren arabera, 55 urtetik gorakoen erdiak baino pixka bat gehiagok dio 2014an osasun ona edo oso ona zuela (%57,7), herenak hala-moduzkoa (%33,5) eta %10etik beherakoak ziren txarra edo oso txarra zela ziotenak. Eta osasun-adierazle objektiboekin gertatzen den bezala, alderantzizko erlazioa dago osasun subjektiboaren eta adinaren arabera, baita sexuaren araberako desberdintasunak ere. Oro har, emakumeek osasun egoera txarragoaren irudipena dute.

Mendetasun eta ezgaitasun maila kalkulatzeko, eguneroko ekintzak burutzeko beharrezko laguntza neurtzen duen eskala erabili da. Hala, lagin osoaren % 20,1ek laguntza motaren bat behar du. Soilik 65 urtetik gorakoak hartzen badira aintzat, % 29,1eraino igotzen da ratioa.

III.5.8. GRAFIKOA. 55 URTETIK GORAKOAK EAE-N: OSASUN EGOERA SUBJEKTIBOA ADINAREN ETA SEXUAREN ARABERA. 2014



Iturria: EUSKO JAURLARITZA.
Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi-baldintzak

55 urtetik gorako ia pertsona guztiek egin ditzakete eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak laguntzarik gabe (%9,2k behar du laguntza). Horietatik, bainua hartzeak edo dutxatzeak du zailtasun pixka bat handiagoa, eta ondoren janzteak edo eranzteak. Laguntza gehien behar duten jarduera instrumentalei dagokienez, erosketak egitea eta etxeko lanak egitea eta garraio publikoa erabiltzea dira. Hala eta guztiz ere, lan horiek beren kabuz egin ditzaketen pertsonen portzentajeak oso altuak dira, % 84,5 eta % 91,9 bitartekoak jardueraren arabera, zeren eta behar horien intzidentzia % 19,5 eta % 28,1 bitartekoa baita, hurrenez hurren. Oro har, maizago behar dute laguntza emakumeek (gogora dezagun sexuaren eta osasun egoeraren arteko erlazioa adinekoen artean). Modu berean, jakina, beren osasun egoera txarra edo oso txarra dela irizten dioten adinekoen artean.

III.5.11. KOADROA. EAE-KO 55 URTETIK GORAKOAK: LAGUNTZA BEHAR DUENAREN PROFILA, ADINAREN, SEXUAREN, ETA OSASUN EGOERAREN ARABERA. GUZTIZKOAREKIKO PORTZENTAJEA, 2014.

	EGUNEROKO JARDUERARIK OINARRIZKOENAK	EGUNEROKO JARDUERAK	GUZT.
55 URTE ETA +, GUZT.	9,2	19,5	20,1
65 URTE ETA +, GUZT.	13,5	28,1	29,1
ADINA			
55 - 64	2,3	6,0	6,1
65 - 79	5,8	15,4	15,7
80 ETA +	30,4	56,1	58,4
SEXUA			
GIZONAK	6,6	13,3	13,9
EMAKUMEAK	11,3	24,5	25,2
OSASUN EGOERA			
OSO ONA + ONA	0,2	3,0	3,2
HALA MODUZKOA	6,3	24,2	24,7
OSO TXARRA + TXARRA	32,8	57,7	60,1

Iturria. EUSKO JAURLARITZA. 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi-baldintzak Euskadin.

Datuek ez dute zalantza izpirik uzten gure nagusiek laguntza behar izanez gero non jasoko luketen zehazterakoan: Euskadiko adinekoen % 83,4k nahiago izango luke bere etxean bizi, bestelako bizitoki moten aurretik. Adinean gora egin ahala, handiagoa da aukera hori nahiago dutenen kopurua, halako moldez % 89,3raino iristen baita 80 urtetik gorakoen artean. Honelaxe banatzen dira bestelako posibilitateak hautatuko lituzketenak: egoitzan biziko liratekeenak (%78,1), adinekoentzako etxebizitza egokituan (%15,5) eta, azkenik, seme-alabaren baten etxera joango liratekeenak (%4,3).

III.5.12. KOADROA. EAE-KO 55 URTETIK GORAKOAK: LAGUNTZA BEHAR IZANEZ GERO, ZEIN BIZILEKU AUKERATUKO LUKETEN, ADINAREN, SEXUAREN ETA OSASUN EGOERAREN ARABERA. GUZTIZKOAREKIKO PORTZENTAJEA, 2014.

	ETXEAN	ETXETIK KANPORA*		
		SEME-ALABARENEAN	EGOITZAN	ETXEBIZITZA EGOKITUAN
55 URTE ETA +, GUZTIRA	83,4	4,3	78,1	15,5
65 URTE ETA +, GUZTIRA	85,1	7,5	81,9	8,7
ADINA				
55 - 64	81,0	1,1	74,1	22,7
65 - 79	83,6	5,2	84,7	7,6
80 ETA +	89,3	15,9	71,4	12,7
SEXUA				
GIZONAK	81,7	3,5	81,4	11,7
EMAKUMEAK	84,8	8,0	75,5	18,5
OSASUN EGOERA				
OSO ONA + ONA	82,4	5,2	75,0	17,4
HALA-MODUZKOA	83,7	3,7	80,4	14,1
TXARRA + OSO TXARRA	89,0	0,0	93,8	6,2
LAGUNTZA BEHARRA				
LAGUNTZA BEHAR DU	89,3	0,0	84,4	15,6
EZ DU BEHAR	82,4	4,9	77,2	15,5

**Etxetik kanpora bizitzea aukeratu dutenen banaketa*
Iturria. EUSKO JAURLARITZA 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi-baldintzak Euskadin

Azkenik, beren etxebizitza mantentzearen aldeko hautua izango luketenei galdetu zitzaien zein prestazio mota nahiko zuketen jasotzea, eta erdiak familia-laguntza (%56,8) aukeratuko luke, % 40k gizarte zerbitzu publikoetako arreta eta gutxi gorabehera % 20ri kontrataturiko laguntza pribatua jasotzea gustatuko litzaioke.

5.4.3. POBREZIA ETA GIZARTE BAZTERKETA

EAEko 55 urtetik gorakoek, oro har, biztanleria osoak baino gutxiago jasaten dituzte pobrezia eta gizarte bazterketa, Eusko Jaurlaritzaren Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren (PGDI) emaitzetatik ondorioztatzen denez. 2014an, %4koa zen familia-buruak 55 eta 64 urte bitarteko pertsonak zituzten familien benetako pobrezia tasa, eta % 1,1koa 65 urte eta gehiagokoen taldean. Batez besteko orokorra, berriz, % 5,9 zen.

Izan ere, pertsona nagusi horiek dira pobrezia tasarik txikienak jasaten dituztenak, zeren eta, inkestak agerian utzi duenez, familiarik gazteenen artean izaten baita pobrezia intzidentziarik handiena (familia-buru 35 urtetik beherakoak dituzten familien % 13,6), eta murriztuz doa familia-buruaren adinak gora egin ahala. Gainera, egoera hori, orokorrean, mantentze[3] pobreziaren aldetik nahiz metatze pobreziaren[4] aldetik gertatzen da.

III.5.13. KOADROA. EAE-KO POBREZIARI ETA GIZARTE DESBERDINTASUNEI BURUZKO INKESTA: POBREZIA EGOERA DESBERDINEK DUTEN INTZIDENTZIA ETA PREKARITATEA ETXEKO PERTSONA NAGUSIAREN ADINAREN ARABERA. 2008-2014KO BILAKAERA

		< 35	35 - 44	45 - 54	55 - 64	65 ETA +	GUZT.
MANTENTZE-POB.	2008	11,8	8,4	3,8	4,8	3,2	5,7
	2012	19,7	10,0	5,3	4,7	4,2	7,3
	2014	15,9	13,1	8,9	6,5	2,1	8,2
METATZE-POB.	2008	2,7	3,0	0,4	0,7	1,3	1,5
	2012	3,9	1,7	0,8	0,1	1,9	1,4
	2014	3,3	4,5	1,3	0,6	1,0	2,0
BENETAKO POB.	2008	9,4	7,6	2,6	2,7	1,6	4,2
	2012	18,0	7,4	4,1	2,9	1,7	5,3
	2014	13,6	11,1	5,3	4,0	1,1	5,9

Iturria. EUSKO JAURLARITZA. PGDI.

PGDIri esker, gainera, krisiak EAEko adinekoen bizitza-baldintzetan izandako inpaktua zein den jakin daiteke. Pobreziak 2008 eta 2014 bitartean izan zuen intzidentzia erkatuta ikus daitekeenez, pobreziak behera egin zuen 65 urtetik gorakoen artean dimentsio guztietan. Hala gertatzen da, zalantzarik gabe, pentsioen "koltxoi" efektuagatik, baita errentak adinekoen artean gainerako adin-taldeetan baino neurri txikiagoan jaitsi direlako ere. Beraz, haien egoera erlatiboa hobetu egin da gizartea osotasunean hartuta.

55 eta 64 urte bitarteko adin-taldean, egonkor eusten zaio gutxi gorabehera metatze pobreziari (berez oso txikia da, %1etik beherakoa). Benetako pobreziaren dimentsioetan, berriz, intzidentzia handiagoa da; izan ere, horren arabera, zenbait egoera ona izan daitezke zenbait alderditan, baina ez da nahikoa izaten beste alderdi batzuetako gabeziak konpentsatzeko. Mantentze-pobreziak, berriz, gizartean oro har dagoen intentsitate bera du gutxi gorabehera. Hortaz, adin-talde horren aldeko posizioari eutsi zaio.

5.4.4. ONGIZATEA

EAEko 55 urtetik gorakoek, oro har, gogobetetasun maila handia dute beren bizitzarekin oro har, 10etik 7,1 puntu, Eusko Jaurlaritzaren azterlanaren arabera. Indize orokor hori banakatzeko erabiltzen diren eremuetan, 7aren inguruko puntuazioak mantentzen dira, eta altuena 7,5 da harreman pertsonalen gogobetetasun mailan eta txikiena 6,6 etorkizunerako segurtasunean eta bizitza espiritualean eta erlijio sinesmenetan. Azterlanean nabarmentzen denez, gogobetetasun maila horiek ez dute behera egiten adinean gora egin ahala, osasunaren egoera okertu egin baliteke ere. Sexuaren eta ikasketa mailaren arabera ere ez da desberdintasun nabarmenik antzematen. Osasun egoera subjektiboa eta laguntza beharra kontuan hartzen baditugu ikusten da soilik desberdintasunen bat.

III.5.9. GRAFIKOA. EAE-KO 55 URTETIK GORAKOAK: ZELAKO KEZKA DUTEN BEREN ZAHARTZAROARI BURUZ. 2014



Iturria: EUSKO JAURLARITZA.
Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi-baldintzak

3 ***Mantentze***-*dimentsioan, pobrezia jasateko arrisku-egoerak, oinarrizko beharrak (elikadura, etxebizitza, jantziak eta oinetakoak) asetzeko behar adina diru-sarrera ez izatearekin lotzen dira. Beste alde batetik, ongizatea ez izateko arriskua, hau da, oinarrizko beharrak asetzeaz harago gizarte jakin batean espero diren ongizatearen eta erosotasunaren gutxieneko mailei eusteko beharrezko gastuei aurre egiteko behar adina diru-sarrera ez izatearekin lotzen da.*

4 ***Metatze***-*dimentsioak epe ertainera eta epe luzera bizi-baldintzak finkatzeko gaitasunik ezarekin du zerikusia, baita gastuen ezohiko beharrei aurre egiteko edo diru-sarrerarik eza ordezteko gutxieneko ondarea izatearekin ere.*

Osasunaren Munduko Erakundearen ongizate-indizeko puntuazioei dagokienez, EAEko 55 urtetik gorakoen % 75ek gutxi gorabehera dio umore onean, lasai, erlaxatuta, aktibo eta deskantsatuta dagoela eta interesa zaizkion gauzekin beteriko bizitza duela denbora erdian baino denbora luzeagoan behintzat.

III.5.10. GRAFIKOA. EAE-KO 55 URTETIK GORAKOAK: ZAHARTZAROAGATIK KEZKATZEKO ZIOAK (ASKOTARIKO ERANTZUNA). 2014



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi-baldintzak

Gogobetetasun eta ongizate maila horrez gain, Eusko Jaurlaritzaren azterlanak nabarmentzen du garrantzizkoa dela jakitea zein neurritan dauden Euskadiko adinekoak beren zahartzaroagatik kezkatuta. Horien %40k dio zahartzaroak ez duela kezkatzen, eta ondoren datoz, beste % 40arekin "pixka bat" eta "nahiko" kezkatuta daudenak. Lagineko % 8 besterik ez dago oso kezkatuta bere zahartze-prozesuagatik. Balizko zahartze patologikoarekin (zahartze fisikoa eta intelektuala) eta mendetasun pean egotearekin daude lotuta gehienbat kezkak, eta hori guztia dago erosteko ahalmena galtzearekin edo gizarte harreman gutxiago izatearekin loturikoen gainetik.

5.4.5. ETXEBIZITZA ETA IRISGARRITASUNA

Eusko Jaurlaritzaren txostenak erakusten duenez, jabetzan dute etxebizitza 55 urtetik gorako euskal herritar ia gehienek (%94,3). Portzentaje hori txikiagoa da gazteenen artean, 55 eta 64 urte artekoen artean, baina portzentajea oso altua da nolanahi ere (%90,2). Etxean komunikatzeko eskuragarri dauden ekipamenduei dagokienez, ia guztietan dago telefono finkoa (%92,6) eta gehienek telefono mugikorra dute (%78,5). Halaber, hirutik batek ordenagailua eta tableta eta interneteko konexioa etxean.

Etxebizitzaren irisgarritasunari dagokionez, 55 urtetik gorakoen %9,2 eta %15 bitarteko kopuruak dio irisgarritasun arazoren bat duela bere ohiko ingurunean (%11,2 eta %18,8 65 urtetik gorakoen taldearentzat). Portzentajerik txikiena etxebizitza barruan mugitzeko eragozpen edo barrera fisikoren bat duten pertsonei dagokie; daturik altuena, berriz, etxebizitza inguruan irisgarritasun arazoren bat dutenei. Adinean gora egin ahala, handitu egiten dira arazo horiek. Hala, 80 urte eta gehiagokoen % 18k dio arazoak dituela etxebizitza barruan eta %31,5ek inguruan. Gainera, 80 urtekoen %31,8k arazoak ditu garraio publikoan mugitzeko. Garraioetako mugikortasun arazo horiek oso garrantzitsuak bihurtzen dira adinekoen taldean. Gazteenen artean, berriz, ia ez dago horrelako arazorik.

III.5.11. GRAFIKOA. EAE-KO 55 URTETIK GORAKOAK: ETXEBIZITZAKO ETA INGURUKO IRISGARRITASUN ARAZOEN INTZIDENTZIA ADINAREN ARABERA, 2014



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi-baldintzak

5.5. ZAHARTZE AKTIBOA

5.5.1. Zahartze Aktiboko Indizea

III.5.2. GRAFIKOA



Azken urteetan zahartzearen paradigma berria sortu da, eta eboluzionatuz joan da, zahartze osasuntsuaren definiziotik (osasuna ardatz hartuta) eredu integratzaile batera: zahartze aktiboa. Hauxe da zahartze aktiboaren definizioa: "*osasunaren arloko aukerak hobetzeko, parte hartzeko eta segurtasuna hobetzeko prozesua zahartzen diren pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko*" (OME, 2002).

Adinekoen artean kalitatea, produktibitatea eta bizi-itxaropena hedatzea da xedea. Fisikoki aktibo izaten jarraitzeaz gain, garrantzizkoa da aktibo izatea gogoaren eta gizartearen aldetik, aisialdiko jardueretan, borondatezko edo ordaindutako jardueretan eta kultur, gizarte eta hezkuntza jardueretan parte hartuta. Adinekoek independentzia, parte-hartze, duintasun, arreta eta autogarapenerako dituzten eskubideak aintzatetsi behar dira, eta aintzatespen hori da zahartze aktiboaren oinarria. Hala, ikuspegi horretatik, hauexek izango lirateke zahartzearen arrazoi determinanteak: ekonomikoak, sozialak, fisikoak, gizarte zerbitzu eta osasunekoak, pertsonalak (psikologikoak eta biologikoak) eta jokabidekoak (bizitzeko moduak).

Zahartze Aktiboko Indizea (ZAI) Europar Batasunaren eta NBEren ikerketa-proiektuaren emaitza da, eta lanabes horrek 4 dimentsio edo eremu ezartzen ditu Zahartze Aktiboaren neurketan: enplegua, gizarte partaidetza, bizitza independentea eta gaitasunak. Adierazle multzo baten bidez kalkulatzen da dimentsio bakoitza, eta bere pisu espezifikoa du indize globalaren kalkuluan: Lana eta gizarte partaidetza %35 dira bakoitza, bizitza independentea % 10 eta gaitasunak %20.

Indize hori garatuta eta MOEren definizioa oinarri izanik -zahartze aktiboaren oinarriak osasuna, segurtasun eta partaidetza dira-, dimentsio ekonomikoa sartu nahi izan da lan-merkatuaren bidez, baita belaunaldien arteko elkartasuna ere, halako moldez non norbanakotik gizarte arlora ere igaro eta adinekoek ekonomian eta gizartean duten ekarpena hartzen baita aintzat.

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak Euskadirako ZAI kalkulatu du, politika publikoetan indartu beharreko arloak zien diren antzemateko xedearekin, hain zuzen ere bizi-kalitatea sustatzeko eta, bigarrenik, arlo honetan dugun egoera jakiteko, Estatu eta Europaren arteko erkaketa egite aldera.

Lehenik eta behin, EAE zazpigarren tokian jokatzen du indize globalaren kalkuluak EBko 28 herrialdeen rankingean. Suedia eta Danimarka dira lehenengo postuetan. Posturik baxuenean Polonia eta Grezia daude. Euskadik 36,6ko puntuazioa lortu du, EBko batezbestekoaren gainetik (34,05), eta Alemaniaren edo Irlandaren parean kokatzen da. Espainia Europak batezbestekoaren azpitik legoke, 32,8 punturekin.

Baina are interesgarriagoa da ZAIren azpi indizeen emaitzak zein diren jakitea:

1. Enpleguari dagokionez (adinen araberako okupazio-tasak erkatuta lortzen dena), Euskadi 15. postuan dago (25,4 punturekin), hain zuzen ere Europako batezbestekoaren azpitik eta Bulgariaren edo Austriaren antzeko mailan. Rankingeko buruan Suedia eta Estonia daude, eta azkenean Hungaria eta Eslovenia.
2. Gizarte partaidetzaren eremuan, borondatezko jarduerak hartzen dira kontuan, baita ordaindu gabeko lana dakartenak eta partaidetza politikoaren gainekoak ere. EBko 28 estatuen artean, 9. postuan dago Euskadi, 21eko puntuazioarekin, Austrian edo Belgikan lorturikoen pare, argi eta garbi Espainiaren (18,3) eta Europako batezbestekoaren (18,1) gainetik.
3. Guztizko indizearen %10 den bizitza independentearen eremuak honako hauei buruzko informazioa dakar: ariketa fisikoa, osasunaren arloko beharrak etxe mota, errenta, pobrezia arriskua eta gabezia materiala, segurtasuna eta ikaskuntza bizitza osoan. Euskadik 13. postua du (72,3 puntu), batezbestekoaren (70,6) eta Espainiaren (69,8) gainetik, eta Belgikaren edo Txekiar Errepublikaren pare.
4. Zahartze aktibo eta osasungarrirako ahalmenari dagokionez (ezintasunik gabeko guztizko bizi-itxaropena, buruko osasuna, IKTen erabilera, gizarte konektibitatea eta ikasketa maila aztertzen ditu), Europako bigarren puntuaziorik onena du, Suediaren atzetik eta Danimarkaren aurretik, 65,7 punturekin. Europako batez bestekoa 54,5 puntukoa da, eta Estatuko datua, berriz, 56,3.

III.5.14. KOADROA. ZAHARTZE AKTIBOKO INDIZEA: EB-KO HERRIALDEEN ETA EAE-REN ARTEKO ERKAKETA. 2015.

	INDIZE OROKORRA		DIMENTSIOAK			
	DATUA	RANKING POST.	I. ENPLEGUA	II. GIZARTE PARTAIDETZA	III. BIZITZA INDEPENDENTEA	IV. GAITASUNA, ZAHARTZE AKTIBOA ETA OSASUNG.
28 EB	34,05	16	27,9	18,1	70,6	54,4
BELGIKA	33,8	17	21,0	20,4	72,5	60,3
BULGARIA	30,0	24	25,1	12,9	62,7	52,2
TXEKIAR ER.	34,6	13	28,0	19,4	71,2	54,3
DANIMARKA	40,5	2	35,8	20,1	79,0	65,1
ALEMANIA	35,9	8	34,4	14,9	74,4	55,8
ESTONIA	34,8	12	39,7	13,3	67,3	47,5
IRLANDA	39,0	6	30,6	25,2	74,9	60,0
GREZIA	27,7	30	20,4	14,2	64,8	45,8
ESPAINIA	32,8	19	23,3	18,3	69,8	56,3
FRANTZIA	35,7	10	24,1	22,4	75,9	59,1
KROAZIA	31,3	23	21,7	17,8	69,5	52,8
ITALIA	34,0	15	23,0	24,1	69,0	53,4
ZIPRE	34,4	14	31,4	18,7	68,0	50,4
LETONIA	31,6	22	32,0	13,9	58,7	48,2
LITUANIA	31,7	21	30,5	15,3	66,2	45,3
LUXENBURGO	35,8	9	21,9	22,6	75,7	63,6
HUNGARIA	28,6	27	19,3	16,1	68,0	46,9
MALTA	31,8	20	20,1	18,2	70,1	57,1
HOLANDA	39,9	3	33,9	22,4	78,9	61,8
AUSTRIA	35,2	11	24,7	21,4	73,8	58,2
POLONIA	28,2	29	22,4	12,2	64,9	47,9
PORTUGAL	33,6	18	32,6	14,3	67,3	52,1
ERRUMANIA	29,7	26	31,0	12,9	61,7	40,9
ESLOVENIA	29,9	25	19,1	16,7	74,2	50,0
ESLOVAKIA	28,5	28	21,9	13,7	65,8	47,1
FINLANDIA	39,6	4	33,7	22,4	79,0	60,5
SUEDIA	44,8	1	43,4	22,6	78,6	69,2
ERRESUMA BATUA	39,2	5	35,8	20,0	73,7	61,3
EAE	**36,6**	**7**	**25,4**	**21,0**	**72,3**	**65,7**

Iturria: Guk geuk egina EUSKO JAURLARITZAREN datuekin. Zahartze Aktiborako 2015-2020 Euskal Estrategia.
Oharra: berdez nabarmendu dira dimentsioko puntuaziorik onena duten 3 herrialdeen laukia, eta gorriz emaitza txarrenak dituzten 3 herrialdeak.

5.5.2. Zahartze Aktiborako 2015-2020 Euskal Estrategia

Euskadiko 55 urtetik gorakoen bizi-baldintzen azterketari eta ZAIren kalkuluari esker, beharrezko informazioa eduki ahal izan du Eusko Jaurlaritzak Zahartze Aktiborako Estrategia sortu ahal izateko. Izan ere, 2020rako estrategia izanik, gobernantza eredu berria moldatu nahi du, bere politikak zahartze demografikora egokitzeko, prebentzioko esku-hartzeak, herritarren partaidetza eta adinekoei harrera ona egiten dien gizarte bultzatzea lehenetsiz.

Hona hemen arlo eta helburu estrategikoak:

I. Gizartea zahartze-prozedura egokitzea. Gobernantza eredu berria

1. *Gobernantza hobetzea*
2. *Eskubideak bermatzea eta zahartzen diren pertsonenganako bazterkeriaren kontra egitea.*
3. *Zahartzen diren pertsonen segurtasuna eta gizarteratzea bermatzea.*
4. *Zahartzearen inguruko garapen ekonomikoa sustatzea, enplegua eta aberastasuna sortzeko iturria den aldetik eta zahartzen diren pertsonek izan ditzaketen kontsumo berrien aldetik.*

II. Aurrea hartzea eta prebenitzea hobeto zahartzeko

1. *Erabakiak erantzukizunez hartzea sustatzea, bizitza osorako bideratuta, zahartze aktiboa lortzeko pertsonen autonomiaren sustapena oinarri izanik.*
2. *Laneko bizitzatik erretirorako trantsizio positiboa sustatzea.*
3. *Etxebizitza eta etxe ingurua prestatzea bizitza osoan baliatu ahal izateko.*
4. *Zahartze osasuntsua sustatzea.*
5. *Ikaskuntza bizitza osoan sartzea euskal gizartean.*

III. "Laguntasuna"eta partaidetza ongizatearen gizartearen eraikuntzan

1. *Borondatezko ekintzak eta gizarte-lankidetzako mugimendu parte-hartzaileen ekintzak sustatzea zahartzen diren pertsonekin eta horien artean.*
2. *Adinekoek familian ematen dituzten zaintzen eta laguntzen transferentzia balioestea, baterako erantzukizuna sustatuz betiere.*
3. *"Laguntasun" prozesuak bultzatzea Euskadin.*

6. OSASUNA ETA OSASUN SISTEMA

Biztanle guztiek gehien balioesten dituzten balioetako bat da osasuna; izan ere, gaixotasunen eta istripuen kontra babestuta egotea eskatzen dute herritarrek, baita osasun zerbitzu egokiak izatea ere.

Aldi berean, lehen mailako faktore makroekonomikoa da osasuna. Giza eskubidea da, ongizatearen funtsezko osagaia, produktu-ondasun publiko orokorra eta gizarte justiziaren eta berdintasun osagaia. Osasunik ez izatea osasun kostuak igoarazten ditu, gizarte kostu handiak dakartza eta laguntza sistemei eragiten die, eskariak sorraraziz eta baliabideak kenaraziz.

Kapitulu honetan, euskal biztanleriaren osasunaren egoera erakusten duten funtsezko bi eragile aztertuko dira, hau da, heriotza eta bizi-itxaropena. Ondoren, labur-labur aztertuko da Osakidetzak eskainitako laguntzaren jarduera. Herritarrei osasun arreta integrala eskaintzen dien erakunde autonomoa da, eta aurrekontu publikoekin finantzatzen da. Eta azkenik Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak eginiko gastua aztertuko da.

6.1. OSASUN EGOERA

6.1.1. Heriotza tasa

Heriotza tasa gordina eta umeen heriotza tasa asko erabili ditu nazioarteko komunitateak biztanleriaren osasun adierazle gisa eta, zeharka, garapen sozioekonomikoaren adierazle gisa.

EUSTATen "Heriotzen Estatistika"ren datuen arabera, 2014. urteko heriotzen behin-behineko kopurua 20.157 izan zen. Haietatik 10.177 gizonak izan ziren eta 9.980 emakumeak. Hortaz, 2013an baino 465 heriotza gehiago gertatu ziren, hots, %2,4 gehiago. Sexuaren ikuspegitik gertatu da aipaturiko jaitsiera hori. Horrela, emakumezkoen artean 474 heriotza gehiago egon ziren, hots, %5 gehiago, eta gizonezkoen artean 9 gutxiago (-%0,1).

III.6.1. KOADROA. HERIOTZAK SEXUAREN ARABERA

	GUZTIRAKOAK			URTETEBETIK BEHERAKOAK		
	Orot.	Gizonak	Emak.	Orot.	Gizonak	Emak.
2010	19.357	10.045	9.312	52	25	27
2011	19.832	10.296	9.536	50	14	36
2012	20.281	10.352	9.929	48	23	25
2013	19.692	10.186	9.506	37	24	13
2014	20.157	10.177	9.980	38	19	19
2013-14 dif.	465	-9	474	1	-5	6
13-14 ald. %	2,4	-0,1	5,0	2,7	-20,8	46,2

Iturria: EUSTAT. Heriotzen Estatistika.

2014an hautsi egin zen haurren heriotzak (urtebetetik beherakoak) azken urteetan izandako beheranzko joera, eta 2013 eta 2014 bitartean heriotza bat gehiago gertatu zen. Sexuaren arabera, joera ez da homogeneoa, eta urteko aldakuntzak dakartza.

Heriotzetako asko adin handienetako tarteetan gertatzen dira, prebentzioan eta gaitzen tratamenduan egindako aurrerapenen ondorioz. Bestela esanda, biztanleak "laugarren adina" deritzonera iritsi dira. Izan ere, 2014an, 80 urtetik gora gertatzen da heriotzen %62,8an, 2010ean, berriz, %58,8ko ratioa zen. Hala, 80-89 urtekoen taldeko heriotza kopurua 7.830; 90-99 urtekoetan, 4.519; eta 100-109koetan 307 da, eta 110etik gorakoetan 3 da.

6.2. KOADROA HERIOTZEN BILAKAERA ADINEKOEN TARTEETAN

Adina	2010	2011	2012	2013	2014
OROTARA	19.357	19.832	20.281	19.692	20.157
>=80	11.392	11.779	12.462	12.128	12.659
80-89	7.392	7.699	7.845	7.569	7.830
90-99	3.795	3.829	4.328	4.291	4.519
100-109	205	251	289	267	307
>=110	-	-	-	1	3
>=80 guzt. gainean (%)	**58,8**	**59,3**	**61,4**	**61,5**	**62,8**

Iturria: EUSTAT. Heriotzen gaineko Estatistika.

EAEko heriotza gehienak, inguru sozioekonomiko bereko herrietan legez, gaixotasun ez transmitigarrien ondorioz gertatzen dira, gaixotasun kardiobaskularrak eta tumoreak gehienbat.

Berez, EUSTATen datuen arabera, 2007tik hasita, heriotza gehienak tumoreen ondoriozkoak izan dira eta zirkulazio sistemako gaixotasunen ondoriozkoak ondoren, aurreko urteetan ez bezala, zirkulazio sistemako gaixotasunek eragiten zutenean heriotza gehien. 2014an, tumoreengatiko heriotzak guztizkoaren %31,6 dira eta zirkulazio aparatuko gaixotasunen ziozkoak, berriz, %26,7. Hirugarren tokian, arnas-aparatuko gaixotasunak daude (guztien %9,3).

Nabarmentzekoa da nerbio-sistemaren eritasunek eragindako heriotzen kopuruaren igoera. 2014an 1.291 izan ziren (guztizkoaren %6,4); 2013an, berriz, 740 izan ziren (%4.4).

III.6.3. KOADROA HERIOTZAK, KAUSAREN ARABERA

	EAE								
	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	
								n	%
Orotara	19.252	19.437	19.624	19.357	19.832	20.281	19.692	20.157	100,0
Tumoreak	5.812	5.811	5.950	6.021	6.261	6.149	6.143	6.360	31,6
Zirkulazio sistema	5.710	5.692	5.799	5.675	5.655	5.736	5.408	5.388	26,7
Arnas sistema	1.854	1.941	1.841	1.691	1.758	1.915	1.869	1.868	9,3
Digestio sistema	990	979	940	898	946	956	942	948	4,7
Kanpoko kausak (Nerbio sistema)	734	711	677	653	683	715	740	1.291	6,4
Gainerako gaitzak	4.152	4.303	4.417	4.419	4.529	4.810	4.590	4.302	21,3
Ehunekoen banaketaren bilakaera bi heriotza-eragile nagusien artean:									
Tumoreak	30,2	29,9	30,3	31,1	31,6	30,3	31,2		31,6
Zirkulazio sistema	29,7	29,3	29,6	29,3	28,5	28,3	27,5		26,7

(p) Behin-behineko datuak.
Iturria: EUSTAT. Heriotzen Estatistika.

6.1.2. Bizi-itxaropena

a) Bizi-itxaropena

X adineko bizi itxaropena x adin horretako banako batek ustez biziko duen batez besteko urte kopurua da, adinaren araberako berariazko heriotza tasetan egungo joerek iraunez gero[1]. Batez besteko hori biztanleria osoari dagokio eta ez banakako jakin bati, hark bizi-itxaropenak adierazitakoa baino gehiago bizi dezakeelako edo, alderantziz, dagokion itxaropena baino lehenago hil.

Bizi-itxaropena (BI) jaiotzean biztanleriaren osasun egoerara hurbiltzeko modu klasikoa da, eta estatistika-iturriek erakutsi izan dutenez, goranzko joera erakusten du.

EAEn, EINen azken datuen arabera, BI jaiotzearen tasa handitu egin zen 2012 eta 2013 bitartean, emakumeena nahiz gizonean, baina handiagoa da emakumeena. 2013an, emakumeen BI 86,3 urtekoa da eta gizonena, berriz, 79,9 urte (6,4 urteko aldea emakumeen alde).

Estatuan, EUROSTATen datuen arabera, goranzko joera dago eta BI jaiotzean izandako tasa, 2013an, 86,1 urtekoa izan zen emakumearentzat eta 80,2 urte gizonentzat (5,9 urteko aldea emakumearen alde).

EBko herrialdeetan, EUROSTATen datuen arabera, goranzko joera dago emakumeentzat zein gizonezkoentzat, eta emakumeena ere handiagoa da gizonena baino. 28ko EBrako batez bestekoa 83,3 urtean kokatu zen 2013an emakumeentzat eta 77,8 urtean gizonentzat (5,5 urteko aldea emakumearentzat).

[1] *Aldatu egin daiteke zeren eta, jakina, aldaketak gerta baitaitezke denborarekin.*

III.6.4. KOADROA. BIZI-ITXAROPENA JAIOTZEAN ETA OSASUN ONEKO BIZI-ITXAROPENA JAIOTZEA, SEXUAREN ETA GENERO-TARTEEN ARABERA (G-E)

	BIZI-ITXAROPENA						OSASUN ONEKO BIZI-ITXAROPENA					
	EMAKUMEAK (E)		GIZONAK (G)		Dif. E-G	Dif. E-G	EMAKUMEAK (E)		GIZONAK (G)		Dif. E-G	Dif. E-G
	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013
28ko EB	83,1	83,3	77,4	77,8	5,7	5,5	62,1	61,5	61,5	61,4	0,6	0,1
Belgika	83,1	83,2	77,8	78,1	5,3	5,1	65	63,7	64,2	64	0,8	-0,3
Bulgaria	77,9	78,6	70,9	71,3	7	7,3	65,7	66,6	62,1	62,4	3,6	4,2
Txekiar E.	81,2	81,3	75,1	75,2	6,1	6,1	64,1	64,2	62,3	62,5	1,8	1,7
Danimarka	82,1	82,4	78,1	78,3	4	4,1	61,4	59,1	60,6	60,4	0,8	-1,3
Alemania	83,3	83,2	78,6	78,6	4,7	4,6	57,9	57	57,4	57,8	0,5	-0,8
Estonia	81,5	81,7	71,4	72,8	10,1	8,9	57,2	57,1	53,1	53,9	4,1	3,2
Irlanda	83,2	83,1	78,7	79	4,5	4,1	68,5	68	65,9	65,8	2,6	2,2
Grezia	83,4	84	78	78,7	5,4	5,3	64,9	65,1	64,8	64,7	0,1	0,4
Espainia	85,5	86,1	79,5	80,2	6	5,9	65,8	63,9	64,8	64,7	1	-0,8
Frantzia	85,4	85,6	78,7	79	6,7	6,6	63,8	64,4	62,6	63	1,2	1,4
Kroazia	80,6	81	73,9	74,5	6,7	6,5	64,2	60,4	61,9	57,6	2,3	2,8
Italia	84,8	85,2	79,8	80,3	5	4,9	61,5	60,9	62,1	61,8	-0,6	-0,9
Zipre	83,4	85	78,9	80,1	4,5	4,9	64	65	63,4	64,3	0,6	0,7
Letonia	78,9	78,9	68,9	69,3	10	9,6	59	54,2	54,6	51,7	4,4	2,5
Lituania	79,6	79,6	68,4	68,5	11,2	11,1	61,6	61,6	56,6	56,8	5	4,8
Luxenburgo	83,8	83,9	79,1	79,8	4,7	4,1	66,4	62,9	65,8	63,8	0,6	-0,9
Hungaria	78,7	79,1	71,6	72,2	7,1	6,9	60,5	60,1	59,2	59,1	1,3	1
Malta	83	84	78,6	79,6	4,4	4,4	72,2	72,7	71,5	71,6	0,7	1,1
Herbehereak	83	83,2	79,3	79,5	3,7	3,7	58,9	57,5	63,5	61,4	-4,6	-3,9
Austria	83,6	83,8	78,4	78,6	5,2	5,2	62,5	60,2	60,2	59,7	2,3	0,5
Polonia	81,1	81,2	72,6	73	8,5	8,2	62,8	62,7	59,1	59,2	3,7	3,5
Portugal	83,6	84	77,3	77,6	6,3	6,4	62,6	62,2	64,5	63,9	-1,9	-1,7
Errumania	78,1	78,7	70,9	71,6	7,2	7,1	57,7	57,9	57,6	58,6	0,1	-0,7
Eslovenia	83,3	83,6	77,1	77,2	6,2	6,4	55,6	59,5	56,5	57,6	-0,9	1,9
Eslovakia	79,9	80,1	72,5	72,9	7,4	7,2	53,1	54,3	53,4	54,5	-0,3	-0,2
Finlandia	83,7	84,1	77,7	78	6	6,1	56,2	:	57,3	:	-1,1	
Suedia	83,6	83,8	79,9	80,2	3,7	3,6	:	66	:	66,9		-0,9
Erresuma Batua	82,8	82,9	79,1	79,2	3,7	3,7	64,5	64,8	64,6	64,4	-0,1	0,4
Islandia	84,3	83,7	81,6	80,5	2,7	3,2	68	66,7	70,4	71,7	-2,4	-5
Norvegia	83,5	83,8	79,5	79,8	4	4	70,4	68,6	71,9	71	-1,5	-2,4
Suitza	84,9	85	80,6	80,7	4,3	4,3	67,6	58,4	68,6	61,5	-1	-3,1
EAE	**85,8**	**86,3**	**79,6**	**79,9**	**6,2**	**6,4**	-	-	-	-	-	-

Iturria: EUROSTAT
(1) EINen datuak

b) Bizitzako urte osasuntsuak (BUO)

Herri garatu gehienetan, bizi itxaropenaren behin-behineko bilakaera goranzkoa da; hala ere, horrek ez du esan nahi adierazlea handitu den bizi urte guztiak osasun egoera oneko urteak direnik, jendeak gaixotasunak eta osasun arazoak paira ditzakeelako eta hori dela-eta, berehala hil ez arren, bizi kalitatea gal baitaiteke. Orokorrean, gaitz kronikoetan gertatzen da hori, eta haien agerpenagatik hilkortasun-tasak apurka-apurka balioa galdu du biztanlerien osasun egoeraren adierazlea izateko.

Eztabaida egiten da ea etorkizunean itxaropenaren hazkundearekin batera gaixotze-tasa ere haziko den, gaitz kronikoek eta buruko gaitzek gora egingo duten, edo bizitza luzeagoa osasun onez igaroko den, medikuntza aurrerapenei eta gaitzen prebentzioari esker. Hori dela-eta, egun ohiko hilkortasun neurriak ez dira nahikoa osasun egoera ebaluatzeko, osasun egoera horretan berehalako hilkortasuna ez dakarten gaitz eta osasun arazo kronikoak ugariak direlako.

Beraz, gaitzak euren ondorioen bidez neurtu behar dira, besteak beste, jarduera ***murrizketaren edo ezintasunaren bidez.*** Zentzu horretan, biztanleriaren osasun egoeraren indizeak, hala nola ezintasunik gabeko bizi itxaropena (EGBI) hilkortasunean eta ezintasunean oinarritua- egiteak, neurri bakar batean iraupena ez ezik bizi kalitatea ere laburbiltzea ahalbidetzen du.[2]

X adineko EGBIk x adin horretako pertsona bati hil arte ezintasunik gabe bizitzeko geratzen zaizkion batez besteko urteak adierazten ditu. Kalkulua egiteko, heriotzari buruzko datuez gain, jarduera mugatzeari buruzko datuak behar dira.

Espainian, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren datuen arabera, BUO jaiotzean 66,4 urte ziren(67,0 gizonetan eta 65,9 emakumeetan). Urte horretan bertan, BI 82,3 urteko izan zen (79,3 gizonak eta 85,3 emakumeak), hots, jarduera mugatua deneko 15,9 urte bizitzan (12,3 eta 19,4 gizonak eta emakumeak hurrenez hurren).

III.6.5. KOADROA. BIZI-ITXAROPENA (BI), BIZITZAKO URTE OSASUNTSUAK (BUO) ETA BIZI-ITXAROPENA OSASUN ONEAN (BIOO) AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA *(Hiru adierazleak jaiotzean dira)*

	2007			2011		
	BI	BUO	BIOO	BI	BUO	BIOO
Orotara	81,1	63,0	55,3	82,3	66,4	60,6
Andaluzia	79,8	63,1	54,8	81,0	65.0	57,9
Aragoi	81,7	67,1	59,1	82,6	71,2	60,3
Asturias	80,4	58,7	53,8	81,4	63,0	59,3
Balearrak	81,7	61,7	57,8	82,2	65,6	62,6
Kanariar U.	80,4	63,9	54,5	81,8	57,9	53,2
Kantabria	81,1	67,8	59,6	82,6	72,0	63,5
Gaztela-Mantxa	81,5	67,1	55,2	83,0	69,5	62,5
Gaztela eta Leon	82,1	68,7	61,3	83,4	69,6	63,0
Katalunia	81,6	60,8	55,2	82,8	66,3	62,1
Valentziako E.	80,6	59,4	52,5	81,9	66,3	58,9
Extremadura	80,6	63,8	52,6	81,8	67,4	59,1
Galizia	81,0	59,1	47,8	82,2	64,2	57,8
Madril	82,5	67,3	58,6	84,1	68,1	65,2
Murtzia	80,5	60,0	50,7	82,0	65,3	55,5
Nafarroa	82,5	62,8	57,6	83,8	70,5	65,2
EAE	**81,6**	**63,3**	**59,8**	**82,8**	**68,0**	**62,4**
Errioxa	81,8	58,7	62,8	83,1	66,9	64,2
Ceuta eta Melilla	79,5	53,3	52,8	80,3	62,4	59,3

Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa

BIn sexuen arabera dauden diferentziak nabarmen murrizten dira jarduera mugarik gabe bizi izandako urtean hartzen badira kontuan, halako moldez non emakumeen BI urte kopuru handiagoa da gizonezkoena baino, gehienbat jarduera mugatuarekin bizi izandako urteen kontura. Emakumeek, batez beste, gizoneko baino 6 urte gehiago bizi izituzten 2011n; alabaina, jarduera mugarik gabeko urteen batez bestekoa urtebete luzeagoa izan zen gizonetan.

BI eta OBU hazi egin ziren 2007 eta 2011 bitartean. Bi urte horien artean, 1,2 egin zuen gora BIk termino absolutuetan (1,5 gizonak eta urte 1 emakumeak). Bestalde, BUOak 3,5 urtez hazi dira (4 urte eta 2,4 urte gizonak eta emakumeak hurrenez hurren). BUOen goranzko joera handiagoa dago gizonekin emakumeekin baino, eta hori dela-eta, desagertzen ari dira sexu baten eta bestearen arteko aldeak BIri dagokionez. Are gehiago, alderantzizko joera dugu jarduera mugarik gabeko urteak kontuan hartzen badira.

Hona hemen jaiotzean BUO gutxien dituzten autonomia erkidegoak 2011n: Kanariar Uhartea (57,9), Ceuta eta Melilla (64,4), Asturias (63,0) eta Galizia (64,2 urte). BUO gehien dituzten autonomia erkidegoak, berriz, Kantabria (74,8 urte), Aragoi (71,2) eta Nafarroa (70 urte). EAEn 68 urteko adierazlea da.

Autonomia erkidego guztietan, Kanariar Uharteetan izan ezik, igoera egin zuten BUOek 2007 eta 2011 bitartean, eta igoerarik handienak Errioxan, Nafarroan eta Valentziako Erkidegoan izan ziren.

2BUO kalkulatzeko erabilitako jarduera mugatzeko neurria jarduera-adierazle globaletik dator (ingelesezko GALI siglak), eta Europako herrialdeetako osasun inkesta askotako galdetegian sartu izan da. GALI ezgaitasun subjektiboko indize sinplea da, eta horren helburua da, galdera bakarrean, lau dimentsio atzematea: jardueraren mugaketaren presentzia, jendeak normalean egiten dituen jardueretarako muga bada, baldin eta mugaketa hori, horrelakorik bada, osasun arazoengatik bada eta gutxienez 6 hilabeteko iraupena badu. Honako galdera hau erabili zen GALI neurtzeko helduentzat 2011ko Espainiako osasun inkestan: "Gutxienez 6 hilean, zein neurritan egon zara mugatuta osasun arazoak direla-eta jendeak egin ohi dituen jarduerak egiteko?: larriki mugatuta; mugatuta, baina ez larriki; ezelako mugarik gabe". Informazio horren arabera eratzen dira edozein muga mailari eta muga larriari buruzko bi adierazle. Espainian, galdera hori osasun inkesta nazionaleko galdetegian sartu zen 2007an, eta berriz ere sartu zen 2011n.

Azkenik, aurreko datuak 2011n amaitzen direnez gero, ezintasunik gabeko bizi-esperantzaren adierazlea erakutsiko dugu. Aurrekoaren desberdina izanik ere, azken urteetan gertaturikoaren berri izateko modua emango digu. Hala, EAEko 2013ko Osasunaren Inkestaren datuen arabera, ezintasunik gabeko bizi-itxaropena 69,3 urtean kokatu zen gizonezkoetan 2013an; emakumezkoetan, berriz, 73,1 urtean. 2007 eta 2013 bitartean, berriz, 0,3 urteko jaitsiera izango du gizonengan eta 1,8 urte emakumeengan.

c) Osasun oneko bizi-esperantza (OOBI)

Biztanleriaren osasun egoeraren beste indize bat (BUO bezala), osasun oneko bizi-esperantza da (OOBI, ikusi a ataleko taula). Gaixotasunek bizi-kalitatean duen inpaktua ebaluatzea da indize horren interes nagusiaren ardatza, urteetan adierazitako ebaluazioa hain zuzen. Badute BUOekiko desberdintasuna: pertsonek beren osasun egoerari buruz duten pertzepzio subjektiboarekin biderkatuta haztatzen direla bizitzako urteak, jarduera mugarekin haztatu beharrean.

X adineko OOBIk x adin horretako pertsona bati hil arte osasun egoera onean bizitzeko geratzen zaizkion batez besteko urteak adierazten ditu. [3]

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren datuen arabera, 2011n Espainian, OOBI jaiotzean 60,6 urte zen (61,7 urte gizonak eta 59,4 emakumeak), eta alde handiak daude BErekiko. BUOren kasuan bezala, OOBIk islatzen duenez, emakumeak urtez gehiagoz bizi dira gizonak baino, osasun txarragoa duten pertzepzioarekin.

Aldeko bilakaera du adierazleak: 2007 eta 2011 bitartean, 5,3 urtez igo zen OOBI Espainia osoan (4,5 gizonak eta 6 urte emakumeak). OOBI txikiena eta handiena duten autonomia erkidegoen arteko aldea 12 urtekoa izan zen. Madril eta Nafarroa, 65,2 urterekin eta Errioxa (64,2 urte) izan ziren OOBI handiena izan zuten erkidegoak eta txikiena, berriz, Kanariar Uharteek (53,2), Murtziak (55,5) eta Galiziak (57,8) izan zuten. EAEn 62,4 urtera iristen da adierazlea.

EBko herrialdeetan, EUROSTATen datuen arabera, OOBI jaiotzean 28-ko EBn 61,5 izan zen 2013an gizonetan, eta 61,4 emakumeetan. Datu horiek eta BI jaiotzean adierazleak ematen dituenak erkatuz gero, emakumeak urte gehiagoz bizi direla ondorioztatzen da, baina sumaturiko osasun txarragoarekin. Espainian, EUROSTATen datuen arabera, ildo bereko emaitzak ditugu.

Horrenbestez, emakumeen bizi-itxaropen handiagoarekin lotuta ditugu osasun baldintza txarragoak, eta horien artean, gaixotasun kronikoak, mugikortasunerako autonomia, etab. Gainera, ikusten denez, beren osasun egoerari buruzko pertzepzio txarragoa dute emakumeek gizonekin alderatuta.

[3] *Hauxe galdetzen da inkestetan: "Azken hamabi hileetan, zure osasun egoera nolakoa izan dela esango zenuke: oso ona, ona, hala-moduzkoa, txarra edo oso txarra?". Informazio horretatik zenbatesten da osasun txarraren prebanlentzia – "hala-moduzkoa", "txarra" eta "oso txarra"– biztanleriak osasun on subjektiboan bizi izandako urteen guztizko kopurua kalkulatzeko.*

6.2. OSAKIDETZAREN LAGUNTZAKO JARDUERA

a) Baliabideen erabilera

Osakidetzak emandako datuen arabera, 2013ko mailari eutsi zitzaion 2014an batez besteko okupazio indize globalean, hots, %77,7; aurreko urtean, berriz, %77,8 izan zen.

%100 gaindituta eta, beraz, aipatutako batez bestekoaren gainetik, medikuntza-zerbitzuetan, ondoko espezialitateak ditugu: pneumologia (%139), barne-medikuntza (%121,4), digestio aparatua (%108,7); eta kirurgiako zerbitzuetan: kirurgia kardiobaskularra (%111,6) eta urologia (%103,8). %100aren gainetik baina batez bestekoaren gainetik ditugu gainerako zerbitzu medikoak, errehabilitazioa izan ezik (%76,3), eta kirurgiako gainerako zerbitzuak, kirurgia plastikoa (%62,7) eta kirurgia baskularra (%69,4) izan ezik.

Eguneko batez besteko egonaldiak berriz ere egin du behera, 5,2tik 5,1era. Batez bestekoaren oso gainetik daude errehabilitazioa (29,4), psikiatria (14,6), zaintza aringarriak (13,6), hematologia (9,5) eta medikuntza orokorra (7,2).

III.6.6. KOADROA. BALIABIDE PUBLIKOEN ERABILERA ESPEZIALITATEAREN ARABERA (*batez besteko egonaldia eta okupazio indizea*)

ZERBITZUAK	Batez besteko egonaldia (egunak)					Okupazio indizea (%)				
	2010	2011	2012	2013	2014	2010	2011	2012	2013	2014
MEDIKUNTZA ZERBITZUAK										
Barne medikuntza	8,1	8,2	7,9	7,6	7,2	97,2	112,2	125	124,3	121,4
Kardiologia	4,9	4,7	4,7	4,8	4,7	80,3	92,1	97,1	96,2	94,4
Digestio aparatua	7,3	7,2	7,2	7,2	6,8	104,6	112,2	111,6	110,4	108,7
Hematologia	10,1	8,8	9,3	10,2	9,5	90,7	81,7	86,5	96,7	89,4
Pneumologia	6,5	6,4	6	5,6	6,0	90,1	127,3	139,9	128,9	139,0
Psikiatria	15,1	14,3	15	14,5	14,6	90,1	141,0	109,4	100,3	98,8
Errehabilitazioa	29,3	29,3	27,9	26,9	29,4	75,9	91,9	83,5	76,5	76,3
Zainketa aringarriak	15,0	14,0	12,7	14,0	13,6	78,8	87,5	71,2	86,7	88,9
KIRURGIA ZERBITZUAK										
Kirurgia orokorra	4,6	4,3	4,3	4,1	3,9	69,5	81,0	83,5	82,5	79,3
Kirurgia plastikoa	5,3	4,0	4,1	4,3	4,3	66,4	57,8	49,9	58,2	62,7
Kirurgia kardiobaskularra	3,9	4,0	3,8	3,6	4,1	90,5	90,0	93,2	84,9	111,6
Kirurgia baskularra	5,5	4,9	5,3	5,0	4,8	71,5	71,7	78,6	76,7	69,4
Kirurgia torazikoa	4,7	4,4	4,2	3,9	4,1	79,6	78,6	74,8	72,0	78,0
Neurokirurgia	6,3	6,1	5,9	5,1	5,1	80,9	86,6	84,9	82,3	87,0
Traumatologia	5,0	4,5	4,4	4,4	4,3	75,3	82,2	83,5	86,6	87,1
Urologia	4,2	4,0	3,9	4,0	3,9	79,8	95,3	93,9	103,8	101,8
OROKORRA	**5,6**	**5,5**	**5,4**	**5,2**	**5,1**	**79,6**	**79,8**	**79,1**	**77,8**	**77,7**

Iturria: Osakidetza. Akutuen ospitaleak +egonaldi ertaineko eta egonaldi luzeko ospitaleak

b) Itxaronzerrendak kanpoko kontsultetan eta kirurgia programatuan

2011ra arte, hazkunde profila ageri zen urte batean eta jaitsiera hurrengoan itxaronzerrendako pazienteen guztizkoan, baita batez besteko berandutzean ere. 2012an, hautsi egin zen joera hori, eta itxaronzerrendan dauden pertsonen kopurua berriz ere hazi da 2011koaren aldean. Alabaina, berriro ere jaitsiera ageri da 2013an, kasu honetan %6koa, eta 2014an atzera ere hazkundea (+2,6). Beraz, badirudi hazkunde-deshazkunde profilera itzuli garela.

Kopuru absolutuetan, itxaronzerrendan dauden pazienteen kopurua igo egin da, 89.289tik 91.591era. Itxaronzerrendan paziente gehien dituzten espezialitateak aurreko urteetako berdinak dira 2014an, ordena aldatu bada ere: traumatologia (18.232), oftalmologia (12.5381), dermatologia (11.537), errehabilitazioa (6.325) eta ginekologia (6.133).

KOADROA III.6.7. KANPOKO KONTSULTEN ITXARONZERRENDAK EAE-N *(paziente kopuru gehien duten espezialitateak)*

	Paziente kop.					Aldaketak			
	2010	2011	2012	2013	2014	10-11	11-12	12-13	13-14
Alergologia	1.516	2.107	2.554	2.507	3.380	39,0	21,2	-1,8	34,8
Kardiologia	3.288	2.842	2.659	2.542	2.822	-13,6	-6,4	-4,4	11,0
Dermatologia	10.016	12.094	13.303	13.429	11.537	20,7	10,0	1,0	-14,1
Digestio aparatua	4.051	3.931	4.019	3.396	3.410	-3,0	2,2	-15,5	0,4
Endokrinologia	2.363	1.780	2.247	1.809	2.148	-24,7	26,2	-19,5	18,7
Neurologia	3.818	4.388	4.690	4.224	3.467	14,9	6,9	-9,9	-17,9
Errehabilitazioa	3.875	4.806	5.017	4.956	6.325	24,0	4,4	-1,2	27,6
Kirurgia orokorra	2.865	3.108	2.371	2.839	2.787	8,5	-23,7	19,7	-1,8
Oftalmologia	14.141	14.735	15.367	12.543	12.381	4,2	4,3	-18,4	-1,3
ORL-otorrinolaringologia	4.754	5.561	4.968	3.973	4.393	17,0	-10,7	-20,0	10,6
Traumatologia	14.008	13.514	14.179	16.169	18.232	-3,5	4,9	14,0	12,8
Urologia	2.486	3.381	3.307	3.761	2.835	36,0	-2,2	13,7	-24,6
Ginekologia	10.538	9.523	8.728	6.671	6.133	-9,6	-8,9	-23,6	-8,1
Beste batzuk	12.693	11.334	11.598	10.470	11.741	-10,7	2,3	-9,7	12,1
OROTARA	**90.412**	**93.104**	**95.007**	**89.289**	**91.591**	**3,0**	**2,0**	**-6,0**	**2,6**

Iturria: Osakidetza. Akutuen ospitaleak + egonaldi ertaineko eta egonaldi luzeko ospitaleak

Atzerapen denborei dagokienez, 2013 eta 2014 bitartean berriz ere egin zuen gora hilabetetik gora itxaron behar izan dutenen portzentajeak, hain zuzen ere %36,2tik %38,2ra.

KOADROA. III.6.8. KANPOKO KONTSULTEN ITXARONZERRENDAK ETA BERANDUTZE-DENBORAK EAE-N (%)

	2011	2012	2013	2014
< hilabete	68,2	66,5	63,9	61,8
> hilabete	31,9	33,5	36,2	38,2

Iturria: Osakidetza: Akutuen ospitaleak + egonaldi ertaineko eta egonaldi luzeko ospitaleak

Baldin eta datu horiek eta Informazio Sistemak Osasun Sistema Nazionalak (SISLE-OSN) itxaronzerrendei buruz ematen dituen datuak alderatzen baditugu oinarrizko espezialitateetan eta 2014ko datuekin, hauxe ikusiko dugu: itxaronzerrendan 1.000 biztanleko dauden pazienteen kopurua txikiagoa dela EAEn Estatuan baino espezialitateotan: Oftalmologia (5,7 eta 6,87), ORL (2,02 eta 2,23), Neurologia (1,6 eta 1,79), K. Orokorra eta Digestio Aparatua (1,28 eta 1,39), Urologia (1,3 eta 1,5), Digestio Aparatua (1,57 eta 2,22) eta Kardiologia (1,3 eta 1,56); eta handiagoa da Ginekologian (2,82 eta 2,48), Traumatologian (8,39 eta 7,04), eta Dermatologian (5,31 eta 4,8).

Artatuak izateko hilabetetik gora itxaroten duten pazienteen ehunekoari dagokionez, nahiz eta adierazleak zuzenean ezin konpara daitezkeen, badirudi agerian uzten dutela Estatuko egoera ez dela hain ona. Izan ere, 60 egunetik gorako itxaronaldirako egiten da neurketa, eta egun kopuru hori baino gehiago itxaroten duten pertsonen ehunekoa %35etik gorakoa da, are gehiago, %40tik gorakoa azterturiko hainbat espezialitatetan.

III.6.9. KOADROA. OINARRIZKO ESPEZIALITATEEN KANPOKO KONTSULTEN ITXARONZERRENDEN EGOERA EAE-N ETA ESTATUAN, 2014

	Estatua			EAE
	Paziente kop. 1.000 bizt.	60 urtetik gorako data dutenen %	Itxaron beharreko b.b. denbora (egunak)	Paziente kop. 1.000 bizt.
Ginekologia	2,48	41,5	109	2,82
Oftalmologia	6,87	44,6	82	5,70
Traumatologia	7,04	41,9	68	8,39
Dermatologia	4,8	44,9	61	5,31
ORL	2,23	26,8	46	2,02
Neurologia	1,79	42,6	74	1,60
K. orok. - digestio ap.	1,39	22,1	51	1,28
Urologia	1,5	32,5	52	1,30
Digestio ap.	2,22	37,5	66	1,57
Kardiologia	1,56	35,5	55	1,30

Iturria: (1) Osakidetza. Akutuen ospitaleak eta (2) Osasun Sistema Nazionaleko itxaronzerrendei buruzko informazio sistema

Kirurgiako itxaronzerrendei dagokienez, horietako pazienteen kopuruak berriz ere egin zuen behera EAEn 2013 eta 2014 bitartean, hau da, 18.123 pertsonakoa izatetik 17.760 pertsonakoa izatera, hots, mila biztanleko 8,3 pazientetik 8,2 pazientera, estatuko batez bestekoa baino txikiagoa (11,4).

Pixka bat gora egin du batez besteko berandutze egunen kopuruak (49,7 egunetik 50 egunera), Estatuan izandakoa baino txikiagoa (87 egun).

III.6.10. KOADROA. KIRURGIAKO ITXARONZERRENDAK ETA BATEZ BESTEKO BERANDUTZEA

	EAE (1)					Estatua (2)
	2010	2011	2012	2013	2014	2014
Paziente kop.	16.377	17.763	18.611	18.123	17.760	511.923
Paziente kop. 1.000 biztanleko	7,6	8,2	8,5	8,3	8,2	11,4
B.b. berandutzea (egunak)	48,2	51,8	52,1	49,7	50,0	87
Paziente kop. > 3 hilabete	1.903	2.815	2.972	2.398	2.406	-
Pazienteen % > 3 hilabete	11,6	15,9	16,0	13,2	13,5	-
Pazienteen % > 6 hilabete	-	-	-	-	-	9,3

Iturria: (1) Osakidetza. Akutuen ospitaleak eta (2) Osasun Sistema Nazionaleko itxaronzerrendei buruzko informazio sistema (OSNI-OSN)

Bestalde, ebakuntza egiteko 3 hilabetetik gora itxaron behar duten pazienteen ehunekoa handitu egin da EAEn, hots, %13,2tik %13,5era.

c) Osakidetzaren gastua

EAEko Kontu Orokorrak oinarri hartuta Osakidetzak egiten duen aurrekontu-likidazioak erakusten duenez, erakundeak eginiko gastua, 2014an, 2.623,3 milioi euro zen. Hots, gastua %3,5 handitu zen 2013ko urtekoaren aldean, hainbat urtez urtearteko jaitsierak izan ondoren. Bestela esanda, BPG nominalaren %3,9.

Ustiapenaren gastuen igoerak (pertsonala, hornidura eta beste gastu batzuk) eta inbertsioaren igoerak eragin dute hazkunde hori.

Likidaturiko guztizko kopurutik %3,3 inbertsioei dagokie (85.259 mila euro) eta %96,7 ustiapen gastuei, non pertsonaren gastuak nabarmentzen diren: erakundearen guztizko gastuaren %66,1.

III.6.11. KOADROA. OSAKIDETZRAEN GASTUEN LIKIDAZIOA (mila euro)

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	Aldak. (%) 2013-14
INBERTSIOA	140.820	207.074	132.723	123.682	85.679	79.866	85.259	6,8
USTIAPENAREN GAST.	2.277.682	2.507.752	2.539.226	2.538.867	2.508.036	2.453.706	2.538.081	3,4
Pertsonala	1.602.115	1.750.591	1.763.417	1.757.114	1.680.498	1.689.603	1.735.152	2,7
Hornidura	462.124	539.763	554.975	557.505	582.458	603.271	611.656	1,4
Beste batzuk	213.443	217.398	220.834	224.248	245.080	160.832	191.273	18,9
OROTARA	**2.418.502**	**2.714.826**	**2.671.949**	**2.662.549**	**2.593.715**	**2.533.572**	**2.623.340**	**3,5**
BPG	69.648.307	66.187.188	67.595.563	68.041.740	66.775.970	65.906.376	66.930.542	1,6
Gastua BPGaren g. (%)	3,5	4,1	4,0	3,9	3,9	3,8	3,9	
Gastuaren urte arteko aldak. (%)		12,3	-1,6	-0,4	-2,6	-2,3	3,5	

Iturria: Geuk eginikoa, EAEko Kontu Orokorrak oinarri hartuta

Aurrekontuan jasotako diru-kopuruaren eta 2014an benetan betearazitakoaren arteko desbideratzeari dagokionez, likidaturiko gastua pixka bat handiagoa da aurrekontuan jasotakoa baino (66.644 mila euro gehiago aurrekontuko gastua baino), eta “inbertsioa”, “hornidurak” eta “beste batzuk” direla-eta izandako desbideratzeari dagokio.

III.6.12. KOADROA. OSAKIDETZAREN AURREKONTUAK ETA GASTUEN LIKIDAZIOA (mila euro)									
	2012			2013			2014		
	Aurrek.	Likidaz.	Diferent.	Aurrek.	Likidaz.	Diferent.	Aurrek.	Likidaz.	Diferent.
INBERTSIOA	80.723	85.679	4.955	80.723	79.866	-857	49.516	85.259	35.743
USTIAPEN GASTUA	2.505.665	2.508.036	2.372	2.451.305	2.453.706	2.401	2.507.180	2.538.081	30.901
Pertsonala	1.732.891	1.680.498	-52.392	1.732.890	1.689.603	-43.287	1.736.047	1.735.152	-895
Hornidura	553.932	582.458	28.526	564.627	603.271	38.644	600.107	611.656	11.549
Beste batzuk	218.842	245.080	26.238	153.788	160.832	7.044	171.026	191.273	20.247
OROTARA	**2.586.388**	**2.593.715**	**7.327**	**2.532.028**	**2.533.572**	**1.544**	**2.556.696**	**2.623.340**	**66.644**

Iturria: Geuk eginiko taula, EAEko Kontu Orokorrak oinarri hartuta

6.3. GASTUA OSASUNEAN

Eusko Jaurlaritzaren 2014ko aurrekontuen likidazioko datuen arabera, lehen tokian jarraitzen du Osasuneko partidak baliabideen ehunekoetan, eta dagoeneko guztizko gastuaren %33,2 da, non programa nagusia Osakidetzari eginiko transferentziei dagokien.[4]

Hala, bereziki osasunekoak diren partidak (Egitura eta Laguntza, Osasun Finantzazioa eta Kontratazioa, Ezagutzaren Kudeaketa eta Ebaluazioa eta Farmazia), Osasun Sailak 2014an likidatuak, 3.342 milioi euro dira (%+15 2013. urtearen aldean), hots, BPGd izendatuaren %5, aurreko urteko portzentaje bera.

Aurrekontuan jasotakoaren eta 2014an benetan betearazitakoaren arteko desbideratzeari dagokionez, likidaturiko gastua aurrekontuan jasotakoa baino txikiagoa da (11.822 mila euro gutxiago aurrekontuan jasotako gastua baino). Izan ere, partida guztien likidazioa txikiagoa da aurrekontuan jasotako gastua baino, Osasun Finantzazioa eta Kontratazioa deritzonarena izan ezik.

Bestalde, berariazko osasunekoak diren partiden gastuak, 2015erako, 3.390 milioi euro dira (+%1,4 2014an likidaturikoaren aldean), Hots, BPG nominalaren %5, 2013an eta 2014an izandako ratio bera hain zuzen ere.

III.6.13. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN OSASUN SAILAREN GASTUAREN BANAKAPENA (ataleko eta programako, *mila euro*)									
	2010	**2011**	**2012**	**2013**	**2014**			**2015**	**Aldak. (%)**
	Aurrekontuko likidazioak				**Aurrekontua**	**Likidazioa**	**Diferent.**	**Aurrekontua**	**2014-15**
Egitura eta laguntza	22.101	16.347	15.375	13.997	17.308	14.919	-2.389	17.462	17,0
Osasun kontratazioa eta finantzazioa	2.845.223	2.766.889	2.764.487	2.731.004	2.769.492	2.784.932	15.440	2.826.856	1,5
Osasun publikoa	34.755	29.126	29.063	27.503	487.421	32.889	-454.532	42.767	30,0
Osasun ikerkuntza eta plangintza	9.657	6.385	6.716	5.927	7.858	7.380	-478	7.566	2,5
Farmazia	624.898	580.043	536.869	511.793	499.943	492.569	-7.374	490.258	-0,5
Droga-mendetas.			5.316	3.799	5.076	3.907	-1.169	5.097	30,5
Osasun, guztira	**3.536.634**	**3.398.790**	**3.357.826**	**3.294.023**	**3.354.198**	**3.342.376**	**-11.822**	**3.390.006**	**1,4**
GUZTIRA	**10.327.556**	**10.173.197**	**10.246.438**	**9.579.465**	**10.215.506**	**10.053.538**	**-161.968**	**10.638.959**	
BPG	67.595.563	68.041.740	66.775.970	65.906.376		66.930.542		68.723.511	
Osasunaren % GUZTIZKOAREN g.	34,2	33,4	32,8	34,4		33,2		31,9	
Osasunaren % BPGaren g.	5,2	5,0	5,0	5,0		5,0		5,0	

Iturria: EAEren Kontu Orokorrak eta Aurrekontuak, EUSTAT eta geuk eginikoa

[4] *Osasun Sailaren barruan Osasuna eta Kontsumoa sartzen dira, baina analisi honetan, Osasunari dagokio.*

Bukatzeko, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren datuen arabera, goranzko joera zuen EAEko osasun gastu publikoak biztanleko[5] 2007 eta 2011 bitartean. Urte horretan, krisi ekonomikoaren ondorioz, ratioa beheranzko joeran hasi zen. Hala ere, gure Erkidegoa da azterturiko aldi osoan (2007-2015) biztanleko gasturik handiena egiten duena.

III.6.14. KOADROA. BALIABIDE EKONOMIKOAK. HASIERAKO AURREKONTUAK AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA
Euroak biztanleko*

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Andaluzia	1.083,3	1.166,2	1.183,5	1.174,0	1.113,4	1.114,8	1.004,1	976,5	1.007,1
Aragoi	1.261,6	1.316,5	1.396,8	1.416,1	1.373,5	1.375,9	1.202,8	1.211,2	1.214,4
Asturias	1.245,4	1.266,9	1.436,5	1.512,4	1.434,8	1.440,3	1.391,2	1.398,7	1.423,5
Illes Baleares	1.054,4	1.116,0	1.148,0	1.063,6	1.056,8	1.092,1	1.056,2	1.083,0	1.193,4
Uharte Kanariarrak	1.245,0	1.350,5	1.392,5	1.348,6	1.194,7	1.230,2	1.216,8	1.238,9	1.253,8
Kantabria	1.259,3	1.296,6	1.346,8	1.343,9	1.229,7	1.269,2	1.306,3	1.336,5	1.348,0
Gaztela eta Leon	1.205,5	1.303,5	1.329,7	1.374,7	1.353,0	1.347,1	1.288,5	1.282,8	1.325,1
Gaztela-Mantxa	1.217,0	1.289,3	1.370,6	1.390,8	1.330,3	1.228,5	1.162,9	1.149,9	1.176,8
Katalunia	1.204,3	1.243,8	1.261,0	1.316,3	1.220,3	1.157,2	1.097,7	1.102,6	1.127,7
Valentziako E.	1.042,0	1.084,7	1.110,9	1.119,1	1.077,8	1.070,8	970,7	1.073,9	1.102,9
Extremadura	1.339,3	1.457,5	1.558,1	1.530,2	1.417,1	1.365,8	1.187,5	1.204,4	1.285,0
Galizia	1.222,0	1.307,0	1.347,3	1.332,8	1.269,0	1.269,4	1.236,2	1.201,4	1.083,3
Madril	1.068,9	1.108,8	1.115,2	1.096,4	1.099,3	1.103,7	1.094,8	1.081,6	1.132,9
Murtzia	1.228,6	1.238,0	1.281,5	1.357,6	1.376,4	1.223,2	1.064,5	1.106,6	1.123,5
Nafarroa	1.332,4	1.407,6	1.438,3	1.549,3	1.513,8	1.419,0	1.329,1	1.393,7	1.457,4
EAE	**1.365,9**	**1.514,9**	**1.632,7**	**1.666,5**	**1.605,0**	**1.591,3**	**1.596,4**	**1.570,2**	**1.584,7**
Errioxa	1.336,2	1.260,1	1.249,4	1.276,3	1.196,6	1.131,3	1.078,7	1.100,4	1.114,7

** Estatistikako Nazio Erakundeak argitaraturiko erroldari dagozkion biztanleen datuak.*
Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa

Zehazki 2015ean 1.584,7 euro da. EAEren antzeko datuak daude Nafarroan (1.457,4 euro), Asturiasen (1.423,5), Kantabrian (1.348) eta Gaztela eta Leonen (1.325,1).

[5] *Hasierako osasun aurrekontuak islatzen dituzte datuek, autonomia erkidego bakoitzaren mailan finkatuak, horiek beren aurrekontu kontsolidatuetan sartu dituzten autonomia erkidegoko erakundeei dagozkienak. Beraz, baztertuta gelditzen dira fundazioak, partzuergoak, enpresa publikoak eta osasun arloan jarduerak egiten dituen eta gutxi gorabeherako aurrekontua duen beste edozein erakunde publiko.*
Biztanleriaren datuak EINek argitaraturiko erroldari dagozkio.

7. ETXEBIZITZA

Ondoren, EAEko 2015eko etxebizitzaren egoerari buruzko zifra nagusiak aurkeztuko dira, eskaintzaren aldetik (etxebizitzen stocka eta prezioak), nahiz eskariaren aldetik (eskuratzeko beharra, aldaketa eta birgaikuntza, eta etxebizitza babestuaren eskaria ere bai). Era berean, eraikuntzaren urteko jarduerari eta salerosketei buruzko datu nagusiak emango dira, eta azkenik Eusko Jaurlaritzak Etxebizitza Planaren bitartez eta foru aldundiek ohiko etxebizitzagatiko PFEZn kenkariak aplikatuz garatzen duten etxebizitza politikaren ebaluazioa azalduko da.

EAEko altzarien merkatuaren bilakaeraren ezaugarri nagusia, 2015ean eta Eusko Jaurlaritzaren Higiezinen Eskaintzaren Inkestako emaitzen arabera, etxebizitzaren eskaintzaren %7,8ko jaitsiera izan zen, aurreko urteko %18,7ko hazkundearen aldean.

Bestalde, etxebizitzaren eskariak edo beharrak[1], 2013ari buruz eskuragarri dagoen azken datuaren arabera, %25,9 egin zuen behera 2011koaren aldean, eta %41eraino 2009an erregistraturiko gehienekoaren aldean.

III.7.1. GRAFIKOA. ETXEBIZITZAREN MERKATUAREN BILAKAERA EAE-N



Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN eta EINren datuekin eginikoa

1 Eskuratzeko behar diren etxebizitzen kopurua erakusten du grafikoan azaltzen den eskariak; eskaintza higiezinen sustatzaile eta agenteek emandakoa da; prezioak eurotan adierazita daude salgai dauden etxebizitza libreen (berriak nahiz erabiliak) m2 erabilgarri bakoitzeko.

7.1. ETXEBIZITZAREN ESKAINTZA

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailaren "Higiezinen Eskaintzaren Estatistikak" (HEE) adierazi du, lehenik eta behin, azken urtean %7,8 jaitsi hazi dela (aurreko urtean +%18,7 izan zen) etxebizitzaren guztizko eskaintza (salgai eta alokagai daudenak), eta guztira 37.259 etxebizitza biltzen ditu laugarren hiruhilekoan.[2] Lagin hori, prezioen estatistikaren oinarria izanda, honela dago osatuta: %95,3 salgai eskainitako etxebizitzak dira eta %4,7 alokairuan eskainitakoak. Salgai dauden etxebizitzetatik % 9,9 etxebizitza berriak dira eta % 43,9 berriak babes publikoko motaren baten pean daude. Alokairuko etxebizitzetatik % 89,8 libreak dira eta % 10,2, berriz, babestuak.

Datu horietatik ondorioztatzen denez, 2004an eskaintzaren hazkundea hasi zen, baina bi urtez (2009 eta 2010) hazkunde moteldu egin zen. Goranzko joera hori nabarmen berreskuratu zen 2011n, eta berriz ere behera egin zuen 2012an, eta neurri txikiagoan, 2013an. 2014. urtean, jaitsiera gelditu eta aurreko galeraren zati bat (+%18,7) berreskuratu zen. Berriro egin zuen behera 2015ean, noiz-eta etxebizitza mota guztien eskaintza murriztu zenean, alokairu babestukoa izan ezik (+%27,5). Nolanahi ere, eskaintza osoaren %0,5 besterik ez da.

III.7.1. KOADROA. ETXEBIZITZAREN ESKAINTZAREN LABURPENA EAE-N.

	GUZT.	ETXEBIZITZAK SALGAI					ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN		
		GUZT. SALMENTA	ETXEBIZITZA BERRIAK			ETXEBIZ. ERABILIAK	ALOKAIRUA, GUZT.	LIBREA	BABESTUA
			GUZT.	BABESTUAK	LIBREAK				
2009	27.560	24.180	10.127	5.010	5.117	14.053	3.380	1.000	2.380
2010	28.921	26.353	8.169	3.573	4.596	18.184	2.568	1.215	1.354
2011	44.643	42.276	12.394	6.845	5.549	29.882	2.367	1.602	766
2012	39.542	36.902	9.918	4.180	5.738	26.985	2.640	2.013	627
2013	34.029	31.762	8.126	3.860	4.266	23.636	2.267	1.974	293
2014	40.400	37.755	4.731	2.268	2.463	33.024	2.645	2.505	140
2015	37.259	35.510	3.519	1.545	1.974	31.991	1.749	1.570	179
13/14 ald.%	18,7	18,9	-41,8	-41,2	-42,3	39,7	16,7	26,9	-52,2
14/15 ald %	-7,8	-5,9	-25,6	-31,9	-19,8	-3,1	-33,9	-37,3	27,5

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen Eskaintzaren Estatistika.
Oharra: 4 ordenako hiruhileko batez besteko mugikorren bidez ematen dira datuak, urteko IV. hiruhilekoa, era berean, urteko batez bestekoa da.

Azken hamarkadan gertatu denari erreparatuta ikusten denez, etxebizitza errealean erregistratu da eskainitako etxebizitza tipologiaren hazkunde proportzionalik handiena. Horrela, 2015ean salgai zegoen parke guztiaren %90,1 erabiltzen da; 2005ean, berriz, %65,5eko proportzioa zen.

Prezioei dagokienez (xehetasunez aztertuko dira hurrengo epigrafeetan), salgai dagoen etxebizitzaren batez bestekoa (berria eta erabilia) 246.000 euro inguruan kokatu zen 2015ean. Aurreko urtean, berriz, 252.100 zen, hots, %2ko jaitsiera. Metro koadroko batez bestekoa 2.943 euro/m^2-tik gorakoa da, eta %4,4ko jaitsiera izan du 2014koaren aldean; aurreko urtean, berriz, beste %4,5eko beherakada izan zen. Etxebizitza berriaren merkatuari dagokionez, prezioek %2 egin zuten behera, eta bigarren eskuko etxebizitzenak, berriz, %4,4 jaitsiera izan zuen.

Bestalde, etxebizitza babestu berriaren batez bestekoa prezioa %0,5 jaitsi zen azken urtean. Alokairu librearen batez besteko errenta, aldiz, %3,1 egin zuen gora. Beste alde batetik, babesturiko etxebizitzen alokairuaren batez besteko errenta, batez beste, 345,2 eurokoa izan zen, aurreko urtean baino %5,8 gehiago.

Azkenik, nabarmentzekoa da inmobiliariek etxebizitza bat saltzeko behar duten batez besteko denbora 4,6 hilabetekoa zela 2015ean, aurreko urteko 7,4 hilabeteko denboraren aldean. Hala, serie historiko eskuragarriko gutxienekoa lortu zen, eta 2008an izan zen datu hori eskuratu zen lehen urtea (urte hartan 8,5 hilabetekoa zen).

2. 5 etxebizitzatik gorako promozioak dituzten 156 sustapen-enpresei eta higiezinen 176 agentziei eginiko inkestako datuak –2011n laginaren tamaina handitu zen-, eta, beraz, ez du eskaintza guztia biltzen. Inkesta horren emaitzetatik garrantzitsuena, baina, datu absolutuak baino bilakaerari buruzkoak dira.

7.1.1. Salgai dauden etxebizitzen eskaintza eta prezioak

(a) Etxebizitza berria

Lehenik eta behin, salgai dauden etxebizitza libre berrien eskaintza, 2015eko laugarren hiruhilekoan, 1.974 etxebizitzakoa izan zen, 2014an baino %19,8 gutxiago. Honelakoa da lurraldez lurraldeko banaketa: Bizkaiak %44,8 hartzen du, Gipuzkoak %45,4 eta Arabak gainerako %9,8a.

III.7.2. GRAFIKOA. SALTZEKO DAGOEN ETXEBIZITZA BERRIAREN ESKAINTZA EAE-N



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen Eskaintzaren Estatistika

Etxebizitza libre berrien batez besteko prezioa, guztira, 259.800€-an kokatu zen 2015ean; 2014an, berriz, 266.000 eurokoa zen, hots, %2,3ko jaitsiera gertatu zen. Metro koadroko euro kopuruari dagokionez, 3.273,7 €/m^2 dugu, 2014ko batez bestekoa baino %2 gutxiago. Lurraldez lurraldeko azterketaren arabera, batez bestekorik txikiena Araban zegoen (2.742,1 €/m^2); Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, 3.370,3 €/m^2 eta 3.281,9 €/m^2 zen, hurrenez hurren. Kopuru absolutuetan, Arabak izan zuen atzerakadarik handiena, %4,5ekoa, eta ondoren Gipuzkoa (-%3,6) eta Bizkaia (-%0,7).

III.7.3. GRAFIKOA. SALTZEKO ETA ALOKATZEKO ETXEBIZITZA BABESTUAREN ESKAINTZAREN BILAKAERA EAE-N



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen Eskaintzaren Estatistika.
(*) modalitate hau 2006an desagertu zen.

Merkatu babestuari dagokionez, gogoratu behar da 2006tik ez dagoela salgai dauden etxebizitza sozialen eskaintzarik, eta etxebizitza horiek soilik alokairuan eskaintzen dira 2010eko laugarren hiruhilekoan, BOEren eskaintza 1.545 unitatera iritsi da, aurreko urtean baino % 31,9 gutxiago (2008tik %71,5 murriztu da).

Saltzeko eskainitako BOEren batez besteko prezioa 1.674,2 /m2 zen 2015ean, aurreko urtean baino %0,5 gutxiago. Lurralde historikoen arabera ez dago ia ezberdintasunik: Gipuzkoak du preziorik handiena (1.856,5 €/m^2), eta ondoren Bizkaiak (1.747,4 €/m^2). Kontrako eboluzioa izan du, zeren eta batez besteko prezioa %4,9 hazi baita lehenengoan eta %1,9 egin du gora bigarrenean. Arabak, bestalde, batez besteko prezio txikiagoa dauka (1.513,2 €/m^2), eta beheranzko bilakaera du, guztira %3,5 murriztuta.

Bestalde, 2007. urtearen amaieraz geroztik, oso bolumen txikietan bada ere, babes erregimenen bat daukaten bestelako etxebizitza tipologiak hasi ziren agertzen: babes ofizialeko etxebizitza tasatuak eta udal etxebizitza tasatuak. Etxebizitza horiek etxebizitza babestuak baino zerbait garestiago eskaintzen dira, baina etxebizitza librearen preziora iritsi gabe. Ez dago haien prezioen informazio zehatz eguneraturik.

III.7.2. KOADROA. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZEN BATEZ BESTEKO PREZIOAREN BILAKAERA EAE-N. €/M² ERABILGARRI.

	ETXEBIZITZA LIBREA				ETXEBIZITZA BABESTUA
	GUZTIRA LIBREA*	ERABILIA	BERRIA	ETXEBIZ. TIPOA**	
2009	3.846,6	3.778,9	4.032,5	3.338,1	1.468,9
2010	3.888,3	3.891,0	3.877,4	3.496,2	1.474,3
2011	3.830,3	3.841,6	3.769,5	3.447,7	1.532,2
2012	3.595,8	3.564,7	3.742,1	3.378,1	1.585,4
2013	3.226,4	3.171,7	3.486,2	3.095,1	1.625,0
2014	3.079,8	3.058,2	3.338,9	2.960,2	1.682,1
2015	2.943,1	2.922,9	3.273,7	2.843,1	1.674,2
13/14 ald. %	-4,5	-3,6	-4,2	-4,4	3,5
14/15 ald. %	-4,4	-4,4	-2,0	-4,0	-0,5

** Etxebizitza libre berrien eta erabilien batez besteko prezioa.*
***Etxebizitza librea, kolektiboa, araubide librekoa, zuzenean sustatzaileak eskainitakoa, ohiko akabera maila duena eta 60 - 90 m² bitarteko azalerakoa*
Oharra: 4 ordenako hiruhilekoen batez besteko mugikorren bidez irudikatzen dira datuak eta, beraz, urteko IV. hiruhilekoaren datua, era berean, urteko batez bestekoa da.
Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen Eskaintzaren Estatistika.

(b) Etxebizitza erabilia

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren datuetan ikusten dugu 2015ean guztira bigarren eskuko 31.991 etxebizitza eskaintzen zirela, hau da, aurreko urtean (urte horretan % 64,3 handitu zen) baino % 3,1 gutxiago; 2014an, berriz, %39,7 egin zuen gora. Etxebizitza horiek ondoko banaketa hau daukate lurraldez lurralde: Bizkaian %54,1, Araban %24 eta Gipuzkoan gainerako %21,9.

III.7.3. KOADROA. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA ERABILIAK, BATEZ BESTEKO PREZIOAK M² BALIAGARRI BAKOITZEKO (€) ETA BATEZ BESTEKO PREZIOAK (MILA €) LURRALDE HISTORIKO BAKOITZEKO.

	EAE			ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	Kop.	Prezioa m²	Prezioa / etxeb.	Kop.	Prezioa m²	Prezioa/ etxeb.	Kop.	Prezioa m²	Prezioa/ etxeb.	Kop.	Prezioa m²	Prezioa/ etxeb.
2009	14.053	3.778,9	310,1	4.009	3.550,0	295,2	7.378	3.581,7	294,1	2.666	4.686,4	374,3
2010	18.184	3.891,0	330,3	4.526	3.368,2	272,7	9.085	3.752,3	325,6	4.574	4685,5	398,5
2011	29.882	3.841,6	340,2	5.500	3.232,8	269,1	16.006	3. 766,4	344,3	8.376	4.395,3	379,4
2012	26.985	3.564,7	309,5	4.571	2.960,7	242,2	16.626	3.600,3	314,2	5.788	3.966,0	352,4
2013	23.636	3.171,7	271,8	4.672	2.713,2	220,8	13.688	3.243,3	285,2	5.276	3.420,7	286,5
2014	33.024	3.058,2	251,1	6.974	2.611,6	207,9	19.062	3.165,4	264,6	6.988	3.192,6	255,2
2015	31.991	2.922,9	246,0	7.677	2.527,2	204,6	17.323	3.017,9	261,2	6.991	3.111,5	253,3
13/14 %	39,7	-3,6	-7,6	49,3	-3,7	-5,8	39,3	-2,4	-7,2	32,4	-6,7	-10,9
14/15 %	-3,1	-4,4	-2,0	10,1	-3,2	-1,6	-9,1	-4,7	-1,3	0,0	-2,5	-0,8

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen Eskaintzaren Estatistika.

EAEko bigarren eskuko etxebizitza salgaien batez besteko prezioa 2.922 eurokoa zen metro koadroko 2015ean, aurreko urtean erregistratutako batez bestekoa baino %4,4 gutxiago. Lurraldeen arabera, Bizkaian batez bestekoaren gainetik jaitsi dira prezioak (%4,7); Araban eta Gipuzkoan, berriz, %3,2 eta %2,5 murriztu dira hurrenez hurren. Horren ondorioz, prezioak Gipuzkoako 3.111,5 /m2-ren eta Arabako 2.527,27 /m2-ren artean daude, eta Bizkaia tartean geratzen da, batez beste 3.017,9 /m2-rekin.

Etxebizitzako prezioetan, EAEko batez bestekoa 246.000€ da (-%2 2014koaren aldean; urtea hartan batez besteko prezioa 251.100€ zen): handiena Bizkaian, 261.200€, eta txikiena Araban, 204.600. Adierazle horretan, Gipuzkoak bitarteko balioa du, 253.300€ etxebizitzakoa hain zuzen ere.

7.1.2. Alokairu araubidea

2015eko laugarren hiruhilekoari buruzko higiezin eskaintzaren inkestaren arabera, 1749 etxebizitza eskaini dira alokairurako, aurreko urtean baino %33,8 gutxiago. Libreei dagokienez (eskaintzaren % 89,8) % 37,3 murriztu da: 2.505 etxebizitzatik 1.570 etxebizitzara; alokairuko etxebizitza babestuek, aldiz, % 27,5 egin dute gora. Beraz, babesturiko alokairuak behera egin du 2014ko % 10,2tik 2015eko % 10,2ra.

Alokairuko etxebizitza babestuen batez besteko errenta (aldatu egiten da etxebizitzen pertsona esleipendunen dirusarreren arabera) asteko 345,2€-koa izan zen 2015ean, aurreko urtean baino %5,8 gehiago.

Bestetik, 2015eko laugarren hiruhilekoan alokairurako eskainitako etxebizitza libreen lagina, esan dugunez, 1.570 unitatekoa zen. Lurralde banaketa honelakoa da: Bizkaian %71,6, Araban %10,7 eta gainerako %17,7a Gipuzkoan.

III.7.4. KOADROA. ESKAINTZEN DIREN ALOKAIRUKO ETXEBIZITZA LIBREAK ETA HILEKO B.B.O ERRENTA. €.

	Etxebizitzak				Hileko errenta (€)			
	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
2009	1.000	395	387	218	875,3	836,7	881,0	941,1
2010	1.215	226	767	222	921,5	827,6	923,8	1.004,9
2011	1.602	413	797	392	896,3	830,7	882,3	993,8
2012	2.013	332	1.233	448	856,0	790,3	865,8	879,7
2013	1.974	251	1.383	340	825,4	743,9	838,8	821,6
2014	2.505	178	1.885	442	844,7	729,4	861,0	818,5
2015	1.570	168	1.124	278	871,1	740,4	880,1	911,5
% 13/14	26,9	-29,1	36,3	30,0	2,3	-1,9	2,6	-0,4
% 14/15	-37,3	-5,5	-40,4	-37,2	3,2	1,5	2,2	11,4

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen Eskaintzaren Estatistika

Batez bestez, partikularrenak diren eta higiezin jabetzaren agenteen bidez alokatzeko eskaintzen diren etxebizitzek hilean 871,1 euroko errenta zeukaten 2015ean, aurreko urtean baino %3,2 gehiago beraz. Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoak du preziorik altuena (911,5 € hilean); ondoren Bizkaiak, 880,1 € hilean, eta azkenik Arabak (740,4€ hilean).

Eboluzioa aztertuta ikusten denez, bereziki igoera handia dago Gipuzkoan (%11,4) eta neurri handiagoan Araban eta Bizkaian (+%1,5 eta +%2,2 hurrenez hurren).

III.7.5. KOADROA. EAEn ALOKAIRURAKO ESKAINTZEN DIREN ETXEBIZITZEN ERRENTAREN BILAKAERA. (€/HILEA).

	MERKATU BABESTUA			MERKATU LIBREA
	BOE	SOZIALAK	GUZTIRA	
2009	325,0	121,4	219,8	875,3
2010	277,0	122,7	204,0	921,5
2011	331,8	134,6	279,2	896,3
2012	:	:	345,1	856,0
2013	:	:	333,1	825,4
2014	:	:	326,3	844,7
2015	:	:	345,2	871,1
% 13/14	:	:	-2,0	2,3
% 14/15	:	:	5,8	3,1

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen Eskaintzaren Estatistika.

III.7.4. GRAFIKOA. ALOKAIRUKO ETXEBIZITZAREN ESKAINTZAREN ETA ALOKAIRU LIBREAREN BATEZ BESTEKO HILEKO ERRENTAREN BILAKAERA (€)



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinen Eskaintzaren Estatistika.

7.1.3. Etxebizitzaren prezioen erkaketa, autonomia erkidegoen arabera

EIN 2008an hasi zen "Etxebizitzaren Prezioen Indizea" (EPI) egiten. Hiru hilean behingo adierazle horrek, 2007ko oinarriarekin, prezio libreko etxebizitzen (berriak nahiz bigarren eskukoak) salerosketa prezioen mailaren bilakaera neurtu nahi du denboran. EPI Europar Batasunaren estatistika harmonizatuen produkzioaren eremuan planteatutako informazio eskaerari dagokio; beraz, haren helburuetako bat estatu kideak alderatzeko tresna izatea da, etxebizitza librearen prezioen bilakaerari dagokionez. Horren eremutik kanpo daude, hortaz, etxebizitza babestuak, haien prezioak araututa daudelako eta ez direlako merkatuaren ohiko mekanismoen bidez arautzen.

EPIk Notariotzaren Kontseilu Nagusiak Ziurtapeneko Notariotza Agentziaren bidez emandako datu-baseetatik datorren informazioa erabiltzen du. Administrazio erregistroak erabiltzeak ahalbideratzen du, batetik, biztanleria osoaren informazio osoa edukitzea. Horrela, ez dago laginketa-teknikarik erabili beharrik; bestetik, salerosketako eragiketa ororen informazioa, sortzen den unean, indizearen kalkuluan sartzea ahalbideratzen du, eta hori funtsezkoa da koiuntura-adierazlea izan nahi duen indize batentzat.

Inkestako emaitzek erakusten dutenez, prezioek 2008-2013 epealdian behera egin ostean, neurri desberdinekin, 2014an lehen igoerak izan ziren Estatu mailan (+%1,7 batez beste), eta bilakaera askoz orekatuagoa da EAEn (izan ere, aldakuntza nulua izan zen).

2015ean, erkidego guztiek izan zituzten tasa positiboak, eta aurreko urtekoak baino handiagoak. EAEk %1,7ko aldakuntza du, Estatuko batez bestekoaren azpitik (%4,2). Hona muturreko balioak: Aragoiko +%0,7 eta U. Balearretako +%7.

III.7.6. KOADROA. ETXEBIZITZAREN PREZIOEN INDIZEA: LAU HIRUHILEKOEN URTEKO ALDAKUNTZA TASAK.

	2012	2013	2014	2015
ESTATUKO B.B.	-12,8	-7,8	1,7	4,2
ANDALUZIA	-11,5	-6,3	1,8	3,0
ARAGOI	-11,8	-12,5	0,1	0,7
ASTURIAS	-12,4	-11,5	-0,3	1,3
BALEARS, ILLES	-11,4	-3,7	0,7	7,0
U. KANARIARRAK	-13,3	-6,8	0,5	3,6
KANTABRIA	-12,7	-4,6	1,8	2,0
GAZTELA ETA LEON	-12,4	-13,2	0,8	0,9
G. MANTXA	-11,2	-14,9	0,4	2,1
KATALUNIA	-14,3	-7,2	2,2	5,9
VALENTZIAKO E.	-14,0	-6,4	2,8	3,0
EXTREMADURA	-8,6	-15,7	-0,7	2,6
GALIZIA	-12,6	-10,9	1,0	1,7
MADRIL	-13,1	-6,5	2,9	7,3
MURTZIA	-11,5	-13,8	2,7	1,8
NAFARROA	-11,0	-13,2	-4,2	1,8
EAE	**-13,3**	**-5,3**	**0,0**	**1,7**
ERRIOXA	-13,8	-11,6	0,2	1,5
CEUTA	-9,1	-5,9	1,0	6,3
MELILLA	-9,3	-10,2	1,3	5,7

Iturria: EIN. EEI.

7.1.4. Eraikuntza jarduera eta etxebizitza

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitzaren Behatokiak jakinarazi duenez, EAEn hasitako etxebizitzen guztizko kopurua negatibo bihurtu zen 2011 eta 2012ko bi urtekoan, hazkunde nabarmena izanik, 2008an eta 2009an jaitsiera handia izan ondoren. Hala ere, 2012an %40,8 egin zuen behera hasitako etxebizitzen kopuruak, eta joera horri eutsi zitzaion 2013an (-%23,1) eta neurri txikiagoan 2014an (eskuragarri dugun azken datua), %4,5 jaitsita. Hasitako etxebizitzetatik %59,3 libreak ziren eta %40,7 babestuak.

III.7.7. KOADROA. ERAIKUNTZAREN JARDUERA EAE-N: HASITAKO ETA BUKATUTAKO ETXEBIZIITZAK

	HASITAKO ETXEBIZITZAK			BUKATUTAKO ETXEBIZITZAK		
	LIBREA	BABESTUA*	GUZT.	LIBREA	BABESTUA	GUZT.
2010	2.572	3.939	6.511	6.409	5.116	11.525
2011	4.804	3.645	8.449	5.851	5.473	11.324
2012	2.743	2.263	5.006	4.757	3.835	8.592
2013	2.029	1.821	3.850	3.994	1.842	5.836
2014	2.181	1.496	3.677	2.560	2.440	5.000
2015	**:**	**1.102**	**:**	**3.611**	**1.985**	**5.596**
%13/14	7,5	-17,8	-4,5	-35,9	32,5	-14,3
%14/15	:	-26,3	:	41,1	-18,6	11,9

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Etxebizitzaren Behatokia.
*** Etxebizitza babestuen figura berriak sartzen dira hemen.*

Ez dugu hasitako etxebizitza babestuen 2015eko kopuruen berri (ez dago merkatu librearen informaziorik): Guztira 1.102 hasi ziren, 2014an baino %26,3 gutxiago, 2010ean izan ezik: hasitako etxebizitza babestuak beherantz egin du 2007az gero (urte horretan 7.300 etxebizitza baino gehiago hasi ziren). Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Plana 2006-2009 abian jarri zenetik, etxebizitza babestuen merkatuan figura berriak sortu dira.

III.7.5. GRAFIKOA. BABESTURIKO ETXEBIZITZAREN ERAIKUNTZAREN BILAKAERA LURRALDEKA. HASITAKO ETXEBIZITZAK



Iturria. EUSKO JAURLARITZA. Etxebizitza Saila.

Horrek ekarri du, oraingoz, dotazio alojamenduak eraikitzen hastea 2006az geroztik, 2007az geroztik udal etxebizitza tasatuak (saltzeko eta alokatzeko) eta 2009az geroztik etxebizitza autonomiko tasatuak.

Azken urtetan, ez da hasi ostaturik eraikitzen, ezta alokairuko udal etxebizitza tasaturik ere. Jabetzapeko udal etxebizitza tasatuen eraikuntza, ordea, abian da (153 orotara, 2014an baino 108 gehiago), baita Eusko Jaurlaritzaren kalifikazioaren peko etxebizitzetan, 639 BOE (-%52,9 2014aren aldean), 185 etxebizitza sozial (bat ere ez 2014an) eta 125 etxebizitza tasatu (40 izan ziren 2014an).

III.7.8. KOADROA. EAE-N HASITAKO ETXEBIZITZA BABESTUEN BILAKAERA, TIPOLOGIAREN ARABERA.

	EJ-REN KALIFIKAZIOAREN PEAN DAUDENAK			EJ-REN KALIFIKAZIOAREN PEAN EZ DAUDENAK			GUZT.
				OSTATUAK	UDAL ETXEBIZITZA TASATUAK		
	BOE	SOZIALAK	TASAT.		ALOKAIRUA	JABETZA	
2010	3.117	458	14	0	0	350	3.939
2011	3.113	101	81	110	0	240	3.645
2012	1.718	60	304	177	0	4	2.263
2013	1.361	153	208	47	0	52	1.821
2014	1.356	0	40	55	0	45	1.496
2015	**639**	**185**	**125**	**0**	**0**	**153**	**1.102**

Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuekin egina. Etxebizitzaren Behatokia.

Bestalde, EAEn 2015an amaitutako etxebizitzak 5.596 dira, aurreko urtean baino %11,9 gehiago, amaitutako etxebizitza libreen igoeraren (%41,19) eta babestutakoen beherakadaren (-%18,6) baturaren emaitza gisa.

III.7.9. KOADROA. OBRA NAGUSIEN LIZENTZIA KOPURUAREN BILAKAERA EAE-N, TIPOLOGIAREN ARABERA

	GUZT.	ERAIKI BERRIAK	ZAHARBERRIKUNTZAN	ERAISPENAN
2009	2.034	578	1.407	49
2010	2.602	675	1.863	64
2011	2.883	660	2.174	49
2012	2.380	447	1.909	24
2013	2.145	351	1.746	48
2014	2.585	390	2.133	62
2015	2.744	444	2.240	60

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko azterlana.

Horren ondorioz, aurten murriztu egin da etxebizitza babestuak EAEko eraikuntzako jardueran duen partaidetza, zeren eta bukaturiko etxebizitzen artean behera egin baitzuen, %48,8tik %35,5era.

Bestalde, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak 2015eko laugarren hiruhilekoko bere "Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko estatistika"-n nabarmentzen duenez, finkatu egin da aurten eraikuntzako obren tipologien joeraren aldaketa, gero eta gehiago birgaikuntzara bideratuta, krisia hasi zenetik ikusi izan denez.

III.7.10 KOADROA. OBRA NAGUSIEN LIZENTZIA KOPURUAREN BILAKAERA EAE-N, ETXEBIZITZA MOTAREN ETA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA. 2013-2015.

		2013	2014	2015	% 14/15
EAE	OROTARA	2.145	2.585	2.744	6,2
	ERAIKI BERRIA	351	390	444	13,8
	ZAHARBERRIK.	1.746	2.133	2.240	5,0
	ERAISPENA	48	62	60	-3,2
ARABA	OROTARA	691	693	718	3,6
	ERAIKI BERRIA	110	113	129	14,2
	ZAHARBERRIK.	565	558	572	2,5
	ERAISPENA	16	22	17	-22,7
BIZKAIA	OROTARA	1.062	1.404	1.449	3,2
	ERAIKI BERRIA	150	179	178	-0,6
	ZAHARBERRIK.	891	1.203	1.244	3,4
	ERAISPENA	21	22	27	22,7
GIPUZKOA	OROTARA	392	488	577	18,2
	ERAIKI BERRIA	91	98	137	39,8
	ZAHARBERRIK.	290	372	424	14,0
	ERAISPENA	11	18	16	-11,1

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Azterlana

2015ean, EAEko udalek, guztira, obra nagusiko 2.744 *lizentzia* eman zituzten (etxebizitza eraiki berrien, zaharberrituen eta eraispeneko etxebizitzen batura), 2014an baino %6,2 gehiago. Lurraldeka, bereziki nabarmentzen da Gipuzkoako hazkundea (+%18,2); Bizkaian eta Araban, berriz, batez bestekoaren azpitik egin zuten gora (%3,2 eta %3,6 hurrenez hurren). 2015eko 2.744 lizentzietatik %16,21 eraikuntza berrietarako lizentziei dagokie, %2,2 eraispenerako eta horietatik %81,6 eraikuntzak birgaitzeko dira (%82,5 2014an), hots, 10etik 8. Aurreko urteetan, berriz, ez ziren lizentzia guztien %50 ere.

2006-2015eko epealdian gertaturikoa hartzen badugu kontuan, %24,2 murriztu da obra nagusiko lizentzia kopurua, eta etxebizitza berriak eraikitzeko lizentzien jaitsiera nabarmentzen da: %73,2 egin du behera. Bigarren tokian, eraispenekoak, %41,2 jaitsi dira. Zaharberrikuntzarako lizentziek, berriz, %20,2 egin zuten gora.

7.2. ETXEBIZITZAREN ESKARIA

7.2.1. Etxebizitzaren beharrak eta eskaria

EAEko 2014ko Memoria Sozioekonomikoaren informazioa baino ez dugunez gero (urte birik behin egiten da informazioa ematen duen inkesta), Memoria horretan bildu ziren emaitzen laburpena emango da ondoren.

a) Eskuratzeko beharra

Gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18-44 urteko pertsonek lehenbiziko etxebizitza eskuratzeko duten beharrari buruzko hurbilketan, hauxe egiaztatu du Eusko Jaurlaritzaren 2013ko "Etxebizitzaren beharrei eta eskariari buruzko inkesta"-k (EBEI): etxebizitza eskuratzeko prozesua finantzatzen pentsatzeko adinako diru-sarrerak dituzten 65.346 pertsonak adierazten dutela behar hori. 2011ren aldean, kopuru hori %25,9 jaitsi da eta %39,6raino 2010aren aldean eta %41 2009an izandako gehienekoarekiko.

III.7.11. KOADROA. LEHEN ETXEBIZITZA ESKURATZEKO ESKARIAREN ETA BEHARREN ZENBATESPENA, ADIN-TADEEN ETA SEXUAREN ARABERA, EAE, 2013

	ETXEBIZITZA ESKURATZEKO BEHARRA DUTEN 18-44 URTEKO PERTSONAK		18-44 URTEKOAK		GURASOEKIN BIZI DIREN 18-44 URTEKOAK		GURASOEKIN BIZI ETA BEREN ERRENTAK DITUZTEN 18-44 URTEKOAK, OROTARA	
	KOP.	% bert.	KOP.	% BEHARRA	KOP.	% BEHARRA	KOP.	% BEHARRA
18 - 24 URTE	8.431	12,9	124.004	6,8	109.508	7,7	24.291	34,7
25 - 34 URTE	47.861	73,2	262.311	18,2	130.274	36,7	85.368	56,1
35 – 44 URTE	9.053	13,9	362.766	2,5	27.474	33,0	16.477	54,9
EMAKUMEAK	31.777	48,6	365.411	8,7	124.124	25,6	58.719	54,1
GIZONAK	33.569	51,4	383.670	8,7	143.132	23,5	67.416	49,8
GUZTIRA	**65.346**	**100,0**	**749.081**	**8,7**	**267.256**	**24,5**	**126.136**	**51,8**

Iturria. EUSKO JAURLARITZA. EBEI 2013

65.346 pertsona talde hori gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18 eta 44 bitarteko pertsonen %24,5 da, baina pisu hori asko aldatzen da adinaren arabera: proportzioa %7,7 besterik ez da 25 urtetik beherakoen artean, %36,7 25 eta 34 urte bitartekoen artean eta egonkor eusten dio 35 eta 44 urtekoen artean, %33an hain zuzen.

III.7.12. KOADROA. LEHEN ETXEBIZITZA ESKURATZEKO BEHARRAREN BILAKAERA EAE-N (GURASOEKIN EDO TUTOREEKIN BIZI DIREN 18-44 URTEKO PERTSONAK)

	2010		2011		2013	
	KOP.	% BERT.	KOP.	% BERT.	KOP.	% BERT.
ESKURATU BEHARRA DUTENAK*	108.131	35,7	88.128	31,1	65.346	24,5
SAR. GABEKO PERTSONAK	136.386	45,1	147.881	52,2	141.120	52,8
SARRERA GUTXI EDO EZEGONKORRAK	9.355	3,1	14.446	5,1	27.287	10,2
BADUTE ETXEBIZITZA	23.667	7,8	21.934	7,7	9.206	3,4
BEHARRIK EZ	22.833	7,5	7.815	2,8	14.100	5,3
BESTE ERAKUNDE BATZUK	2.361	0,8	2.981	1,1	10.197	3,8
GUZT., BESTE BATZUEKIN BIZI DIREN 18-44 URTEKOAK…	**302.733**	**100,0**	**283.185**	**100,0**	**267.256**	**100,0**

** eta nahikoa sarrera dituztenak*
Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EBEI 2013.

Gurasoekin edo tutoreekin bizi eta beren diru-sarrerak edo errentak dituzten 18 eta 44 urte arteko pertsona guztiei dagokienez, guztira 126.136 dira, eta etxebizitza eskuratzeko taldea %51,8 da. Sexuaren arabera, behar handia ikusten da emakumeen artean (%54,1) gizonezkoen artean baino (%49,8).

2010 eta 2013 urte artean lehen etxebizitzaren gaineko beharraren %40 inguruko jaitsierak argi erakusten du faktore bereizien garrantzia: lehenbizikoa demografikoa da soil-soilik, zeren eta behera egin baitu gurasoekin edo

tutoreekin bizi diren 18 eta 44 urte bitartekoan biztanleriak. Egoera horretan daudenen kopurua jaitsi egin da: 2010eko 302.733tik 2013ko 267.256ra (-%11,7).

Nabarmendu beharreko bigarren faktoreak krisiaren ondorioekin du zerikusia: 2010 eta 2013 artean lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18 eta 44 urte bitartekoen portzentajearen jaitsierak (%35,7tik %24,5era) diru-sarrerarik ez duen erreferentziako biztanleriaren gehikuntzarekin du zerikusia (2010eko %45,1etik 2013ko %52,8ra). Hori dela eta, ez da ezarri etxebizitzaren beharra kalkulatzearen ondorioetarako. Diru-sarrerarik gabeko pertsonei diru-sarrera nahikorik edo egonkorrik ez duten pertsonek batuz gero, are hazkunde nabarmenagoa da: taldearen %48,2tik %63ra. Kopuru absolutuetan, 2010eko 145.741 pertsona izatetik 2013ko 168.407 pertsona izatera.

Egungo etxebizitza nagusien guztizkoari dagokionez (familiak), behera egin du lehen etxebizitzaren beharrak: 2011ko %9tik (76.360) 2013ko %6,8ra (59.318 etxebizitza). 2005-2013ko epealdiko portzentajerik baxuena da, eta 2009an %13tik gorakoa izan zen.

Eskariari dagokionez, familiaren emantzipazioa aipatzen du %74,7k zio nagusi gisa, eta %22,2k, berriz, soilik bikotekidearekin bizitzearekin du lotura. Gainerako %3a lantokia tokiz aldatzearekin edo bestelako zioekin dago lotuta. Lehen etxebizitza eskatzen duten pertsonen profila aztertuta, talderik garrantzitsuena 25 eta 34 urte bitartekoen multzoan dago: %73,2. 35 eta 44 urte bitartekoei %13,9 dagokie eta 25 urtetik beherakoei, berriz, %13. Gizonezkoak eskatzaileen %51,4 dira, eta emakumeak %48,6.

Azkenik, etxebizitza eskuratu beharra duten pertsonen finantza-ahalmenari dagokionez, lehenik eta behin pertsona horiek, batez beste, hileko 1.365,9€-ko diru-sarrera dute (-%12,7 2011ren aldean). Hala, pertsonen pisu erlatiboaren igoera ageri da diru-sarrera txikiagoak dituztenen tartean, halako moldez non %21,7k 840 euro baino gutxiago baitute hilean. Ondorioz, hileko ordainketak egiteko ahalmena gutxitu egin da; izan ere, batez beste 385,2€ dira (-%11,4 2011ren aldean), eta etxebizitzaren beharra duen taldearen %40tik gora ditu hilean 300€ etxebizitza ordaintzeko.

Lehen etxebizitza eskuratu beharra duten biztanleen batez besteko adina, 2013an, 28,8 urte zen, 2011ko kopuru bera. Oro har, azken 15 urtean ia ez da aldatu lehen etxebizitza eskuratu beharra eskatzen duen taldearen batez besteko adina, 1997ko 27 urtetik 2007ko 29,1era bitarteko adinarekin.

b) Aldaketa beharra

2013. urtean, 61.621 euskal familiak zioen etxebizitza aldatu beharra zuela, guztizkoaren %7,1ek. Hots, %62ko igoera 2011ren aldean. Izan ere, urte horretan guztizkoaren %4,5 ziren etxebizitza horiek. Epe luzerako ikuspegiaren arabera, 2005etik izandako mailarik handienetako batean kokatzen da 2013ko beharraren indizea, baina denboran gertaturiko bilakaera oso irregularra izan da.

III.7.6. GRAFIKOA. ETXEBIZITZA ALDATZEKO ESKARIAREN BILAKAERA EAE-N BEHARRAREN EPEAREN ARABERA. FAMILIEN KOPURUA.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EBEI 2013.

Etxebizitza aldatu behar duten 61.621 familietatik, %20,5ek baino ez du aurreikusten (12.628) hurrengo urtean aldaketari aurre egiteko moduan egotea, hots, 4,4 puntuko murrizpena 2011ko %24,9aren aldean. Gainera, familien % 33,7k bi urte epean etxebizitza aldatzeko dela adierazi du (20.744 familia) eta gainerako %49,5ak ez du uste 4 urte baino lehen aldaketa egiteko moduan izango denik.

Etxebizitzaren tamaina desegokia da oraindik ere aldatzeko beharra izateko zio nagusia; izan ere, halaxe aipatzen da kasuen %33,1ean, eta ondoren dator alokairu merkeagoa bilatu nahia (%17,2). Hirugarren tokian, berriz, bestelako

zioak ageri dira (%14,7), eta horietan sartzen dira, esaterako, etxebizitza eskuratzeko gabeziak edo familiako bestelako gai espezifikoak. Aurreko horiek direla eta, goranzko joera antzematen da etxebizitzaren tamaina eta alokairu merkeago bilatu nahi izateko zioetan.

Etxebizitza aldatu behar duten familien finantza-ahalmenari dagokionez, lehenik eta behin esan behar da, batez beste, hileko 1.690,5€-ko diru-sarrera garbia dutela (-%5 2011koaren aldean). Gainera, pisu erlatibo handiagoa ageri da diru-sarrera txikiagoa dutenen tarteetan, halako moldez non %41,3k gutxienez 1.411 € baititu hilean. Ondorioz, hileko ordainketak egiteko ahalmena gutxitu egin da; izan ere, batez beste 467€ dira (-%1,1 2011ren gainean). Bilakaeraren aldetik, beherako joera nabarmena ikusten da famili horiek etxebizitza aldatzeko ordainketari aurre egiteko batez besteko ahalmenean, 2008ko izandako baliotik. Sarreren eta ordaintzeko ahalmenaren bilakaera horren ondorioz, EBEIk zenbatetsi duenez, 2013an etxebizitza aldatu beharra zuten pertsonek ordain zezaketen gehieneko prezioa 157.786€ izan zen (-%19 2011ren aldean). Aurreko urteekin alderatuta, jaitsiera nabarmena dago 2007an erregistratu zen gehieneko hartatik: 229.085€.

c) Birgaikuntza beharra

EBEIren zenbatespenen arabera, 90.139 euskal familiak behar dute etxebizitza birgaitzeko jarduketa 2013an. Hala, magnitude hori EAEko famili etxebizitza parkearen %10,3 da. Bilakaeraren aldetik ikusten denez, etxebizitza birgaitzeko beharra handitu da 2011ren aldean, familia kopuruan (+%19,6) nahiz behar horren eragin erlatiboan (%1,4 gehiago). Epe luzerako ikuspegitik, joera aldaketa nabarmentzen da etxebizitza birgaitzeko beharra duten familietan 2009tik ikusitako jaitsieraren aldean.

III.7.7. GRAFIKOAETXEBIZITZA BIRGAITZEKO BEHARRAREN BIALAKERA EAE-N



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EBEI 2013

Behar den birgaikuntzaren ezaugarriei dagokienez, familien ia erdiak dio famili etxebizitzaren elementu bakarren ingurukoak direla beharrak (komuna, lurra, berogailu instalazioak, leihoak aldatzea...), eta portzentaje hori ia %60 da Gipuzkoako etxeetan

Eraikineko eremu komunetan zentraturiko birgakuntza-lanen tipologia aipatzen dute birgaikuntza beharra duten EAEko familien %18,4k, eta ratio handiagoa da Bizkaiko etxeetan (%23). Bestalde, familien %31,8k dio hobekuntzako obra egin beharra dagoela, etxebizitza barruan nahiz eraikineko eremu komunetan.

BEHARRA DUTEN ETXEBIZITZETAN BEHARREZKO BIRGAIKUNTZA MOTAREN BILAKAERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA EBEI 2013

Bilakaeraren aldetik, elementu komunetan nahiz etxebizitzan bertan berrikuntza behar duten birgaikuntza nabarmentzen da: 2007an %15 izatetik 2013an %32 izatera.

7.2.2. Familien finantza-ahalegina

EAEko familiek etxebizitzak ordaintzeko egin behar duten finantza-ahaleginari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaren Behatokiak erakutsi du, Higiezinen Erregistro Estatistikako datuak erabilita, finantza-ahalegin hori hileko batez besteko hipoteka kuotaren eta soldata kostuaren arteko harremanaren ikuspuntutik aztertuz gero, % 29,6koa izan da 2015eko laugarren hiruhilekoan, hau da, aurreko urtean baino 2,6 puntu portzentual gehiago dituela.



Iturria: Jabetzaren erregistratzaileen elkargoa

Estatu mailan, ibilbide orekatuagoa da: ahalegin hori batez besteko soldata kostuaren %28,29 zen 2015eko amaieran. 2014ko laugarren hiruhilekoan, berriz, %29,39 zen (-1,1 puntu portzentual).

7.2.3. ETXEBIDEn erregistraturiko etxebizitza babestuaren eskaria: bajei buruzko azterketa

Etxebizitzaren Euskal Behatokiak bere 2014ko "*ETXEBIDEko erregistroko bajen ebaluazioari buruzko txosten*"ean nabarmentzen duenez, etxebizitza babestuaren eskariak %37,6 egin zuen behera EAEn aurreko urtearen aldean; izan ere, 54.000 eskabide baino ez ziren bildu (54.042), hain zuzen urte askoan 85.000 eskabidetik gora erregistratu ondoren.



Iturria: Etxebizitza Sailaren datuekin eginikoa. EUSKO JAURLARITZA

Lurraldeka, gehienak Gipuzkoan metatzen dira (-%41,8), eta ondoren Bizkaian (-%37,1); Araban, berriz, beherakada txikiagoa izan da, baina nahikoa nabarmena, ordea (-%27,8). Etxebizitza edukitzeko araubidearen arabera, %60tik gorako jaitsiera izan da erosteko izen-emateetan; alokairuko etxebizitza eskatzen dutenenak, berriz, %21 egin zuen behera.

Etxebizitza Sailburuordetzak emandako informazioaren arabera, 2014an Etxebidek 48.061 espedienteren baja kudeatu zuen, aurreko urteetan baino askoz gehiago. Izena emateko eskabideak, berriz, 10.174 izan ziren guztira, 2013an baino gehiago, baina aurreko urteetan baino gutxiago. Ondorioz saldo negatiboa izan da[3].

3 Alta eta baja espedienteen arteko diferentziak espediente galera erakusten du, guztira 37.887, eskabide espediente aktiboen bilakaeraren bidez zenbatetsia baino pixka bat handiagoa (32.617 gutxiago 2013 eta 2014 bitartean). Datuen aldizkakotasunagatik izan daiteke alde hori.

Kontuan izan behar da 2013ko urtarrilaren 2an erregistroari buruzko arau berria sartu zela indarrean. Hala, harpidetzaren baliozkotasun-epea ezarri zuen, bi urtekoa, eta beraz, harpidetza bi urterik behin nahitaez berriztatu beharra ezarri da, eta horrek eragina izan du espediente ugaritan. Izan ere, urteko bajen %75,6 harpidetza berritu ez duten espedienteei dagokie. Hona hemen aipaturiko beste zio batzuk: beharrezko agiriak ez aurkeztea (kasuen %5,1), etxebizitza baten esleipena (%4,7) edo esleituriko etxebizitzari uko egitea (%4,7). Gainera, berritu gabeko espedienteen %53 erosteko etxebizitza babestuaren eskariari zegokion eta %47 alokairukoari.

III.7.11. GRAFIKOA. ETXEBIDE: IZAPIDETURIKO URTEKO ALTA ETA BAJA KOPURUAREN BILAKAERA



Iturria: ETXEBIDE.

Urteko txostenaren ardatza Etxebiden inskribaturik dauden baina harpidetza berritu ez duten pertsona-taldearen ezaugarritzea izan da, hain zuzen ere ahal den neurrian etxebizitza babestua eskatzen duen biztanleriarekin erkatzeko. Hartara, 2014. urtean eginiko inkestako informazioa hartzen da -2013ko datuak- (ikus 2014. urteko Memoria Sozioekonomikoa).

- Nabarmentzekoa da, lehenik eta behin, Etxebiden baja eman duten pertsonen %54 gizonezkoak zirela eta %46 emakumezkoak, halako moldez non emakumeen presentzia txikiagoa baita Etxebideko erregistroan baja ematen dutenen artean etxebizitza babestua eskatzen duten biztanleen artean baino (%55 2013an).
- Eskabidea berritu ez duen biztanleriaren batez besteko adina 38 urte da (37,6 urte 2013an erregistraturiko biztanle guztiarentzat). %43 35 urtetik beherakoa zen, %38 35-44 urte bitartekoa eta %19 44 urtetik gorakoa. 35 urtetik beherako gazteek pixka bat pisu txikiagoa dute aurretik Etxebiden erregistraturiko biztanleen artean baino (%47 2013an).
- Erregistroan baja eman duten pertsonen %88 nazionalitate espainiarrekoa zen eta, beraz, nazionalitate bikoitza zuten atzerritarrei zegokien baja-espedienteen %12.
- Eskabidea berritu ez duten biztanleen artean, pertsona ezkongabeak eta banaka eginiko etxebizitza-eskabideak dira nagusi: %67 ezkongabeak eta banakako eskabideen %73, %63,9 eta %67 hurrenez hurren, 2013an inskribaturiko biztanleria osoarekiko.
- Lan-egoerari dagokionez, langabeziak intzidentzia handiagoa du eskabidea berritu ez dutenen artean (%19, eta %26raino alokairuko etxebizitza behar dutenen artean) inskribaturikoen artean baino (%25,5). Harpidetza berritu ez duten pertsonetatik, langabezian daudenak %19 izateaz gain, %43 kontratu finkoarekin ari da lanean, %12k bere kontura egiten du lan eta %20k aldi baterako kontratua du.
- Eskabidea berritu ez duten pertsonen egoera ekonomikoa dela eta, inkestak zehazten duenez, %8k langabeziagatiko prestazioa jasotzen du eta %9k bestelako diru-laguntza soziala, DBE edo etxebizitza prestazioa esaterako.

Bestalde, baja eman zuten pertsonen %63k bazuen horren berri, eta %37ak, berriz, ez. Etxebizitza Sailaren ustez, portzentaje hori oso altua da, Etxebideko zerbitzutik eginiko jakinarazpenen bolumena kontuan hartzen bada, hain zuzen espedienteen baja jakinarazteko eginikoak (47.000 baino gehiago 2014an).

III.7.13 KOADROA. ETXEBIDE-N ESKABIDEA BERRITU EZ DUEN BIZTANLERIAREN EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKO NAGUSIAK. PORTZENTAJE BERTIKALAK 2014.

		ALOKAIRU BEHARRA	EROSI BEHARRA	BEHARRIK GABE	GUZTIRA
SEXUA	EMAKUMEA	47,9	40,5	46,8	46,4
	GIZONA	52,1	59,5	53,2	53,6
	GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0
ADINA	GEHIENEZ 30 URTE	10,8	15,0	16,2	13,3
	30 - 34 URTE	29,5	23,0	32,5	29,5
	35 - 44 URTE	38,2	53,5	32,1	38,4
	45 - 64 URTE	18,4	8,5	17,8	16,7
	65 URTE ETA GEHIAGO	3,1	0,0	1,4	2,0
	GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0
	B.B. ADINA	39,2	36,2	37,0	38,0
NAZIONALITAT.	ESPAINIARRA	80,8	95,8	94,6	88,0
	ATZERRITARRA	14,1	4,2	5,1	9,4
	BIAK	5,1	0,0	0,3	2,6
	GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0
LAN EGOERA	BERE KONTURA LANEAN	11,9	15,2	11,9	12,4
	LANDUN FINKOA	33,5	61,0	48,2	43,0
	ALDI BATERAKO LANDUNA	22,9	12,6	19,3	20,0
	BEKADUNA PRAKTIKETAN	0,7	0,0	1,0	0,7
	LANGABEA	25,7	8,4	15,1	19,3
	JUBILATUA/PENTSIODUNA	4,3	2,8	2,7	3,5
	BESTE EGOERA BAT	0,9	0,0	1,9	1,1
	GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria. ETXEBIDE. EUSKO JAURLARITZA.

7.3. HIGIEZINEN ARLOKO JARDUERA: ETXEBIZITZA SALEROSKETA

III.7.12. GRAFIKOA. ETXEBIZITZEN SALEROSKETAREN BILAKAERA EAE-N, MOTAREN ARABERA



Iturria: Sustapen Ministerioa

Gure Erkidegoko etxebizitzaren eskaintza eta eskaria azaldu ondoren, 2015eko higiezinen jardueraren dinamikaren kopuru nagusiak laburbilduko ditugu jarraian. Sustapen Ministerioak Notarioen Estatistika oinarri hartuta emandako datuen arabera, 2015ean EAEn etxebizitzen 16.398 salerosketa eskritura gauzatu ziren notarioaren aurrean (behin-behineko datuak dira), hots, %17ko igoera 2014koaren aldean (%+9,8 izan zen epealdi berean, Estatu osoan, non guztira 401.281 transakzio zenbatu ziren).

Transakzio kopuruaren bilakaera ezberdina da etxebizitza motaren arabera: etxebizitza librearen transakzioak, guztira, 2.252 dira (etxebizitza guztien %13,7), 2014an baino %6,6 gutxiago.

Bigarren eskuko etxebizitzen transakzio kopuruari dagokionez (transakzioen %74), 2015ean guztira 12.134 transakzio gauzatu ziren. Hala, magnitude hori 2014koa baino %23,3 handiagoa da, hots, transakzio guztizkoaren +%17koa baino askoz gehiago.

III.7.13. GRAFIKOA. ETXEBIZITZEN SALEROSKETAREN BILAKAERA EAE-N, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA



Iturria: SUSTAPEN MINISTERIOA

Etxebizitza babestuak ere izan du bilakaera positiboa, baina neurri txikiagoan: 2015ean 2.012 salerosketa gauzatu ziren, 2014an baino %14,3 gehiago. Beraz, etxebizitzaren tarte horrek pisua galdu du transakzioen guztizko kopuruan: 2014ko %12,6tik 2015eko %12,3ra.

Bilakaera horren lurraldez lurraldeko azterketan ageri denez, EAEn ikusitako joera positiboa bereziki nabarmena da Bizkaian (%24,8ko igoera). Araba eta Gipuzkoa batez bestekoaren azpitik hazi dira, %8,4 eta %8,5 hurrenez hurren. Bilakaera horren ondorioz, Bizkaiak du salerosketa gehien (%55,8), eta ondoren Gipuzkoa (%32,6) eta Araba (guztien %11,6).

7.4. ETXEBIZITZA POLITIKA

7.4.1. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Politika

A) Gastua eta inbertsioa

III.7.14. GRAFIKOA. EUSKO JAURLARITZAREN ETXEBIZITZA SAILAREN GASTUEN BILAKAERA KAPITULUKA. MILIOI EUROTAN



Iturria: ETXEBIZITZA SAILA. EUSKO JAURLARITZA

Lehenik eta behin, Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren "*2014ko etxebizitza politiken ebaluazio integralaren txostenak*" agerian uzten duenez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak egikaritu gastua, azken urteetan nabarmen gehitu zena 2009an gehienekoa lortuta 207,4 milioi eurorekin, ia erdira murriztu zen 2014an. Urte horretan (informazioa dugun azken urtea), egikaritutako gastu horrek 107,1 milioi euroraino egin zuen behera (-%14,7 2013aren aldean eta -%48,4 2009ko gehienekoaren aldean), hots, EAEko BPGaren %0,16, aurreko urtean %0,19 izan ondoren, hain zuzen ere gastuak behera egin izanaren ondorioz ekonomiaren hazkundearen aldean.

III.7.14. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN ETXEBIZITZA SAILAK LIKIDATURIKO GASTUAREN BILAKAERA ETA BPG-AN DUEN PISUA.

	ETXEBIZITZA SAILAREN GASTUA		EAE-REN BPG PREZIO KORRONT.		SAILAREN % BPG-AREN ALDEAN
	Mil. euro	% hazkund.	Mil. euro	Hazk. %	
2008	198,8	5,3	67.924	2,3	0,29
2009	207,4	4,3	64.225	-5,4	0,32
2010	182,5	-12,0	65.419	1,9	0,28
2011	123,0	-32,6	65.684	0,9	0,19
2012	145,0	17,9	66.776	-1,9	0,22
2013	125,6	-13,3	65.906	-1,3	0,19
2014	107,1	-14,7	66.931	1,6	0,16

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitzaren Behatokiaren eta EUSTATen datuekin egina.

Etxebizitzak eraikitzeko zuzeneko inbertsioen bolumenari dagokionez, Etxebizitza Taldeak (Sailak berak —irudian ikusten denez, 21,6 milioi euroko inbertsioa egin zuen 2014an— eta sailari atxikitako sozietate publikoek osatutakoa) 78 milioi euro inbertitu zituen (-% 23,8, 2013. urtearen aldean). Beraz, programaren inbertsioa murriztu zen azken urtean eta 2013an bertan, Taldearen gastuaren % 46,9 izan zen (2013an, % 41,5).

b) Etxebizitza Planaren jarduketak 2014an

2010eko ekitalditik hona Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politika Etxebizitza Plan Zuzentzaile berriak ezarritako ildo estrategikoetarantz zuzendu zen. 2010-2013 aldirako diseinatu zen, eta helburua alokairuko etxebizitzaren parke publikoa handitzea eta hiri zaharberritze eta eraberritze politika berria bultzatzea da, irtenbide eraginkor eta iraunkorra izateko. Halaber, lurzorua kudeatzeko politika aktiboari eutsi nahi dio, etxebizitza berriaren eraikuntzaren sektorea dinamizatzeko eta lurralde banaketa orekatuagoa lortzeko xedearekin, betiere etxebizitza politikaren zerbitzurako baliabideen erabileran eraginkortasun handiagoa izateko testuinguruan, baina kontuan hartuta etxebizitzaren merkatua errotik aldatu dela finantza-krisiagatik eta higiezinen burbuila lehertu izanagatik. Hori guztia, gainera, egungo krisi ekonomikoaren eta enplegu krisiaren egungo egoeraren baitan. Horren ondorioz, merkatua nabarmen gelditu da.

III.7.15. KOADROA. 2013-2016KO ETXEBIZITZA PLAN ZUZENDARIA HELBURU KUANTITATIBO NAGUSIAK.					
	2013	2014	2015	2016	**GUZT.**
ETXEBIZITZA BERRIA SUSTATZEKO JARDUKETAK	1.750	1.850	2.050	2.350	**8.000**
- Alokairua	550	750	1.100	1.550	**3.950**
- Salmenta	1.200	1.100	950	800	**4.050**
BIRGAIKUNTZARAKO LAGUNTZAK	15.580	17.000	19.300	21.600	**73.480**
LURZORAUREN GUZTIZKO HELBURUA	750	750	750	750	**3.000**
Iturria: Etxebizitzaren Behatokiaren datuekin eginikoa. EUSKO JAURLARITZA.					

Eusko Jaurlaritzak, 2013ko abenduan, Etxebizitza Plan berria onetsi zuen, eta 2013-2016rako plana izanik, hona hemen haren eginkizun orokorra: "Merkatu librean etxebizitza eskuratzerik ez duten pertsonei etxebizitza duina, egokia eta irisgarria eskuratzen laguntzea da, bereziki krisi ekonomikoaren ondorioz gizarte beharra dutenei. Hartara, alokairua sustatuko du epe ertainera eta epe luzera, etxebizitza publikoaren lehentasunezko esleipen gisa. Lehentasunezko jarduna izango du eraikitako parkearen aurretik, eta hiriko birgaikuntza, berrikuntza eta birsorkuntza bultzatuko ditu, hori guztia etxebizitzaren sektorean diharduten erakunde eta eragile guztiekin koordinatuta eta adostuta". Orotara 460,38 milioi euroko inbertsioa aurreikusten du, eta alokairuaren sustapenari (aurrekontu guztiaren %25) eta birgaikuntzari (%21) dagozkie partida garrantzitsuenak.

Jarraian, Planaren 2014ko jarduketen laburpena emango da, eta ondoren, labur-labur aztertuko dira zaharberrikuntzarekin eta alokairuarekin lotutako ekimenak, bereziki garrantzizkotzat jotzen baitira.

Lehenik eta behin, etxebizitzaren sustapenari dagokionez, 2014ko ekitaldian %85eko betetze-maila lortu zen, 1.581 jarduketa hasita, eta Planaren betearazpenaren lehen zatiari erreparatuta, aurreikusitako helburua lortu du 2013-2014 biurtekoak (%100eko betetze-maila), guztira 3.613 etxebizitza hasita.

III.7.16. KOADROA. 2013-2016KO ETXEBIZITZA PLAN ZUZENDARIA.EGINAK 2013-2014.							
	HELBURUA		EGINAK				
	GUZTIRA 2013-16	2013-14	2014		2013-14 BI URTEKOA		EBALUAZIOA
			EGINAK	BETEAK	EGINAK	BETEAK	
ETXEBIZITZA BERRIAREN SUSTAPENA							
Guztizko helburua	8.000	3.600	1.581	85,5	3.613	100,4	
- Alokairua	3.950	1.300	217	28,9	296	22,8	
- Salmenta	4.050	2.300	1.364	124,0	3.317	114,2	
Sustatzailea							
- Saila	1.150	450	103	51,5	311	69,1	
- VISESA	2.450	1.100	499	83,2	1.218	110,7	
- Udalak eta UDAL SOZIET.	1.000	450	100	40,0	152	33,8	
- Pribatuak	3.400	1.600	879	109,9	1.932	120,8	
ETXEBIZITZAREN BESTE JARDUKETA BATZUK							
Bizigune programa	5.750	5.450	4.590	84,2	4.590	84,2	
ASAP programa	2.330	630	85	24,3	115	18,3	
Etxebizitza alokairurako erostea	650	50	0	0,0	0	0,0	-
Etxebizitza hutsa alokairurako birgaitzea	650	50	0	0,0	0	0,0	-
Birgaikuntzako eta birsorkuntzako etxebiz. berria	2.950	700	221	31,6	221	31,6	-
Etxebizitzako Prestazio Osagarria	106.100	52.100	28.683	106,2	54.580	104,8	
BIRGAIKUNTZAKO JARDUKETAK							
Birgaikuntzarako laguntzak	73.480	32.580	11.713	68,9	25.311	77,7	
-B. Integratua	3.400	1.200	923	115,4	2.124	177,0	
- B. Bakartua	69.000	31.000	10.709	66,9	22.917	73,9	
- Irisgarritasunerako B.	1.080	380	81	40,5	270	71,1	
LURZORUKO JARDUKETAK							
Lurzoruaren guztizko helburua	3.000	1.500	0	0,0	465	31,0	
- Saila	2.000	1.000	0	0,0	412	41,2	
- VISESA	1.000	500	0	0,0	53	10,6	
JARDUKETAK, GUZTIRA	202.910	97.200	46.873	88,1	88.895	91,5	
Iturria: Etxebizitzaren Behatokia. EUSKO JAURLARITZA.							
Ebaluazioa: >%95: berdea; %80-%94: laranja; <%80: gorria.							

Birgaikuntzaren arloan, 2014. urtean diruz lagundutako jarduketek (11.713 etxebizitza) %68,9 betetze-maila izan zuten eta %77,7koa 2013-2014ko epealdian. Aipaturiko biurteko horretan, 25.311 etxebizitzak jaso Zuten birgaikuntzarako diru-laguntza.

Bizigune programak alokairuko 4.590 etxebizitza izan ditu, hots %84 aurreikusitako helburuaren aldean. Alokairuko merkatuko bitartekaritzarako ASAP programan, berriz, ez da lortu espero zen arrakasta, %18ko betetze-maila izan baitzuen 2013-2014ko epealdian.

Bestalde, etxebizitza prestazio osagarria (EPO) jaso duten pertsonen kopuru handia nabarmentzen da; izan ere, hasierako aurreikuspena ere gainditu da. Zehazki, 2014an guztira 28.683 hartzaile zenbatu ziren (54.580 bi ekitaldietan). Hots, %105eko betetze-maila.

c) Birgaikuntza

Aipamen berezia merezi du Eusko Jaurlaritzaren birgaikuntza politikak; izan ere, 2013-2016ko Planaren ardatz estrategikoetako bat da, birgaikuntza eredu iraunkor, sozial, ekonomiko eta integratzaile berria bultzatuta. Plan Zuzentzailearen guztizko aurrekontutik (460,4 milioi euro), %21 helburu horretara erabiltzen da, esana dugunez, epealdi bera duen "Etxebizitza birgaitzeko Renove plana"ren bidez. Eginiko zenbatespenen arabera, 81,5 milioi euro emango dira diru-laguntzetan, eta ekimen publiko horren bidez 859,5 milioi euro mobilizatuko direnez gero, guztira 940 milioi euro izango dira.

III.7.15. GRAFIKOA. EAE-N BIRGAITURIKO ETXEBIZITZEN ETA DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOAREN BILAKAERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. ETXEBIZITZAREN BEHATOKIA

2014ko jarduketei dagokienez, Etxebizitzaren Behatokiaren zenbatespenen arabera, EAEn orotara 11.632 etxebizitza birgaitzeko balio izan dute laguntzek, guztira 13,45 milioi euro. Bilakaeraren aldetik, nabarmen egin dute behera diru-laguntzen zenbatekoak eta birgaituriko etxebizitzen kopuruak 2009ko inoizko kopururik handienetik. Urte hartan 20.534 etxebizitza birgaitzeko laguntzak eman ziren (22,4 milioi euro guztira). 2014ko datuen arabera, batez besteko diru-laguntza 1.156€ zen etxebizitza, aurreko ekitaldian baino %6,7 gehiago.

III.7.16. GRAFIKOA. ETXEBIZITZA BIRGAITZEKO DIRU-LAGUNTZEN BANAKETA ETXEBIZITZA MOTAREN ARABERA. MILIOI EUROTAN



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. ETXEBIZITZAREN BEHATOKIA

Banaka edo jabeen erkidego baten bitartez eska daitezke laguntzak, eta partikularrek laguntzak eska ditzakete elementu pribatiboak edo komunak berritzeko. Emandako laguntza gehienak elementu komunitarioak birgaitzeko erabiliko dira (guztizko diru-laguntzaren %97,5); %2,5 besterik ez da etxebizitza barruko lanetarako.

d) Alokairua

Eusko Jaurlaritzako alokairu politikarako erabilitako baliabideei dagokienez, alokairua sustatzeko diru-laguntzen eta Etxebizitza Sailak 2014an onetsitako eta ondorio horretarako erabilitako subsidioen batura 8,52 milioi eurokoa izan da, %60/%40an banatuak (2013an baino 6,72 milioi gehiago). Gorabehera handiak izan dituzten laguntza horiek urtez urte, eta batzuetan ia desagertu egiten dira.

III.7.17. GRAFIKOA. ALOKAIRUA SUSTATZEKO LAGUNTZEN BILAKAERA. MILIOI EUROTAN



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. ETXEBIZITZAREN BEHATOKIA

Bestalde, EAEko etxebizitza hutsak alokairu babestuan eskainiz erabiltzea sustatzeko helburua duen Etxebizitza Sailaren Bizigune Programaren laguntzek, 2014an, 19,27 milioi euroko diru-laguntzak izan zituzten (% -6, 2013ko datuaren aldean), eta, horren ondorioz, urtearen amaieran erabili diren etxebizitzak 4.590 izan ziren (-%11,3). Bilakaera horren ondorioz, batez besteko diru-laguntza 4.199 eurokoa da etxebizitzako, 2013an baino %6 gehiago.

III.7.17.KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN BIZIGUNE PROGRAMAREAKO LAGUNTZEN BILAKAERA

	HARTUTAKO ETXEBIZITZAK	DIRU-LAG. (MILIOI €)	EURO/ETXEBIZITZA	ALD. %
2005	1.908	8,00	4.192,9	5,5
2006	2.605	10,00	3.838,8	-8,4
2007	3.446	14,38	4.173,0	8,7
2008	4.215	21,59	5.122,2	22,7
2009	4.557	21,19	4.650,0	-9,2
2010	4.741	22,29	4.701,5	1,1
2011	4.802	23,15	4.820,9	2,5
2012	5.102	23,02	4.511,7	-6,4
2013	5.174	20,49	3.959,6	-12,2
2014	4.590	19,27	4.199,0	+6,0

Iturria.-EUSKO JAURLARITZA. Etxebizitzaren Behatokia

"Alokabide" sozietate publikoak kudeatzen ditu etxebizitza horiek, eta Sailaren beraren alokairuko etxebizitza parkeaz gain (guztizkoaren %26) eta bere etxebizitzez (%31) eta Biziguneren bitartez hartutakoez gain (%41), EAEko zenbait udalen alokairuko parkea ere kudeatzen du (%1) eta ASAP programako etxebizitzen beste %1. 2014an, guztira 11.355 etxebizitza kudeatu ziren, hain zuzen ere aurreko urtean baino %0,6 gutxiago. Beraz, jarduera 2002an hasi zuzenetik izan duen gorako ibilbideari eusten dio. Hasierako urtean alokairuko 230 etxebizitza kudeatu zituen 2013ra arte.

III.7.18. KOADROA. "ASAP" ALOKAIRUKO BITARTEKOTZAT PROGRAMA. EMAITZA NAGUSIAK

	AGENTE INSKRIBAT.	ETXEBIZ INSKRIBAT.	ERRESERB. EGINAK	ERRENTAMENDU-KONTRATU SINATUAK
2012	16	56	110	3
2013	16	120	1.253	30
2014	:	142	:	85

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. ETXEBIZITZRAEN BEHATOKIA.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzak, errentamendu araubidea partikularren artean bultzatu beharra ikusita, alokairu libreko merkatuan bitartekaritza-lana egiteko programa berria abiarazi zuen 2012an, "ASAP programa" (Alokairu Segurua Arrazoizko Prezioa), zeren eta, horrez gain, Bizigune programak, arrakasta izan arren, kostu handia baitakarkio Sailari. 2014an, 85 errentamendu-kontratu formalizatu ziren. Era berean, Etxebizitzaren Behatokiak nabarmentzen duenez, programak 142 etxebizitza ditu inskribatuta, eta errenta ez ordaintzearen eta kalteen ziozko aseguru-polizen ordainketak, guztira 14.235.17€-koak izan ziren, hots, batez beste 167,5€-ko kostua etxebizitzako.

7.4.2. Foru Aldundien etxebizitza politika

Eusko Jaurlaritzak garatu duen etxebizitza politikaz gain, interesgarria da gastu fiskalen kopuru handiak ezagutzea, foru aldundiek etxebizitza gaietan esku-hartze publikoa egiteko tresna gisa erabiltzen dituztelako. Horri buruz dauzkagun daturik berrienak 2012ko ekitaldiari buruzkoak dira. Datu horien iturria Eusko Jaurlaritzako Zerga Koordinaziorako Organoaren 2013ko Euskal Ogasunaren urteko txosten integratua da.

Hiru foru aldundietako PFEZgatiko likidazioetatik aurrera, ondorioztatu da alokairuko zein inbertsioko ohiko etxebizitzagatiko kenketen (kuantitatiboki bigarren kenketak % 16,6 dira, familiako kenketen eta kenketa pertsonalen atzean) zenbatekoa 432,3 milioi eurokoa izan dela 2012an, hau da, aurreko urteko zenbatekoa baino % 7,6 txikiagoa. Horrela, egiaztatu egiten da aurreko ekitaldian abiarazitako beherakadaren joera 2008ko ekitaldian. Zenbateko hori Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Programak urte horretan erabilitako gastuaren % 298,1ekoa (145 milioi euro) da, aurreko atalean ikusitakoaren arabera.

III.7.19. KOADROA. KENKARIEK PFEZ-N DUTEN PISU ERLATIBOA, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA. 2012.

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
KENKARI OROKORRA	58,5	60,3	58,7	59,5
FAMILIARRAK ETA PERTSONALAK	21,5	21,4	23,3	22,1
OHIKO ETXEBIZITZA	18,1	16,3	16,3	16,6
JARDUERA EKONOMIKOAK	0,2	0,1	0,1	0,1
MEZENASGOA	0,5	0,8	0,7	0,7
ZERGAPETZE BIKOITZA	0,1	0,4	0,3	0,3
SINDIKATUKO KUOTAK	0,4	0,5	0,4	0,4
BESTE KENKARI BATZUK	0,7	0,3	0,2	0,3
GUZTIRA	**100,0**	**100,0**	**100,0**	**100,0**

Iturria.- EUSKO JAURLARITZA. ZKO.

Kenkari horiek 44.400 eta 46.800 artean duten pisurik handiena errentetan (likidazio-oinarria), non kenkarien guztizko zenbatekoaren %24,8 baitira batez beste. Ondoren, behera egiten du errenta mailaren igoerarekin batera.

Lurraldeen arabera, guztizko kenkarien %18,1 izan zen Araban, %16,3 Bizkaian eta Gipuzkoan.

III.7.18. GRAFIKOA. PFEZ-N ETXEBIZITZAREN ZIOZKO KENKARIAREN ZENBATEKOAREN BILAKAERA ETA KENKARI GUZTIEKIKO PISUA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Zergak Koordinatzeko Organoa

8. BIZI-KALITATEA EAE-N: LABURPENA ETA GOGOETAK

8.1. LABURPENA

DEMOGRAFIA

EAEn, Biztanleen Udal Erroldak Biztanleen Udal Erroldak emandako 2015eko urtarrileko azken datuen arabera, EAEko biztanleriak pixka bat gora egin du bi urtez behera egin ondoren, eta 2.189.257 biztanle ditu (+%0,1 2014aren aldean), hots, aurreko urtean baino 272 gehiago. Lurralde Historikoei dagozkien datuek erakusten dutenez, biztanleria hazi egin da Gipuzkoan (1.686 biztanle gehiago, +%0,24) eta Araban (+%0,53, 1.716 biztanle gehiago); Bizkaian, berriz, jaitsi egin da (-%0,27, 3.130 biztanle gutxiago).

Bestalde, EUROSTATen zenbatespenen arabera, Europar Batasunean 505,7 milioi biztanle daude, 2015ko urtarrileko datuen arabera, hain zuzen 2011ko urtarrilean baino 1,3 milioi gehiago. Milako 2,1eko hazkunde horri esker -milako 2,4koa izan zen aurreko urtean-, beste urte batez eutsi ahal izan zaio 1960tik gertatu izan den etengabeko hazkunderako joerari, egungo Batasunaren populazioa 400 milioi biztanlekoa zenetik. Bilakaera positiboa gertatu da, beste behin, immigrazioagatik, zeren eta guztizko aldaketaren %14 besterik ez baita izan berezko hazkundeagatik (jaiotzen eta heriotzen arteko diferentzia positiboa).

Euskal Autonomia Erkidegoan 2014ko behin-behineko datuek erakusten dute hazkunde begetatiboa (jaiotza eta heriotzen arteko alde gisa zenbatzen den biztanle-aldaketa, immigrazio-mugimenduak kontuan hartu barik) negatiboa izan dela saldo positiboak izandako 9 urteren ondoren: urte horretan 19.378 jaiotza gertatu dira, aurreko urtean baino % 1,4 gehiago, eta 20.157 heriotza, 2013an baino % 2,4 gutxiago. Horren ondorioz, hazkunde begetatiboa -779 izan da, hots, milako -0,4koa. 2014ko saldoa negatiboa da, beraz, jaiotzek gora begin arren heriotzen igoera handiagoa baita.

Beste alde batetik, EUSTATen “Migrazio Mugimenduei buruzko 2014ko Estatistikak” zenbatu zuen urte horretan gure erkidegoak 1.956 biztanle galdu zituela (2013an 1.956 galdu zituen, 13 urtez jarraian migrazio-saldo positiboak izan ondoren izan ziren. EAEren eta gainerako autonomia-erkidegoen artean izandako mugimenduei dagokienez, 2014. urtean 5.809 pertsonako saldo positiboa izan zen, hau da, immigrazioak gehiago izan ziren emigrazioak baino, eta EUSTATek estatistika hau prestatzen duenetik, saldoak bigarren urtez gainditu du atzerriko herrialdeekin izaten dena; izan ere, atzerriko herrialdeekiko saldoa negatiboa da (-2.207), atzerrira pertsona gehiago doazelako beste herrialde batzuetatik datozenak baino.

Beste gai bati oratuz, udal-erroldaren datuei jarraiki, 2015ean Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duen atzerriko biztanleria bigarren urtez jarraian murriztu da, betiere hazkunde ekonomikoaren azken etapari lagundu dion migrazio-fenomenoa hasi zenetik; hori guztia gaur egungo krisialdiaren eraginen ondorioz gertatu da. 2005etik 2012ra bitartean Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatutako atzerriko biztanleak bikoiztu ziren eta urteko igoerarik handiena 2008. urtean izan zen, urte horretan erroldatutako atzerriko biztanleria 19.000 pertsonan hazi baitzen. 2015eko urtarrilaren 1ean, udal-erroldak zenbatu zuen 17.397 atzerritarrek egoitza zutela Euskadin, aurreko urtean baino % 2,8 gutxiago (2015erako behin-behineko datuak eta 2014rako behin betiko datuak erabiliz). Etorkinen jaitsiera hori islatzen da biztanleria osoaren barnean duen kopuruan: 2015. urtean atzerritarrak % 6,3 izan dira (aurreko urtean baino 2 hamarren gutxiago) eta estatuan % 10,1 (bigarren grafikoa). Hortaz, Estatuan handiagoa izan da jaitsiera; izan ere, 6 hamarren gutxiago ditu.<0

Herrialdeka, 2015ean, lehenengo hamar garrantzitsuenen artean lau Latinoamerikakoak dira (Kolonbia, Bolivia, Brasil eta Paraguai), bi komunitarioak (Portugal eta Errumania), bi Magrebekoak (Maroko eta Aljeria) eta bi Asiakoak (Txina eta Pakistan). 2012tik Marokoko biztanleria Euskal Autonomia Erkidegoko atzerriko naziotasun nagusia da; izan ere, erroldatutakoak guztira 18.885 dira, EAEko atzerritar guztien % 13,7 hain zuzen ere. Bigarren nazionalitatea errumaniarra da, atzerritar guztien % 12,4, alegia.

Beste alde batetik, gero eta egokiagoa da atzerriko naziotasunari buruzko informazioa osatzea atzerrian jaiotako biztanleriaren gaineko informazioarekin; izan ere, horrek irudi argiagoa eskaintzen du Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duen atzerriko jatorriko etorkin-kolektiboaren inguruan. "Jaioterriaren" aldagaia aintzakotzat hartuz gero "naziotasunarena" hartu beharrean, ikus daiteke atzerriko jatorria duen biztanleria handiagoa dela, zehatzago 2015. urtean 40.000 pertsona inguru gehiago; horrek esan nahi du etorkinen ratioa erroldatutako biztanleriaren % 8,3koa dela, atzerriko naziotasuna duen biztanleriaren % 6,3ren aldean. Estatuan alde hori handiagoa da, bost milioi atzerritarretatik (% 10,1) atzerrian jaiotako sei milioitik gorako kopurura igarotzen baita (biztanleria osoaren % 12,8).

Herritarrek immigrazioari buruz duen jarrerari dagokionez, IKUSPEGIK agerian uzten du euskal herritarrek ez dutela arazotzat hartzen immigrazioa. %1,6k dio soilik EAEko lehen arazoa dela, eta aipamenen guztizkoa %12,4, 2014koa baino pixka bat handiagoa den ratioa (%12,1). Bat-bateko hiru erantzunen multzoan, bosgarren tokian ageri da immigrazioa, langabeziaren (%90,4), arazo ekonomikoen (%30,5), politikarien (%17,4) eta ustelkeriaren eta iruzurraren (%18,2) atzetik.

Enpleguari dagokionez, immigrazioak lan-merkatuan betetzen duen eginkizunari buruzko ikuspegi funtzionala eta utilitarista nabarmen jaitsi da krisiaren ondorioz: 2004an %80k uste zuen etorkinak behar genituela zenbait sektoretan lan egiteko. 2014an, berriz, %30,5ek uste du hala. 2015ean, aldiz, biraketa gertatu da ikuspegi horretan, zeren eta ia 12 puntu igo baita, %42,2raino, baina joera-aldaketa hori hurrengo inkestetan finkatu arte itxaron beharko da. Antzeko zerbait gertatu da baieztapen honekin: ekonomia hobeto dabil migratzaileek betetzen dituztelako biztanle autoktonoen nahi ez dituzten postuak. 2014an, %32,8 ados zegoen baieztapen horrekin, eta 2015ean %44,9raino igo da ehuneko hori.

Gainera, atzerritarren immigrazioak EAEn izan duen inpaktua aztertu du IKUSPEGIK 2015ean. Horretarako, moneta-terminoetan erkatu ditu atzerritarrek EAEko ongizate sistematik jasotzen dutena eta altxor publikoetan zergetan eta kotizazioetan 2008an eta 2012an izan duten ekarpena. Lehenik eta behin, 2008an nahiz 2012an, atzerritarrek altxor publikoari dakarzkion diru-sarrerak handiagoak dira haiek gizarte ongizatearen sistemari dakarkion gastua baino. 2008an, aldea 71 milioi eurokoa zen. 2012an, berriz, 38 milioitik gorakoa da. Beraz, krisiaren ondorioz alde hori murriztu arren, positiboa izaten jarraitzen duela ikus dezakegu.

Oro har, atzerritarrek 2008. urtean eginiko gastua, guztira, 371,99 milioi euroko aizan zen, hau da, aintzat harturiko guztizko gastuaren %5. 2012an, kontzeptu hori 593,39 milioiraino igo da, aintzat harturiko guztizko gastuaren %7,4. Sarrerei dagokienez, atzerritarren ekarpena, 2008an, 443,09 milioi euroko da, hots, guztizko ekarpenaren %3,3, eta sarrera horiek gora egin zuten 2012an, 631,58 milioi euroraino hain zuzen ere, aintzat harturiko guztizko sarreren %4,4.

Atzerritarren pisu demografikoa kontuan hartzen badugu, hain zuzen ere %5,4koa 2008. urtean eta %6,9koa 2012an, honako hau ikusiko dugu: talde horri egotz dakiokeen gizarte gastua haien pisua baino pixka bat txikiagoa zela (%5 eta %5,4); sarrerena, berriz, azpitik dago. 2012an, aldiz, egotz dakiekeen gizarte gastuak gora egin du, eta haien pisu demografikoaren gainetik kokatzen da (%7,4 eta %6,9), sarrerak, berriz, pisu demografikoaren azpitik daude. Alabaina, bilakaera hori gorabehera, positiboa da orain ere sortutako sarrera-gastuaren balantzea.

Bestalde, EAEko familien sistemen tipologiak funtsezko aldaketa izan du azken hamarkadetan, prozesu demografikoen, sozialen eta kulturalen ondorioz. Aldaketarik nabarmenen artean, honako hauek daude: familia moten aniztasun handiagoa, familien batez besteko tamaina txikiagoa, familia horietako erreferentziako pertsonen profilaren aldaketa garrantzitsuak, adingabeek familietan duten proportzio txikiagoa eta mendetasun egoeren igoera.

Aldaketak gorabehera, familiak pertsonen bizitzaren ardatza izaten jarraitzen du. Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egindako "Familia EAEn" azterlanak agerian jartzen du elkarrizketatutako pertsonen % 96ren iritziz familia oso edo nahiko garrantzitsua dela, bestelako alderdi batzuen gainetik, hala nola aisialdiaren (% 93), lagunen (% 92) edo lanaren (% 91) gainetik. Horrez gain, gehiengoak uste du familia aurreko aldietan bezain garrantzitsua dela(elkarrizketaturiko pertsonen %47k), edo garrantzitsuagoa (%15).

Azken urteotan, familian izandako eraldaketek eta ugalkortasun-tasetan izan duten inpaktuak interes publiko handiagoa piztu dute, horrek dakartzan ondorioak direla medio. Seme-alabak izateko adinik ugarienak eta lanean sartzeko eta promozionatzeko adinak bat datozenez gero, emakume gazteak oso egoera zailean daude seme-alabak izateko erabakia hartzeari begira. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eginiko 2014ko "*Gizarte Zerbitzuen Beharren Inkestak*" (GZBI), aurreko inkestekin erkatuta, nahi den seme-alaba kopurua izateko posibilitatearekin lotutako arazoek gora egin dutela antzeman du (inkestan "ugalkortasun arazoak" deritzena), ekonomiaren eta lanaren aldetik dagoen egoeratik eta seme-alabak zaintzeko zailtasunengatik. 2014. urtean, EAEko familien %5,6k adierazi zuen ezin zuela eduki nahi duten seme-alaba kopurua, hots, ia 50.000 familia (49,358); 2010ean, berriz, %5,1 zen. 2014ko proportzio hori, ordea, ez da iristen 2006ko Inkestan izandako zifretara: orduan %6,2 izan zen.

Halaber, EUSTATek "*Lana, bizitza pertsonala eta familia uztartzeari buruzko inkesta*" (BLUI) egiten du, eta horren 2013ko emaitzek nabarmentzen dutenez lehenik eta behin, etxetik kanpora lan egiten duten emakumeek %50 ordu gehiago ematen dituzte egunean seme-alabak eta mendeko pertsonak zaintzen gizonek baino.

Zentzu horretan, emakumezkoek lan ordaindua familiaren eremuarekin eta eremu pertsonalarekin uztartzeko zailtasun gutxiago sumatzen dituzte eta, horregatik, seme-alabak eta menpeko pertsonak zaintzeko denbora gehiago erabiltzen dute, gizonezkoek baino. Gizonek egunean 3,1 ordu ematen dituzte adingabeen zaintzan; emakumeek, aldiz, 4,9. Alde hori handiagoa da mendekotasunean diren pertsonen zaintza aintzat hartzean. Izan ere, gizonezkoek 1,5 ordu ematen dute horretan egunean 2,3 ordu. Beren gain hartutako kargen inguruko desberdintasun horrek ondorioak dakartza etxeko lanen banaketarekiko gogobetetasunean, zeren eta emakumeek, batez beste, 5,8ko gogobetetasun-maila adierazten baitute 10etik ezkontideak edo bikotekideak etxean egiten dituen lanen gainean; gizonezkoen kasuan, berriz, 7,6koa da.

Azaldutako egoera horiek arintzeko, familiei laguntzeko planak abiarazi zituen Eusko Jaurlaritzak 2002an, zertarako- eta familiek seme-alaba kopurua askatasunez erabakitzea galarazten duten eragozpen ekonomikoak eta gizarte eta laneko eragozpenak gainditzeko. Hala, Familiei Laguntzeko Legea onetsi zuen 2008an, eremuari lerrun juridiko handiagoa emateko eta famili politika integralerako oinarriak ezartzeko, betiere familien eta familiako kideen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetze aldera. Memoria hau itxi den egunean, ez dago Plan honen ondoriozko jarduketa-multzoari buruzko informaziorik, baina bai 2015eko balantzearen gainekoa uztartzeko laguntzen partida zehatzean.

Bestalde, 2014ko GZBIk ohartarazi egiten du jaitsi egin dela familia-laguntzak eskuratzen dituzten familien proportzioa aurreko 2006ko eta 2010eko inkesten aldean. Beheranzko joera nabarmena da; izan ere, horrelako laguntzak baliatu zituen familien %10,2k 2006an. 2010ean, berriz, %8k eta 2014an, azkenik, %3,9k. 2006 eta 2014 bitartean, gizonak (%12,5etik %4,7ra) eta 35 urtetik beherakoak (%21,7tik %6,9ra) buru direneko familietan gertatu dira beherakadarik deigarrienak, baita atzerritarren familiak ere (1996an %22,1 eta 2014an, berriz, %3,1).

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Hezkuntza

EUSTATen arabera, 370.426 ikaslek hasi zuten 2015/16 ikasturtea Euskal Autonomia Erkidegoan. Ikasle horiek guztiak unibertsitatez kanpoko erregimen orokorreko irakaskuntzan matrikulatu ziren (helduen hezkuntzan izan ezean). Datuak horrela, % 0,5eko hazkundea gertatu zen irakaskuntzan Hezkuntza Berezia aintzat hartuz gero eta % 1,6koa aintzat hartzen ez badugu.

Hezkuntza Berezia alde batera utzita ditugun matrikulazioko datuei helduta eta mailen arabera bereizita, hauxe ikusten dugu: mailarik baxuenetan (haur eta lehen hezkuntza) 220.694 ikasle daude matrikulatuta (92.601 ikasle Haur Hezkuntzan (-%1,9) eta 128.093 ikasle Lehen Hezkuntzan (+%0,9%), Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan 79.486 (+%3) eta Oinarrizko Lanbide Hezkuntza berrian, eta Oinarrizko Lanbide Hezkuntza berrian, aurreko Hasierako Lanbide Prestakuntza Programa (HLPP) tokia hartu duen horretan, 4.137 ikasle.

Derrigorrezko Irakaskuntzaren Ondorengoari dagokionez, Batxilergoan 30.168 pertsona matrikulatu dira eta 14.304 pertsona gradu ertaineko LHn. Gradu ertaineko LHn izandako hazkundea (%2,6) Batxilergoan erregistraturikoa baino handiagoa da (%0,6).

Komeni da gogoratzea Lanbide Heziketaren irakaskuntza-sisteman 16 urterekin sartzen direla ikasleak gradu ertainean Batxilergoaren alternatiba gisa eta 18 urterekin goi-mailako graduan, betiere hezkuntza tertziarioaren edo goi-mailako irakaskuntzaren baitan.

Bestalde, goi-mailako graduko LHn 20.308 lagun matrikulatu dira, eta nabarmentzekoa da hainbat urtetan aldakuntza positiboak izan ondoren matrikulazioan izandako gutxipena (-%1,5).

Lanbide heziketa sakonago aztertuz, hona hemen 2014-15 ikasturtean ikasleen kopururik handiena bildu duten gradu ertaineko lanbide-taldeak: Osasuna (%14,7), Ostalaritza eta Turismoa (%13,2), Energia eta ura (%10,2), Administrazioa eta Kudeaketa (%7,6) eta Zura, altzariak eta kortxoa (%7,1). Goi-mailako graduko titulazioen artean, hauexek nabarmentzen dira: Fabrikazio mekanikoa (%12), Administrazioa eta kudeaketa (%11,9), Gizarte-kulturako zerbitzuak eta erkidegoarentzako zerbitzuak eta Elektrizitatea eta Elektronika (bi taldeetan %11,6) eta Mantentzea eta ekoizpenerako zerbitzuak / Instalazioa eta mantentzea (%6,4).

Unibertsitateko irakaskuntzei dagokienez, 2013-2014 ikasturtean, guztira 68.193 ikasle zeuden matrikulatuta EAEko unibertsitateetan, hots, %1eko igoera aurreko ikasturtearekiko. Ikasturte honekin, lau urtez jarraian egin dute gora matrikulek 15 urtez jaitsiera izan ondoren.

Graduetan matrikulaturiko ikasleen kopuruak goranzko bidean jarraitzen du, baina aurreko ikasturtearen baino neurri txikiagoan, zeren eta Bologna Planeko ikasketen egitura berria finkatuta baitago. Horren ondorioz, behera egin du aurreko planeko lehen eta bigarren zikloko ikasketak egiten dituztenen kopuruak. Horrela, %11,4 1. eta 2. zikloko ikasketetan zeuden matrikulatuta (aurreko ikasturtean %23,4ko ratioa izan zen) eta %75,9 Goi-mailako Hezkuntzako Europako Eremuaren (GHEE) ondoriozko graduetako ikasketetan, %7,2k master ofizialak egin zituen eta %5,5 Doktoretza egiten ari zen.

Bi ikasketa-planak, 1. eta 2. zikloko ikasketak eta Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Eremuaren (GHEE) ondoriozko gradu-ikasketak aintzat hartuta, ikasle guztien kopurua 59.489 da, hots, %0,7ko murrizpena aurreko ikasturtearen aldean.

Graduazio datuei dagokienez, esan behar da gradudunen kopurua % 7,5 igo zela, guztira 13.919 pertsona; gradudun guztietatik, % 55 emakumeak izan ziren. Ikasketa-motari gagozkiola, 4.084 ikasle lehen eta bigarren zikloetan aritu ziren (-% 38,7 aurreko ikasturtearen aldean), 6.673 graduetan aritu ziren, 2.662 master ofizialetan (% 8,4ko hazkundea) eta 500 ikasle doktore graduatu ziren.

Lehen eta bigarren zikloko ikasketei dagokienez, unibertsitateko ikaslerik gehienak Gizarte eta Zuzenbide Zientzien arloan espezializatu zen (%52,3), eta ondoren %27,7 Irakaskuntza Teknikoetan. Neurri txikiagoan Giza Zientzietan (%8,7), Osasunaren Zientzietan (%6,3) eta Zientzia Esperimentaletan (%5).

Ikaslerik gehienak Gizarte eta Zuzenbide Zientzietan arloko ikasketetan graduatu ziren (%54,9), eta ondoren Ingeniaritza eta Arkitekturakoetan (%23,5). Neurri txikiagoan hauetan: Arteak eta Giza Zientziak (%7,3), Osasunaren Zientziak (%9,7) eta Zientziak (%3,7). %1ek bi titulu eskuratu zituen.

Sexuaren araberako diferentziak ageri dira ikasketa-arloa aukeratzean, eta emakumeek gehienbat (%56) Gizarte eta Zuzenbide Zientzien barruko programak nahiago dituzte ingeniaritzakoen aldean, ingeniaritzetan %16 baino ez baitziren graduatu. Gizonen %85, berriz, modu orekatuagoan dago banatuta Ingeniaritza eta Arkitekturaren (%46) eta Gizarte eta Zuzenbide Zientzien artean (%39).

Hezkuntza adierazleei dagokienez[1]:

- Hezkuntzako bizitza-esperantza 5 urtetik hasita.

  2012-2013 ikasturtean, 18,3 urtekoa zen bost urteko ume batek Espainiako hezkuntzan eta trebakuntzan ematea espero zen batez besteko urte kopurua; hala, 1,3 urte gehiago dira 2007-2008 ikasturtearen aldean. Sei autonomia erkidegotan, Estatuko batez bestekoa gainditu zen, eta baliorik handiena Errioxari zegokion (19,7 urte), eta ondoren EAE (19,5), Madril (19,4), Gaztela eta Leon (19,3) eta Valentziako E. eta Galizia (bietan 18,4) zeuden.

  Nazioarteko alderaketa egiteko datuak 2011-2012 ikasturtekoak dira, eta hezkuntzan espero den urte kopurua 5 uretik 39 urterakoa da ELGAkoak diren EBko 21 herrialdeetan. Espainian, 17,6 urte espero dira hezkuntzan, hau da, ELGAko herrialdeen batez bestekoaren barruan (17,6 urte) eta ELGAko Europako 21 herrialdeen batez bestekoa baino pixka bat beherago (17,8 urte). Hezkuntzan espero den urte kopururik handiena duen herrialdea Finlandia da (19,7), eta ondoren Danimarka eta Suedia (19,4 eta 19,3 hurrenez hurren). Luxenburgo eta Eslovakia ziren, 15,1 eta 16,3 urterekin, hezkuntzan espero den urte kopururik handiena zuten herrialdeak.

- Ikaskuntza iraunkorrean parte hartzea.

  25-64 urteko helduen %15ek gutxienez ikaskuntza iraunkorreko jardueraren batean parte hartzea ezarri du EBk 2012ko helburu. Autonomia erkidegoen arabera, ratiorik handienak, %11 eta %12 bitartekoan, EAEn, Madrilen, Valentziako Erkidegoan eta Nafarroan izan ziren. Autonomia guztietan, emakumeen partaidetza handiagoa izan zen gizonezkoena baino, baina nabarmentzekoa da emakumeen partaidetza portzentajerik handiena EAEn lortzen dela, %12,9rekin.

- Irakasle bakoitzeko ikasle kopurua, lanaldi osoaren pareko lanaldiarekin.

  ELGAren arabera, 2012/13 ikasturtean, Espainian, lanaldi osoaren pareko lanaldiko irakasle bakoitzeko ikasle kopurua 13,8 zen Lehen Hezkuntzan, 11,3 Bigarren Hezkuntzan eta 12,1 Goi-mailako Hezkuntzan. Hala, ELGAko batez besteko irakasle bakoitzeko ikasleen ratio kopurua txikiagoa zen. Zehazkiago: Lehen Hezkuntzan 1,4 pp gutxiago, Bigarren Hezkuntzan 2,1 pp gutxiago eta Goi-mailako Hezkuntzan 3,7 pp gutxiago.

  HKKMren arabera, 2014an, EAEko unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko lanaldi osoaren pareko lanaldiko irakasle bakoitzeko ikasleen batez bestekoa kopurua alderatzen badugu, ratio txikiagoa da Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Batxilergoko eta/edo LHko eta Hezkuntza Bereziko zentroetan, baina DBH ematen den ikastetxeetan, ratiorik txikiena Estatuari zegokion.

- Hezkuntza gastu publikoa BGParekiko.

  EUROSTATen arabera, 2012. urtean BPGaren %4,34 izan zen, herrialde hauetakoa baino ratio txikiagoa: Suedia (%7,38), Finlandia (%7,12), Malta (%6,76), Zipre (%6,67), Belgika (%6,60), Irlanda (%6,16), Erresuma Batua (%6,1), Holanda (%5,89) eta Frantzia (%5,68).

  Bestalde, 2013an, HKKMren arabera EAEn BPGarekiko egin zuten gastua %3,99koa izan zen (%3,17 unibertsitatez kanpoko hezkuntzan eta %0,75 unibertsitateko hezkuntzan) eta %3,82 Estatuan (%2,8 unibertsitatez kanpoko hezkuntzan eta %0,87 unibertsitateko hezkuntzan).

  Aldi berean, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren gastua, soilik hezkuntza arloan, 2.513,4 milioi eurokoa zen 2014an. Horrenbestez, %4,5eko hazkundea da aurreko ekitaldiarekiko. Partaidetza hori,

1 Honako erreferentzia-iturri nagusi hauek oinarri hartuta egin da hezkuntzako adierazleen bilakaeraren laburpena:
- Hezkuntzaren egoera- ELGAren adierazleak
- EUSTATen Irakaskuntzaren Estatistika.
- Espainiako Hezkuntza zenbakitan, Kultura Ministerioarena.
Xehetasuna gehiago nahi badu irakurleak jo beza Memoria honetako kapitulu egokira.

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuaren guztizko gastuan, %25ekoa izan zen, aurreko urteko ratio bera. Gastua EAEko BPGaren %3,76 da; 2013an, berriz, %3,65ekoa izan zen.

Bestalde 2015eko aurrekontuetan, 2.490,1 milioi eurokoa zen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak soilik hezkuntzarako erabilitako partida. Hots, %1,1eko gehikuntza aurreko urteko aurrekontuko gastuarekiko. Eusko Jaurlaritzaren gastuen aurrekontuan duen partaidetzaren portzentajea %23,4 da. Bestela esanda, EAEko BPGaren %3,62, 2014ko %3,68aren aldean.

- Gastu publikoa ikasleko (erakunde publikoak).

Ministerioaren arabera, zentro publikoen ikasle bakoitzeko gastu publikoa Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan, Lan Heziketa alde batera utzita, 9.175 eurokoa izan zen EAEn 2013. urtea. Beraz, berriz ere dugu gure Erkidegoa ikasle bakoitzeko gasturik handiena duena. Estatuko batez bestekoa 5.231 euro zenez gero, ikasle bakoitzeko batez besteko gastua ikastetxe publikoetan %75,1 handiagoa izan zen.

- Gastu publikoa ikasleko (publikoa eta itunpekoa).

EUROSTATen arabera, hezkuntza erakunde publikoetako eta pribatuetako ikasleko gastua (eurotan bihurtuta, PPC erabiliz) 6.452 eurokoa zen Estatuan, herrialde hauen azpitik: Eslovenia (6.816), Frantzia (7.493), Malta (8.025). Irlanda (8.075), Alemania (8.250), Finlandia (8.280) eta Belgika (8.382); eta oso urruti Zipren, Holandan, Erresuma Batuan, Austrian eta Suedian zeudenetatik.

Ministerioaren arabera, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan ikasle bakoitzeko (zentro publikoa eta itunpekoa) dagoen gastu publikoa, Lan Heziketa alde batera utzita, 6.475 eurokoa zen 2013an. Beraz, berriz ere dugu gure Erkidegoa ikasle bakoitzeko gasturik handiena duena, zatidura pixka bat jaitsi bazen ere aurreko urtearekiko. Estatuko batez bestekoa 4.569 eurokoa zen eta, beraz, ikasle bakoitzeko gastua EAEn Estatukoa baino %41,7 handiagoa zen.

- Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuko likidazioaren arabera, Hezkuntzan ikasle bakoitzeko eginiko gastuaren ratioa (ikasle guztiak, hots, araubide orokorrekoak –unibertsitatekoak eta unibertsitatez kanpokoak- edo berezikoak –Arte plastikoak eta diseinua, hizkuntza, musika, dantza, kirola eta goi-mailako diseinu ikasketak-) igo egin zen 2013 eta 2014 bitartean, 5.014 eurotik 5.218 eurora hain zuzen.

- Egokitasuna ikasleen adinean.

✓ Ikasleen egokitasun-tasek behera egiten dute adinean gora egin ahala. Datuek erakusten dutenez, arreta berezia jarri behar da lehen mailetan; izan ere, eskolako atzeraldiak eta, horren ondorioz, egokitasun eza, urteetan zehar metatzen eta areagotzen dira.
✓ Emakumeen tasak gizonenak baino handiagoak dira, eta aldea handitu egiten da adinarekin.
✓ Nolabaiteko hobekuntza antzematen da urte gehiago dituzten ikasleen taldean. Hala ere, gizonen %68 baizik ez dago 16 urterekin zegokiokeen kurtsoan.
✓ Autonomia erkidegoen arabera, Asturiasko, Kataluniako eta EAEko egokitasun-tasak 2013-14 ikasturtean handienen artean zeuden aintzat harturiko adin guztietan.

- Eskola-uzte goiztiarra.

EAEko tasa murriztuz joan zen eta 2014an %9,4an kokatu zen, hots, Europako helburua lortu zen (%10etik beherakoa); Estatuan erregistraturiko tasa, berriz, %21,9koa zen, Europako helburutik eta 28ko EBko herrialdeetako batez besteko ratiotik oso goitik.

Datuek agerian uzten dutenez, Europako helburua lortu da gure autonomia erkidegoan emakumeek duten bilakaera onagatik: %7ko uzte-tasa 2014. urtean, zeren eta mutilen tasak Europako helbururako ezarritako %10ekoa baino %1,8 handiagoa baita.

- Graduazio-tasa bigarren etapako bigarren mailako ikasketetan 2012-13 ikasturtean:

  ✓ Batxilergoko graduatuen tasa %53,4koa zen eta Estatukoa %69,3koa (autonomia erkidegoetako altuena) eta, beraz, ELGAko herrialdeen batez bestekoaren gainetik dago EAE bigarren etapako irakaskuntza orokorren graduazio-tasan.

  ✓ Bestalde, Gradu Ertaineko Lanbide Heziketako graduatuen tasa %21,7koa zen Estatuan eta %25ekoa EAEn (aurretik Kantabria (%30,5), Asturias (%30,2), Valentziako E. (%29,5) eta Galizia (%26,7) zeuden). Horrenbestez, gure Erkidegoa tasarik handiena duen bosgarren autonomia erkidegoa izango litzateke, baina ELGAko batez bestekoaren azpitik lanbide eta lanbide aurreko (gradu ertaina) irakaskuntzen aldetik).

- Gradu ertaineko eta goi-mailako graduko Lanbide Heziketako prestakuntza zikloetako graduazio-tasa

2012-13 ikasturtean autonomia erkidego hauetan izan ziren gradu ertaineko prestakuntza zikloetako titulazio-tasarik handienak: Kantabrian (%30,5), Asturiasen (%30,2), Valentziako Erkidegoan (%29,5) eta Galizian (%26,7).

Alabaina, goi-mailako graduan nabarmen goitik zeuden EAE (%39,4), ondoren Asturias (%33,0) eta Valentziako E. (%32,2), Galizia (%29,5), Kantabria (%28,8) eta Katalunia (%28,5). Horrenbestez, gure Erkidegoak estatuko graduazio-tasarik altuena du goi-mailako lanbide irakaskuntzetan.

- Helduen ikasketa maila.

ELGAren arabera, 2014an, estatuko 25-64 urte bitarteko biztanleen %43,3k zuen bigarren etapako bigarren hezkuntzatik beherako ikasketa maila (%44,3k 2012an), %21,9 Bigarren Hezkuntzako bigarren etapara iritsia zen (2012ko ratio bera) eta %34,7k goi-mailako ikasketak zituen (%33,7k 2012an).

Herrialdez herrialdeko azterketak erakusten duenez, Portugal, Espainia, Italia eta Grezia zeuden 2. hezkuntzako 2. etapa gaindituta zeukaten 25-64 urte bitarteko biztanleen portzentajerik txikiena zuten herrialdeen artean. Portugal, %43,3rekin; Espainia, %56,6rekin; Italia, %59,3rekin; Grezia, %68,3rekin. Beste muturrean, Txekiar Errepublikak %93,2 zuen, Estoniak %91,1, Eslovakiar Errepublikak %90,8, Poloniak %90,5, Alemaniak %86,9 eta Finlandiak %86,5.

EAE, %68,4ko tasa izanik, posizio hobean dago, baina portzentajea oso urruti zegoen aurreko lerroaldean aipaturiko herrialdek lortutako mailatik. Azterketa sakonagoa eginez, taulak datuei erreparatuta, 2. etapako hezkuntza mailarik handia duen (NHSN) eta hezkuntza tertziariora iristen ez den hezkuntza maila txikiagoa da, konparazioz, gure Erkidegoan.

- Langabezia-tasak prestakuntza mailaren arabera.

HKKMren arabera, 2014an, goi-mailako ikasketak zituzten biztanleen langabezia-tasa nabarmen txikiagoa zen soilik Bigarren Hezkuntzako lehen etapa lortu zuten pertsonena baino.

Hona hemen langabezia-tasaren eta prestakuntza mailaren arteko erlazioaren gaineko ondorio nagusiak: lehenik eta behin, prestakuntza maila handiagoa duten pertsonek langabezia maila txikiagoa dutela, emakumeen kasuan nahiz gizonezkoen kasuan, eta autonomia erkidego guztietan. Bigarren, EAEk, Nafarroaren ostean, daturik hoberenak ditu langabeziaren aldetik, eta bereziki nabarmena da Goi-mailako Hezkuntza duten biztanleen langabezia-tasetan duen posizioa.

Kultura

Euskal Autonomia Erkidegoak, 2013an, kulturan likidatutako gastua, Kultura Ministerioaren datuen arabera, %11,4 jaitsi da. Hots, gure Erkidegoaren BPGaren %0,15 (%1,1 aurreko urtean).

EAEko biztanle bakoitzak kulturan eginiko gastua 43,9€ euro zen 2013an, 2012an baino %5,5 gutxiago.

Bestalde, euskal familiek kultur ondasunetan eta zerbitzuetan eginiko gastua, 2014an, 674,6 milioi euro, hots, %2,5eko jaitsiera. Familiako batez besteko gastua 754,6 euro izan zen (-%3 aurreko urtearen aldean). Pertsonako batez besteko gastua 2014an 315,6€ zen, 2013an baino %2,1 gutxiago.

NATUR INGURUA

Eusko Jaurlaritzak argitaratutako informazioaren arabera, ***airearen kalitatea*** nabarmen hobetu da azken urteotan EAEn, eta, eskuragarri ditugun datuek erakusten dutenez, gaur egun, kalitate hori ona da, edo, behintzat, onargarria.

Kontsumoko urak direla eta, EINek eginiko "*Uraren hornidurari eta tratamenduari buruzko inkesta*"ren arabera, 2013an 192 Hm^3 da EAEn hornidura publikorako erregistraturiko eta banaturiko ur bolumena, hots, aurreko urtean baino % 3,4 gutxiago. Bolumen horretatik, % 63,5 etxeetan ura hornitzeko erabiltzen da, % 26,9 sektore ekonomikoetarako (industria, zerbitzuak eta abeltzaintza), eta % 6 udal kontsumoetarako (lorategiak ureztatzea, kaleetan ura botatzea eta beste erabilera batzuk). Horrenbestez, kontsumoa handitu da etxeetan eta sektore ekonomikoetan, eta, txikitu, berriz, udal kontsumoetan.

Erregistratu gabeko ura itxurazko galeretan (neurketako akatsak, iruzurrak eta gutxi gorabeherako kontsumoak) eta benetako galeretan (ihesak, hausturak eta matxurak saneamendu sarean) bereizten dira. Azken horiek berriro ere murriztu dira, eta 2013 erabilgarri zegoen ur osoaren % 6,5 ziren, 2012an erregistratutako % 12ren eta Estatuan kalkulatutako % 15,7ren azpi-azpian.

EAEko uraren per capita kontsumoa Estatuko batezbestekoa baino txikiagoa da berriz ere: 123 litro/biztanle/egun (137 litro Estatuan), nahiz eta 2012 eta 2013 bitartean beste gehikuntza bat egon da, % 1,7koa, alegia. Bestalde, uraren aleko balioa 1,52 euro/m^3-koa izan da, orain dela urtebeteko balioaren aldean gehikuntza (% 11,8) agertuta. Dena den, Estatuan erregistratutako balioa (1,83 euro/m^3) baino txikiagoa izaten jarraitzen du, hor ere handitu bada ere.

Hondakinen sorrerari eta kudeaketari dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren datuen arabera, 2012 eta 2013 bitartean % 5 egin du behera kudeatutako hondakin arriskutsuen kantitateak; ez-arriskutsuenak, aldiz, % 22 egin du gora. Hala, guztira, 284.424 Tm hondakin arriskutsu kudeatu ziren 2013. urtean eta 3.254.731 Tm hondakin ez-arriskutsu.

Hondakin arriskutsuen % 68,7 birziklatu edo konpost bihurtu zen, % 5i balioa eman zitzaion energiaren aldetik, % 0,1 erre zen, eta gainerako % 40,9 desagerrarazi zen. Horrez gain, hondakin ez-arriskutsu guztien % 59,3 birziklatu edo konposterako erabili zen, % 2ri balioa eman zitzaion energiaren aldetik, eta gainerako % 38,5 desagerrarazi zen.

Hiri hondakinei dagokienez, EAEn 2013an 498 kg/biztanle bildu ziren, kantitate hori 2012rako kalkulatutakoa (501 kg/biztanle) baino txikiagoa dela. Horietatik 191 birziklatu ziren, 191ri balioa eman zitzaien eta 11 konposterako (ongarri organikoa) erabili ziren. Gainerakoak, hau da, 202 kg, hondakindegira eraman ziren. 2012. urtearen aldean, energiaren aldetik balioa hartu duten eta erre diren hondakinen kantitatea egonkorra izan da, birziklatutako hondakinak % 20,1 gehitu ziren, konposterako erabilitakoak % 22,2 gehitu ziren, eta, amaitzeko, hondakindegira eramandakoak % 15,8 gutxitu ziren.

Lurralde Historikoen araberako analisiak alde batzuk agertzen ditu. Araban handitu zen birziklatutako hondakinen per capita bolumena (2012an baino 31 kg/biztanle gehiago), konposterako erabilitakoak erabat desagertu ziren, eta

hondakindegira eramandakoak murriztu ziren (2012an baino 42 kg/biztanle gutxiago). Bizkaian birziklatutakoak pixka bat murriztu ziren (2012an baino 2 kg/biztanle gutxiago), baina hondakindegira eramandakoak ere gutxitu ziren (2012an baino 12 kg/biztanle gutxiago). Gipuzkoan gehitu egin ziren birziklatutako hondakinak (gehikuntza handia, gainera: 2012an baino 90 kg/biztanle gehiago) eta konposterako erabilitakoak; hondakindegira eramandakoak, aldiz, murriztu egin ziren (murrizketa hori ere handia izan da: 2012an baino 80 kg/biztanle gutxiago).

Amaitzeko, EINek egindako *"Enpresa industrialek ingurumen babesean izandako gastuaren inkesta"*ri buruzko azken datuen arabera, 2013an EAEn gastu hori (gastu arrunta eta inbertsioa) % 5,9 murriztu zen, 2012koaren aldean. Intentsitateari dagokionez, 2013an murrizketa txiki bat (% 0,1) ikusten da, 2012koaren aldean. Gauzak horrela, % 0,29koa izan da, nahiz eta ratio hori Estatuko batezbestekoa (% 0,2) baino handiagoa den. Hala, 2013an EAE seigarren tokian dago, Asturiasen (% 0,45), Nafarroaren (% 0,4), Kantabriaren (% 0,36) eta Gaztela-Mantxaren eta Murtziaren (bietan % 0,3) atzean.

BIZI BALDINTZAK

Krisiaren ondorioz, arriskua edo bazterketa arriskua bizi duten EBko herritarren kopurua nabarmen hazi da azken urteetan, eta gehieneko kopurua 2012an izan zen, baina 2013an ongizate-mailak berreskuratzen hasi ziren eta, dirudienez, 2014an finkatu zen joera hori, informazio eskuragarri dugun urtean hain zuzen ere. Europarren %24,4 dago pobrezia edo bazterketa arriskuaren eraginpean, hots, 121,9 milioi lagun, Europa 2020 Estrategiak "*AROPE Tasa*" (*population at risk of poverty and exclusion*) deritzon horretan finkaturiko irizpideen arabera

Era berean, biztanleriaren %15,3ri eragiten dio pobrezia eta bazterketa arriskuak EAEn, hots, 340.000 pertsonari, eta EBko intzidentzia txiki horrek puntu eta erdi egin du behera 2013ko datuekin alderatuta. Suedia, Finlandia edo Txekiar Errepublikaren parean dago EAE alde horretatik.

Halaber, EINen "*Bizi-baldintzen inkestak*" agerian uzten duenez, aldeko bilakaera dago EAEko familien gabezia-adierazleetan, EBn antzemandako joera orokorraren ildotik: Murriztu egin da urtean astebeteko oporraldia hartzerik ez dutenen portzentajea (2013ko %26tik 2014ko %24,6ra), etxebizitzak dakartzan gastuetan atzerapenak dituztenena (%5etik %4,4ra), edo ustekabeko gastuei aurre egiterik ez dutela diotenena (%24,2tik %20,5era). Era berean, Bizi-baldintzei buruzko Inkestak dakarrenez, behera egin du pobrezia energetikoaren eraginpeko familien portzentajeak (ez dute etxebizitza tenperatura egokian mantentzerik): 2013ko %7,9tik 2014ko %7,3ra. Hala ere, berdin eutsi egiten zaio (oso kezkagarria da hain altua izatea) oraindik hil-bukaerara iristeko zailtasunak dituzten euskal familien proportzioari (%50,4).

Gainera, familien errentek nahiz per capita errentek beheranzko joerari eutsi zioten 2014an, baina aurreko urtean baino motelago, eta Estatu mailan baino neurri txikiagoan.

- ✓ Familiak jasotako batez besteko errenta, 2013an, 34.240 euro zen EAEn (aurreko urtean baino %0,7 gutxiago). Estatuan, berriz, %2,3 egin zuen behera. Horrez gain, Inkestaren arabera, urtean 14.281 euroko batez besteko errenta dago EAEn (aurreko urtean baino %0,2 gutxiago; Estatuan, berriz, %3,2 egin zuen behera, 10.391€-raino).
- ✓ 2008-2014 aldian izandakoa kontuan hartzen badugu, krisia hasi zenetik EAEko familiek, batez beste, euren errentaren %5,3 galdu zuten. Estatu mailan, berriz, jaitsiera handiagoa izan zen, %9,1ekoa hain zuzen ere.
- ✓ Alabaina, epealdi berean positiboa izan zen EAEn batez besteko errenta pertsonalaren bilakaera (+%1,7). Estatuko batezbestekoan, berriz, %3,2 murriztu zen.

Aldeko joera orokorra gorabehera, Eusko Jaurlaritzaren Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkestak (PGDI) darabiltzan adierazleek erakusten dutenez, areagotu egin da desberdintasuna Euskadin, eta krisia hasi zenetik galdu egin dira aurreko oparoaldiko urteetako errentaren banaketan izandako aurrerapenak (nolanahi ere, errenten desberdintasun mailak nahikoa txikiak dira, Estatu mailan nahiz Europa mailan):

- ✓ Gini Indizeak behera egin zuen 2008ra arte (gutxieneko kopurua lortu zen urte horretan, 25,2koa) eta nahikoa egonkor eutsi zion krisiaren hasierako urteetan (2008 eta 2012 bitartean, hamarren bat besterik ez zen igo), baina nabarmen egin zuen gora 2012 eta 2014 bitartean, 25,3tik 27,1era. Emaitza horrekin, 2000ko desberdintasun mailara itzuli gara (27,3).
- ✓ EAEko %20 aberatsenen diru-sarrerak eta %20 behartsuenen sarrerak erlazionatzen dituen ratioari dagokionez (S80/S20). Kasu honetan, 1996ko 4,2tik 2008ko 3,6ra jaitsi zen indizea, eta pixka bat gora egin zuen 3,7ra 2012an eta nabarmenago 2014an, urte horretan 4,2koa izan baitzuen. Kasu honetan, 1996 eta 2000 urteetakoen antzeko datua da.
- ✓ Azkenik, dinamikarik kezkagarriena, PGDIren aburuz, EAEko baliabide gutxien dituzten pertsonen %10ari dagokion biztanleriaren guztizko diru-sarreren zatiaren adierazlea da. 2000ko %3,55etik 2008ko %3,88ra igo ondoren, adierazlea %3,75era jaitsi zen 2012an eta %3,41era 2014an. Hala, 1996tik izandako daturik txarrena da.

Bestalde, bizitegi-bazterketa aztertu du Memoria honek; izan ere, fenomeno berria ez bada ere, krisi ekonomikoak gaurkotasuneko gaia bihurtu du, halako moldez non, Europar Batasunak onartu duenez, lehentasunezko arazoa baita pobreziaren eta gizarte bazterkeriaren kontrako borrokarekin loturiko agenda politikoan Europako 2020 Estrategiaren baitan.

EAEn bizi diren eta bizitegi-bazterketa larria bizi duten pertsonen kopurua zehazteko, haien ezaugarri soziodemografiko garrantzitsuenak eta haien bizi-baldintzak eta bizi-ibilbideak zein diren jakiteko, Eusko Jaurlaritzak 2014an "*EAEn bizitegi-bazterketa larria bizi duten pertsonen inguruko II. azterlana*" egin zuen. Hona hemen horren emaitza nagusiak:

- Azterturiko etxerik gabeko ia 2.000 lagunetatik %77,8 gizonezkoak dira eta %20,4 emakumezkoak. Identifikaturiko pertsonen erdiak baino gehiagok atzerritako nazionalitatea zuen (%54,7), eta batez besteko adina 37 urtekoa zen (%40k 35 urte baino gutxiago zituen).
- %59,9 atzerrian jaiotakoa zen, %28 EAEn eta gainerako %12 Estatuko beste autonomia erkidego batzuetan. Atzerritarren jatorri geografikoari dagokionez, erdia baino gehiago Magrebekoa zen (%50,5), batez ere Marokokoa (etxerik gabeko atzerritarren %43,9).
- Elkarrizketaturiko pertsonen erdiak baino gehiagok (%14) ez zuen ikasketarik edo oinarrizko ikasketak zituen bakarrik (%44), eta %6k bakarrik zuen lan egonkorra eta iraunkorra. Gainera, behin-behinekotasuna da laneko ibilbide gehienen ezaugarri nagusia, zeren eta elkarrizketaturiko pertsonen %40k aldi baterako kontratuarekin lan egiten baitzuten edo lan egin baitzuten. Laurden batek (%26,5), aldiz, kontratu barik egin zuen.
- Pertsona horiek emandako informazioan berebiziko garrantzia dute etxerik gabe egotea eragin duten kausa subjektiboaren gaineko argibideek.
- Galdera (askotariko erantzuna emateko aukera zegoen) erantzun zuten 949 lagunetatik (galdetegia erantzun zutenen %76,8k) erdiak baino gehiagok aipatu zituen diru arazoak haien egungo egoeraren eragile nagusi edo eragile nagusietako bat (%54,8). Hamarretik hiruk, gainera, lan arazoak aipatu zituen (%30), eta lautik batek zioen familia eta bikote arazoengatik zeudela etxerik gabe (%24 hain zuzen ere).
- 2012. urtean eginiko aurreko azterlanarekin erkatuta, emakumeen pisu erlatiboa handitu dela ikusten da. Atzerritarrenak, berriz, behera egin du. Halaber, identifikaturiko pertsona guztien batez besteko adina pixka bat handitu dela ikus daiteke, hain zuzen ere gazteenen pisu erlatiboak indarra galdu izanaren ondorioz, gehienbat atzerritarrenak.

2 Gini-ren indizea aztertzen da. Ekonomia bateko kideen edo familien diru-sarreren banaketaren eta berdintasunezko banaketaren artean dagoen aldea neurtzen du, halako moldez non 0 indizeak berdintasun perfektua adierazten baitu, eta 100eko indizeak, berriz, ezberdintasun perfektua.

INTERESEKO TALDEAK: 55 URTETIK GORAKOAK

Lehenik eta behin, EINen 2013ko Udal Erroldaren datuak oinarri hartuta, nabarmentzekoa da Euskadin 2.191.682 lagun zenbatu direla, eta horietatik 725.789, biztanle guztien % 33,1, 55 urtetik gorakoak dira; horietatik %44,6 gizonak dira eta %55,4 emakumeak. Halaber, %20,2k 65 urteko atalasea gainditu du (443.250), eta 80 urtekoen eta gehiagoen taldea 139.629 lagunek osatzen du. Izan ere, euskal populazioaren % 6,4 da. Laurogei urteko pertsona guztien %65,4 emakumeak dira eta %34,6 gizonak. 1996tik 2013ra, EAEko biztanlerian 93.638 pertsona gehiago bildu dira (+% 4,5), eta horietatik 175.672 55 urtetik gorakoak dira (%31,9 hazi dira), 121.297 65 urtetik gorakoak (+%37,7), eta 70.023 pertsona gehiago zenbatzen dira laurogei urtekoen multzoan (talde hori bikoiztu egin da, 17 urtean %100,6 hazita).

EAEko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen etxeei dagokienez, % 37,1, portzentajerik altuena, bikotekidearekin bizi da etxean (habia hutsik), eta ondoren beren etxean askotariko belaunaldietako familietan bizi diren pertsonen proportzioa dator, hots, gehienbat familia mantentzen duen adineko pertsona (emantzipatu gabeko seme-alabak dituzten gurasoak) duten gurasoek eta seme-alabek osatutako familiak; izan ere, familien % 32,9 dira. % 20,5 bakarrik bizi da pertsona bakarreko etxean; % 8,2 beste mota bateko familietan, non beste senide batzuekin bizitzea aurreikusten baita, eta azkenik, % 1,3 besterik ez da bizi seme-alabekin seme-alaben etxean (seme-alabekin bizi izatera joan diren adinekoak).

Lan-merkatuari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren 55 urtetik gorakoen bizi-baldintzei buruz eginiko azterlanak nabarmentzen duenez,% 60,3k zioen erretiratua edo pentsioduna zela, % 15,9 lanean ari zen eta % 18,7k erantzun zuen etxeko lanetan ziharduela. Langabeen proportzioa % 4,5ekoa zen. Alde nabarmenak antzematen dira, jakina, adin-tartearen arabera: 55 eta 64 urte arteko pertsonen taldean, lanean ari zirenen portzentaje altua zegoen (%39,4); izan ere, talde horretan pisurik handiena zuena zen, eta ondoren erretiratuak edo pentsiodunak zeuden (% 33,6). Halaber, % 11,1 lanik gabe zegoen.

Bestalde, EAEko 55 urtetik gorako pertsonen % 32,9 seme-alabekin bizi da; gainerakoetatik % 53,6 dio hurbilen duen seme-alabaren etxetik kilometrora baino distantzia laburragoan bizi dela (% 3,6 eraikin bereko beste etxebizitza batean), eta % 23,3 1-5 kilometro arteko distantziara. Hortaz, 55 urtetik gorakoen 10etik ia 8 bizi da 5 km-tik beherako distantziara seme-alabaren batengandik. Gertutasun hori, zalantzarik gabe, lagungarria da laguntza trukatzeko baliabideak eta elkarrekikotasuna partekatzeko, edo horiexek dira euskarria. Azterlanak nabarmentzen duenez, gurasoen eta seme-alaben artean laguntzeko beharrengatik edo behar ekonomikoengatik izan daiteke. Horren betiko etsenpluak dira iloba txikiak zaintzea edo seme-alabek gurasoei laguntzea osasun arazoak direnean edo mendekotasunean bizi direnean.

Presentziazko harremanen arloan, 55 urtetik gorakoen % 67,4k dio astero dituela harremanak seme-alabaren batekin, eta % 47,6k egunero edo ia egunero ditu. Ohiko harreman horien barnean, lagunak eta auzokideak astero ikusten dituzten pertsonen portzentaje altua (% 81,3), ia biztanle guztiak. Halaber, asteroko presentziazko harremanak ditu % 45,2k beste senide batzuekin (ez seme-alabak edo gurasoak).

Zaintzak emateari buruzko azterketan, EAEko 55 urtetik gorakoen % 31,1ek egunero egiten ditu seme-alabei laguntzeko lanak, egunero edo ia egunero, eta alde handiak daude sexuaren (emakumeek gehiago hartzen dute beren gain zaintzaile rola) eta adinaren arabera (gazteenek proportzio handiagoan egiten dituzte lanok). 55 urteko eta gehiagoko pertsona guztien % 25ek dio seme-alabei laguntzen diela ilobak zaintzen. %11k senide nagusiak edo ezinduren bat ere zaintzen du, eta soilik senide nagusiak edota ezinduak dituen taldea aintzat hartuta, % 25eko proportzioa dugu. Laburbilduz, inkestaturiko biztanleen erdiak baino gehiagok dio zaintzaren bat egiten duela, zehazki % 54,8k. Horietatik % 75 emakumezkoak dira eta % 43 gizonezkoak, eta 55 eta 79 urte bitartekoak dira zaintza-lanetan gehien aritzen direnak. Bestalde, badira familia barruen elkartasuna transferentziak egiteko bestelako erak ere badira zaintzatik harago, eta horien artean diru-laguntzak nabarmentzen dira: 55 urtetik gorakoen % 8,7k ematen dio diru-laguntza bere etxetik kanpoko pertsonaren bati, ia erdiak hilero. Beste laguntza batzuek etxeko lanak egitea (kasuen % 4,5 eta, 55 eta 64 urte bitarteko emakumeak dira diru-laguntza hori ematen dutenak) eta senideak hartzea: kasu honetan, 55 urtetik gorakoen % 5ek dio senideren bat hartu duela bere etxean.

Jasotako laguntzari dagokionez, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 7,7k laguntza jasotzen du osasun egoeragatik. Jasotako zaintza hori handiagoa da, jakina, adinean gora egin ahala, halako moldez non 80 urte eta gehiagoen artean, % 22,6raino igotzen baita portzentajea. Laguntza jasotzen duten adinekoen artean, laguntzen % 33,2 zaintza pertsonaleko laguntza da (eta % 41raino 80 urtetik gorakoen artean), etxeko laguntza kasuen % 93,1ean, izapideak eta gestioak egiteko laguntza kasuen % 53an eta, azkenik, beste % 52ak laguntasun gisa jasotzen du laguntza.

Bukatzeko, zaintza informala ematen duten adinekoen eta laguntza hori jasotzen dutenen portzentajeari buruzko balantzea eginez, zaintza-lana (seme-alabak, ilobak, adinekoak edo ezinduak) betetzen du 55 urtetik gorakoen % 54,8k , baina % 7,7k soilik dio osasun arrazoiengatik jasotzen duela.

Zaintza-lanez gain, 55 urtetik gorakoek egunean egiten dituzten jarduera hauek nabarmentzen ditugu:

- Etxeko lanak dira, zaintza-lanekin batera, etxebizitza pribatuan denbora gehien hartzen dutenak: 55 urtetik gorako 10 pertsonatik ia 7k dio egunero egiten dituela halakoak, baina alde handiak daude sexuaren (% 80 gainditzen dute emakumeek) eta adinaren arabera.
- Aisialdi jarduerei dagokienez, ariketa fisikoarekin eta kirolarekin loturiko jarduerak egiten ditu egunero % 60,8k, baina proportzio hori txikiagoa da 80 urte eta gehiago dituztenen artean, % 47,8koa hain zuzen ere. Sexuaren ziozko aldea, gainera, 13 puntu handiagoa da gizonen alde.
- Kultur jarduerei dagokienez, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen erdiak aitortzen du ez duela horrelako jarduerarik inoiz egiten, eta 65 urte eta gehiago dituztenen % 63,8k. Hezkuntza jardueretan duten parte-hartzea, bestalde, oso txikia da. 55 urtetik gorakoen % 12,9k baino ez du parte hartu ikastaroren batean, unibertsitatean, klaseetan, etab.
- Gizarte bizitzako jarduerak, ordea, oso ohikoak dira 55 urtetik gorakoen artean: % 82,4k noizean behin egiten ditu, % 21,7k egunero, % 31,6k astean behin eta % 11k hilean behin. Turismoarekin eta bidaiekin loturiko jarduerak egitearen inguruan, 55 urtetik gorako 10 pertsonatik 6k dio egiten dituela horrelakoak, baina ohikoagoak dira (bidaiak, txangoak) talde horretako gazteagoen artean (65 urtetik beherakoak), % 74,8ko ratioa baitu.
- IKTen erabilerari dagokionez, 55 urte eta gehiagokoen % 36,8k dio internet erabili duela azken urtean, eta horietatik % 22,8k egunero erabiltzen du. Teknologien erabilera oso desberdina da belaunaldien artean, halako moldez non 10 gazteenetatik 6k erabiltzen dituen, baina oso gutxi hedatuta dago laurogei urteko pertsonen artean (% 2,6). Era berean, desberdintasun handiak antzematen dira lortutako ikasketa mailaren arabera.
- EAEko 55 urtetik gorakoen % 18,7k dio borondatezko lanetan hartzen duela parte, hainbat erakundetan hala nola komunitatearentzako gizarte zerbitzuetan, hezkuntza elkarteetan edo kultur, kirol edo lanbide elkarteetan, gizarte edo ongintzako elkarteetan, alderdi politikoetan eta sindikatuetan, auzoen elkarteetan, etab.

Bestalde, 55 urtetik gorakoen erdiak baino pixka bat gehiagok dio 2014an osasun ona edo oso ona zuela (%57,7), herenak hala-moduzkoa (%33,5) eta %10etik beherakoak ziren txarra edo oso txarra zela ziotenak. Eta osasun-adierazle objektiboekin gertatzen den bezala, alderantzizko erlazioa dago osasun subjektiboaren eta adinaren arabera, baita sexuaren araberako desberdintasunak ere. Oro har, emakumeek osasun egoera txarragoaren irudipena dute. Mendetasun eta ezgaitasun maila kalkulatzeko, eguneroko ekintzak burutzeko beharrezko laguntza neurtzen duen eskala erabili da. Hala, lagin osoaren % 20,1ek laguntza motaren bat behar du. Soilik 65 urtetik gorakoak hartzen badira aintzat, % 29,1eraino igotzen da ratioa.

Pobreziari eta bazterketari dagokionez, EAEko 55 urtetik gorakoek, oro har, biztanleria osoak baino gutxiago jasaten dituzte pobrezia eta gizarte bazterkeria, Eusko Jaurlaritzaren Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren emaitzetatik ondorioztatzen denez. 2014an, %4koa zen familia-buruak 55 eta 64 urte bitarteko pertsonak zituzten familien benetako pobrezia tasa, eta % 1,1koa 65 urte eta gehiagokoen taldean. Batez besteko orokorra, berriz, % 5,9 zen. Izan ere, pertsona nagusi horiek dira pobrezia tasarik txikienak jasaten dituztenak, zeren eta inkestak agerian utzi duenez, familiarik gazteenen artean izaten baita pobrezia intzidentziarik handiena (familia-burua 35 urtetik beherakoak dituzten familien % 13,6), eta murriztuz doa familia-buruaren adinak gora egin ahala. Gainera, egoera hori, orokorrean, mantentze pobreziaren aldetik nahiz metatze pobreziaren aldetik gertatzen da.

Informazio hori bat dator Euskadiko 55 urtetik gorakoen bizi-baldintzei buruzko inkestaren emaitzarekin. Bertan ondorioztatzen denez, EAEko 55 urtetik gorakoek, oro har, gogobetetasun maila handia dute beren bizitzarekin oro har, 10etik 7,1 puntu, Eusko Jaurlaritzaren azterlanaren arabera. Indize orokor hori banakatzeko erabiltzen diren eremuetan, 7aren inguruko puntuazioak mantentzen dira, eta altuena 7,5 da harreman pertsonalen gogobetetasun mailan eta txikiena 6,6 etorkizunerako segurtasunean eta bizitza espiritualean eta erlijio sinesmenetan. Azterlanean nabarmentzen denez, gogobetetasun maila horiek ez dute behera egiten adinean gora egin ahala, osasunaren egoera okertzen baliteke ere. Sexuaren eta ikasketa mailaren arabera ere ez da desberdintasun nabarmenik antzematen. .

Euskadirako Zahartze Aktiboaren Indizea kalkulatuta, Europar Batasunaren eta NBEren metodologia oinarri hartuta, EAE zazpigarren tokian jokatzen du indize globalaren kalkuluak EBko 28 herrialdeen rankingean. Suedia eta Danimarka dira lehenengo postuetan. Tokiko baxuenean Polonia eta Grezia daude. Euskadik 36,6ko puntuazioa lortu du, EBko batezbestekoaren gainetik (34,05), eta Alemaniaren edo Irlandaren parean kokatzen da. Indize horrek 4 dimentsio edo eremu ezartzen ditu Zahartze Aktiboaren Neurketan: lana, gizarte partaidetza, bizitza independentea eta gaitasunak. Indize hori garatuta eta MOEren definizioa oinarri izanik -zahartze aktiboaren oinarriak osasuna, segurtasun eta partaidetza dira-, dimentsio ekonomikoa sartu nahi izan da lan-merkatuaren bidez, baita belaunaldien arteko elkartasuna ere, halako moldez non norbanakotik gizarte arlora ere igaro eta adinekoek ekonomian eta gizartean duten ekarpena hartzen da aintzat.

Eusko Jaurlaritzak Euskadirako indize hori kalkulatzeari esker, beharrezko informazioa eduki ahal izan du Eusko Jaurlaritzak Zahartze Aktiborako Estrategia sortu ahal izateko. Izan ere, 2020rako estrategia izanik, gobernantza eredu berria moldatu nahi du, bere politikak zahartze demografikora egokitzeko, prebentzioko esku-hartzeak, herritarren partaidetza eta adinekoei harrera ona egiten dien gizarte bultzatzea lehenetsiz.

OSASUNA

Heriotzen kopurua EAEn, EUSTATen "*Heriotzei buruzko estatistika"* delakoaren arabera, 20.157 izan zen 2014. urtean, eta horietatik 10.177 gizonezkoak eta 9.980 emakumezkoak izan ziren. Hots, 456 heriotza gehiago 2013an baino. Hau da, %2,4ko igoera. Alabaina, igoera hori ez da sexuaren ikuspegitik igo. Hala, emakumeen artean 474 heriotza gehiago izan ziren, hots, %5eko igoera. Gizonezkoetan, berriz, 9 heriotza gutxiago (-%0,1).

Heriotzen kopuru handi bat adinekoen adin-tarteetan gertatzen da. 2014. urtean, heriotzen %62,8 80 urtetik gorakoen artean gertatu zen. 2010ean, berriz, %58,8ko ratioa zen. Hala, 80-89 urte bitartekoan heriotzen kopurua 7.830 da; 90-99 urte bitartekoena 4.519; 100-109 urte bitartekoena 307; eta 110 urtetik gorakoena 3.

Heriotza eragile nagusiak, 2014. urtean, tumoreak (hain zuzen ere guztizkoaren %31,6) eta zirkulazio-aparatuaren gaixotasunak (%26,7) dira. Hala eta guztiz ere, nabarmentzekoa da nerbio-sistemaren gaixotasunek eragindako heriotza kopurua: 2014an 1.291 izan ziren (heriotza guztien %6,4); 2013an, berriz, 740 (%4,4).

Bizi-itxaropenak (BI) goranzko bilakaera du denboraren aldetik herrialde garatu gehienetan. EAEn, EINen 2013ko azken datuen arabera, 86,3 urtekoa da emakumeen BI jaiotzean, eta 79,9 urtekoa gizonena (6,4 urteko aldea emakumeen alde). Estatuan, EURTOSTATen arabera, goranzko joera dago, eta 86,1 urtekoa izan zen 2013an EI jaiotzean emakumeentzat eta 80,2 urtekoa gizonentzat (5,9 urteko aldea emakumearen alde).

Alabaina, horrek ez dakar, ezinbestean, adierazle hori igotzen deneko bizitzako urte guztiak osasun egoera onean bizi izandako urteak izatea, zeren eta pertsonek gaixotasunak eta osasun arazoak izan baititzakete eta horien ondorioz bizi-kalitatea galdu, nahiz eta horiek gaixotasun guztiek heriotza berehala ez eragin. Oro har, kronikoak deritzen eritasunekin gertatzen da hala; izan ere, horien presentzia dela-eta, heriotza tasa pixkanaka balioa galtzen ari da osasunaren egoeraren adierazle gisa.

Beraz, gaitzak euren ondorioen bidez neurtu behar dira, besteak beste, jarduera ***murrizketaren edo ezintasunaren bidez.*** Zentzu horretan, biztanleriaren osasun egoeraren indizeak, hala nola ezintasunik gabeko bizi itxaropena hilkortasunean eta ezintasunean oinarritua- egiteak, neurri bakar batean iraupena ez ezik bizi kalitatea ere laburbiltzea

ahalbidetzen dute. Hortaz, beren ondorioen bidez neurtu behar da gaixotasuna hala nola ***jarduera-muga*** edo ***ezgaitasuna***.

BIn sexuen arabera dauden diferentziak nabarmen murrizten dira jarduera mugarik gabe bizi izandako urtean hartzen badira kontuan, halako moldez non emakumeek BI urte kopuru handiagoa da gizonezkoena baino gehienbat jarduera mugatuarekin bizi izandako urteen kontura.

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren arabera, hona hemen jaiotzean BUO gutxien dituzten autonomia erkidegoak 2011n: Kanariar Uhartea (57,9), Ceuta eta Melilla (64,4), Asturias (63,0) eta Galizia (64,2 urte). BUO gehien dituzten autonomia erkidegoak, berriz, Kantabria (74,8 urte), Aragoi (71,2) eta Nafarroa (70 urte). EAEn 68 urteko adierazlea da.

Biztanleriaren osasun egoeraren beste indize bat (BUO bezala), osasun oneko bizi-esperantza da (OOBI, ikusi a ataleko taula). Gaixotasunek bizi-kalitatean duen inpaktua ebaluatzea da indize horren interes nagusiaren ardatza, urteetan adierazitako ebaluazioa hain zuzen. Badute BUOekiko desberdintasuna: bizitzako urteak pertsonek beren osasun egoerari buruz duten pertzepzio subjektiboarekin biderkatuta haztatzen diren, jarduera mugarekin haztatu beharrean.

2011n Espainian, **OOBI jaiotzean** 60,6 urte zen (61,7 urte gizonak eta 59,4 emakumeak), eta alde handiak daude BIrekiko. BUOren kasuan bezala, OOBIk islatzen duenez, emakumeak urtez gehiagoz bizi dira gizonak baino, osasun txarragoa duten pertzepzioarekin.

Aldeko bilakaera du adierazleak: 2007 eta 2011 bitartean, 5,3 urtez igo zen OOBI Espainia osoan (4,5 gizonak eta 6 urte emakumeak). OOBI txikiena eta handiena duten autonomia erkidegoen arteko aldea 12 urtekoa izan zen. Madril eta Nafarroa, 65,2 urterekin eta Errioxa (64,2 urte) izan ziren OOBI handiena izan zuten erkidegoak eta txikiena, berriz, Kanariar Uharteek (53,2), Murtziak (55,5) eta Galiziak (57,8) izan zuten. EAEn 62,4 urtera iristen da adierazlea.

Laguntza-jarduerari dagokionez eta Osakidetzaren jarduera ardatz hartuta, 2013ko mailari eutsi zitzaion 2014an batez besteko okupazio indize globalean, hots, %77,7; aurreko urtean, berriz, %77,8 izan zen.%100 gaindituta eta, beraz, aipatutako batez bestekoaren gainetik, medikuntza-zerbitzuetan, ondoko espezialitateak ditugu: pneumologia (%139), barne-medikuntza (%121,4), digestio aparatua (%108,7); eta kirurgiako zerbitzuetan: kirurgia kardiobaskularra (%111,6) eta urologia (%103,8). %100aren gainetik baina batez bestekoaren gainetik ditugu gainerako zerbitzu medikoak, errehabilitazioa izan ezik (%76,3), eta kirurgiako gainerako zerbitzuak, kirurgia plastikoa (%62,7) eta kirurgia baskularra (%69,4) izan ezik.

Eguneko batez besteko egonaldiak berriz ere egin du behera, 5,2tik 5,1era. Batez bestekoaren oso gainetik daude errehabilitazioa (29,4), psikiatria (14,6), zaintza aringarriak (13,6), hematologia (9,5) eta medikuntza orokorra (7,2).

Kanpoko kontsultei dagokienez, baldin eta datu horiek eta Informazio Sistemak Osasun Sistema Nazionalak (SISLE-OSN) itxaronzerrendei buruz ematen dituen datuak alderatzen baditugu oinarrizko espezialitateetan eta 2014ko datuekin, hauxe ikusiko dugu: itxaronzerrendan 1.000 biztanleko dauden pazienteen kopurua txikiagoa dela EAEn Estatuan baino espezialitateotan: Oftalmologia (5,7 eta 6,87), ORL (2,02 eta 2,23), Neurologia (1,6 eta 1,79), K. Orokorra eta Digestio Aparatua (1,28 eta 1,39), Urologia (1,3 eta 1,5), Digestio Aparatua (1,57 eta 2,22) eta Kardiologia (1,3 eta 1,56); eta handiagoa da Ginekologian (2,82 eta 2,48), Traumatologian (8,39 eta 7,04), eta Dermatologian (5,31 eta 4,8).

Artatuak izateko hilabetetik gora itxaroten duten pazienteen ehunekoari dagokionez, nahiz eta adierazleak zuzenean ezin konpara daitezkeen, badirudi agerian uzten dutela Estatuko egoera ez dela hain ona. Izan ere, 60 egunetik gorako itxaronaldirako egiten da neurketa, eta egun kopuru hori baino gehiago itxaroten duten pertsonen ehunekoa %35etik gorakoa da, are gehiago, %40tik gorakoa azterturiko hainbat espezialitatetan.

Kirurgiako itxaronzerrendei dagokienez, horietako pazienteen kopuruak berriz ere egin zuen EAEn 2013 eta 2014 bitartean, hau da, 18.123 pertsonakoa izatetik 17.760 pertsonakoa izatera, hots, mila biztanleko 8,3 pazientetik 8,2 pazientera, estatuko batez bestekoa baino txikiagoa (11,4). Pixka bat gora egin du batez besteko berandutze egunen kopuruak (49,7 egunetik 50 egunera), Estatuan izandakoa baino txikiagoa (87 egun).

EAEko Kontu Orokorrak oinarri hartuta Osakidetzak egiten duen aurrekontu-likidazioak erakusten duenez, erakundeak eginiko gastua, 2014an, 2.623,3 milioi euro da. Hots, gastua %3,5 handitu da 2013ko urtekoaren aldean, hainba urtez urte artek jaitsierak izan ondoren. Bestela esanda, BPG nominalaren %3,9. Ustiapenaren gastuen igoerak (pertsonala, hornidura eta beste gastu batzuk) eta inbertsioaren igoerak eragin dute hazkunde hori. Likidaturiko guztizko kopurutik, %3,3 inbertsioei dagokie (85.259 mila euro) eta %96,7 ustiapen gastuei, non pertsonaren gastuak nabarmentzen diren: erakundearen guztizko gastuaren %66,1.

Eusko Jaurlaritzak osasunerako erabili zuen gastuaren partida, EAEko aurrekontuaren likidazioaren datuen arabera, 3.342 milioi eurokoa izan zen 2014an, hots, %1,3ko igoera 2013an likidaturiko gastuaren aldean. Beraz, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu guztiaren %33,2 izan zen 2014an, eta PGBd izendunaren %5, hau da, aurreko urteko portzentaje bera.

Likidaturiko gastua aurrekontuan jasotakoa baino txikiagoa da (11.822 mila euro gutxiago aurrekontuan jasotako gastua baino). Izan ere, partida guztien likidazioa txikiagoa da aurrekontuan jasotako gastua baino, Osasun Finantzazioa eta Kontratazioa deritzonarena izan ezik.

Bestalde, berariazko osasunekoak diren partiden gastuak, 2015erako, 3.390 milioi euro dira (+%1,4 2014an likidaturikoaren aldean), Hots, BPG nominalaren %5, 2013an eta 2014an izandako ratio bera hain zuzen ere.

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren datuen arabera, goranzko joera du EAEko osasun gastu publikoak biztanleko 2007 eta 2011 bitartean. Urte horretan, krisi ekonomikoaren ondorioz, ratioa beheranzko joeran hasi zen. Hala ere, gure Erkidegoa azterturiko aldi osoan (2007-2015) biztanleko gasturik handiena egiten duena da.[3] Zehazki 2015ean 1.584,7 euro da. EAEren antzeko datuak daude Nafarroan (1.457,4 euro), Asturiasen (1.423,5), Kantabrian (1.348) eta Gaztela eta Leonen.

ETXEBIZITZA

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailaren "Higiezinen Eskaintzaren Estatistikak" (HEE) adierazi du, lehenik eta behin, azken urtean %7,8 jaitsi hazi dela (aurreko urtean +%18,7 izan zen) etxebizitzaren guztizko eskaintza (salgai eta alokagai daudenak), eta guztira 37.259 etxebizitza biltzen ditu laugarren hiruhilekoan. 2015ean, gainera, murriztu egin da etxebizitza mota guztien eskaintza, babesturiko alokairuarena izan ezik; eskaintza guztiaren %,0,5 besterik ez da alokairu mota hori.

Etxebizitza motaren arabera, datu hauek nabarmentzen dira:

- Salgai dauden etxebizitza eraiki berri libreen eskaintzak %19,8 egin zuen behera, eta batez besteko prezioa 2015eko laugarren hiruhilekoan 3.273,7 €/m^2 zen, 2014an baino %2 gutxiago. Lurraldez lurraldeko azterketaren arabera, batez besteko txikiagoa dago Araban (2.742,1 €/m^2); Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, 3.370,3 €/m^2 eta 3.281,9 €/m^2 dira hurrenez hurren.
- Saltzeko eskainitako BOEren batez besteko prezioa 1.674,2 €/m^2 zen 2015ean, aurreko urtean baino %0,5 gutxiago. Eskaintza 2015eko laugarren hiruhilekoan 1.545 etxebizitzakoa zen, aurreko urtean baino %31,9 gutxiago.
- Eskaintzan dauden bigarren eskuko etxebizitzen stockean %3,1eko beherakada dago eta haien batez besteko prezioa 2015ean 2.922,9 /m2 zen, aurreko urteko batezbestekoa baino %4,4 gutxiago. Lurraldez lurralde, Bizkaian

3 Hasierako osasun aurrekontuak islatzen dituzte datuek, autonomia erkidego bakoitzaren mailan finkatuak, horiek beren aurrekontu kontsolidatuetan sartu dituzten autonomia erkidegoko erakundeei dagozkienak. Beraz, baztertuta gelditzen dira fundazioak, partzuergoak, enpresa publikoak eta osasun arloan jarduerak egiten dituen eta gutxi gorabeherako aurrekontua duen beste edozein erakunde publiko. Biztanleriaren datuak EINek argitaraturiko erroldari dagozkio.

batez besteko baino gehiago jaitsi dira prezioak (%4,7); Araban eta Gipuzkoan, berriz, %3,2 eta %2,5 murriztu ziren hurrenez hurren.

- Alokairuan eskainitako 1.749 etxebizitzako eskaintza zenbatu da, aurreko urtean baino % 33,9 gutxiago. Libreei dagokienez (eskaintzaren %89,8), berriz, %27,5 hazi da: 2.505 etxebizitzatik 1.570 etxebizitzara, alokairuko etxebizitza babestuetan gora egin du: 2014ko %5,3tik 2015eko %10,2ra.
- EAEko babes ofizialeko etxebizitzen batez besteko errenta 871,1 eurokoa izan zen hileko 2015. urtean, hau da, aurreko urtean baino %5,8 gehiago.
- Azkenik, alokairuan eskainitako etxebizitza libreen laginak 871,1 euroko batez besteko errenta du hilero, urtebete lehenago baino % 3,1 gehiago. Lurraldez lurralde, Gipuzkoak du preziorik altuena (911,5€/hilea); ondoren Bizkaiak, 880,1 €/hilea, eta azkenik Arabak (740,4€ hilean).

Eraikuntzaren jarduerari dagokionez, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak agerian utzi duenez, hasitako etxebizitzen guztizko kopurua, 2008an eta 2009an nabarmen jaitsi ondoren, goranzko bidean hasi zen 2010-2011 biurtekoan, nabarmen hazita betiere. 2012an, berriz, %40,8 egin zuen behera hasitako etxebizitza kopuruak, eta joera horri eutsi zitzaion 2013an (-%23,1) eta, neurri txikiagoan, 2014an (azken datu eskuragarria), %4,5 jaitsita. Hasitako etxebizitzetatik, %59,3 libreak ziren eta %40,7 babestuak. Badakigu zein diren hasitako etxebizitza babestuei buruzko 2015eko zifrak (ez dago merkatu libreari buruzko informaziorik): guztira 1.102 hasi ziren, 2014an baino %26,3 gutxiago. 2010eko salbuespenarekin, hasitako etxebizitza babestuak beherantz egin du 2007az geroztik (urte horretan 7.300 etxebizitza hasi ziren).

Bestalde, EAEn 2015an amaitutako etxebizitzak 5.596 dira, aurreko urtean baino %11,9 gehiago, amaitutako etxebizitza libreen igoeraren (%41,19) eta babestutakoen beherakadaren (-%18,6) baturaren emaitza gisa. Horren ondorioz, aurten murriztu egin da etxebizitza babestuak EAEko eraikuntzako jardueran duen partaidetza, zeren eta bukaturiko etxebizitzen artean behera egin baitzuen, %48,8tik %35,5era.

Etxebizitzaren eskariari dagokionez, gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18-44 urteko pertsonek lehenbiziko etxebizitza eskuratzeko duten beharrari buruzko hurbilketan, hauxe egiaztatu du Eusko Jaurlaritzaren 2013ko "Etxebizitzaren beharrei eta eskariari buruzko inkestak" (EBEI): etxebizitza eskuratzeko prozesua finantzatzen pentsatzeko adina diru-sarrerak dituzten 65.346 pertsonak adierazten dute behar hori. 2011ren aldean, zifra hori %25,9 murriztu zen, eta %39,6raino 2010aren aldean eta %41 2009an erregistraturikoarekiko.

Bestalde, 2013. urtean, 61.621 euskal familiak zioen etxebizitza aldatu beharra zuela, guztizkoaren %7,1ek. Hots, %62ko igoera 2011ren aldean; urte hartan, guztizkoaren %4,5 zen. EBEIren zenbatespenen arabera, 90.139 euskal familiak behar dute etxebizitza birgaitzeko jarduketa 2013an. Hala, magnitude hori EAEko famili etxebizitza parkearen %10,3 da. Bilakeraren aldetik, etxebizitza birgaitzeko beharrak gora egin zuen 2011ren aldean, bai familien bolumenean (+%19,6), bai behar horren intzidentzia erltatiboan (1,4 puntu portzentual gehiago).

EAEko familiek etxebizitzak ordaintzeko egin behar duten finantza-ahaleginari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaren Behatokiak erakutsi du, "*Higiezinen Erregistro Estatistikako*" datuak erabilita, finantza-ahalegin hori hileko batez besteko hipoteka kuotaren eta soldata kostuaren arteko harremanaren ikuspuntutik aztertuz gero, % 29,6koa izan dela 2015eko laugarren hiruhilekoan, hau da, aurreko urtean baino 2,6 puntu portzentual gehiago ditu. Estatuan ibilbide orekatuagoa da: batez besteko soldataren %28,29 2015ean, 2014ko %29,39aren aldean.

Higiezinen jarduerari dagokionez, Sustapen Ministerioak Notarioen Estatistika oinarri hartuta emandako datuen arabera, 2015ean EAEn etxebizitzen 16.398 salerosketa eskritura gauzatu ziren notarioaren aurrean (behin-behineko datuak dira), hots, %17ko igoera 2014koaren aldean (+%9,8 izan zen epealdi berean, Estatu osoan, non guztira 401.298 transakzio zenbatu ziren), 2010-2013 aldian jarduerak beherakada nabarmena izan ostean.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak egikaritu gastua, azken urteetan nabarmen gehitu zena 2009an gehienekoa lortuta 207,4 milioi eurorekin, ia erdira murriztu zen 2014an. Urte horretan (informazioa dugun azken urtea),

egikaritutako gastu horrek 107,1 milioi euroraino egin zuen behera (-%14,7 2013aren aldean eta -%48,4 2009ko gehienekoaren aldean), hots, EAEko BPGaren %0,16, aurreko urtean %0,19 izan ondoren, hain zuzen ere gastuak behera egin izanaren ondorioz ekonomiaren hazkundearen aldean.

Etxebizitzak eraikitzeko zuzeneko inbertsioen bolumenari dagokionez, Etxebizitza Taldeak (Sailak berak —irudian ikusten denez, 21,6 milioi euroko inbertsioa egin zuen 2014an— eta sailari atxikitako sozietate publikoek osatutakoa) 78 milioi euro inbertitu zituen (-% 23,8, 2013. urtearen aldean). Beraz, programaren inbertsioa murriztu zen azken urtean eta 2013an bertan, Taldearen gastuaren % 46,9 izan zen (2013an, % 41,5).

Bukatzeko, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren azken txostenean jasotzen denez, PFEZn aitortutako ohiko etxebizitzagatiko kenkariak (alokairuari eta inbertsioari dagozkionak) 432,3 milioi eurokoak izan ziren 2012. urtean, hau da, aurreko urtean baino %7,6 gutxiago. Kopuru hori Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Programari lotuta urte horretan gauzatutako gastuaren % 298,1 (ia hirukoitza) izan zen (145 milioi euro).

8.2. GOGOETAK

DEMOGRAFIA

Udal Erroldaren azken datuek erakusten dutenez, EAEko biztanleriak berdintsu eusten dio 2015ean (272 lagun gehiago daude), bi urtez jaitsierak izan ondoren. Gainera, Biztanleriaren Berezko Mugimenduaren balantzea negatiboa izanik (jaiotza kopuruak gora egin du, baina neurri handiagoan hazi dira heriotzak) eta hiru urtez jarraian atzerritarren kopurua jaitsita, gure Erkidegoaren egoera demografikoa, gutxienez, kezkagarria da: geraldi demografikoari egin behar diogu aurre kopuru absolutuetan, eta are larriagoa da egoera lanerako adin-tarteen murrizketagatik eta adinekoen taldeen pisua pixkanaka handitzeagatik.

Zahartze horren egungo zifrak, eta etorkizunerako espero direnak, Memoria honetako 55 urtetik gorakoen bizi-baldintzei buruzko kapituluan ematen dira, eta zahartzea dela-eta, familien baitan, lan ordaindua eta seme-alabak zaintzea uztartzeko zailtasunei gehitu behar zaizkie adinekoak zaintzeko zailtasunak. Horrez gain, zainketa-lan horiek, seme-alabekin gertatzen den bezala, gehienbat emakumeen kargura izaten dira, eta horrek kalteak dakarzkie emakumeei bizi-kalitatearen eta lanerako edota lanbide-proiekziorako posibilitateen aldetik.

Euskadiko jaiotze-tasaren beharrezko igoerari berriz ere helduta (Europako jaiotze-tasarik txikienetakoa), kezkatu egiten gaitu familiek berriz ere gehiago aipatzeak (2010 eta 2014 bitartean) nahi dituzten seme-alabak izateko posibilitatearekin lotutako arazoak. Halaxe gertatzen da arrazoi ekonomikoengatik eta laneko arazoengatik, baita seme-alabak zaintzeko zailtasunengatik ere.

Lana, bizitza pertsonala eta familia uztartzeko balora daitezkeen formuletako bat telelana izan daiteke, hots, presentziazkoa ez den zerbitzua emateko modalitate berritzailea, informazioaren eta komunikazioaren teknologietan oinarrituta dagoena eta lanaldiaren zati bat presentziazko lanpostukoa ez den beste toki batean antolatzea ahalbidetzen diena langileei, normalean etxean, betiere laneko legerian galdaturiko baldintzak bermatuta. Lan modalitate hori baliagarria da bai seme-alabak zaintzeko eta bai mendetasuna duten adinekoak zaintzeko.

Horiek osagarri eta arazo guztiak batera aintzat hartuta, erronkarik handienetakoaren aurrean gaude gizartea garen aldetik. Herrialde txikia, populazio zahartua eta migrazio-fluxu urriak ez dira bermerik onenak hazkunde eta garapen ekonomikoari eta sozialari aurre egiteko ikaragarri zorrotza den mundu globalizatuan.

Bestalde, migrazioari dagokionez, EGABk balorazio positiboa egiten du euskal biztanleriak orain ere immigrazio arazotzat ez hartzearen inguruan; are gehiago, badirudi 2015ean immigrazioaren ikuspegi funtzionala berreskuratu dela termino ekonomikoetan, krisiaren ondorioz galdua, hots, immigrazioak ekonomian duen inpaktuari buruzko azterketako emaitzekin bat datorren ikuspegia: immigrazioa positiboa da ez soilik demografiarako, baizik eta

ekonomiarako ere bai. Horrez gain, badirudi ez dela eztabaidagarria etorkizunean gure ekoizpen eta zerbitzuen sisteman migratzaileen behar handiagoa izango dugula gaur egun baino.

Etorkizuneko gure ongizaterako berme handiagoa dinamismo ekonomikoan eta kohesio sozialean datza, eta horretarako, lehenbailehen eta ikuspegi globalarekin landu behar dira migratzaileak jasotzeko eta gizarteratzeko politikak, baita lana uztartzeko eta genero-berdintasunerako politikak ere. Nolanahi ere, berdintasun horretan, gizonen konpromisoa eta baterako erantzukizuna behar dira etxeko eta zaintzako lanetan, funtsezkoak baitira gainerakoetan arrakasta izateko.

Ildo beretik, eta modu irekiagoan, demografiaren arloak eredu orokorra izan beharko luke EAE osorako, gai honetako politika publikoak bideratu ahal izateko, baita politika horiek zeharkakoagoak eta koordinatuagoak izan daitezen ere.A

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Hezkuntza

Nabarmentzeko moduko datutzat hartzen ditugu EAEren hezkuntza adierazleak; izan ere, goi postuan dago Estatuaren eta gainerako autonomia erkidegoen aldean, eta kasurik gehienetan, Europako batez bestekoak hobetzen ditu. Alabaina, aintzat hartu beharreko zenbait alderdi daude, gogoetari eta balizko hobekuntzari begira.

Lehenik eta behin, ohartarazi nahi dugu oso txikia dela soilik bigarren mailako ikasketak dituzten eta lanerako adinean diren pertsonen proportzioa, eta prestakuntza maila txikia duten biztanleengan metatzen da batetik eta goi-mailako ikasketak dituztenengan bestetik, gure inguruko herrialdeetan batez bestekoaren gainetik. Horrek esan nahi, gure 2014ko Memorian genioenez, EAE nabarmen bideratuta dagoela goi-mailako hezkuntzara, hezkuntzaren aldetik duen jokabideari dagokionez. Hala, hezkuntzaren arloko lehentasunetan "atzerantz" egiten duen ordenamendua sortzen da, eta horrexegatik dugu, neurri batean, Batxilergoa eta LH hautatzeko aukera, non gehiegi nagusitzen den prestakuntza orokorra espezifikoaren aldean.

Gainera, matrikulazioen gaineko azken datuek agerian uzten dute joera aldaketa dagoela goi-mailako LHko matrikulazioen kopuruan. Izan ere, pixka bat behera egin duenez, jaitsieraren kausak aztertu beharrean gaude.

Aldi berean, biderapenerako edo orientaziorako erabilitako ahaleginetan aurrera egin daitekeela deritzogu. Emakumeek partaidetza txikia izaten jarraitzen dute adar teknikoetan, prestakuntza zikloetan nahiz unibertsitatean, eta adar horiek dira hain zuzen ere, dirudienez, emaitza hoberik lortzen ari direnak titulua lortzen dutenak laneratzearen aldetik. Hortaz, abiapuntuko posizio txarragoa da hori emakumeentzat lanbide-karrera garatzerakoan gizonen aldean.

Bestalde, eta goi-mailako hezkuntzari dagokionez, komenigarria izango litzateke Bologna gure hezkuntza sistema nazioarteratze-prozesuan izaten ari den eragina zein den jakitea. Ildo horretan, gure ikasleen mugikortasuna bultzatzeko indar berezia jarri beharko litzateke, baita gure sistemak ikasle atzerritarrentzat duen erakarpen-maila ere.

Halaber, gure ustez komenigarria izango litzateke sistemen arteko erlazioa ezartzea ikasketa tertziarioen eskaintzaren eta eskariaren eta lan-merkatuaren beharren arabera. Egungo inguruabarrek, krisi ekonomikoak eta aldaketa teknikoak informazio arazo handiak sorraraz ditzakete, eta herritarrek ikasketak egiteko erabakietan eragina izan. Horrek guztiak hezkuntza sistemaren eraginkortasuna kaltetzen du, eta azpimarratu egin beharko litzateke hori EAE ikasle bakoitzeko gasturik handiena duen erkidegoa baita.

Kultura

Atal honetako zenbait elementuren jaitsieraren atzean, kasu garrantzitsuren batean, krisi ekonomikoaren ondorioak ez ezik bestelako aldaketa estrukturalak ere izan daitezke erlazioen, komunikazioen eta kulturaren aldetik oro har, besteak beste IKTak gizarte globalizatuan indar handiz errotu izanagatik.

Ildo horretan, jakin beharko litzateke alde batetik, eta indartu bestetik, kulturaren eta kultur industriaren artean dauden erlazioak, beste sektoreetan ekoizpenaren aldetik dagoen jakintzan oinarrituta, hala nola industrian eta turismoan.

NATUR INGURUA

Datuek erakusten dute hobekuntza handiak egon direla aztertutako ingurumen adierazleetako askotan.

Bereziki nabarmendu behar da, oso ona izateagatik, hiri hondakinen kudeaketan egondako bilakaera. Aurretik aipatu dugun bezala, 2012 eta 2013 bitartean, birziklatutako hondakinak % 20,1 gehitu ziren, konpost bihurtutakoak % 22,2, eta hondakindegira eramandakoak, berriz, % 15,8 gutxitu ziren.

Hala ere, uste dugu komenigarria dela zenbait alderdi nabarmentzea:

- Uraren per capita kontsumoa handitu egin da aztertutako aldian.

  Alde horretatik, biztanleak neurri handiagoan kontzientziatu behar dira uraren "balio ekonomiko osoa" kontzeptuarekin, UEZri (Uraren Esparru Zuzentaraua)[4] jarraituta. Aldi berean, oraindik ere ahalegin handiagoa egin behar da, batez ere uraren kudeatzaileen (partzuergoak eta udalak) aldetik, EBL 2020ra (Uraren buruzko Europako Berrikuntzarako Lankidetza)[5] egokitzeko. Azken alderdi horrek, gainera, sinergiak sortzen ditu Europa 2020 esparruan, eta, zehatz-mehatz, osasunari, gizarteari, ongizateari eta ekoberrikuntzari lotutako eremuekin.

- 2013an hondakin arriskutsuen % 40,9 eta hondakin ez-arriskutsuen % 38,5 desagerrarazi dira, eta, horrenbestez, ez dira birziklatu edo ez zaie baliorik eman.

Nahiz eta ahaleginak egiten ari diren zuzeneko norabidean, uste dugu horiek ez direla ahuldu behar; are gehiago, indartu egin behar dira, oraindik ere bide luzea baitago egiteko. Horregatik, Euskadiko EGABek uste du beharrezkoa dela natur ingurunearen tratamenduan lan egiten jarraitzea zeharkako ikuspegi orokor batetik aurrera politika publikoetatik, ekonomia eta enpresa kudeaketarik eta herritarren portaeratik.

Mugaketa energetikoa egungo ereduak eragin du, eta bai ekonomia- eta gizarte-aldagaiei bai ingurumen-aldagaiei eragiten die. Eta mugaketa energetiko horrek energia eredu berrietara igarotzea sustatzen du. Horrela, energia kultura berria sortu da: karbono gutxi du, eta oso sentibera da natur ingurunearekin eta belaunaldien arteko elkartasunarekin. Horrez gain, bizimoduak aldatu ditu, baita kontsumo-ondasunei lotutako kontzeptu tradizionalak (egungo autotik auto elektrikora, egungo eraikinetatik energiaren aldetik beren burua asetzen duten eraikinetara…) eta ekoizpen-prozesuak (energia eraginkortasuna, ingurumen ziurtagiriak eta abar) ere.

Bestela esanda, komenigarria da kontuan hartzea natur ingurunearen eta gizarte modernoak eskuratzen ari diren energia kultura berriaren artean dagoen harremana.

BIZI BALDINTZAK

2014ko Bizi-baldintzei buruzko Inkestaren emaitzek erakusten dutenez, hobetu egin dira euskal familien bizi-baldintzak. Adierazlerik orokorrena hartzearren (gainera, Europarekin erkaketa egitea ahalbidetzen digu), esan behar dugu puntu eta erdi egin duela behera pobrezia eta gizarte bazterketa arriskuak azken urtean, %15,3raino. Intzidentzia hori nahikoa txikia da Estatuaren eta EBren testuinguruan, baina oraindik ere Euskadin 340.000 lagunek krisiaren

4 UEZ: Uraren Esparru Zuzentaraua: 2000/60/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta EBko Kontseiluarena, 2000ko urriaren 23koa, ur politikaren eremuan Batasuneko jarduketa esparrua ezartzen duena.

5 EBL (Berrikuntzarako Lankidetza) formula, EBk Europa 2020 (Berrikuntzaren aldeko Batasuna) ekimenaren barruan sortu duena, tresna bat da ukitutako sektore guztien artean berrikuntzari lotutako ahaleginak, baliabideak, politikak eta abar partekatzeko, ahalik eta lasterren ahalik eta eraginkorrena izan dadin. Uste da horrela emaitzak azkarrago helduko direla herritarrengana, jakintzaren aurrerapenei onura aterata. Formula hori urari ere aplikatzen zaio, eta horrela sortu da Urari buruzko EBL. Horri lotuta, honako hau ikus daiteke: (COM/2012/0216final). Azken batean, asmoa da, berrikuntzatik aurrera, ura zaintzea eta, aldi berean, ahalegin horri lotutako jarduera-sektore berriak sortzea.

ondorioak larriki pairatzen dituztela esan nahi du eta, gainera, oraindik ez dira berreskuratu krisiaren aurreko ongizate mailak.

Gainera kezkagarri iruditzen zaigu errentaren banaketa aztertzen duten adierazleek erakusten dutena: krisiaren ondorioen artean, desberdintasuna areagotu egin dela. Kohesioaren aldetik oso ondorio txarrak izan ditzakeen fenomeno globala da eta, era berean, erantzun globala eskatzen du. Horrek guztiak hazkunde iraunkorraren helburua lortzeko dakartzan erronka garrantzitsuez ohartarazi du Europar Batzordeak: soilik pertsonengan eta horien hezkuntzan inbertituta eta kalitatezko enplegua sortuta egin ahal izango da aurrera aberastasunaren banaketa handiagoa lortzeko bidean, baita emakumeek berdintasunez merkatuetan parte hartuta eta gizartearen babesa izanda.

Horrez gain, azpimarratu beharra dago oreka behar dela gizarte-ekoizpeneko ereduaren (aberastasuna sortzeko benetako ahalmena) eta elkartasun eta gizarte politiken artean. Ildo horretan, EAEk ahalegin handiak egiten ditu garapen maila handiei eusteko gizarte kohesio handiarekin.

Halaber, etxerik gabeko pertsonei dagokienez, esan behar dugu ezen, pertsona kopuru txikiari eragiten badio ere, pertsona uki dezakeen bazterketa-prozesuen ondoriorik tristeenetakoa dela. Berriz ere Europar Batzordearen tesiaren ildotik, gure ustez bizitegiaren arloko bazterketaren eta etxerik ezaren kontrako estrategiek berebiziko eginkizuna betetzen dutela ekonomia iraunkorrak garatzeko ikuspuntu ekonomikotik eta sozialetik. Estrategia horiek, gainera, krisiaren ondorengo aldirako estrategia publikoen baitan bildu beharko lirateke, zeren eta astintzen gaituen krisiaren aurretikoa baita etxerik gabekoen arazoa, krisiak arazoa areagotu badu ere.

Ildo horretan, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legea behar bezala aplikatzea izan daiteke egoera horren kontrako neurri eraginkorretako bat, Legeak dituen gizarte eskubide aurreratuekin, zeren eta bermatu egiten baitie alokairurako eskubidea alokairua behar dutenei, etxebizitza-eskubidea eskubide subjektibotzat hartzen duela eta. Horrez gain, pertsonak benetan gizarteratzeari dagokionez, pertsona horien laneratzea bultzatu beharko litzateke gizarteratzeko bide naturaltzat.

Edozelan ere, interesgarria izango litzateke Euskadiko etxerik gabeko pertsonen informazio ebolutiboa eta homogeneoa izatea (urteko garai berean eta udalerri beretan aldizkako kontaketak eginez), fenomenoaren jarraipena egin ahal izateko.

INTERESEKO TALDEAK: 55 URTETIK GORAKOAK

Kapitulu honetan, EAEko 55 urtetik gorakoen bizi-baldintzen egoera aztertu dugu, eta haien eguneroko bizitza osatzen duten alderdi ugariei buruzko laburpena eman da (baldintza materialak, osasun egoera, ikasketa maila, aisialdia, gizarte harremanak...).

Honako ondorio hau eman daiteke: adinari datxezkion osasun eta mendetasun arazoak gorabehera, adinekoek, oro har, nahikoa ongizate maila handia dutela gure gizartean, betiere pobreziari eta desberdintasunari buruzko informazioa nahiz taldeak berak ongizatearen gainean duen irudipena kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzak eginiko inkestatik ondoriozta daitekeenez. Oro har, familien eta lagunen harreman-egitura ona dute, ondo informatuta daude eta aktibo izatea ahalbidetzen dieten aisialdi jarduerak egiten dituzte. Datu horiek, gainera, bat datoz Euskadik zahartze aktiboaren Europako rankingean dituen posizioekin, Europar Batzordearen metodologiaren arabera.

Halaber, adinekoek familiaren eremuan ematen dituzten zaintzen eta laguntzen transferentzia balioetsi beharra dago. Inkestatik argi ondorioztatzen da aldeko balantzea laguntza eta zaintza ematean; izan ere, lagungarria da, zalantzarik gabe, familien ongizaterako. Belaunaldien arteko elkartasun horri esker, aldatzen ari da adinekoei buruz dagoen ikuspegia, hots, mendekotasunean bizi direla eta gastuak sortzen dituztela, familian nahiz gizartean. Aldi berean, familia askok beren gabezia ekonomikoen eta lana eta bizitza uztartzeko laguntzaren aldetik dituzten gabeziei aurre egiteko modua du.

Gainera, azaldutako profil demografikoaren egituraren izaera eta 55 urtetik gorakoek duten garrantzia kontuan izanik, gizarteak oro har gizarte harremanetako eredu berriak sortzen pentsatu behar du, aisialdi eta ekoizpen eredu berria, aberastasuna eta jarduerak sortzea adinekoen partaidetza aktiboarekin uztartu ahal izateko horiek sortzean bertan. "Zahartze Aktiboaren 2015-2020 Euskal Estrategia" abiarazita, Zahartze Aktiboko Indizea (ZAI) kalkulatuta eta zahartze horren lau dimentsiotan duen bilakaera jarraituta, norabide horretan aurrera egiteko modua dago.

Bestalde, sakonago eta modu globalean egin behar da gogoeta. Adinekoek gure gizartean duten etorkizunak zuzeneko lotura du gizarte osoarekin eta belaunaldien artean ezarritako kontratuarekin, ezin uler daiteke, gainera, dimentsio demografikoa, errealitate ekonomikoa eta soziala eta errealitate horren igurikapenak aintzat hartu barik. Izan ere, mundu globalaren eraldaketa ikaragarri handiek, sakonek eta azkarrek behartuta dago errealitatea.

Horregatik, bereziki nabarmendu nahi dugu ezen kapitulu honetan islaturiko datuetan agerian gelditu den populazioaren zahartze-prozesu trinkoa errealitatea dela, eta ondorio sakonak ditu: horiek ondorioak aztertu eta sakon eztabaidatu izan dira. Gogoeta honetan protagonista diren gizarte solaskideak bat datoz diagnostikoaren oinarrizko elementuekin, baina ez daude ados, zenbait kasutan ez daude batere ados, epe laburrera, ertainera eta epe luzera hartu beharreko edo komeni diren neurri espezifikoekin. Izan ere, gizarte zahartuaren ondorioen hedadura dela eta, hainbat eremutako politikak landu behar dira nahitaez, era askotako ondorioak dituztenak eta askotan bereziki ondorio zailak dakartzatenak (pentsioen sistema, gizarte babesa eta bere kostuen banaketa, lana uztartzea, familiaren babesa, gizonak etxeko zereginetan sartzea, belaunaldien eta taldeen arteko elkartasuna, adinekoek parte-hartze aktiboa izatea aberastasuna eta jarduerak sortzeko prozesuan, zaintzan duten baterako erantzukizuna, etab.).

Baina erronka zaila izanik ere, ezin atzeratu daiteke orain ere arlo honetako gizarte ituna, premiazkoa baita jada. Geroko gure adinekoen ongizatea, neurri handi batean, guztiok itundu beharreko politikak sortzeko duen konpromisoaren eta erantzukizunaren araberakoa da.

OSASUNA

Ohartarazi behar dugu heriotzen kopuru handi bat adinekoen adin-tarteetan gertatzen dela eta, beraz, osatu egin behar da bizi-esperantzaren (BI adierazlea jakiteko ea bizi-kalitatea osasun egoeran gertatzen den edo, bestela, jarduerako murrizketarekin edo ezintasunarekin garatzen den.

Zenbait adierazle, hala nola heriotza-tasa eta jarduera-murrizketa biltzen dituen bizitzako urte osasuntsuak (BUO) adierazleak edo osasun oneko bizi esperantza (OOBE) [6] adierazleak –badu diferentzia BUOrekiko: pertsonek beren osasun egoerari buruz duten pertzepzio subjektiboarekin haztatzen dira bizitza urteak- BI adierazlearenak baino emaitza txikiagoak erakusten dituzte.

Baina, gainera, agerian uzten dute genero-tartea aldatzen ari dela. Hala, BIren tartean emakumearen aldekoa da, baina BOU edo OOBI adierazleak aztertuz gero, alderantzizkoa gertatzen da, eta igotzeko joera dago.

Testuinguru horretan, eta zaila gerta badaiteke ere, komenigarria izango litzateke BOU eta OOBI hobetzeko neurriak hartzeko aukerari buruzko gogoeta egitea, eta bereziki emakumeei dagokiena.

Aldi berean, gure Memoria Sozioekonomikoen aurreko edizioetan adierazi izan dugunez, azaldutako egoerak ondorioak dakartza, gainera, herritarrentzat eta, beraz, neurri berriak behar dira ezinbestean politika sozialen eta familiaren politiken eta zaintzaileen laneko bizitza eta familia uztartzeko politiken eremuan.

Bestalde, nerbio-sistemaren gaixotasunek eragindako heriotzek guztizko heriotzen kopuruan duen pisua handitzen ari da, zeren eta gero eta biztanle gehiago iristen baita laugarren adinera. Hala eta guztiz ere, egia esan 2014an heriotzen %6,4 besterik ez ziren. Tumoreek eragindako heriotzak, berriz, %31,6 dira, eta %26,7 zirkulazio-aparatuari dagozkio. Hori dela-eta, biztanleriaren zati handi batek bizitza aktiboko zenbait urte ditu eta eduki ahal izango ditu

6 Osasun oneko bizitza itxaropena EBren Garapen Iraunkorreko Adierazleen barnean sartzen da Osasun Publikoaren atalean, baita EUROSTATen Genero Berdintasuneko Adierazleen baitan ere.

erretiroa hartutakoan eta, beraz, ezinbestean sustatu beharko da zahartze aktiboa, zeren eta pertsona helduak gizarteratzeko modu berriak sorraraz baititzake, baita jarduera ekonomoko nitxo berriak ere.

Beraz, adinekoen kopurua igotzen ari da eta, horrekin batera, zahartzearekin loturiko gaixotasunak. Gainera, mendekotasun erlazio berriak sortzen ari dira eta gora egiten du gizarte-osasunaren arloko eskariak eta berekin dakarren gastua. Testuinguru horretan, balorazio positiboa egiten dugu 2014an osasunaren arloko esfortzua BPGren %5 inguruan eusteari buruz eta EAE azterturiko epealdi osoan biztanleko gasturik handiena egiten duen Autonomia Erkidegoa izateari buruz.

Emaitza horiek ikusita (batez besteko okupazio-indizea mantentzea laguntza-jarduerako sarean, bizi-itxaropen handiagoa eta kirurgiako itxaronzerrenden bilakaera positiboa eta egoera konparatua Estatuko batez bestekoekin), garrantzizkoa dela deritzogu gastua zentzu handiagoz egitea lortzeko egiten ari den esfortzua, baina hartutako neurriek ez dute berekin ekarri behar gastu horren eraginkortasuna galtzea. Hots, gastua zentzu handiagoz egitea lortu da populazioaren osasunerako kaltegarria izan barik.

Eta gastua zentzu handiagoz egite horretan sakonduta, komenigarritzat jotzen dugu osasun zerbitzuen eremuan gero eta eragin handiagoa duen e-osasuna sartzea, zeren eta horri esker gure osasun sistemaren eraginkortasuna hobetzea lortuko baita.

Ildo horretan, gure ustez komenigarria da politika publikoek biztanleria sentsibilizatzea, informatzea eta prestatzea, ahalmen horretaz jabetuagoa egon dadin, jokabidearen aldetik nahiz ezagutzaren aldetik.

ETXEBIZITZA

Higiezinen merkatuaren bilakaerak egokitzapen-profila du oraindik ere, 2008an hasitako krisiaren ondorioz; izan ere, berriz ere egin dute behera prezioek, baina nabarmentzekoa da higiezinen arloko jarduera nolabait suspertu egin dela (bi urtez jarraian hazi da etxebizitzen salerosketa), baita eraikuntzako jarduera pribatua ere, baina ez publikokoa.

Nabarmen egokitu da eskaria azken urteetan, eta gutxi gorabehera %40 murriztu da etxebizitza eskuratu behar duten pertsonen taldea azken hiru urtean, familien finantza-ahalegin handiagoa gertatzen den unean, zeren eta finantza-ahalegin hori, batez besteko hileko hipoteka-kuotaren eta soldata-kostuaren arteko erlazioan neurtua, %29,6 baitzen 2015eko laugarren hiruhilekoan, aurreko urtean baino %2,6 gehiago. Alabaina, gora egin du etxebizitza aldatu edo birgaitu beharra dutela dioten familien kopuruak.

Horregatik guztiagatik, EGABen aburuz, bigarren eskuko etxebizitzen merkatuaren susperraldia eta onartu den azken Plan Artezkariaren aurrekontu-mugapenak aintzat hartuta, are garrantzi handiagoa duela, une honetan, etxebizitza sustatzeko plan publikoak birgaitzera bideratzeak. Gainera, etxebizitzen merkatuaren inguruan egiten diren jarduketa publiko guztiek alokairua indartu beharko lukete, etxebizitza berrien nahiz etxebizitza erabilien alokairua, talde behartsuenek etxebizitza eskuratzeko modu errazagoa izan dezaten.

IV. KAPITULUA

Gizarte babesa EAEn

Kapitulu honetan, gure Erkidegoko Gizarte Babesa osatzen duten eremu nagusien gaineko gainbegirada egingo dugu. Lehenik eta behin, EAEn gizarte babesean eginiko gastua berrikusiko dugu, eta EUSTATek EBren metodologia jarraituz eginiko kontuak emango ditugu. Ondoren, Gizarte Segurantzaren prestazioak eta pobreziaren eta gizarte bazterkeriaren kontrako borrokarako tresnak aztertuko dira, Diru-sarrerak Bermatzeari eta Gizarteratzeari buruzko 18/2008 Legearen ondoriozkoak. Jarraian, estatuko legearen ondoriozko mendetasunaren arretarako sistema EAEn ezartzeari buruzko ebaluazioa egingo da eta, azkenik, Euskadiko gizarte aurreikuspeneko sistema osagarrien zenbaki handiak aztertuko dira.

Bestalde, Europar Batzordearen 458/2007 Erregelamenduak gizarte babesaren eremuen sailkapenean berariaz sartzen ditu langabeziagatiko prestazioak. Hala ere, horiei buruzko informazioa (Estatuko Enpleguko Zerbitzu Publikoak –SEPE- kudeaturiko Gizarte Segurantzaren prestazioak) Memoria Sozioekonomiko honetako "*II. Lan merkatua*" deritzon kapitulura ekarri da, enpleguari buruzko politiken ikuspegi osoa emateko, politika aktiboak eta pasiboak batera aztertuta.

Gizarte Babesaren Estatistiken Europako Sistemaren (SEEPROS) arabera, Gizarte Babesa honela definitu behar da: "erakundeek gauzatutako jarduera guztiak, arrisku edo beharrizan jakin batzuek etxebizitzei eta norbanakoei sorrarazitako kargak arintzeko helburu dutenak, betiere aldibereko hitzarmenik, elkarrekikorik edo banakakorik ez bada"[1]. Gizarte babesaren arloko beste estatistika batzuetan ez bezala, adibidez Gizarte Segurantzaren Sistemetako erakundeek buruturiko ekintzak baizik biltzen ez dituen Lanaren Nazioarteko Bulegoarenean, SEEPROS metodologian edozein erakundetara zabaltzen da behaketaren eremua, publikoa nahiz pribatua izan, baldin eta definizio orokorreko beharkizunen araberako gizarte babeseko ekintzak burutzen baditu.

Kontzeptu hau definizioan aipatzen diren arriskuen eta beharren zerrendarekin osatzen da; funtzio deritze horiei guztiei. Hauexek dira: Gaixotasuna / Osasun arreta, Baliaezintasuna, Zahartzaroa, Bizirik irauten dutenak, Familia / Seme-alabak, Langabezia, Etxebizitza, beste inon sailkatuta ez dagoen gizarte bazterkeria.

Hasteko eta bat, EUSTAT erakundearen 2103ko "EAEko Gizarte Babesari buruzko Kontuaren" azken arabera[2], Euskadin helburu horretako guztira erabili ziren baliabideak 16.663,4 milioi eurokoak izan ziren lehen aipatutako urtean, hau da, 2012an baino % 1,9 gehiago. Esandako kopurua urte horretako BPGaren % 25,22 izan zen (+%5,4 2008aren aldean eta +%0,7 2012ko urtearen aldean), behin-behineko datuen arabera. Gizarte babesaren gastuak etengabe egin du gora eskuragarri dugun urteetako seriean, eta biztanleko gastua 6.402€ izan zen 2008n. 2013an, berriz, 7.698 (+%20).

IV.1.1. GRAFIKOA. GIZARTE PRESTAZIOEN GATUAREN BANAKETA EAE-N FUNTZIOEN ARABERA. 2013.



Iturria: Gizarte Babesaren Kontua

Administrazio gastuak deskontaturik, gizarte prestazioen balioa, zenbatespenen arabera, 16.375,3 milioi euro da, 2012an baino %2,1 gehiago. Funtzioen araberako prestazioen gastuari buruzko azterketak erakusten dutenez, "*Zahartzaroa*" funtzioari dagokion gastua da pisurik handiena duena, ostatuko eta etxeko laguntzako prestazioak eta

1 Ikusi Memoria honen amaierako terminoen glosategia.
2 Ikerketari buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikusi Memoria Sozioekonomiko honen 2014ko edizioa.

pentsioak barne dituela: 6.738 milioi euroko gastua da, guztizkoaren %41,1. 2012aren aldean, %4,3 egin du gora, %1,9ko batez besteko hazkundearen gainetik. Bigarren funtziorik garrantzitsuena "*Gaixotasuna/osasun arreta*" da, 2013an 4.103 milioi euroko gastua izanik, guztizkoaren %25,1. %1,1 jaitsi da 2012aren aldean, eta bigarren urtez jarraian izan du beherakada.

EUROSTAT erakundeak argitaratutako azken datuen arabera, 2012ko ekitaldian, gizarte babeseko gastua, erosteko ahalmenaren parekotasunean neurtuta, 7.940 eurokoa izan zen biztanleko Euskal Autonomia Erkidegoan. Zenbateko hori EBko batez bestekoaren (7.591 euro) eta Estatuko batez bestekoaren (6.027 euro) gainetik dabil.

IV.1.2. GRAFIKOA. GIZARTE BABESEKO PER CAPITA GASTUAREN BILAKAERA (€ PPC)



Iturria: EUSTAT. Gizarte Babesaren Kontua

1. GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK[3]

2015ean, milioi erdi lagun baino gehiago (541.191, lehen zenbatespenaren arabera) izan ziren gure Erkidegoko Gizarte Segurantza sistemako pentsioen onuradunak; hori aurreko urtean baino % 1,2 gehiago da, orduan ere % 1,4 hazi ondoren.[4]. Azken urteotan gertatu den legez, kopuruaren hazkundearen arrazoi nagusia dugu kontribuziozko pentsioen onuradun diren pertsonen hazkundea; izan ere, gainerako modalitateetan, oro har hartuta, kopurua beherantz doa. Hala, Gizarte Segurantzak emandako prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten EAEko biztanleen ehunekoa 24,9ra heldu zen.

IV.1.1. KOADROA. GIZARTE SEGURANTZAREN PENTSIOAK EAE-N, MOTA BAKOITZEKO. LABURPEN-TAULA

	2012	2013	2014	2015	%13/14	%14/15
ONURADUNAK (URTEKO B.B.)						
-KOTIZAZIOPEKO PENTSIOAK	508.200	516.600	523.900	530.200	1,4	1,2
-KOTIZAZIORIK GABEKO PENTSIOAK	10.230	10.449	10.772	10.991	3,1	2,0
GUZTIRA	518.430	527.049	534.672	541.191	1,4	1,2
- GIZTANLERIAREN - %	23,8	24,2	24,6	24,9	1,7	1,2
GASTUA (MILIOI €)						
-KOTIZAZIOPEKO PENTSIOAK	7.291,25	7.646,81	7.896,43	8.151,72	3,3	3,2
-KOTIZAZIORIK GABEKO PENTSIOAK	50,71	53,40	55,18	56,46	3,3	2,4
GUZTIRA	7.341,96	7.700,21	7.951,61	8.208,18	3,3	3,2
- BPG-AREN %	11,0	11,7	11,9	11,9	1,9	0,0

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuak erabilita egindakoa. Lan Estatistiken Buletina (*)Zenbatespena.

Kotizaziopeko pentsioei dagokienez (prestazioen %98,7 eta gastuaren %99,3), 2015ean 530.200 onuradun izan ziren guztia (+%1,2), eta eginiko zenbatespenen arabera, urteko gastua 8.151,72 milioi euro izan zen, 2014an baino %3,2 gehiago. Kotizaziorik gabeko pentsioek, bestalde, 10.991 pertsona hartzen zituzten guztira (4.870 erretiroaren modalitatean eta 6.121 baliaezintasunagatik). Hala, 56,5 milioi euroko gastua sortu zen urtean.

Labur esanda, EAEn pentsioetako gastua 2015ean, behin-behineko datuak erabilita, 8.208,18 milioi eurokoa izan zen guztira, 2014an baino % 3,2 gehiago. Hortaz, BPGd-an duen portzentajea berdin mantentzen da, 11,9aren inguruan (EUSTATen behin-behineko datuak kontuan hartuta).

1.1. GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK TRANSFERITU GABEKO KUDEAKETAREKIN

2015. urtean 530.200 pertsona izan ziren Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsioen onuradunak EAEn, Estatuko guztizkoaren %5,7, aurreko urtean baino %1,2 gehiago. Pentsio mota bakoitzeko, ezintasun iraunkorragatiko jasotzaile kopurua % 0,7 murriztu da azken urtean; aldiz, erretiroagatiko jasotzaileak % 1,8 handitu dira, eta alarguntzagatiko jasotzaileak % 0,3. Azkenik, zurztasunagatiko kotizaziopeko pentsioen jasotzaileen kopurua % 2,3 handitu da.

Goian aipatutako pentsioen batez besteko zenbatekoa 1.098,20 eurokoa izan zen hilean (estatuko batez bestekoa baino % 23,8 gehiago), hau da, 2014ko ekitaldian baino % 2 gehiago. 2015eko abenduan, EAEko batez besteko pentsioa 1.106,81 eurokoa zen eta % 2,1 hazi zen 2014ko abenduko zenbatekoaren aldean. Beste alde batetik, hil horretara arte, urte arteko KPIren aldakuntza % +0,3koa izan zen.

3 Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak kudeatzen dituen transferitu gabeko Gizarte Segurantzaren prestazioak bi motatakoak dira:

•Ordaindutakoaren araberakoak, hau da, lehenago kotizatutako zenbatekoaren eta kotizazioa egin den epearen arabera ematen dira. Ez dute iraupen zehatzik eta Gizarte Babesaren gastu osoaren % 50 dira gutxi gorabehera. Prestazio horien eginkizuna honako hau da batez ere: Baldintza jakinak betez prestazio horren eskubidea lortu duten pertsonei errentak lortzeko orduan jarraitutasuna bermatzea laneko bizitza amaitzea eragin dezaketen arriskuen ondorioz errenta horiek eteten direnean.

•Ordaindutakoaren araberakoak ez diren prestazioak, esate baterako, erretiro eta baliaezintasun pentsioak (ordaindutakoaren araberakoak ez direnean) eta amatasunagatiko eta familiek jasotzen dituzten prestazioak.

4 Kalkulu honetatik kanpo utzi dira laguntzako pentsioak eta MGLren ondoriozkoak; izan ere, desagertuz doaz eta horiei buruz ez dugu informazio eguneraturik 2006az geroztik. Nolanahi ere, %0,4tik beherako pisua du guztizkoarekiko.

IV.1.2. KOADROA. EAE-N GIZARTE SEGURANTZAREN KOTIZAZIOPEKO PENTSIOEN BATEZ BESTEKO ZENBATEKOA ETA JASOTZAILE KOPURUA							
	2013	2014	2015	% 2015	2015eko LGSren %<	%13-14	%14-15
Jasotzaile kopurua							
GUZTIRA	516.600	523.900	530.200	100,0		1,4	1,2
EZINTASUN IRAUNKORRA	43.500	42.800	42.500	8,0		-1,6	-0,7
ERRETIROA	322.300	328.800	334.600	63,1		2,0	1,8
ALAGUNTZA	134.000	134.800	135.200	25,5		0,6	0,3
ZURZTASUNA / FAMILIAREN ALDE	16.800	17.500	17.900	3,4		4,2	2,3
Batez besteko zenbat. (euro/hileko)							
GUZTIRA	1.057,3	1.076,6	1.098,2	100,0	169,3	1,8	2,0
EZINTASUN IRAUNKORRA	1.158,7	1.171,0	1.181,7	107,6	182,2	1,1	0,9
ERRETIROA	1.210,7	1.235,5	1.262,8	115,0	194,7	2,0	2,2
ALAGUNTZA	730,3	739,3	748,8	68,2	115,4	1,2	1,3
ZURZTASUNA / FAMILIAREN ALDE	458,9	458,9	462,2	42,1	71,3	0,0	0,7

Iturria: ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA MInisterioaren datuetan oinarrituta eginikoa, "Lan Estatistiken Buletina".

Erretiroagatiko pentsioari dagokionez (Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsioa jasotzen dutenen %63,1ek jasotzen du), batez besteko zenbatekoa 1.262,8€ da hilean 2015. urtean, 2014an baino %2,2 gehiago. Bestalde, gora egin dute 2015ean pentsioen batez besteko zenbateko guztiek, batez bestekoaren azpitik bada ere: alarguntasunagatiko pentsioak %1,3, ezintasun iraunkorrekoak %0,9 eta umezurztasunekoak %0,7. Batez besteko zenbatekoa 748,75, 1.181,68 eta 462,25€ dira hurrenez hurren.

Bestalde, pentsioetako gastu osoaren zenbatekoa % 3,2 handitu zen. Alderatzen badugu aipatutako gastuaren bilakaera Gizarte Segurantzan afiliatutako langile kopuruarekin balioetsi ahal izango dugu pertsona afiliatu bakoitzaren ahalegina zein den (euro/hila) pentsio horiek ordaintzeko. 2015ean 655,48 eurokoa zen hileko, aurreko urtean baino % 1,3 gehiago; izan ere, pentsioak ordaintzeko gastua handitu da eta kotizatzaileen kopurua ere bai neurri txikiagoan bada ere.

IV.13. KOADROA. PENTSIOEN ARLOKO AHALEGINAREN HURBILKETA EAE-N					
Urteak	Kotizaz. pentsioak (1)	B.b. zenbat., €/hileko (2)	Zenbat., guzt, €hileko(3) =(1)*(2)	G.S.ko afiliatuak* (4)	Ahalegina: €/hilean afiliatuko (3) / (4)
2010	494.800	966,1	478.026.280	925.800	516,34
2011	501.800	995,7	499.642.260	919.600	543,33
2012	508.200	1.024,8	520.803.360	896.000	581,25
2013	516.600	1.057,3	546.201.180	868.600	628,83
2014	523.900	1.076,6	564.030.740	871.300	647,34
2015	530.200	1.098,2	582.265.640	888.300	655,48
% Var 14	1,4	1,8	3,3	0,3	2,9
% Var 15	1,2	2,0	3,2	2,0	1,3

Iturria: ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAko Ministerioaren datuak oinarri hartuta egindakoa.
** Gizarte Segurantzan alta egoeran dauden kotizatzaileak.*

Beste alde batetik, 2014an (datu ofizialak eskuragarri dauden azken urtea) Gizarte Segurantzako Sistemak 6.448 milioi euro bildu zituen guztira EAEn, aurreko ekitaldiko kopuru bera, eta estatuan guztira bildutakoaren %6,6 (2013ko ratio bera). Zenbateko hori gure erkidegoko urte horretako BPGd-ren %9,63 da, behin-behineko datuen arabera (%9,79 aurreko urtean). Bildutako kopuru horretatik 1.075 milioi Arabari dagozkio (% 16,7), 2.143 Gipuzkoari (% 33,2) eta 3.230 milioi Bizkaiari (% 50,1).

IV.1.1. GIZARTE SEGURANTZAREN KOTIZAZIOETATIK BILDUTAKOAREN BILAKAERA EAE-N



(*) Langabezia, LH eta FOGASA barik.
Iturria: GSDOren datuekin eginikoa

IV. KOADROA. GIZARTE SEGURANTZAREN DIRUZAINTZA OROKORRAREN KUOTEN DIRU-BILKETAREN BILAKAERA EAE-N. MILIOI EUROTAN.								
	Milioi eurotan				%	Aldak. %		
	2011	2012	2013	2014	2014	2011-12	2012-13	2013-14
OROKORRA	4.701	4.645	4.690	4.722	73,2	-1,2	1,0	0,7
AUTONOMOAK	661	676	681	691	10,7	2,3	0,7	1,5
NEKAZARITZAKOA*	3	0	0	0	0,0	0,0	-	-
ITSASOKO LANGILEAK	28	26	27	28	0,4	-7,1	3,8	3,7
ETXEKO LANGILEAK*	30	12	0	0	0,0	-60,0	-100,0	-
IKATZAREN MEATZARITZA	0	0	0	0	0,0	0,0	-	-
LI ETA LG KUOTAK (DIRUZAINTZA)	6	7	7	7	0,1	16,7	0,0	0,0
SEPE-KO LANGABEAK	553	544	468	410	6,4	-1,6	-14,0	-12,4
GSDO-REN KUOTAK, GUZT (A)	**5.982**	**5.911**	**5.874**	**5.858**	**90,8**	**-1,2**	**-0,6**	**-0,3**
LI ETA LG MUTUALITATEAK	427	406	391	399	6,2	-4,9	-3,7	2,0
ITC KOMUNAK	199	180	179	187	2,9	-9,5	-0,6	4,5
JARDUERA UZTEA	4	5	5	5	0,1	25,0	0,0	0,0
MUTUAK GUZTIRA (B)	629	590	575	590	9,2	-6,2	-2,5	2,6
GS-KO SISTEMAREN DIRU-B., GUZT (A+B)	**6.612**	**6.502**	**6.449**	**6.448**	**100,0**	**-1,7**	**-0,8**	**0,0**
LANGABEZIERAKO BILDUTAKO KUOTAK	1.131	1.088	1.056	1.071	16,6	-3,8	-3,0	1,4
FOGASA	29	28	27	28	0,4	-3,4	-3,6	3,7
LANBIDE HEZIKETA	123	120	118	119	1,8	-2,4	-1,7	0,8

Iturria: GSDOren datuekin eginikoa. Urteko memoriak.
** Araubide horien bilketa desagertu egin zen 2012az geroztik, zeren eta harrezkero araubide orokorraren barruan sartzen baita Nekazaritza, Inoren Konturako eta Etxeko Langileen araubide berezien bilketa*

Zenbateko horren % 90,8 Gizarte Segurantzaren kuotei dagokie; gainerako % 9,2a, aldiz, lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen mutualitateetatik ondorioztatutakoa da. % 73,2en jatorria erregimen orokorra da eta 4.722 milioi euro dira guztira (aurreko urtearekin alderatuta % +0,7). Halaber, Gizarte Segurantzak Langabeziari, FOGASAri eta Lanbide Heziketari dagozkien kuotak ere biltzen ditu. EAEn horien zenbatekoa guztira 1.218 milioi euro izan ziren 2014an, aurreko urtean baino 17 gehiago.

Gizarte Segurantzaren pentsioen ziozko gastua Euskal Autonomia Erkidegoan eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren kuoten bilketaren zenbatekoak erkatzen baditugu 2014. urteari dagokienez (horixe baita aipatutako bi datuak eskura ditzakegun azken urtea) gure zenbatespenen arabera, gastua 7.896 milioi eurokoa izan zen; sarrerak, berriz, 6.448 milioi eurokoak. Beraz, saldoa negatiboa izan zen, 1.448 milioi eurokoa eta aurreko urtean ere negatiboa izan zen, -1.198 milioi eurokoa.

IV.1.5. KOADROA. KOTIZAZIOPEKO PENTSIOEN GASTUEN ETA GSDO-REN KUOTEN BILKETAREN BILAKAERA EAE-N (MILIOI EUROTAN)						
	2012	2013	2014	2015	Ald. %	Ald. % 15
G.S.KO KONTR. PENTSIOEN GASTUA*	7.291	7.647	7.896	8.152	3,3	3,2
GSDO-K BILDUTAKO KUOTAK	6.502	6.449	6.448	..	0,0	..
SALDOA	-789	-1.198	-1.448	..	20,9	..
SARRERA / GASTUA	0,89	0,84	0,82	..		

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren datuekin eginikoa.
**Zenbatespena baizik ez dira pentsioen gastuaren zenbakiak. Ikus kapitulu honetako 3. orri-oina.*

Kotizaziopeko pentsioen sarreren eta gastuen arteko bilakaera desberdinaren ondoriozkoa da, beste urte batez, emaitza defizitarioa. 2014an, %3,3 hazi zen gastua. Sarrerak, berriz, ez ziren aldatu. Hori dela eta, kotizaziopeko pentsioen saldo negatiboak gora egin eta are larriagoa bihurtu da EAEn, 2013aren aldean %20,9 hazi baita. Urte horretan %51,8 egin zuen gora.

1.2. TRANSFERITUTAKO KUDEAKETA DUTEN GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK: KOTIZAZIORIK GABEKO PRESTAZIOAK

Ordaindutakoaren araberakoak ez diren prestazioak inoiz kotizatu ez duten edo kotizaziopeko prestazioak lortzeko behar besteko denboraz kotizatu ez duten eta iraupeneko bitartekorik ez izateagatik beharrizan-egoeran dauden pertsonei ematen zaizkienak dira. Errenta ekonomiko bat aitortzeaz gain, laguntza mediko eta farmazeutikoa eta gizarte zerbitzuak jasotzeko eskubidea ere badute; hortaz, beharrizan-egoeran egonez gero estaldura osoa ematen diete.

Pentsio horien jatorria abenduaren 20ko 26/1990 Estatuko Legea da, Gizarte Segurantzaren Egitura eta Babesa Arrazionalizatzeko Premiazko Neurriei buruzko 26/1985 Legean hasitako erreformak osatu zituena.

Estatuan autonomia erkidegoek dute eskumena. Aldiz, EAEn, eginkizunak eta zerbitzuak besterendu ondoren, prestazioa aitortzea, kudeatzea eta finantzatzea foru aldundiei dagokie. Ordaindutakoaren araberakoak ez diren prestazioak hiru motatakoak dira: Gizarte Segurantzaren kotizaziorik gabeko pentsioak, laguntzako pentsioak eta MGL prestazioak. Jasotzen den zenbatekoa errenten eta norberaren egoeraren arabera ezartzen da.

1.2.1. Gizarte Segurantzaren kotizaziorik gabeko pentsioak

EAEko Foru Aldundiek emandako kotizaziorik gabeko pentsioak, kopuruari eta zenbatekoari dagokienez, kotizaziorik gabeko prestazioen artean nabarmenenak dira. Diru-sarrera nahikoak ez dituzten pertsonei daude zuzenduta (diru-sarrerak nahikoak ez direla zehazteko, urteko diru-sarreren baturak pentsioaren urteko zenbatekoak bano txikiagoa izan behar du) eta zenbatekoak urtetik urtera gora egiten du.

Guztira 10.991 lagunek jaso zituzten pentsio horiek 2015ean (batez besteko datuak), 4.870 lagunek erretiro gisa eta 6.121 baliaezintasunagatik, aurreko urtean baino %2k gehiago.

IV.1.6.KOADROA. GIZARTE SEGURANTZAREN KOTIZAZIORIK GABEKO PENTSIOAK EAE-N: ADIERAZLE NAGUSIAK.

	ONURADUNAK (URTEKO B.B.)			HILEKO ZENBAT. (€)
	ERRETIROA	BALIAEZIN TASUNA	GUZTIRA	
2010	4.311	5.638	9.949	339,70
2011	4.399	5.708	10.107	343,10
2012	4.494	5.736	10.230	354,10
2013	4.677	5.772	10.449	364,90
2014	4.731	6.041	10.772	365,90
2015	4.870	6.121	10.991	366,90
Ald. % 12/13	4,1	0,6	2,1	3,0
Ald. % 13/14	1,2	4,7	3,1	0,3
Ald. % 14/15	2,9	1,3	2,0	0,3

Iturria: GSEMren datuekin egindakoa. Lan Estatistiken Buletina.

Kotizaziorik gabeko pentsioen zenbatekoak Estatu osorako ezartzen dira urtero. 2015erako 366,90€ finkatu ziren hileko erretirorako zein % 65eko mailako edo horretatik gorako baliaezintasunerako.

Zenbateko horiek aintzat hartuta, pentsio horien ziozko gastua, gutxi gorabehera, 56,5 milioi eurokoa izan zen 2015eko ekitaldian, hau da, 2014an baino % 2,4 gehiago, baina esan beharra dago ez dakigula zenbateko zehatza zein izan zen.

1.2.2. Gizarte Ongizateko Funtsaren laguntzako pentsioak

Foru Aldundiei transferitutako Gizarte Segurantzaren laguntzako pentsioak banakako laguntza ekonomikoak dira, aldian behingoak eta mugagabeak, adinekoen (65 urtetik gorakoak) eta gaixoen edo erabateko ezgaitasun iraunkorra dutenen alde, bizirik irauteko bitarteko ekonomikorik ez badute (euren urteko diru-sarreren batura batez besteko pentsioaren urteko zenbatekoa baino txikiagoa denean). Prestazio-mota horiek apurka-apurka indargabetu ziren 5/1992 Errege Lege Dekretua indarrean hasi zenetik eta, beraz, ezin da altarik izan data horretatik aurrera. Hori dela eta, ordura arte aitortutako pentsioei bakarrik eusten zaie, baldin eta onuradunek kotizatu gabeko pentsioak jasotzeko hautua egin ez badute (oro har, azkenek zenbateko handiagoa dute).

Ez dakigu zehatz-mehatz atal honetan hizpide darabiltzagun prestazioen zenbat onuradun geratuko diren. Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak 2006an eman zuen datu horren berri azkeneko aldiz eta, Euskal Autonomia Erkidegoan, bostehun bat jasotzaile zeuden. Laguntza horren zenbatekoa ez da aldatu 2000. urtetik eta 149,86 eurokoa da hilean. Gainera, onuradunek bi aparteko sari aitortuta dauzkate urtean[5].

1.2.3. MGL prestazioak

Gutxienez %65eko ezintasuna duten 18 urtetik gorako pertsonentzat dira Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzko 13/82 Legean (MGL) aintzatetsitako prestazioak, betiere diru-baliabide urriak badituzte eta arauan ezarritakoaren arabera. Halaber, Lege horren ondoriozkoak dira ezinduek enplegua eskuratzeko eta mantentzeko prozesuetan aukera-berdintasuna bermatzea indartzeko hainbat ekimen, ohiko enpleguan nahiz babesturiko enpleguan. Lanbidek gure Erkidegoan buruturiko ekimenak dira.

MGLren sorospenak indargabetuta gelditu ziren Estatuko 26/1990 Legea indarrean sartu zenetik. Horren bidez, kotizaziorik gabeko prestazioak ezarri ziren Gizarte Segurantzan eta, beraz, Gizarte Ongizatearen Funtseko laguntzako prestazioekin gertatzen den bezala, MGLren prestazioen onuradunak jaitsi egiten dira urtez urte.

2008an (datuak dituen azken urtea), MGLren 680 onuradunak honela banatu ziren EAEn: 603 GSBSko prestazioetan, 77 HLSkoetan eta 28 MGGSkoetan. Sorospen horien jaitsiera nahikoa handia izan da; izan ere, orain dela hamar urte 5.000 pentsio zeuden aintzatetsita. 2008ko ekitaldian, prestazio horien zenbatekoa 1,4 milioi eurokoa izan zen[6].

5 2014ko ekitaldian, gehienez ere milioi bat eurokoa izango zen gastu hori ez da aintzat hartuko kapitulu honen atarian egin den EAEko pentsioetako gastu agregatua kalkulatzeko.

6Gastu hori ez da aintzat hartuko kapitulu honen atarian egin den EAEko pentsioetako gastu agregatua kalkulatzeko.

2. POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKERIAREN AURKAKO NEURRIAK EAE-N

Txirotasuna, tradizioz, gizarte desberdintasunei eta diru-sarreren maila txikiko biztanleria-kapei lotuta egon da. Azken urteotan, aldiz, gure gizartean gertatutako aldaketekin batera bai ekonomiari, bai gizarteari, bai familiari lotutakoak , marjinazio mekanismo berriak agertu dira; ekonomia hutsari lotutakoaz gain, beste eragile batzuk piztu dituzte gizarte bazterkeriako prozesuak.

EAEn txirotasunari, marjinazioari eta gizarte bazterkeriari aurre egiteko tresna nagusien artean, Gizarte Zerbitzuen Legean, Bazterkeriaren aurkako Legean eta Gizarte Eskubideen Kartaren Legean kokatuta, azken urteotan egungo Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (lehen Oinarrizko Errenta) eta Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL) izan dira. Txirotasunaren aurka borrokatzeko osoko planaren baitako gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko programak dira biak. Horiek ez ezik, gizarteratze, prestakuntza eta laneratze programak ere badaude, partaideen (laneratze enpresak sortu ahal izatea aintzat hartu da), udalen eta bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen arteko hitzarmenen bidez.

2009. urtean, abenduaren 23ko Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legea hasi zen indarrean. Lege horren helburu nagusiak ditugu, alde batetik, Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema eratzea, sistema autonomiadun gisa —gizarte-zerbitzuek eta enplegu-zerbitzuek parte hartzen dute sistemaren kudeaketan eta herri-erakundeen beste arlo batzuek ere laguntzen dute—, eta bestetik, Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren jardunbide-abiaburuak eta egiturazko oinarriak finkatzea, euskal herritarrek modua izan dezaten prestazio ekonomikoei eta gizarteratzeko nahiz laneratzeko tresnei heltzeko, berdintasunean eta ekitatean oinarrituta, betiere beharrezko neurriak hartuta tresnon batekotasuna bermatzeko lurralde osoan[7].

IV.2.1. GRAFIKOA. SARRERAK BERMATZEKO EUSKAL SISTEMAREN PRESETAZIOEN GASTUAREN BILAKAERA (MILIOI EUROTAN)



Iturria: Gizarteratzearen Zuzendaritzako datuetan oinarrituta eginikoa. EUSKO JAURLARITZA
** 2015ean, DBE gehi EPO batuta lortzen den guztizko gastua adierazten da, 500 milioi euro. GLLren datua ez da zenbatespena*

Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak, 2015ean, 525,2 milioi euro gastatu zituen orotara, aurreko urtean baino %5,5 gehiago. Honelaxe daude banatuta: 500 milioi Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzaren Prestazio Osagarriaren baturan eginiko gastuari dagozkio (2014an baino %5,8 gehiago), baina Memoria hau bukatu den egunean, ez dakigu zehazki zelan dauden banakatuta bi prestazioak, elkarren osagarriak baitira (DBEren %40k gutxi gorabehera EPO jasotzen du). Eginiko zenbatespenen arabera, EAEko Diru-sarrerak Bermatzeko Sistemaren gastu agregatua kalkulatze aldera, mantendu egin dira 2015ean Gizarte Larrialdirako Laguntzetarako 2014an erabilitako 25,2 milioi euroak (Sistemaren guztizkoaren %4,8), laguntzari buruzko datu ofizial izan arte.

7 18/2008 Legeari eta lege horrek ekarritako berrikuntzei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jo beza irakurleak Memoria Sozioekonomiko honen 2009. urtetik 2012. urtera arteko edizioetara.

Prestazio horiek EAEko bizi-baldintzetan dituzten ondorioei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren "Txirotasunari eta gizarte desberdintasunei buruzko Inkesta"k (TGDI) uste du 2014an pobrezia atalasearen azpitik bizi diren pertsonak Euskadin % 38,7 murriztu direla, laguntza horien ondorioz. Prestazio horiek izan gabe benetako txirotasun egoeran dauden pertsonak biztanleriaren % 9,6 dira (207.898 lagun), baina prestazio horiek banatu ondoren portzentajea % 5,9koa da (127.399 lagun, %3,3, arreta jaso arren pobreziatik irteten ez dena, gehi arreta jasotzen ez duen %2,6). Aurreko inkesten aldean, diru-sarrerak bermatzeko sistemaren eraginkortasuna mantendu egin da, eta are gehiago, handitu egin da, zeren eta 2008an %31,3ko ekarpena egiten baitzuen pobrezia gutxitzeko eta %37,5ekoa 2012an.

IV.2.1. KOADROA. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO SISTEMAREN ERAGINA (DBO+EPO+GLL) POBREZIA ERREALEAN EAE-N

		ABS.	BIZT. OSOAREN %	ARRISKU-TALDEAREN %
2014	SISTEMAREN ARRETAREN JASOTZ.	151.591	7,0	72,9
	- POBREZIATIK IRTEN EZ DIRENAK	71.092	3,3	34,2
	- POBREZIATIK IRTETEN DIRENAK	80.499	3,7	38,7
	ARRETARIK JASO EZ DUTENAK	56.307	2,6	27,1
	POBREZIA ERREALA, GUZTIRA	207.898	9,6	100,0
2012	SISTEMAREN ARRETAREN JASOTZ.	133.267	6,1	72,6
	- POBREZIATIK IRTEN EZ DIRENAK	64.383	3,0	35,1
	- POBREZIATIK IRTETEN DIRENAK	68.884	3,2	37,5
	ARRETARIK JASO EZ DUTENAK	50.313	2,3	27,4
	POBREZIA ERREALA, GUZTIRA	183.580	8,5	100,0
2008	SISTEMAREN ARRETAREN JASOTZ.	83.023	3,9	63,6
	- POBREZIATIK IRTEN EZ DIRENAK	42.165	2,0	32,3
	- POBREZIATIK IRTETEN DIRENAK	40.858	1,9	31,3
	ARRETARIK JASO EZ DUTENAK	47.542	2,2	36,4
	POBREZIA ERREALA, GUZTIRA	130.564	6,1	100,0

Iturria: EUSKO JAURLARITZA, PGDI 2014.

2.1. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO SISTEMAREN PRESTAZIOAK

2.1.1. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta

Diru-sarrerak bermatzeko errenta Oinarrizko Errenta zeritzon prestazioa ordeztu du eta ondokoei aitortzen zaie: EAEn erroldatutakoei (gutxienez urtebeteko antzinatasuna izan behar dute), baldin eta oinarrizko beharrizanei eta gizarteratze nahiz laneratzeko beharrizanei erantzuteko baliabide ekonomiko nahikorik ez badute, betiere 18/2008 Legeak eta berau garatzeko araudian ezarritako baldintzak betetzen badira[8].

IV.2.2. KOADROA. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA: GASTUAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKO BAKOITZEAN

	2011	2012	2013	2014	Aldak. % 2012/13	Aldak. % 2013/14
ARABA	43,89	51,87	56,8	64,5	9,5	13,6
GIPUZKOA	51,84	61,10	74,0	84,2	21,1	13,8
BIZKAIA	234,61	230,82	228,3	239,4	-1,1	4,9
EAE	330,34	343,79	359,1	388,1	4,5	8,1

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarteratzearen Zuzendaritza.

8 http://www.lanbide.euskadi.eus/rgi/-/informacion/rgi-legislacion-y-normativa/

Diru-sarrerak bermatzeko Errentaren kontzeptuan 2014an (informazio ofiziala dugun azken urtea) ordaindutako guztizko kopurua 388,1 milioi euro da (2013an baino %8,1 gehiago).Gehikuntza hori heterogeneoki banatzen da autonomia erkidegoko hiru lurraldeetan zehar. Hala, igoerarik handienak Gipuzkoan (+%13,8) eta Araban (+%13,6) izan ziren. Bizkaian, berriz, igo egin zen, baina gainerakoetan baino gutxiago (+%4,9).

IV.2.2. GRAFIKOA. DBE: TITULAR HARTZAILEEN BILAKAERA ABENDUAREN 31N, LURRALDEKA



	2010	2011	2012	2013	2014	2015
BIZKAIA	37.955	36.796	37.496	39.719	40.451	39.990
GIPUZKOA	9.904	11.424	12.482	14.102	15.314	15.077
ARABA	7.161	7.539	8.001	8.996	9.918	9.659
EAE. GUZTIRA	55.020	55.759	57.979	62.817	65.683	64.726

Iturria: LANBIDE.

Bestalde, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten bizikidetza-unitateen kopurua, 2015ean, 64.726 izan zen (abenduko datua), hots, %1,5eko jaitsiera aurreko urtearen aldean, 15 urtez etengabe hazi ondoren (1999 eta 2014 bitartean. Izan ere, 65.687 bizikidetza-unitatek jaso zuten arreta orduan. Lurraldearen arabera, Bizkaian egon zen jasotzaileen kopuru handiena, guztira 39.990, hau da, EAEko jasotzaile guztien % 61,8. Gipuzkoan, jasotzaileen % 23,3 egon ziren eta Araban onuradunen % 14,9.

LANBIDEren 2015eko espediente aktiboen fitxari esker, jakin badakigu 64.726 pertsona titular zeudela inskribatuta, %44 gizonezkoak ziren eta %56 emakumezkoak. Onuradun gehien biltzen dituen adin-tartea 40-59 urte bitartekoa da (guztizkoaren %40), eta nabarmentzekoa da ere 6.000 jasotzailek 30 urte baino gehiago dituztela. LANBIDEK azpimarratu duenez, bizikidetza-unitate jasotzailearen pertsona titularraren profila 40 urteko emakumea da, oinarrizko ikasketak dituena (%65,2k nahitaezko ikasketak ditu, %10,2k lanbide tituluren bat eta %4k unibertsitateko titulazioa). Horrez gain, prestazioa jasotzen duten atzerritarrak guztizkoaren %36,1 dira (%27,2 2014an), eta titular jasotzaileen %25,1 pentsiodunak dira (%25,9 2014an). Bestalde, unitate jasotzaileen %19k soldata-errentaren osagarri gisa jasotzen dute DBE.

DBEren osagarriei dagokienez, lehenbizikoa Etxebizitzaren Prestazio Osagarria da, aurrerago ikusiko denez, 29.154 bizikidetza-unitatek jasoa erreferentziako datan (+471 aurreko urtearen aldean). Aldi berean, aipaturiko unitate horien 9.655 pertsona titularrek osagarria jasotzen dute guraso bakarra izateagatik (2014. urtean baino 150 gehiago hain zuzen ere).

Bestalde, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasunaren Ministerioaren “Gizarteratzeko Gutxieneko Errentei buruzko txostena”ri esker, autonomia erkidegoetako sarrerak bermatzeko sistemen kopuru handien konparaziozko jarraipena egin daiteke, sistema horiek garatzeko araudien heterogeneotasuna eta garapen maila ezberdinak kontuan izanik betiere.

2014ko ekitaldiari buruzko txostenaren arabera, urte horretan gure erkidegoak 5.529 euro gastatu zuen urtean prestazio horien titular bakoitzeko, estatuko 4.416 euroko batez bestekoaren aldean (%25,2 gehiago), eta haren estaldura-tasa 35,97koa izan zen mila biztanleko. Estatuko batez bestekoa, berriz, 5,65 izan zen mila biztanleko.Azterlanaren arabera, Estatua prestazio horietarako diren funts guztien %37,31 izan zuen gure Erkidegoak (DBE gehi EPOrako) aipaturiko urtean, baina portzentaje hori handiagoa da kontuan hartzen badugu guztizko zenbatekoa ez dela eguneratu aurreko ekitaldiaren aldean eta Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioaren txosten horretan zero hazkundea zenbatetsi dela 2013aren aldean. DBE gehi EPOrako gastu erreala, 2014an, 472,4

milioi euro izan zen, arestian ikusi dugunez. Zenbateko hori kontuan izanik, funtsen %39,24ko partaidetza du EAEn estatuko guztizkoan.

Bestalde, DBEren oinarrizko kopurua 665,90€ da hilean, Estatuko batez bestekoa baino %58,3 gehiago, autonomia erkidego guztietatik handiena.

IV.2.3. KOADROA. GIZARTERATZEKO GUTXIENEKO ERRENTAK AUTONOMIA ERKIDEGOKA. 2014KO DATUAK.

	Estaldura-tasa (1.000 bizt.)		Titular jasotzaileak			Gastua (milioi €)		
	2013	2014	Abs. 2014	% 2014	Aldak. % 13/14	Abs. 2014	% 2014	Aldak. % 13/14
ANDALUZIA	6,60	2,69	22.636	8,57	-59,4	90,66	7,77	-9,4
ARAGOI	5,37	5,82	7.717	2,92	6,6	28,65	2,46	27,4
ASTURIAS	11,43	14,64	15.540	5,88	27,3	82,36	7,06	39,3
BALEARS (ILLES)	2,02	2,67	2.941	1,11	30,7	9,27	0,79	32,2
U. KANARIARRAK	2,77	3,34	7.024	2,66	19,7	26,5	2,27	29,6
KANTABRIA	7,89	11,29	6.643	2,51	42,2	17,4	1,49	16,0
GAZTELA-MANTXA	0,62	1,22	2.528	0,96	94,9	5,5	0,47	104,5
GAZTELA-LEON	4,12	5,44	13.560	5,13	30,7	55,0	4,71	18,1
KATALUNIA	3,31	3,60	27.071	10,24	8,3	162,0	13,88	22,0
CEUTA	4,88	4,48	381	0,14	-7,3	0,8	0,07	42,9
EXTREMADURA	1,15	8,94	9.834	3,72	676,8	17,5	1,50	806,7
GALIZIA	4,08	4,39	12.071	4,57	7,0	44,1	3,78	20,2
MADRIL	3,05	3,73	24.101	9,12	21,8	99,1	8,49	16,0
MELILLA	6,92	10,90	921	0,35	59,1	3,1	0,27	78,2
MURTZIA	1,66	2,20	3.230	1,22	32,3	7,2	0,62	20,6
NAFARROA	14,70	18,28	11.715	4,43	23,7	49,0	4,20	30,8
EAE	**34,00**	**35,97**	**78.745**	**29,80**	**5,7**	**435,4**	**37,31**	**0,0**
ERRIOXA	6,87	7,82	2.494	0,94	12,7	6,9	0,59	20,8
VALENTZIAKO E.	2,32	3,02	15.127	5,72	27,8	26,7	2,29	13,3
ESTATUA	5,48	5,65	264.279	100,0	2,3	1.167,0	100,0	12,0

Iturria: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasuneko Ministerioaren datuak erabilita egindakoa. Gizarteratzeko Gutxieneko Errenten txostena 2014.

2.1.2. Etxebizitza gastuetarako Prestazio Osagarria

Etxebizitza gastuetarako Prestazio Osagarria (EPO) eskubide subjektiboko prestazio bilakatzeak sistemaren funtsezko osagai bihurrarazi du, eta 18/2008 Legearen helburua islatzen du: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta osatzeko prestazio ekonomikoen sistema bat eratzea, biztanleria talderik ahulenei etxebizitzari lotutako gastuei aurre egiteko aukera emateko. Funtsezko gastuak estaltzeko gutxieneko egonkortasuna bermatu ez ezik, jarduketa tresna horren xedea GLLak jatorrizko helbururantz birbideratzea ere bada, hots, gastu bereziak estaltzea; horrela, beharrak direla-eta, urteen poderioz GLLak, praktikan, aldian aldiko izaera hartu eta, proportzio handi batean, etxebizitza gastuak ordaintzeko erabiliak izatera eraman zituen desbideratzea zuzendu da. Arestikoak ez du inondik inola esan nahi etxebizitza gastuak lege esparru berriak Gizarte Larrialdiko Laguntzei emandako xedeetatik at geratu direnik, halako gastuak estaltzeko Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titularrak ez diren pertsonei baino ezin esleituko zaizkiola baino.

IV.2.3. GRAFIKOA. ETXEBIZITZAKO PRESTAZIO OSAGARRIA: URTEKO GASTUAREN BILAKAERA DBE-REN OSAGARRI GISA. MILIOI EUROTAN.



Iturria: LANBIDE.

EPO prestazioak, DBEren prestazio osagarria den aldetik, 250 euro ditu gehienez, eta EPOren gaineko xehetasunak etxebizitzaren prestazio osagarriei buruzko urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuan araututa daude. Helburu hauxe estaltzea da, Dekretu horretan ezarri denez: "*etxebizitzarekin loturiko beharrak, etxebizitza alokatzeko gastuak edo ohiko ostatukoak, errentamendu, azpierrantamendu, baterako errentamendu, ostatu eta gelen alokairuko edozein modalitatetan*".

Indarraldiko lehen urtean (2010), guztira 50 milioitik gorako gastua izan zuen EPOk, eta urtez urte joan da handitzen gastua, 2014ko 84,3 milioi euroraino (+%10,9 2013aren aldean). Horietatik 14,6 milioi Arabari dagozkio (guztizkoaren %17,3), 49,4 Bizkaiari (%59,4) eta 19,6 milioi euro Gipuzkoari (%23,3).

2015eko ekitaldiari dagokionez, arestian azaldu dugun bezala, prestazio honi eta DBEri lotutako gastu agregatuaren zenbatekoa dakigu, 500 milioi eurokoa, hau da, 2014ko ekitaldiko DBE + EPO gastu agregatuaren zenbatekoa baino % 5,8 gehiago. Jasotzaileak direnaz bezainbatean, 2015eko abenduan, DBEren hartzaile ziren 29.154 pertsonak EPO ere jaso zuten (hau da, aurreko urtean baino % 1,6 gehiagok).

2.1.3. Gizarte Larrialdiko Laguntzak

Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL) ez dira aldian aldikoak eta oinarrizko premia zehatzei aurre egitera daude zuzenduta. Premia horiek batez ere etxebizitzari daude lotuta eta behin-behinean agertutakoak dira, eta gizarte bazterkeriako egoerak prebenitu, saihestu edo arintzeko behar diren gastuei aurre egiteko behar beste baliabiderik ez duten pertsonentzat dira. Helburu baterako dira, eta eman diren xederako baino ezin dira erabili.

Laguntza horien bidez estalitako berariazko gastuak etxebizitzaz edo ohiko bizitokiaz gozatzeari eta mantentzeari, etxebizitzaren edo ohiko bizitokiaren epe luzerako bizigarritasunari eta oinarrizko ekipamenduari (altzariak, linea zuriko etxetresna elektrikoak, oinarrizko instalazioak edo horiek egokitzeko eta/edo konpontzeko gastuak) dagozkie eta jantziei, hezkuntzari, prestakuntzari edo osasun-arretaren inguruko lehen mailako beharrizanei lotutako ohiz kanpoko, aurreikusi gabeko eta ohikoak ez diren beharrizanak sistema publikoek estaltzen ez dituztenak ordaintzekoak dira, bai eta oinarrizko Gizarte Zerbitzuen iritziz, gizarte bazterkeriako egoerak saihesteko edo arintzeko behar diren antzeko edozein beharrizan ere.

IV.2.4. GRAFIKOA. GIZARTE LARRIALDIKO LAGUNTZA: TITULAR HARTZAILEEN KOPURUAREN BILAKAERA, LURRALDEKA



	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Bizkaia	13.774	15.765	15.668	16.528	22.300	12.025	8.544	13.804	16.124	17.935
Gipuzkoa	5.630	5.976	6.183	6.102	9.198	5.597	4.947	6.502	3.693	7.092
Araba	4.884	4.353	4.547	4.670	6.520	2.544	1.840	2.694	2.990	3.822
EAE	24.288	26.094	26.398	27.300	38.018	20.166	15.331	23.000	22.807	28.849

Iturria: Gizarteratzearen Zuzendaritza. EUSKO JAURLARITZA

EPO indarrean hasi ondoren, GLLek jatorrizko helburuari heldu zioten berriro eta, horregatik, nabarmen murriztu zitzaien aurrekontu partida. Horrela, 2010ean, 24 milioi euro erabili ziren guztira laguntza horietarako. Aurreko urtean, aldiz, 54,5 milioi euro baliatu ziren. 2011n, 17,3 milioi euro erabili ziren GLLrako, 17,14 2012an, 2013an 23 milioi eta, azkenik, 25,2 milioi 2014an (datu ofizialak ditugun azken urtea) +%9,6. Guztizkoaren %49,8 Bizkaiari dagokio, %30,6 Gipuzkoari eta %19,6 Arabari.

IV.2.4. KOADROA. GIZARTE LARRIALDIKO LAGUNTZAK. KONTZEPTUEN ARABERAKO BANAKETA ETA BATEZ BESTEKO ZENBATEKOAK.

	LAGUNTZA KOP.	ZENBATEKOA (MILA €)	B.B. ZENBATEKO LAGUNTZAKO (€)
ALOKAIRUA	6.738	7.031,5	1.043,56
AMORTIZAZ. INTERESAK	2.469	2.590,9	1.049,39
BESTELAKO MANTENTZE-GASTUAK	16.354	8.686,0	531,13
ALTZARIAK ETA ETXEKO TRESNA ELEKT.	1.380	547,8	396,96
KONPONKETAK ETA INSTALAZIOAK	1.169	626,3	535,79
OINARRIZKO BEHARRAK	8.987	4.456,9	495,93
ZORPETZEA	1.289	1.292,0	1.002,34
LGUNTZAK, GUZTIRA	**38.386**	**25.231,6**	**657,31**
BIZIK. UNITATE HARTZAILEAK	28.849		
PERTSONA HARTZAILEAK	51.093		

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarteratzearen Zuzendaritza.

Horrela, 28.849 hartzaile zenbatu dira 2015ean guztira, hau da, 2013an baino % 13,1 gehiago. Horietatik 3.822 Araban (% 13,2), 7.092 Gipuzkoan (% 24,6) eta gainerakoak (17.935) Bizkaian (% 62,2) bizi ziren. Guztira, hainbat kontzeptutako 38.386 laguntza eman ziren urtean, hala nola oinarrizko beharretarako (8.987 laguntza), alokairurako (6.738) edo interesen amortizaziorako (2.469), hots, laguntza bakoitzeko 657,31€-ko batez bestekoa.

2.2. GIZARTERATZEA LAGUNTZEKO PROGRAMAK

Memoria honetan ezinduen bizi-baldintzak aldian-aldian aztertzean, Enpleguko Zentro Berezien jarduerari buruzko datuak ematen dira. Era berean, Gizarte Babesari buruzko kapitulu honetan, bestelako programa motak aurkeztuko dira gizarteratzea errazteko.

2.2.1. Gizarte esku-hartzearen esparruan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak.

"649/2009 Dekretua, abenduaren 29koa, zeinen bidez Euskadiko gizarte esku-hartzearen eremuan hirugarren sektorearen jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen baitira" delakoak eremu horretan ematen ziren diru-laguntzak aldatu ditu; izan ere, haren xedea Eusko Jaurlaritzak, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren bidez, irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuei erakunde horiek, euren ekimenez, gizarte esku-hartzearen eremuan, burutzen dituzten jarduerak finantzatzen laguntzeko ematen dizkien diru-laguntza ekonomikoen esparrua arautzea da.

2014. urtean (informazio ofiziala eskuragarri dugun azken urtean, hain zuzen), emandako laguntzen zenbatekoa 5,08 milioi eurokoa izan zen, hau da, 2013. urteko zenbateko bera. Diru-laguntzen mota dela eta,%87 erabili ziren gizarteko esku-hartzeetan, pertsona, familia, gizatalde eta komunitateekin, eta %13 erabili ziren elkarteen bilbea sendotzeko.

2.2.2. Laneratze enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzak

Gure Erkidegoan, Gizarteratze Enpresak sortzeko eta mantentzeko 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan ezarritako laguntzen programa kudeatzen du LANBIDEK, hain zuzen ere EAEn enplegu programak, enplegurako prestakuntza eta autoenplegua sustatzeko eta enpresen sorkuntza kudeatzeko erakunde eskuduna den aldetik.

Tresna horien bidez, Eusko Jaurlaritzak gizarteratze eta laneratze modalitate berezi hori hedatzea sustatu nahi du; haren bidez, pertsona bat, besteren konturako langile, bazkide langile edo laneko bazkide, laneratze enpresa batean

sartzea kontratu baten bidez bideratzen da, laneko kontratua lehen kasuan eta sozietatekoa bigarrenean, eta lehenago txertaketarako hitzarmen bat sinatzetik ondorioztatzen da.

Azken urteetan, Espainiar Estatuan laneratze enpresei dagokienez, asko sortu dira. Alde batetik, zenbait autonomia erkidegok (haien artean EAE) figura hori arautu dute eta onarpena eta berariazko diru-laguntzak eman dizkiote; gainera, enpresa kopurua esponentzialki handitu da.

Laneratze enpresak definitzeko esan daiteke haien helburu nagusia gizarte bazterkeriako egoeran eta arriskuan dauden eta lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonak gizarteratu eta laneratzea dela. Gizarteratze-enpresen ezaugarri nagusia haien gizarte helburu bikoitza da: alde batetik, enpresa eratu den jarduera ekonomikoa gauzatzea; bestetik, gizarte bazterkeriako arriskuan dauden taldeetako pertsonak gizarteratzea eta laneratzea.

IV.2.5. KOADROA. LANERATZE ENPRESEI LAGUNTZEKO PROGRAMAREN BILAKAERA EAE-N. 2003-2014.

	ERAKUNDEAK	AURREKONTUA (mila euro)	ONURADUNAK
2003	9	1.800	43
2004	21	3.040	90
2005	32	5.170	212
2006	40	7.940	321
2007	48	7.790	423
2008	45	7.130	450
2009	39	7.235	447
2010	42	9.380	525
2011	46	9.610	675
2012	39	7.452	:
2013	40	8.024	:
2014	40	7.340	:
GUZTIRA 2003-2013	**441**	**81.911**	**3.186***

Iturria: EUSKO JAURLARITZAko Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren datuak erabilita egindakoa.
**Informazioa 2011ra arte.*

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken Sailaren arabera, 2014ko ekitaldian baziren 47 gizarteratze-enpresa jardunean, eta 446 lanpostu zeuden haietan (lansaio osoko baliokidetzako lanpostuak). Enpresa bakoitzeko batez besteko langileria 540 pertsonakoa zen.

2003. urtetik 2014ra, laguntza-mota horien bidez, Eusko Jaurlaritzak 81,8 milioi euro baino gehiago banatu zituen, batez beste, 34 laguntza urtean, 3.000 onuradun baino gehiago izan zirela. 2014an (informazioa dugun azken urtea) 40 laneratze enpresentzako laguntzak eman ziren, eta horien zenbatekoa, guztira, 7,34 milioi euro izan zen, aurreko urtean baino %8,5 gutxiago.

3. MENDETASUNERAKO ARRETA

Norberaren Autonomia Sustatzeko eta Menpekotasun-egoeran dauden Pertsonei Arreta emateko Legea (Menpekotasunaren Legea) [9], Estatuko araudia da eta 2007. urtean hasi zen indarrean. Lege horren xede nagusia hauxe da: "ahultasun bereziko egoeran daudelako, eguneroko oinarrizko jarduerak garatzeko laguntza behar duten pertsonen beharrizanei erantzutea, haien autonomia areagotzea eta, horrela, herritartasun-eskubideak bete-betean gauzatu ahal izatea". Lege horrek aurrerapen handia ekarri zuen gizarte-politiketan, menpekotasun-egoeran dauden pertsonei aitortzen dielako eta arautzen duelako legeak berak ezarritako prestazio eta zerbitzuez baliatzeko eskubide subjektiboa.

Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren (IMSERSO) 2015eko abenduaren 31ko datuek adierazi dute data horretan EAEk 92.676 balorazio eskabide erregistratu zituela Mendekotasunari Arreta eskaintzeko Sisteman. Gainerako erkidegoetan bezala, eskabide horietako gehienak mendekotasun mailaren aintzatespena berrikusteko dira. Eskabide horiek Estatuko guztizkoaren %5,57 dira, baina gure Erkidegoko biztanleria Estatuko %4,70 da, zeren eta Euskadik Estatuko biztanleriarik zahartuenetakoa baitu.

Eskatzailearen profila honako hau da: emakumea (eskatzaileen % 65 dira), 80 urtekoa edo zaharragoa (eskatzaileen % 55,16). Bigarren adin-talde garrantzitsua 65 eta 79 urte artekoa da, eskabide guztien % 20,68 direla.

Erregistratutako ia 92.676 txosten eskabideetatik % 96,64k jada dagokion txostena jaso zuten (Estatuko batez bestekoaren % 93,41) eta 69.643 eskabideri, hau da, txostena jaso zuten kasuen % 77,76ri, prestaziorako eskubidea aintzatetsi zitzaien. Portzentaje hori Estatuko batez bestekoa (% 78,46) baino txikiagoa da.

IV.3.1. KOADROA. MENDEKOTASUNERAKO ARRETA AUTONOMIA ERKIDEGOKA. EGOERA 2015EKO ABENDUAN.

	2014			2015		
	IRIZPENEN % BIZT. ALDEAN	ONURADUNEN % IRIZP. ALDEAN	ONUR % BIZT. ALDEAN	IRIZPENEN % BIZTANLERIAREN ALDEAN	ONUR. % IRIZPENEN ALDEAN	ONUR. % BIZT. ALDEAN
ANDALUZIA	4,17	60,97	1,94	4,13	79,32	2,13
ARAGOI	3,06	59,35	1,29	2,96	82,36	1,35
ASTURIAS	2,96	52,78	1,45	2,86	73,04	1,67
U. BALEARRAK	2,07	60,47	1,04	1,98	79,03	1,05
U. KANARIARRAK	1,51	80,40	1,10	1,69	84,48	0,66
KANTABRIA	3,86	71,68	2,34	3,86	84,01	2,38
GAZTELA-MANTXA	3,87	54,53	1,75	4,28	77,11	2,98
GAZTELA ETA LEON	4,19	59,89	2,49	3,90	79,25	1,79
KATALUNIA	3,54	54,77	1,67	3,54	78,26	1,68
VALENTZIAKO E.	1,85	58,70	0,84	1,75	77,57	0,87
EXTREMADURA	4,12	53,77	1,97	4,28	73,31	2,03
GALIZIA	2,88	67,98	1,42	2,81	85,44	1,53
MADRIL	2,78	53,24	1,39	2,75	72,57	1,57
MURTZIA	3,68	72,42	1,84	3,00	90,65	1,87
NAFARROA	2,61	54,79	1,32	2,66	78,69	1,41
EAE	**4,00**	**52,87**	**1,88**	**4,09**	**77,76**	**2,33**
ERRIOXA	4,43	49,02	1,98	4,58	69,91	2,13
CEUTA ETA MELILLA	2,23	52,51	1,12	2,28	68,52	1,38
ESTATUA, GUZTIRA	3,26	58,66	1,59	3,23	78,46	1,71

Iturria: IMSERSOren datuetan oinarrituta egindakoa. Autonomiarako eta Mendetasunaren Arretarako Sistemaren estatistika informazioa. Abenduaren 31ko datuak.

9 Abenduaren 14ko 39/2006 Estatu Legea, Norberaren Autonomia eta Mendetasunaren Arreta sustatzeari buruzkoa.

Bestalde, arestian aipatutako datan, 58.228 prestazio eman ziren eta horietatik % 46 Familia Zaintzagatiko Prestazio Ekonomikoari egokitu zitzaien. Prestazioen % 21 Egoitzako Laguntzakoak izan ziren, % 10,7 eguneko/gaueko egoitzetako zaintzakoak eta % 11,3 etxeko laguntza-zerbitzuetakoak, prestazio eta laguntza garrantzitsuenak aipatzearren. Prestazioen jasotzaileak 51.044 pertsona onuradun izan ziren (ratioa 1,14 prestaziokoa da pertsona bakoitzeko, pertsona bat zerbitzu edo prestazio bat baino gehiagoren onuradun izan baitaiteke). Kopuru hori prestazioa jasotzeko eskubidea aitortuta duten 69.643 pertsonen % 77,3koa da.

Zifra horien osagarri gisa, Gizarte Zerbitzuen Zuzendari eta Kudeatzaileen Estatu Elkarteko kideek osatutako "Espainiako Mendekotasunaren Behatokia" delakoaren txostenek Mendekotasun Legetik abiatuta mendekotasunarentzako arreta sistemaren hedapenaren balorazio profesionalaren jarraipena egitea ahalbidetzen dute autonomia erkidegoka.

Azkenak agerian uzten duenez, 2015eko datuekin, EAEk garapen handiagoa du beste autonomia erkidego batzuek baino, baloraturiko pertsonen portzentajeari dagokionez nahiz emandako prestazioei dagokienez.

Sistema ezartzeko kopuruen eta profesionalen ebaluazioen laburpen gisa, Behatokiak erkidegoak puntuatu eta sailkapena aurkeztu ohi du. 2015ean, sistema ezartzeko epealdia bukatutzat eman da eta, beraz, ebaluazio metodologia aldatu da (honako hauek kontuan izateko, besteak beste: sortutako enplegua, jardun onak edo sistemaren gardentasun maila), finkatzearen bigarren etapa baloratua izateko. Urte horretan, bi puntuazio eskaintzen dira, metodologia zaharrarekin eta berriarekin.

2015eko abenduko rankingeko buruan, metodologia berria kontsideratuta, Gaztela-Leon dago (10etik 8,6ko "nota" eta 9,2 aurreko metodologiarekin), eta EAE hirugarren tokian dago, 6,8 punturekin (8,3 aurreko eskalaren arabera). Estatuko batez bestekoa, berriz, 5etik beherakoa da kasu bietan.

IV.3.2. KOADROA. MENDENTASUNAREN BEHATOKIAK MENDETASUNERAKO ARRETARI BURUZ EGINIKO EBALUAZIOA, AUTONOMIA ERKIDEGOKA. EGOERA URTE BAKOITZEKO ABENDUAN*. 2012-2015.

	2012	2013	2014	2015**	
				AURREKO ESKALA	ESKALA BERRIA
GAZTELA ETA LEON	9,2	9,6	10,0	9,2	8,6
ANDALUZIA	7,1	5,8	7,1	7,9	7,5
EAE	**7,5**	**8,3**	**7,5**	**8,3**	**6,8**
ERRIOXA	6,7	6,3	6,3	6,7	6,1
GAZTELA-MANTXA	5,8	5,4	5,0	5,8	5,7
MADRIL	3,8	4,2	4,2	4,6	5,7
GALIZIA	5,8	5,0	4,2	5,0	4,3
ASTURIAS	4,2	3,8	5,0	5,0	3,6
EXTREMADURA	5,0	5,4	6,7	6,7	3,6
KATALUNIA	5,8	5,4	4,6	4,6	3,6
KANTABRIA	4,2	6,3	4,6	5,4	3,2
CEUTA ETA MELILLA	2,1	1,3	1,7	3,8	3,2
MURTZIA	3,3	5,0	4,2	2,9	2,9
NAFARROA	5,4	5,0	5,0	3,3	2,5
U. BALEARRAK	2,5	2,9	3,8	2,5	2,1
ARAGOI	3,8	3,8	3,3	3,8	2,1
U. KANARIARRAK	2,1	0,8	1,7	1,7	0,7
VALENTZIAKO E.	0,8	0,4	1,7	1,7	-
ESTATUKO B.B.	4,7	4,7	4,8	4,9	4,0

Iturria: MENDETASUNAREN BEHATOKIA.
(*) Gizarte Zerbitzuen Zuzendari eta kudeatzaileen Estatu Elkarteak Mendekotasunarenako Arreta Sistemaren hedapen mailari eta funtzionamenduari buruz sei hilean behin emandako 0 eta 10 arteko puntuazioa. Aldagai honetan 2015eko puntuaziorik handienetik txikienera ordenatu dira erkidegoak, eskala berria erabiliz.
(**) 2015ean, ebaluazioaren metodologia aldaketa gertatu da. Aurreko metodologiaren (sistemaren ezarpena) eta berriaren (finkatzea) araberako puntuazioa eman da.

Behatokiaren ebaluazioak nabarmentzen duenez, Euskadik hobetu egin ditu kudeaketa-parametro guztiak azken urtean, eta itxaronzerrenda %27koa (Estatuko batez bestekoa, iturri horren arabera, %32,6 da). Balorazio positiboa egiten du arreta jaso duten pertsonen hazkundeaz, baina, ohikoa denez, Familia Inguruko Zaintzen Prestazio Ekonomikoaren pisu handiegiaz ohartarazi du. Izan ere, Mendetasunaren Legearen arabera, salbuespenezko kasuetan baizik ezin eman beharko litzateke.

4. GIZARTE AURREIKUSPENEKO SISTEMA OSAGARRIAK EAEN

EAEn, gizarte aurreikuspen osagarriko sistema pribatuan protagonista nagusiak Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak (BGAE) eta horiek osatzen dituzten aurreikuspen planak dira. Euskal zergapekoek errentaren gaineko zergaren aitorpenean gizarte-aurreikuspen osagarriko erakundeei ordaindutakoagatik kentzen dutenaren % 92 inguru BGAEetara bideratzen dute. Gainerako % 8 beste forma batzuetara bideratzen dute, besteak beste, pentsio plan eta funtsetara, taldeko aseguru kontratuetara, mutualitateetara, etab.

Gizarte Segurantzaren sistema publikoak osatzeko pentsio plan pribatuak dauzkaten herrialde guztietan bezala, EAEn bi plan modalitate nagusi daude: Enplegu- edo lanbide- aurreikuspenekoak, langileentzat, enpresaren nahiz lan-harremanen esparruan egituratzen direnak; eta finantza-erakundeek sustatutako banakako aurreikuspen planak edo kontu pertsonalak, zeinetan edozein pertsona fisiko bazkidetu daitekeen. Azkenik, gure legerian hirugarren modalitate bat ere badago: elkarteko aurreikuspen-planak; plan horien bazkideak elkarte bateko, sindikatu bateko, elkargo bateko edo antolakunde bateko kideak dira eta ez daude besteak bezain zabalduta.

4.1. ZENBAKI HANDIENAK

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailaren esanetan, 2014. urtean, EAEko BGAEek 23.684 milioi euroko ondarea zuten. Zenbateko hori % 23 igo da azken lau urteotan eta gure erkidegoko BPGren % 35,39koa da, behin-behineko datuen arabera.

Bestalde, erakunde horretako bazkideen edo atxikipenen kopurua (kontu kopurua kontsideratuta eta ez pertsonena, zeren eta zaila baita zehaztea zenbat dauden bikoiztuta edo zenbat diren ekarpenak etenda dituzten kidetuak), 1,17 milioi da, hots, %7,7 murriztu da 2010aren aldean. Izan ere, urte horretan 1,27 milioitik gorakoa izan zen.

IV.4.1. GRAFIKOACAPV-eko EPSV-a: ATXIKIMENDUETAKO (MILETAKO) KOPURUAREN ETA ONDAREAREN (MILIOIKA EUROTAN) BILAKAERA



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuekin eginikoa.

2014ko abenduaren 31n, Euskadik 95 BGAE zituen kideturik; horietatik 42 enpleguari lotutako BGAEak ziren, 35 banakakoak, 3 elkarte-arlokoak eta beste hiru "hainbat" kategoriakoak.

IV.KOADROA. EUSKADIKO BGAE: 14-12-31KO DATUAK (DATU EKONOMIKOAK EUROTAN)

	ERAKUNDE KIDETUAK	KIDETUAK	KUOTAK	ONDAREA	PRESTAZIOAK
ENPLEGUA	42	442.207	382.285.614	12.183.012.910	474.966.683
BANAKOAK	35	715.306	390.438.449	11.271.964.937	248.659.124
KIDEAK	3	2.521	1.048.751	33.567.802	510.453
MISTOAK	3	11.994	6.771.816	195.783.605	4.386.696
BGAE GUZTIRA	**95**	**1.172.028**	**780.544.629**	**23.684.329.254**	**728.522.955**

Iturria: EUSKO JAURLARITZA.

Kideturikoen erdia baino gehiago (%61,) ez zegoen banako BGAEetan, eta ondoren enplegukoak daude, kideturikoen %37,7 baitute. Kuotetan eta ondaretan, bi modalitatetan banatzen dira ia erdibana. Ordaindutako prestazioak, berriz, gehienbat enplegukoetan (guztizkoaren %65,2) metatzen dira, ondoren banakakoetan (%34,1).

2014ko balantzea eginez esan behar da Euskadiko BGAEen ondareak lehen aldiz gainditu duela 23.600 milioi euroko langa, eta aurreko ekitaldietan baino %5,1 gehiago izan dira. Ondare hori EAEko BPGd-aren %5,39 da; ratio hori

Estatukoa baino askoz handiagoa da (%9,5) eta EB15eko batez bestekoa baino pixka bat handiagoa (%34,7), baina oso urruti dago ELGAko batez besteko herrialdeetatik. Erakunde horren arabera, %84,4 da.

Arestian aipatutako iturriaren arabera, 2014. urtean, kuota edo ekarpenen zenbatekoa 780,5 milioi eurokoa izan zen, baina jaitsi zen 2013ko ekitaldiaren aldean (-% 15,8). Bestalde, atxikipenak ere murriztu dira (1,17 milioi dira guztira) pixka bat azken urtean (-%0,7). Aldi berean, ordaindutako prestazioak 728,5 milioi eurotik gorakoak dira, hots, 2013an baino %9,4 gutxiago. Halaber, 2014an guztira 221,5 milioi euro erreskatatu ziren, aurreko urteko 301,2 milioi euroren aldean, hau da, %26,5eko murriztapena.

IV.4.2. KOADROA. EUSKADIKO BGAE-AK. KOPURU NAGUSIEN BILAKAERA. ZENBATEKOA EUROTAN

	2012	2013	2014	Ald. % 2013/14
BAZKIDEAK	1.234.014	1.180.819	1.172.028	-0,7
KUOTAK	950.331.420	927.407.318	780.544.629	-15,8
PRESTAZIOAK	670.004.912	804.540.512	728.522.955	-9,4
ONDAREA	21.078.714.692	22.531.310.355	23.684.329.254	5,1
KUOTAK % BPG-AREKIKO	1,42	1,41	1,17	-17,0
ONDAR.% BPG-AREKIKO	31,57	34,19	35,39	3,5

Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuekin eginikoa.

2015. urteari dagokionez, datu ofizialik ezean, Euskadiko BGAEen Federazioak (ez ditu sartzen Eusko Jaurlaritzaren Erregistroan inskribaturiko erakunde guztiak, baina gehienak bai) aurreratu duenez, urte horretan goranzko bidean jarraitu du hura osatzen duten erakundeen ondareak, baita ordaindutako prestazioek ere. Bazkideen kuotak edo ekarpenak %1 baino pixka bat gehiago jaitsi ziren. Atxikipenen guztizko kopuruak, berriz, egonkor eutsi zion.

4.2. ZERGA ARAUBIDEA

BGAEek EAEn izan duten garapen handiaren arrazoietako bat, neurri handi batean, zerga pizgarriak izan dira; izan ere, aurrezte bide horren erakargarritasuna areagotu dute, batez ere PFEZren bitartez (zenbakiko bazkideentzat), baina baita Sozietateen gaineko Zergaren bitartez ere (bai erakundeentzat eurentzat, bai enplegu planetan enpresa edo bazkide babesleen parte hartzea bultzatzeko). EAEn, zergari buruzko eskumenak lurralde historiko bakoitzeko foru aldundiak eta batzar nagusiek erabiltzen dituzte. Oro har, bazkideek egindako ekarpenen zenbatekoa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarritik ken daitezke[10]. Bestalde, errenta geroratutzat jotzen direnez, BGAEetatik jasotako prestazioak (baita erreskateak edo gertakizuna jazo aurretik ordaindutako zenbatekoak) norberaren lanaren etekin osotzat jotzen dira, baita atxikipenari begira ere[11].

IV.4.3. KOADROA. PFEZ-REN LIKIDAZIOA: ZERGA-OINARRI OROKORRAREN MURRIZKETAK PENTSIO-PLAN ETA BGAE-ETAKO EKARPENENGATIK

	ZENBATEKOA (MILA €)	AITORTZAILEAK		B.B. MURRIZT. (€)
		KOP.	GUZT. %	
2008	1.171.013	517.456	44,2	2.263
2009	1.200.570	502.000	42,8	2.392
2010	1.201.653	497.598	42,4	2.415
2011	1.158.506	490.070	41,4	2.364
2012	823.114	420.756	39,0	1.956
Ald. % 10/11	-3,6	-1,5	-2,4	-2,1
Ald. % 11/12	-29,0	-14,1	-5,8	-17,3

Iturria: ZERGAK KOORDINATZEKO ORGANOAREN datuekin eginikoa.

10 Ondarearen gaineko Zerga Bereziari dagokionez, zerga horren aitorpena aurkeztu behar den erabakitzeko baino ez dira zenbatzen bazkidearen eskubide irmoak, baina eskubide salbuetsitzat jotzen dira eta, beraz, ez dute haren zerga-oinarria osatzen.

11 Prestazioa kapital gisa jasotako kopurua bada, % 40ko kenketa dakar, eta errenta bada, aldiz, oso-osorik sartzen da zerga-oinarrian.

Zergak Koordinatzeko Erakundeak 2013ko txostenean emandako 2012ko ekitaldiko PFEZren likidazio datuen arabera, BGAEetan eta gainerako aurreikuspen-moduetan egindako ekarpenengatiko kenketa 823,1 milioi eurokoa izan zen, 2011n baino % 29 gutxiago. Zenbateko hori EAEko urte horretako BPGren % 1,23koa izan zen (2011n, % 1,70koa), guztira 420.756 aitortzaileena, aurreko urtean baino % 14,1 gutxiago. Aitortzaileen kopurua guztien % 39, izan zen.

Lurraldeen arabera, Arabak aitortzaileen % 11,7 besterik ez du, eta zerga-oinarriaren murriztapenen guztizko zenbatekoaren % 13,8 (49.163 aitortzaile eta 113,2 milioi euroko murriztapena). Bizkaiak, berriz, aitortzaileen % 46,8 izan zuen eta murriztapenaren % 46,8. Azkenik, Gipuzkoak aitortzaileen % 41,5 izan zuen eta murriztutako zenbatekoaren % 38.

Zenbateko horrek, batez beste, 1.956 euroko kenketa ekarri zuen, hau da, aurreko urteko zenbatekoa baino % 17,3 gutxiago. Balio zehatzagoak ondokoak dira: errenta-maila txikienen (30.000 eurorainoko likidazio-oinarria) batez besteko ekarpena 1.419 eurokoa izan zen, eta zergadunen % 30,1ek egin zituzten ekarpenak; 30.000 eta 90.000 arteko oinarria izan zuten zergadunen batez besteko ekarpena 2.702 eurokoa izan zen, eta haietatik %58,3k egin zituzten ekarpenak; azkenik, errenta-mailarik handienetan, batez besteko ekarpena 6.323 eurokoa izan zen, eta zergadunen % 67,6k egin zituzten ekarpenak.

5. LABURPENA ETA GOGOETAK

5.1. LABURPENA

EUSTAT erakundearen 2103ko "EAEko Gizarte Babesari buruzko Kontuaren" arabera, Euskadin helburu horretako guztira erabili ziren baliabideak 16.663,4 milioi eurokoak izan ziren lehen aipatutako urtean, hau da, 2012an baino % 1,9 gehiago. Esandako kopurua urte horretako BPGaren % 25,22 izan zen (+%0,7 2012ko urtearen aldean), behin-behineko datuen arabera. Gainera, EUROSTAT erakundeak argitaratutako datuen arabera, 2012. urtean, biztanleko gastua gizarte babesean Euskadin, eroste-ahalmenaren parekotasunaren arabera neurtuta, 7.940 eurokoa izan zen, hau da, EBko batez bestekoaren (7.591 euro) eta Estatuko batez bestekoaren (6.027 euro) gainetik.

Bigarrenik, 2015. urtean, milioi erdi pertsona baino gehiago (541.191, lehen zenbatespenaren arabera) Gizarte Segurantzaren pentsio-sistemaren onuradun izan ziren gure autonomia-erkidegoan (kontribuziozkoak eta ez-kontribuziozkoak). Kopuru hori aurreko urtekoa baino % 1,2 gehiago da, eta aurreko urtean ere % 1,4 hazi zen[1]. Azken urteotan gertatu den legez, kopuruaren hazkundearen arrazoi nagusia dugu kontribuziozko pentsioen onuradun diren pertsonen hazkundea; izan ere, gainerako modalitateetan, oro har hartuta, kopurua beherantz doa. Hala, Gizarte Segurantzak emandako prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten EAEko biztanleen ehunekoa 24,9ra heldu zen.

Kotizaziopeko pentsioei dagokienez (prestazioen %98,7 eta gastuaren %99,3), 2015ean 530.200 onuradun izan ziren guztia (+%1,2), eta hileko zenbatekoa, 1.098,2 €, %2 hazi da 2014koaren aldean. Hortaz, eginiko zenbatespenen arabera, urteko gastua 8.151,72 milioi euro izan zen, 2014an baino %3,2 gehiago. Labur esanda, EAEn pentsioetako gastua 2015ean, behin-behineko datuak erabilita, 8.208,18 milioi eurokoa izan zen guztira, 2014an baino % 3,2 gehiago. Hortaz, BPGd-an duen portzentajea berdin mantentzen da, 11,9aren inguruan (EUSTATen behin-behineko datuak kontuan hartuta).

Gizarte Segurantzaren pentsioen ziozko gastua Euskal Autonomia Erkidegoan eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren kuoten bilketaren zenbatekoak erkatzen baditugu 2014. urteari dagokienez (horixe baita aipatutako bi datuak eskura ditzakegun azken urtea) gure zenbatespenen arabera, gastua 7.896 milioi eurokoa izan zen; sarrerak, berriz, 6.448 milioi eurokoak. Beraz, saldoa negatiboa izan zen, 1.448 milioi eurokoa eta aurreko urtean ere negatiboa izan zen, -1.198 milioi eurokoa.

Bestalde, Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren funtsezko prestazioa Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) izenekoa da, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeari buruzko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak ezarritakoari jarraiki.

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten bizikidetza-unitateen kopurua, 2015ean, 64.726 izan zen (abenduko datua), hots, %1,5eko jaitsiera aurreko urtearen aldean, 15 urtez etengabe hazi ondoren (1999 eta 2014 bitartean. Izan ere, orduan 65.687 bizikidetza-unitatek jaso zuten arreta orduan. Lurraldearen arabera, Bizkaian egon zen jasotzaileen kopuru handiena, guztira 39.990, hau da, EAEko jasotzaile guztien % 61,8. Gipuzkoan, jasotzaileen % 23,3 egon ziren eta Araban gainerakoen % 14,9.

LANBIDEK azpimarratu duenez, bizikidetza-unitate jasotzailearen pertsona titularraren profila 40 urteko emakumea da, oinarrizko ikasketak dituena (%65,2k nahitaezko ikasketak ditu, %10,2k lanbide tituluren bat eta %4k unibertsitateko titulazioa). Horrez gain, prestazioa jasotzen duten atzerritarrak guztizkoaren %36,1 dira (%27,2 2014an), eta titular jasotzaileen %25,1 pentsiodunak dira (%25,9 2014an). Bestalde, unitate jasotzaileen %19k soldata-errentaren osagarri gisa jasotzen dute DBE.

1Kalkulu honetatik kanpo utzi dira laguntzako pentsioak eta MGLren ondoriozkoak; izan ere, desagertuz doaz eta horiei buruz ez dugu informazio eguneraturik 2006az geroztik. Nolanahi ere, %0,4tik beherako pisua du guztizkoarekiko.

Gainera, 2010ean, Etxebizitzaren Prestazio Osagarria (EPO) abian jarri zen, arestian aipatu dugun 18/2008 Legea garatzeko. Haren helburua Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren osagarri diren prestazio ekonomikoen sistema egituratzea da, biztanleriako talderik ahulenek etxebizitzaren inguruko gastuak ordaindu ahal izan dezaten. Indarraldiko lehen urtean (2010), guztira 50 milioitik gorako gastua izan zuen EPOk, eta urtez urte joan da handitzen gastua, 2014ko 84,3 milioi euroraino (+%10,9 2013aren aldean). Horietatik 14,6 milioi Arabari dagozkio (guztizkoaren %17,3), 49,4 Bizkaiari (%59,4) eta 19,6 milioi euro Gipuzkoari (%23,3).

2015eko ekitaldiari dagokionez, arestian azaldu dugun bezala, prestazio honi eta DBEri lotutako gastu agregatuaren zenbatekoa dakigu, 500 milioi eurokoa, hau da, 2014ko ekitaldiko DBE + EPO gastu agregatuaren zenbatekoa baino % 5,8 gehiago. Jasotzaileez den bezainbatean, 2015eko abenduan, DSBEren hartzaile ziren 29.154 pertsonak EPO ere jaso zuten (hau da, aurreko urtean baino % 1,6 gehiagok).

Era berean, EPO abian jarri ondoren, Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL), Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren hirugarren tresnak, bere jatorrizko helburua berreskuratu zuen (hau da, oinarrizko beharrizan espezifikoei aurre egitea, batez ere etxebizitzarekin zerikusia dutenak, gizarte bazterketako egoerak prebenitzeko, ekiditeko edo leuntzeko gastuei aurre egiteko baliabide nahikorik ez daukaten pertsonei egoera zehatzetan sortzen zaizkienak) eta bere aurrekontu partida nabarmen murriztu zen: 2014. urtean (informazio kontsolidatua daukagun azken urtea) laguntza horretarako 25,2 milioi euro bideratu ziren, aurreko urtean baino %9,6 gehiago, guztira 28.849 kontsumo unitate jasotzailea, 2014an baino %13,1 gehiago. Horietatik 3.822 Araban (% 13,2), 7.092 Gipuzkoan (% 24,6) eta gainerakoak (17.935) Bizkaian (% 62,2) bizi ziren. Guztira, hainbat kontzeptutako 38.386 laguntza eman ziren urtean, hala nola oinarrizko beharretarako (8.987 laguntza), alokairurako (6.738) edo interesen amortizaziorako (2.469), hots, laguntza bakoitzeko 657,31€-ko batez bestekoa.

Laburbilduz, 2015. urtean, behin-behineko datuen arabera, Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak guztira 525,2 milioi euro gastatu zituen, aurreko urtean baino % 5,5 gehiago, hain zuzen ere, honela banakatuta: 500 milioi Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzaren Prestazio Osagarriaren baturan eginiko gastuari dagozkio (2014an baino %5,8 gehiago), baina Memoria hau bukatu den egunean, ez dakigu zehazki zelan dauden banakatuta bi prestazioak, elkarren osagarriak baitira (DBEren %40k gutxi gorabehera EPO jasotzen du). Eginiko zenbatespenen arabera, EAEko Diru-sarrerak Bermatzeko Sistemaren gastu agregatua kalkulatze aldera, mantendu egin dira 2015ean Gizarte Larrialdirako Laguntzetarako 2014an erabilitako 25,2 milioi euroak (Sistemaren guztizkoaren %4,8), laguntzari buruzko datu ofizial izan arte.

Erkaketa egite aldera, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioaren "Gizarteratzeko Gutxieneko Errenten Txostena"ri esker, autonomia erkidegoetako sarrerak bermatzeko sisteman kopuru handien konparaziozko jarraipena egin daiteke, betiere era askotako araudiak eta sistemak garatzeko hainbat maila daudela kontuan izanik. 2014ko ekitaldiari buruzko txostenaren arabera, urte horretan gure erkidegoak 5.529 euro gastatu zuen urtean prestazio horien titular bakoitzeko, estatuko 4.416 euroko batez bestekoaren aldean (%25,2 gehiago), eta haren estaldura-tasa 35,97koa izan zen mila biztanleko. Estatuko batez bestekoa, berriz, 5,65 izan zen mila biztanleko. Azterlanaren arabera, Estatua prestazio horietarako diren funts guztien %37,31 izan zuen gure Erkidegoak (DBE gehi EPOrako) aipaturiko urtean, baina portzentaje hori handiagoa da kontuan hartzen badugu guztizko zenbatekoa ez dela eguneratu aurreko ekitaldiaren aldean eta Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioaren txosten horretan zero hazkundea zenbatestsi dela 2013aren aldean. DBE gehi EPOrako gastu erreala, 2014an, 472,4 milioi euro izan zen, arestian ikusi dugunez. Zenbateko hori kontuan izanik, funtsen %39,24ko partaidetza du EAEn estatuko guztizkoan. Bestalde, DBEren oinarrizko kopurua 665,90€ da hilean, Estatuko batez bestekoa baino %58,3 gehiago, autonomia erkidego guztietatik handiena hain zuzen.

Beste alde batetik, Enplegu eta Gizarte Politiken Sailak gizarteratzea ahalbidetzeko bultzatzen dituen ekimenen esparruan, hirugarren sektoreari lotutako jarduerak sustatzeko diru-laguntzen programa garatzen da gizarte esku-hartzearen baitan. Programa horren ildoan, 2014ko ekitaldia (informazioa eskuratu duguneko azken urtea) emandako laguntzen guztizko zenbatekoa 5,08 milioi eurokoa izan zen, 2013ko ekitaldiko zenbateko bera. Halaber, LANBIDEK urte

berean 7,34 milioi euroko laguntzak eman zituen laneratze enpresak sortzeko eta mantentzeko (2013an baino %8,5 gutxiago).

2007ko Menpekotasun Legearen ezarpenari dagokionez, Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren (IMSERSO) 2015eko abenduaren 31ko datuek adierazi dutenez, EAEk 92.676 ebaluazio-eskabide erregistratuta zituen data horretan Mendekotasunari Arreta eskaintzeko Sisteman. Gainerako erkidegoetan bezala, eskabide horietako gehienak mendekotasun mailaren aintzatespena berrikusteko izan ziren. Eskabide horiek Estatu osoko eskabideen % 5,75 dira, nahiz eta gure Erkidegoko biztanleria Estatuko biztanleriaren % 4,70 den. Eskatzailearen profila emakumeari dagokio (guztizkoaren %65), 80 urte edo gehiagokoa (eskabideen %55,16). Hurrengo adin-talde nagusia 65 eta 79 urte bitartekoena da, hots, eskabide guztien %20,68.

Arestian aipatutako datan, 58.228 prestazio eman ziren eta horietatik % 46 Familia Zaintzagatiko Prestazio Ekonomikoari egokitu zitzaien. Prestazioen % 21 Egoitzako Laguntzakoak izan ziren, % 10,7 eguneko/gaueko egoitzetako zaintzakoak eta % 11,3 etxeko laguntza-zerbitzuetakoak, prestazio eta laguntza garrantzitsuenak aipatzearren. Prestazioen jasotzaileak 51.044 pertsona onuradun izan ziren (ratioa 1,14 prestaziokoa da pertsona bakoitzeko, pertsona bat zerbitzu edo prestazio bat baino gehiagoren onuradun izan baitaiteke). Kopuru hori prestazioa jasotzeko eskubidea aitortuta duten 69.643 pertsonen % 77,3koa da.

Zifra horien osagarri gisa, Gizarte Zerbitzuen Zuzendari eta kudeatzaileen Estatu Elkarteko kideek osatutako "Espainiako Mendekotasunaren Behatokia" delakoaren txostenek Mendekotasun Legetik abiatuta mendekotasunarentzako arreta sistemaren hedapenaren balorazio profesionalaren jarraipena egitea ahalbidetzen dute autonomia erkidegoka. Azkenak agerian uzten duenez, 2015. urteko datuekin, EAEk garapen handiagoa du beste autonomia erkidego batzuek baino, baloraturiko pertsonen portzentajeari dagokionez nahiz emandako prestazioei dagokienez.

Sistemaren ezarpenaren zifrei eta profesionalen balorazioari buruzko laburpen gisa, Behatokiak puntuazioa jartzen die erkidegoei eta ranking bat aurkeztu du. 2015ean, sistema ezartzeko epealdia bukatutzat eman da eta, beraz, ebaluazio metodologia aldatu da (honako hauek kontuan izateko, besteak beste: sortutako enplegua, jardun onak edo sistemaren gardentasun maila), finkatzearen bigarren etapa baloratua izateko. Urte horretan, bi puntuazio eskaintzen dira, metodologia zaharrarekin eta berriarekin. 2015eko abenduko rankingeko buruan, metodologia berria kontsideratuta, Gaztela-Leon dago (10etik 8,6ko "nota" eta 9,2 aurreko metodologiarekin), eta EAE hirugarren tokian dago, 6,8 punturekin (8,3 aurreko eskalaren arabera). Estatuko batez bestekoa, berriz, 5etik beherakoa da kasu bietan.

Behatokiaren ebaluazioak nabarmentzen duenez, Euskadik hobetu egin ditu kudeaketa-parametro guztiak azken urtean, eta itxaronzerrenda %27koa (Estatuko batez bestekoa, iturri horren arabera, %32,6 da). Balorazio positiboa egiten du arreta jaso duten pertsonen hazkundea, baina, ohikoa denez, Familia Inguruan Zaintzen Prestazio Ekonomikoaren pisu handiegiaz ohartarazi du. Izan ere, Mendetasunaren Legearen arabera, salbuespenezko kasuetan baizik ezin eman beharko lirateke.

Bukatzeko, EAEko borondatezko gizarte aurreikuspeneko sistemaren bilakaeraren ondorio gisa, EAEko 2014ko abenduaren 31n, Euskadik 95 BGAE zituen kideturik; horietatik 42 enpleguari lotutako BGAEak ziren, 35 banakakoak, 3 elkarte-arlokoak eta beste hiru "hainbat" kategoriakoa. Kideturikoen erdia baino gehiago (%61,) ez zegoen banako BGAEetan, eta ondoren enpleguak, bazkideen %37,7 baitute. Kuotetan eta ondaretan, bi modalitatetan banatzen dira ia erdibana. Ordaindutako prestazioak, berriz, gehienbat enplegukoetan (guztizkoaren %65,2) metatzen dira, ondoren banakakoetan (%34,1).

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailaren esanetan, 2014. urtean, EAEko BGAEek 23.684 milioi euroko ondarea zuten. Zenbateko hori % 23 igo da azken lau urteotan eta gure erkidegoko BPGren % 35,39koa da, behin-behineko datuen arabera. Bestalde, erakunde horretako bazkideen edo atxikipenen kopurua (kontu kopurua kontsideratuta eta ez pertsonena, zeren eta zaila baita zenbat dauden bikoiztuta edo zenbat diren bazkideak ekarpenak etenda), 1,17 milioi da, hots, %7,7 murriztu da 2010aren aldean. Izan ere, urte horretan 1,27 milioitik gorakoa izan zen.

5.2. GOGOETAK

Ekonomiak hobera egin badu ere, EAEko gizarte babeseko sistemak krisiaren ondoriozko beharrak betetzen jarraitu behar izan du, egoki egin ere. Hortaz, gure Erkidegoko sistemak izandako lorpenak nabarmendu behar ditugu, baita Estatu mailarekiko duen egoera hobea eta gizarte babesaren arloan Europaren parean egotea ere, kapitulu honetan azterturiko iturri desberdinek frogatzen dutenez.

Gai horri lotuta piztu den eztabaida gorabehera, azpimarratu nahi dugu, 18/2008 Legearen garapenetik eratortzen den eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta funtsezko ardatz daukan Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak ahaleginari eutsi ziola 2015. urtean, gastuari nahiz laguntzen onuradun diren pertsona-kopuruari dagokienez, eta horrela, biziki lagundu duela gizarte-kohesioa josten eta familien beharrizan gero eta handiagoei erantzuten, gaur egungo egoeraren kariaz.

Aldi berean, uste dugu sistema horrek eta babes sistemak oro har enplegurako igarobiderako ahalegina indartu behar dutela, politika aktiboekin hobetu uztartuta laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat, aukeraketa handia egiten baita lan-merkatuan. Izan ere, enplegua da lehen oinarria eta funtsezko zutabea gizarte bazterketaren kontra, eta sistemaren iraunkortasuna bera sustengatzen du.

Zilegi da pentsatzea gure gizartea datozen urteotan areago zahartuko dela; horregatik, jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren hazkunde egonkorra erdiestea ekonomia- eta gizarte-eragile guztien ahaleginak bideratzeko jomuga izango da, lehendik lortutako ongizate-estatuari eusteko modua bermatzeko xedez. Alabaina, baliteke saldo horren emaitza defizitarioa ez izatea abaguneko kontua, baizik eta jardueraren printzipioan oinarrituriko pentsio sistemaren egiturari datxekiona. Beraz, administrazioek eta gizarte eragileek ez dute atzeratu behar eta aintzat hartu behar dute pentsioen sistema publikoari eusteko mekanismoei buruzko eztabaida.

Halaber, balorazio positiboa egiten dugu mendetasunaren sistema ezartzean izandako aurrerapenaz, estaldura handitu eta erreferentziako adierazleak hobetu egin baitira. Horri esker, Estatuaren aldean, EAEren egoera oso ona da eta hobetzen jarraitu du.

Aitzitik, hobekuntza-eremu gisa, kezkagarriak dira itxaronzerrendari buruzko datuak (eskubideak aintzatetsita dituzten lau lagunetatik bat), zeren eta agerian uzten baitute atzeratzen ari dela oso eskubide nabarmenak eskuratzea. Hortaz, egoera horrek zailtasun handiagoa dakarkie eraginpeko pertsonei eta haien familiei.

Egoera hori ikusita, erronka garrantzitsuak dakartzate gizarte babeseko sistemaren iraunkortasunak eta azaldutako eremuetan egungo estaldura mailak ahal dela hobetzeak, oraindik eragozpen handiei aurre egin beharko dien gure ekonomiaren susperraldiaren testuinguruan betiere.

V. KAPITULUA

Araugintza EAEn

EAErentzako Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak azaltzen du EAEren eskumena dela gai jakin batzuetan legeria garatzea eta bere lurraldearen barruan estatuaren oinarrizko legeria betearaztea. Era berean, lege horrek adierazten du EAEko botereak Legebiltzarraren bidez, Eusko Jaurlaritzaren bidez eta lehendakariaren bidez gauzatuko direla, eta lurralde historikoek beren foru erakundeak estatutuan xedatutakoaren arabera edukiko eta antolatuko dituztela.

EAEko autogobernurako erakundeak indarrean sartzean, ezinbestekoa suertatu zen, Autonomia Estatutuan ezarritakoarekin bat etorriz, Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzaren antolaketari eta eskumenei buruzko legeak eta erakunde komunen eskumen maila eta lurralde historikoen eskumen maila arautzeko legeak onestea.

Eusko Jaurlaritzaren egitura, haren eskumenak eta Legebiltzarrarekin dituen harremanak finkatzeko helburuarekin, Gobernuari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea onetsi zen. Besteak beste, legearen arabera, Gobernuak eskumen hauek ditu: legeak egiteko ekimena, lege proiektuak onetsiz eta Legebiltzarrari bidaliz; legegintzarako eskuordetzea, legegintzako dekretuen bidez; eta araudiak egiteko ahalmena, dekretuen eta aginduen bidez.

Gerora, Autonomia erkidegoko erakunde komunen eta bertako lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legea aldarrikatu zen. Lege horrek Eusko Legebiltzarra izendatzen du lege maila duten arauak onesteko gaitasuna daukan erakunde bakar autonomi erkidego osoan, baldin eta lege horien gaia Autonomia Estatutuaren arabera autonomi erkidegoari badagokio eta estatutuan lege honek edo ondorengo legeek ez badiete gaia lurralde historikoetako foru organoei esleitzen. Tradizio historikoarekin bat etorriz, lurralde historikoetako foru organoak Batzar Nagusiak eta Foru Aldundiak dira.

Era berean, lurralde historikoetako eskumenak arautzen ditu. Ezartzen duenez, beraien bakarreko eskumenekoak diren gaietan lurralde historikoei dagokie arauak egiteko ahalmena, bakoitzaren Batzar Nagusien foru arauen bidez.

Legegintza Botereak eginiko araua da legea zentzu hertsian, hots, Parlamentuak eginikoa. Zenbait kasutan, oso espezifikoetan, gobernuak onetsitako lege lerruneko arauak onartzen dira: legegintza dekretuak (EEren 82.-85. artikuluak) eta lege dekretuak (EEren 86. artikulua).

Legegintzako ekimena, hau da, prozedura legegilea martxan jartzeko gaitasuna, honako hauek proposa dezakete:

- Legebiltzarreko taldeak, edo legebiltzarkide bat, beste lauren sinadura jasoz gero.
- Gobernua.
- Lurralde historikoak ordezkatzen dituzten erakundeak.
- Legegintzako herri-ekimena, EAEko 30.000 herritarren sinadurekin.

Ekimena Eusko Jaurlaritzarena denean “lege proiektua” izena jasotzen du; gainerako kasuetan, “lege proposamena” da.

Eusko Legebiltzarrak, legeak egiteko bere eginkizuna betez, 8 lege onetsi ditu, guztira, 2015ean.

1.- 1/2015 Legea, martxoaren 26koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretua aldatzekoa.

2.- 2/2015 Legea, ekainaren 11koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako 17/2008 Legea aldatzekoa.

3.- 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.

4.- 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa.

5.- 5/2015 Legea, ekainaren 18koa, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa.

6.- 6/2015 Legea, ekainaren 30ekoa, hidrokarburo ez-konbentzionalak erauzteko prozesuan eta haustura hidrauliko edo frackingean ingurumena babesteko neurri osagarriei buruzkoa.

7.- 7/2015 Legea, ekainaren 30ekoa, gurasoen banantze edo haustura kasuetako familia harremanei buruzkoa.

8.- 8/2015 Legea, urriaren 15ekoa, Emakume Nekazarien Estatutuari buruzkoa.

Bestalde, **Eusko Jaurlaritzak**, arauak emateko duen ahalmena erabiliz, 247 dekretu onetsi ditu, guztira, 2015. urtean.

Euskadiko EGABek, erakunde aholku-emailea den aldetik, hogeita bi irizpen eman ditu 2015ean:

- 1/2015 Irizpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Lege Aurreproiektuari buruzkoa.
- 2/2015 Irizpena, Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialen hauteskunde-prozedura eta haien gobernu-organoen osaera arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
- 3/2015 Irizpena, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio- eta zerbitzu-zorroaren dekretu-proiektuari buruzkoa.
- 4/2015 Irizpena, Suaren Prebentzio eta Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuen Lege Arauemailearen Aurreproiektuari buruzkoa.
- 5/2015 Irizpena, Aurrezki-kutxen eta Banku-fundazioen Legearen Aurreproiektuari buruzkoa.
- 6/2015 Irizpena, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareari dagokion konposizioa arautu eta eguneratzen duen dekretu-proiektuari buruzkoa.
- 7/2015 Irizpena, Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeei buruzko 5/2012 Legearen Araudia onartzen duen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
- 8/2015 Irizpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Portu eta Itsas Garraioaren Legearen Aurreproiektuari buruzkoa.
- 9/2015 Irizpena, Euskal Enplegu Publikoaren Lege Aurreproiektuari buruzkoa.
- 10/2015 Irizpena, ingurumena babestera bideratutako inbertsioetarako enpresei diru-laguntza ematea arautzen duen Dekretu Proiektuari dagokiona.
- 11/2015 Irizpena, Euskal Autonomia Erkidegoan kirol-ogibideetara iritsi eta horietan jarduteko Lege Aurreproiektuari buruzkoa.
- 12/2015 Irizpena, Euskal Sektore Publikoaren Gardentasunaren, Herritarren Parte Hartzearen eta Gobernu Onaren Lege-aurreproiektuari buruzkoa.
- 13/2015 Irizpena, Euskal Sektore Publikoko Antolamendu eta Funtzionamenduaren Lege Aurreproiektuari buruz.
- 14/2015 Irizpena, Dopinaren aurkako legeria Dopinaren Aurkako Munduko Kodeari egokitzeari buruzko Legearen aurreproiektuari buruzkoa.
- 15/2015 Irizpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko Lege Aurreproiektuaren gainekoa.
- 16/2015 Irizpena, Enplegu politika aktiboen esparruan izaera orokorreko xedapen batzuk indargabetzen dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
- 17/2015 irizpena, Turismo Legearen Aurreproiektuari buruzkoa.
- 18/2015 Irizpena, desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela arautzen duen dekretu proiektuari buruzkoa.
- 19/2015 Irizpena, Euskadiko Kultur Ondarearen Legearen Aurreproiektuari buruzkoa.
- 20/2015 Irizpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Diru-laguntzen Araubidearen Lege Aurreproiektuari buruzkoa.
- 21/2015 Irizpena, Euskadiko Kooperatiben Legearen aurreproiektuari buruzkoa.
- 22/2015 Irizpena, Euskadin kokatutako osasun-zentro eta -zerbitzuetan laguntza jasotzen duten pazienteen segurtasun-neurriei buruzko Dekretu Proiektuaren gainekoa.

Jarraian, legegintza plangintzaren balantzea agertu dugu, X. legegintzaldiaren hasieran egin zena, 2015eko abenduaren 31n.

X. LEGEGINTZALDIAREN BALANTZEA, 2015EKO ABENDUAREN 31N					
	AURREIKUSITAKO LEGEGINTZA EKINTZAK		ONETSITAKO LEGEAK		LEGEBILTZARREAN BIDERATZEN ARI DIREN LEGEAK
Saila	2014	2015	2014	2015	
Herri Administrazioa eta Justizia	EAEko Udal Legea (1. seihilekoa)				BIDERATZEN
	EAEko Fundazioen Legea (2. seihilekoa)				BIDERATZEN
	Euskal Enplegu Publikoaren Legea (2. seihilekoa)				BIDERATZEN
	Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko Legea (2. seihilekoa)				
	Euskal Administrazio Publikoaren Legea (1. seihilekoa)				BIDERATZEN - **E**uskal Sektore Publikoaren Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko Legea - Euskal Sektore Publikoaren Gardentasunaren, Herritarren Parte Hartzearen eta Gobernu onaren Legea
Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna	Merkataritza Jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 27/1994 Legea hirugarrenez aldatzen duen Legea (1. seihilekoa)				BIDERATZEN
	Animaliak Babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legea aldatzen duen Legea (1. seihilekoa)				
	Emakume Nekazarien Estatutuaren Legea (1. seihilekoa)			**8/2015 Legea, urriaren 15ekoa, Emakume Nekazarien Estatutuari buruzkoa**	
Enplegua eta Gizarte Politikak	Euskadiko Kooperatiben Legea (1. seihilekoa)				
	Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Legea (2. seihilekoa)				BIDERATZEN
		Euskal Enpleguaren Legea (1. seihilekoa)			EUSKO JAURLARITZAK KENDUA
Ogasuna eta Finantzak	2014-2017 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistika Planaren Legea (1. seihilekoa)		**3/2014 Legea, azaroaren 13koa, 2014-2017ko Euskal Estatistika Planari buruzkoa**		
	Baliabideen Banaketarako eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak Finantzatzeko Foru Aldundien Ekarpenak zehazteko Metodologiaren Legea, 2014-2018 aldiari aplikatzeko (1. seihilekoa)				
	Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrezki Kutxen ekainaren 14ko 11/2012 Legea aldatzen duen Legea				BIDERATZEN Euskadiko Aurrezki Kutxa eta Banku Fundazioen Legea
		Diru Laguntzen eta Laguntzen Legea (1. seihilekoa)			

		Maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretua aldatzeko Legea (1. seihilekoa)			
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura		Euskal Kultur Ondareari buruzko Legea (1. seihilekoa)			
		Agirien eta Agiritegien Euskal Autonomia Erkidegoko Legea (1. seihilekoa)			BIDERATZEN
		Kirol-lanbideetan jarduteari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko Legea (1. seihilekoa)			BIDERATZEN
		Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko Legea (2. seihilekoa)			BIDERATZEN
Segurtasuna	Larrialdiak Kudeatzeko Legea aldatzeko Legea (1. seihilekoa)				BIDERATZEN
	Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legea aldatzen duen Legea (1. seihilekoa)			**11/2015 Legea, abenduaren 23koa, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legea bosgarren aldiz aldatzekoa**	
	Jendaurreko Ikuskizunei eta Jolas Jarduerei buruzko Legea (1. seihilekoa)			**10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas jarduerena (1. seihilekoa)**	
	Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zerbitzuak Arautzeko Legea (2. seihilekoa)				BIDERATZEN
		Euskal Herriko Poliziari buruzko Legea (1. seihilekoa)			
Osasuna	Menpekotasunen Legea (2. seihilekoa)				BIDERATZEN
Ingurumena	Lurzorua ez kutsatzeari eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko Legea, 1/2005 Legea ordezten duena (1. seihilekoa)			**4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa.**	
	Portuen Euskal Autonomia Erkidegoko Legea (2. seihilekoa)				BIDERATZEN
		Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko Lege Orokorra, 3/1998 Legea ordezten duena **(2. seihilekoa)**			**EUSKO JAURLARITZAK KENDUA**

2013-2016 legegintzaldirako aurreikusi diren 28 legeetatik, 2015eko abenduaren 31rako, 5 onetsi dira, 17 Legebiltzarrean bideratzen ari dira, 2 Eusko Jaurlaritzak kendu ditu, eta gainerakoak Gobernu Kontseiluari aurkeztu aurreko bideratze fasean daude.

Lurralde historikoetako Batzar Nagusiei dagokienez, 2015. urteko araugintza, onetsitako foru arauen arabera neurtuz gero, hauxe izan da: Araban 19 foru arau onetsi dira, 2014. urtean baino 16 gutxiago; Gipuzkoan 4 arau onetsi dira eta 2014an, berriz, 13 berretsi ziren; eta Bizkaian, guztira, 8 arau onetsi dira 2015. urtean, aurreko urtean 11 onetsi arren.

V.1.1 GRAFIKOA. LEGEBILTZARRAREN ETA EUSKO JAURLARITZAREN ARAUGINTZA



Iturria: EGABek EHAOren datuak erabiliz eginikoa.

V.1.2. GRAFIKOA. LURRALDE HISTORIKOETAKO BATZAR NAGUSIEK ONETSITAKO FORU ARAUAK



Iturria: EGABek Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako aldizkari ofizialak erabiliz eginikoa

GLOSATEGIA

DEFINIZIOEN GLOSATEGIAK

SEKTORE PRODUKTIBOAK

- EJSN lau mailatan dago egituratuta (atalak, multzoak, taldeak eta klaseak)

	EJSN 93	EJSN 99
Atalak (kode alfabetikoa)	17 atal	21 atal
Multzoak (bi digituko zenbaki kodea)	60 multzo	88 multzo
Taldeak (3 digituko zenbaki kodea)	222 talde	272 talde
Klaseak (4 digituko zenbaki kodea)	512 klase	629 klase

Jarraian, EJSN 2009 azalduko da multzoen araberako kategorizazioraino

A	**Nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza eta arrantza**
01	Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta horiekin lotutako zerbitzuak
02	Basozaintza eta basoko ustiapena
03	Arrantza eta akuikultura
B	**Erauzketa-industriak**
05	Antrazita, harrikatza eta lignitoa
06	Petrolio gordina eta gas naturala ateratzea
07	Metalezko mineralak ateratzea
08	Beste erauzketa-industria batzuk
09	Erauzketa industriak bultzatzeko jarduerak
C	**Manufaktura-industria**
10	Elikagaien industria
11	Edarien fabrikazioa
12	Tabakoaren industria
13	Ehungintza
14	Jantzigintza
15	Larrugintzaren eta oinetakoen industria
16	Zuraren eta kortxoaren industria, altzariak izan ezik; otzaragintza eta espartzugintza
17	Paperaren industria
18	Arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreprodukzioa
19	Kokegintza eta petrolio-finketa
20	Industria kimikoa
21	Produktu farmazeutikoen fabrikazioa
22	Kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa
23	Metalezkoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa
24	Metalurgia, burdinazko produktuen fabrikazioa, altzairua eta burdin aleazioak
25	Metalezko produktuen fabrikazioa, makineria eta ekipamendua izan ezik
26	Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa
27	Material eta ekipamendu elektrikoen fabrikazioa
28	n.c.o.p. makineria eta ekipamenduaren fabrikazioa
29	Motordun ibilgailuen, atoien eta erdi atoien fabrikazioa
30	Beste garraio-material baten fabrikazioa
31	Altzarien fabrikazioa
32	Beste manufaktura-industria batzuk
33	Makineriaren eta ekipamenduaren konponketa eta instalazioa
D	**Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire egokituren hornidura**
35	Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire egokituaren hornidura
E	**Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta kutsadura kentzea**
36	Ura biltzea, araztea eta banatzea
37	Hondakin-uren bilketa eta tratamendua
38	Hondakinak biltzea, tratatzea eta desagerraraztea; balioestea
39	Kutsadura kentzeko jarduerak eta hondakinak kudeatzeko beste zerbitzu batzuk
F	**Eraikuntza**
41	Eraikinen eraikuntza
42	Ingeniaritza zibila
43	Eraikuntza espezializatuko jarduerak
G	**Handizkako eta txikizkako merkataritza; motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa**
45	Motordun ibilgailuen eta motozikleten salmenta eta konponketa
46	Handizkako merkataritza eta merkataritzako bitartekariak, motordun ibilgailuak eta motozikletak izan ezik
47	Txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuak eta motozikletak izanik ezik
H	**Garraioa eta biltegiratzea**
49	Lur gaineko eta hodi bidezko garraioa

50	Itsas garraioa eta barruko bide nabigagarrietakoa
51	Aireko garraioa
52	Biltegiratzea eta garraioari erantsitako jarduerak
53	Posta jarduerak
I	**Ostalaritza**
55	Ostatu zerbitzuak
56	Janari eta edari zerbitzuak
J	**Informazioa eta komunikazioak**
58	Edizioa
59	Zinematografia, bideo eta telebista programen jarduerak, soinu-grabaketa eta musika-edizioa
60	Programazioen jarduerak eta irrati eta telebista emisioa
61	Telekomunikazioak
62	Informatika programazioa, aholkularitza eta horrekin lotutako beste jarduera batzuk
63	Informazio zerbitzuak
K	**Finantza- eta aseguru-jarduerak**
64	Finantza-zerbitzuak, aseguruak eta pentsio-funtsak izan ezik
65	Aseguruak, berraseguruak eta pentsio-funtsak, nahitaezko Gizarte Segurantza izan ezik
66	Finantza- eta aseguru-zerbitzuen jarduera osagarriak
L	**Higiezinen arloko jarduerak**
68	Higiezinen arloko jarduerak
M	**Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak**
69	Zuzenbide eta kontabilitate jarduerak
70	Egoitza nagusien jarduerak; enpresa kudeatzeko aholkularitza jarduerak
71	Arkitektura eta ingeniaritzako zerbitzu teknikoak; entseguak eta analisi teknikoak
72	Ikerketa eta garapena
73	Publizitatea eta merkatu azterlanak
74	Beste jarduera profesional, zientifiko eta tekniko batzuk
75	Albaitaritza jarduerak
N	**Administrazio jarduerak eta zerbitzu osagarriak**
77	Alokairu jarduerak
78	Enpleguarekin lotutako jarduerak
79	Bidaia-agentzien jarduerak, turismo operatzaileak, erreserbako zerbitzuak eta horiekin lotutako jarduerak
80	Segurtasun eta ikerketa jarduerak
81	Eraikinetarako zerbitzuak eta lorezaintza jarduerak
82	Bulegoko administrazio jarduerak eta enpresentzako bestelako jarduera osagarriak
O	**Herri administrazioa eta defentsa; nahitaezko Gizarte Segurantza**
84	Herri administrazioa eta defentsa; nahitaezko Gizarte Segurantza
P	**Hezkuntza**
85	Hezkuntza
Q	**Osasun eta gizarte zerbitzuen jarduerak**
86	Osasun jarduerak
87	Egoitzetako laguntza
88	Ostaturik gabeko gizarte zerbitzuetako jarduerak
R	**Arte, jolas eta aisialdi jarduerak**
90	Sorkuntza eta arte jarduerak eta ikuskizunak
91	Liburutegi, artxibo, museo jarduerak eta bestelako kultur jarduerak
92	Ausazko jokoen eta apustuen jarduerak
93	Kirol, jolas eta aisialdi jarduerak
S	**Beste zerbitzu batzuk**
94	Elkarte jarduerak
95	Ordenagailuak, gauza pertsonalak eta etxeko erabilerako produktuak konpontzea
96	Beste zerbitzu pertsonal batzuk
T	**Etxeko jarduerak etxeko pertsonalaren enplegatzaileak diren aldetik; etxeko jarduerak norberaren erabilerarako ondasunen eta zerbitzuen ekoizleak diren aldetik**
97	Etxeko jarduerak etxeko langileen enplegatzaileak diren aldetik
U	**Lurraldez kanpoko erakundeen jarduerak**
99	Lurraldez kanpoko erakundeen jarduerak

- **EUSTAT-EN INDUSTRIARI BURUZKO INKESTA**

  EJSN 2009ren arabera, **atal** hauek biltzen ditu:
  - B: Erauzketa-industriak
  - C: Manufaktura-industria
  - D: Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire egokituaren hornidura
  - E: Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa

  Hala ere, bere sailkapena du, EJSNrekiko baliokidetasunak ezartzen badira ere

SAILKAPEN SEKTORIALA (A3, A6, A17, A31, A60, A84)

A3	A6	A17	A31	A60	A84	IZEN LABURTUA / DENOMINACIÓN ABREVIADA	
	1					Agropesquero	Nekazaritza eta arrantza
		1	1			Agropecuario	Nekazaritza eta abeltzaintza
				1		Agricultura y ganadería	Nekazaritza eta abeltzaintza
					1	Agricultura	Nekazaritza
					2	Ganadería	Abeltzaintza
				2	3	Selvicultura	Basogintza
		2	2			Pesca y acuicultura	Arrantza eta akuikultura
1				3	4	Pesca y acuicultura	Arrantza eta akuikultura
						Industria y construcción	Industria eta eraikuntza
	2					Industria	Industria
		3				Industrias extractivas	Erauzketa-industriak
			3			Extracción de petróleo y gas	Petrolioa eta gasa ateratzea
				4	5	Carbones	Ikatzak
				5	6	Extracción de petróleo y gas	Petrolioa eta gasa ateratzea
				6	7	Extracción de uranio	Uranioa ateratzea
			4			Min. metálicos y no metálicos	Metalezko eta ez-metalezko meak
				7	8	Minerales metálicos	Metalezko meak
				8	9	Minerales no metálicos	Ez-metalezko meak
		4				Industria manufacturera	Manufaktura-industria
			5			Industria de la alimentación	Elikagai-industria
				9		Industria de la alimentación	Elikagai-industria
					10	Industrias cárnicas	Okela-industriak
					11	Industrias lácteas	Esne-industriak
					12	Conservas de pescado	Arrain-kontserbak
					13	Pan y molinería	Ogia eta errotaritza
					14	Otras alimenticias	Bestelako elikagai-industriak
					15	Bebidas	Edariak
				10	16	Industria del tabaco	Tabakoaren industria
			6			Textil y confección	Ehungintza eta jantzigintza
				11	17	Industria textil	Ehunaren industria
				12	18	Confección y peletería	Jantzigintza eta larrugintza
			7			Industria del cuero y calzado	Larruaren eta oinetakoen ind.
				13	19	Industria del cuero y calzado	Larruaren eta oinetakoen ind.
			8			Industria de la madera	Zurgintza
				14	20	Industria de la madera	Zurgintza
			9			Papel, edición y gráficas	Papera, argitalpena eta grafik.
				15	21	Industria del papel	Papergintza
				16	22	Edición y artes gráficas	Argitalpena eta arte grafikoak
			10			Refino de petróleo	Petrolioa fintzea
				17	23	Refino de petróleo	Petrolioa fintzea
			11			Industria química	Kimika-industria
				18		Industria química	Kimika-industria
					24	Química básica	Oinarrizko kimika
					25	Química industrial	Industria kimikoa
					26	Química final	Azken kimika
			12			Caucho y plástico	Kautxua eta plastikoak
				19		Caucho y plástico	Kautxua eta plastikoak
					27	Caucho y neumáticos	Kautxua eta pneumatikoak
					28	Artículos de plástico	Plastikozko artikuluak
			13			Industria no metálica	Ez-metalezko industria
				20		Industria no metálica	Ez-metalezko industria
					29	Industria del vidrio	Beiragintza
					30	Cemento, cal y yeso	Zementua, karea eta igeltsua
					31	Otras no metálicas	Bestelakoez-metalezkoak
			14			Metalurgia y artíc. metálicos	Metalgintza eta metalezko artik.
2				21		Metalurgia	Metalgintza

					32	Siderurgia	Altzairugintza
					33	Metalurgia no férrea	Ez-burdinazko metalgintza
					34	Fundición	Galdategiak
				22		Artículos metálicos	Metalezko artikuluak
					35	Construcción metálica	Metalezko eraikuntza
					36	Forja y estampación	Forja eta estanpazioa
					37	Ingeniería mecánica	Ingeniaritza mekanikoa
					38	Artículos metálicos	Metalezko artikuluak
			15			Maquinaria	Makineria
				23		Maquinaria	Makineria
					39	Máquina-herramienta	Makina-erreminta
					40	Aparatos domésticos	Etxeko aparatuak
					41	Otra maquinaria	Bestelako makineria
			16			Material eléctrico	Material elektrikoa
				24	42	Maq. oficina y eq. informático	Bulego-mak. eta inf. tres.
				25	43	Material eléctrico	Material elektrikoa
				26	44	Material electrónico	Material elektronikoa
				27	45	Material de precisión	Doitasun handiko materiala
			17			Material de transporte	Garraio-materiala
				28	46	Automóviles y sus piezas	Automobilak eta horien piezak
				29		Otro material de transporte	Bestelako garraio-materiala
					47	Construcción naval	Ontzigintza
					48	Otro material de transporte	Bestelako garraio-materiala
			18			Otras manufactureras	Bestelako manufaktura-ind.
				30		Fabricación de muebles	Altzarigintza
					49	Fabricación de muebles	Altzarigintza
					50	Otras manufactureras	Bestelako manufaktura-ind.
				31	51	Reciclaje	Birziklatzea
		5	19			Energía eléctrica, gas y agua	Energia elektrikoa, gasa eta ura
				32		Energía eléctrica y gas	Energia elektrikoa eta gasa
					52	Energía eléctrica	Energia elektrikoa
					53	Gas y vapor de agua	Gasa eta ur-lurruna
				33	54	Agua	Ura
	3	6	20			Construcción	Eraikuntza
				34	55	Construcción	Eraikuntza
						Servicios	Zerbitzuak
	4					Comercio, hostelería y transp.	Merkataritza, ostalaritza eta garra.
		7	21			Comercio y reparación	Merkataritza eta konponketa
				35	56	Venta y reparación automóviles	Automobilak saldu eta konpontzea
				36	57	Comercio al por mayor	Handizkako merkataritza
				37	58	Comercio al por menor	Txikizkako merkataritza
		8	22			Hostelería	Ostalaritza
				38	59	Hostelería	Ostalaritza
		9	23			Transporte y comunicaciones	Garraioa eta komunikazioak
				39		Transporte terrestre	Lehorreko garraioa
					60	Transporte ferroviario	Burdinbide-garraioa
					61	T. mercancías carretera	Errepidezko zama-garraioa
					62	Otro transporte terrestre	Lehorreko bestelako garraioa
				40	63	Transporte marítimo	Itsasoko garraioa
				41	64	Transporte aéreo	Aireko garraioa
				42	65	Anexos al transporte	Garraio erantsiak
				43	66	Comunicaciones	Komunikazioak
	5					Banca, seguros y ser. Empresas	Bankuak, aseguruak eta enp.-zer.
		10	24			Banca y seguros	Bankuak eta aseguruak
				44	67	Banca	Bankuak
				45	68	Seguros	Aseguruak
				46	69	Auxiliares financieros	Finantza-laguntzaileak
		11	25			Servicios a empresas	Enpresentzako zerbitzuak
				47	70	Actividades inmobiliarias	Onibar-jarduerak
				48	71	Alquiler de maquinaria	Makineria alokatzea
				49	72	Actividades informáticas	Informatika-jarduerak
				50	73	Investigación y desarrollo	Ikerketa eta garapena
				51	74	Otras actividades empresariales	Enpresen bestelako jarduerak
	6					Otras actividades de servicios	Bestelako zerbitzu-jarduerak
		12	26			Administración Pública	Herri-administrazioa
				52	75	Administración Pública	Herri-administrazioa
		13	27			Educación	Hezkuntza
3				53	76	Educación	Hezkuntza

14	28			Sanidad y servicios sociales	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak
		54		Sanidad y servicios sociales	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak
			77	Sanidad	Osasuna
			78	Servicios sociales	Gizarte-zerbitzuak
15	29			Servicios personales	Gizabanakoentzako zerbitzuak
		55	79	Saneamiento público	Guztiontzako saneamendua
		56	80	Actividades asociativas	Elkarte-jarduerak
		57	81	Act. recreativas y culturales	Jolas- eta kultur jarduerak
		58	82	Servicios personales	Gizabanakoentzako zerbitzuak
16	30			Servicio doméstico	Etxeko zerbitzua
		59	83	Servicio doméstico	Etxeko zerbitzua
17	31	60		Organismos extraterritoriales	Lurraldez kanpoko erakundeak
			84	Organismos extraterritoriales	Lurraldez kanpoko erakundeak

I+G+b eta IKTak

- Enpresa berritzailea izango da inkestan kontuan hartutako tartean berrikuntzaren bat sartu duen enpresa.

- Berrikuntzatzat hartuko da produktu (edo zerbitzu) berria nahiz zeharo hobetua, prozesu berria, komertzializazio-metodo berria edo antolakuntza-metodo berria sartzea enpresaren barne-praktiketan, lantokiaren antolakuntzan edo kanpoko harremanetan. Berrikuntza guztien ezaugarri komuna zera izango da, aldaketa horiek dagoeneko sartuta egon beharko direla enpresaren lanean, hau da, merkatura atereak. Prozesu, komertzializazio-metodo edo antolakuntza-metodo bat sartuta dagoela esan daiteke modu eraginkorrean sartzen denean enpresaren eginkizunetan.

  Definizio hori kontuan hartuta, bi berrikuntza mota bereiz daitezke: berrikuntza teknologikoak eta berrikuntza ez teknologikoak. Berrikuntza teknologikoa produktu bat (ondasun bat edo zerbitzu bat, berria edo nabarmenki hobetua denean eta merkatuan sartuta dagoenean) edo prozesu bat (establezimenduan bertan prozesu berria edo nabarmenki hobetua ezartzea) izan daiteke, eta berrikuntza ez teknologikoak antolakuntzaren edo komertzializatzeko moduaren berrikuntzek osatzen dituzte.

- Jarduera berritzaileak dituen enpresa inkestan aztertutako urteetan berrikuntza-jarduerak garatu dituen enpresa da, abian diren berrikuntzak eta bertan behera utzitako berrikuntzak dituzten enpresak barne.

- Europako Berrikuntza Adierazleen Panel berria etengabe berrikusten den adierazle-panela da, berau osatzen duten adierazleei eta kalkulua egiteko formulari dagokienez nahiz urtero herrialdeen daturik eguneratuenak sartzen direlako. Horren ondorioz, seriea osoa kalkulatu beharra dago berriz.

  Europako Berrikuntza Adierazleen Panel berria herrialdeen ekonomiek berrikuntza-jarduerak egiteko zenbaterainoko gaitasuna duten eta zenbateraino garatzen dituzten neurtzen saiatzen da.

  Panela hiru multzo nagusitan dago egituratuta, eta multzo horietan 8 dimentsio eta 25 adierazle daude

BLOKEAK	DIMENTSIOAK	ADIERAZLEAK
BIDERATZAILEAK	**Giza baliabideak**	• Doktore graduatu berriak (25-34 urtekoen ‰) • Hezkuntza tertziarioa duten 30-34 urtekoen portzentajea • Gutxienez bigarren mailako hezkuntza gorena gainditu duten 20-24 urteko gazteen portzentajea
	Ikerketa sistema	• Nazioarteko baterako argitalpen zientifikoak, milioi biztanleko • Argitalpen zientifikoak gehien aipatzen diren top-10eko argitalpenen artean herrialdeko argitalpen guztien % gisa • EBtik kanpoko doktoreak herrialdeko doktore guztien % gisa
	Finantzaketa eta laguntza	• I+G arloko gastu publikoa BPGaren % gisa • Arrisku-kapitala BPGaren % gisa

ENPRESAKO JARDUERAK	**Enpresen inbertsioa**	• I+G arloko gastu pribatua BPGaren % gisa • I+G arlokoa ez den berrikuntzako gastua guztizko negozio zifraren % gisa
	Enpresa ekimeneko loturak	• Barne berrikuntza duten ETEak ETEen % gisa • Beste batzuekin kolaboratzen duten ETE berritzaileak ETEen % gisa • Baterako argitalpen publiko pribatuak, milioi biztanleko
	Aktibo intelektualak	• PCT patenteen eskaerak BPGko bilioiko (PPC eurotan) • Gizarte hondarren gaineko PCT patenteen eskaerak BPGko balio osoa (PPC eurotan) • EBko merkataritza markak BPGko bilioiko (PPC eurotan) • EBren diseinuak BPGko bilioiko (PPC eurotan)
OUTPUTAK	**Berritzaileak**	• Produktu edo prozesuko ETE berritzaileak ETEen % gisa • Marketineko edo antolamenduko ETE berritzaileak ETEen % gisa • Hazkunde handiko enpresa berritzaileak
	Eragin ekonomikoak	• Ezagutza trinkoko jardueretako enplegua, enplegu guztiaren % gisa • Teknologia ertain eta handiko produktuen esportazioak produktuen esportazioen % gisa • Ezagutza maila handiko zerbitzuen esportazioak zerbitzuen esportazio guztien % gisa • Merkaturako eta enpresarako produktu berrien salmentak negozio zifraren % gisa • Lizentzien eta patenteen ziozko atzerriko sarrerak BPGaren % gisa

LAN-MERKATUA

- Populazio aktiboa L.N.E. Lanaren Nazioarteko Erakundearen arabera (LNE), ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko lana egiten duten pertsona guztiak dira, eta une honetan lanik ez dutenak, lan bila ari direnak eta lanean hasteko prest daudenak. L.N.E. Populazio Landunarekin eta L.N.E. Populazio Langabetuarekin dago osatuta.

- Populazio ez aktiboa L.N.E. LNEren arabera, Populazio Aktiboa ez den populazioa da. Talde hauetan sailkatzen dira etxeko lanak egiten dituztenak, ikasten ari direnak, erretiroan daudenak, pentsiodunak, errenta dutenak eta ezinduak.

- Populazio landuna L.N.E. Ordaindutako lana duten, aparteko jarduera egiten duten eta lanean ari diren pertsona guztiek osatzen dute landunen populazioa, edo bestela, lanarekin lotura formala dutenak, edo opor, gaixotasun, laneko gatazka, gorabehera tekniko, eta abar direla-eta lanean ez daudenak.

- Langabeak L.N.E. LNEren arabera, soldatapeko lanik edo lan independenterik ez dutenak dira, egun lan bila ari direnak eta lan egiteko prest daudenak.

  2002. urteaz gero, aldatu egin da definizio hori egingarri egiteko era, Europar Batzordearen 1897/2000 Araudiari jarraiki. Urte hartatik hona, langabetzat hartzen dira, aurreko baldintzak betetzeaz gain, aurreko lau asteetan araudi horretan aktibotzat jotako lan-bilaketarako kudeaketaren bat egiten duten pertsonak. Ez da bilaketa aktibotzat jotzen lan eskaera berritzeko izapidea ("zigilua jartzea") edo prestakuntza ikastaroak direla-eta enplegu bulego publikoarekin harremanetan jartzea.

- Jarduera-tasa. Talde baten jarduera-tasa populazio aktiboaren barruan dauden talde horretako pertsonen proportzioa da. Ehunekoetan adierazi ohi da.

  16 urtekoen eta gehiagokoen gainean (urteak eginak) kalkulatzen dira P.R.A.n.

$$Tasa_Actividad = \frac{\sum activos}{\sum población\ \ 16\ \ y\ \ más} \times 100$$

- LNE okupazio-tasa. Talde bateko okupazio-tasa adin horretako guztizko populazioaren gaineko pertsona landunen proportzioa da. Ehunekoetan adierazi ohi da.
    - Bi adin-talderako kalkulatu ohi da tasa hori P.R.A.n.

      Lehenik eta behin, 16-64 urte bitartekoen (urteak eginak) populazioaren gainean kalkulaturiko okupazio-tasa eskaintzen du web orriak bere tauletan, halako moldez non Eurostatek darabilen definizioarekin alderatu daitekeen.

      $$Tasa_Ocupación = \frac{\sum ocupados}{\sum población \quad 16 \quad a \quad 64} \times 100$$

      Bigarrenik, Datuen Bankuak 16 urte eta gehiagokoen (urteak eginak) gainean kalkulaturiko okupazio-tasa eskaintzen du.

      $$Tasa_Ocupación = \frac{\sum ocupados}{\sum población \quad 16 \quad y \quad más} \times 100$$

    - Alabaina, Europa 2020 helburuari begira, 20-64 urtekoen tartea da.
- Langabezia-tasa. Langabezian daudenen talde horretako pertsona aktiboen proportzioari deritzo talde jakin bateko langabezia-tasa. Ehunekoetan adierazi ohi da.

  16 urte eta gehiagokoen populazioarekiko kalkulatzen da P.R.A.n.

  $$Tasa_Paro = \frac{\sum parados}{\sum activos} \times 100$$

HEZKUNTZA ETA HEZKUNTZA-PROMOZIOA

- **Lanbide Heziketa.**

  Lanarekin eta lan-merkatuarekin lotuago dauden ikasketen multzoa da Lanbide Heziketa, eta gaur egun, pertsonaren bizitza aktiboan gauzaturiko prozesutzat hartzen da. Izan ere, Lanbide Heziketa da eskolarako adinean dauden gazteentzako berezko “heziketa arautua” nahiz lanean ari diren langileentzako “enplegurako prestakuntza” edo lanbide “gaitasunaren aintzatespena”.

  Honelaxe dago antolaturik hezkuntza sistemako Lanbide Heziketako irakaskuntza: hasierako lanbide prestakuntzako programen (HLPP) lanbide modulu espezifikoak, gradu ertaineko prestakuntza zikloak, goi mailako graduko prestakuntza zikloak eta, etorkizunean, espezializazio ikastaroak.

  Lan-merkatuan arrakasta nabarmena duten 140 titulazio biltzen ditu Lanbide Heziketak. Tituluak 26 ADAR edo ARLO-tan sailkatzen edo taldekatzen dira.ADAR bakoitzak berekin dakar adar horretako zikloak partekatzen dituen marko teknologiko-ekonomikoa. 26 lanbide-adar horietako bakoitzean, gradu ertaineko eta goi mailako graduko prestakuntza zikloak daude, eta TEKNIKARIA eta GOI MAILAKO TEKNIKARIA tituluak ematen dituzte hurrenez hurren.

GIZARTE BABESA

- **Adin-bereizkeria**.
  Adin-bereizkeria, ingelesezko “ageism” ere deritzona (aldi berean, Europar Batasunak «edaismo» itzuli du termino hori) adinaren ziozko pertsonen estereotipifikazioa eta diskriminazioa da. Pertsonak adinaren arabera diskriminatzea zuritzeko sinesmenak, arauak eta balioak biltzen ditu.

- **Gizarte babeseko kontua**[1].
  SEEPROS Eskuliburuaren arabera, Gizarte Babesaren kontzeptuan "*ezarritako zenbait arrisku edo behar izateak familientzat eta norbanakoentzat dakarren zama arintzeko erakunde publikoek edo pribatuak egin dituzten jarduketa guztiak biltzen dira, betiere aldi baterako, elkarrekiko edo banakako akordiorik ez badago*". "Banakako akordiorik" ez izateak berekin dakar arriskuaren estaldura, kontingentzia edo beharra taldeka egitea, eta horrek alde batera uzten ditu banakoen, partikularren edo familien ekimenetatik eratorritako gastuak, soilik haien alde hartuak. Hortaz, Gizarte Babesaren definizio zabala da.

  Gizarte babesaren arloko estatistika horien aurrean, hala nola Lanaren Nazioarteko Bulegoarena esaterako (soilik Gizarte Segurantzako Sistemen barruko erakundeek buruturiko ekintzak sartzen ditu soilik), **SEEPROS metodologian,** definizio orokorreko beharkizunen arabera gizarte babeserako ekintzak burutzen dituen edozein erakunde publikori nahiz pribaturi aplika dakioke behaketaren arloa.

  Hona hemen gizarte babesaren kontzeptuaren barruko estaldura duten **kontingentziak:**

  •**Gaixotasuna / Osasun arretaren funtzioa**: funtzio horretan, bi prestazio mota sartu behar dira:
  - •Gaixotasunaren ziozko sarrera galera ordezteko eskudiruzko prestazioak.
  - •Osasun arretako prestazioa, prestazioa eragin zuena edozein delarik ere. Irizpide horren arabera, funtzio honetan sartzen da baliaezintasunaren edo amatasunaren ziozko laguntza, baliaezintasunaren edo familiaren ziozkoan sartu beharrean, hurrenez hurren. Langileari enpresan emandako osasun laguntza, aldiz, ez da bildu, prozesu produktiboan beharrezko input dela iritzita; enpresaburuak etekina lortzen du horri esker.

  •**Baliaezintasunaren funtzioa**: bi mota handitan sailka daitezkeen prestazioak biltzen ditu funtzio honek:
  - •Alde batetik, lan jarduera egiteko ezintasunagatiko galera osoa edo zatizkoa dela-eta sarreretan izandako murriztapenaren ordaina onuradunei emateko prestazioak, legerian ezarritakoaren arabera.
  - •Bestalde, errehabilitazio zerbitzuak eta beste batzuk, gaixotasuna/osasun arretaren funtzioan zenbatzen den osasun laguntzakoak izan ezik.

  Garrantzizkoa da zehaztea funtzio honetan soilik zenbatzen direla erretirorako adinera heldu ez diren onuradunek jasotako baliaezintasun-pentsioak. Adin hori gainditutа, zahartzaro funtzioari egozten zaio prestazioa. Era berean, laneko ezintasuneko aldiko prestazio ekonomikoak eta laguntzakoak (legean ezarritako irizpideekin bat etorrita) ez dira hemen sartzen, gaixotasuna/osasun arretaren funtzioan baizik.

  •**Zahartzaroaren funtzioa**: zahartzaroaren ondorioak arintzeko sortutako prestazioen multzo osoa hartzen du, hauexek barne: sarreren galera, ohiko jarduerak egiteko autonomiaren galera edo gizarte jardueraren murriztapena. Horrenbestez, pentsioak nahiz bestelako laguntza-prestazioak sartzen dira funtzio honetan.

  ESSPROS Eskuliburuan (2008) ezarritakoaren arabera, erretiroko eta zahartzaroko pentsioak eta baliaezintasuneko pentsioak biltzen ditu funtzio honek, 65 urte edo gehiago dituztenenak hain zuzen.

  •**Bizirik dirautenen funtzioa**: funtzio honetan, senideren bat edo haien euskarri ekonomiko nagusia zen pertsona galdu duten pertsonei emandako prestazio ekonomiko guztiak biltzen dira. ESSPROS Eskuliburuan (2008) ezarritakoaren arabera, bizirik irauteari dagozkion pentsio guztiak biltzen ditu.

[1] http://www.eustat.eus/estadisticas/tema_94/opt_0/tipo_5/ti_Cuenta_de_la_Proteccion_Social/temas.html

Era berean, heriotzak eragindako zamak estaltzeko zenbait konpentsazio biltzen dira, hala nola hiletak eragindako gastuak.

•**Familia / seme-alabak funtzioa**: seme-alaben jaiotzak eta hazkuntzak dakarten zama arintzeko eta familiako beste kide batzuk mantentzeko familiei emandako diru-laguntzak sartzen ditu. Erditu baino lehen edota ondoren emakume langileen errentari eustea sartzen da funtzio honetan.
Halaber, familia eta bereziki seme-alabak babesteko erabilitako gizarte zerbitzu guztiak sartzen dira funtzio honetan, hala nola zentro espezializatuetan edo etxe partikularretan ostatua ematea, edota haurtzaindegiko zerbitzuak.

•**Langabeziaren funtzioa**: SEEPROS Eskuliburuan (1996) funtzio hau biltzen da, enplegu politiketako ohiko sailkapenaren arabera, alde batetik, neurri pasiboak, hots, ordaindutako lanik ez izatearen ondorioak arintzeko direnak -bereziki nahikoa sarrera-iturria ez izatearen ondoriozkoa- eta, bestetik, neurri aktiboak, langabeziaren prebentziorako edo murriztekoak direnak.
Hortaz, honako hauek osatzen dute funtzio hau: langabezia subsidioak (partziala edo osoa), bizirik irauteko errentak edo erretiro aurreratuko pentsioak, betiere erretiroa hartzeko zioa lan-merkatuaren egoera bada, baina lanbide heziketako subsidioak eta onuradunaren egungo eta geroko enplegu posibilitateak hobetzeko era guztietako laguntzak eta prestazioak ere sartzen dira. Horrez gain, Gizarte Segurantzarako kotizazioak zenbatzen dira, INEMek bere karguan dauden langabetuei zenbait onura jasotzea ziurtatzeko eginikoak hain zuzen ere.

•**Etxebizitzaren funtzioa**: kasu honetan, etxebizitza gastuei aurre egiteko emandako laguntzak dira. Etxean bizi direnentzako laguntzak dira, etxebizitzaren jabeak izan nahiz alokairuan izan, eta ez eraikitzaileentzat edo beren etxebizitzetan bizi ez diren jabeentzat. Laguntzak, funtsean, alokairuen kostuak gutxitzeko edo hipoteken interesen ordainketak egiteko transferentzia arruntak izan ohi dira laguntzak emateko erak.
Aurreko edizioen aldean, edizio honetako funtzio honetan Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren arloan dituen eskumenak betetzearen ziozko gastuak sartzen dira. Ildo horretan, aldatu egin da serie osoa, emaitzek denboraren aldetik duten homogeneotasunari eusteko. Metodologia dela-eta, etxebizitza erosten dutenentzako mesedegarriak diren zuzeneko diru-laguntzen eta interesen subsidioen ondoriozko zenbatekoak zenbatu dira soilik, baita alokairurako etxebizitza sustatzen eta erosten dutenentzako laguntzak ere.

•**Beste inon sailkatu ez diren Gizarte Bazterkeriaren funtzioa**: funtzio honek garrantzi txikia du SEEPROS Eskuliburuan (1996) planteatzen den funtzio-eskemaren barruan. Beste ezein funtziotan sartzen ez diren eta arriskuekin eta beharrekin lotuta dauden prestazioak biltzen dira. Prestazioen serie heterogeneoa dakar funtzioak, jakina, eta horren ezaugarri nagusia diru-baliabide urriarekin lotutako gizarte bazterkeria ekiditeko edo zelanbait arintzeko ahaleginak egitea da, edo osasunaren, hezkuntzaren edo enpleguaren inguruko arazoetan.

Bestalde, hona hemen EAEko **Gizarte Babeseko Kontuko sistemak eta sistema taldeak:**

• **Gizarte Segurantzaren sistema.** Gizarte Segurantzaren Nazio Erakundeak, Itsasoko Gizarte Erakundeak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak, laneko istripuen mutuek eta lanbide-gaixotasunek kudeaturiko gizarte segurantzako hainbat araubide osatzen dute honako talde hau.

Sistema espezifiko honetan, gizarte segurantzaren familia-babesa biltzen da. Gizarte Segurantzaren Konpentsazio-funtsa fikziozko sistema da, transferentzia-konpentsazio gisa dihardu gizarte segurantzan superabita eta defizita duten araubideen artean. Izan ere, araubide horietan bana ezin daitezkeen gastuak eta sarrerak egoztean zaizkio sistema horri.

•**Enpleguko Nazio Erakundea:** talde independentea da, berez, eta langabeziaren zizoko gizarte babesean duen garrantziagatik nabarmentzen da.

• **Funtzionario publikoen araubideak:** epigrafe honetan, Funtzionario Publikoen Araubide Bereziaren menpeko gizarte babesaren horniduraren gaineko gastuak eta diru-sarrerak biltzen dira. Honako hauek jasotzen ditu: oinarrizko prestazioak edo klase pasiboen araubidea eta epealdian indarrean dauden funtzionarioen hiru mutualitatek ordaindutako administrazioko mutualismoari dagozkionak, hots, Estatuko Funtzionario Zibilen Mutualitatea (MUFACE), Indar Armatuen Gizarte Erakundea (ISFAS) eta Mutualitate Orokor Judiziala (MUGEJU). Horrez gain, herri administrazioek soldatak eta ordainsariak mantentzeko kontzeptuan ordaindutako diru-kopuruen zenbatespena sartzen da talde honetan langileei eragiten dieten aldi baterako ezintasunari eta amatasunari dagozkien kasuetan.

•**Gizarte Babeseko beste sistema batzuk:** askotariko sistemek eta erakundeek emandako gizarte babesak hartzen duen hondarra da, eta hori dela-eta, talderik heterogeneoena da. Hona hemen biltzen dituen sistemarik garrantzitsuenak:

•**Osasun sistema publikoa:** euskal administrazioen jarduketak biltzen ditu, osasunaren arloan dituzten eskumenak direla bide.

•**Gizarte zerbitzuen sistema publikoa:** EAEko administrazioko maila ezberdinek gizarte zerbitzuen arloan dituzten erantzukizunak biltzen ditu.

Langileek enplegatzaileengandik zuzenean jasotzen dituzten prestazioak, bi sistematan banatuak prestazioen nahitaezkotasunaren arabera.

•**Segurantza fenomenoak:** gizarte aseguruaren definizioari dagokio, Kontuen Europako Sistema arabera (SEC-95); bereziki Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen (BGAE) jarduketaren zati bat, horrela katalogatu daitekeena.

•**Herri erakundeen egintza:** helburu espezifikoa du gizarte babesaren arloan, hala nola Soldatak Bermatzeko Funtsa (FOGASA).

•**Irabazteko asmorik gabeko erakunde pribatuen jarduketa,** gizarte zerbitzuen arlokoa.